

EUSKALTZAINDIA

**EUSKAL
GRAMATIKA**
LEHEN URRATSAK-V
(MENDEKO PERPAUSAK - I)

Euskal Gramatika. Lehen Urratsa V: Mendeko Perpausak (I)

Sail honetako aurreko gramatiketan perpaus bakunaren egitura, aditza, testu antolaketarako lokailuak eta perpaus juntatuak landu ondoren, oraingo honetan mendeko perpausen azterketari lotu zaio Gramatika batzordea. Menderakuntzari eskainiko dizkion hiru liburuetatik lehena da *EGLU V* liburukia. Honetan eta hurrengoan aditz jokatudun perpaus mendekoak aztertuko dira eta azkenean aditz jokatugabeak. Zalan-tzarik gabe esan daiteke orain arteko euskal gramatiketan nekez ikusi daitekeen zehaztasun eta xehetasunarekin deskribatu direla *EGLU V*-eko perpaus mota aditz jokatudunak: perpaus osagarriak, erlatiboak, konparatiboak eta ondoriozkoak.



EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK-V
(MENDEKO PERPAUSAK-1:
Osagarriak, erlatiboak,
konparaziozkoak, ondoriozkoak)

GRAMATIKA BATZORDEA
EUSKALTZAINDIA
1999



EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA

EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK - V

(MENDEKO PERPAUSAK-1:

Osagarriak, erlatiboak,
konparaziozkoak, ondoriozkoak)

1999



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKALTZAINDIA

ELIZKIZUNA

Osorik edo zatiz, eskuz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimenik gabe,
galarazirik dago.

© EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO.

E-mail / E.euskalbilbo@j.ehu.es

Fotokonposizioa: IKUR, S.A.

c/ Cuevas de Ekuin, 3-1º - 48005 BILBO

Inprimategia: ARTES GRAFICAS RONTEGUI, S.A.L.

c/ Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

I.S.B.N.: 84-85479-94-7

D.L.: BI-2028-99

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Patxi Altuna

Idazkaria: Jesus Mari Makalazaga

Kideak:

Miren Azkarate

Luis Baraiazarra

Piarres Charritton

Andolin Eguzkitza

Patxi Goenaga

Alan King

Jose Mari Larrarte

M^a Pilar Lasarte

Jose Antonio Muxika

Beñat Oyharçabal

Francisco Ondarra

Karmele Rotaetxe

Pello Salaburu

EGLU-V

Txostengileak:

Patxi Altuna
Miren Azkarate
Andolin Eguzkitza
Patxi Gocnaga
Alan King
Jose Mari Larrarte
Jose Antonio Muxika
Beñat Oyharçabal
Karmele Rotaetxe

Laguntzaileak:

Luis Baratazarra
Piarres Charritton
M^a Pilar Lasarte
Jesus Mari Makatzaga
Francisco Ondarra
Pello Salaburu

Azken moldatzalleak:

Jesus Mari Makatzaga
Jose Antonio Muxika

Corpus-a maneiatzea eta *EJIE*-rekiko
bitartekotza: Jesus Mari Makatzaga

AURKIBIDEA

AURKEZPEN GISA	1
0. SARRERA	5
0.1. Menderakuntza.....	5
0.2. Menderakuntza eta juntadura.....	6
0.3. Menderakuntzaren ezaugarri morfosintaktikoak.....	7
a. Adizki alokutiboak.....	7
b. Adizkiaren flexio markak.....	8
c. Osagaien hurrenkera.....	8
0.4. Formatik abiaturiko analisia.....	9
0.5. Adizki jokatzeko perpausak.....	11
1. PERPAUS OSAGARRIAK	13
1.1. Sarrera	13
1.1.1. Konplementazioa edo osagarri-erlazioa zer den.....	13
1.1.2. Konplementazioaren osagaiak.....	17
1.1.2.1. Hiru osagai.....	17
1.1.2.2. Elementu gobernatzaileak.....	19
1.1.2.3. Perpaus osagarriak.....	21
a. Perpaus jokatuak eta ezjokatuak.....	21
b. Subjuntiboa.....	22
c. Eskema.....	23
1.1.2.4. Menderagailuak.....	24
a. Perpaus jokatuaren menderagailuak.....	24
b. Adizkien formak, menderagailuak hartzean.....	25
1.1.3. Perpaus osagarri jokatuaren sailkapena.....	27
1.2. Perpaus osagarri jokatuaren ezaugarri orokor batzuk	30
1.2.1. Zebar-estiloa.....	30
1.2.2. Denbora komunztadura perpaus osagarrietan.....	32
1.2.3. Perpaus osagarri jokatuaren funtzio sintaktikoa.....	35

1.2.4. Hitzen ordena perpaus osagarrietan.....	37
1.2.4.1. Perpaus osagarrien kokapena.....	38
a. Ohiko kokapena: aditz nagusiaren ezkerrean edo eskuinean	38
b. Mendekoaren galdegaia edo mintzagaia aditz nagusiaren aurre-aurrean	41
1.2.4.2. Perpaus osagarrien barruko ordena.....	44
a. Mendeko perpausaren elementuren bat haren aditzaren esku- inean	44
b. Ezezko perpaus osagarrien ordena.....	44
1.3. Adierazpen-perpaus osagarriak	45
1.3.1. Nolakoak diren adierazpen-perpaus osagarriak.....	45
1.3.2. <i>-eLA</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak ...	46
1.3.2.1. Gobernatzaille motak	46
1.3.2.2. Predikatu konplexuak gobernatzaille.....	51
1.3.2.3. Gobernatzaillea guttiz edo partez isilpean dutenak.....	52
1.3.2.4. Gobernatzaille berezi hatzuk.....	54
1.3.2.5. <i>-eLA</i> osagarria eta <i>-eLA</i> adberbiala.....	57
1.3.2.6. Adierazpen-perpausak ez dira deklinatzen	58
1.3.2.7. <i>-eLAKA</i> eta <i>-eLA ETA</i>	59
1.3.2.8. Adierazpen-perpaus osagarrien ordainak.....	60
1.3.2.9. <i>Ezen</i> lokailua <i>-eLA</i> perpaus osagarrien lehen buruan.....	62
1.3.2.10. Osagarriaren aurrekariak perpaus nagusian.....	65
1.3.3. <i>-eNA</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak ...	67
1.3.4. <i>-eNIK</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak ..	69
1.3.5. <i>-eN</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak	76
1.3.5.1. <i>-eN</i> menderagailua hartzen duten gobernatzailleak	76
1.3.5.2. <i>Galde hitza</i> + <i>-eN</i> egiturako adierazpen-perpausak	77
a. <i>Nola, zelan</i>	77
b. <i>Horra non...</i> gisako esapideak	77
1.3.6. <i>BAIT-</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak ..	79
1.3.7. <i>-eLA</i> -rekin edo beste menderagailu batekin egin daitezkeen perpaus osagarriak	81
1.4. Galde-perpaus osagarriak edo zehargalderak	83
1.4.1. Oinarrizko zenbait gogoeta.....	83
1.4.1.1. Nolakoak diren zehargalderak	83
a. Adierazpenak eta galderak	83

b. Zehargalderak eta galdera zuzenak.....	85
c. Zehargaldera motak.....	88
1.4.1.2. Zehargalderen gobernatzaileak.....	90
1.4.1.3. Gobernatzailea isilpean.....	91
1.4.1.4. Zer funtzio sintaktiko betetzen duten zehargalderek.....	92
1.4.1.5. Zehargalderak ezin deklina daitezke.....	94
1.4.1.6. Elementuen ordena.....	95
a. Perpaus nagusia eta mendekoa.....	95
b. Barneko ordena.....	95
c. <i>Nola</i> , kasu berezia.....	96
1.4.2. Zehargaldera orokorrak.....	98
1.4.2.1. Menderagailua.....	98
a. <i>-eN</i> eta <i>-eNETZ</i>	99
b. <i>BA-</i> aurrizkia zehargalderetan.....	100
1.4.2.2. <i>Ea</i> partikula.....	101
a. <i>Ea</i> -ren erabilera.....	101
b. <i>Ea</i> -ren kategoria.....	104
1.4.2.3. <i>Ote</i> eta <i>al</i> partikulak.....	106
a. <i>Ote</i>	106
b. <i>Al</i>	109
1.4.2.4. Galdegaiguneko <i>BA-</i> zehargalderetan.....	109
1.4.2.5. <i>Ala / edo</i> aukera galderetan.....	112
a. <i>Ala / edo</i> juntagailuen erabilera.....	112
b. Zehargalderako adizki guztiek daramate menderagailua.....	113
1.4.3. Zehargaldera zatizkoak.....	115
1.4.3.1. <i>Ea</i> eta <i>ote</i> zatizko zehargalderetan.....	115
1.4.3.2. Aditz nagusirik gabeko zehargaldera zatizkoak.....	117
a. <i>Ea</i> partikula buruan dutenak.....	118
b. Gauzak zeren arabera diren esaten digutenak.....	118
c. Harridura perpausak.....	120
1.4.3.3. Zehargalderak eta perpaus erlatiboak.....	120
[Bitariko esanahia].....	124
1.4.3.4. Galde hitzak adierazpen-perpaus osagarrietan.....	128
1.5. Subjuntiboko perpaus osagarriak.....	131
1.5.1. Nolakoak diren subjuntiboko perpausak.....	131
1.5.2. Subjuntiboko perpaus osagarrien ezaugarri batzuk.....	133

1.5.3. Subjuntiboko perpaus osagarrien gobernatzaileak	134
1.5.4. Subjuntiboko perpaus osagarrien menderagailua	136
1.5.4.1. Iritzi-jarrerak adierazten dituztenak: <i>-eN</i>	136
1.5.4.2. <i>Nahia</i> edo <i>desira</i> adierazten dutenak: <i>-eN / (-eLA)</i>	137
1.5.4.3. <i>Eskaera</i> edo <i>galdea</i> adierazten dutenak: <i>-eN / -eLA</i>	138
1.5.4.4. <i>Agindua</i> edo <i>debekua</i> adierazten dutenak: <i>-eN / -eLA</i> ...	140
1.5.4.5. Lokabe itxurako subjuntiboak eta gobernatzailetik no- labait "bereiz" daudenak: <i>-eLA</i>	142
1.6. Perpaus osagarri izenlagunak	145
1.6.1. Nolakoak diren perpaus osagarri izenlagunak.....	145
1.6.2. Perpaus izenlagun adierazpenekoak	146
1.6.2.1. <i>-eN</i> menderagailua duten perpaus izenlagunak	146
1.6.2.2. <i>eLAKO</i> menderagailua dutenak	147
a. <i> -eLAKO + izena </i> cgitura agerian dutenak.....	147
b. Izen gobernatzailea isilpean dutenak	149
• <i>-eLAKOA</i>	149
• <i>-eLAKOAN</i>	149
c. <i>Baiezko</i> eta <i>ezezko</i> , perpaus izenlagunen ordain.....	151
1.6.2.3. Erabide okerreko erabilera batzuk	151
a. <i>*-eLAREN + izena</i>	151
b. <i>*-eLAZKO + izena</i>	151
c. <i>*-eNAREN + izena</i>	152
d. <i>*-eNEKO + izena</i>	152
1.6.3. Zehargalderak, izenaren osagarri?	153
1.6.4. Subjuntiboko perpaus izenlagunak	155
Laburpena	159
2. PERPAUS ERLATIBOAK	173
2.1. Sarrera	173
2.1.1. Zer diren perpaus erlatiboak	173
2.1.2. Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak	174
2.2. Perpaus erlatibo arruntak	176
2.2.1. Izen sintagma erlatibatua: perpaus erlatiboan isildua dena ...	176
2.2.2. Perpaus erlatiboetako menderagailua	177
2.2.3. Perpaus erlatiboaren tokia ardatzari buruz	178
2.2.3.1. Perpaus erlatiboa eta ardatzari dagozkion beste izenlagunak	178

2.2.3.2. Izenondoen tokian, ardatzaren eskuinean, agertzen diren perpaus erlatiboak	178
2.2.4. Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste perpaus menderatu batekoa denean	180
2.2.5. Perpaus erlatiboen barneko osagaien tokia	183
2.2.6. Zein diren erlatiba daitezkeen izen sintagmak	184
2.2.6.1. Erlatibatzeko eskala	184
2.2.6.2. Testuinguruaren garrantzia	188
2.2.7. Erlatibakuntza errazteko bideak	189
2.2.7.1. Kasu paralelismoa	189
2.2.7.2. Izenordain erresuntiboak	189
2.2.7.3. Sintagma erlatibatuak aditz komunztadura dakarrenean ..	192
2.2.7.4. Leku-denborazko izen ardatza duten perpaus erlatiboet -KO atzikiak emanez	196
2.2.7.5. Galderazko izenordain adberbiala erresuntibo gisa erabil- tzea	196
2.2.8. Izen ardatzaren nolakotasuna	197
2.2.8.1. Erlatiboak agertzen diren sintagmetan ardatz izan daitez- keen izenak	197
2.2.8.2. Ardatza izenondoa denean	198
2.2.9. Erlatibigintza gertatzen den perpausak zer motatakoak izan daitezkeen	198
2.2.9.1. Zer perpaus mota izan daitezkeen perpaus erlatiboak	198
2.2.9.2. Perpaus erlatibo subjuntiboak	199
2.2.9.3. Perpaus erlatibo arrunten balioa	200
2.2.10. BA- baiezkua perpaus erlatiboetan	202
2.2.11. Perpaus erlatiboetan metatzea	203
2.2.11.1. Ardatz beraren inguruan metatzen diren erlatiboak	203
2.2.11.2. Izen sintagma berean, ardatz desberdinak izanik bata- bestea barneratzen duten erlatiboetan metatzea	204
2.2.12. Perpaus erlatibo subjektiboak	205
2.2.13. Izen ardatza isildurik daukaten perpaus erlatiboak	206
2.2.13.1. Ingurumenak ekarritako ardatz ezabaketa perpaus erlati- boetan	206
2.2.13.2. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoak ..	208
2.2.13.3. Erlatibatzeko eskala erlatibo generikoetan	209

2.2.13.4. Predikatu osagarri diren ardatzik gabeko erlatiboak	211
2.2.14. Perpaus erlatibo arruntak aposizioan	213
2.2.14.1. Alboko aposizio arruntak	213
2.2.14.2. Aposizioko perpaus erlatibo gibeleratuak.....	214
2.2.14.3. Kanpoko ardatzaren eta aposizioko perpaus erlatibo gibe- leratuaren arteko kasu komunztadurarik eza	215
2.2.14.4. Erlatibatzecko zailtasunak eta erresuntiboen erabilera per- paus erlatibo apositiboetan.....	216
2.2.15. <i>BA-</i> aurrizkia perpaus erlatibo ardatz agerikorik gabekoetan ..	217
2.2.16. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo subjektiboak	218
2.3. ZEIN-erlatiboak	218
2.3.1. <i>ZEIN</i> -erlatiboen ezaugarriak	218
2.3.2. Menderagailuen forma.....	221
2.3.3. Izenordain erlatiboaren forma.....	221
2.3.3.1. <i>Zein</i> formako izenordain erlatiboak	222
2.3.3.2. <i>Zein</i> izenordaina eta numero komunztadura	223
2.3.3.3. <i>Zeina(k)</i> formako izenordainak.....	225
2.3.3.4. <i>Zein(a)</i> izenordaina eta pertsona komunztadura.....	226
2.3.4. Izenordain erlatiboari dagozkion kasu markak.....	226
2.3.5. <i>ZEIN</i> -erlatibo konplexuak.....	229
2.3.6. <i>ZEIN</i> -erlatiboen tokia aurrekariaren eretzera	232
2.3.6.1. <i>ZEIN</i> -erlatiboak hurbileko aposizioan	232
2.3.6.2. <i>ZEIN</i> -erlatiboak erlatibo gibeleratuak direnean.....	234
2.3.6.3. <i>ZEIN</i> -erlatiboak predikatu osagarri direnean.....	234
2.3.7. <i>ZEIN</i> -erlatiboen balioa.....	235
2.4. BAIT-erlatiboak	240
2.4.1. <i>BAIT</i> -erlatiboen ezaugarriak	240
2.4.2. Erresuntiboen forma.....	241
2.4.3. <i>BAIT</i> -erlatiboetako izen sintagma erlatibatuaren kasu marka....	243
2.4.4. <i>BAIT</i> -erlatibo konplexuak	244
2.4.5. Aposizio motak	245
2.4.6. <i>BAIT</i> -perpausen anbiguitatea	246
2.4.7. <i>BAIT</i> -perpausoko izenordain batek aurrekari gisa perpaus bat duenean	246
2.5. Korrelazioz moldaturiko perpaus erlatiboak	247
2.5.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena	247

2.5.2. Korrelaziozko perpausen egitura	248
2.5.3. Korrelaziozko perpausen balioa.....	250
2.5.4. Izenordain korrelatu aurrekariaren forma.....	251
2.5.5. Izenordain korrelatu anaforikoaren forma.....	252
2.5.6. Lokailuak korrelaziozko perpaus erlatiboetan.....	254
2.5.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai ...	255
2.5.8. Perpaus erlatibo korrelatuaren tokia	256
2.6. Aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten erlatiboak.....	257
2.6.1. [Galde izenordaina + <i>BAIT</i> -perpaua] gisako perpausak	257
2.6.2. [Galde izenordaina + aditz subjuntiboa] gisako perpaus erlatibo generikoak.....	258
Laburpena.....	261
3. KONPARAZIO PERPAUSAK	271
3.1. Konparazio perpausak orokorrean.....	271
3.1.1. Konparazioaren adierazpidea hizkuntzan	271
3.1.2. Konparazio perpausen zeregina.....	272
3.1.2.1. Adjektibo sintagmaren, adberbio sintagmaren nahiz izen sintagmaren osagai.....	272
3.1.2.2. Konparazio perpaua, adberbio sintagma.....	273
3.1.3. Konparazio perpaus motak	273
3.1.3.1. Berdintasuna eta desberdintasuna.....	274
3.1.3.2. Konparazioaren gaiaren araberako sailkapena: maila, zenbatasuna eta modua	275
a. Maila konparazioa.....	276
b. Zenbatasunezko konparazioa.....	277
c. Modu konparazioa.....	277
3.1.4. Konparazio egituraren osagaiak.....	279
3.1.4.1. Bi atal.....	279
3.1.4.2. Maila-hizkia eta konparazio morfema.....	281
3.1.5. Konparazioa bidertzeko egiturazko baldintzak.....	284
3.1.6. Konparazioaren egitura orokorra.....	291
3.1.6.1. Konparazio perpausaren taxu orokorra.....	291
3.1.6.2. Konparazio morfemen gramatika kategoria	296
3.1.6.3. Perpaus konparatiboa eta mugatzailea.....	298

3.1.6.4. <-eN + konparazio morfema> ala <-eNA + konparazio morfema>?	299
3.1.6.5. Konparazio perpausa eta zenbatzailea	302
3.1.7. Zer osagai ager daitezke konparazio morfemaren ezkerretara? ..	304
3.1.7.1. Aditz eta guztiko perpausa	305
3.1.7.2. Perpaus murriztua	306
3.1.8. Osagaien ordenaz	308
3.1.9. Konparazioaren beste alderdi bat: superlatiboa	309
3.1.9.1. Zer da superlatiboa?	309
3.1.9.2. Superlatibo erlatiboa	310
3.1.9.3. Erreferentzia esparrua "ahala" ere izan daiteke, nolabait	313
3.1.9.4. Superlatiboa eta mugatzailea	314
3.1.9.5. Superlatiboa eta konparatiboa ez dira nahastu behar	315
3.2. Berdintasunezko konparazioa	316
3.2.1. Maila	316
3.2.1.1. Berdintasunezko maila konparazioko morfema: <i>bezain</i> ..	316
3.2.1.2. Zenbait adibide	317
a. Aditz "modalak" + <i>bezain</i>	317
b. <i>Uste izan</i> + <i>bezain</i>	318
c. {- <i>TZEKO</i> , - <i>RENTZAKO</i> , - <i>RENDAKO</i> ...} + <i>bezain</i>	319
d. Izen sintagma ergatiboa + <i>bezain</i>	319
e. Izen sintagma absolutiboa + <i>bezain</i>	320
f. Perpaus osagarria + <i>bezain</i>	321
g. Izen sintagma datiboa + <i>bezain</i>	321
h. Adizlaguna + <i>bezain</i>	322
i. Osagai bat baino gehiago + <i>bezain</i>	322
j. Baldintza perpausa + <i>bezain</i>	322
k. Adjektiboa + <i>bezain</i> + adjektiboa / adberbioa	323
l. <i>Izan</i> aditza + -eN + <i>bezain</i> + adjektiboa / adberbioa	323
m. ... + <i>bezain</i> + <i>laster</i>	324
n. ... ez <i>bezain</i>	326
3.2.2. Zenbatasuna	326
3.2.2.1. Berdintasunezko kantitate-konparazioa adierazteko morfe- mak	326
a. <i>Adina</i>	327
b. <i>Adinbat</i>	327

c. <i>Bezainbat</i>	327
d. <i>Bezainbat</i> -en bidez osatutako bi esapide.....	328
• “...-eN bezainbatean”.....	328
• “... denaz bezainbatean”.....	328
e. <i>Beste</i>	328
f. <i>Bezainbeste</i>	329
g. <i>Hainbeste</i> zenbatzailea da.....	329
h. <i>Lainbeste</i>	330
i. <i>Dina</i>	331
j. <i>Lain</i> eta <i>doi</i> ere konparazio morfema?.....	331
3.2.2.2. <i>Zenbait</i> adibide.....	333
a. Aditza agerian + konparazio morfema.....	333
b. Aditz modalak + konparazio morfema.....	334
• <i>Behar</i> ... + konparazio morfema.....	334
• <i>Nahi</i> ... + konparazio morfema.....	335
• <i>Ahal</i> ... + konparazio morfema.....	336
• <i>Ezin</i> + aditz partizipioa + konparazio morfema.....	336
• <i>Ezin</i> + aditz jokatua + -eN + konparazio morfema.....	337
• Ahalerazko adizkia + -eN + konparazio morfema.....	337
c. <i>Uste izan, merezi, on izan</i> ... + konparazio morfema.....	337
d. {-TZEKO, -RENTZAKO} + konparazio morfema.....	339
e. Izen sintagma ergatiboa + konparazio morfema.....	340
f. Izen sintagma absolutihoa + konparazio morfema.....	341
• Adizlagun gisa.....	341
• Izen sintagmaren osagai gisa: izen sintagma + <i>adina</i> + izen sintagma.....	342
• Izen predikatu gisa.....	343
• Perpaus osagarria + konparazio morfema.....	344
• <i>Beste</i> genitibo eta guzti ere ageri da.....	344
g. Izen sintagma datiboa + konparazio morfema.....	344
h. Adizlaguna + konparazio morfema.....	345
• -KO <i>beste</i>	345
i. Osagai hat baino gehiago + konparazio morfema.....	346
j. Baldintza perpausa + konparazio morfema.....	348
k. Zenbatzailea + konparazio morfema.....	348
l. Zenbatasunetzko morfemak maila konparazioetan.....	348

• Izen predikatuzko egituretan	349
• Neurri adjektiboekin.....	350
• Gainerako adjektiboekin.....	351
m. <i>Ez</i> + konparazio morfema.....	352
n. Partitiboa + konparazio morfema	352
3.2.2.3. <i>Adinako, adinbateko, besteko, bezainbateko</i> eta antzekoak ..	353
• Genitiboarekin	354
3.2.3. Modua	355
3.2.3.1. Modu konparazioa zer den.....	355
3.2.3.2. Modu konparaziorako morfemak.....	356
a. <i>Bezala</i> eta <i>legez</i>	356
b. <i>Bezalaxe</i> eta <i>legetxe</i>	359
c. <i>Bezal-bezala</i> eta <i>bezalatsu</i>	360
3.2.3.3. Egitura.....	360
3.2.3.4. Zenbait adibide.....	361
a. Perpaus osoa + { <i>bezala / legez</i> }	362
b. Partizipioa + { <i>bezala / legez</i> }	363
c. Aditz modalak + { <i>bezala / legez</i> }	364
d. <i>Uste izan</i> + { <i>bezala / legez</i> }	365
e. {- <i>TZEKO, -RENTZAKO, -RENDAKO</i> } + { <i>bezala / legez</i> }..	366
f. Izen sintagma ergatiboa + { <i>bezala / legez</i> }.....	366
g. Izen sintagma absolutiboa + { <i>bezala / legez</i> }	366
h. Izen sintagma datiboa + { <i>bezala / legez</i> }	367
i. Adizlaguna + { <i>bezala / legez</i> }	367
j. Osagai bat baino gehiago + { <i>bezala / legez</i> }	368
k. ... <i>BA-</i> ... + { <i>bezala / legez</i> }.....	368
• <i>Bailitzan, bailuen</i> tankerako esapideak.....	370
• <i>BA-</i> ... <i>bezala</i> esamoldearen erabilera oker bat.....	371
l. <i>Ez</i> + { <i>bezala / legez</i> }	372
3.2.3.5. <i>Bezala</i> -ren beste erabilera batzuk	373
a. “ <i>X bezala Y ere</i> ” tankerako esamoldeak	373
b. { <i>Bezala / legez</i> }, posposizio	374
c. { <i>Bezala / legez</i> }, hurbiltze balioarekin	375
d. { <i>Bezala / legez</i> }-dun perpausa mintzagai	376
e. <i>Bezala, -eN neurrian</i> -en baliokide ere izan daiteke	377
f. Denbora balioa duelarik	379

g. Esaten dena egia dela azpimarratzeko	379
h. Aposiziozkoak	379
i. Nolabaiteko kausa edo adierazteko baliatzen ahal dugu esamolde hau	380
3.2.3.6. <i>Bezalako</i>	381
a. <i>Bezalako / legezko</i> , izenlagun sortzaile	381
b. <i>Bezala</i> ala <i>bezalako</i> , izen predikatuetan?	383
c. <i>Bezalako</i> , <i>bezain</i> -en ordain	385
d. <i>Bezalako(t)xe / bezalaxeko</i>	386
e. <i>Lako / lango</i> = <i>bezalako</i>	387
f. <i>Ez bezalako</i>	387
3.3. Desberdintasunezko konparazioa	389
3.3.1. Maila	389
3.3.1.1. <i>Baino</i> ... -AGO	389
3.3.1.2. <i>Baino</i> eta <i>baizen</i>	390
3.3.1.3. Zenbait adibide	391
a. Aditz eta guztiko perpausa + <i>baino</i> ... -AGO	391
b. Aditz modalak + <i>baino</i> ... -AGO	392
c. <i>Uste izan</i> + <i>baino</i> ... -AGO	392
d. Izen sintagma ergatiboa + <i>baino</i> ... -AGO	393
e. Izen sintagma absolutiboa + <i>baino</i> ... -AGO	393
f. Izen sintagma datiboa + <i>baino</i> ... -AGO	393
g. Adizlaguna + <i>baino</i> ... -AGO	393
h. <i>Nahiago</i> , <i>gurago</i> , <i>maiteago</i> , <i>beharrago</i> , <i>hobe</i> , <i>hobetsi</i> ... predikatu konparatiboenkin	393
• <i>Nahiago / hobe</i> eta hauen tankerako osagarriaz ohar bat ..	394
i. Osagai bat baino gehiago + <i>baino</i> ... -AGO	395
j. ... <i>BA-</i> ... + <i>baino</i> ... -AGO	395
k. <i>Izan</i> aditza + -eN + <i>baino</i> ... -AGO	396
l. Adjektiboa + <i>baino</i> ... + adjektiboa + -AGO	396
m. <i>Baino</i> + <i>lehen(ago)</i>	397
• <i>Geroago / beranduago</i>	400
3.3.1.4. Desberdintasunari maila ezar dakioke	404
3.3.1.5. <i>Baino</i> + <i>ere</i>	405
3.3.1.6. <i>Baino</i> -dun perpausaren kokagunea	405
3.3.1.7. <i>Baino</i> -z osaturiko zenbait esapide	407

a. Galde hitzekin: <i>Zein baino zein... -AGO, nor baino nor ...-AGO, noiz baino noiz ...-AGO</i> etab.....	407
b. <i>X + baino + X-AGO</i>	408
c. <i>Bainoago</i>	408
3.3.1.8. <i>Baino, -AGO-rik gabe?</i>	409
3.3.1.9. <i>-AGO ... ezen (ez)</i>	410
3.3.1.10. <i>Zein-eta, baino-ren ordez</i>	411
3.3.1.11. Instrumentalaren bidezko konparazioa	411
3.3.2. Zenbatasuna	412
3.3.2.1. Desberdintasunezko konparazioa bideratzeko morfemak....	412
3.3.2.2. Egitura	413
3.3.2.3. Konparazioa bera ere mailaka daiteke	413
3.3.2.4. Konparazioaren erreferentzia puntua adierazi gabe utz daiteke	414
3.3.2.5. Zenbait adibide.....	415
a. Aditz eta guztiko perpausa + <i>baino...</i> -AGO	415
b. Aditz modalekin	415
c. <i>Uste izan, merezi... + baino...</i> -AGO	415
d. {-TZEKO, -RENTZAKO} + <i>baino...</i> -AGO.....	415
e. Izen sintagma ergatiboa + <i>baino...</i> -AGO.....	416
f. Izen sintagma absolutiboa + <i>baino...</i> -AGO	416
g. Izen sintagma datiboa + <i>baino...</i> -AGO	416
h. Adizlaguna + <i>baino...</i> -AGO	417
i. Osagai bat baino gehiago perpaus txertatua.....	417
j. Baldintza perpausa + <i>baino...</i> -AGO.....	417
k. Zenbatzailea + <i>baino...</i> -AGO	418
• Ohiko bidea	418
• -TIK gora.....	419
• <i>Gehiago-ren</i> kokagunea	421
l. Bi esaldiren egiatasuna ere konpara daiteke.....	421
3.4. Eredu erromanikoz eratutako perpaus konparatiboak	421
3.4.1. Eredu erromanikozko konparatiboak	421
3.4.1.1. Zenbatasunezko konparazioa	423
a. <i>Hainbat ... [nola... BAIT- / -eN]</i>	423
b. <i>Ez hainbeste ... nola</i>	424
3.4.1.2. Maila konparazioa.....	424

a. <i>Hain</i> ... [nola... BAIT- / -eN]	424
b. <i>Halako</i> ... [nola...]	425
c. <i>Berdin</i> ... <i>nola</i>	426
d. <i>Nola</i> -ren ordez <i>zein (eta)</i>	426
3.4.1.3. Modu konparazioa	426
a. <i>Hala</i> ... [nola... BAIT- / -eN]	426
b. \emptyset ... <i>nola</i>	427
c. <i>Hala</i> ... <i>nola</i> , banakaritzaren adierazle	427
3.4.2. Korrelazioak	428
3.4.2.1. Modu konparazioa bideratzen duten korrelazioak	430
a. [Nola... BAIT-] ... <i>hala</i>	430
b. ... <i>bezala</i> ... <i>hala</i>	430
3.4.2.2. Zenbatusunezko konparazioa bideratzen duten korrelazioak:	431
• [Zenbat... <i>hainbat</i>]	431
3.4.2.3. Maila konparazioa bideratzen duten korrelazioak:	432
• [Zenbate(na)z ... BAIT- ...] <i>hanbate(na)z</i>	432
3.4.2.4. Mailaren kuantifikazioa bideratzen duten korrelazioak:	
<i>Zenbat eta</i> ...-AGO ... <i>hainbat</i> ... gisako esamoldeak	433
a. <i>Zenbat (eta)</i> ...-AGO ... <i>hainbat</i> ...-AGO	434
b. <i>Zenbat ere</i> ... BAIT- <i>hainbat</i> enaz ...-AGO	434
c. <i>Zenbate(na)z</i> ...-AGO ... <i>hainbate(na)z</i> ...-AGO	435
d. <i>Hainbat</i> enaz ...-AGO ... <i>zenbat</i> enaz ...-AGO	435
e. <i>Zenbat gabeko</i> korrelazioa: ...-AGO (<i>eta</i>) ...-AGO	436
f. <i>Gero(ago) (eta)</i> ...-AGO	436
Laburpena	439
4. ONDORIO PERPAUSAK	445
4.1. Ondorio perpausak zer diren	445
4.2. Ondorio perpausen taxua	448
4.2.1. Mendeko ondorio perpausak	449
4.2.1.1. Egitura orokorra	449
4.2.1.2. Perpaus txertatuaren taxua	449
4.2.1.3. -eLA atzizkiak ez du lekurik perpaus kontsekutiboetan	450
4.2.2. Mendeko perpausen ordez alborakuntzaz balia gaitzeko	451
4.2.3. Osagaien hurrenkera	452

4.3. Mendeko ondorio perpausen zenbait eredu	453
4.3.1. Lokailua dutenak	453
a. <i>Hain ... non (eta) ... {BAIT- / -eN}</i>	453
b. <i>{Hainbeste / hainbat}... non ... {BAIT- / -eN}</i>	454
c. <i>Hainbatenaz ... -AGO ... non ... BAIT-</i>	455
d. $\left\{ \begin{array}{l} \text{Hainbate(ta)raino ... non BAIT-} \\ \text{Hainbeste(ta)raino ... ezen ... -eN} \end{array} \right\}$	455
e. <i>Hain ... ezen ... BAIT-</i>	456
f. <i>Hain ... zein eta ... -eN</i>	456
g. <i>Halako {maneran / moldez / suertez / gisaz...}</i> <i>{non / ezen} ... {BAIT- / -eN}</i>	457
h. <i>Hainbatenaz (ere) ... non ... BAIT-</i>	457
4.3.2. Lokailurik gabe	457
4.3.3. Ezeztapena eta galdera ondoriozko perpausetan: subjuntiboaren agerpena	458
4.3.4. Erlatiboak eta kontsekutiboak	459
4.4. Ondorio perpausean menderagailurik ez dutenak	460
4.4.1. Lokailua daramatenak	461
a. <i>Hain ... ezen ... \emptyset</i>	461
b. <i>Hain ... non ... \emptyset</i>	462
c. <i>Halako {eran / moduz / modutan...} ... non ... \emptyset</i>	462
d. <i>Hain modutan ... ze ... \emptyset</i>	462
4.4.2. Lokailurik gabeak	463
Laburpena	465
Bibliografia:	
A. Bibliografia	467
B. Bibliografia era laburtan	481
Gai aurkibidea	491

AURKEZPEN GISA

Hizlariak, kantariak eta horrelakoak aurkezterakoan ohituak gaude "orain gure artean dugun honek ez du aurkezpen beharrik, aski ezaguna baita" bezalakoak entzutera. Oraingoan, aurretik beste lau haurride izan dituenek, gure *EGLU V* honek ere ez luke aurkezpen handirik behar. Dena dela, gure azken emaitza kaleratu genuenetik dagoeneko bost urte igaro direnez, agian ez dagoke soberan aurkezpen gisako hau.

Edukiaz zerbait esan beharrean gara. Aurreko liburukiei begiratzen badiegu, aski argi ikusten da *EGLU* proiektuaren nondik norakoa: perpaus bakunarekin hasi ginen, izen sintagmari eta aditz sintagmari zegozkionak aztertuz lehenbiziko bi liburukietan; ondoren, lokailuak aztertu genituen (*EGLU III*) eta azkenik, laugarrenean juntadura aztertzen saiatu ginen. Horrenbestez, azken liburuki honekin perpaus elkartuen alorrean sartu ginen. Baina perpaus elkartuak osatzeko juntadura ez ezik menderakuntzaz ere baliatzen gara. Horrenbestez, edozein euskal gramatikak perpaus menderatuak aztergai hartu behar ditu. Hain zuzen, liburuki honekin ematen diogu hasiera euskal gramatikaren atal nagusi honi. Eta "hasiera eman" badiogu, oraindik ere hasieran gaudelako da. Hain zuzen, gauzak uste baino motelago joan badira, aztergaiaren zailtasunean bilatu behar da arrazoiak. Gaiak euskal gramatika tradizioan zenbat eta gutxiago landuak diren, hainbat handiagoa eskatzen dute ahallegina.

Horrenbestez, irakurleak liburuki honetan honako perpaus jokatuak aurkituko ditu: 1. kapituluan *perpaus osagarriak* biltzen dira, hauetan zehargalderak eta subjunktibozkoak ere aztertzen ditugula. 2.ean *perpaus erlatiboak* aztertzen dira, *-eN* atzizkiak osatzen diren erlatibo "arruntak" alde batetik, baina baita izenordain erlatiboaz horniturik agertzen direnak ere: *zein ... BAIT- / -eN* taxukoak. 3. kapituluan, erlatiboekin zerikusi formala duen beste perpaus mota bat aurkezten da: *perpaus konparatiboak*. Hemen ere, erlatiboetan beza-

la, eredu "arruntaren" ondoan, eredu erromanikoa (*hain ... nola ... BAIT- / -eN*) dutenak ere biltzen dira. 4. kapitulua, azkenik, *ondorio perpausei* eskainia dago.

Horra liburuki honen edukia. Gai gutxi, behar bada, baina zeresan handi-koak. Orain arteko euskal gramatika lanetan maiz aztertuak izan diren gaiak dira batzuk, baina beste batzuk oso gutxi aztertuak. Nolanahi ere, orain arteko gramatiketan gai hauei eskaini zaien orrialde kopuruarekin alderatuz, oraingoan zertxobait gehiago kontatzen dela pentsatzekoa da. Guk hala uste dugu. Dena dela, ez bedi irakurlea behar baino gehiago izu. Zeren liburuki honetan azalpenak eta deskribapenak ez ezik, adibide mordo bat ere biltzen saiatu gara. Izan ere, horretarako bi helburu izan ditugu gidari: batetik, arazok ahalik eta sakonkien deskribatzen eta argitzen saiatu, baina bestalde, erabiltzaile arruntak itzuli baten edo esamolde baten taxu zuzena zein den erabakitzen laguntzea. Eta horretarako, maiz, azalpen agorrek edo aspergarriak baino praktikoagoak gertatzen dira ereduzko adibideak. Horra, hemen aurkituko dituzun adibide ugarien zergatikoa.

Eta jakina, adibiderik gehienak, orain arteko liburukietan bezala, *OEH*-ko corpus informatizatutik atereak dira. Badira beste batzuk bestelako testuetatik atereak ere. Eta gutxienak geuk asmatuak dira. Euskaltzaindiaren corpus horretaz baliazeko *EJIE*-ren eta *UZEI*-ren laguntza eskergaitza izan dugu; bereziki *UZEI*-ko Miriam Urkiarena eta Lexikografia Sailarena. Haiek bilatu baitzizkigute behar genituen adibideak. Eskerrak, beraz.

Eskerrak eman behar dizkiegu halaber duela urtebete edo material honen lehen zirriborroa aurkeztu genuenean, Areatzan 1998ko uztaillean, han ahoz eta geroago idatziz oharrak egin dizkigutenei. Bereziki eskertu nahi ditugu Bittor Hidalgo eta Iñaki Zubizarreta.

Eta beti bezala, liburuki hau zerbait irekia izatea nahi genuke. Hemen ez da agortzen euskal gramatika. Gureak baino azalpen zuzenagoak edo egokiagoak ere izango dira maiz. Denen ekarriekin noizbait euskal gramatika osoa eta egokia izango dugulakoan gaude. Ez dezagun ahantz gramatika honek, deskriptiboa izanik ere, euskararen arautzeari eta normaltzeari lagundu behar diola.

Azken ohar bat oraindik grafiei buruz. Izan ere, aurreko lanetan bezala, autore zaharren testuak gaurko ortografia-sistemara egokitu ditugu, *ch* *tx* bihurtuz, *c* eta *qu* *k* bihurtuz etab. Gainera, autoreen eta liburuen aipamenak egiteko, *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ageri diren bezalaxe eman ditugu (zenbaitetan izenburu luzcak laburtu egin baditugu ere).

Gramatika batzordea

0. SARRERA

0.1. Menderakuntza

Perpauus menderatuak zer diren *EGLU IV*-ren *Sarrera*-n azaltzen saiatu ginen. Hango zenbait kontu berriro harrotzea ez legoke gaizki, hala ere.

Mendeko perpauusak, perpauusak dira. Horrenbestez, normalean aditza eramango dute bere baitan, agerian nahiz ezkutuan. Baina mendekoak direnez, beste aditz baten, izen baten, adjektibo edo aditzondo baten mende edo perpauus osoaren mende joango dira:

(1) Mirenek kontatu zidan [zuk ez diozula agurrik egiten].

Zuk ez diozula agurrik egiten mendeko perpauus bat da, goragoko perpauusko *kontatu zidan* aditzaren mende doana.

(2) [Agurrik egiten ez dizun] neska hori harro xamarra da.

Oraingoan ere *agurrik egiten ez dizun* mendeko perpauusa dugu, baina ez da aditz nagusiaren mendeko zuzen, *neska hori* sintagmaren mendeko baizik.

(3) [Atzo azaldu nizun bezala], Josebak arazoak ditu lantegian.

Atzo azaldu nizun bezala, oraingoan perpauus nagusiaren (*Josebak arazoak ditu lantegian*) mende ageri da. Horrenbestez, hau ere mendeko perpauusa dugu.

Beti ere, mendeko perpauusa goragoko perpauus baten osagai izango da, eta goragoko perpauus nagusi honetan beste zenbait sintagmak bete ohi duen zeregin bera betetzen du. Adibidez, goiko (1) adibidean mendeko perpauusak betetzen duen zeregina (4)an izen sintagma batek bete dezake:

(4) Mirenek kontatu zidan [istorio harrigarri hura].

Eta (2) eta (3)ren parean erraz asma daitezke mendeko perpausaren ordezt bestelako osagaiak dituzten perpausak. (5) eta (6) adibidez:

(5) [Mirenen ondoko] neska hori harro xamarra da.

(6) [Edumeren arabera], Josebak arazoak ditu lantegian.

(1-3)ren eta (4-6)ren artean dagoen diferentzia bakarra da, lehenbizikoetan perpausak ditugula (aditzaren agerpenak argi salatzen duenez) eta azken hiruetan, berriz, ez. Hauetan izen sintagma edo posposizio sintagma soilak ditugu.

0.2. Menderakuntza eta juntadura

Bai menderakuntza bai juntadura, biak, perpausak elkartzeko bideak ditugu. Bietan perpaus bat baino gehiagorekin aritzen gara, baina bien arteko diferentzia sintaktikoa dela esan dezakegu. Menderakuntzan, goiko adibideek erakusten duten bezala, perpaus bat beste baten barnean txertatua ageri da, bata mendekoa eta bestea honen nagusia delarik. Hierarkia bat dago, hortaz, menderakuntzan. Juntaduran ere perpaus bat baino gehiagorekin ari gara, baina ez dugu menderakuntzan daukagun txertakuntzarik. Oraingoan perpaus juntatuak elkarren pareko dira. Ezin dugu hitz egin perpaus nagusi batez eta honen mendeko batez. Perpaus juntatuak maila berean aurkitzen dira. Honako hauek, adibidez, perpaus juntatuak ditugu:

(7) [Gizon hori Bilbon bizi da] baina [sari joaten da Baionara].

(8) [Autoa eraman zioten] eta [biziki haserretu zen gizona].

Perpaus hauek (1)ekin alderatzen baditugu, erraz ikusten da aldea:

(1')_p[Mirenek kontatu zidan _p[zuk ez diozula agurrik egiten]].

(7')_p[Gizon hori Bilbon bizi da] baina _p[sari joaten da Baionara].

Menderakuntzaren eta juntaduraren arteko erlazio hau berdin-berdin ger-

tatzen da perpausaren bestelako osagaien artean ere. Adibidez, (9)an *gizona* izen sintagma *ikusi* aditzaren mende doa, baina (10)ean *gizona* eta *haur txiki hori* izen sintagmak juntatuak ditugu:

(9) Haurrak [gizona] ikusi du.

(10) [Haur txiki hori] eta [gizona] parkean dabilta.

0.3. Menderakuntzaren ezaugarri morfosintaktikoak

Menderakuntzak berekin dakartzan ezaugarri morfosintaktikoen artean *EGLU IV*-an aipatzen ziren hiru irizpideak ere gogoratu beharko genituzke.

a. Adizki alokutiboak

Batetik, mendeko perpausaren ez da adizki alokutiborik erabiltzen:

(11) *Inori ez zioadala esango uste diat.

(Cf. Ez zioat inori esango).

Hortaz, adizki alokutibo bat agertzen bada –esaldia zuzena bada, noski–, seinale perpaus lokabe bat dela edo juntadura dugula, inola ere ez menderakuntza. Hain zuzen, juntaduran zilegi da adizki alokutiboak erabiltzea:

(12) Ez nioan inori laguntzarik eskatu eta, azkenean, neronek atera behar izan nian autoa.

Egia da, hala ere, zenbait perpausetan (-*TA* enklitikoz osatuetan, adibidez), forma alokutiboak zilegi direla, nahiz eta mendeko perpaustzat hartzeko joera dugun:

(13) Hago lasai, ondo ari duk eta.

Hala ere, irizpide honek erakutsiko liguke, hain zuzen, (13) bezalako perpausak ez direla oraindik ere zeharo mendeko. Erdibidean bezala daudela, alegia (ikus *EGLU IV*, 8. or.).

b. Adizkiaren flexio markak

Bigarren ezaugarria, adizkiaren flexioak ematen digu. Mendeko perpausetako adizkiek flexioan ezaugarri bereziak izan ohi dituzte. Ezaugarri horiek atzizkiak izan daitezke (-eN, -eLA, -eNEZ, -eNIK, -eNEZ GERO, -eLAKO(Z), -eLARIK, eta abar) edo aurrizkiak (BA- eta BAIT-).

Irizpide hau zentzuzkoa bada, esan nahi du aginterazkotzat edo hartu ohi diren zenbait adizkik ere -eN eta -eLA atzizkiak erakusten dituztenez (*kanta dezagun, berak egin dezala*, eta abar), perpaus hauek ere berez mendekoak direla. Perpaus nagusia nolabait ezabatua duten perpaus mendekoak izango lirateke.

Hau adizki jokatu ez ari garenean. Baina euskaraz perpaus bateko adizkia jokatu gabea ere izan daiteke. Adizki jokatu gabeak pertsona komunztadura markarik ez dutenak izan ohi dira (*eroste, erosi, eros*). Komunztadura markarik ezaz gainera, denbora markarik ere ez dute izaten. Perpaus batean normalean adizki jokatu gabea ageri bada, hau ere mendeko perpaus bat delako seinaleztat hartu ohi dugu. Horrenbestez, honako adibide hauetan denetan mendeko perpausak izango ditugu:

- (14) a. [Etxean gelditzea] bururatu zaigu.
- b. [Garaiz etortzeko] eskatu genion.
- c. [Gutuna idatzi ondoren] kalera irten zen.
- d. Ez dakigu [nori eska(tu)].
- eta abar.

Beraz, aipatu diren marka berezi horiek erakusten baditu adizkiak, badakigu mendeko perpaus baten aurrean gaudela.

c. Osagaien hurrenkera

Aurreko liburukian aipatzen zen beste hirugarren irizpidea hitzen hurrenkera zen. Mendeko perpaus gainerako sintagmek edo osagaiak perpaus bar-

nean hartzen duten lekua betetzen dute. Beraz, batzuek zein besteek mugikortasun edo mugikortasun-ez bera izango dute. Mugikortasun hori falta dute perpaus juntatuak.

Perpaus juntatueta juntagaiak atzekoz aurrera jarriz gero, esanahia aldatu egiten da maiz:

- (15) a. Gutuna idatzi nion eta haserretu egin zen.
- b. Haserretu egin zen eta gutuna idatzi nion.

Goiko bi perpaus horien arteko aldea argi dago. Honako hauek, berriz, ez dute horrelako alderik:

- (16) a. Motel xamar zebilela esan zidaten atzo.
- b. Atzo esan zidaten motel xamar zebilela.

0.4. Formatik abiaturiko analisisia

Bigarren irizpidea –adizkiaren flexioa, alegia– iruditzen zaigu denetan argiena eta baliagarriena. Irizpide morfosintaktikoa dela esan dugu. Horrenbestez, irizpide formala da. Esanahiari eta horrelakoei erreferentziarik ez die egiten. Izan ere, badakigu esanahiaren aldetik eduki bera modu askotara eman daitekeela aditzera: perpaus lokabeen bidez, juntadura bidez edo menderakuntza bidez. Esaterako, honako adibide hauek esanahiaren aldetik aski parekoak badira ere, morfosintaxiaren aldetik nahiko desberdinak dira:

- (17) a. Berandu da. Ez dut tren harrapatuko.
- b. Berandu da eta ez dut tren harrapatuko.
- c. Berandu denez, ez dut tren harrapatuko.

Kontu honen aurrean guk ere bide bat hartu behar eta, jakina, bide segurua eta fidagarriena, formari so egiten diona da.

Horrenbestez, guk ere perpausetan ageri diren elementu formalak izango ditugu kontuan gure lana antolatzeke orduan. Eta, hain zuzen, lehenbiziko bereizketa gisa honako hau egin daitekeela dirudi:

- (18) Perpaus mendekoak $\left\{ \begin{array}{l} \text{adizki jokatzekoak} \\ \text{adizki jokatugabeak} \end{array} \right.$

Ohiko gramatiketan, bestelako bereizketak ere egiten dira: *osagarriak*, *erlatiboak*, *baldintza-zkoak*, *konparatiboak*, *denborazkoak*, eta abar, gramatika funtzioen eta eduki semantikoen arteko halako nahaste bat eginez. Zail da, egia, maila nahaste hauetatik ihes egitea. Ohituak gaude batetik, eta eroso xamarrak ere izan daitezke. Horregatik, guk ere *perpaus osagarriak*, *erlatiboak* eta abar aipatuko ditugu. Alde honetatik, *-eLA* atzizkiak osatzen diren perpaus osagarriak bereiziko ditugu, baina adizki jokatugabez osatutako osagarriak edo erlatiboak ere bereizi beharrean izango gara. Esate baterako, honako hauek formaz hain desberdinak izanda ere, maila batean klase berekotzat har litezke:

- (19) a. [Berandu etorriko dela] esan dit.
 b. [Garaiz etortzeko] esan dit.

Formari begiraturuz gero, (19a)ko perpaus txertatua adizki jokaturuz osatua dago eta *-eLA* atzizkia darama. (19b)koa ez bezala, hain zuzen. Baina, gramatika funtzioari begiraturuz gero, biak dira funtzio bereko: bietan mendeko perpausa *esan* aditzaren osagarri dela esango dugu. Hauentzat on da *perpaus osagarri* edo *konpletibo* deitura gordetzea. Baina esanahiari so eginez gero, (19a)n perpaus txertatua adierazpen bat den bitartean, (19b)n agindu edo erre-gu bat dela esan daiteke. Kasu honetan argi dago formazko desberdintasuna ez ezik, esanahizkoa ere badugula. Hau ez da beti gertatzen hala ere. Honako honetan, adibidez, adizkian nabarmen den diferentzia gorabehera, esanahiaren aldetik ez dirudi alde handiegirik dagoenik:

- (20) a. Garaiz etorri gero, leku ona izango duzu.
 b. Garaiz bazatoz, leku ona izango duzu.

Maila hauek denak (*forma*, *gramatika funtzioa* eta *esanahia*) behar bezala bereiztea beti erraz ez bada ere, komeni da ahalegintza.

Irizpide formala dugu argiena, esan dugunez. Bestelako irizpideetan oi-

narritutako sailkapenak askoz badaezpadakoagoak dira. Adibidez, erraz da *-eNEAN* amaiera duten perpausak bereiztea eta hauen egitura zein den eta, azkenik, zer nolako esanahia duten ikustea. *-TZEAN* gisa amaitzen diren perpaus jokatu gabeen forma ere erraz ikusten da. Perpaus horien osiera ere aski argia da. *-eNEAN* eta *-TZEAN* alde horretatik desberdinak dira hein handi batean, nahiz eta biek azken muturrean inesiboaren *-N* marka daramaten. Formaz duten diferentzia horrek ez du eragozten bi perpaus motek funtsean esanahi bera izatea, denborazkoa alegia. Baina hau da kontua: azterketa egiteko eta aurkezteko orduan, errazago eta argiago gertatzen da formatik abiatzea eta ez esanahitik. Hots: denborazko adberbio perpausak aztertzeari ekin geniezaioke forma desberdineko itzuliak eta egiturak zaku berean sartuz. Hau bide bat litzateke. Beste bide bat da, ordea, gramatika forma desberdinak ongi bereziti lehenbizi eta, azkenean, esanahiari buruzko behar direnak kontatzera. Hau da guk aukeratu dugun bidia.

0.5. Adizki jokatzeko perpausak

Guri dagokigunez, oraingo liburuki honetan adizki jokatzeko osatzen diren perpausaz ariko gara. Horrenbestez, gorago aipatu ditugun bi multzo handi horietako bat hartuko dugu lehenbizi aztergai: adizki jokatu duten perpausak. Baina perpaus hauen esparua hain zabala izanik, oraingo honetan adizki jokatzeko perpaus batzuk bakarrik aztertuko ditugu, besteak hurrengorako utziz. Hain zuzen, oraingo honetan adizki jokatzeko perpaus *osagarriak*, *erlatiboak*, *konparatiboak* eta *ondoriozkoak* jaso ditugu.

Lehenbiziko atalcan *perpaus osagarriak* biltzen ditugu. Osagarri deitura honek funtzioari egiten dio erreferentzia, baina multzo honetan sartu ditugu, behar bezala bereizita, aditz jokatu duten perpaus osagarri guztiak, subjuntiboak eta zehargalderak barne:

- (21) a. [Joango naizela] esan iezaziozu.
 b. [Noiz joango naizen] ez dizut esango.
 c. Esan iezaziozu [kontuz ibil dadila].

Bigarren atalean *perpaus erlatiboak* aztertzen dira. Hauetan bi multzo handi bereiz daitezke: arruntak (*-eN* atzizkiak horniturik ageri direnak) eta

bestelakoak, bereziki izenordain erlatiboaz osatuak (*zein ... BAIT- / -eN* gisa-koak):

- (22) a. [Ikusten gintuzten] lagun guztiek zerbait esaten ziguten.
b. Irakin hartatik ateratzen da ke bat, zeinek itsutzen baitu adimendua.

Hirugarren kapituluan, *konparaziozko perpausak* dira aztergai. Hauek ere formalki badute antzik erlatiboekin. Eta haietan bezala, hemen ere konparati-
bo "arruntak" (*-eN bezain, -eN adina, -eN baino ...-AGO*, eta abar) aztertzen
dira alde batetik eta taxu erromanikoa edo dutenak, bestetik:

- (23) a. Zuk uste duzun baino gehiago daki horrek.
b. Irakasleak adina jakitera ez zara iritsi oraindik.
c. Egin balitz euskaraz hainbat liburu, nola egin baita latinez, bestela ibiliko gina-
teke orain.

Azken kapituluan *ondorio perpausak* aurkezten ditugu. Hauek badute kon-
paratiboekin zerikusirik. Izan ere, perpaus nagusian maila hitzen bat edo
kuantifikatzailearen bat aurkitzen dugu beti, eta honekin nolabait "lotua" dator
ondorio perpausa. Hala ere, formaren ikuspegitik, ondorio perpaus guztiak ez
dira mendeko perpausak. Hain zuzen, *-eN* edo *BAIT-* morfema duten perpaus-
ak hartuko ditugu mendekotzat. Horrelako markarik ez daramatenak -beti
ere gure irizpideari eutsiz- perpaus alboratuak izango ditugu. Hauek, jakina,
ez lukete hemen tokirik, baina behin forma batetik tiraka hasiz gero, forma
horrekin zerikusia duten guztiak aurkeztea bidezko ikusi dugu.

Horra liburuki honetan aztertzen ditugun egiturak. Hurrengoan etorriko
dira adizki jokatzeko gainerakoak (*denborazkoak, baldintzazkoak, kausazko-
ak*, eta abar).

Adizki jokatugabez osatutako perpaus txertatuei, herriz, "Lehen Urrats"
hauen azken liburukia eskainiko diegu. Hauetan ere forma argi dago eta forma
horretatik abiatuz iritsiko gara perpaus mota desberdinetara. Hauetan ere osa-
garriak, erlatiboak, denborazkoak, baldintzazkoak eta abar bereizi beharko
baititugu.

1. PERPAUS OSAGARRIAK

1.1. SARRERA

1.1.1. Konplementazioa edo osagarri-erlazioa zer den

Perpau multzo zabal eta garrantzitsu bat izendatzeko erabiltzen dugu "perpau osagarriak" deitura, euskal gramatika askotan "konpletibo" deitu izan direnak ere barne direla. Mendeko perpau hauen ezaugarria honako hau da: perpau nagusiko elementu batekin "konplementazio-erlazioan" daudela. Erlazio hori zer-nolakoa den ulertzeko, ikus dezagun ondoko adibide zerrenda luzea –perpau osagarriak letra etzauez ematen dira–:

- (1) a. *Etxea saldu duela* esan digu Josebak.
- b. Badakit *Josebak etxea saldu duela*.
- c. Badakit *Josebak etxea saldu duena*.
- d. Eskerrak *ama etorri den*.
- e. Ez dut uste *Hilbora joango naizenik*.
- f. Beharrik *ama jin baita*.
- g. Ez dago garbi *etxea salduko ote duen*.
- h. On da *denok zerbait egin dezagun*.
- i. *Lan gehiago egin dezagun* nahi dute gure ugazabek.
- j. *Liburu hori liburutegira itzul dezazula* eskatzen dizut.
- k. *Liburu hori liburutegira itzultzeko* eskatzen dizut.
- l. *Datorren urtean nobela berri bat idaztea* espero dut.
- m. On da *denok zerbait egitea*.
- n. On da *zerbait egitea*.

- o. *Liburutegira etortzera* behartuta zaude.
- p. *Liburutegira etortzen* ikusi zaitut.
- q. Erabaki behar dut *noiz Joan Bilbora*.

Bistan da perpaus osagarri hauek multzo zabal eta, zenbait ikuspegitatik, heterogeneoa osatzen dutela, baina denak sail batean biltzeko arrazoiak ere badirela uste dugu. Izan ere, perpaus nagusian dagoen *elementu gobernatzaile* baten osagarri dira denak:

- (2) a. Etxea saldu duela *esan*
- b. *Eskerrak* ama etorri den
- c. *On da* denok zerbait egin dezagun
- d. Lan gehiago egin dezagun *nahi dute*
- e. Liburutegira etortzen *ikusi*

Adibide horietan letra etzanetan dagoena elementu gobernatzailea da: *esan*, *eskerrak*, *on da*, *nahi dute*, *ikusi*. Elementu hori, bistan da, aditza izan daiteke, *esan*, *nahi izan* edo *ikusi* bezala, edota *eskerrak* eta *on da* bezalako predikaturen bat. Baina izenak ere izan daitezke perpaus osagarri baten elementu gobernatzaile, hala nola, *susmo*, *uste* edo *beldur* ondoko adibide haue-
tan:

- (3) a. Gauez zurekin biltzen naizelako *susmoa* (artu dute) (Y. Etxaide, *Joanuk-joan*, 75).
- b. (Neri ere orretxek ematen dit) barkatuko didazulako *ustea* (*Argi Done Laburra*, 36).
- c. Etsaien eskuetan eroriko zen beldurak (artu zuen) (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 143).

Hona, bada: perpaus osagarriaren eta elementu gobernatzailearen artean dagoen erlazio hori "osagarri-erlazioa" edo "konplementazioa" da.

Kontu hau garrantzi handikoa da gramatikan eta ondo ulertzea komeni da. Aditzek, izenek eta bestelako zenbait elementuk osagarriak hartu ohi dituzte –eta, kasu batzuetan, hartu behar izaten dituzte gainera– gramatikalki ongi erabiliko badira. Hartzen dituzten osagarriok izen sintagmak izan daitezke:

(4) a. Josebak *etxea* saldu du.

b. *Heriotzaren* beldurrik ez dute ezagutzen.

Osagarria izen sintagma denean, badakigu osagarri-erlazio desberdinak badirela (objektua, zehar-objektua, predikatu-osagarria etab.), eta erlazio horien arabera osagarriak formalki markatzen direla kasu eta erlazio atzizkien bitartez (zero, *-I*, *-Z*, *-EN*, *-EKIN* eta abar).

Baina izen sintagmak ez ezik perpausak ere izan daitezke osagarriak, esan bezala:

(5) a. *Pozik daudela* ikusi dugu.

b. *Zer nahi dugun* galdetu digute.

c. *Ondo hizi gaitezen* nahi dute.

Zenbait kasutan elementu batek bai *izen sintagmak* bai *perpausak* har ditzake osagarri:

(6) a. *Egia* esan digu Josebak.

b. *Etxea saldu duela* esan digu Josebak.

c. *Liburu hori* eskatzen dizut.

d. *Liburu hori liburutegira itzultzeko* eskatzen dizut.

Gauza jakina da, edozein modutan, aditz, izen sintagma edo bestelako gobernatzaile bakoitzak osagarri mota jakinak eskatzen dituela eta erlazio marka edo menderagailu jakinak. Horietatik aparte egindako perpausak onartezinak izaten dira.

(7) a. *Josebak *berandu dela* hautsi du.

b. *Josebak *liburua* uste du.

c. *Josebak *etxearen* saldu du.

d. **Heriotzarekin* beldurrik ez dute ezagutzen.

e. *Josebak *berandu dela* galdetu du.

f. *Josebak *nor etorri den* uste du.

Lehen adibideko *hautsi* gobernatzaileak izen sintagma izaten du osagarri, ez perpausa; bigarren adibideko *uste izan* aditzak, aldiz, perpausa eskatzen du, ez izen sintagma. Hirugarren eta laugarren adibideetan erlazio atzizkiak daude gaizki, *zero* eta *-EN* baitira, hurrenez hurren, *saldu* eta *beldur* predikatuek eskatzen dituztenak. Azken adibideetan, berriz, perpaus osagarri mota da gobernatzaileei ez dagokiena, *galdetu*-k zehargaldera eskatzen baitu eta *uste izan*-ek adierazpen perpausa. Hiztegiak esaten digu, azken batean, nolako osagarriak eskatzen dituen elementu gobernatzaile bakoitzak.

Kontuan izan behar da, azkenik, gauzak ondo ulertuko badira, gainerako perpaus mendekoetan ez dela erlazio-mota hori gauzatzen. Erlatiboak izen ardatzarekin duen harremana, esate baterako, ez da horrelakoa, honck ez baitu hura osagarri gisa eskatzen:

- (8) a. *Etxea saldu duen gizona* (Joseba da).
b. *Atzo adierazi zenidan susmoak* (ez zuen funtsik).
c. *Joseba da etxea saldu duena*.
d. *Josebak pentsatzen duena* esaten du beti.

Esaldi adberbialak osatzen dituzten perpausak ere –hala nola, denborazkoak, baldintzazkoak, helburuzkoak eta abar– perpaus nagusi batean txertatzen dira, baina ez dirudi, normalean behintzat, elementu gobernatzaile baten "osagarri" direnik:

- (9) a. *Nahi duzunean etor zaitezke*.
b. *Orain ezin baduzu, egingo duzu geroxeago*.

Gobernatzaile baten pean ez dauden perpaus hauei "adjuntu" esaten zaie, osagarrietatik bereizteko.

Aitortu behar da, edozein modutan, zenbaitetan ez dela erraz izaten perpaus osagartien eta ez-osagartien –hau da, adjuntuen– arteko muga erabakitzen. Demagun adibide pare hau:

- (10) a. *Liburu hau erostera behartuta gaude*.
b. *Liburu hau erostera etorri naiz*.

Lehenengoan, argi dago *liburu hau erostera* perpausa osagarria dela, *behartu* aditzak *zertara* osagarria eskatzen baitu berez. Bigarrenean, aldiz, kontua ez da beharbada horren gardena, zalantzak sor baitaitezke mendekoa nolakoa den erabakitzean. Badirudi, hala ere, osagarria dela hor ere mendeko perpausa, *etorri* aditzak normalean eraman ohi duen elementua baita *zertara* osagaia, erabat eskatzera iristen ez bada ere.

Bereizketa argiagoa eta zehatzagoa da ondoko pare honetan:

(11) a. *Liburu hau erosteko* esan didate.

b. Aitak dirua eman dit, *liburu hau erosteko*.

Bistan denez, (11a)ko *liburu hau erosteko* perpausa *esan* aditzaren osagarria den bitartean, (11b)koa helburuzko da, (9)ko adibideak bezala ez-osagarria.

Beraz, hitz batean esateko, elementu batek perpaus osagarri bat eskatzen duenean, edota hura eraman ohi duenean, bien arteko erlazioari "konplementazio" deritzogu.

1.1.2. Konplementazioaren osagaiak

1.1.2.1. Hiru osagai

a. Aurreko atalean eman ditugun adibideetan ikus daitekeen bezala, hiru osagai nagusi ditu konplementazioak. Hona, berriro, (1a) adibidea:

(12) Etxea saldu duela esan digu Josebak.

Oinarrizko atalak dira, esan bezala, *elementu gobernatzailea* –adibide honetan *esan* aditza– eta *perpaus osagarria* –hots, *etxea saldu du* perpausa–. Bada, ordea, hirugarren osagai bat ere: perpaus osagarriaren mendekotasuna markatzen duen morfema, hain zuzen ere –kasu honetan *-eLA* morfema, alegia–. Garrantzi handiko marka mota hau menderagailu deituko dugu. Hona hemen, bada, aurreko adibideko hiru atal horiek:

<i>etxea saldu du</i>	<i>-eLA</i>	<i>esan</i>
perpaus osagarria	menderagailua	elementu gobernatzailea

b. Zenbaitetan badirudi elementu gobernatzailearik ez dagoela eta, beraz, perpaus "lokabe" baten aurrean gaudela:

(13) a. Aitaren partez, bihar etorriko dela.

b. On degizula!

Esan behar da, ordea, horrelakoetan ere ez dela elementu gobernatzailea falta. Egon badago, isilpean bada ere. Lehenbizikoan nekez ukatuko da *esan* bezalako aditz bat ulertzen dela isilpean, eta bigarrenean ere beharbada *opa izan* edo *desiratu* esanahia duen isilpeko gobernatzaile bat antzematen dugu.

c. Definizioz, perpaus osagarri bat aurkituko da beti gisa horretako osagarria eskatzen duten gobernatzaileekin. Baina konplementazio motaren arabera, askotan "ordain" bat jar daiteke perpaus osagarriaren ordeiz. Berez determinatzailea den *hori* erakusleak, esate baterako, adierazpen-perpausak, zehargalderak edo perpaus izenlagunak ordeizka ditzake:

(14) a. *Hori* esan digu.

b. *Horretaz* gogoratu dira.

c. *Hori* galdetu dute.

d. *Horren* heldur dira.

Hala adberbioa, berriz, adierazpen-perpaus batzuen lekuan erabil daiteke:

(15) a. *Hala* uste dut.

b. *Hala* esan dute.

Baietz eta *ezetz* ere erabil daitezke adierazpen-perpaus osagarri zenbaiten lekuan:

(16) a. *Baietz* esaten du.

b. *Ezetz* uste dugu.

d. Ondoko azpiataletan konplementazioaren hiru osagaiok aztertuko ditugu: elementu gobernatzaileak (1.1.2.2), perpaus osagarriak (1.1.2.3) eta menderagailuak (1.1.2.4).

1.1.2.2. Elementu gobernatzaileak

Esan dugun bezala, gobernatzaileak mota sintaktiko desberdinetakoak izan daitezke.

a. Aditzak izan daitezke:

(17) Etxea saldu duela *esan digu* Josebak.

b. Edo izen sintagmak:

(18) Neri ere orretzek ematen dit barkatuko didazulako *ustea* (*Argi Done Laburra*, 36).

Elementu gobernatzailea izen sintagma denean, perpaus osagarria izenlaguna dela pentsa daiteke. Eta, hain zuzen ere, izenlagunak sortzen dituen *-KO* atzizkia agertzen da honelako perpaus osagarri askotan menderagailuari itsatsita (hau da, jokatueta *-eLAKO* eta ezjokatueta *-TZEKO*):

(19) a. [Gauzak okertzen ari zaizkiolako] *susmoa* aspalditik izan dut.

b. Zergatik ote daukate [egia entzuteko] *beldur hori*?

Beste batzuetan, izenaren mendeko perpaus osagarri jokatuak *-eN* menderagailua du, hau da, erlatiboak markatzen dituen marka bera, *-KO* gabe:

(20) Ezetz esan dio, [bere diru guztia galduko duen] *beldurragatik*.

c. Gutxiagotan izaten dira gobernatzaile adjektiboak edo graduatzaileak, osagarria ezjokatu delarik: [egiteko] *zail / neke*; [erosteko] *garestiegi*...

d. Izen, aditz eta horrelakoez gainera, bestelako predikatu edo predikatu-egitura batzuk ere izan daitezke elementu gobernatzaileak. Hona hemen adibide batzuk:

(21) a. *Horixe* joango naizela!

- b. *Eskerrak* ama etorri dela.
- c. *Beharrezkoa da* norbait zuzendari izenda dezagun.
- d. *Okerrena da* ez direla ezertaz konturatu.
- e. *Ez dago garbi* etxea salduko ote duen.

Azken hauetan elementu gobernatzaileak *beharrezkoa da*, *okerrena da* eta *ez dago garbi* predikatu osoak direla dirudi. Hau da, aditz gobernatzaile baten ordez predikatu oso bat dugu hor elementu gobernatzaile. Izan ere, horrelakoetan ez dirudi osagarria zuzenki adjektiboaren edo adizlagunaren mende dagoenik (hau da, *beharrezkoa*, *okerrena* eta *garbi*-ren mende), predikatu osoaren mende baizik. Gauza bera esan daiteke izen baten inguruan eratutako predikatu-egiturez, adibidez:

- (22) a. *Sospetxa daukat*, ikusiak ikusita, orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direla makina hauek (*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-06-16).
- b. Herriko etxeak hartu zuen erabakia, kaperak behar zirela berri duela zenbait urte (*Herria*, 1995-02-02).
- c. Ternuako hegietan galduak zirela *ethorri zen berria* (J. P. Arbelbide, *Igundeu edo Jaunaren eguna*, 156).
- d. Gabriel Angüriak *berria ekharri* zerionian. Jinko semiaren ama izanen zela [...] (A. Belapeyre, *Catechima laburra*, 1, 122).

Hauetan elementu gobernatzailea zuzenean izena (*sospetxa*, *erabakia*, *berria*) ez dela egiaztatzeko, ohar gaitzen kasu bakoitzean izen hori bere testuinguru predikatibotik ateraz gero sortzen diren perpausak ez direla egokiak:

- (23) a. *(Zure) sospetxaz orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direla makina hauek hitzegin zenuen.
- b. *Kaperak behar zirela berri erabakiak ondo onak izan zituen.
- c. *Ternuako hegietan galduak zirela gezurtatu zen berria.

Agerikoa da, bada, horrelakoetan izena bere soilean ez dela gobernatzailea, egitura osoak betetzen duela egiteko hori. Hori bezain agerikoa da, hala ere, izena dela egitura predikatibo osoaren muina eta haren funtsa daramana. Horregatik bere mendean har dezake izenak perpaus osagarria, *-KO* atzizkiaren bitartez izenlagun bilakatua:

- (24) a. [Makina hauek orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direlako] *sospetxaz* hitzegin zenuen.
b. [Kaperak berritu behar zirelako] *erabukiak* ondorio onak izan zituen.
c. [Termuako hegietan galduak zirelako] *berria* gezurtatu zen.

1.1.2.3. *Perpaus osagarriak*

Perpaus osagarri guztiak ez dira mota batekoak. Aitzitik, desberdinak izan daitezke barnean duten aditzaren arabera: batzuek aditz jokatua dute eta beste batzuek ezjokatua; eta jokatuetan ere batzuk subjuntiboak dira eta beste batzuk ez-subjuntiboak. Eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

a. *Perpaus jokatuak eta ezjokatuak*

Salbuespen gutxirekin (agintekeran bereziki), perpaus lokabeak jokatuak izaten dira; mendeko perpausetan, aldiz, ikusitako adibideetan ageri denez, aditza *jokatua* edo *ezjokatua* izan daiteke. Zenbait kasutan, biak aukeran daude. Ondoko perpaus hauetan, esate baterako:

- (25) a. [Liburu hori *itzul dezadula*] esan dit Josebak.
b. [Liburu hori *itzultzeko*] esan dit Josebak.

Beste testuinguru askotan ez dago aukerarik, eta mendeko perpausak nahitaez izan behar du jokatua:

- (26) a. [Etxea *saldu duela*] esan digu Josebak.
b. *[Etxea *saltzea / saldu / saltzen*] esan digu Josebak.

edo ezjokatua:

- (27) a. [Liburutegietara *joatea*] gustatzen zait.
b. *[Liburutegietara *joaten naizela / joan nadin*] gustatzen zait.

Perpaus jokatuetan, subjektu-objektuen pertsona eta numeroarekiko komuntadura adierazten duten indizeak ageri dira aditzean. Ezjokatuetan, berriz, aditzak ez du horrelako indizerik:

- (28) a. On da [guk denok zerbait *eman dezagun*] ▶ On da [guk denok zerbait *ematea*]
b. On da [zuek denok zerbait *eman dezazuen*] ▶ On da [zuek denok zerbait *ematea*]
c. On da [zuk ere eskerrak *eman ditzaun*] → On da [zuk ere eskerrak *ematea*]

Denborazko kategoriak ere falta dira perpaus ezjokatuen aditzean.

- (29) a. On da [guk ere zerbait *eman dezagun*] ▶ On da [guk ere zerbait *ematea*]
b. On zen [guk ere zerbait *eman genezan*] → On zen [guk ere zerbait *ematea*]

Horrelakoen berri eman nahi bada, bestelako osagaien bidez egin behar da, aditzak ez baititu markatzen:

- (30) a. Ez dute nahi [zuek horrela ibiltzea].
b. [Atzo bertan egiteko] esan ziguten.

Bestalde esan behar da *jokatu / ezjokatu* oposizioaren arabera erabil daitezkeen markak ere guztiz aldatzen direla: *jokatu*ekin, *-eLA*, *-eN* eta abar ditugu; *ezjokatu*ekin, berriz, *-TZEA*, *-TZEKO*, *-TZEN*, *-TU* eta beste batzuk.

b. Subjuntiboa

Hizkuntza frankotan, perpaus osagarrietako aditz jokatuetan oposizio bat aurkitzen da *indikativo* eta *subjuntivo* izeneko moduen artean. Euskaran ere horren antzeko oposizio bat aurki daiteke. Konpara ditzagun hauek:

- (31) a. Eskerrak *denok zerbait egin (egiten, egingo) dugula!*
b. Hobe da *denok zerbait egin dezagun*.

Bigarren adibidean ageri den *egin dezagun* bezalako adizkiak dira subjuntiboko erabilera dutenak. Gaurko euskaran forma perifrastikoak erabiltzen dira gehien batean modu hori adierazteko eta laguntzailea **edin* eta **ezan* aditzen ez-ahalezko moduari dagokiona izaten da, hau da, *-KE* gabea, ondoan menderagailua duela, *-eN* edo *-eLA* (*dadin, dadila; dezan, dezala...*) (ik. *EGLU II*, 138 eta 422).

Moduen kontu hau dela-eta, honako hauek dira perpaus jokatuen artean dauden aldeak: subjuntibo ez diren adizkiak perpaus lokabeetako aditzak iza-

ten dira, menderagailua hartuta mendeko bilaka daitezkeenak (*du + -eLA* → *duela*; *du + -eN* → *duen*); subjuntiboak, berriz, ez dira inoiz menderagailurik gabe erabiltzen (*dadin, dadila* → **dadi*; *dezan, dezala* → **deza*).

Esan daiteke, horrenbestez, subjuntibo ez direnak aspektudunak (*ekarri du, ekartzen du, ekarriko du*) edo aspektugabeak (*ekar dezake*) izan daitezkeela eta izacra horrekin jarraitzen dutela mendeko eta osagarri direnean ere, aspektudunak aspektudun eta aspektugabeak aspektugabe. Subjuntiboa, berriz, beti da aspektugabea, beste aukerarik ez baitu: denbora adierazten du, baina aspekturik ez.

Aditz ezjokatuak ere aspektugabeak izaten dira gehienetan eta, hori dela-eta, trukagarriak gertatzen dira maiz perpaus subjuntiboak eta ezjokatuak, hizketa-maila eta erregistroari dagokiona alde bat uzten badugu behintzat.

(32) a. Poliki *ibil dadila* esan diote.

b. Poliki *ibiltzeko* esan diote.

c. Eskema

Hona, beraz, perpaus osagarriei dagokien eskema:

- Perpaus jokatu ez-subjuntiboek pertsona-numero eta denbora indizeak daramatzate aditzean; eta baita, hala dagokienean, aspektuarena ere.
- Perpaus jokatu subjuntiboek pertsona-numero eta denbora indizeak bai, baina aspektu markarik ez dute aditzean.
- Perpaus ezjokatuak ez dute horrelako indizerik aditzean.
- Kontu batean bat datoz perpaus subjuntiboak eta ezjokatuak: mendeko dira normalean hauek bezala haiek ere. Ez gutxitan, gainera, trukagarriak izaten dira.

Hori da eskema nagusia. Dena dela, liburuki honetan ez ditugu horiek denak aztertuko. Aurkezpenean berariaz esan dugun moduan, adizki jokatuak duten perpausak izango ditugu hemen aztergai, ezjokatuak geroko utzita.

Hortaz, besterik esan ezean behintzat, aditz jokatuako perpausari dagozkie liburu honetako azalpenak.

1.1.2.4. Menderagailuak

a. Perpaus jokatuaren menderagailuak

Jakina denez, adizki jokatuari lotzen zaizkion lau morfemaren bidez marka daitezke euskarazko mendeko perpausak: *-eN*, *-eLA*, *-BA* eta *-BAIT*. Perpaus osagarrietan laurok aurki daitezke, baina *-eN* eta *-eLA* dira nagusiak eta erabilienak.

Atzizki hauek batzuetan soilik agertzen dira eta beste batzuetan ondotik beste atzizki bat dutela: *-eNA*, *-eNIK*, *-eNEZ*, *-eNETZ*, *-eLARIK*, *-eLAKO* etab. Horrelako batzuk perpaus erlatiboetan eta mendeko perpaus adberbialetan ez ezik, osagarrietan ere aurki daitezke.

Konplementazioan, badirudi bi atzizki bakunen banaketa funtzionala aski garbi dagoela: *-eLA* adierazpen-perpausetan erabiltzen da eta *-eN*, berriz, zehargalderetan batez ere:

- (33) a. Etxea saldu *duela* esan digu Josebak.
b. Iruditzen zait etxea saldu *duela*.
c. Etxea saldu *duen* galdetuko diot Josebari.
d. Inork ez daki etxea saldu *ote duen*.

Erregela orokorra hori bada ere, badaude salbuespenak, gero ikusiko denez. Izan ere, *-eN* atzizkia eta funtscan atzizki hori duten *-eNA* eta *-eNIK* menderagailuak ere erabil daitezke, *-eLA*-ren ordez, mendeko adierazpen-perpaus batzuetan.

Perpaus osagarri subjuntiboetan, bestalde, aipatu irizpideak ez du balio:

- (34) a. On da denok zerbait egin dezagun.
b. Berehala etor zaitez *en* nahi dut.

- c. Liburu hori liburategira itzul dezazula eskatzen dizut.
 d. Isil zitezela agindu zieten kaleko neska-mutikoei.

b. Adizkien formak, menderagailuak hartzean

Menderagailu hauek, esan bezala, perpaus osagarriko aditzari lotzen zaizkio, atzizki gisa, eta horrek egokitze jakin batzuk eragiten ditu adizkietan, lotura gunean.

a. Hasteko, hona hemen *-eN* eta *-eLA* menderagailuekin aditzek euskara batuan hartzen dituzten formen eskema.

• Adizkerak bukaeran pertsona indizea duenean:

1. pertsona, ergatiboa eta datiboa: *-t* → *-dala*, *-dan*
dakit → *dakidala*, *dakidan*; *zait* → *zaidala*, *zaidan*
2. pertsona lagunartekoa, ergatiboa eta datiboa: *-k* → *-ala*, *an*; *-n* → *-nala*, *-nan*
dakik → *dakiala*, *dakian*; *zaik* → *zaiala*, *zaiian*
dakin → *dakinala*, *dakinan*; *zain* → *zainala*, *zainan*
2. pertsona singularrekoa, ergatiboa eta datiboa: *-zu* → *-zula*, *-zun*
dakizu → *dakizula*, *dukizun*; *zaizu* → *zaiizula*, *zaiizun*
3. pertsona singularrekoa, datiboa: *-(i)o* → *-(i)ala*, *-(i)on*
zaio → *zaiola*, *zaiion*; *dio* → *diola*, *dion*
1. pertsona pluralekoa, ergatiboa eta datiboa: *-gu* → *-gula*, *-gun*
dakigu → *dakigula*, *dakigun*; *zaigu* → *zaiigula*, *zaiigun*
2. pertsona pluralekoa, ergatiboa eta datiboa: *-zue* → *-zuela*, *-zuen*
dakizue → *dakizuela*, *dakizuen*; *zaizue* → *zaiizuela*, *zaiizuen*
3. pertsona pluralekoa: *-te* ergatiboa → *-tela*, *-ten*; *-(i)e* datiboa → *-(i)ela*, *-(i)en*
dakite → *dakitela*, *dakiten*; *zaie* → *zaiela*, *zaiien*

• Adizkerak bukaeran absolutiboaren pluraleko indizea duenean, *-ela* eta *-en* egiten dute menderagailua hartzean; *-tza* pluralgilea da salbuespen bakarra:

– pluralgilea *-z* denean: *-zela*, *-zen*

goaz → *goazela*, *goazen*; *daitez* → *daitezela*, *daitezen*

– pluralgilca *-te* edo *-de* denean: *-tela*, *-ten* edo *-dela*, *-den*

zoazte → *zoaztela*, *zoazten*; *zaituzte* → *zaituztela*, *zaituzten*

daude → *daudela*, *dauden*

– pluralgilea *-zki* denean: *-zkiela*, *-zkien*

dakizki → *dakizkiela*, *dakizkien*

– Esan bezala, *-tza* da salbuespen bakarra: *-tzala*, *-tzan*

garamatza → *garamatzala*, *garamatzan*

• Adizkerak bukaeran *-ke* duenean, *-keela*, *-keen* egiten da:

dakike → *dakikeela*, *dakikeen*; *litzateke* → *litzatekeela*, *litzatekeen*

dezake → *dezakeela*, *dezakeen*

• Adizkeraren bukaeran aditz erroa denean, *-ela* eta *-en* egiten da. Aditz erroaren amaieran *-a* dutenak, *izan* ez beste denak, eta **edin* laguntzailea dira salbuespenak:

– adizkera kontsonante batez bukatzen denean: *-kontsonantea* + *-ela* edo *-en*

nabil → *nabilela*, *nabilen*; *dator* → *datorrela*, *datorren*

naiz → *naizela*, *naizen*

– adizkera *-a-z* bestelako bokal batez amaitzen denean: *-bokala* + *-ela* edo *-en*

daki → *dakiela*, *dakien*; *dio* → *dioela*, *dioen*; *du* → *duela*, *duen*

– *izan* aditzaren *-a* eta *-ra* amaierak: *-ela*, *-en*; *-rela*, *-ren*

da → *dela*, *den*

dira → *direla*, *diren*; *gara* → *garela*, *garen*

– Baina, esan bezala, aditz erroaren amaieran *-a* dutenak (*izan* salbu): *-ala*, *-an*

**deza* → *dezala*, *dezan*; *datza* → *datzala*, *datzan*; *noa* → *noala*, *noan*

– eta **edin* laguntzailea: *-ila*, *-in*

**dadi* → *dadila*, *dadin*

• Adizkera *-n* iraganaldiaren markarekin amaitzen denean, *-n* horren lekuan *-la* eta *-n* egiten dute menderagailua hartuta; azkena, beraz, aldatu gabe geratzen da:

zen → *zela*, *zen*; *ztorren* → *ztorrela*, *ztorren*

zekien → *zekiela*, *zekien*; *zituen* → *zituela*, *zituen*

b. Adierazpen-perpaus osagarrietan inoiz erabiltzen den *BAIT-* menderagailuak, berriz, honako cgokitze hauek eragiten ditu adizkeraren lehen buruan:

bait- + *d-* → *bait-*: *baitu*, *baititu*, *baitarama*, *baitoaz*

bait- + *g-* → *baik-*: *baikara*, *baikintuen*, *baikenekien*

bait- + *z-* → *baitz-*: *baitzen*, *baitzara*, *baitzatoz*

bait- + *l-* → *bail-*: *bailuke*, *bailitzateke*, *bailiguke*


bait- + *n-* → *bain-*: *bainaz*, *bainau*, *bainenbilen*

bait- + *h-* → *baih-*: *baihaiz*, *baihator*, *baihau*

c. Zehargalderetan bizkaieraz inoiz erabiltzen den *BA-* menderagailuak, azkenik, ez du aldaketarik eragiten adizkiari lotzean zaionean: *bada*, *bagara*, *bazen*, *banintzen*, *bahaiz*.

1.1.3. Perpaus osagarri jokatuen sailkapena

Perpaus osagarrien sarrera orokor honi amaiera emateko, esan dezagun, azkenik, zein diren konplementazioaren hiru osagai-motak konbinatuz eratzen diren perpaus osagarri jokatuen mota edo sail nagusiak. Hau da eskema orokorra:



Argi ageri da eskema horretan zein diren ondoko kapituluetan aztertuko ditugun lau osagarri mota nagusiak (a, b, c, d); eta argi ikusten da, halaber, sailkapen hori ez dela denetan maila berekoa.

Lehenbiziko biak aditza [- *subjuntiboa*] dutenak dira eta motaren arabera banatzen ditugu, menderaturiko perpauusak batean adierazpenekoa eta bestean galderazkoa direlako. Ondo ulertu behar da hori. Perpauis motak aipatzen ditugunean, berez perpauis lokabe edo osoak izaten ditugu gogoan. Hortaz, hemen adierazpen-perpauis edo galde-perpauis osagarriez mintzo garenean, haien erabideari hegiratzen diogu batez ere. "Adierazpen-perpauis osagarria" diogune-

an, hain zuzen ere, menderagailuaren bitartez mendeko bihurturiko adierazpen-perpaua dela adierazi nahi dugu; eta "galde-perpau osagarria" diogunean ere mendeko bihurturiko galde-perpaua dela esan nahi dugu. [Adierazpen perpau + menderagailua] eta [galde-perpau + menderagailua] direla, alegia, hurrenez hurren.

Hirugarren motako perpauak, berriz, aditzaren moduan kontrajartzen zaizkie aurreko bie. Haiek ez bezala, hauek [+ *subjuntiboa*] dira eta, hortaz, ez aspektu markarik ez *-KE* markarik ez dutenak.

Laugarren mota, azkenik, gobernatzaileak bereizten du beste hirurctatik: haietan aditza edo beste predikatu batzuk ziren gobernatzaile eta honetan izena da zeregin hori betetzen duena.

Hona, bada, sailkapen horren arabera kapituluaz kapitulu aztertuko ditugun perpau osagarriak. Bakoitza nolakoa den eta zein gobernatzaile motarekin joan ohi den zehazten saiatuko gara.

a. *Adierazpen-perpau osagarriak* edo *zehar-adierazpenak*: [- *subjuntibo*] + *-eLA* egituraren bitartez eratzen dira normalean, inoiz *-eNA*, *-eNIK*, *-eN* eta *BAIT*- menderagailuak hartzen badituzte ere; zenbaitetan aurretik *ezen* lokailua izaten dute (1.3 kapitulua).

b. *Galde-perpau osagarriak* edo *zehargalderak*: normalean [- *subjuntibo*] + *-eN* egituraren bitartez eratzen dira, inoiz *-eNETZ* edo *BA*- menderagailuak hartzen badituzte ere; zenbaitetan, gainera, aurretik *ea* partikula hartzen dute (1.4 kapitulua).

c. *Subjunktiboko perpau osagarriak*, hau da, *zehar-aginduak* nahiz beste zenbait *jarrera adierazpen*: [+ *subjuntibo*] + *-eN* / *-eLA* egituraren bitartez eratzen dira (1.5 kapitulua).

d. *Perpau osagarri izenlagunak*: *-eN* / *-eLAKO* + *izena* egitura dutenak. Kapitulu batean aztertuko ditugu izenlagunon azpisail guztiak, bai aditza [- *subjuntiboa*] dutenak bai [+ *subjuntiboa*] dutenak (1.6 kapitulua).

Perpau horien banan-banako azalpenarekin hasi aurretik, ordea, guztiei dagozkieu ezaugarri batzuk aipatuko ditugu modu orokorrean, hurrengo kapitulan (1.2).

1.2. PERPAUS OSAGARRI JOKATUEN EZAUGARRI OROKOR BATZUK

1.2.1. Zehar-estiloa

Gorago esan bezala, adierazpen-perpaus osagarrien gobernatzailea mota askotakoa izan daiteke.

- (35) a. *Ez dut uste bilcrara garaiz iritsiko naizenik.*
b. *Ezagun du gazteak garena.*
c. *Eskerrak garaiz etorri zaretela.*
d. *Demagun 1900. urtean gaudela.*
e. *Nora joan diren jakin nahi dugu.*
f. *Zer nahi duzuen erabaki behar duzue.*
g. *Lasai bizi zaitzela opa dizuet.*
h. *Bakean bizi zaitzeten nahi genuke.*

Adibide horietan ikusten denez, iritziak (a), ezaguerak (b, e), jarrerak (c, f), suposizioak (d), nahiak (g, h) eta horrelakoak adierazteko erabil daitezke, besteak beste, perpaus osagarriak. Ez gutxitan, ordea, norbaitek berariaz esan edo nolabait aditzera eman duena *aipatzeko* erabiltzen da baliabide hori, aipamena komunikazio-aditz baten mendean ezarrita.

- (36) a. *Etxea saldu duela esan digu Josebak.*
b. *Gaur eskolarik ez dela jakinarazi digu maisuak.*
c. *Non bizi garen galdegin digute.*
d. *Zer nahi dugun garbi esateko erregutu digute.*
e. *Lanean has gaitzela esan digute.*
f. *Erne ibil gaitzela gomendatu digute.*

Zehar-estiloaren erabilera jakin horrek, "zehar-aipamena" dei dezakegunak, gramatika ezaugarri jakin batzuk izaten ditu.

a. Estilo zuzenean jatorrizko hitzak berak errepikatzen diren bitartean, inolako aldaketa gramatikalik egin gabe, zehar-estiloan zenbait aldaketa izaten dituzte, edo nahitaez edo aukeran. Hasteko, konplementazio egitura erabiltzen da beti horrelakoetan, jatorrizko perpaus lokabeak mendeko bilakatuz, dagokien menderagailua hartzen dutelarik. Ikus ondoko adibideetan aipamen zuzenen eta zeharrekoen arteko aldea:

- (37) a. *Etxean geratuko naiz, pentsatu nuen.*
b. *Etxean geratuko nintzela pentsatu nuen.*
c. *Zer nahi duzue?, galdegin digu dendariak.*
d. *Zer nahi dugun galdegin digu dendariak.*
e. *Garrasika hasi zitzaigun, isilik, isilik!*
f. *Garrasika hasi zitzaigun isil gintezela esanaz.*

Pare bakoitzeko lehenean jatorrizko perpausak bere hartan ematen dira eta aditz aipatzailea edo ez da ageri (c) edo aipamenetik bereiz ematen da, eten baten ondoren (a eta c). Bigarrenetan, berriz, aipamenak menderagailua darma ondoan eta aditz aipatzailearen perpausuan txertatua ageri da.

b. Bestalde, jatorrizko perpausak zehar-estilora pasatzeak *lerratze* edo *egokitze deiktiko* bat egitera behartzen du hiztuna. Aipatutako perpausak birformulatu egiten dira, ikuspegi deiktikoa jatorrizko hiztunarena ez, baina hiztun berriarena delarik. Horrela, aditzaren pertsona eta denbora aldatu egin beharko dira askotan:

- (38) *Jatorrizkoa:* "Herrira noa".
Zehar-estiloa: Herrira zihoala esan zidan.

Hor, ikusten den bezala, lehenetik hirugarrenera aldatzen da pertsona eta orainalditik iraganera denbora.

Erakusleak eta horrelakoak ere aldatu egin beharko dira maiz:

- (39) *Jatorrizkoa:* "Hemen ondo al nago?".
Zehar-estiloa: Han ondo zegoen galdegin zidan.

Batzuetan aditza bera aldatzen da. *Joan* eta *etorri* edo *eraman* eta *ekarri*, esate baterako, elkarrekin trukatu behar izaten dira:

(40) *Jatorrizkoa*: "Etor zaitez lehenbailehen".

Zehar-estiloa: Lehenbailehen *joan* nendila eskatu zidan.

1.2.2. Denbora komunztadura perpaus osagarrietan

Perpaus osagarrietan gogoan izan behar den beste kontu bat, aditz nagusiaren eta mendekoaren arteko denbora komunztadurari dagokiona da. Izan ere, mendeko aditzari zein denbora-forma dagokion ez du normalean aipatzailearen hizketa unearrekiko erreferentziak erabakitzen, mendekoa gobernatzen duen aditz nagusiarekiko erreferentziak baizik.

a. Aditz nagusi hori iraganean dagoenean sortzen dira gorabeherak, mendekoa haren araberrakoa izango baita. Ez da arazo aipagarriarik sortzen, noski, mendeko aditza nagusiaren aurtekoa edo haren aldiberekoa denean: [pozik ibili zela] *esan zuen* eta [pozik zebilela] *esan zuen*, hurrenez hurren. Hizketa unerako ere iraganak dira horiek eta, beraz, iraganeko formak erabiltzeak ez du berezirik ezer.

Zer gertatzen da, ordea, mendekoa aditz nagusiaren ondokoa denean? Hark adierazten duena aditz aipatzailea baino geroagokoa denean, alegia? Iraganaren "etorkizuneko" forma erabiltzen dela normalean, zeinahi ere den hizketa unearrekiko erreferentzia. Hau da, [-KO + iraganeko laguntzailea] forma erabiltzen dela (ik. *EGLU II*, 425) –*izango zen*, alegia, eta ez *izan zen*, *izan da*, *da* edo horrelakorik–.

(41) a. *Joan* den astean *esan* ziguten atzo jai *izango zela*.

b. **Joan* den astean *esan* ziguten atzo jai *izan zela*.

c. Gaur noiz *jaikiko zinen* galdegin *zuen*.


d. *Gaur noiz *jaiki zaren* galdegin *zuen*.

e. Orain hemen *egongo nintzela* *esan* nizuen.

f. *Orain hemen *nagoela* *esan* nizuen.

Adibide horietan ikusten denez, aditz nagusiak erabakitzen du mendekoa-ren denbora forma. Atzo izan zen jaieguna eta, beraz, hiztunarentzat iraganeko kontua da hori. *Atzo jai izan zen* esango luke hark estilo zuzenean; hemen, ordea, *izango zela* dio (a), "ondoko" kontua baita hori aditz nagusiarekiko. Era berean, gaur dagoeneko *jaiki zara*, baina *jaikiko zinen* esaten da arrazoï berberetatik (c). Eta, berdin, orain hemen *nago*, noski, baina *egongo nintzela* esaten dut (e), iraganeko *esan nizuen* aditzak hori eskatzen baitu.

Hau da, bada, eskema:



Orainaldi burutuak ere eragin dezake horrelako komunztadura, iraganeko-tzat har baitaiteke hura ere denborari dagokionez.

- (42) Goizean esan dizut eguerdirako prest *izango zenuela* autoa eta bete dut hitza: hementxe duzu, garbi-garbia, eramateko prest.

Dena dela, kontua hiztunarentzat ere etorkizuneko baldin bada, denbora komunztadura egitea aukerakoa izan daiteke. Maiz aurreko adibideen antzeko komunztadura egiten da (43a), baina komunztadurarik gabeko forma ere onartzen da (43b):

- (43) a. Etxea *salduko zuela* esan zidan.
 b. Etxea *salduko duela* esan zidan.


Horietako lehena bitara uler daiteke: hiztunarentzat iraganeko bezala (*salduko zuela esan zuen eta horrela egin du: dagoeneko saldu du*) edo etorkizuneko bezala (*salduko zuela esan zuen eta horrela egingo du: salduko du*).

Bigarrenak, berriz, etorkizuneko interpretazioa baizik ez du onartzen, hizketa unek ematen baitio erreferentzia. Are argiago ageri da aukera bikoitz hori mendeko perpauseau hizketa uneari dagokion denbora erreferentzia berariaz ematen denean:

(44) a. Etxea datorren urtean *salduko zuela* esan zidan.

b. Etxea datorren urtean *salduko duela* esan zidan.

Hau da eskema:



Era berean, mendeko perpausa denbora-aspektuci dagokienez orokorra eta mugagabea denean ere (ik. *EGLU II*, 408), orainaldia erabil daiteke komunztadurako iraganaren lekuan:

(45) a. Bosniakoa ikusi baino lehen ere esana nuen nik gerra guztiak txarrak *zirela*.

b. Bosniakoa ikusi baino lehen ere esana nuen nik gerra guztiak txarrak *direla*.

Hona testuetatik harturiko adibide bat, non *maite dituela* dioen *maite zituela* ere esan zezakeen lekuan:

(46) Erran dut bazakiela, amak irakatsia, Jainko Jaunak *maite dituela* bereziki jende errumesak (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitcea*, 163).

b. Subjuntiboko osagarrietan, azkenik, jokabide berdintsua dugu. Hauek aspektu markarik ez dutenez, denborari bakarrik dagokio komunztadura. Aditz nagusiaren araberakoa izaten da mendekoaren denbora ere, orainaldikoa hura orainaldikoa denean eta iragana hura iragana denean:

(47) Aitak nahi du semea mediku *izan dadin*.

Eta:

(48) Aitak nahi zuen semea medikua *izan zedin*.

c. Zenbaitetan esan izan da, azkenik, nagusia alegiazkoa denean, osagarriak ere alegiazkoa izan behar duela, aspektugabea: *isil ledin nahi nuke*, alegia. Ez dirudi, ordea, hori nahitaezkoa denik (ik. *EGLU II*, 428).

1.2.3. *Perpaus osagarri jokatuaren funtzio sintaktikoa*

a. Aditz edo predikatu-egituren osagarri jokatuak, izen sintagma ez direnez, ez dituzte, bistan da, subjektua, objektua eta gainerako funtzio gramatikalak seinalatzeko erabiltzen diren kasu-markak hartzen. Osagarritasuna seinalatzen dute *-eLA*, *-eN* edo dena delako menderagailuaren bitartez eta kito.

Hori horrela izanik ere, ordea, galdegin daiteke perpaus osoko zein gune aurkitzen duten osagarriok libre han kokatzeko, haren barnean hartzen baitute leku beti. Eta gauzak horrela ulertuz, hau da, hartzen duten kokagunea kontuan izanda, esan daiteke perpaus osagarri hauek batzuetan perpaus osoko objektu direla, beste batzuetan subjektu eta beste zenbaitetan, beharbada, beste funtzioaren bat betetzen dutela.

Gehientsuenetan, baina ez beti, absolutiboak betetzen dituen guneak hartzen dituzte osagarriok ere.

Horrela, sarri askotan *objektua* izaten dira, "ordezkatzen" duten izena bezala. Horrela da, noski, *esan*, *jakin*, *eskatu* eta horrelako aditzen osagarri direnean: *zer* esan edo jakiten den adierazten dute, bistan denez.

(49) a. *Eguraldi txarra datorrela* esan dute.

b. *Soldata igoko digutela* entzun dut.

c. *Badakit non bizi zareten*.

d. *Sar gaitzela* eskatu digute.

Hori aski argi dago. Nola azaldu behar da, ordea, *on degizula* eta gisa horretako perpausen funtzioa? Gorago esan dugun bezala, horietan isilpean

opa dizut edo horrelako aditzen bat dagoela pentsa daiteke eta, hortaz, perpaus osagarriak isilpeko aditz horren *objektua*-ren lekua hartzen duela.

Zer esan, ordea, *berria zabaldu*, *susmoa izan*, *erabakia hartu*, *elea ibili* eta horrelako predikatu-egituren osagarriez? Gogora ditzagun horrelako adibide batzuk:

- (50) a. *Txirrita hil zela zabaldu zuten berria.*
b. *Susmoa daukat zure bila dabiltzala.*
c. *Erabakia hartu dute aurten Parisera joango direla.*
d. *Elea zebilen oraingo honetan eskuindurrek irabaziko zutela.*

Nekez esan daiteke perpaus horietako osagarriek *objektuaren* gunea betetzen dutela, horretarako lekurik ez baitute, axaleko egituren bederen. Batzuetan betea dago gunea hori (*berria*, *susmoa* eta *erabakia* dira objektuak aurreko hiru adibideetan) eta beste batzuetan ez dago horrelako gunerik (laugarren adibidean, esate baterako, non *ibili* aditza iragangaitza den eta subjektuaren gunea *elea*-k betetzen duen). Horixe da axaleko egiturak erakusten duena. Dena dela, bamerago begiratu gero, ez da zaila ikusten predikatu-egitura horiek sakonean *iragarri*, *susmatu*, *erabaki* eta *esan* bezalako aditzen pareko direla eta, hortaz, osagarriak sakoneko aditz horien *objektu* direla nolabait.

Izan aditzarekin eraturiko egitura atributiboetan, berriz, perpaus osagarriak ageriko subjektuaren funtzioa hete dezake, zenbaitetan zein den subjektu eta zein predikatu erabakitzen erraza ez den arren:

- (51) a. *Egia da partida Lurdesek irabazi duela.*
b. *Agerikoa da ez garela Perurena bezain indartsu.*
c. *Ez da ziur nork irabaziko duen.*
d. *Mesederako da denok bat egin dezagun.*

Horietan perpaus osagarria da seguruenik ageriko subjektua eta *egia izan*, *agerikoa izan*, *ziur izan*, *mesederako izan* eta horrelakoak subjektu horri egotzen zaizkion predikatuak, zenbaitetan, esan bezala, subjektu-predikatuen analisia alderantziz ere egin daitekeela pentsa daitekeen arren. Badirudi horrelakoak multzo zabala osa dezaketela. Hona beste batzuk:

- (52) a. *Okerrena da ez dugula ezer ikusi.*
b. *Lehen aldia da hona natorrela.*
c. *Hurritzekoa da zenbat dakien.*
d. *Zalantzan da nork irabaziko duen.*

Beste zenbaitetan perpaus osagarriek *zertaz* edo *zeren* galderei erantzuten dietela esan daiteke. *Zertaz* galderari, hain zuzen, *ohartu*, *konturatu*, *gogoratu*, *ahaztu* eta horrelako aditzen osagarriek. Garbi ikusten da hori ondoko adibide pareak konparatzen badira:

- (53) a. *Ohartu zara horren jarreraz?*
b. *Ohartu zara haserre etorri dela?*
c. *Gogoratzen zara esan beharrekouz?*
d. *Gogoratzen zara zer esan behar duzun?*

Zeren galderari erantzuten diote, bestalde, *beldur izan* bezalako gobernatzaileen osagarriek.

- (54) *Beldur naiz ez dutela ezer egingo.*

b. *Gobernatzailea izena duten perpausok, azkenik, izenlagunaren lekua betetzen dute, bistan denez.*

- (55) *Nola ez eduki [barkatuko didazulako ustea]?*

1.2.4. Hitzien ordena perpaus osagarrietan

Hitz ordenari buruz bi galdera egin behar dira, perpaus osagarriak direla eta. Bat *kanpoko* ordenari buruzkoa da: non koka daiteke, edo kokatu behar da, perpaus osagarria perpaus osoaren barruan? Bestea *barruko* ordenari dagokio: nola ordenatzen dira perpaus osagarriaren zatiak?

1.2.4.1. Perpaus osagarrien kokapena

a. Ohiko kokapena: aditz nagusiaren ezkerrean edo eskuinean

Kanpoko ordenarekin hasiko gara. Pentsa daiteke perpaus osagarriek ere ordena-arau nagusiak beteko dituztela perpaus osoaren barnean hartzen duten lekuari dagokionez. Eta halaxe da neurri handi batean, nahiz ez beti, jokabide berezi batzuk ere bai baitira, berehala ikusiko dugun bezala.

• Ikus dezagun aurrena zer gertatzen den gobernatzailea izena denean. Horrelakoetan, perpaus osagarriak izen gobernatzailearen ezkerrean kokatzeko joera du, izenlagunek oro har izaten duten bezala –eskuinean kokatzea debeku ez badute ere–:

(56) a. *Zure susmoa*

b. *Atzoko susmoa*

c. *Adierazi zenidan susmoa*

Eta modu berean:

(57) *Gauzak okertzen ari zaizkiolako susmoa*

• Gobernatzailea aditz bat edo predikatu-egitura bat denean, berriz, perpaus osagarria haren ezkerrean nahiz eskuinean koka daiteke, arau nagusien arabera, geroago aipatuko ditugun kasu jakin batzuetan izan ezik.

Gogora dezagun, kontua hobeto ulertzeko, zer gertatzen den aditzaren osagarria perpausa izan beharrean izen sintagma bat denean: hau aditzaren aurrean zein ondoan koka daitekeela, galdegai, mintzagai eta gainerako ordena arau ezagunen arabera. Horrela, esate baterako, osagarria galdegaia baldin bada, aditzaren aurrean doa; eta, orokorrean, edozein ordenak bere implikazioak izan ditzake perpausaren informazio egiturari dagokionez. Bi hauek zuzenak dira, adibidez:

(58) a. *Trena entzun dut.*

b. *Entzun dut trena.*

baina ez dira berdin-berdinak, (58b)n hasieran kokaturiko aditza hanpatua-gotzat hartuko baitugu. *Trena* galdegai hanpatua izan edo ez, (58a) dugu hemen ordena ezmarkatua, dudarik gabe.

Izen sintagmaren lekuan perpaus osagarri bat ezartzen badugu, ordea, kontua ez da guztiz berdina. Hau ere aditzaren ezkerrean kokatzen da maiz, noski, izen sintagma bezala:

(59) *Tren hau Orion gelditzen dela* entzun dut.

Kontuan hartzekoa da euskarak eskaintzen duen aukera hori, bestelako ordenamendua duten hizkuntzetan debeku baitute perpaus osagarriek aditz nagusiaren ezkerrean kokatzea.

Dena dela, esan behar da ezkerrean bezala eskuinean ere koka daitezkeela euskaran perpaus osagarriak. Eta ez dirudi, gainera, horrek izen sintagmen kasuan bezalako inplikazioak dituenik. Ezin da besterik gabe esan, konparazio batera, ondoko (60b) perpausak (60a)k baino ordena markatuagoa duenik, goiko (58b)k zuen bezala:

(60) a. *Tren hau Orion gelditzen dela* entzun dut.

b. Entzun dut *tren hau Orion gelditzen dela*.

Beharbada zenbaiten ustez (60a) dotoreago da (60b) baino. Baina, usteak uste, azken hau izaten da askotan hobesten den ordena, inplikazio bereizirik gabe. Perpaus osagarria konplexua izaten delako gertatzen da, beharbada, eskuinean kokatzeko joera hori. Zenbat eta konplexuago izan hainbat eta handiagoa izango da, gainera, joera hori.

Perpaus osagarria ez ezik, predikatu nagusia bera luzea izateak ere eragina izan dezake horretan. Horra zer gertatzen den, esate baterako, goiko adibide-etako *entzun dut* soilaren lekuan predikatu konplexuago bat ipintzen dugunean:

(61) a. *Tren hau Orion gelditzen dela* esan didate gizon horiek.

b. Gizon horiek esan didate *tren hau Orion gelditzen dela*.

c. Gizon horiek *tren hau Orion gelditzen dela* esan didate.

Hiru adibideak zuzenak dira, noski, baina ordenarik arruntena (61b)koa da beharbada, hau da, perpaus osagarria predikatu nagusiaren eskuinean duena. Are argiago ikusten da hori predikatuak egitura etena duenean:

- (62) a. *Tren hau Orion gelditzen dela* da nik entzun dudana.
b. Nik entzun dudana da *tren hau Orion gelditzen dela*.
c. ?Nik entzun dudana *tren hau Orion gelditzen dela* da.

Hor ere perpaus osagarria predikatuaren eskuinean duen (62b) egiten zaigu ohikoena.

Beraz, hitz batean esanik, perpaus arrunten ordena-arauak erabat baztertzekoak ez diren arren, gogoan izan behar da perpaus osagarriak aditzaren eskuinean agertzeko joera erakusten duela ez gutxitan, bere konplexutasuna edo are predikatuarena direla kausa.

• Hori da jokabide orokorra. Badira, ordea, beste aukerarik gabe kokapen nahitaezkoa duten perpaus osagarri batzuk. Batzuek predikatuaren eskuinean kokatu behar dute nahitaez eta beste batzuek ezkerrean.

Beti eskuinean kokatzen dira, adibidez, *eskerrak*, *baizik eta* eta horrelako predikatuen osagarriak, *ezen* lokailua daramatenak eta *BAIT-* menderagailua dutenak:

- (63) a. *Eskerrak* trena Orion gelditzen dela!
b. *Trena Orion gelditzen dela *eskerrak*!
c. Oihuka etorri zen, *baizik eta* etxea sutan zela.
d. *Oihuka etorri zen, etxea sutan zela *baizik eta*.
e. Esan du *ezen* bihar lanik ez duela.
f. **Ezen* bihar lanik ez duela esan du.
g. Harrigarria da ez *bairuzu* horrelakorik sekula ikusi.
h. *Ez *bairuzu* horrelakorik sekula ikusi harrigarria da.

Bere barnean galde hitza daramaten adierazpen-perpaus osagarriak, berriz, ezin dira aditzaren eskuinean ipini:

(64) a. *Nor etorriko dela* uste du Pellok?

b. *Pellok uste du *nor etorriko dela*?

b. Mendekoaren galdegaia edo mintzagaia aditz nagusiaren aurre-aurrean

Mendeko perpausak hartzen duten lekuaz mintzatu gara aurreko atalean, perpausak beti ere osorik hartuta. Beste zenbait segida ere izan ditzakete, ordea, perpaus hauek: zenbaitetan galdegaia gainerako osagaietatik bereizi eta aditz nagusiaren aurrera igarotzen da; beste zenbaitetan, berriz, mintzagaia da aditz nagusiaren aurrean kokatzen dena.

Aurrerago ikusiko dugun bezala (ik.1.4.3.4), zenbait aditzek gobernatu-rik adierazpen-perpaus osagarriek galde hitz bat izan dezakete bere barnean. Adierazpenekoak dira horrelako perpausak, baina haien osagai bat galde hitza da eta, horrenbestez, perpaus nagusia galderazkoa da. Ondoko perpausetan bigarrena da horrelakoa:

(65) a. [*Andoni etorriko dela*] esan du Mirenek.

b. [*Nor etorriko dela*] esan du Mirenek?

Aditz nagusiak agintzen du horretan, esan bezala. Aditz batzuek onartzen dute aukera hori eta beste batzuek ez. *Uste izan, pentsatu* eta *esan* bezalakoek bai, esate baterako, baina *jakin, ohartu* eta *ahaztu* bezalakoek ez:

(66) a. *Nor etorri dela* esan duzu?

b. *Nora joan direla* uste duzu?

c. **Nor etorri dela* dakizu?

d. **Nora joan direla* ahaztu zaizu?

Azken hauek mintzalagunak esandakoa berritzen duen "oihartzun-galdera" gisa onar daitezke gehienez ere.

Horra, bada: adierazpen perpausak bere barnean duen galde hitza perpaus

osoaren "galdegaia" denez, aditz nagusiaren ezkerrean kokatuko da beti. Horregatik, arestian esan bezala, perpaus horiek ez dira inoiz aditz nagusiaren eskuinean kokatzen (ik. 64. adibidea).

Beste segida bat ere hartzen dute, ordea, maiz horrelako perpausok: aditz nagusiaren aurrean galde hitza utzi eta perpaus osagarriaren gaincrako osagaiak haren ondora pasatzen dira. Bestela esanda, mendeko aditzaren aurrean zegokion lekutik aditz nagusiaren aurrera igaro da horrelakoetan galde hitza.

- (67) a. *Nor uste du Mirenek etorriko dela?*
b. *Nork uste duzu irabaziko duela?*
c. *Nondik esan duzu etorri dela?*
d. *Nora esan dizute joan behar dugula?*
e. *Zergatik iruditzen zaizu egin duela hori?*
f. *Zer esker edo merezimendu uste duzu izanen duzula (...)?* (P. Axular, *Guero*, 210).

Galde hitza bera bezala, bestelako galdegaiak ere igo daitezke, noski, mendeko aditzaren aurreko kokapenetik aditz nagusiaren aurrera:

- (68) a. *Aitak uste dut esan duela hori.*
b. *Mikelek pentsatzen dut irabaziko duela.*
c. *Zuri esan dute emango dizutela lehen saria.*
d. *Zuregatik iruditzen zait etorri direla.*
e. *Bihar uste dut etorriko dela.*

Ondoko adibidean aditzaren baietza da galdegaia eta, horregatik, hura "pasatu" da aditz nagusiaren aurrera:

- (69) *Altubek urrazoi zuela dirudi hometan* (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak VIII*, 101).

Osagarrian galde hitza onartzen ez duten aditz nagusiekin ez da, noski, aurreratze horrentzat lekurik –"oihartzun-perpaus" moduan izan ezik--:

- (70) a. **Nor dakizu etorri dela?*
b. **Nora ahaztu zaizu joan direla?*

- c. **Miren* dakit etorri dela.
- d. **Parisa* ahaztu zait joan direla.

Adierazpen-perpausez mintzatu gara aurreko lerroetan, baina subjuntiboko perpausez ere gauza bera esan liteke. Horietan ere gerta daiteke galde hitza erabilizko aukera eta hura aditz nagusiaren aurrera pasatzekoa:

- (71) a. *Nork* nahi duzue *irabaz* dezan (/ *irabaztea*) ?
- b. *Noiz* esan diozue *etor* dadila (/ *etortzeko*) ?

Adierazpeneko perpausek eta subjuntibokoek ez bezala, ordca, zehar galderak ezinezkoa dute aurreratze hori. Horietan galde hitza, eta galdegaia oro har, mendeko aditzaren aurrean kokatzen da beti:

- (72) a. Esan al dizute *noiz* *etorriko* diren?
- b. **Noiz* esan al dizute *etorriko* diren?
- c. Galdetu diote *Parisa* joatekoa den.
- d. **Parisa* galdetu diote joatekoa den.

Mintzagaiak ere badu, azkenik, aditz nagusiaren aurrera igotzeko aukera eta ez ditu horretan, gainera, galdegaia dituen debekuak. Aditz nagusia batekoa edo bestekoa izan, mintzagaia aditz nagusiaren aurrera igaro daiteke:

- (73) a. *Horiek* uste dut *alemanak* direla.
- b. *Zurekin* iruditzen zait *asko* *ikasiko* dugula.

Eta:

- c. *Horrek* badakigu *lanak* *ondo* *egingo* dituela.
- d. *Gaztea* *nork* ez daki *ausarta* dela?
- e. *Hauak* ikusi duzue *nola* *dabiltzan*.
- f. *Saindu* *guztiek* egia duk *dutela* *podorea* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioezcoa* I, 27).

1.2.4.2. *Perpaus osagarrien barruko ordena*

a. Mendeko perpausaren elementuren bat haren aditzaren eskuinean

Hemen ezin dira aztertu bere sakoncan perpaus osagarriei dagokien barruko hitz ordenaren gorabehera zehatz guztiak. Esan daiteke, edozein modutan, menderagailua daraman aditza mendeko perpausaren azken buruan ipintzeko joera dagoela idatzizko euskaran.

- (74) a. Entzun dut [tren hau igandeetan Orion gelditzen *dela*].
b. [Tren hau igandeetan Orion gelditzen *dela*] entzun dut.
c. Jakin nahi dute [autobusa igandeetan zer ordutan izaten *den*].
d. [Autobusa igandeetan zer ordutan izaten *den*] jakin nahi dute.

Dena *dela*, mendeko perpausaren elementuren bat edo beste aditzaren eskuinera atzeratzea posible izaten da, ahozko erregistro informaletan batez ere. Hori errazago gertatzen da, gainera, mendeko perpausa aditz nagusi edo gobernatzailearen eskuinean doanean.

- (75) a. Entzun dut [tren hau Orion gelditzen *dela igandeetan*].
b. ?[Tren hau Orion gelditzen *dela igandeetan*] entzun dut.
c. Jakin nahi dute [zer ordutan izaten *den autobusa igandeetan*].
d. ?[Zer ordutan izaten *den autobusa igandeetan*] jakin nahi dute.

b. Ezezko perpaus osagarrien ordena

Jakina denez, ezezko perpausak zenbait ezaugarri berezi dituzte ordena kontuetan. Adizki jokatu ezkerretara mugitzen da perpausaren barrera:

- (76) Tren hau *ez da* Orion gelditzen.

Perpaus osagarri askotan ere hala da, eta hauetan ere ikus daiteke adizki jokatu aurreratzeko joera hori (77a), nahiz eta aditza perpausaren azkenean duena ere (77b) onartzekoa den:

(77) a. Entzun dut tren hau *ez dela* Orion gelditzen.

b. Entzun dut tren hau Orion gelditzen *ez dela*.

Ohikoagoa gertatzen da azken segida hori egitura konplexuagoetan, hau da, perpaus osagarria beste mendeko batean txertatua denean:

(78) Tren hau Orion gelditzen *ez dela* esaten duena oker ari da.

Perpaus lokabe gisa, ordea, gaurko egunean ohiko ordena ez da hori, jakina denez:

(79) ??Tren hau Orion gelditzen ez da.

1.3. ADIERAZPEN-PERPAUS OSAGARRIAK

1.3.1. *Nolakoak diren adierazpen-perpaus osagarriak*

Perpaus osagarrien ezaugarri orokorrak ikusita, haietako mota bakoitza aztertuko dugu ondoren, kapitulu banatan. Aditz batek edo predikatu-egitura batek gobernatzen dituenekin hasita, aditza [- *subjuntiboa*] duten adierazpen-perpausak aztertuko ditugu aurrena. Era honetakoak, alegia:

(80) a. *Laguna etorri dela* esan didate.

b. Ikusi dugu *gazte hori zintzoa dena*.

c. Ez dut uste *jende asko etorriko denik*.

d. Ikusiko duzue *nola primeran ibiliko zareten*.

e. Domaia da *hura ez baita etorriko*.

Itxura desberdinekoak izan arren, kontu batean bat datoz perpaus horiek guztiak: mendeko perpausa adierazpenekoa da guztietan –*etorri da, zintzoa da, ibiliko zarete...*–. Perpaus horietan ez da, alegia, ezer galdetzen –*ez eta, subjuntibo ez direnez, agintea, nahia edo horrelakorik adierazten ere*–.

Adibideek erakusten duten moduan, menderagailu bat baino gehiago era-

bil daiteke adierazpen perpaus osagarri hauetan; *-eLA* da, ordea, denetan nagusia, bera baita erabilerazabalena duena. Orokorra da, nolabait esateko. Gainerako guztiek –hau da, *-eNA*, *-eNIK*, *-eN* atzizkiek eta *BAIT*- aurizkiak– askoz ere leku mugatuagoa dute mota honetako perpausetan, bai testuinguru linguistikoari dagokionez eta baita euskalki-erabilerari dagokionez ere: predikatu jakin batzuekin eta euskalki jakin batzuetan baizik ez dira erabiltzen.

Denak aztertuko ditugu ondoren, atal banatan, bakoitza zein predikatu motarekin agertzen den eta zein ezaugarri dituen azalduz. Lehen atala eta luzecna, bistan da, *-eLA* menderagailuko perpausari eskainiko diegu.

1.3.2. -eLA menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak

1.3.2.1. Gobernatzaile motak

Perpaus osagarri hauek predikatu mota batekin baino gehiagorekin ager daitezke. Ezin erabil daitezke, ordea, bistan da, edozein predikaturekiu. Gisa horretako osagarria onartzen duena izan behar du nahitaez predikatuak (ik. 1.1.1). Har ditzagun, esate baterako, adibide erraz batzuk ematearren, *desegin*, *zauritu* eta *zatitu* bezalako aditzak. Aise ikusiko dugu horiek ez dutela perpaus osagarririk hartzen: **desegin dut ondo bizi zaretela*, **zauritu dugu Manuel joan dela*, **zatitu dugu pelikula hori ikusi genuela...* Horrelako esaldiak ez dira euskara, izen sintagma baita aditz horiek eskatzen duten osagarria, ez perpausa.

Zenbaitetan, gisa horretako aditz batzuk modu metaforikoan edo hedatuan erabiltzen ditugu eta orduan perpaus osagarri eta guzti ager daitezke. *Zorra pagatuko diodala irentsita joan da gizagaixoa* perpausuan, esate baterako, *irentsi* aditza berezko esanahi fisikoarekin ez, baina *sinetsi*-ren sinonimo gisa erabilia da eta hortxe ireki zaio mendeko osagarria hartzeko bidea. Izan ere, *sinetsi*, *uste izan*, *jakin*, *esan* eta gisa horretako aditzak dira *-eLA* perpaus osagarriak hartzen dituztenak.

Zehatzago esanda, mota jakin batzuetakoak dira adierazpen-perpaus osagarrien gobernatzaileak. Multzo zabal batean, hain zuzen, proposizio bat "esatea", "pentsatzea", "sinestea", "jakitea", "gogoratzea"... adierazten duten pre-

dikatuak ditugu. Horrelakoetan proposizioa dute predikatuek objektu eta haren egi balioaz ari dira, modu batera edo bestera. Beste predikatu batzuek, berriz, proposizioa bera baino areago hartan adierazitako gertakaria dute objektu eta gertakari horren gaineko jarrerak, balioztatzeak eta horrelakoak adierazten dituzte.

Multzo bakoitzeko predikatu batzuk zerrendatuko ditugu ondoren, sailka bilduta, sailen arteko mugak erabat zehazten erraza ez bada ere.

a. Hasteko, bada, objektu gisa proposizioa bera haritzen duten aditzak aipatuko ditugu. *Ekintza komunikatibo* bat adierazten dute maiz horrelakoek eta perpaus osagarriak, hain zuzen, komunikazio horren edukia ematen du aditzera. *Esan, adierazi, azaldu, erantzun, idatzi, jakinarazi, ziurtatu* eta horrelakoak dira perpaus hauetako gobernatzaileak:

- (81) a. Etxea saldu duela *esan digu* Josebak.
- b. Ezertarako gogorik ez zuela *adierazi zion* Lupek lagunari.
- c. Azkena nintzela *jakinarazi zidaten*.

Beste zenbaitek *iritzia, ustea, sinesmena, zalantza* eta horrelako gogapenak adierazten dituzte. Horrelakoak dira, beste zenbaiten artean, *uste izan, pentsatu, iritzi, iruditu, ziur egon, etsi...*

- (82) a. *Uste dute* gaur Mikel etorriko dela.
- b. Pozik bizi direla *dirudi*.
- c. *Ziur nago* aurten hobeto ibiliko garela.
- d. *Neritzan neretzat* bakarrik itz egiten zenduala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* III. 533).
- e. *Beldur naiz* hau nuela azken itzulia (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 232).
- f. Itz oriek aditu zituela, *etsitu zuen* zakur bat bezala ilen zutela (P. F. Irigaray, *Nafarroako Euskal idazlariak*, 146).

Hauen artean sar daitezke, beharbada, *aitortu* eta *ukatu* bezalakoak ere:

- (83) a. *Aitortu behar da* lehen okerrago bizi ginela.
- b. *Ezin da ukatu* orain hobeto bizi garela.

Beste batzuek *ezaguera*, *jakitea* edo *oharmena* adierazten dute. Horrelakoak dira, besteak beste, *jakin*, *ezagutu*, *konturatu*, *ohartu*, *ikusi*, *igarri*, *sumatu* eta, beharbada, *gogoratu*, *oroitu*...

- (84) a. *Badakit* Josebak etxea saldu duela.
b. *Ezagun du* gazteak zaretela.
c. *Konturatu naitz* lagunak joan zaizkizula.
d. Berak (...) *igarri zion* aldi gutxiko bizia zeukala (B. Garitaonandia, *Usandizaga*, 51).

Eta

- e. *Gogoratzen naiz* urte hartan zu izan zinela txapelduna.
f. *Ez ahaztu ni* naizela zure lagunik onena.

Balitzeko suposizioa adierazten da *egin*, *eman*, *esan* eta horrelakoen bitartez:

- (85) a. *Demagun* 1900. urtean gaudela.
b. *Egin ezazu* loteria tokatu zaizula..., zer erosiko zenuke?
c. *Esan dezagun* denak berdinak garela.

Multzo honetakoak dira, halaber, beharbada, harridura perpausak eta beste zenbait:

- (86) a. *Bai* gogorra dela zuekin bizitzea!
b. *Horixe ez* naizela inora joango!

Horietan guztietan, bada, proposizioa bera da aditzaren objektua eta hari buruzko ezagutza-jarrera adierazten du, nolabait esateko, predikatuak.

b. Beste predikatu batzuek, berriz, proposizioak adierazten duen gertakaria dute objektu, esan bezala, eta hari dagozkio. Horien artean aipa daitezke, besteak beste, aipatutako gertakaria dela-eta izaten diren gogo-jarrerak: hura *espero izateu*, *erabakitzea*, *hitz ematea*... –hau da, hura adierazte edo jakite hutsa baino zerbait gehiago–.

- (87) a. Danak *espero eben* txapeldun izarera elduko zala (J. San Martin, *Zirikadak*, 116).
- b. (...) *khanbiatu* naizūla, *esperanza* dizūt (*Uskara Libru berria*, 106).
- c. Bañan *esperantzetan / natxiok* oraindik, / alkar joko degula / nundik edo andik (Txirrita, *Bizitza ta bat bateko kantuak*, 80).
- d. *Erabaki zan* asto gainean zijoanek atzera begira joan bear zuala (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 102).
- e. *Zialarik* Erregiñak *erabaki* lehen gaian algareki etziradiela etzanen (J. Eguiateguy, *Lehen liburria*, 272).
- f. Maiz *deliberatzen dut* borthiz izanen naizela (M. de Chourio, *Imitacionea III*, 20).
- g. *Deliberatu zuen* zango bat bederen sartuko zuela (P. Lafitte, *Euskal literaturaz*, 247).
- h. Lenengo egunetan Indjanoari *agindu eutsan* bere alde emongo ebala (D. Aguirre, *Kresala*, 176).
- i. Batek goizeko bostetan eramango ninduela *abindu zidan* (A. Anabitarte, *Aprikako basamortuan*, 70).
- j. *Hitz-ere eman zuen* etzuela gehiago madarikatzen lurra (B. Larreguy, *Testament zaharr berr. historia I*, 33).
- k. *Itza ematen dezu* betiko utziko diruzula (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 265).

Horietako aditz batzuk adiera horretan ez ezik ezagutza-adieran ere erabiltzen dira inoiz, hala nola, *erabaki* eta *hitz eman* aditzak, "pentsatu" eta "ziurtatu" adierazteko, hurrenez hurren:

- (88) a. Erru guztiak inglesenak zirela *erabaki zuen* (G. Aresti, *Ipuinak*, 47).
- b. *Auzi erabakia baita* (...) esaldi ilun horiek punikoz daudela (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak IX*, 67).
- c. *Medikuak hitz eman zionean* ez zeukala gaitzik (Ib., 98).

Horiek, bistan da, lehen motakoan artean sartzekoak dira, proposizioaren beraren gainean eraikiak baitira, ez gertakariaren gainean. "Esaldi ilunak punikoz idatzita egotea" ez zaio, alegia, (88b) perpausa egin duenaren erabakiari zor. Hark egin duena horrela daudela esatea eta jakinaraztea da. Goragoko (87d-g)ko perpausak, aldiz, bigarren multzokoak dira, horietan

subjektuak berak erabakitzen baitu gertakaria, hau da, berak zehazten du zer egin behar den.

Gertakariaren gaineko jarrera-adierazpen dira, halaber, nolabaiteko balioztatzea dakarten adjektiboak edo *damurik*, *eskerrak* eta horrelako predikatuak.

(89) a. *Okerrena da ez direla ezertaz konturatu.*

b. *Eskerrak* sabel bat besterik ez zuela (G. Mujica, *Pernando Amezketarra*, 39).

c. *Damurik* etzekutsala Anaia Medikuak (P. Guillentenea, in Etcheberri, J., Ziburukoa, *Manual devotioenezkoa I*, 2).

Eta gertakaria dute objektu, azkenik, hari buruzko denhora erreferentzia ematen duten predikatuek ere.

(90) a. *Egunak ditu hor dela* (J. Duvoisin, in *OEH* s.v. *egun*),

b. *Amalau egun dira / nik urten nebala* (E. M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 206).

c. *Badu jadanik lau egun hil dela* (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 25).

d. *Irugarren aldia zen* Jesusek espasun berak Apostolui iragarri zieztela (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 440).

e. *Ez baitzuen lehen aldia* iheska zabilela (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 148).

f. *Lehen aldia zen* nik pertsulariak entzuten nituela (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 256).

c. Mota bi horien arteko aldea ez dagokio semantikari bakarrik, syntaxian ere bai baitu eragina. Horrela, bigarren multzoko perpausak beste osagarri mota batzuen bidez ere eman daitezke maiz, euskalkien arabera behintzat. *Espero izan*, *hitz eman* eta horrelakoen osagarriak, esate baterako, *-TZEA* aditz izenaren bitartez ere eman daitezke inoiz.

(91) a. *Egitia espero det / andre baten jabe* (Pello Errota, *Pello Errotak jarritako bertsoak*, 91)

b. Mikel txapeldun izatera *heltzea* espero dugu.

c. Itz ematen badidak (...) artu-emanik *ez izatea* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 70).

d. Hitz ematen duzu betiko *uztea*?

Gogo-jarrera adierazten dutenak *BAIT*-ekin ere egiten dira Iparraldeko cuskalkietan (ik. 1.3.6).

(92) a. Damurik (...) pondu batzuetan egin den aintzinamendua ez *baita* egiazkoa (P. Lafitte, *Idek eta zabal*, 38).

b. Okerrena da ez *baitira* ezertaz konturatu.

Horrelako aukerarik ez dute lehen motako aditzek:

(93) a. Uste dute gaur Mikel etorriko dela.

b. *Uste dute gaur Mikel *etortzea / etorriko baita*.

Garbi dago, horrenbestez, *-eLA* perpaus osagarriak aditz eta predikatu jakin batzuekin baizik erabiltzen ez direla eta hauek mota batekoak baino gehiagokoak izan daitezkeela. Edozein modutan, asko dago oraindik horrelako sailkapenen gainean ikertzeko.

1.3.2.2. Predikatu konplexuak gobernatzaile

Sarrerako kapituluan esan dugun bezala (1.1.2.2), zenbaitetan aditz soila ez, baina predikatu-egitura konplexu bat izaten da perpaus osagarrien elementu gobernatzailea. Adierazpeneko *-eLA* perpausetan ere asko dira horrelakoak: *berria zabaldu, notizia etorri, elea ibili, agindua eman, jakitun egon, jakina izan, uste izan, ziur izan, beldur izan, gogoan izan, esperantza izan, susmoa izan, arrazoi izan, etsita egon...*

(94) a. Izan zitekeen *herririk* itsusia iritsi zen: gerra piztu zela!

b. *Elea zebilen* eskuindarrek irabaziko zutela oraingo honetan.

c. *Inudipena daukat* okerren bat egin duzula.

d. *Agindua eman digu* etxe osoa garbitu behar dugula.

e. *Jakitun nago* zuk ez duzula emandako hitza jaten.

f. *Ziur naiz* dena ondo egingo duzula.

g. *Badut esperantza* aurtengo uda iazkoa baino hobea izango dela.

h. *Susmoa dut* hemen zerbait arraro gertatzen ari dela.

Aipatu tokian azaldu dugun bezala, predikatu osoa da gobernatzailea horrelako perpausetan, ez izena (*berri, ele, agindua, susmoa...*) edo adjektiboa (*jakitun, ziur*) beren aldetik, egitura osotik at. Hartatik bereiz baleude, ezingo lukete *-eLA* perpausa besterik gabe eraman.

- (95) a. *Gerra piztu dela *berria* faltsua da.
b. *Eskuindarrek irabaziko zutela *eleak* kezkatu ninduen.
c. *Etxea garbitu behar dugula *aginduak* guztiz harritu ninduen.
d. *Zerbait arraro gertatzen ari dela *susmoaz* eztabaidan aritu dira.

Esana dugu, hala ere, hori bezain agerikoa dela izena edo adjektiboa direla egitura konplexu horietako muina eta funtsa eta haiei dagokiela batez ere osagarria. Eta horregatik, hain zuzen, bere mendean har dezaketela izenek osagarria, *-KO* atzizkiaren bitartez izenlagun bilakatua:

- (96) a. *Gerra piztu delako* berria faltsua da.
b. *Eskuindarrek irabaziko zutelako* eleak kezkatu ninduen.

Konplexuak dira, halaber, *izan* aditzarekin eratzen diren egitura atributiboa:

- (97) a. *Egia da* irabazi duzuela?
b. *Gauza jakina da* gazteak ausariak izaten direla.
c. *Bistan da* arrotzak direla.
d. *Kontua da* irabazi egin dugula.

1.3.2.3. Gobernatzailea guztiz edo partez isilpean dutenak

Sarteran eman dugun azalpenaren arabera, beti behar du perpaus osagarriak elementu gobernatzaile bat. Askotan, ordea, hau ez da perpauslean ageri eta isilpean dagoela-edo pentsatu behar dugu (ik. 1.1.2.1.b):

- (98) a. Hantxe zebilen Fernando, bera zela gelako indartsuena.
b. Nigarrez joan zen haurra amagana: mina zuela.

- c. Amaren partez, gaur etxean geratuko dela eta ez itxoiteko.
- d. Denen aurrean jaiki zen, bera zela erruduna.
- e. Badatorrela!
- f. Harri hori jasotzeko? Ez naizela gero Perurena!
- g. Ez naizela hori egiteko gauza?
- h. Eta itzuli zen etxera, aldi hartan bederen ongi egin zuela bere mandatua (J. Barbier, *Légendes*, 146).

Horrelakoetan ez da zaila isilpean *esaten*, *esanaz*, *diot* edo horien antzeko aditz bat antzematea. Beste zenbaitetan, berriz, elementu gobernatzaile osoa ez, baina haren zati bat bederen falta da. Horrela, esate baterako, *egon* –lehen pertsonan beti– eta *eduki* aditzekin egiten diren esaldi hauetan zerbait falta dela susma daiteke:

- (99) a. *Nago* (...) adiskideek ez dutela erratearen beharrik (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 17).
- b. Ez dala *nago* (...) berba hori geijago esango (J. J. Moguel, *Baserritaar neque-zaleentzako escolia*, 104).
- c. Badakiela *nago* / diabruak aña (Udarregi, *Udarregi bertsolaria*, 59).
- d. Ez othe *dadukazu* zori ona dela zuretzat (S. Pouvreau, *Philotea*, 507).
- e. *Daukat* Jainkoak Migel zuela mendi hartan zinez deithu (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*, 21).
- f. Parte har lezakerela *daukagu* (Zerbitzari, *Azkaine*, 21).

Horietan, azpian *ustean egon*, *ustea eduki* edo horrelako zerbait dagoela pentsa daiteke eta, beraz, iritzi-predikatuak direla.

Balitzko suposizioa bideratzen duen *egin dezagun* eta horrelakoetan ere zerbait isiltzen dela dirudi:

- (100) *Egin ezazu* loteria tokatu zaizula..., zer erosiko zenuke?

Hor ere azpian *kontu egin* edo horrelako predikatu-egituraren bat dagoela esan daiteke, perpausean horren zati bat baizik ageri ez bada ere.

Beste batzuetan aditza falta da:

(101) a. Harro zihoan, *iduri eta* bera zela txapeliduna.

b. Lasaitu nintzen, nire txanda noizbait izango zela *esperoan*.

Horietan *iduri zuelarik*, *esperoan egonik* edo horrelako zerbait dagoela antzematen da. Beste zenbaitetan, berriz, aditz kopulatiboa falta da (*da*, *zen...*):

(102) *Okerrena*, berriz, ez zela inor ezertaz ohartu.

1.3.2.4. *Gobernatzaile berezi batzuk*

Perpau osagarrion gobernatzailea aditz bat edo barnean aditza daraman predikatu bat izaten da gehienetan, orain arteko adibideetan ikusi dugun bezala. Ez, ordea, beti. Zenbaitetan bestelakoa izaten da gobernatzailea. Horrela, esate baterako, ondoan duten osagarriaren gobernatzailezat ditugu harridura perpausetako *bai* eta *horixe* esklamatiboak, *horra* aurkezlea, eta beste batzuk, hala nola, *baizik eta*, *alegia* edota hiztunaren jarrera adierazten duten *eskerak*, *dumurik*...

a. *Bai* esklamatiboa da, beraz, ondoko adibideetako osagarrien gobernatzailea, ez baitirudi horietan isilpeko *diot* edo horrelako aditzen bat bilatzen ibili behar dugunik:

(103) a. *Bai* tristea dela horrela bizitzea!

b. Hori *bai* dela, gero!

Ohikoa denez, galdegaia doa perpau horietan ere aditzaren aurrean eta, hortaz, gobernatzailearen ondoan (103a: *bai tristea* dela). Galdegaia aditzaren baitza denean, hura doa gobernatzailearen ondo-ondoa, tartean beste osagairik ez duelarik (103b: *bai dela*).

Horixe esklamatiboa ere gobernatzailea da ondoko adibide hauctan:

(104) a. *Horixe* neroni joango naizela!

c. *Horixe* joango naizela!

Hor ere galdegaia doa gobernatzailearen ondoan eta mendeko aditzaren aurrean (104a: horixe *neroni...*). Galdegaia aditzaren baietza denean, berriz, huraxe doa osagarriaren lehen buruan eta gobernatzailearen ondoan (104b: horixe *joango...*).

b. *Horra* aurkezlearen kasuan ere ez dirudi isilpeko aditza aurkitzen saiatu behar dugunik, bera baita ondoko perpausaren gobernatzailea:

(105) *Horra* datorrela zure laguna.

Egia esan, horrelako perpausak ez dira maiztasun handi-handikoak, usua-go egiten baitira galde hitzen baten bitartez, adierazpenekoak izanik ere: *horra nola zure laguna badatorren; horra non guk nahi genuen bezala gertatu den guztia...* (ik. 1.3.5.2).

c. Batez ere ekialdeko euskaran erabiltzen den *baizik eta* ere ondoko osagarriaren gobernatzailea dela esan dezakegu. Aurrekoak ez bezala, *baizik eta* hori duen perpausa ez da inoiz lokabea, beste perpaus baten mendeko gisa erabiltzen baita beti, haren azalpena emanik eta "esanaz" edo horren antzeko zer-bait adieraziz. Hona erabilera horren berri ematen diguten zenbait adibide, testuetatik hartuak:

- (106) a. Berak beti ukatu du, *baizik-eta* besta-buru egunez kanpo ez zuela sekulan mokanesik (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 77).
- b. Azkenekoz apezari jarraiki zen delakoa, *baizik-eta* sorginkeriaren erroak apezaren baitan zirela eta hauk (...) (Zerbitzari, *Azkaine*, 94).
- c. Elizaren etsaiek aski maite dute gezurrez Innocent VIII mila lau ehun eta lauetan hogoita lauetan Aita Saindu hautatuaz mintzatzea, *baizik eta* bizi tzarra ereman zuela, haurrak ere ukhan zituela (Ib., 108).
- d. (...), hasi zen ipuin herbail eta deitoragarri gatzotz baten kondatzen, *baizik eta* neskatxa itipi bat zela ona zenik, eta ona zelakotz denek maite zutela, eta (...) (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 85).
- e. Amak berehala mezua igorri zion Erregeari, *baizik eta*, bi haurren orden, bi xakur izan zituela Erreginak (J. Barbier, *Légendes*, 68).
- f. Ondikotz etsaiak jadanik etzauden lo, eta gezurrez beltzatu zuten Iñaki, *baizik eta* haren fedea etzela iduri bezain katolikoa: ez ote zen hortako preso egona edo egoiter, ba Alcalan eta Salamancan, ba Parisen eta Venezian? (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 137).

Adibide horietan guztietan *-eLA* perpausa *baizik eta* gobernatzailearen osagarria da eta ez, zuzenean behintzat, goragoko perpausoko aditzarena. Horrela, esate baterako, (106a) adibidean ukatzen dena ez da perpaus osagarrian adierazten dena; beste zerbait ukatzen da eta nkapen hori oinarritzeko, hain zuzen, esaten da "besta-buru egnez kanpo ez zuela sekulan mokanesik". Eta (106c) adibidean ere perpaus osagarria ez da mintzatzearen objektua, "mintzatu" aditzak ez baitu objektu zuzenik; etsaiek Aita Santuaz mintzaten dira "esanaz" hain zuzen, "bizi txarra eraman zuela"...

Horren antzera jokatzeko du *alegia* adizlagunak ere, ekialdean duen erabileran, hau da, "itxura eginaz" edo horren antzeko zerbait adierazten duenean (*alegia etxera doala = itxura eginaz etxera doala*). Hau ere mendekoa da beti, inoiz ez lokabea, eta *alegia* da, esan bezala, ondoko osagarriaren gobernatzailea.

(107) a. Gure Gaxuxak, *alegia* eztuela deusere entzun, etzituen ere higitu begiak (E. Zubiri, in P. F. Irigaray, *Nafarroako Euskal idazlariak*, 106).

b. *Alegia* Errepublikaren ohoretan dela pesta hori, framazoneriak du hor Euskaldunen liberatea eta erlisioneaz zangoan dauzkala erakutsi nahi (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 171).

d. Hiztunaren jarrera adierazten duen *eskerrak* izenak ere ondoko osagarria gobernatzen duela esan daiteke, non eta ez den pentsatzen badela isilpean aditzen bat, "eskerrak *ematen ditut*" edo horren antzekoren bat, *alegia*.

(108) a. *Eskerrak* sabel bat besterik ez zuela (G. Mujica, *Pernando Amezketarra*, 39).

b. *Eskerrak* bizi honen ondok hor daukagula bestea (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 312).

Gauza bera esan daiteke *damurik* adizlagunaz:

(109) a. *Damurik* etzekutsala Anaia medikuak (P. Guillentenea, in J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioinezcoa I*, 2).

b. *Damurik* ez direla gaueko argiak oihal busti batzuek bezala! (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 141).

Aurrerago ikusiko dugun bezala, osagarri mota bat baino gehiago eraman ditzakete adizlagun hauek (ik. 1.3.7).

1.3.2.5. *-eLA osagarria eta -eLA adberbiala*

-eLA menderagailua perpaus osagarrietan ez ezik modua, denbora edo horren antzeko zirkunstantziaren bat adierazten duten perpausetan ere erabiltzen da:

- (110) a. Lanean ari zela, ezbeharra izan zuen.
b. Baionako kaleetan nenbilela, zure lagunak ikusi nituen.
c. Pelikula ikusten ari ginela, telefonoak jo zuen.

Ez da zaila perpaus-mota biak bereizten. Osagarriak, esan bezala, konplementazio-erlazioan daude eta elementu gobernatzaile bat dute perpaus nagusian. Adberbialak, berriz, adjuntuak dira, elementu gobernatzailerik ez dutenak. Aldera, esate baterako, ondoko pareak (a-b eta c-d):

- (111) a. Lanean ari zela esan ziguten.
b. Lanean ari zela izan zuen ezbeharra.
c. Badakit gaixorik zaudela.
d. Gaixorik zaudela, ez duzu lanera joan behar.

Pare bakoitzeko lehenak gobernatzailea du: *esan* eta *jakin* aditzek osagarria eskatzen dute eta *-eLA* perpausa da, hain zuzen, osagarri hori. Bigarrenean, berriz, ez dago horrelakorik: *ezbeharra izan* eta *lanera joan behar* esaldiek ez dute osagarririk eskatzen. Erantsitako adjuntuak dira horietan *-eLA* perpausak. Ondoko perpausetan ere alde bera ikus daiteke:

- (112) a. Garbi ikusi zuen medikuak Mikel gaixorik zela.
b. Gaixorik zela ikusi genuen Mikel azken aldiz.

Beste alde bat ere bada perpaus-mota bi horien artean: osagarriak ez bezala adberbialak zenbaitetan *-eLARIK* aldacra onartzen du.

- (113) a. *Lanean ari zelarik esan ziguten.
b. Lanean ari zelarik, ezbeharra izan zuen.

- c. *Badakit gaixorik zaudelarik.
- d. Gaixorik zaudelarik, ez duzu lanera joan behar.

1.3.2.6. Adierazpen-perpausak ez dira deklinatzen

Gorago esan dugun bezala, izenlagunak egiteko erabili ohi den *-KO* atzizkia har dezakete perpaus osagarri hauek.

- (114) a. Hegazkina erori *zelako* berria berehala zabaldu zen.
- b. Hori Lupek egin *duelako* susmoa daukat.

Eta, noski, hortik abiatuta *-eLAKOA*, *-eLAKOAN* eta gisa horretako perpausak egiten dira, barnean izenlaguna dutenak (ik. 1.6).

Esan behar da, ordea, *-eLA* perpausak, izen sintagma ez direnez, ez direla deklinatzen eta, hortaz, ez dituztela *-K*, *-I* eta *-EN* kasu atzizkiak ez eta instrumentaleko *-Z* atzizkia hartzen. Gorago esana dugu osagarritasuna gauzatzeari dutela helburu perpaus hauek eta ez dutela bestelako markarik hartzen (ik. 1.2.3). Horrela, esate baterako, ez dute ergatibo edo datibo markarik hartzen:

- (115) a. *Zuk hori esan *duzulak* harritu nau.
- b. *Zuk hori esan *duzulari* deritzot harrigarri.

Ez da pentsatu behar, bestalde, kasu atzizki horiek menderagailu soilak berak ordezkatu ditzakeenik eta, hortaz, honek ergatiboaren edo datiboaren "funtzioa" bete dezakeenik:

- (116) a. *Zuk hori esan *duzula* harritu nau.
- b. *Zuk hori esan *duzula* deritzot harrigarri.

Horrelakoak adierazteko, beste itzuli batzuek baliatzen gara. Adizki jokatugabeaz, esate baterako: *zuk hori esateak harritu nau, zuk hori esan izanak harritu nau...* Beste baliabide bat ere bada, inoiz-edo erabiltzen dena; aurrekari baten bitartez eraturiko egiturak eskaintzen duen baliabidea da (ik. 1.3.2.10):

(117) *Zerak harritzen nau, egun guztian ez dela etorri.*

Genitiboko *-EN* atzizkia ere ez dute perpaus hauek hartzen:

(118) a. *Lupe haserretu *delaren* arrazoia nabaria da.

b. *Datorren urtean ezkonduko *zarela*ren berria hedatu da.

Inoiz edo behin entzuten dira horrelako esaldiak, bai, baina esan behar da urrun daudela literatur tradizioko erabileretatik, ez baitira gramatikalak. Horietako batzuk adizki jokatugabeen bitartez ematen dira: *haserretzeko arrazoia...* Beste batzuk, berriz, *-eLAKO* atzizkia erantsiz egiten dira: *ezkonduko zarela*ko berria (ik. 1.6.2.).

Azkenik, instrumentalaren *-Z* atzizkia ere ez dute osagarri hauek hartzen.

(119) a. *Berandu *delaz* ohartu naiz.

b. *Medikuarenera joan behar *dudalaz* oroitu naiz oraintxe.

Dena dela, ergatiboarekin-eta gertatzen ez den bezala, instrumentala eskatzen duten zenbait aditzen osagarriak (*ohartu, oroitu, ahaztu...*) *-eLA* menderagailu soilarekin joan daitezke:

(120) a. Berandu *dela* ohartu naiz.

b. Medikuarenera joan behar *dudala* oroitu naiz oraintxe.

1.3.2.7. *-eLAKA eta -eLA ETA*

a. Perpaus osagarri hauek erabiliz sortzen diren esamoldeen artean, *-KA* adberbiala erantsita egiten dena aipa daiteke:

(121) Pasku aldia etorri zanean, an ebiltzan etxeokak autortzera joan bear ebalaka (A. Zubikarai, *Peru eta Mari*, 122).

Maiztasun handi-handirik ez duen esamolde horren azalpena honako hau izan daiteke: partez isilpean dagoen gobernatzailea *esaka* edo horrelakoren bat da ("an ebiltzan etxeokak autortzera joan bear ebalaka" edo, alegia); *esan* aditza isilpean utzi eta *-KA* atzizkia perpaus osagarriari erantsi zaio zuzen-

nean. Hor ez da, beraz, ezer berezirik. Horren antzekoak dira, adibide erraz batzuk ematearren, *Zergatik mintzo zara beti omenka?* edo *Ai eneka iguro du egun osoa* bezalako perpausak.

b. *Eta* juntagailua ere ondotik erants dakioke *-eta* perpausari, *esan* edo *uste* bezalako elementu gobernatzailea isilpean utzita. Esamolde hau ere ez da maiztasun handikoa eta bizkaicraz erabiltzen da batez ere, *egon* aditzaren ondoan ez gutxitan, azpian [*ustean*] *egon* edo horrelakoren bat ulertzen delarik:

- (122) a. *Eta* gaur, zori txarretan bizi dala-ta nago (E. Erkiaga, *Txurio txoria*, 135).
- b. Zemaia ganean nebala-ta nengoan (Ib., 145).
- c. Gau batean zozokume heldu jatan, buruzagiaren agindu zehatza ta estua eka-rrela-ta (Ib., 89).
- d. Tramanari atzamarra ebagi bear geuntsala ta ibilli giñan, olgetan (D. Aguirre, *Kresala*, 173).

Ez da nahasi behar egitura hori, noski, adberbiala izaki balio kausala duen egitura homonimo eta maiztasun handiagokoarekin: *hori dela-eta haserretu da*, *zu zarela-eta etorri naitz* bezalakokin, alegia.

1.3.2.8. Adierazpen-perpaus osagarrien ordainak

Gorago esan bezala (ik. 1.1.2.1. c), zenbait "ordain" erabil daitezke, labur-tze aldera edo, adierazpen-perpaus osagarrien lekuan.

a. Horrela, esate baterako, *hori* determinatzailea edo *hala* adberbioa:

- (123) a. *Hori* esan digu.
- b. *Hala* uste dut.
- c. *Hori* jakin dugu guk.
- d. *Hala* jakin dugu guk.

Azpian instrumentala dutenek, herriz, *horretaz* har dezakete perpaus osagarriaren "ordain" gisa:

(124) a. Etxera joateko ordua dela ohartu naiz.

b. *Horretaz* ohartu naiz.

Ez dirudi, ordea, beti-beti egin daitekeenik horrelako ordezkatzea. Predikatu-egitura batzuekin, esate baterako, ezinezkoa dela ematen du:

(125) a. Isuripu larri bat izan dela zabaldu da berria.

b. **Hori* zabaldu da berria / *Zabaldu da berria *hori*.

Eta gauza bera harridurazko perpaus zenbaitekin: *Horixe joango naizela!* perpausaren ordezkari, esate baterako, ez da *Horixe hori!* esaten.

b. *Baietz* eta *ezetz* ere erabil daitezke perpaus osagarri zenbaiten lekuan:

(126) a. *Baietz* esaten du.

b. *Ezetz* uste dugu.

Hauetaz buruz hitz bi esan behar dira. Baietzko eta ezezko perpaus osagarrien ordain izan daitezke, perpausa osorik eman nahi ez dugunean. Sarritan gertatzen da hori: adibidez, elkarrizketan ari garenean, galde-erantzunka.

(127) a. -Zer esan dizu Peruk, etorriko dela?

-*Baietz* esan dit.

b. -Uste duzu horiek zerbait egingo dutela?

-*Ezetz* uste dut.

Esan, uste izan, iruditu eta horrelakoek onartzen dituzte "bajezko" edo "ezezko" osagarri horiek, baina beste zenbait aditzek badirudi ezetz:

(128) **Ahaztu zait ezetz*.

Gogoan izan behar da, hori dela eta, gorago esan duguna: edozein elementu ez duela, alegia, gobernatzaile izateko gaitasunik. Horrela, esate baterako, *noski* adizlagunak ez du *-eLA* perpausik gobernatzen ez eta, hortaz, haren ordezkari ere. Perpaus lokabeetan erabiltzen da, *ez -eLA* ez *-ETZ* erantsi gabe:

- (129) a. Etorriko da, noski.
b. * Noski etorriko dela.
c. Bai, noski!
d. *Noski *baietz*.

Baiezkoa edo ezezkoa "berresan" behar direnean ere *baietz / ezetz* forma horiek berak erabiltzen dira:

- (130) -Amaitu al duzu lana?
-Bai.
-Zer?
-*Baietz*, amaitu dudala.

c. Aipatu behar dira, azkenik, isilpeko elementu batek gobernatzen dituen [*baietz* + partizipioa] tankerako perpausak, eronka edo apusturen bat egin nahi denean erabiltzen direnak. *Diot nik* edo horrelakoren bat sumatzen da isilpean, *ezetz* eta *baietz* horiek gobernatuz:

- (131) a. *Ezetz asmatu* zenbat diru dudan!
b. *Baietz iritsi* zu baino lehen orma hartara!

Alderantzizko ordena ere zilegi da:

- (132) a. *Asmatu ezetz* zer dudan eskuan!
b. Gure herriko taldeak *irabazi baietz*!

1.3.2.9. EZEN lokailua -eLA perpaus osagarrien lehen buruan

Adierazpen-perpaus osagarri hauek egiteko aski da, noski, -eLA tuendera-gailua erabiltzea eta horrelaxe egiten dira maizenik, beste ezer erantsi gabe. Aukeran dute, ordea, horrez gain, perpausaren hasiera markatzeko balio duen *ezen* lokailua hartzea.

Egiturari dagokionez kontuan izan behar da lokailu hau perpaus osagarria-

ren lichen buruan kokatzen dela beti, mugarri gisa, hura non hasten den erakutsiz. Eta, bestalde, hura daraman perpauos osagarria aditz nagusiaren edo elementu gobernatzailearen eskuinean joaten dela beti, sekula ere ez haren ezkerretara. Ondoko bi adibide hauetan, esate baterako, lehena da zuzena:

- (133) a. ETBk dio [ezen bihar eguraldi ona izango dela].
 b. *[Ezen bihar eguraldi ona izango dela] dio ETBk.

Lokailu honek erabilera ugaria izan du tradizioan, joan den mendea arte-edo behintzat, eta *eze / ezi / ze* aldaeretan ere ageri da.

Ezen formaren erabilera zabala izan da ekialdean Lapurdiko eta Bhe-Nafarroako idazleen artean hamaseigarren mendetik hemeretzigarren mendeko ia azken urteak arte, Leizarraga eta Axular barne, ondorengo adibide hauetan ikus daitekeenez:

- (134) a. Eztakizue *ezen* altxagarri guti batek orhe guzia altxa eraziten duela? (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 1 Cor 5, 6).
 b. Eta badinadi *ezen* naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala (P. Axular, *Guero*, 228).
 c. Segur naiz *ezen* lichenik dela nik ikusia (L. Goyhette, *Fableac*, 18).
 d. (...) oroitzen garelarik *ezen* eztugula gure baitarik deus ere, ezjeusa eta bekatua (...) (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 67).
 e. Garbiki ageri da *ezen* galtzerik baizen ez dela onbor utzietarik heldu (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 370).

Mendebaldean ere, gipuzkeraz idatzi duten hemeretzigarren mendeko idazleek erabili dute maiz forma hori, Iztuetak eta Lardizabalek batik bat.

- (135) a. Uste det nik *ezen* Idiazabalko mugapean bakarrik jaiotzen dirala kopuru (...) (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 174).
 b. (...) eta esan oi zuan *ezen* aur ark besterik ez bezelakoren bat bear zuela irten (A. M. Zabala, *Gabon gau bat*, 5).
 c. (...) baña jakiñaren gañean *ezen* ez dizutela izango bear bezelako esker eta ezagura (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 86).

Eze aldaera bizkaierazko testuetan ageri da, batik bat:

- (136) a. (...) baesan *eze* bere arma zarrak ausita letorrela, (...) (K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 3.2.9, 160).
- b. Azkenez jakin bear dozu *eze* zelangoa dan bizitzea alangoa izan doiala erio-tzea (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 93).
- c. Ta iñok uste baleuke *eze* zer-egin au deungea dala, edo bai beintzat adinona ta (...) (J. M. Zavala, *Fábulas*, 91).
- d. Bai, izenak artu ditu, ta esan dau *eze* biar dantzan egin bearko dozuela (D. Aguirre, *Kresala*, 64).

Gipuzkoa mendebaldeko idazleen testuetan eta Goi Nafarreraz idatzi dutenenetan ere ageri dira horrelako adibide batzuk:

- (137) a. Emendik da *eze* mezan ofrezitzen den sakrifizioa dela abentajatuago (J. Beriain, *Tratado de oyr missa*, 16r).
- b. (...) ez da itsutasuna ez konsideratzea *eze* ire bizitza gaisto orri segitzen zaiola prezisamente infernuu? (FLV 1989, 120, Munariz, XVIII.m.).
- c. Ara, Jauna, nik berorri diodana da *eze* ez dirala (...) Salamanca guzian (J.J. Arana, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza*, 61).

Forma horren erabilera, beraz, testuek erakusten digutenez, XX. mendea baino lehenagokoa da gehienbat.

Ezi aldaera, berriz, Zuberoako testuetan ageri da, batz ere:

- (138) a. Seguratzen zitut *ezi* gizon terrible bat dela (K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 3.2.8, B. de Echaux. 1584).
- b. Erran baderaukat *ezi* / oro harena nizala / (...) bana horregatik hura / ezta nizaz arregura (A. Oihenart, *Proverbes basques*, 20).
- c. Jakin ezazü *ezi*, etsai zaharrak egin ahala oro egiten diala zuri zure hunialako desirküntiaren gal eraziteko (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia III*, 6, 4).
- d. Uste beitiük *ezi* ükenen tiala arropak? (*Astolasterrak*, 29).
- e. Lagüner diezü hüntü bi kobla, / üdürütürük *ezi* merexi ziela (Etchaun, *Bertsokak*, 336).

Adibide bat edo beste ageri da Goi-Nafarroako testuetan ere. Hona, esate baterako, Lizarraga Elkanokoaren hauek:

(139) a. (...) erran bear da *ezi* ardoan exzesoa ezuela ematen, baizik galtzen indarra (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 112).

b. Eta adbertitzen dut *ezi* bertze edozeñek kunpli dezakela erregla gau bere ariora (Ib., 96).

Beraz, forma honen erabilera ere, adibideek erakusten dutenez, XX. mendea baino lehenagokoa da.

Ze aldaera, azkenik, bizkaierazko eta gipuzkerazko testu batzuetan ageri da.

(140) a. Azkenez, jakin beozu, *ze*, zelakoa dan bizitzea, alakoa *da*la eriotzea (P. A. Añibarro, *Escu-liburua 1*, 83)

b. Batxi: emen diñue *ze* lengo eguneko esakeran arratsaldian izan ziriala esamiñak (R. M. Azkue, *Batxi Guzuz*, 126).

c. Batxi, esan eban Urabillak; emen diñue *ze* geu be ezkariela Otxandijon jaijuak, egalaburra ta egaluzia zertzu dirian ez jakituko (Ib., 130).

d. (txoriyak) esan zidak, *ze*, egiten ez baditugu bideak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa kantuan asiko *da*la (A. Apaolaza, *Patziko Txerren*, 95).

e. Eta okasio onekin dio San Agustiñek, *ze* gularen anditasuna ezta la ainbeste neurritzen janariaren kalidadetik, nola jateko ansiatik; eta dio, *ze* tenplanza ere eztagoala ainbeste janariaren kalidadean, kantidadean eta bakoitzaren osasunari edo argaltasunari dagokion jana konpontzeko moduan (J. I. Guerrico, *Sayaquera*, 56).

Forma hau aski erabilia da gaur egun ahozkoan, bizkaieraz batez ere.

1.3.2.10. *Osagarriaren aurrekariak perpaus nagusian*

Sarri askotan perpaus nagusiaren barruan elementu bat izaten da, ondoan datorren osagarriaren abisu ematen duena. Osagarriaren "aurrekaria" da, nola-bait esateko. *Zera, hau, honela* eta horrelako elementuez ari gara. Anaforikoak dira horrelakoak eta ondoan datorren *-eLA* perpausak ematen die bere esanahia.

- (141) a. *Zera esan zigun, ixuraz distiratsua zen asmo horrek etorkizun iluna zuela eta bera behintzat ez zela zalantzako urratsak egiten hasteko prest.*
- b. *Zera bururatu baitzitzaion: bi gudaloste zizala elkarren aurka zetozenak (P. Berrondo, Don Kijote Mantxako, 195).*
- c. *Behean sinatzen duenak hau adierazten du: hamabost urte daramatzala funtzionario lanetan eta, beraz, bosgarren hirurtekoa aitortu behar zaiola.*
- d. *Zuzendaria ikasgela sartu eta honela esan digu: gaur ez dela jai eta, hortaz, eskolak izango direla ohiko orduetan.*

Zenbaiten ustez galdegaiaren kontuarekin lotua dago aurrekari horien erabilera. Jakina den bezala, aditzaren aurre-aurrean kokatu ohi da galdegaia perpaus arruntetan. Perpaus osagarriak, ordea, aditzaren eskuinean joateko joera du, galdegaia denean ere, batez ere luzea eta konplexua bada. Komeni da, hortaz, horrela diotenen ustez, hark aditzaren aurrean "hutsik" utzitako lekuan haren ordezeko bat agertzea, galdegaitasuna markatzeko. Zer esan horretaz? Hitzunen estilo eta joera kontuak izan daitezkeela hor jokoan, baina agerikoa dela horrelako "ordezkoak" ipintzea ez dela beharrezko, askotan ageri baita osagarria aditz nagusiaren eskuinean haren aurrean inolako ordezkorik utzi gabe.

Galdegaiaren kontuak adinako eragina izan dezakete, beharbada, perpaus osagarriaren luzerak eta konplexutasunak: aditz nagusitik urrun geratzen da maiz osagarritasuna adierazten duen *-eLA* menderagailua –arc gehiago egitura nolabait etena denean– eta, orduan, lagungarri gertatzen dira ondoko perpausa osagarria dela ohartarazten gaituzten aurrekari horiek.

Beste aukera bat ere ematen digu baliabide honek, beharbada dotoregia ez den arren inoiz-edo erabiltzen duguna (ik.1.2.3 eta 1.3.2.6). Perpaus osagarriak ezin bete ditzakeen zenbait funtzio sintaktiko betetzen ditu aurrekariak. Horrela, adibidez, subjektu ergatiboarena:

- (142) a. **Egun guztian agertu ez zarelak harritzen nau.*
- b. *Zerak harritzen nau: egun guztian ez zarela agertu.*

Eta berdin beste zenbait:

- c. *Honi ere erreparatu behar zaio: gehiago balio duela osasunak aberastasunak baino.*

d. *Gauza batekin nago harrtua: inork ez duela, alegia, ordutegia aldatzeko eskatu.*

e. *Honetan biltzen da guztia: askoz gehiago dela ez dakiguna dakiguna baino.*

Hona testuetatik harturiko adibide bat:

(143) Zerak arritzen nindun: bizi nintzan bezain egi zala nik autamena banuela (Orixe, *Aitorkizunak*, 157).

Esan behar da, edozein modutan, baliabide hau berezia dela, batez ere ahozko mintzairari dagokiona, eta ezin erabil daitekeela besterik gabe kasu marka eta atzizki guztiekin.

1.3.3. *-eNA menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak*

Adierazpen-perpaus osagarrietan erabil daitezkeen beste menderagailu bat *-eNA* menderagailu konplexua da (*-eN + A*). Bizkaieratik at gutxitan agertzen da menderagailu hau, eta bizkaieraren barnean ere ez da nonahi erabiltzen, ez geografari dagokionez, ez eta, agertzen den azpieuskalkietan, testuinguru linguistikoei dagokienez ere.

Batzuetan proposatu izan da, *-eLA* eta *-eNA* erabiltzen diren hizkeretan, banaketa semantiko baten arabera erabiltzen direla biak, eta banaketa honek aditzen faktibotasunarekin duela zerikusia. Alegia, aditz eta predikatu faktiboekin *-eNA* erabil daitekeela, forma hori ezagutzen duten eremuan, jakina. Aditz horien mendeko perpausaren proposizioa egiazkoa denean erabiltzen bide da *-eNA* menderagailua.

Arazoa honako hau da, ordea: testuetan aurkitu ditugun lekukotasunek ez digutela froga zehatzik eta behin-betikorik eskaintzen. Joera batzuk sumatzen ditugu gehienez ere, ez arau zehatzik.

Beraz, eta hipotesiak hipotesi, zalantzarik sortzen ez duten puntuetara mugatuko gara hemen *-eNA* menderagailuaren erabilera deskribatzeko, hau da, literaturako testuetan zein aditzekin eta predikaturekin erabili izan den aipatzera. Hona hemen horietako batzuk: *aditu*, *aitortu*, *erakutsi*, *ezagutu*, *gogoratu*, *gomutatu*, *igerri*, *ikusi*, *jakin*, *sinetsi*, *susmatu*...

- (144) a. (...) *erakutsi* daigun geure berba guztietan, egijaren semiak gariana (Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, 181).
- b. Baiña *ezagutu* jakoen euren biotzetan mugidaldaren bat *dabillena* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 143).
- c. Aren arpegi itun eta itzalean *igarri* dagike Matxinek, ezbearren bat izan *dana* (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 196).
- d. *Ikusi* dogu kristinaua zarcana alan izenez, zelan señalez (*Busturico Doctrinea*, 11).
- e. Alako gauzaak pekatu diriana *jakin* arren, jazoten isteen deutsee legeginak, curak pekatu egin bagarik (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 149).
- f. (...) eta kintenkerijok egunian baño egunian andijaguak ixango dircana *susmauten* dodanez (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 125).

Egia izan, ezagun izan, gezurra izan, itxura ukan, jakina (izan), seguru egon / izan, zer esanik ez, zalantzarik gabe, bistan egon, horixe eta horien gisako predikatuekin ere erabiltzen da -eNA menderagailua bizkaierazko testuetan eta mintzairan:

- (145) a. *Ezagun dozu* askotan izan *etzareana* bertan (D. Aguirre, *Kresala*, 39).
- b. *Ezagun da* gaztea *zareana* (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 69).
- c. I. Gautxorixezia, *gizurru don* gero Patxiko il *dana* (J. San Martín, *Zirikadak*, 28).
- d. Jatunak *gerana* bai, *gauza garbi zurrda* (D. Aguirre, *Garoa*, 287).
- e. *Ziur egon*, ba, orrelaxe gertatu *zana* (A. Zubikarai, *Itxastarrak*, 124).
- f. *Horixe nirec dena!*

Eskerrak, lastima, seinale bezalakoekin ere ager daiteke -eNA atzizkia:

- (146) a. (...) *eskerrak* halakoren batean andra Adclaidak autua eteten *ebana* (E. Erkiaga, *Irribarrea galtzen denean*, 129).
- b. *Lastima* *guztetxo haizena* hire burua pregoian jartzeko hire anaiena bezala (Y. Etxaide, *Amaiur*, 18).
- c. (...) tratu eske guregana igorri zuenean, *seinale* trukea interesatu *zaiona* (Y. Etxaide, *Begia begi truk*, 35).

Adibideetan ikusten den bezala, bestalde, mendeko adizkiak, hau da, *-eNA* daramanak, perpausaren azkenean joateko joera erakusten du, ondotik osagai bat edo beste izan badezake ere.

- (147) Baña fedeko *egija da*, Jaungoikuak mundubaren asieran ezer bere ezeti egindako espirituzko kriaturaak diriana aingurubak (Fray Bartolome, *Icusiquizunac*, 12).

1.3.4. *-eNIK menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak*

Hegoaldean ezezkako perpaus osagarri zenbaitetan *-eNIK* menderagailu konplexua erabiltzen da (*-eN + IK*):

- (148) a. *Il danik ez det beintzat entzun* (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 15).
 b. Eztet pentsatzen aiek *dutenik* gaurko gaztien gaitzikan (Uztapide, *Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa*, 98).
 c. Iñaki, e'txuut uste geiyau *ikusiko duanik* Zubiaurre (N. Alzola, *Atalak*, 78).

Inoiz galderazko perpausetan ere erabiltzen da, batez ere sakonean ezezkako esanahia duten galdera erretorikoetan:

- (149) a. (...) gizarica orretarako *danik* nok siñestu? (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 112).
 b. Eta zeuk uste ete dozu hori *lortuko dodanik*? (J. Altuna, *Ipuñak*, 64)
 c. (...) nola jakin nezakeen nik (...) European indio gaxo auen erlijioa jakiteko orrelako gutiziarik *izango zenik*? (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 20).

Ez da pentsatu behar, ordea, ezezkako *-eta* are galderazko- perpaus guzti-guztietan erabiltzen denik menderagailu hori. Perpaus batzuetan erabiltzen da, gorago esan dugun moduan, ez guztietan, predikatu eta egitura guztiek ez baitute kontu horretan jokabide bat. Zenbait perpausetan *-eNIK* da ohiko menderagailua; beste zenbaitetan *-eLA*; eta beste batzuetan, azkenik, bata zein bestea erabiltzen dira, baina bien artean alderen bat izan daitekeelarik, esanahiari dagokionez.

Hegoaldekoa da, esan bezala, *-eNIK* menderagailu honen erabilera, azken bi mendek hauetan gauzatu dena. Autore zaharragoak, arc Hegoldekoak, *-eLA* erabiltzen zuten horrelako perpausetan ere.

- (150) a. Ez dezazuela esan, nik gogor itzegin dizuedala (Aguirre Asteasukoa, *Eracustadiac III*, 425).
- b. Itzegingo det garbiro, baña ez uste izan itzegiten dedala urliatatik, ta sandiatatik, zenbait misto gaiztok crausi oi duen eran (Ib., 366).
- c. Ez dinot, ordituta dagozala (...) (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 48)

Aitortu behar da, gainera, menderagailu bien banaketa zenbait ingurutan aski argia den bitartean, beste zenbaitetan zail izaten dela kontuak erabat mugatzen, hiztunen erabilera ere ez baita beti guztiz zehatza. Menderagailu bien arteko aldea hain meharra izanik, gerta daiteke inoiz baten lekuan bestea erabiltzea, hau da, normalean bat agertzen den inguruan hiztunak oharkabean-edo bestea erabiltzea. Beraz, batzuetan bederen, arau zehatzez baino areago jokabide nagusiez mintzatzeraz mugatu beharko dugu.

Saia gaitezen zehazten, bada, jokabide nagusiak gogoan ditugula beti ere, noiz erabiltzen den *-ENIK* menderagailua eta zein den esanahiaren aldetik hura erabiltzeak dakarren aldea.

a. Hasteko esan daiteke, gauzak oro har ikusita, predikatuak agintzen duela maiz zein den erabili beharreko menderagailua. Horrela, esate baterako, *uste* edo *iritzia* adierazten duten predikatuak *-uste izan*, *pentsatu*, *iritzi*, *iruditu*, *eman*, *gogoak eman*...- *-ENIK* menderagailua eskatzen dute. Horiexek dira, hain zuzen, menderagailu hau modurik beteenean eskatzen dutenak.

- (151) a. Nikanor amarrutsuak, ez deritxa orri zuzen esana danik (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 166).
- b. Andra zurra ta adimen zolikua dozu au, ene jauna; baiña mutil onek *eztirudi* beronen amak ez beronen aitak sortuba danik, zein bata zein bestiairen iruntziatarakua dozu-ta (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 117).
- c. Kastillan mats-arbol bat ez det *uste* danik / aurtan orri aña ardo kendu diyotetik; / trago ederra pranko badute eranik, / baño ez det aditu mozkortu diranik (Txirrita, *Bizitzu ta bat bateko bertsoak III*, 131).
- d. Areago: goiko ta lurpeko senideekiko narda zeranik ez dizu *gogoak ematen* (...) (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 68).
- e. Bigarrenian ez artu autan Jaungoikuearen izenik, ortik ez *datukat itxaropenik* zeruratuko naizenik (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 216).
- f. *Ez du ematen* ezer dakitenik.

Beste predikatu batzuek, aldiz –hala nola, *ahaztu, duda egin, duda izan, egia izan...*, edo denborazko erreferentzia ematen dutenak– *-eLA* osagarria izaten dute normalean:

- (152) a. *Ez da ahaztu behar* baita ere gizon dala (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 51)
- b. *Etzaitzala ahaztu*, errejidoria naizela (V. Iraola, *Oroitzak*, 27).
- c. *Ezin duda egin daiteke* biltze-lana dela gurean presakakoena (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak VIII*, 64).
- d. *Ez da dudarik etorriko* dela.
- e. *Ez da egia lagunak zain* daudela.
- f. *Ez da aunitz urte* galdua dela oitura au Euskalerrian (Orixe, *Euskaldunak*, 411).

Eta beste zenbait predikatuk, azkenik –*esan, entzun, ikusi, jakin...*–, menderagailu bat zein bestea erabil dezakete.

- (153) a. *Orrek, ala ere, ez zu esan nai* Uitzu yale bizkorra eztanik (Lizardi, *Itz lauz*, 45).
- b. *Ezin esan dezakegu* gizon prestua izan zela (G. Aresti, *Tobera*, 273)
- c. *Ez egidazu esan* biotzik ez dodanik (B. Gandiaga, *Elorri*, 179).
- d. *Ez egidazue esan* zeregin andiak daukazuezala (P. A. Añibarro, *Lora sorta espiritual*, 37).
- e. (...) *ez dot ikusten* ori bakarrik danik gure ondasuna (B. Enbeita, *Nere apurru*, 218).
- f. *Ez dute ikusi nahi* bide horretatik amildegira doazela.
- g. Eta nik neuk beintzat *ez dot entzun* geiago kanpora urten dauanik (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 91).
- h. Basoan gordeta daudenek *ez dute entzun* gerra amaitua dela.

Kontuan izan behar da, edozein modutan, jokabide jakin bat duten predikatuek hura alda dezaketela, bere esanahia nabartzen edo zehazten duen elementuren bat hartzen dutenean. Horrela, *jakin* aditzak menderagailu biak hartzen baditu ere, *ez daki asko* predikatuak *-eLA* eskatzen duela dirudi:

(154) Ez daki asko Nikanor'ek, polizi-gizonok orretan emoten dituela euren bizitzako ordurik asko (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 191).

b. Normalean *-eNIK* erabiltzen dituzten predikatuek ere *-eLA* hartzen dute zenbait inguru eta egituratan.

Horrela, esate baterako, perpaus nagusia galderazkoa denean *ez da* normalean *-eNIK* menderagailua erabiltzen. Jakina denez, perpaus nagusiak, kasu honetan ezezkakoa denak, izaera desberdina izan dezake: adierazpena gauzatzeko duena izan daiteke *–[ez dut uste...]*–, edo agindua *–[ez uste izan...!]*–, edo galdera *–[ez duzu uste...?]*–. Horra, bada: predikatu nagusi hori galderazkoa denean, perpaus osagarriak normalean *-eLA* menderagailua eramaten du, *ez -eNIK*.

(155) a. Ez zaizu iruditzen gerra ondorengo filologia gehiegi mugatu dela testuetara (...)? (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak IX*, 74).

b. Ez al zekin apika guzti au etor lekiokela pozoitegi artatik? (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 72).

c. Ez al-dozu inoiz entzun, andreak, urak eta subak laster aurkitzen dabela bazter? (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 53).

d. Ez dezu ikusten eztakiyela zer egiten duen? (V. Iraola, *Oroitzak*, 65).

e. Ez al dakizu ugazkian egon bear dubela gutxiyenez bi egunian? (M. Soroa, *Au ostatuba!*, 83).

Baina, horietan ez bezala eta gorago aipatu zalantzen lekuko:

f. Ik ez al dun sifosten begia betzuloan ikara ia dardar dabilenean, begizkoa jaurtitzen duenik? (Orixe, *Mirio*, 31)

Gauza bera gertatzen da perpaus osagarriak ondotik *besterik* murrizgarria daramanean ere:

(156) a. Gudariak ikusi zituztenean, Mateori bera lotzera zetozela besterik etzitzaion bururatu lenbizi (N. Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 144).

Ez dirudi egitura horretan *bera lotzera zetozenik besterik* esateko modurik dagoenik.

Predikatu nagusia konplexua denean ere gauza bera gertatzen da, ondoko (b-e) adibideek erakusten duten bezala. Horietan, osagarria gobernatzen duen perpausa beste nagusi baten mendekoa da.

(157) a. Ez nuen uste Getxok irabaziko zuenik.

Baina:

- b. Getxok irabaziko zuela uste ez bazenuen, zergatik egin zenuen apustu haren alde?
- c. ?Getxok irabaziko zuenik uste ez bazenuen, zergatik egin zenuen apustu haren alde?
- d. Getxok irabaziko zuela uste ez zutenek asmatu zuten.
- e. ?Getxok irabaziko zuenik uste ez zutenek asmatu zuten.

Testuetan ikusten dira, hala ere, han-hemen, horien antzeko egitura konplexu batzuk *-eNIK* menderagailua dutenak:

(158) a. Onelako Kristau epelak, eta nazaiak, kondenatuak izateko peligro, edo arrisku andian daude: zergatik ordea pekatu andirik egiten duenik uste ezpadue? (J. I. Guerrico, *Sayaquera*, 390).

b. Au ikusi-ta Ambrosiok: Ara jauna, artu dituzun ezkerro ta elkarrenganako losagatik, utzi egingo dizkitzut; baiña gainerakoak erre gabe utziko ditudanik uste izatea, alfer alferrik uste izatea litzateke (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 151).

c. Horiek horrela direla, galdegin behar da, azkenik, zer den erabilera horien azpian dagoena, hau da, zerk agintzen duen predikatu eta egitura bakoitzaren jokabidea den bezalakoa izatea. Eta, orobat esan, zer alde dagoen, aukerakoak diruditen kasuetan, menderagailu bat erabili edo bestea erabili.

Ez da erraz kontu hauek guztiak argitzen eta eztabaida bera ere antzua gerta daiteke arazoa behar bezala aurkezten asmatzen ez bada. Egi presuposizioaz-eta mintzatu izan dira batzuk, *-eLA* dutenek horrelako presuposizioa dutelakoan. Baina kontuak ez dira horrela ere erabat argitzen.

Joskeraren eta esanahiaren berri ematen duen azalpen bat aurkezten saiatuko gara ondoko lerroetan, argi zerbait egingo dugulako esperantzan, nahiz eta ondo dakigun azalpen horrekin ere ez ditugula ilun guztiak uxatuko eta argi berriak agertu ahala ikuspegia ñabartzen joan beharko dugula.

Gauzak erahat esanda, badirudi ezetzaren esparrua dela hemen jokoan dagoen auzia. Ezetza zeri dagokion dela kontua, alegia. Horrela, *-eNIK* dararmaten parpausak ezetzaren esparruaren barnean daudela dirudi; eta *-eLA* dutenak, berriz, ez.

Agerikoa da hori normalean *-eNIK* eskatzen duten *uste izan*, *iritzi*, *iruditu*, *pentsatu* eta horrelako predikatuak dituzten perpausetan. Horietan, hain zuzen, ezetza menpeko aditzari dagokiola esan daiteke eta honen aurrean zuen kokagunetik igo dela aditz nagusiaren aurrera: [*uste ez(-eLA)*] → *cz[uste (-eNIK)]*. Hortaz, *ez dut uste etorriko denik* eta *uste dut ez dela etorriko* perpausak errankideak dira; eta berdin *ez dirudi diru asko duenik* eta *diru asko ez duela dirudi* perpausak ere.

Bestelako predikatuekin ez dago horrelakorik: *ez du esan etorriko denik* eta *esan du ez dela etorriko* bi gauza dira; hor ez da gertatu ezetzaren igoerarik eta, beraz, ez dago errankidetasunik. Edozein modutan, horietan ere *-eNIK* perpausa ezetzaren esparruan dagoela esan daiteke. Ikus dezagun, konparazio batera, honako adibide pare hau:

(159) a. Ez dute esan Mikel etortzekoa denik.

b. Ez dute esan Mikel etortzekoa dela.

Mikel etortzekoa da proposizioa ezetzaren esparruan dago lehen adibidean eta hartatik kanpoan, berriz, bigarrenean. Honetan, *izan* ere, ezetza *esan* predikatuari baizik ez dagokio. Honako hau izango litzateke eskema:

a. *cz[esan proposizioa]*

b. *Proposizioa ez[esan]*

Hori horrela dela frogatzeko, ikus dezagun nola jokatzen duten ezezko polaritatea duten *ezer*, *inor*, *inon*, *inoiz*, *behin ere* eta horrelako elementuek egitura horietan –beti ere menderagailu biak erabiltzen dituzten cuskalkietan,

jakina-. Lehenbiziko adibidearen osagarrian sar daitezke horrelakoak, hau ezeztaren barruan baitago. Bigarrenean, aldiz, ez.

- (160) a. Ez dute esan inor etortzekoa denik.
 b. *Ez dute esan inor etortzekoa dela.
 c. Ez dute esan ezer galdu dutenik.
 d. *Ez dute esan ezer galdu dutela.
 e. Ez dugu entzun horrelako milagroak behin ere gertatu direnik.
 f. *Ez dugu entzun horrelako milagroak behin ere gertatu direla.

Eta, hori horrela bada, zcin da goiko (159) perpaus bien artean dagoen aldea, esanahiari dagokionez? Hara, lehenbizikoaren gorabehera hau da: [_{prop}(*Mikel etortzekoa da*) *esan dute*] adierazpena egiestea ala ezeztatzea. Gure kasuan, bistan da, ezeztatu egiten da adierazpena –adierazpen osoa, alegia– eta, hortaz, hortxe amaitzen da proposizioari buruz planteatua zegoen guztia. Adierazpen osoa ezeztatzearekin batera proposizioa bera ere baliogabetua geratzen da erabat, bestetarako zirriturik utzi gabe, hartarako beste predikaturik izan daitekeenik ez baita planteatu ere egiten. Horixe da, bada, *-eNIK* menderagailua duten perpausok aditzera ematen dutena.

Bigarren perpausuan, aldiz, –hots, *-eLA* duenean– jokoa hau da: "Mikel etorri da" proposizioari dagokionez, [*esan*] predikatua egiestea ala ezeztatzea. Predikatuaren egiespena da jokoan dagoena. Kasu honetan ezeztatu egiten da eta, beraz, aditzera ematen da predikatu hau ez dagokiola proposizio hari, baina –eta hau inportantea da– libre uzten da hura gainerako predikatu posible guztietarako, berariaz uzten baitira horiek guztiak ezeztapeuetik kanpoan. Berariaz ematen da aditzera proposizio horri buruz ezeztatzen dena "haiek esan izana" dela, ez beste ezer. Gainerako predikatu posible guztiak –*bestek esan izana, haiek pentsatu izana, egia izatea...*– berariaz geratzen dira ezeztapenetik kanpoan.

Zer esan nahi du horrek? Presuposizioetarako esparrua libre uzten dutela *-eLA* menderagailua duten perpausok. Hau da, presuposizio bat izaez gero, perpaus mota hau erabiliko dela. Zenbaitetan esan izan da *-eLA* perpausak egiaren presuposizioa daramala berarekin beti. Izan daiteke, bai, hori presu-

posizioa, baina ez da nahitaczkoa horrela izatea; bestelako edozein presuposiziook ere izan baitezake hor leku.

1.3.5. -eN menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak

1.3.5.1. -eN menderagailua hartzen duten gobernatzaileak

Euskalki batzuetan -eN menderagailua agertzen da *uste izan*, *beldur izan* edo *badaiteke* bezalako gobernatzaileen adierazpen-perpaus osagarrietan.

Uste izan-en erabilera, egitura horretan, ekialdekoa da. *Uste izan* forma osorik edo *izan* aditzari dagokion zatia isilpean duela ager daiteke:

- (161) a. *Uste dut* gure aldekoa den.
b. *Ez dut uste* baden inor hori egingo duenik.
c. *Nik uste* gibelego atetik joana den.

Ustez (eta) predikatua gobernatzaile duela ere erabiltzen da:

- (162) a. Altxatu ziren denak, *ustez eta* bilera amaitua zen.
b. *Ustez ezi* (...) hartarik landa izanen den nurbait, (...) hobekiago haren lehen iseia izariren dianik (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, XVI).

Iparraldekoak dira, halaber, ondoko hauek:

- (163) a. *Badut heldurra* giroa oraino okertuko den.
b. *Badaiteke* Mikel ez den zuk diozun bezain gaztea.
c. Ez ninduten hek aditu; aditu banindute ere, *baditake* lokartuko ziren berdin (J. Etchepare, *Buruchkak*, 36).

Eskerrak gobernatzaileak, azkenik, -eLA menderagailuko osagarriak izaten ditu normalcan, lekuko idatziek erakusten dutenez. Baina ahozko mintzairan -eN menderagailua hartzen du maiz, Hegoaldeko euskalkietan ere (ik. 1.3.7):

- (164) *Eskerrak ez zaizun hori besterik gertatu!*

1.3.5.2. *Galde hitza + -eN egiturako adierazpen-perpausak*

Badira *-eN* menderagailua daramaten beste adierazpen-perpaus osagarri batzuk ere, perpausaren lehen buruan lokailu eginiko galde hitz bat daramatenak (ik. 1.4.3.4).

a. *NOLA, ZELAN*

Nola edo *zelan* galde hitzekin eratzen diren adierazpen-perpausak aipatu behar dira aurrena. Gogoan izan behar da, noski, perpaus hanetako *nola* edo *zelan* hitzak ez direla zehargalderetan erabiltzen diren galde hitzak, zerbait egiteko, csateko... moduz galdetzen dutenak, menderakuntza barneko lokailuak baizik.

(165) a. *Ikusiko duzu nola ahaztuko zaion Mireni dirua ekartzea.*

b. *Gogoratzen zara zelan erosi zuen Mikelek auto zahar hura? Bada, dagoeneko matxuratu egin zaio.*

c. (...) *miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu (...)* (H. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 5).

Kontakizuntan-eta erabiltzen da maiz egitura hori, *esan*, *kontatu*, *entzun* eta horrelako gobernatzaileekin. Baina baita, goiko adibideek erakusten dutenez, *ikusi*, *gogoratu*, *jakin* eta "ezagutza" adierazten duten gobernatzaileekin ere.

Horrelako adibideak ez dira falta tradizioan. Horren lekuan inoiz entzun eta irakurtzen den *nola... -eLA* egiturak, ordea, ez dirudi aski den adinako onarpena duenik:

(166) ??*Entzun dut nola, baserria erre zenean, herriko gazteek jaialdi handi bat antolatuta zutela haren alde diru biltzeko.*

b. *HORRA NON... gisako esapideak*

Aurreko perpausen antzekoak dira *non* "lokailuarekin" osatzen diren adierazpenak ere. Esapide gisakoak dira horrelakoak, gobernatzailea beti ere *hona*, *horra*, *hara*, *begira* edo horrelako aurkezleren bat dela.

- (167) a. Horra non aspaldi hasitako ikasketak amaiturik diruzun.
b. Begira non gutxien espero zutena agertzen den.
c. Ona non gure etsai zital guziak arriturik isildu diran Madriden ta Parisen (M. Larramendi. *Carta a Gándara*, 162).
d. Hona non jukutria bat gaitza bururatzen zaion (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 13).

Osagarri horiek ez dira, bistan da, zehargalderak, adierazpenak baizik. Beste zenbait galde hitz ere erabil daiteke egitura honetan:

- (168) Begira nondik nora h nazkagarri honek baduen zenbait indar (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak*, 221).

Normalean ez da zaila izaten perpaus hauek antzekoak diren zehargalderetatik bereizten. Demagun, konparazio batera, ondoko perpausa:

- (169) Ikusiko duzu nola etorriko den Mikel goizeko ordubietan.

Perpaus hori, dagoen dagoenean, bitara uler daiteke. Normalean zehargalderatzat hartuko da (a), baina adierazpenekoa ere izan daiteke (b):

- (169') a. Ikusiko duzu nolako itxurarekin etorriko den Mikel goizeko... (= zehargaldera).
b. Ikusiko duzu, etorriko da, bai, Mikel goizeko ordubietan (= adierazpena).

Ez dira falta, ordea, irakurketa biak bereizteko moduak. Izan ere, zehargaldera denean, galde hitzaren eta ondoko aditzaren arteko lotura estuagoa da. Adierazpenekoan askeago dago aditza lokailu bilakatu den galde hitzetik, hau ez baita haren "galdegaia".

Ahozkoan intonazioa izaten da bereizgarri. Adierazpenekoan eten labur bat egin daiteke lokailuaren ondoan, hau aditzetik bereiziz eta "galdegaia" beste bat dela adieraziz. Goiko adibidean aditzaren haiezkoa da galdegaia (*ikusiko duzu nola // etorriko den*).

Horretaz gain, bestalde, adierazpenekoetan aditza lokailutik urrundurik ere eman daiteke, zehargalderetan baino errazago:

- (169'') a. Ikusiko duzu *nola* ordubietan *etorriko den* Mikel.
b. Ikusiko duzu *nola* Mikel ordubietan *etorriko den*.

Hona beste adibide batzuk:

- (170) a. Ikusiko duzu *nola* Mireni dirua ekartzea ahaztuko zaion.
b. Gogoratzen zara *zelan* Mikelek auto zahar hura erosi zuen?
c. Hona *non* denak elkarrekin abiatu ziren.

Dena dela, urruntze hori ez da beharrezkoa eta lokailuaren ondo-ondoan ere joan daiteke aditza, perpausa adierazpenekoa izanik ere, goiko (169) adibideak erakusten duen bezala. Hona haren antzeko beste adibide bat:

- (171) Ikusiko duzu *nola* amaituko duten gaur bertan lan guztia.

Eta, azkenik, (168) adibideak erakusten duen moduan, galdegai guneko BA- baiezkua ere eraman dezakete adierazpenekoek, aditza sintetikoa deuean, zehargalderek ez bezala:

- (172) a. Horra non Mikelek *baduen* autoa erosteko adina diru.
b. *Ez dakit non *baduen* Mikelek dirua.

1.3.6. BAIT- menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak

a. Orain arte aztertu ditugun *-eLA* eta *-eN* menderagailuez gain, BAIT-menderagailua baliatuz ere egin daitezke mendeko perpaus osagarriak. Gatozen ondoko adibide hauekin:

- (173) a. Gerthatzen da *enplegatzen baitira* bitartekoak onguden egiteko (P. Axular, *Guero*, 214).
b. Nondik heldu da hain guti *bai dire* salbatzen direnak? (A. Baratciart, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltceco moldea*, 142).

Ikus daitekeen bezala, bi adibide horietan BAIT- aurrizkia mendeko perpaus osagari batean agertzen da. (173a) adibidean esan daiteke *gertatzen da* aditzaren subjektuari dagokiola perpaus osagarria, eta (173b) adibidean ere horrelatsu.

BAIT- aurrizkiaren erabilera hau Iparraldean agertzen da, perpaus osagarriak gertakari edo egoera bat adierazten duelarik, eta ez proposizio bat.

Adibidez, *BAIT-* ez da modu horretan erabiltzen *esan, uste* edo *egia izan* bezalako aditz edo lokuzioekin:

- (174) a. Uste dut / esan didate / egia da [bakarrik etorriko *dela*].
b. *Uste dut / esan didate / egia da [bakarrik etorriko *baita*].

BAIT- perpaus osagarria gobernatzen duten aditzak gisa horretako osagarriak eskatzen edo onartzen dituzten gertatze aditzak dira, hala nola, esate baterako, *gertatu, heldu* –(173b)ko erabilera berezian– edo *gutitarrak egin*:

- (175) *Gutitarrak egin omen du ez baita dena erori* (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 15).

Horien ondoan gertakari edo egoera baten aurreko jarrera subjektiboa adierazten duten aditzek edo lokuzioek ere gobernatzen dituzte *bait-* perpaus osagarriak: *domaia izan, harrigarri izan, handi izan, bitxi izan* eta abar.

- (176) a. *Domaia da hura ez baita etorriko*.
b. *Harrigarri(a) da ez baituzu* holakorik sekula ikusi.
c. *Handi(a) da ez baita* eskolarat agertu (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 279).

b. Batzuetan *BAIT-* perpausa aitzinetik agertzen den aurrekari batekin erabilia da. Honela gertatzen da ondorengo adibidean:

- (177) *Hunek ninduen errabiarazten, den gauzarik argiena ukatuko baitzautzun* (Ib., 770).

Adibide horretan *errabiarazi* aditzaren subjektua *hunek* da, esan nahi baitu lehen erakuslea ergatiboan. Hala ere anaforikoa da hor erakuslea eta ondotik agertzen den *BAIT-* perpausak ematen dio bere esanahia (-eLA perpausen aurrekarietz, ikus 1.3.2.10).

Gisa horretako itzulia erakuslea absolutiboan delarik ere kausitzen da, hala nola ondoko adibidean:

- (178) *Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon honek, berretuz karga arinduko zeikala?* (P. Axular, *Guero*, 58).

c. Euskara zaharrean, Leizarragaren lanetan bereziki, kopularekin agertzen da perpauos osagarria, gertakari baten kausaz galdera egiten denean, edo gertatzearen beraren izatea adierazten denean:

(179) a. *Zergatik da ene bilha baitzinabiltzaten?* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Luk. 2, 49).

b. *Eta izanen da azken egunetan (...)* erautsiren *baitur* neure Spiritutik haragi guziren gainera (Ib., *Akt.* 2, 17).

BAIT- perpauosen erabilera hau kausitzen dugu, halaber, zenbait esapidetan hitzunak damua, poza edo haserrea adierazten duclarik, *beharrik*, *damurik*, edo beste harridurazko esapide bat baliatuz:

(180) a. *Damurik (...)* pondu batzuetan egin den aintzinamendua ez *baita* egiazkoa (P. Lafitte, *Idek eta zabal*, 38).

b. *Beharrik* hor *baitire* oraino bizi (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 90).

c. *Beharrik* han *bainuen* ama; bertzenaz. lazturan ereman nintuzken nere gau egunak (J. Etchepare, *Buruchkak*, 11).

d. Itsuaren itsua, erhokeriaren erroa, uste *baituzu* ezen gero, (...) erraxkiago ilt-kiko zarela (P. Axular, *Guero*, 58).

1.3.7. *-eLA-rekin edo beste menderagailu batekin egin daitezkeen perpauos osagarriak*

Arestian ikusi dugu euskalki batzuek *-eLA* menderagailuarekin egiten dituzten zenbait perpauos osagarri beste euskalki batzuek *-eNA* (1.3.2) edo *-eNIK* (1.3.3) menderagailuekin egiten dituztela. Bitasun bera gertatzen da inoiz *-eLA* eta *-eN* menderagailuekin ere. *Uste izan* predikatuak, esate baterako, *-eLA* osagarria hartzen du mendebaldean eta *-eN*, zenbaitetan, ekialdean, goraxeago azaldu dugun bezala. Beste predikatu batzuekin ere gertatzen dira horrelako bitasunak.

• *Eskerrak* predikatuak, esate baterako, *-eLA* nahiz *-eN* menderagailuko perpauosak goberna ditzake, are euskalki beraren barnean. Normalean *-eLA* menderagailuko osagarria hartzen du, tradizioan ikus daitezkeenez:

- (181) a. Ta eskerrak (...) *enitubela* bi egunez lenago aldatu piperrak bezela (M. Soroa, *Baratzan*, 23).
b. Eskerrak sabel bat besterik ez *zuela* (G. Mujica, *Pernando Amezketarra*, 39).
c. Eskerrak etxean behintzat ez *zela* besterik egiten (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 369).
d. Eskerrak bizi honen ondotik hor *daukagula* bestea (Xalbador, *Odolaren min-zoa*, 312).

Idatzizko lekukoek horrelako erabilera agertzen duten arren, ordea, ahozkoan *-eN* ere erabiltzen dela esan behar da. Hona, esate baterako, Garatek bildutako ahozko lekukotasun batzuk (*OEH*-n aipatua, s.v. *esker*):

- (182) a. Eskerrak ama etorri *den* (V-arr, G-azp-nav, AN-gip).
b. Eskerrak ez *dun* egin (G-goi-azp).

Eta are, menderagailurik gabe:

- (183) Eskerrak ama etorri *da* (G-goi).

• *Damurik* adizlagunaren osagarriak, berriz, *-eLA* edo *BAIT*- menderagailuekin nahiz menderagailurik gabe joan daitezke.

- (184) *Damurik ez direla* gaueko argiak oihal busti batzuek bezala! (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 141).

Edo:

- (185) *Damurik*, hola konkortua *baizira*! (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 39).

Nahiz:

- (186) *Damurik* ez *da* zilegi (S. Monho, *Poèmes basques*, 66).

• Beste bitasun mota bat erakusten du *beldur izan* predikatuak. Honek ere *-eLA* osagarria eraman ohi du maiz:

- (187) a. Zeren bildur izateko dan gogortuko *zarala* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 104).
b. Guziak edo geientsuak kondenatu *zirala*, bildur izatekoa da (G. Arrue, *Mayatececo illa*, 54).
c. (...) *mortala dela* beldur bazare (F. A. Jauffret, *Catichima*, 14).

- d. Beldur naiz gaitz izango zaidala nonbait publika eraztea (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 195).

Baina beste honetan *-eN* ageri da:

- (188) Beldur nauk (...) Jainkoa galduko *dudan* (B. Gazteluçar, *Eguia Catholicac*, 163).

Nola ulertu behar da adibide horretako osagarria? Esan daiteke, beharbada, ondoko kapituluaz aztertuko ditugun zehargalderen artean sartzekoa dela hau ere, maiz agertzen baita zehargaldera *beldur izan* predikatuarekin, *ote* partikulak haren galdera-izaera agerian uzten duelarik. Hona zenbait adibide:

- (189) a. Beldur izatekoa da hizkuntzak *ez ote duen* (...) zerbait ere galduko (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak VIII*, 101).
b. Beldur naiz nere etxeok asarretuko *ote zaizkidan* (T. Aguirre, *Uztaro*, 62).
c. Beldur naiz *ez ote giren* (...) jadanik hartaratuak (J. Hiriar-Urmuty, *Zezenak Errepublikan*, 13).

Kontuan izan behar da, hori bai, perpaus osagarri horiek formaz galderak diren arren –zehargalderak, hain zuzen ere–, esanahiari dagokionez adierazpen gisa ulertu behar direla: *beldur naiz ... (ez) ote den = beldur naiz ... dela*, alegia. Forma bat edo bestea erabiltzea hiztunak bere esanari egozten dion segurtasun mailarekin lotua egon daiteke.

Predikatu honek, bestalde, subjuntiboko osagarriak ere onartzen ditu (ik. 1.5):

- (190) Beldur naiz joan dadin hiritarren gana (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*, 172).

1.4. GALDE-PERPAUS OSAGARRIAK EDO ZEHARGALDERAK

1.4.1. Oinarrizko zenbait gogoeta

1.4.1.1. Nolakoak diren zehargalderak

a. *Adierazpenak eta galderak*. Zenbaiten ustez osagarrien artean arazo gutxiena sortzen duten perpausak zehargalderak dira, ia euskalki guztietan joko-

bide berdina dutelako eta ia menderagailu berberaz baliatzen direlako: *-eN*. Badira diferentziak, baina oso txikiak.

Atzizki hau, *-eN*, bestelako perpausetan ere agertzen zaigu. Esate baterako, adierazpeneko osagarrien artean honelakoak agertu zaizkigu (ik. 1.3.4 eta 1.3.5):

(191) a. Ez dut uste gaur etorriko *denik*.

b. Ez dut uste gaur etorriko *den*.

Hala ere, ez da batzuk eta besteak elkarrekin nahasteko arriskurik, erraz baitira bereizten elkarrengandik. Arrazoi honegatik: osagarrien sakonean adierazpen-perpaua dugu eta zehargalderazkoenean galde-perpaua. Ez hori bakarrik; azken hauetariko askotan galdetzaile deitzen ditugun hitzak azaldu ohi dira maiz, perpausen izaera agerian utzirik.

Argi dezagun pixka bat gehiago azken arrazoi hau. Auzi honetan guztian beharrezko da bi perpau hauen arteko desberdintasuna zertan datzan ongi ikustea:

(192) a. Nik [norbait etorri dela] esan dizut.

b. Nik [nor etorri den] esan dizut.

Lehenaren azpian adierazpen-perpaua ezkututzen da:

(193) Norbait etorri da (*-eLA*) + *hori* esan dizut nik.

Aldiz, bigarrenaren azpian galderazko perpaua ezkututzen da:

(194) Nor etorri da (*-eN*) + *hori* esan dizut

Diferentzia honetan datza: lehenak, adierazpen soila delako, *-eLA* atzizkia erakusten du. Bigarrenak, galderazkoa delako, *-eN* atzizkia eraman behar du. Hori da zehargalderen nahitaezko marka, adierazpeneko osagarrietatik bereizten dituen.

b. *Zehargalderak eta galdera zuzenak*. Gogoan izan behar da, bigarren, galderak bitara egin daitezkeela: zuzenean edo zeharka. Bi adibide laburrek argituko digute hori:

(195) a. Nondik zatoz?

b. [Nondik zatozen] galdegin dizut.

Lehenean galdera zuzenean egina dago: hiztunak bere solaskideari egiten dio zuzenean galdera, informazioaren baten bila. Gainera, perpaus hori perpaus lokabea da, ez dago beste baten mende. Bigarrenean, berriz, bada galdera bat, baina beste perpaus baten mendean jarria dago. Beraz, zehargaldera zehar estiloari dagokio.

Baina biak galdera direla esan dugu eta informazio eskari gisa interpretatzen ditugu. (195a) dioenak badaki solaskidea nonbaitetik datorrela, baina "nonbait" hori ezagutzen ez duenez, hori zehaztea eskatzen dio hizketa lagunari. Hots: batek ez duen informazioa eskatzeko formulatzen dira galderak.

(195b) perpausaren ere gauza bera dugu. Diferentzia bakarra da oraingoan informazio eskari hori *galdegin* bezalako aditz baten mende emana dugula. Hemen [nondik zatozen] egiazki galdera da, informazio eskaria. Eta galdera hori *galdegin*-en objektua da: galdegiten direnak galderak izan ohi dira. Honako hau esango bagenu bezala:

(196) Hau galdegin dizut: Nondik zatoz?

Honako adibide hauetan ere gauza bera:

(197) a. [Non jan zuen] galdetu nion.

b. [Noiz oheratu nintzen] galdegin zidan.

Adibide hauetan kortxete artean biltzen dena egiazki galdera bat da. Izan ere, *galdetu* / *galdegin* / *itaundu* aditzen objektua galdera izan ohi da.

Baina gramatiketan "zehargaldera" gisa ematen diren perpausak ez dira gehienetan era honetako *galderak* izaten, ez dira gehienetan informazio eskariak izaten. Honako hauetan, adibidez,

- (198) a. Ez dit esan [noiz etorri den].
b. Ez dut erabaki [nori emango diodan].
c. Ez dugu pentsatu [nora joango garen].

mendeko perpausek galderazko forma duten arren, ez da ezer galdetzen, perpaus txertatua ez da egiazki informazio eskaria: norbait noiz etorri den *esan* duela dioenak ez du ezer eskatzen; nori emango diodan *erabakitzea* ez da informazioa eskatzea; informazio eskari ez den bezala nora joango garen *pentsatzea*. Horrenbestez, galdera zuzenak egiatan informazio eskariak diren bezala, zehargalderak ez dira hala izaten. Hauetan, "galdera" kontzeptua modu zabalago batean ulertu behar da, ez nahitaez informazio eskari gisa.

Zer dira, horrenbestez, galderak orokorrean, eta zehargalderak, bereziki? (195a) perpausa hartzen badugu berriro gogoan:

(199) Nondik zatoz?

hor esaten ari garena honako honen antzeko zerbait da:

(199') Zu X-tik zatoz. X hori zehatz ezazu.

Hain zuzen, nolabait, zuzeneko galderetan perpausean "ezezagun" gisa ematen zaigun atal bat identifikatzea eskatzen da.

Tankera honetako perpausak txertaturik ageri direnean, aditz nagusiaren arabera interpretatzen dira. Aditz nagusia *galdegin* bada, hots, "informazioa eskatu", aditz horren objektua, zehargaldera, zuzeneko galderen moduan interpretatuko da:

(200) [Nondik zatozen] galdegin dizut.

Perpaus hau honela parafraseatuko genuke:

(200') Zu X-tik zatoz. X hori identifikatzeko eskatu dizut.

Hots: X horren erreferentzia zehazteko eskatu dizut, informazioa eskatu dizut.

Baina aditz nagusia beste edozein bada, *jakin* edo *esan*, adibidez, perpaus txertatuak funtsean lehengoan dirau, nahiz eta oraingoan ez den inondik ere informaziorik eskatzen:

- (201) a. Badakit [nondik zatozen].
- b. Esan diot [nola josi behar duen].

Hauen parafrasiak oraingoan honelatsu izango lirateke:

- (201') a. Zu X-tik zatoz. Badakit X horren erreferentzia.
- b. Hark X erara josi behar du. Esan diot X era horren erreferentzia.

Gauzak horrela aurkeztuta, argi ikusten da arrazoizkoa dela zehargaldera guztiak eta zuzeneko galderak funtsean gauza bera direla pentsatzea.

Perpaus nagusia, bestalde, nahi den bezalakoa izan daiteke: ezezkoa edo galderazkoa ere izan daiteke, hor goiko zenbait adibidetan ageri den bezala. Horrek, izan ere, ez du ezer aldatzen:

- (202) a. Ez dit esan [zenbatean saldu duen].
- b. Inork ba al daki [non bizi den]?

Harridura adierazteko ere erabil daitezke zehargalderak: galde hitzak daramatzen arren, ez dute ezer galdetzen. Harridura azaltzen dute, besterik gabe. Baina hauek ere zentzu zabalcan zehargalderak direla esango dugu:

- (203) a. Ez dakit nola dedan hitz oek esateko biotzik! (M. Larramendi, *Euskal testuak*, 53)
- b. Badakizu zein ozkorra ta zein minberea den aur jaio berria (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 107).
- c. Harritua naiz zein agudo burutu duen lana!
- d. Ikustekoa da nolako harria jaso duen!
- e. Ez dezaket esan zein merke saldu digun!

Aditz nagusi gabekoak ere badira eta, hala ere, *-eN* hartzen dutenak –gainerako osagarrietan ere gertatzen denaren antzera–:

- (204) a. Nolako eguraldia egin duen!
b. Zein ederki kantatu duen!

Beraz, hauek denak zehargalderak direla esango dugu.

c. *Zehargaldera motak*. Galderak, zuzenekoak nahiz zeharka egindakoak, hiru motatakoak izan daitezke (ik. *EGLU I*, 30-32 orr.): a) *bai / ez* erako galderak; b) aukera galderak, eta c) zati galderak.

• Lehenbizikoak *bai* edo *ez* erantzutea eskatzen duten (zehar)galderak ditugu.

- (205) a. Ez dakit [joango naizen].
b. Joango (al) naiz?

Hauek *bai / ez* erako galderak ditugu: (205a) zehargaldera; (205b) zuzeneko galdera. Baina biak ere *bai / ez* erakoak.

Egia esateko, *bai / ez* motako galderak *aukera galdera* dei genitzakeen motakoak dira, hauen azpimultzo bat.

• Aukera galderak ditugu perpausoko osagai bat *ala* juntagailuaz juntatutako bi juntagaiz eraturik duten galderak. Adibidez:

- (206) a. *Aita ala ama* joango da zure bila?
b. *Berdez ala gorriz* margotu nahi duzu atea?

Hauetan perpaus lokabeak ditugu, galderazko perpaus bakunak. Hots, zuzeneko galderak. Perpaus hauek badute osagai juntatu bana: *aita ala ama* eta *berdez ala gorriz*. Hauetaz egiten da galdera. Kasu honetan, galde egiteak esan nahi du hautatzea. Horregatik deitzen ditugu horrelako galderak aukera galderak.

Aukera galderetan bi perpaus juntatu ere izan daitezke:

- (207) a. Zure bila aita joango da ala ama (joango da)?
b. Erosi du autoa ala oraíndik ere pentsatzen ari da?

Hauetan ere bi aukera eskaintzen dira eta bi aukera hauen artean bat hautatzea eskatzen da galde egiten denean. Galde egiteak bi aukera horien artean bat hautatzea esan nahi du.

Bada, *bai / ez* erako galderak, funtsean aukera galderak dira. Goian *aita ala ama*, edo *berdez ala gorritz* baldin bazen auzia, oraingoan egin behar den hautua baiaren eta ezaren artekoa da. Alde honetatik houako hiru perpaus hauek baliokideak direla esan daiteke:

- (208) a. Baskoniak irabaziko du, bai ala ez?
b. Baskoniak irabaziko (al) du?
c. Baskoniak irabaziko du ala ez (du irabaziko)?

Hauek zehargaldera gisa eman daitezke, aditz nagusi baten menpean ezarritz. Horretarako, funtsean, aski da *-eN* atzizkia eranstea aditzari:

- (209) a. Esan ie zadazu Baskoniak irabaziko duen, bai ala ez.
b. Baskoniak irabaziko duen jakin nahi nuke.
c. Inork ez daki Baskoniak irabaziko duen ala ez (duen irabaziko).

Hona hemen cuskal testuetatik ateratako zenbait adibide:

- (210) a. Ez aztertu bere, iñori emon ete deutseen exenplu gaistorik (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 244).
b. Begiratu baga (...) bedeinkatuba dan ala ez (Ib., 278).
c. Eztakit topauko dan iñun Andrakume euskalduna baño senduagorik (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 147).

• Zati galderetan, berriz, galde hitz bat behar dugu perpausetan. Jakina, hemen ere *-eN* atzizkia ezinbestekoa da:

- (211) a. Ez dakit [nork ekarri duen gutuna]
b. Nork ekarri du gutuna?

1.4.1.2. Zehargalderen gobernatzaileak

Gorago ikusi dugun bezala, aditz guztiek ez dute perpaus osagarria –dela adierazpenekoa, dela zehargaldera– eskatzen ez onartzen (ik. 1.1). Aditz guztiek ez dute "gogo" edo grina bera, aditz nagusi direla, galdera bati edo adierazpen bati abia emateko. Hala, esate baterako, *uste izan* edo *sinetsi* adierazpen-perpausen buruan ager daitezke, galderazkocnean ez. *Galdegin*, berriz, galderazkoenean bakarrik:

- (212) a. Etorri dela uste du.
b. *Uste dute noiz etorri den.
c. Sinesten dut 40 km. ibili zarela.
d. *Sinesten dut nor ibili den etxean.
e. *Gero etorrigo dela galdegin diot.
f. Noiz etorri den galdegin diot.

Esan, jakin, erabaki eta *ikusi*, aldiz, bi eratako osagarrientzat dira egokiak:

- (213) a. Esan du ikusi duela [- galdera]
b. Non lo egin duen esan dio [+ galdera]
c. Badaki irabazi duela [- galdera]
d. Badaki nori irabazi dion [+ galdera]
e. Ikusi du gizendu dela [- galdera]
f. Ikusi du zerk gizendu duen [+ galdera]

Baita hegoaldekoen *igerri* ere eta horren ordezt iparraldekoek zentzu berekin –ez hegoaldekoenarekin– erabiltzen duten *somatu* ere:

- (214) a. Berehalaxe igerri zion zertara zetorren.
b. Ez diot igerri dirua ostu nahi zidala.
c. Urrundik somatu du nor zen.
d. Somatu du semea bart etxean sartu dela.

Eta bien errankide den *antzeman* ere bai:

(215) a. Antzeman diot noren semea den.

b. Antzeman diot Itziar zela.

Begiratu eta horren antzekoek galderazkoak onartzen dituzte, ohiko adierazpenekoak ez:

(216) a. Begira iezaiozu zertan ari den.

b. *Begira iezaiozu lanean ari dela.

Beraz, *esan, jakin, ikusi, igerri* eta hauek bezala *aztertu, begiratu, bildur izan, dudatan jarri, eztabaidan egon, gogoratu, gomutatu, kontuak atera...* osagarri gisa zehargalderak onartzeko gai dira.

Hiztegiak esan behar digu azken batean zein aditzek edo predikatu-egiturak onartzen dituzten zehargalderak eta zeinek ez.

1.4.1.3. Gobernatzaileraren isilpean

Batzuetan badirudi ez dagoela agerian zehargaldera gobernatzen duen aditz nagusia. Isildua dela pentsatu behar da. Halako zerbait gertatzen zaio Mogelen honi:

(217) Bata ta bestia ebilzan, norik nori sartu mausa edo tranpia (V. Moguel, *Ipui onak*, 26)

Hor ikusi batera *ebilzan*-ek gobernatua dago mendeko perpausa. baina sakonean garbi dago ez dela hala, perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean beste bat behar dugula: *pentsatzen* edo *zelatatzen*, adibidez.

Baita Ziburuko Etxeberriren beste honetan ere:

(218) Batak eta berzeak dute enpiegutzen ahala, / zeñi geldituren zaion biktoria zabal
la (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa*, 49).

Hemen ere *erabakitze*ko edo horren antzekoren bat suposatu behar da.

Batzuetan erraza izaten da asmatzen zein aditz dagoen edo egon daitekeen isildurik; ondoko hauetan, esate baterako, *begira*-cdo, *zelatan*-cdo:

- (219) a. Ixterbegiak zaudelarik eia nun sarthuren nintzan (Etchahun, *Bertsoak*, 234).
b. Saul etzebillen Dabiden onagatik, ezpada ea Filistintarren eskuetan erortzen ote zan (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 167).
c. Mila bider egoten da txirikartetik ama, noiz ikusiko berriz semearen aurpegia.

Horrelakoetan perpaus osagarria zein aditzen objektu edo subjektu den ez da esaten, jakintzat edo ematen da.

1.4.1.4. Zer funtzio sintaktiko betetzen duten zehargalderek

a. Zehargalderek ere maiz objektu zuzenaren funtzioa betetzen dutela esan dugu gorago, osagarrien aurkezpen orokorrean (1.2.3), eta hala da, baina ez beti, bestelakorik ere bete baitezakete. Objektu zuzena da, esate baterako, ondoko perpaus hauetan:

- (220) a. [Ean zer dioten elgarri], entzun behar dugu (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 88).
b. [Nola ahoskatu behar zuen] irakatsi nion.

Objektu zuzena modu batera baino gehiagotara adierazia aurki dezakegu. Ikus dezagun honako hau, esate baterako, eta ondoko biek konpara gero:

- (221) Esaiozue [norekin egon zareten].

Horrek osagarri sinplea duela esan dezakegu, zehargaldera bakar batek osatua: *norekin egon zareten*.

Ez, ordea, beste honako biok:

- (222) a. Bazakiat [hire berri eta non ibili haizen].
b. Esan dit [zer gertatu zaizun, non egon zaren eta han nor ezagutu duzun].

Bi adibide hauek osagarri konplexua dutela bistan da, eta era desberdinetakoa, gainera: lehenak izen sintagmak eta zehargalderak osatua baitu eta bigarrenak zehargaldera batek baino gchiagok osatua.

Konplexutasuna beste era batera ere ager daiteke: *eta*-k loturiko perpaus nagusi beraren bi mendeko perpausetatik bata zehargaldera eta bestea adierazpen-perpausa izanez:

- (223) a. Esan al diozu [noiz etorri den eta etorri denean anaiari muturka hasi zaiola]?
b. Esan digu [berandu etorri dela eta nora joan den].

Horretarako, noski, perpaus nagusiko aditzak zehargalderak eta adierazpen perpausak, biak, hautatzen dituenetakoa izan behar du ezinbestean.

b. Hala eta guztiz ere, ez du nahitaez objektu zuzenaren funtzioa bete behar. Hori bete ala beste bat bete perpaus nagusiaren aditzaren baitan gelditzen da, eta, esate baterako, baldin nagusia NOR aditza bada (*gogoratu, garbi egon, ahaztu, etab.*), haren mendeko zehargalderak subjektu funtzioa beteko du:

- (224) a. Gogoratu zaito [nork eman dion].
b. Ez dago garbi [nork hil zuen].
c. Harritzekoa da [zein lagun gutxi bildu diren].
d. Agiri zaito [non jaioa den].

c. Horiek guztiek ZER galderari erantzuten diotela pentsa daiteke dudarik gabe, baina beste batzuetan galdera egokia ZERTAZ edo ZEREN ere izan daitezkeela ezin uka. Hori gertatzen da, esate baterako, *oroitu, gogoratu, ohartu, konturatu* eta horrelako beste aditzen baten osagarriekin, edota *egon*-en zenbait aditz esapidek *-zain egon, miraz egon, erne egon...*– gobernatzen dituztenekin:

- (225) a. Oroitzen al zara zer esan dizudan gaur goizean?
b. Noiz eroriko den zain dago.

Laburbilduz, aditzak nolako elementuak gobernatzen dituen, haien araberrakoa izango du funtzioa, eta gehienetan zehargalderek, gainerako perpaus osagarriek bezala, objektu zuzenaren lekua beteko dute, baina subjektuarena ere bai batzuetan.

1.4.1.5. Zehargalderak ezin deklina daitezke

Jakina den bezala, kasu markak izen sintagmei eransten zaizkie. Zehargalderak, berriz, nekez ager daitezke izen sintagmetan, are izen baten osagarri gisa ere (ikus 1.6.3). Eta izen sintagmetan nekez agertzen badira, hori izan liteke deklinatzeko dituzten zailtasunen arrazoia.

Zehargalderek duten debeku hau bidezkoa bada, honako perpaus hau ez da zuzena:

(226) *Diru asko ote duteni begiratu gabe onartuko ditugu geurean.

Horrelakoak, batez ere, itzulpen lanetan ageri dira, erdararen eraginez, du-darik gabe.

Eta mendeko perpausaren aditza mugaturik ere entzuten da. Nahi adina adibide aurki daiteke komunikabideetan eta zenbait idazleren liburuetan. Hona berriki entzundako batzuk:

(227) a. *Han zer esaten didatenarekin etorriko naiz zugana.

b. *Nor etorri denari garrantzia ematen zaio.

c. *Nora joango denik ez diezazuket esan.

d. *Erromantzea nongoa denari begiratzen dio.

e. *Zer idazten nuenaz ez nintzen deus ere arduratzen.

f. *Nork esan zuenari ez zion kasurik egin.

g. *Nora joan beharko zuenaz oso kezkatua zegoen.

h. *Ez naiz oroitzen zer esan zidanaz.

i. *Poesia hutsa zer ote denari buruzko galdera.

j. *Orain non bizi denaz hitz egin zuen.

Perpaus hauek denak nahi eta ezin sortuak direla ematen du. Guztiak, esan bezala, oker daude: hertsiki zehargaldera direnak ezin deklina daitezke. Hur dezagun azken adibide hori. Edo galde hitza sakrifikatu eta "non" galderari dagokion hitzen bat sartu behar da:

(227) a. Orain bizi den *lekuaz* hitz egin zuen.

edo galde hitzari eutsi eta perpaus nagusiko aditza aldatu:

b. Orain non bizi den *kontatu* zuen.

Eta horrela, beste perpaus guztiekin.

1.4.1.6. Elementuen ordena

a. Perpaus nagusia eta mendekoa

Perpausaren zentzua batere aldatu gabe, zehargalderak perpaus nagusiaren aurrean nahiz ondoan azal daitezke. Bistan da bi adibide hauek, adibidez, zuzenak direla eta berdinak, galdegaiaren kontua alde batera utzirik:

(228) a. Esan diot [zer ordutan etorriko naizen].

b. [Zer ordutan etorriko naizen] esan diot.

Hortaz, ez dago debeku berezirik ordenari dagokionik.

b. Barneko ordena

Horrek baino garrantzi handiagoa du aztertzeak zehargalderaren barneko elementuek hartzen duten kokalekua. Aukera galderetan, *bai / ez* erakoak barne, gainerako perpausetan ditugun arau berberak aurkituko ditugu, osagaien hurtenkerari dagokionez. Arazo gehiago sor daitezke zati galderetan. Hauetan, aditzaren aurre-aurrean kokatu ohi da galde hitza, hau baita galdegaia –nahiz eta inoiz bestelako segida batzuk ere onar daitezkeen–:

(229) a. Galdegín dit [NORI idatzi diodan gaur] (cf. Nori idatzi diot gaur?).

b. *Galdegín dit [NORI gaur idatzi diodan] (cf. *Nori gaur idatzi diot?).

Literatura zaharrean badira, hala ere, arau hori hetetzen ez duten adibideak. Hona Leizarragaren eta Tartasen bana:

(230) a. eztuzue irakurri zer lainkoaz erran izan zaizuen? (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mt XXII, 31).

- b. iuiatuko duzu *zenbat* lainkoak bekatia *hastio dian...* (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, 3).

Aldiz Axularri begiratu bat ematen badiogu, honako jokaera duela aurkituko dugu. *Zer* eta *zenbat* askotan agertzen diren arren, ez ditugu behin ere ikusi horiek eta mendeko aditzak osatzen duten multzoa etenik, baizik belu horrela:

- (231) a. ikhasazu *zer* egiten duen emazteak (P. Axular, *Guero*, 229).
b. ikhasazue *zer* balentia egin duen Martinek (Ib., 151).
c. *zenbat* kalte egiten duen alferkeriak (Ib., II. kapituluaren titulua).

Hau da arau orokorra. Hala ere, *EGLU*-k (III, 147. or.) zioen bezala, *nola*, *zergatik* eta *zertako* galde hitzek (eta orohar adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten gainerakoek, *norekin*, *norendako*, c.a.) ez dute aditzaren aurre-aurrean joan beharrik.

c. *NOIA*, kasu berezia

Nola, guri hemen dagokiguna, zehar-galderari bide ematen dion azentuduna, bi baliotakoa izan daiteke, jakia den bezala: egiazko galde hitza izan daiteke, baina baita adierazpen-perpau osagarrien barneko lokailua ere (1.3.5.2). Honek osatzen dituen perpauak bestelako osagarriez ordezkatu daitezke. Hona bi baliotakoen adibide bana:

- (232) a. Inork ez daki *nola* etorri naizen Zarauztik.
b. Badaki munduak *nola* zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalajora (P. Axular, *Guero*, 3).

Bigarren hau adierazpenekoa da. Axularren liburuan gehienetan horrelakoa da eta orduan ia beti galde hitzetik urrun agertzen da aditza, tartean beste elementu batzuk dituztela. Ikus adibide gehiago:

- (233) a. Kontatzen du *nola* bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, *ibiltzen...* (Ib., 34).
b. beha ezazu *nola* presuna bat gaztetik zahartzera, eta are batzutan urhotik urthera ere, *aldatzen eta ezeztatzen den...* (Ib., 40).

- c. emaiten da aditzera, *nola* luzamendutan gerotik gerora ibiltzeaz, *haritzen den* usantza gaixtoa (Ib., 65).
- d. ikhusazue zer balentia egin duen Martinek, *nola* kapa hunez *estali nauen* (Ib., 151).
- e. ikhusiko duzu *nola* berehala berriz *sua agertzen den* (Ib., 215).
- f. eta lainkoak daki *nola* alde batetik bere aitatasunak (...) *gibelatzen zuen* (Ib., 230).

Eta crabat esateko, aski litzateke kapituluaren tituluak irakurtzea, horietako asko eta asko *nola* adierazpenekoaz hasten baitira eta aditza lauzpabost hitzen ondoren agertzen baita komunzki. Hauetan, bada, *nola*-k adierazpeneko osagarri bati ematen dio hasiera; ez gaude, beraz, zehargalderaren aurrean.

Galde hitza den *nola*, berriz, gutxiagotan ageri da Axularrenean. Gntxi horietan, gainera, behin ere huts egin gabe, aditza galde hitzaren ondo-ondotan doa. Hona zenbait adibide:

- (234) a. ikhasiko duzu zuk ere *nola behar duzun* aitzinerat eta bethiere bizi (...) (Ib., 22).
- b. erakusten dio batbederari *nola eta zer moldez behar duen* mantentatu (...) (Ib., 22).
- c. Orhoit zaitezi *nola nahiko duzun* zuk orduan, azken oren hartan egin dezan lainkoak zurekin (Ib., 225).
- d. Eta nik eztakit *nola hartu zuen* erregek egitekoa, baina (...) (Ib., 229).

Aztertzen ari garen puntuari dagokionez ezin hobea da erleen pasartea, elkarren segidan baitaude sei *nola* bi baliotakoak. Ikus:

- (235) (...) gaitz lizateke kontatzea *nola* gobernatzen diren erleak elkarren artean; *nola* duten bere erregea eta obeditzen duten; *nola* zaharrak kofauean barrera etxeko lanen egiten egoiten diren eta gazteak bere mantenuaren eta bizikainen garraion kanpotik hari diren; *nola* duten bere athal-zaiña, eta behar ere bai (...). *Nola* trabaillatzen direnek, trabaillatzen ez diren alferrak eta nagiak, ezlan kolpez egotzen dituzten bere konpainiatik (...) eta *nola* bertzerik ere anhitz gauza egiten duten (Ib., 21).

Adibide honetan lehenbiziko *nola* bakarrik da zehargalderazkoa, gainontzeko guztiak lokailu dira.

Horren guztiaren sendogarri aipatzea merezi du Etxeparek bi *nola*-k bereizten dituen modua: zinezko *nola* galde hitzak baiezko adierazpen-perpau-sean bezala uzten ditu partizipioa eta adizki laguntzailea, elkarrekin trukatu gabe, hartara hemistikio erdiko eten txikia apurtu beharko badu ere (236a); aldiz, *nola* lokailuen pareko denak trukatu egiten ditu adizkiak (236b):

(236) a. Nola gobernatzen dugun batbederak so begi (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 1,108).

b. Nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia (Ib., 1,84).

Non eta *nondik nora* galde hitzak ere erabil daitezke lokailuen pare, *horra*, *begira* eta horrelako aurkezleekin eraturiko adierazpen gisako esapideetan: *horra non guztia galdu duen...* (1.3.5.2). Horietan ere, ikusten denez, aditza galde hitzetik urrundua ager daiteke.

Benetako galdera egiten dutenean, ordea, bai *nola*-k bai beste galde hitzek ia beti bere ondoan daramate aditza.

1.4.2. Zehargaldera orokorrak

"Orokor" deiturapean bilduko ditugu bai aukera galderak, bai hauen azpimultzo diren *bai / ez* erako galderak. Hauen bereizgarria da galde hitzik ez izatea.

1.4.2.1. Menderagailua

Lehen esan bezala, zehargaldera guztien, aukera galderen, *bai / ez* erakoen eta zatizkoen, bereizgarria aditzari itsasten zaion *-eN* menderagailu edo erlazio atzizkia da, euskalki guztietan bera. *OEH*-k dioenez, Hegoaldean hori da askozaz gehiena erabilia, formari dagokionez: gipuzkeraz erabat, eta bizkaieraz gutxienez XVII. mendean dokumentatua eta XIX.az geroztik ia besterik ez. Halaber, idazle lapurtar ez gutxik baliatzen dute hori. Aukera galdere-tan eta baita *bai / ez* erakoetan, zenbaitetan bi aditz agertuko dira eta aditz bakoitzak eraman behar du bere atzizkia:

- (237) a. Ez dakit joango *naizen* ala telegrama bat bidaliko *diodan*.
 b. *Ez dakit joango *naiz* ala telegrama bat bidaliko *diodan*.
 c. *Ez dakit joango *naizen* ala telegrama bat bidaliko *dioi*.

Hala eta guztiz erc, zenbait zehaztapen zor zaizkio hor baieztatuari.

a. *-eN* eta *-eNETZ*

Batzuetan *-eN* soil horri, indartzeko-edo hizki txiki bat gaineratzen zaio bost forma diferente gertatzen direlarik: *-eNENTZ*, *-eNENZ*, *-eNETZ*, *-eNEZ*, *-eNZ*. Badirudi oparotasun horretan *-eNZ* eta *-eNETZ*-cn artean egin beharko litzatekeela aukera.

Baina forma indartu hau ez da zilegi zati galderetan. Hots: *bai / ez* erako eta aukera galderetan bakarrik erabil daiteke. Hona hemen Axularren adibide bat non aukera galdera eta *bai / ez* erakoa, biak, biltzen dituen. Biek dute *-enz* atzizkia:

- (238) Eztut uste galdeginen derakula Jainkoak ea probe onari ala gaixtoari eman diogunz, eman diogunz haizen (P. Axular, *Guero*, 149).

Iparraldeko literaturan aldi eta alde guztietakoan agertzen da *-eNZ*, forma batean edo bestean. Zuberotar eta behenafatar guztiek darabilte. Leizarragak eta lapurtar batzuek ere bai, hala nola Axularrek, nahiz beste batzuek honekin batera *-eN* soila ere erabiltzen duten:

- (239) a. Othoitze bat banegion larradala egia, / Biderikan lizatenez ninzan haren grazian (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, XII, 3-4).
 b. Utzak, dakusagun eia ethorriren denez Elias horren enparatzera (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mat XXVII, 49).
 c. orano eia zurerik heldu denez (A. Oihenart, *Proverbes basques*, II, 21-22).
 d. Nork daki (...) ea (...) itzuliko denz bertze aldera, ematuko zaikunz bere kole-ra eta utziko gaituenz gaitigatu gabe? (P. Axular, *Guero*, 46).

Honek Iparraldeko joera delako fama du egungo egunean, baina bizkaierazko literatura zaharrean ere aurkitzen dugu, eta XIX. mendekoan ere bai

oraindik, batez ere erdialdeko eta mendebaldekoan. Añibarrok, esate baterako, ausarki erabiltzen du; Mogelek, berriz, inoiz ez, ez eta Bizkaiko ekialdekoek ere. Hona Añibarroren batzuk:

- (240) a. begira ... ernegarazo dozuzanez (P. A. Añibarro, *Escu-liburua I*, 132).
- b. esaizu ... boto kastidadezkoaz esturik dagoanez (Ib., 135).
- c. konfesa zaite badozu duda ... konfesau dozunez (Ib., 136).
- d. bada eztakit berau danez azkenengo konfesiñoa (Ib., 149).

Goian aipatu dugun bezala, literaturan forma bat baino gehiago erakusten du atzizki honek. Zein da denetan nagusi, ordea? *OEH*-n eginiko zundaketa batek, betiere testu zaharrak baztertuta eta *-eN* soila kontuan hartu gabe, cinaitza hauek eman dizkigu: *-eNETZ* da forma erabiliena, gutxixeago erabili izan da *-eNZ*; *-eNENTZ*-en eta *-eNENZ*-en aipamenak, berriz, bakanak dira. Beraz *-eNETZ*-en eta *-eNZ*-en artean egin behar da aukera. Ikusirik *-eNETZ* gehiago erabili izan dela, gaur egun erabiltzen den forma hori dela eta gainera bigarrena erabili duten batzuek lehena ere erabili izan dutela, *-eNETZ* hobetsi behar zela iruditu zaigu. Gainera, *-eNZ* forma autore zaharretan aurkitzen da batez ere.

Beraz, edo *-eN* soila edo *-eNETZ* erabiltzeari deritzagu onena:

- (241) a. Ez dakit etorriko den / denetz.
- b. Ez dakit esan duen / duenetz.

b. BA- aurrizkia zehargalderetan

Bigarren zehaztapena bizkaicrari dagokio. Euskalki honetako zenbait tokitan zehargaldera aukera galdera denean, *-eN* barik *BA-* hartzen du inoiz adizkiak menderagailu, ahozko hizkeran batez ere. Mikoletak baditu jadanik horrelako adibideak:

- (242) Adisate badauke kalzerdiak punturik askaturik.

BA-ren erabilera hau oso hedatua dugu. Mogelek ez du ezagutzen; Añibarrok, berriz, nahi adina adibide ditu:

- (243) a. Ah, eztakit elduko banas arratsera (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 6).
b. begira ondo egin badozuz lenagoko konfesiñoak (Ib., 45).
c. eztakit jausiko banaz (Ib., 53).
d. begira egin badozu juramentu guzurrezkorik (Ib., 128-9).

Ez da bizkaitarren artean Añibarro, noski, aurrizki horretaz baliatzen den bakarra. Gutxienez beste autore hauek ere bai: Astarloa, E. M. Azkue, Etxeita, Lauaxeta, J. M. Zabala, B. Enbeita. Hona horien gnztien adibide bana:

- (244) a. Itandu biar jake baru egingo badabe ala ez (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 240).
b. Eztakit ezkonduko banaz (J. M. Echeita, *Josecho*, 111).
c. Maitatzen bazaitut / itandu dautsozu / leiuan klisk dagin / iltargi-izpijari (Lauaxeta, *Bide Barrijak*, 16).
d. (...) ta osabea ezekien bizi bazan edo ez (E. M. Azkue, *Parnasoruko bidea*, 133).
e. (...) geroan bere lortuko badot / ondiñoakarren jakiñ ez (B. Enbeita, *Nere apurra*, 245).

Egungo bizkaiera mintzatuan ere herriko jende xeheari barra-barra entzuten zaizkio era horretako zehargalderak.

- (245) Ez dakit etorriko bada.

Bai / ez erako zehargalderetan ez ezik, aukera galderetan ere erabiltzen da *BA-* hau:

- (246) Galde egiozu gorria ala beltza hartuko badu.

1.4.2.2. *EA partikula*

a. *EA-ren erabilera*

Orain arte aztertutako *-eN / -eNETZ* eta *BA-* partikulak zehargalderen menderagailuak dira, edo bata edo bestea nahitaez erabili beharrekoak. Perpausen barne-muinari dagozkionak dira, horrenbestez.

Aldiz, *ea* beste elementuen sendogarri da eta ez beharrezkoa, aukerakoa baizik, ipini edo kendu ez baita perpausaren esanahia aldatzen. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko lotura egiten du:

(247) Galdegiozu ea zer iduri zaikan (P. Axular, *Guero*, 104).

Gorago ere, (ik. 239b-d adibideak) azaldu zaigu partikula hori, behin forma horretanxe eta bitan *eia* aldaeran. Beste bi aldaera ere, *ean* eta *ia*, aski ezagunak dira, baina zabalduena dudarik gabe *ea* da.

Sendogarri izateaz gain, perpausaren luze-laburrarekin ere zerikusia duela esan izan da: luzea denean *-eN* marka urrutixe gelditzen da eta haren iragarle bat aurrean ongi omen dator. Honako honetan, esate baterako:

(248) Galdetu didazu ea Bartzelonara elkartekin joan ginen hartan, biok gure etxean bazkaldu eta gero zezenetara gindoazela ikusi genuen apaiza euskalduna zen.

OEH-k laburki eta poliki deskribatzen du partikula hori eta on dateke hark dioena hona aldatzea.

Aztertzen ari garen zehargalderei sarrera emateko erabiltzen omen da, *bai* / *ez* erakoci zein zatizkoei, bai eta indartzeko ere. Aditz baten edo aditz esapide baten, ageriko nahiz ezkutukoaren, mende egon ohi omen da. Zein aditzek gobermatzen duen espresuki esana agertzen denean, *ez* omen dirudi beharrezkoa erabiltzea. Ez denean, *ea*-ren beharra handiagoa omen da, Lafittek (*Grammaire basque*, 101) besterik badio ere: hots, orduan ere, *ea* gabe esan daitekeela: *Ethorri zitzaikun, jan nahi ginuenetz* (ik. *OEH* VI, “*ea*” sarrera).

Kontua argia da eta ez du azalpen handirik behar. Izatekotan, ezkutuko aditzaren mende egotea izango litzateke pixka bat argitu beharra. Esan nahi du aditz nagusia ez dagoela espresuki emana. Hona hemen beste zenbait adibide: lehena jadanik aipatu dugun Oihenartena (239c), bigarren bertsoko *eia heldu denez* perpausa menderatzen duen adizkirik ez baitu agerian:

(249) Bertze lanik / baduta nik / diela hanbat denbora / zure artatzez / zerbitzatzez / et'onhestez kanpora? / Alabana / enegana / orano eia zurerik / heldu denez / deus ogenez / eta gaitzez bertzerik? (A. Oihenart, *Proverbes basques II*, 21-22).

Eta bestea egunoro mila bider esaten ditugun hauetako edozein:

- (250) a. Ea hik noiz egin didaan niri mesederik.
- b. Otoi!, ea noiz isiltzen haizen!
- c. Aurten bederen ea bat aprobaten duan.
- d. Ea oraindik bizi den!

Mogelek ez bide du ia behin ere erabiltzen:

- (251) Eraso egijozuz orain (...) kiputz orri, ia klarubago berba egiten daben (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 159).

Baina ezin uka daiteke autore askok erabili izan dutela mendeetan barna hala Iparraldean nola Hegoaldean. Aski izango da adibide batzuk aipatzea:

- (252) a. ea zelo lar daukeenz (M. O. de Capanaga, *Doctrina christiana*, 112s).
- b. Ea egin duzuen Erregeak manatu zinduztena (J. Beriayn, *Tratado de oyr missa*, 110v).
- c. Begiratu arrotzeari ezagut daiteela hea oilarrak jokhatua denetz (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 289).
- d. Examinatu gabe ea ez othe duen sobra galdeiten (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 97).
- e. Argi agiri dedin ea zuen biotz osoaz maitte dezuten edo ez (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 148).
- f. Azken solasean aitatu zenidan ea Azkue gureak frantses ote zekian (E. Erkiaga in K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak I*, 247).

Aurrerago ikusiko dugunez (1.4.3.1), *bai / ez* erako galderekin ez ezik, zatizkoekin ere erabiltzen da partikula hau. Hori erakusten dute Axularren adibide hauek:

- (253) a. Ordea pontua da ea noiz utziko dugun (P. Axular, *Guero*, 36).
- b. eskatuko zaiku kontu ... ea ongi eta bartan pensatzen dugula enzun dugunz (Ib., 109).
- c. nahi ditu Jainkoak ... ea finak eta egiazkoak direnz frogatu (Ib., 203).

Azkenik Axularren beraren beste biok erakusten digute ia beti aukerakoa dela eta gerta daitekeela elkarren antzeko bi perpausetatik batean ez agertzea eta bestean bai:

(254) a. ihardetsi zuen (...) galdegin zeraukatenean, ea zergatik hala bere meneraz gero, etzituen bere etsai Argiboak desegin (Ib., 17).

b. Galdegiten deratzutenean zenbat urthe dituzun eta ihardesten duzunean hogoi... (Ib., 41).

Beraz, honelako bikoteak ontzat eman behar dira, hain bata zein bestea:

(255) a. (Ea) itzultzeko asmorik duen galdetu dio.

b. (Ea) etxea salgai zegoen jakin nahi zuen.

b. EA-ren kategoria

Esanak esan, galdera bat gelditzen da zintzilik, erantzuten zaila dena: zein kategoria du *ea*-k? Zeren perpaus bati abiada emateko, aditz batek adina adore duela ematen baitu berak bakarrik eta berez:

(256) a. Ea jaikitzen zaren, e!

b. Ea egiten duen euri pixka bat!

c. Ea ezkutatzen dugun mutila!

Nahitaez onartu beharra dirudi *ea*-ren aurrean maiz aditz baten elisioa gertatzen dela, baina honetaz, zehargaldera zatizkoez mintzatzean arituko gara. Ikus, adibidez, elisioa gertatu dela pentsatzera garamatzatenak:

(257) a. Arratsaldean joko diot telefonoa, ea nahi duen bihar gurekin txango bat egi-tera etorri.

b. Zuengana nator ea norbaitek laguntzen didan.

Hor *ea* aurreko ezein aditzen argumentua ez denez gero, esango dugu beste aditzen bat eliditu dela: “joko diot telefonoa” diogunean, esate baterako, “joko diot telefonoa, galdetuz, ikusteko, jakiteko etab...”, “zuengana nator ikustera, jakitera...” esango bagenu bezala izango litzateke.

Baina badirudi aditz guztiek ere ez dutela onartzen *ea*-z hasitako zehargalderarik. Aditzaren moduak eta aldiak ere badirudi baduela zer esanik. *Ea* agertuko bada, sarritan behintzat, perpaus nagusiak nolabait etorkizunera begiratu behar du. Horregatik, sarritan aginte adizki bat izango dugu (*esan iezadazu, begira ezazu*) edo xedezko perpaus bat (*jakiteko*):

- (258) a. Oraino ene hitza entzun ezak, iakiteko ea zer den Eliza (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa*, 30).
- b. Dakusagun ea zeñiek dioen hobeki, zeñiek duen arrazoiña (P. Axular, *Guero*, 36).
- c. Guraso edo etseko-buru bazara, begira ondo, ea zelan eta nondi dabiltzazan zure ume, otsein, ta ogitukoak (P. A. Añibarro, *Escu-liburua* 2, 140).

Egia da *galdetu* aditzarekin ere, edozein modutan doalarik ere, *ea* agertuko zaigula:

- (259) Saulek galdetu zionean, ea non bizi zan (...) gizon hura (...) (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 155).

Baina oraingoan ere, nolabait etorkizunari begira gaudela ematen du: galdetzen duenak zerbait jakin nahi du, beraz geroari begirako zerbait egiten du. Hortaz, galdetu aditza halakoa izanik, erraz eta erruz agertuko zaigu ea partikula.

- (260) Galdetu zidaten ea non bizi zen alkatea.

Nahi eta *behar* ere tartean ditugunean, gauza bera:

- (261) a. Ikusi nahi nuen ea zenbatek erantzuten zidan ongi.
- b. Jakin behar da ea zenbat jende dagoen prest ibilaldi horretarako.

Arrazoi horregatik, *ikusi* eta *jakin* iraganean ematen baditugu, aski traketak gertatzen dira perpausak *ea* txertaturik:

- (262) a. *Berehala ikusi nuen ea zenbatek erantzun zidan ongi.
- b. *Jakina zen ea zenbat jende zegoen prest ibilaldi horretarako.

Arrazoi semantikoak daudela dirudi, hortaz, azpian. Horregatik, nekez aurkituko dugu *ea* partikula *ahantzi* aditza dugunean perpaus nagusian:

- (263) *Amonari beti ahanzten zaio ea zenbat urte dituen.

Kontua da, zalantza da, eta horrelakoekin ere, zilegi ematen du *ea* agertzeak.

(264) Kontua da ea nork ordaindu behar dituen lan hauek.

1.4.2.3. OTE eta AL partikulak

A. Ote

EGLU 1-ean eta gero *Euskal Gramatika Laburrean* aditz multzoko osagaien artean sartu genuen elementu hau, *ote*, bizkaieraz *ete*, eta han perpaus bakunari buruz esanak hemen ere balio du. Zalantza edo susmo kutsua ekartzen dio galde-perpausari; ez du berak galdera markatzen. Eta batez ere, nork bere buruari egiten dizkion erantzunik gabeko galde erretorikoetan erabiltzen da. *Ote* gehienetan zuzeneko galderetan ageri da, baina zehargalderetan ere agertuko zaigu.

(265) a. Jakin nahi nuke Ainhoa etxera heldu ote den.

b. Neure buruari galdez nago nor ote den andre hura.

Axularrek ez du inoiz zehargalderetan *ote*-rik erabiltzen, galdera zuzenetan bai. Hala bada ere, Haranederrek bai erabiltzen du:

(266) Utzazueia, ikus dezagun hea ethorriko othe den Elias horren libratzerat (J. Haraneder, *Testament herria*, Mat XXVII, 49).

Añibarrok *ote*-rekin batera ez du *BA*- erabiltzen. Beti *-eN* darabil. Ikus esate baterako:

(267) a. begira ... lotsaz edo azturik itxi ete zenduan bekatuik (P. A. Añibarro, *Escu-liburua I*, 126).

b. Bildur nas eukiko ete dodan astia (Ib., 140).

Lehen aipatu ditugu osagarritzat zehargalderak onartzen dituzten zenbait aditz. Hauen artean badira batzuk *beldur*, *duda*, *eztabaida* eta *kontu* izenez osaturiko predikatuak direnak, eta horiek guztiek halako jaiera berezia dute

ote eransteke zehargalderari. Bidezko da hala izatea, zeren izen horiek susmoa edo zalantza, segurtasun eta jakintasun-*eza* adierazten baitute. Ikus:

- (268) a. *bildur diriala* ondo konfesetan ete dirian (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 237).
 b. *etorten bajako ezda baida, edo dudaren bat* lekurik emon ete deutsan pensamentu donga loi edo zantarrari (Ib., 34).
 c. *kontubak ateraten*, pekatu mortalak ete zirian; ete eukeen edo ez ezauera osorik pekatu mortal izateko (Ib., 158).
 d. zerren *eztabaidan budago* mortala ete dan, konfesau biarko dau (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 82).
 e. Galdegin zioten *jakin naiez ote* zen Kristo (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 79).
 f. *Ez dakigu (...)* atea *ote* zen (...) bide galgarritik (Ib., 62).
 g. *Ekus zazu (...)* epeltasun erdi-otz nagi betean arkitzen *ote* zaran (Ib., 86).

Mitxelenaren beste honetan “susmoa, gogoanbearra” (“gogoak eman behar”, dio testuak) edo antzekoren bat eliditu dela dirudi:

- (269) Gogoak eman behar liguke behin edo behin ez ote den harritzeko ... guri bakarrik jakinduria ematea (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak II*, 41).

Eta horiek bezala geurok egunoro esaten ditugunak:

- (270) a. Ez dakit ez ote duen ihes egin.
 b. Pentsatzen ari naiz ez ote nuen amets egin.

Adibideen arabera, argi dago *ote* ez dela beharrezkoa zehargalderetan.

Perpaus lokabzetan *ote*-k zalantza edo susmoa adierazten du:

- (271) a. Ainhoa etxera heldu ote da?
 b. Nor ote da andre hura?
 c. Ze ordu ote da?

Etorri da? eta *etorri ote da?* bi perpaus desberdin dira, *ote*-ri eskerrak; baina, zehargalderetan *ote*-k ez du bereizkuntzarik sortzen: hura esan edo ez esan biak berdin dira.

Areago, badirudi *ote* ezkon daitkeela, batzuetan bederen, *ea* partikula aurrean daramaten perpausekin ere eta ez diola trabarik egiten.

- (272) a. Abiatar apaiz-nagusiaren bitartez Jainkoari galdetu zion, ea Filistin-tarren kontra joango ote zan (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 172).
- b. Saul etzebillen David-en onagatik, espada ea Filistin-tarren eskutan erortzen ote zan (Ib., 167).
- c. Galde zaiozu ere era dezunean (...) ea nere bigarren karta artu ote zuen (Aita Garagarzaren 1869ko karta batean).
- d. Galda daitke orain ea Peruren alde ote gauden ala kontra (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak II*, 138).
- e. Baina, hain gaztea ez naizenez, nahtago dut begiratu ea beti aurreraka ibili ote garen (Ib., 327)

Uste dugu, hala ere, badela gaurko euskaran joera bat beharrezko ez diren hizak metatzeko eta perpausak beharrianik gabe handitzeko. Edo elkarren antzeko diruditen perpausetan, baina diferente direnetan, zenbait partikula perpaus batzuei ongi dagozkienak beste perpausei, ongi ez datozkienei, erans-teko. Esate baterako, askori irudi dakieke astuna eta partikula gehiegiz jantzia honako perpaus hau:

(273) Ez dakit ea etorriko ote denetz.

Hor hiru pilatu dira, eta iparraldeko *-ETZ* atzizkia hor bitxia egiten zaie; hala ere, egia esan, *OEH*-ko corpusak badu halako bakarren bat:

(274) ikusteko hean nehor noizbeit agertuko othe zenez (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 133).

Beraz okerrak direnik ezin esan, astunak direla bai, aski baita honela esate-a:

(275) Ez dakit etorriko den.

Hala idatzi zuen honako hau Mendiburuk, ez *ea* ezarririk eta ez *ote*:

(276) Galdegiozu nai duen era artan ta ala igan zerura (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 93).

b. *Al*

Al partikularekin ere beste horrenbeste gertatzen zaigu. Partikula hau zenbait euskalkitan erabiltzen da *bai* / *ez* erako galderetan. Zuzeneko galderetan erabiltzen da. Baina, zuzeneko galderetan hiztunak erabili ala ez aukeran duen bezala, badirudi zehargalderetan aukera hori murriztu egiten dela. Izan ere, zehargalderetan ez da ia erabiltzen. Badira euskaldunak zehargalderetan *al*-ik erabiltzen ez dutenak:

(277) a. Zorrak ordaindu dituen galdegin zioten.

b. Ez dakit ordaindu dituen.

Perpaus hauek erabat zuzenak dira. Zuzeneko galderetan *al*-en agerpenak perpausaren galderazko interpretazioa lagun dezake eta hori izan liteke agertzearen arrazoia, *al* duten galdera hauek ia-ia adierazpen-perpaus soilen intonazioa bera izaten baitute. Jakina, horrelako laguntzen beharrik ez da nabaritzen zehargalderetan. Perpausaren azkenean ageri den *-eN* atzizkiak aski argi uzten du galde-perpaus baten aurrean gaudela.

Hala ere, zenbaitetan zehargalderetan ere ikusiko dugu partikula hori. Ez, ordea, *ore* adina bider.

(278) a. Ez al geran ixilduko ai dira galdezka (Uztapide, *Noizhait*, 104).

b. Frantses euskaldun batek esan ziran atzo / parako al dituan dozena bat bertso (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak I*, 198).

c. Zure ezpañetatik nai dizugu entzun / beste Erririk ba al dan, ikusi al dezun / onek aña Jesus maite dunik iñun (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 173).

1.4.2.4. *Galdegaiguneko BA-* zehargalderetan

Aurreko lerroetan ikertu dugun *BA-*, bizkaieraz *-eN* atzizkiaren ordeaz azaltzen dena, baldintzazkoaren antzekotzat jo daiteke, nolazpait esateko. Diogun, modu erraz batean, *BA-* azentugabea dela:

(279) Ez dakit jausiko bada.

Orain aztertu nahi duguna, aldiz, *BA*- baiezkkoa da, azentuduna. Elementu hau perpaus bakunetan erruz erabiltzen da adizki trinkoekin perpausaren baiezkotasuna markatu nahi denean:

(280) a. Horrek badaki zerbait.

b. Badator trena.

BA- hau beharrezkoa al da zehargalderetan? Hots, honako perpaus hauek denak ote dira zilegi? Edo bata bestea baino zuzenagoa da?

(281) a. Ez dakit badakien(etz).

b. Ez dakit dakien(etz).

c. Ez dakit badatorren.

d. Ez dakit datorren.

e. Badakigun galdegin digu.

f. Dakigun galdegin digu.

g. Ez naiz gogoratzen nobela hori badudan.

h. Ez naiz gogoratzen nobela hori dudan.

Estatistika zehatzik gabe eta gauzen ikusi batera, ematen du ez direla berdinak Iparraldeko eta Hegoaldeko maiztasunak: iparraldekoak *BA*- erabiltzera hegoaldekoak baino lerratuago balira-edo. Eguneroko hizketan hori sumatu uste dugu. Hori esan orduko aitortu behar da, ordea, bi aldeetan bi erabilerak bizirik daudela eta bizirik egon direla, zeren alde bietako literaturek *BA*-duten eta ez duten adibideak erakusten baitizkigute, eta hainbestez bi esamoldeak ontzat eman behar direla.

Mogelek ez du *BA*- sekula erabiltzen. Adibide batzuk aipatzearren, hona hiru:

(282) a. (...) ta ikusiko dogu dakizuzan euren izenak (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 82).

b. konfesetan dan edozeñi itanduten bajako daukan onduteko gogorik... (J. A. Moguel, *Confesión ona*, 86).

c. itandu gura ez deutseena ... dan edo ez garbi (Ib., 162).

Beste autoreetan ere bil daitezke horiek bezalako adibideak:

- (283) Estudiorik zuen galdetu ta ez zuela esan zidan (A. Cardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac*, 44).

Eta gaurko egunoroko hizkeran ere bai:

- (284) a. Galdegiozu dagoen ala ez.
b. Azterketan ikusiko dugu dakien ala ez.

Ezin uka, hala ere, horien ondoan beste hauek ere gaur bizirik daudela eta txarizat jotzen gaitz dela:

- (285) a. Aita Mokoroak badakien ala ez, nik ez dakit (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak*, 396).
b. eta esamñatu dezatela Lurdesko gertaeretan baden edo ez beste munduko eta Jaungoikoak bakarrik egin lezaken gauzik (F. Goñi, *Lurdes-ko gertaerak*, 82).
c. Obe dek, arean, elizara joanda begira aldarean, Aloñako amaren imajinik badan (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 237).
d. Ba al dakien galdetu diot.
e. Mezarik baden ala ez begiratu behar da.
f. Kulparik bazuen jakin nahi zuen.

Iparaldeko tradizioan ere nahi adina adibide bil daitezke:

- (286) a. zein da (...) gostuak kontatzen eztituena, ea akabatzeke baduenez? (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Lk XIV, 28).
b. Goganbeharu naiz eta beldurtu ez tiren bideak aski segur eta garbi, baden bi-tartean zenbait trabu edo behaztopa harri (P. Axular, *Guero*, 16).
c. galderu zuen bazenez (B. Larreguy, *Testament çaharr. herr. Historioa I*, 368).
d. Erradazie (...) bestaberririk badaitekeenez geroan (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 132).
e. Eia badakianez latinik (J.B. Constantín, *Aipamen bat Haritchabalet gainean*, 16).
f. Iklusazu ea baduzun Jainkoa baithan Jesu-Kristoren merezimenduck galde-tzen duten bezalako fidantzia bat (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 236).

Ikusiak ikusi ondoren, bistan da ez dela beharrezko aditz sintetikoaren aurrean *BA-* ipintzea; ipin daitekeela edota ez ipini.

1.4.2.5. ALA / EDO aukera galderetan

a. ALA / EDO juntagailuen erabilera

Juntagailuez aritu ginenean (ik. *EGLU-IV*, 155-169. orr.) esan genuen galde perpausetan erabiltzen zela batez ere *ala* juntagailua. Orain bada, arau orokor horrek berdín balio du perpaus juntatuak aditz nagusi baten menpe ditugunerako. Galderazko ez badira, *edo* erabili beharko dugu; galderazko badira, *ala* erabil daiteke:

(287) a. [Kafea EDO garagardoa hartuko dudala] uste dut.

b. [Kafea ALA garagardoa hartuko dudán] ez dakit.

Halaber, behin eta berriz esaten ari garen bezala, galde-perpausak hiru motatakoak dira: a) zati galderak; b) *bai / ez* erako galderak; c) aukera galderak. Zati galderetan ez da aukerarik, ez eta juntadura hautakaririk ere; beraz, *edo / ala*-rentzat ere lekurik ez da. *Bai / ez* erakoetan ere ez, juntagailurik ageri ez den neurrian. Baina juntagailua ageri bada, *ala*-k bidea zabalik izango du. Aukera galderetan, berriz, nahitaezkoa dugu juntagailua. Beraz, *ala*-k hemen izango du bere lekua.

Ikus dezagun, beraz, lehenik zer gertatzen den zeharkako aukera galdera hauetan:

(288) Bakizu etorkizuna zelangoa dan, zuria ala baltza dan (A. Cardaberaz, *Eusqueraren berri onac*, 43).

Adibide horretan batetik zati galdera deitu dugun zehargaldera dugu *-badakizu [zelangoa den]-*. Honek ez du aukerarik ez juntadurarik. Bestetik galdera: *zuria ala baltza dan*, bi koloreren arteko aukera gisa aurkezten duena: “Zuria ala baltza da?”, edo honela, bi perpaus juntatuak osorik eman nahi izanez gero: “Zuria da ala baltza da?”.

Beraz, aukera galderetan, mendekoetan nahiz lokabeetan, *ala* juntagailuak badu tokia. Hona beste adibide batzuk:

(289) a. Zeren ezpaitakigu zeinez zerratzen den kontua, lehenbiziko egiten dugunaz *ala* bigarrenaz (P. Axular, *Guero*, 117).

b. Ea zein den gaitzago, Jainkoaren zerbitzatzea *ala* deabruaren (Ib., 474).

b. Zehargalderako adizki guztiek daramate menderagailua

Adibide guztiotan *ala* juntagailuak ez ditu perpaus osoak juntatzen, agerian behintzat, bi perpaus osagai baizik. Baina perpaus osoak ere ager daitezke *ala*-z juntaturik. Orduan bi perpausetako aditzek eraman behar dute *-eN* mendekotasun marka. Adibidez, bi azken adibideak pixka bat aldaturik honela eman litezke:

(290) a. Ez dakigu lehenbiziko egiten dugunaz zerratzen *den* kontua *ala* bigarrenaz zerratzen *den*.

b. Ea Jainkoaren zerbitzatzea *den* gaitzago *ala* deabruaren zerbitzatzea *den*.

Beste adibide gehiago nahi izanez gero:

(291) a. Ez digu esan etxean bazkalduko duen *ala* jatetxe batera joango den.

b. Ez dakit txantxetan ari zen *ala* benetan esan dizun.

Azken lau adibide hauetan bi perpaus juntatu ditugu eta biak perpaus nagusiaren osagai dira eta, esan bezala, aditzak agerian dituztenez gero, biek eraman behar dute *-eN* atzizkia. Beraz, baldin zehargalderak bi aditz jokatu baditu bere baitan, biek hartuko dute *-eN*.

Sarritan, gainera, horrelako perpaus egitura bikoitza izan ohi dute. Lehendabizi zati galdera bat ematen da eta ondoren zati galdera hori hobeki zehazten da, aukera galdera bat formulatuz. Hau, hala ere, zehargalderetan ez ezik, mendeko ez direnetan ere gertatzen da:

(292) a. Zein nahi duzu? Hau *ala* beste hau?

b. Ez dakit zein nahi dudan, hau *ala* beste hau.

Horixe bera gertatzen da goraxeago eman ditugun Axularren bi adibideetan ere (289a eta b).

Horrenbestez, ikusi dugu zein eratako zehargalderetan dagoen *ala*-rentzat bidea zabalik. Horrek ez du, ordea, esan nahi horietan guztietan *ala* erabili behar dela, erabil daitekeela baizik. *Ala*-ren ordeztu *edo* ere askotan aurkituko dugu.

Testu zaharretan ez dira falta horietako guztietako adibideak:

- (293) a. Ama emazte luien ala ez nahi nuke galdatu (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, III, 17).
- b. probetxaturen garen ala ez iakin gabe benturan othoitz egin behar dugu, ala...? (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Ins E31).
- c. Ene euskara eta lengajia ezlakit aprobata izanzen denez, bai ala ez (J. Tartas, *Oña hilceco bidia*, 6).
- d. eztaigo beha nork hura darabilan, ea superiorak, ala kideak, ala azpikoak (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea*, 150).

Esan behar da, lau adibide horiek erakusten diguten bezala, Iparraldeko antzinako autoreek usuenik *ala* erabiltzen zutela perpaus nagusi baten mendeko perpausa galderazkoa zenean. Ez da falta, hala ere, *edo* darabilenik, nahiz Duvoisinek honela irakatsi zuen: “*Edo s’emploié quand ou n’est pas interrogatif*”. Ikus Larregiren hau:

- (294) Guk zer axola dugu urriki duzun edo ez? (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia II*, 266).

Hegoaldean *edo*, eta ez *ala* –galderazko perpausari buruz ari gara– erabiltzeko ohitura handiagoa izan da eta da, kontuan edukirik *edo* ez-markatua dela eta *ala* berriz markatua. Bi eratako adibideak aurki daitezke, hala ere, Hegoaldean ere, nahiz *edo*-renak askoz gehiago izan.

- (295) a. nai dezu ekusi orrelakoa zaran edo ez (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 82).
- b. egiten ditu andiak diran edo ez begiratu bage (ib., 83).
- c. ikusiko dogu zarian edo ez ill-epalla edo anatomiko ona (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 53).

d. Ta zuk badakizu eroan deutsuen edo bere gurariz ioan den? (D. Aguirre, *Auñemendiako lorea*, 135).

e. dudan gaude illa dan edo dan biziya (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 33).

Eta:

(296) Ibiltzen asi baño lenago, oñazpian lur ibilkorra ala geldia degun ikusi behar (E. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 79).

Gehienetan perpaus osagaiak dira juntatzen direnak, baina hortxe ditugu bi bederen perpaus osoak juntatuak dituztenak, eta hainbestez bi aditzek *-eN* hartu dutenak.

1.4.3. Zehargaldera zatizkoak

Galde hitza daramaten mendeko perpausak esan dugu direla zehargaldera zatizkoak. Edozein galde hitzek, zeinahi duela forma eta zeinahi balioa, ize-nordaina edo graduatzailea edo aditzondoa izan, mugatzen du bere presentziarekin zatizko zehargaldera. Hauen menderagailua beti bat eta bera da: *-eN*.

(297) a. [NON ibili den] ez dakigu.

b. [ZENBAT balio duen] galdegin nahi nizuke.

Zati galderak perpaus irekiak dira, nolabait esan: badute osagai bat *-galde* hitza- erreferentzia zehaztu gabea duena. Hain zuzen, egiazki galdera denean, ezezagun gisa ematen den osagai hori identifikatzea eskatzen da. Gainerako zehargalderetan, aditz nagusia nolakoa den, hala interpretatzen da. Gehienetan ez da "ezezagun" horren erreferentziaz *galdetuko* (= informazioa eskatuko), baizik, *esan*, *erabaki*, *ikusi* etab. egingo da.

1.4.3.1. EA eta OTE zatizko zehargalderetan

Zehargaldera orokorretan bezala, zilegi da orain ere galdegitea ea zenbateraino onartzen dituzten horrelako perpausok *ea* eta *ote* partikulak. Bide batez, esan dezagun zati galderetan, zuzenetan nahiz zeharkakoetan, *ai* partikulak ez duela inongo lekurik.

Bi partikula hauek direla eta, esan behar da zilegi dela zatizko zehargalderetan erabiltzea. Hala ere, galdera orokorretan baino askoz gutxiago erabiltzen dira eta, jakina, beharrezkoak ez direla ere esan beharko da. Hots, horrelako partikularik ez duten perpaus hauek zuzenak direla, dituztenak okerrak direla esan gabe, hala ere:

(298) a. Erabaki ezazue nori eskatuko dizuen.

b. Pentsatu dugu nora joango garen.

Mogelek ez darabil *ea*-rik eta bizkaieraz, Añibarroren ingurukoek bakarrik darabiltela esan behar:

(299) Ondo galanto berba egin eban Carlos boskarrenak itandu eutsenean bere Kapitaiari, ea nor zan munduko gizonik azartuena (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 118).

Bistan da beste euskalkietan *galdegin* aditzarekin oso maiz agertuko dela *ea* partikula zati galderen aurrean:

(300) a. Jonek galdegin dit [*ea* non izan naizen].

b. Galdegiozu [*ea* noiz emango dizun].

Horrek bezala *pentsatu*, *eztabaidatu*, *dudan egon*, *gogoetan egon*, *zelatan egon* eta antzekoek ere bai, noski.

(301) a. Pentsatzen ari zen ea nork esan zion.

b. Udan ea nora joango diren eztabaidatu dute.

c. Dudan zegoen ea zenbat emango zion.

d. Nere baitan gogoetan nagolarik, ea nolatan dirauten oraiko etxek (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 66).

e. Halaber du aditzera emanen fiñak / ea nolako izatu diren haren egiñak (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezkoa*, I 65).

Baina berriro diogu, horietan beretan ere ez dira beharrezko; kendu eta perpausak ez du ezer galtzen eta lehengo horiek horrela ere eman daitezke:

(302) a. Pentsatzen ari zen nork esan zion.

b. Udan nora joango diren eztabaidatu dute.

Zenbait aditzekin, perpausari “zalantza” edo “susmo” kutsua ematen diotenekin, *ote* ere aurki dezakegu zatizko zehargaldera hauetan *ea* bezalaxe.

- (303) a. Zenbat gastatu ote duen kontuak ateratzen ari da.
- b. Ordubete darama pentsatzen norik kendu ote dion.
- c. Zain zegoen noiz abisatuko ote zioten.

Areago, badirudi zatizko zehargalderetan ere ezkon daitekeela *ote* hau, bazuetan bederen, *ea* partikula aurrean daramaten perpausekin eta ez diola trabarik egiten:

- (304) a. Galdetu ziguten ea zerbait nahi ote genuen.
- b. Ea nongoak ote ginen jakin nahi zuten.
- c. Gogoelan egon ginen ea zertara etorri ote zen hainbeste jende gure auzora.

Lehen astunak deitu ditugunen antzeko dira hauek ere; partikularik gabe utziz gero, ez dute ezer galtzen eta bai naturaltasuna eta herri tankera irabazten:

- (305) a. Galdetu zion (ea) noiz etorriko (ote) zen.
- b. (Ea) non galdu (ote) zuen jakin nahi zuen.
- c. Pentsatzen ari gara (ea) non (ote) dagoen.

Nolanahi ere *pentsatu* bezalako aditzekin perpaus horiek duda-mudazkoak gertatzen bazaizkigu, ez ahantz *bai / ez* erako zehargalderetako *ea*-ri buruz (1.4.2.2.) atalean esan ditugunak, eta batez ere, etorkizuneko zentzua izatea beharrezkoa dela, alegia.

1.4.3.2. *Aditz nagusirik gabeko zehargaldera zatizkoak*

Zehargalderak mendeko perpausak direla onartuta ibili gara orain arte. Beraz, perpaus nagusi batean txertatuak direla ontzat eman behar eta, jakina, perpaus nagusi horretan aditz bat ere badela. Hala ere, maiz erabiltzen ditugu zehargalderak perpaus nagusirik gabe edo perpaus nagusi hori isilpean dutela. Aditz nagusirik gabe, horrenbestez. Zatizko zehargalderetan hiru azpimultzo bereiz daitezkeela dirudi: a) *ea* partikula buruan dutenak; b) gauzak zeren arabera diren esaten ditugunak; e) harridura perpausak.

a. EA partikula buruan dutenak

Hori gertatzen da, bada, *ea* partikula buruan daramaten hainbatekin:

- (306) a. Ea nori sinesten diozun.
- b. Ea zer erantzuten dizun.
- c. Ea nora bidaltzen zaituzten.

Hautan, seguru asko isilpean aditzen bat bada pentsatu beharko da. Horiek onartzen dituzten parafraasiak behintzat hori iradokitzen dute:

- (306') a. Ikus ezazu ea nori sinesten diozun.
- b. Ikus ea zer erantzuten dizun.
- c. Kontu izan ea nora bidaltzen zaituzten.

b. Gauzak zeren arabera diren esaten digutenak

Gazteleraz *según* edo *depende* batez ematen zaie itxuraz sarrera aurreko perpaus batean baieztatuari nolabaiteko muga edo jarri nahi zaienean. Perpaus hauek, agerian edo isilean, aurrean esan den perpaus baten mendean daude. Oso zabalduak daude horrelakoak hizkera arruntean eta zenbaiten euskara ere kutsatzera iritsi dira. Jende asko aritzen da “dependeka” eta “segunka”. Nola eman horiei ordain jatorra euskaraz? Horra arazoa. Hots, honako hauek nola eman modu txukunagoz?

- (307) a. (Sinesten dute) *segun* nork esaten duen.
- b. (Egingo dizu) *depende* noren etxean dagoen.

Pixka bat pentsarazi behar liguke jakiteak gure zaharrek ez zutela bi mor-doilu horien beharrik guk horien bidez esaten duguna adierazteko. Badu euskararak modu bat horrelakoak emateko, hain zuzen, zehargalderen bidetik, aditz nagusirik gabeko zehargalderen bidetik:

- (308) a. - Zekena omen da, adizu, eta ez omen du ezer ematen.
- Nork eskatzen dion.

- b. - Lizardiren zenbait pasarte ezin daiteke uler.
 - Nola irakurtzen den.
- c. - Ez omen du astirik lan hori egiteko.
 - Noiz jaikitzen den.
- d. - Eskerrak eman behar al dizkiot ondoren?
 - Zenbat diru ematen dizun.
- e. - Adizu, makroekonomia oso gai zaila omen da.
 - Irakaslea nor den.

Bistan da zertan datzan bidea: hartara bultzatzen duen ageriko ezer gabe esaten dira, galde hitza batetik eta adizkia zehargalderen *-eN* duela bestetik. Baina hori azala baizik ez da eta ezkutuan badago, noski, atzizki horren eragilea. Entzun dezagun elkarrizketa hau:

(309) - Ez al luke hobe auzia ipintzea?

- Ikusi egin behar.
- Zer ikusi?
- Zenbat zor dion.

Zenbat zor dion ikusi behar: hori da perpaus osoa eta hori goiko perifrasi [galde hitza ... *-eN*] soilaren atzean ezkututzen zena. Beraz gaztelaniazko “según” eta “depende”-ren ordain zuzena ez da perifrasi hori. *zenbat zor dion*, baizik isilik gelditzen den perpaus nagusia. Eta hau askotarikoa izan daiteke: *ikusi egin behar, jakin egin behar, ez da berdin, alde handia da, asko esan nahi du...* Esate baterako:

(310) a. Ikusi egin behar... nola joan behar duen.

- b. Jakin egin behar... norentzat den.
- c. Ez da berdin... non edukitzeko den.
- d. Alde handia da... berak eskatu duen.
- e. Asko esan nahi du... nork esan duen.

Gehienetan era horretako elkarrizketa gisako solasetan erabiltzen dira, baina bestelakoetan ere bai. Adibidez:

- (311) a. Gero ez omen zioate jaramonik egiten... Berak zenbat egiten dien.
b. Ez omen diote asko ordaindu... Zenbat ordu lan egin duen.

Zernahi gisaz, garbi geldi bedi (310) eta (311) adibideetako zehargalderek, eta horien antzeko mila, bere soilean “depende”-ren edo “según”-en zeregina betetzen dutela. Horrenbestez, badugu hor mordoilokerietara jo gabe, esateko modu askoz txukunagoa.

c. Harridura perpausak

Harridura perpausak ere, maiz zehargaldera itxuran ematen dira, perpaus nagusirik eman gabe, isilpean utziz:

- (312) a. Zenbat dakien mutil honek!
b. Zein polita den Aralar!
c. Noiz etorri den bart gure mutila!

Hauek, formaz, bistan da zehargalderak direla: galde hitza dute (*zenbat, zein, noiz,...*) eta aditzak zehargalderen marka darama: *-eN*. Dena dela, ez da zaila ikustea zehargaldera hauek zein aditzetik daudekeen “zintzilik”. *Ikusi, pentsa* edo horrelakoren bat izango genuke nolabait azpian. Hala parafrasea daitezke, nolana ere:

- (312') a. Ikus ezazu [zenbat dakien mutil honek]!
b. Ikus [zein polita den Aralar]!
c. Harritzekoa da ikustea [noiz etorri den bart gure mutila]!

1.4.3.3. Zehargalderak eta perpaus erlatiboak

Hurrengo kapituluan aipatuko dira galde hitza eraman arren zehargalderatzat ez, baina erlatibotzat hartu behar diren perpausak (ik. 2.6.2). Aurreko mendeetako testuetan ikus daitezke horrelakoak:

- (313) a. eztik non bere burua reposa dezan (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mt VIII, 20).
- b. ezen eztut nora bil ditzadan neure fruktuak (Ib., Lk XII,17).
- c. Hunezaz zer segurik eskriba diezodan jaunari eztut (Ib., Akt XXV, 26).
- d. Ez dago nok egin dagijan penitenzijarik (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 29).

Perpaus horietako aditzak subjuntiboak dira, ikusten denez. Gaur egun partizipioa edo aditzoina erabiliz egin ohi dira horrelako perpausak:

- (314) a. Zerren ezian faltako guretzat nok erregutu.
- b. Geratuten da oraindiño zer irakatsi.
- c. Nork erosi faltako ez luke.

Hauek ere erlatibotzat hartuko ditugu. Aditz ezjokatua duten mendeko perpaus aritzean sakonago aztertuko baditugu ere, komeni da (313) eta (314) adibideetako perpausak eta horien antzekoak zehargalderelatik ondo bereiztea.

Konpara ditzagun bi adibide hauek.

- (315) a. Peruri ez diote esan [zer egin].
- b. Peruk badu [nork lagun(du)].

Perpaus hauek itxuraz egitura berekoak ditugu. Hiru osagai dituzte: perpaus nagusia, galdekaria eta partizipio burutua edo aditzoina. Baina gauzak sakonagotik aztertuz gero, berehala obartzen gara ez direla hain egitura bereko. (315a)n *esan* aditzak gobernatua dago [zer egin] osaguia. Aditz horren osagarria da: *Zer ez diote esan Peruri? Ez diote esan zer egin*.

Baina (315b) hartzen badugu, ikusten dugu *ukan* aditzak ez duela perpausik hartzen osagarritzat, izen sintagma arruntak baizik: badut *etxea*, badut *alaba*, badut *gogoa*, etab.

Horregatik gertatzen da honako kontraste hau:

- (316) a. *Peruri ez diote esan [liburua].
- b. Peruk badu [laguna].

Hots: *esan*-ek ez du osagarritzat izen sintagmarik onartzen, *ukan*-ek bai. Eta alderantziz, *esan*-ek perpausa onartzen du osagarritzat, *ukan*-ek ez:

(317) a. Peruri ez diote esan [nork egin behar duen].

b. *Peruk badu [nork egin behar duen].

Zehargalderak zenbait aditzen osagarri izan daitezke. Eta hau da perpaus horien egitura:

(318) a. Ikusiko dut _p[zer egin]

b. Ikusiko dut _p[non lo egin]

ZER da ikusiko dudana? Ez, noski, gauza bat, edo logela bat, adibidez. Ikusiko dudana beste zerbait da. Kasu hauetan *ikus*i aditzak perpaus bat darama osagarri gisa. Horrenbestez, hemen ez da ezer konkreturik ikusiko. Ostera, beste perpaus hauek hartzen baditugu kontuan:

(319) a. Aurkituko dut [zer egin]

b. Ez daukat [non lo egin]

hemen egiazki hiztunak dioena da “ez daukala, adibidez, ohe bat edo logela bat”, edo “aurkituko duela zerbait, egiteko”. Beraz, *eduki*-ren osagarria ez da [non lo egin]. Eta *aurkitu*-rena ere ez da [zer egin]. Hemen egiazko osagarritzat ulertzen duguna izen sintagma bat da, nahiz eta isilpekoa den eta zehaztu gabea: zerbait, adibidez, edo ohe bat edo logela bat. Horregatik, hemen egitura erlatiboetan dugunaren antzekoa dugu:

(320) Ez daukat [[Ø]_i [non_i lo egin]].

□

Hots: *eduki* aditzaren objektua isilpeko izen sintagma bat dugu eta honen erreferentzikide den *non* elementua, perpaus txertatuan.

Horrelako erreferentzikidetasunik ez dugu benetako osagarrietan, ez eta ere, horrenbestez, zehargalderetan:

(321) Ikusiko dut [zer egin].

Egiturazko diferentzia hau onartuz gero, hobeki ikusten da bi perpaus sail hauen arteko diferentzia:

- (322) a. *Ez daukat [[Ø]_i [zein etxetan_i lo egin]].
 b. *Aurkituko dut [[Ø]_i [zer liburu_i irakurri]].

Baina

- (323) a. Ez dakit [zein etxetan lo egin].
 b. Ikusiko dut [zer liburu irakurri].

Izan ere, erlatiboentzat beste egitura honen antzeko bat proposatu beharra dago:

- (324) a. Ez daukat etxerik_i [zeinetan_i lo egin dezadan].
 b. Aurkituko dut liburu bat_i [zein_i irakur dezadan].

Horrelakoak dira (313) adibideetako perpausak ere: *ez dauka bere burua non reposa dezan; ez dago nork egin dezan penitentziarik...*

Hortaz, *jakin, ikusi, pentsatu, erabaki* eta antzeko aditzek zehargalderak onartzen dituzte osagarri gisa. Zehargaldera hauek laguntzaileak nahiz gabeak izan daitezke.

Ostera, badira aditz gutxi batzuk *-izan, ukan, aurkitu, bilatu...* [galde hitza + aditzoina] gisa azaleratzen diren erlatiboak onartzen dituztenak. Erlatibo hauen ardatza isilpeko izen bat izango da. Hauek "erlatibo libre" deitu ditugunen parekoak izango dira. Esanahiaren aldetik, berriz, aditz nagusi hauen objektu den izen hori zerbait zehaztugabe gisa aurkezten da. Nolanahi ere, aditz nagusi hauen objektua izen sintagma dela argi dagoela dirudi. Horregatik, sarri askotan mugatzaile eta guzti ematen ditugu edo partitiboan:

- (325) a. Agenuko da nork eramana.
 b. Badiagu nora joan polit askoa.
 c. Ez dut nora joanik.

- d. Nora joan haundirik ez diat (Azpeitian entzuna).
- e. Gero ez omen zegok non hartua (Ib.).
- f. Gure onorean degu orobat zer sufritu asko (F. A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 343).

Izen sintagma direla esan dugu. Izentze prozesua hain eraman da aurrera, non adjektibo eta guzti ager baitaitezke horrelakoak, (325 b, d eta f) lekuko.

Baiezko perpausetan partizipio burutua forma partitiboan erabil daiteke:

- (326) a. Badu zer janik.
- b. Badu nora bildurik.
- c. Badu norrekin jolasturik.
- d. Ba al dago oraindik zer puskaturik?

[**Bitariko esanahia**. Galde hitza eraman arren zehargaldera ez diren perpausak aipatu ditugunez, gogora dezagun, bidenabar bada ere, horrelako batzuek bitariko esanahia dutela. Bigarren esanahi horretaz jabetzeko, konpara ditzagun orain arteko adibideak beste hauekin:

- (327) a. Ez duzu zer egonik beti zutik.
- b. Ez dugu zer janik beti okela.

Perpaus hauei erreparatzen badiegu, berehala ohartzen gara hor ageri den ZER hori ezin izan daitekeela ez *egon* aditzaren subjektu ez *jan*-en objektu: *egon*-en subjektua, *zu* izango litzateke (327a) perpausean, eta (327b)n, berriz, *jan* aditzak badu bere objektua, *okela*, alegia.

Alegia, baldin *badut zer jan*-ek, lehen esan dugun bezala, *badut jatekoa* esan nahi badu, *ez dut zer jan*-ek esan nahiko du, eta esan nahi du, *ez dut jatekorik*. Hala da, izan ere; baina maiz beste zentzu bat hartzen du egunoroko hizkeran: *ez duela jateko artazoirik, obligaziorik, eta ez dut zertan edo zergatik jan*-en pareko bilakatzen da. Hori da, hain zuzen, (327)koen adiera. Horra zergatik eman ohi ditugun okertzat (328) bezalako egiturak, *ez dut zer*-ek berez duen zentzua errepikatzen baitu alferrik ondoko *beharrik* hitzak:

- (328) *Ez duzu zer(tan) haren bila ibili beharrik.

Are gehiago nabarmentzen da obligazio zentzu hori delako partizipioari edo aditzoinari eransten zaizkionean sintagma batzuk, *zer*-i osagarri zuzena edo subjektu izateko posibilitate guztia kentzen diotenak, goian ikusi dugun bezala.

Ez dut zer jan soilik entzuten duenak seguruenik lehen esan duguna ulertuko du, ez duela jatekorik, hori baita esanahi arrunta testu inguru bereziek besterik iradokitzen ez dioten bitartean; baina entzuten badu perpaus hori honela luzatua, *ez dut zer jan beti zuk emandakoa*, ezingo du gehiago lehengo hori ulertu eta ulertuko du gutxi gorabehera: *ez nago zuk emandakoa jatera behartua*. Izan ere, objektu zuzen berria sortu zaio partizipio-aditzoinari eta *zer*-ek ezin dezake gehiago lehengo funtzioa bete. Orduan *zergatik* edo *zer-tan*-en pareko bilakatzen da.

Hori horrela delarik, perpaus bikote hauen arteko bereiztasuna garbiro nabari da: *b*, *d* eta *f*-koek "arrazoia" adierazten dute, *a*, *c* eta *e*-koek ez bezala.

(329) a. Ez du zer esan.

b. Ez du zer esan beti egia.

c. Ez dut zer ezkuta.

d. Ez dut zer ezkuta iturri onetik dakidana.

e. Ez da zer pentsa.

f. Ez da zer pentsa beti okerrena.

Modu berean, Oihenarten adibide honek esanahi argia du:

(330) Eztuzu zer uka zarela ogenduru, / ez zer har ait'amen nahia estakuru (A. Oihenart, *Proverbs basques*, VI, 9).

Argi dago ez direla gauza bera "ez duzu zer uka", hau da, ez duzu ukatze-ko ezer, esan dizugun guztia egia da eta ezin dezakezu horietako punturik txiki-ena ere uka, edota "zer har", hots, agortu da dena eta ez da hemen zuk hartzekorik, eta "ez duzu zer uka zarela ogenduru" alde batetik eta "ez duzu zer har aita amen nahia estakuru". Hemen arrazoiaz ari gara. Izan ere, *ukatu*-k eta *hartu*-k badute beren objektua: *zarela ogenduru* eta *ait'amen nahia*.

Ikusten denez, perpaus nagusiaren adizkia **edun / eduki...* nahiz *izan / egon* izan daiteke. Mendeko perpausarena halaber iragankorra nahiz iragangaitza izan daiteke, baina honena, dela partizipioa, dela aditzoina, iragangaitza denean eta hainbestez *zer* ezin izan daitekeenean inondik ere haren osagarri zuzena, higarren esanahi hau ezinbestekoa da; hau da, perpausak izan dezakeen adiera bakarra gertatzen da:

- (331) a. Ez duzu zer egon beti ate ondoan.
b. Ez da zer larritu huskeria horregatik.
c. Ez du zer bizi izan beti bildurrez.
d. Ez da horretarako zer ibili 5 km. egunoro.
e. Ez du zer jaiki goizero lauretan.
f. Ez du zer geldi gauetz etxean.
g. Ez da zer kezka.

Idazle klasikoek artean baditugu horrelako perpausak. Hona hemen batzuk:

- (332) a. Ni zerura iganagatik, ez da zuek zer penatu (S. Mendiburu, *Irakurraldiak I*, 109).
b. Ez da zer zu aseriatu ... besteren ganaduak zure soroa ... sartzen diranean (Ib., 412)
c. Ezta heben zer duda (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, III, 26).
d. ez dago zer hildur izan (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 213).
e. Orduan au egitera, etzenduen zer ibili zabiltzaten bezela... (F. A. Olaegui, *Eskuizkribuak*, 307).

Hona hemen aditz iragankorra dutenak:

- (333) a. eztugu bertzeri zer atxakia emanik, eta ez zer hoben egotzirik, geureak ditugu faltak (P. Axular, *Guero*, 360).
b. Eztezu zer itandu geiago nork zaituko zaituen (M. Larramendi, *Euskal testuak*, 57).
c. Ofizijo guztietakuak daukee zer egin esamina apartekua (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 25).

- d. beraz eztago zer penitenziarik egin (Ib., 39).
- e. ez dago niri zer aitatu gorderik daukadazan pekatubak nik agertutia (Ib., 191).
- f. Ez da zuk zer eranzun, ekusten dugun gauza da (S. Mendiburu, *Irakurraldiak* I, 72).
- g. etzutela gizoni zer begiratu, galdu nai ezpazuten (Ib., I 133).
- h. Ez da zer nere aurratik orrenbat neke zuk artu (Ib., 186).

Hauetan guztietan kausazko balioa hartzen du *zer* horrek. Hori, esan dugun legez, perpau*s* nagusia ezezkoa denean gertatzen da maizenik, eta hala dira horko adibiderik gchienak, baina baiezkoa denean ere gerta daiteke:

- (334) a. Bada / badu zer kezka.
- b. Bada / badu zer burua neka.
- c. Bada / badu zer triste egon.
- d. Bazen / bazuen zer presaka ibili.

Horko Axularren (333a) (“eztugu bertzeri zer...”) adibide horrek erakusten digu partizipio burutua forma partitiboan ager daitekeela. Halakoak dira Axularren hauek guztiak:

- (335) a. erituz gerozko debozinoan ezta zer fidaturik (P. Axular, *Guero*, 139).
- b. baina bitartean, anarteraino ezta zer mintzaturik (Ib., 33).
- c. eta nola neurria behez gero ezpaitzen zer gehiago iguririk, halatan delibe-ratu zuen lainkoak (Ib., 81).

Nolanahi ere honelakoek bi balioak izan ditzakete eta batzuetan zaila da jakiten zein duen konkretuki. Axularren hau, esate baterako, bitarikoa da eta testuinguruak ere ez digu zentzua argitzen:

- (336) Zeren kofesatzera heldu dena bekhatutan dago, zeren hala ezpalego, ezluke zer kofesaturik (Ib., 344).

Hots, edo ez luke kofesatzeko bekaturik, edo ez luke zergatik joan kofe-satzera.

Axularren aurreko lau horiek (335-336) ezezkoak izanagatik, esan zitezkeen eta esaten dira horrela ere:

- (337) a. Ez da zer fida(tu).
- b. Ez da zer mintza(tu).
- c. Ez luke zer iguriki.
- d. Ez luke zer konfesa(tu).

Azken ohar bat egin dezagun: adibiderik gehienetan *zer* izenordaina ageri zaigu. Hala ere, batez ere gaurko hizkeran, *zertan* ere erabiltzen da. Biak daude ongi:

- (338) a. Ez da zertan fida(tu).
- b. Ez duzu zertan etor(ri).
- c. Ez dago zertan gauzak horrela egin.

Partitiboarekin ere ager daitezke horrelakoak: *ez da zertan fidaturik...*].

1.4.3.4. Galde hitzak adierazpen-perpau osagarrietan

Galde hitzen bidetz osatzen diren perpausak zatizko galderak direla esan dugu. Zatizko galdera hauek zuzenekoak nahiz zeharkakoak izan daitezke. Atal honetan zehargalderez aritu gara bereziki. Zehargaldera hauen ezaugarria, esana dugu, *-eN* atzizkia da. Hala ere, galde hitzak ager daitezke *-eLA* atzizkia duten perpausetan:

- (339) [Nor naizela] esaten dute zure lagunek?

Izan ere, galde hitzak galderazko perpausaren osagai zuzenak izan daitezke: *nor, nori, nork, non, nora, nondik, zergatik*, etab. hala izan ohi dira. Baina perpausa baino txikiago den osagai baten osagai ere izan daitezke.

Horrela, izen sintagma baten osagai ere izan daitezke galde hitz batzuk. Adibidez, *nolako, zein, zenbat, nongo* eta horrelakoak izen sintagma baten osagai izan daitezke. Esate baterako:

- (340) a. [Nongo etxea] jarri duzue salgai?
b. [Nolako irakasleak] jarri dizkizue aurren?
c. [Zenbat lagun] bildu zineten lehengoan?

Galde hitz horiek izen sintagma batean bezala, beste batzuk perpaus txertatu batean aurki daitezke; erlatiboetan, adibidez:

- (341) a. [Noiz erositako] autoa apurtu zaizu?
b. [Nork prestatu duen] pastela gustatu zaizu gehien?

Perpaus hauetan guztietan galde hitzak ditugu. Galde hitz horiek aski sakonean txertatuak egon daitezke. Baina, beldu ere, perpaus nagusiak galdrazkoa izan behar du. Perpaus horiek denak galde-perpausak dira.

Bada, gauza bera gerta daiteke, adierazpen-perpauetara ere. Adierazpen-perpaus bat izan daiteke beste perpaus baten osagarri. Orduan, adierazpeneko denez, *-eLA* atzizkia eskatuko du:

- (342) [Andonik ekarriko duela] uste du Mirenek.

Baina, adierazpen-perpaus honetan osagai bat galde hitza izan daiteke. (342)ren kasuan, adibidez, *Andonik* sintagmaren ordez, *nork* galde hitza aurki dezakegu:

- (343) [Nork ekarriko duela] uste du Mirenek?

Baina, orain ere, goian bezala, perpaus nagusiak galderazkoa izan behar du. Horrenbestez, (343) perpausa galde-perpaus bat dugu, zuzeneko galdera. Zuzeneko galdera bada, informazio eskari bat da eta, horrenbestez, erantzun egokia eskatzen du. Adibidez (344)koa:

- (344) a. [Andonik ekarriko duela] uste du Mirenek.

edo

- b. Andonik.

Hortaz, argi dago, (343) modukoak zuzenak direla eta zuzeneko galdera gisa interpretatu behar direla. Baina galde hitza adierazpen-perpau baten barruan txertaturik egon daiteke.

Horrelako perpauak, hala ere, galdegaiaren araura hertsiki makurtzen dira: galde hitza kokatua dagoen sintagma beti aditzaren aurrean aurkituko dugu. Galde hitza perpauaren osagai zuzena bada, perpauseko aditzaren aurrean kokatuko da; galde hitz hori izen sintagma baten osagai bada, sintagma osoa kokatuko da aditzaren aurrean (ik. 340); eta galde hitz hori perpau txertatu baten barruan aurkitzen bada, perpau osoa jarriko dugu aditz nagusiaren aurre-aurrean. Hori da (341)n gertatzen dena erlatiboekin. Baina gauza bera gertatzen da perpau adierazpenekoekin ere. Horregatik (343)k du duen ordena. Hona hemen berriro errepikatua:

(345) [Nork ekarriko duela] uste du Mirenek?

Lege hori erabat bortitza da. Horregatik, (345) horren orde, ezin daiteke beste hau esan:

(345') *Uste du Mirenek [nork ekarriko duela]?

Baina perpau osagarri hauekin bada beste estrategia bat ere zilegi dena, zenbait aditzekin behintzat: aditz nagusiaren aurrera perpau osagarri osoa eraman beharrean, aski da galde hitza bakarrik eramatea:

(346) *Nork uste du Mirenek ekarriko duela?*

Eta modu berean:

(347) *Noru esan dizute joan behar duzula?*

(= Nora joan behar duzula esan dizute?)

Aditz jokatu gabeko perpausekin ere zilegi da joko hau:

(348) *Noiz pentsatzen duzu joatea?*

(= Noiz joatea pentsatzen duzu?)

Bere perpausetik galde hitza ateratzea eta aditz nagusiaren aurre-aurrean kokatzeko estrategia hau perpaus osagarriekin bakarrik da zilegi. Ezin daiteke horrelakorik egin ez izen sintagmen barruan kokaturik dauden galde hitzekin ez eta ere erlatiboen barruan kokaturik daudenekin, hauek ere, azken batean izen sintagma baten barnean txertaturik daudela kontuan izanik.

Gogoan izan behar da, azkenik, aditz guztiek ez dutela onartzen barnean galde hitza daraman osagarririk. *Uste izan*, *esan* eta *pentsatu* bezalakoek bai, baina *jakin*, *ahantzi*, *ikasi* eta *ohartu* bezalakoek ez (ik. 1.2.4.1.b). Eta galde hitzik ez badago, hura aurreratzeke aukerarik ere ez dago, noski.

1.5. SUBJUNTIBOKO PERPAUS OSAGARRIAK

1.5.1. *Nolakoak diren subjuntiboko perpausak*

a. Aurkezpen orokorrean azaldu dugun bezala, aurreko kapituluetan aztertu ditugun perpaus osagarriak eta kapitulu honetan ikusiko ditugunak ez dira guztiz berdinak. Haiek, [- *subjuntiboak*] izaki, berez lokabe izan daitezkeenak dira, menderagailuaren bitartez mendeko eta osagarri bilakatuak. Kapitulu honetan ikusiko ditugunak, berriz, aditza [+ *subjuntiboa*] dutenak dira eta, hortaz, aspektu eta -*KE* gabeak, beti ere -*eN* edo -*eLA* menderagailuak eraman behar dituztenak.

Bi modutan gerta dakieke perpaus osagarrioi [+ *subjuntiboak*] izan beharra. Zenbaitetan, aditz nagusiari zor zaio hori. Izan ere, *nahia*, *eskaria*, *agindua* eta horrelakoak adierazten dituzten gobernatzaileek osagarri subjuntiboa eskatzen dute. Horien osagarriak ez dira inoiz adierazpenekoak:

- (349) a. Ondo bizi zaitezten opa dizut.
 b. *Ondo bizi zarela opa dizut.
 c. Poliki ibil daitezela eskatu diet.
 d. *Poliki ibili direla eskatu diet.

Eta aipamen lokabe bati sarrera ematen diotenean ere, aipamen hau aginte gisakoa da, inoiz ez adierazpena:

(350) a. Orduan manatu zien: "Maita ezazue elkar".

b. *Orduan manatu zien: "Elkar maitatzen duzue".

Beste predikatu batzuk, ordea, orokorragoak dira eta ez dute berez subjuntiboko osagarririk eskatzen. *Esan* aditzak, adibidez, inota guztietako osagarriak onartzen ditu eta mota guztietako aipamenei ematen die sarrera, bai adierazpenei, bai galderari eta bai aginteei ere. Aginteak dira, hain zuzen, mendeko bilakatzen direnean aditz subjuntiboa eskatzen dutenak; ez, ordea, *esan* aditzak horrelako osagarria eskatzen duelako, osagarri eginiko perpausa bera horrelakoa delako baizik. Izan ere, agintekerak, mendeko egiten delarik, subjuntiboko ezaugarria haritzen du.

(351) a. Honela esan dizu maisuak: "Ibil zaitez poliki".

b. Poliki ibil zaitezela esan dizu maisuak.

b. Subjuntiboko perpaus hauetako batzuek, bestalde, ez dute onartzen aditz nagusiko subjektu bera izatea. Aditz nagusiak eta subjuntiboko perpausak subjektu bana dute:

(352) a. Lasai egon gaitezela esan digute [*haiek* - (gu)].

b. Gure ondokoek bizimodu hobea izan dezaten nahi nuke [*nik* - (*haiek*)].

c. *Ondo bizi nadin nahi dut [*nik* nahi dut ni ondo bizi].

d. *Lan hori berak; egin dezan nahi du Pellok; [*Pellok*; nahi du *Pellok*; egin].

Aditz bien subjektua bera denean, jokatu gabeko perpaus jakin batzuk erabiltzen dira: *ondo bizi nahi dut; lan hori berak egin nahi du...*

c. Lokabe itxura duten *On degizula!*, *Egun on dizula Jainkoak!* eta gisa horretako esaldietan izan ezik, ez da ohikoa gaurko egunean subjuntiboko perpaus hauek aditz trinkoarekin ematea. Aditz perifrastikoa erabiltzeko joera dago, ondoko adibide parcek erakusten duten bezala:

(353) a. Ez du nahi zurekin joan nadin.

- b. (?) Ez du nahi zurekin noan.
- c. Bere alboan egon gaitezela agindu digu.
- d. (?) Bere alboan gaudela agindu digu.

d. Gogoan izan behar da, azkenik, perpaus jokatu gabeak maiz subjuntiboko perpaus hauen parekoak izan daitezkeela. Ondoko adibideetako perpausak, esate baterako, *-TZEA* edo *-TZEKO* atzizkia dutenak, subjuntiboko perpausen pareko izan daitezke:

- (354) a. On da denok zerbait *egitea* [= *egin dezagun*].
- b. Beharrezkoa al da denak *sartzea*? [= *sar daitezen*].
- c. Lan gehiago *egitea* nahi dute gure ugazabek [= *egin dezagun*].
- e. Erreguka ari zitzaizkion bazkaltzen *geratzeko* [= *gera zedin*].
- f. Ahal duzun guztia *egiteko* eskatzen dizugu [= *egin dezazula*].
- g. Liburu hori *itzultzeko* esan dit Josebak [= *itzul dezudala*].

Zenbaitetan, subjuntiboa erabiltzea maila jasoaren adierazgarri izan daiteke, Hegoaldeko euskalkietan batez ere. Horrela, euskalki horietan ohikoagoa da ondoko adibideetan lehena bigarrena baino.

- (355) a. Lehenbailehen *sartzeko* agindu ziguten.
- b. Lehenbailehen *sar gintezela* agindu ziguten.

Iparraldeko euskalkietan nekezago gertatzen da bereizketa hori, subjuntiboaren erabilera aski ohikoa baita haietan, ingurumari askotan.

Hemen, edozein modutan, perpaus jokatueta mugatzen dira gure azalpenak eta, hortaz, ezjokatuena geroko utziz, jokatuerei dagokiena baizik ez dugu azalduko.

1.5.2. Subjuntiboko perpaus osagarrien ezaugarri batzuk

Perpaus hauetan ere gertatzen dira [- *subjuntiboko*] osagarrien azalpenean aipatu ditugun kontu batzuk. Honako hauek gogora daitezke, besteak beste:

a. Predikatu konplexuak gobernatzaile:

(356) *Erreguka ari natzaio lagun diezadala.*

b. Isilpekoak:

(357) *Haserre agertu zen, utz genezala esku artean genuena.*

c. Galde hitzaren aurreratzea:

(358) a. *Nor nahi duzu etor dadin?*

b. *Zer agindu duzu egin dezagun?*

d. *-eN* osagarriaren eta *-eN* adberbialaren arteko aldea:

(359) a. *Lasaiago bizi zaitezen* komeni da.

b. *Lasaiago bizi zaitezen*, kezka horiek ahaztea duzu onena.

e. *Ezen* lokailua perpausaren lehen buruan, nahiz eta subjuntiboarekin horrelako egiturak maiztasun handikoak ez diren:

(360) a. *Nahi duzu zuk ezen egin behar zenduen deskargua eta egin oztuzuna zure ondokoak egin dezan* (P. Axular, *Guero*, 165).

b. (...) *Madrillera baño len, esaten ziolarik ezen ifiñi zitzala* Gobernuko Sekretari guztiak lengo oñean (...) (J. I. Izueta, *Gipuzcoaren condaira*, 507).

f. Perpaus nagusian aurrekari bat izatea:

(361) a. *Zera eskatzen dizut, ahal duzun guztia egin dezazula.*

b. *Hau da nahi duguna, zuk irabaz dezazula.*

Kontu horiek denak, ordea, [- *subjuntiboko*] osagarrien azalpenean aipatu ditugu (ik. 1.3) eta ez ditugu hemen berrituko.

1.5.3. Subjuntiboko perpaus osagarrien gobernatzaileak

Esan bezala, subjuntiboko osagarria eskatzen duten gobernatzaileak mota batekoak baino gehiagokoak izan daitezke. Batzuk aipatuko ditugu.

a. Hasteko, hiztunaren iritzi-jarrera nolabait adierazten duten perpausak daude, *on da, hobe da, beharrezkoa da, beldur izan, komeni izan* eta horrelako predikatuak dituztenak:

(362) a. *On da* denok zerbait egin dezagun.

b. *Beharrezkoa al da* denak sar daitezzen?

b. Bestetik, gogo-jarrera adierazten dutenak ditugu. Horrela, esate baterako, *nahia* edo *desira* adierazten dutenak:

(363) a. Lan gehiago egin dezagun *nahi dute* gure ugazabek.

b. Ondo bizi zaitezela *opa dizuet*.

Zerbait egiteko *eskaera* edo *erregua* adierazten dutenak:

(364) a. *Erreguka ari zitzaizkion* bazkaltzen gera zedin.

b. Ahal duzun guztia egin dezazula *eskatzen dizut*.

Eta *agindua* edo *debekua* adierazten dutenak:

(365) a. Liburua itzul dezadan *manatu didate*.

b. Hitzik esan ez dezagula *agindu digute*.

c. Zenbaitetan, aipamenak abiarazten dituzten *esan* bezalako aditzak izaten dira gobernatzaile, aginte-perpausak mendean hartzen dituztenak:

(366) a. Liburua itzul dezadala *esan didate*.

b. Hitzik esan ez dezagula *adierazi digute*.

d. Beste zenbaitetan, azkenik, gobernatzaileka isilpean geratzen da edo bestelako aditz baten mendean dagoelarik (367a) edo perpausari lokabe itxura ematen diolarik (367b):

(367) a. Mikelek deitu zigun, lehenbailehen joan gintezela.

b. Egun ona izan dezazula!

Horietako lehenean “deitu zigun, *esanaz*... joan gintezela” edo horrelako zerbait ulertzen da, non *esanaz* hori “deitu zigun” perpausaren mendeko eta “joan gintezela” subjuntiboaren nagusi edo gobernatzaile den. Bigarrenean, berriz, isilpean *opa dizut* edo horrelako gobernatzaile bat dagoela pentsa daiteke.

1.5.4. Subjuntiboko perpaus osagarrien menderagailua

Subjuntiboko perpaus hauek ere *-eN* eta *-eLA* menderagailuak hartzen dituzte. Banaketa ez da, ordea, [- *subjuntiboko*] osagarriek dutena bezain zehatza. Bietan erabiliena *-eN* da, zalantzarik gabe, baina zenbaitetan aukerakoa da bat edo bestea hautatzea, bien artean batere alderik sumatzen ez delarik.

Hau esan daiteke laburpen gisa:

- *-eN* da subjuntiboko menderagailu nagusia eta orokorki erabiltzen dena.
- *-eLA*, berriz, predikatu batzuekin baizik ez da erabiltzen. Horrela, Hegoaldean *eskaera* edo *agindua* adierazten duten predikatuekin ageri da batez ere eta baita inoiz, ez beti, *nahia* adierazten duten predikatu batzuekin ere. Iparraldean, berriz, predikatu gutxirekin erabiltzen da menderagailu hau: *agindua* adierazten duten batzuekin zenbaitetan, ez beti.
- Egitura jakin batzuetan, hala ere, *-eLA* erabili ohi da euskalki guztietan, zeinahi ere den predikatua. Mendeko perpausa modu batera edo bestera aditz nagusitik “bereiz” duten egituretan gertatzen da hori (ik. 1.5.4.5).

1.5.4.1. Iritzi-jarrerak adierazten dituztenak: *-eN*

Gertakaria modu ebentual edo gertagarrian agertzen dituzten iritzi-perpausak *-eN* menderagailua hartu ohi dute. Esan bezala, *da* kopula duten predikatuek izaten dituzte horrelakoek maiz gobernatzaile: *on da, hobe da, beharrezkoa da, ezinezkoa da, komeni da*... Baina bestelakoak ere izan daitezke, hala nola, *ongi / gaizki iruditu, ongi / gaizki aurkitu, beldur izan, kasu egin* etab.

(368) a. *Egokienu da bakoitzak behar duenaren araberako soldata har dezan.*

- b. *Ez zait ondo iruditzen besteak lanean ari diren bitartean zu egonean egon zaitzen.*
- c. *Normala al da lehendakaria beti gionezkoa izan dadin?*
- d. *Ez da haizu jauts daiten* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 881).
- e. *Frantsesek beldur ziren lagunak ethor zakizkon indarka libratzerat* (P. Lafitte, *Murtuis eta bertze*, 47).
- f. *Zer antsi othe da Adonisen eta amodio profanoaren ostateriako bandera izan dudiñ* (J. Haraneder, *Philotea*, 417).
- g. *Nitaz denaz bezanbatean ez dut axolarik yuia nazazuen* (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 33).
- h. *Neri zer dit axola / beatz ariñak berezi nazan* (Gaztelu, *Musika ixila*, 166).
- i. *Komeni da. oso komeni ere, euskaldun guztiok jakin eta zabal ditzagun* (K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak I*, 120).

1.5.4.2. 'Nahia' edo 'desira' adierazten dutenak: -eN / (-eLA)

Nahia, *gura* edo *desira* adierazten duten aditz eta predikatuen osagarriak ere -eN menderagailua darama normalean -*nahi(ago) izan*, *gura(go) izan*, *opa izan*...-:

- (369) a. *Neuk ere naiago dot guzurra izan dedin* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 109).
- b. *Desiratuiz gaixtoari hel dakion gaizkia* (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 247).
- c. *Alde guziz desira baitut lainko launaren borondatea konpli dadin* (J. de Haramburu, *Devocino escuarra*, 412).
- d. *Ongi desiratzeko laitekela Erretorek (...) izan dezaten artha berezi bat* (*Andredena Mariaren ihabetea*, 129).
- e. *Eta au jazo dedin gura dozue zeuroen konzienzietan?* (P. A. Añibarro, *Lora sortia espirituala*, 33).
- f. *Zenbat gura dozu emon dugixudan zeure zamari orren ordañez?* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 178).
- g. *Gurozue jentiez bete daigun aurtan San Norberto zelaie?* (Kirikiño, *Abarrak*, 98).

Eta ezen lokailuarekin:

- h. *Nahi duzu zuk ezen egin behar zenuen deskargua eta egin ezluzuna zure ondokoak egin dezan* (P. Axular, *Guero*, 165).

Normalena hori den arren, ordea, *-eLA* menderagailua ere agertzen da inoiz horrelako perpausetan, gorago esan bezala, batez ere mendebaldean. Ikus, esate baterako, Garatek ematen dituen ahozko lekukotasun hauek, zeinetan azkenak *-eLA* duen:

- (370) a. *Iaguna Zeanira joan daiten* gurot (V-arr) (G. Garate, *Erdarakadak*, 228).
b. *ori fuen dain gure neuke* (V-gip) (ib.).
c. *Iagunak Aramaiora joan daitzezela gure dot* (V-ger-arr-gip) (ib.).

Hegoaldean erabiltzen den *deseo izan* aditzarekin ere menderagailu hori ageri da zenbaitetan:

- (371) a. *Deseo anitz: dut Jaungoikoak eman diezazuela urte anitzetan* (1699) (I. Sarasola, *Contribución*, 5.2.9., 139).
b. *Deseo diyot izan dezala / lenago ainbat kreditu* (Txirrita, *Bizitza ta bat bateko bertsoak*, 171).

Eta berdin *opa izan* aditzarekin:

- (372) (...) *opa diogu zeruan goza dadila* (I. Sarasola, *Euskal Hiztegia, s.v. opa izan*).

Gogoan izan behar da, bestalde, baldintzaren bitartez ere –normalean baldintza hipotetikoaren bitartez– egin daitezkeela goikoen antzeko perpausak:

- (373) a. *Nahiago nuke hori egia balitz*.
b. *Orduan desiratzen luke bertzela pasatu balitu bere denborak* (A. Barateciart, *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltzeco moldea*, 118s).

1.5.4.3. 'Eskaera' edo 'galdea' adierazten dutenak: *-eN / -eLA*

Eskaera eta *galdearen* adierazpenean bana dabilta euskalkiak menderagailuen erabileran. Iparraldean *galdatu* aditza erabiltzen dute batez ere eta *-eN* dute maizenik erabilitako menderagailua. Hegoaldean, berriz, *eskatu* da maizenik erabiltzen den aditza eta *-eLA* dute ohiko menderagailu.

Hona *galdatu* eta *galdegin* aditzen adibide batzuk –bai eta *galdez* predikatuaren bat–:

- (374) a. *Hasperenez galthatzen baitzien Mesia jin ladin* (A. Belapeyre, *Catechima laburra*, II, 15).
- b. *Gizagaizoak galdatu du otoi utz zezaten azken jalgitzera* (J. Hirian-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 162).
- c. *Otoan sar gintezen galdatu zigun* (BN-lab) (G. Garate, *Frdarakadak*, 104).
- d. *galdatu dakot hori egin dezan* (BN-arb) (Ib.).
- e. *Argi galdegini oldar zedin barnera* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Act 16, 29).
- f. *Orok alde orotarik nik zu maitha zaitzadan, Jauna, galdez eta oihuz* (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 55)
- g. (...) *bere laguner eginen du galde: / (...) othoitzean har ditzen, lokhartzeko orde* (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*, 77)

Eskatu aditzak erabilera urriagoa du ekialdeko euskalkietan eta horietan hartzen du, hain zuzen, *-eN* menderagailua:

- (375) a. *Zoriz enzun ninzan / Zoriz nengoen eske* (C. Harizmendi, *Ama Virginaren Officioa*, 125).
- b. *Eskatzen diot guziek mundu guzian ezagun dezaten* (J. Beriayn, *Doctrina Cristiana*, 129v).
- c. *Eskatan naz (...) usur ditzan oren gain bere bendizioiak* (M. Mendigacha, *Cartas*, 139).

Eskaera gauzatzen duten beste aditzekin ere menderagailu hori darama osagarriak:

- (376) (...) *egidazu ethor nadin nigarretan urtzera* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa*, 137).

Hegoaldean, berriz, esan bezala, *-eLA* da *eskatu* eta *erregutu* aditzekin normalean ageri den menderagailua:

- (377) a. *Eske gagoztuz, Jauna, aditu daiozula begi errukitsuaz* (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 106).

- b. Ikusleari eskatuko nax emon dagiala kontua (R. Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vyzcayna*, 15r).
- c. Itxasotar guztiak osasunez etxeratu eizala eskatuten (D. Aguirre, *Kresala*, 16).
- d. Ekar dezala eskatu diot (I. Sarasola, *Euskal Hiztegia*, s.v. *eskatu*).
- e. Barka niezaiola eskatu zidan (Ib.).
- f. Eska diezaigun Jainkoari bere argia bidal diezaigula (Ib.).
- g. Jaunari erreguka alik ondoen atara egjala arazo artatik (Kiriikiño, *Aburruk*, 24).

Baina:

- (378) a. Bazkaltzen *geldi dadin eskatzen zaio* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 46).
- b. Erregutzen det aien arimak / gerta daitezen zeruan (Xenpelar, *Xenpelar her-tolaria*, 376).

Utzi aditzarekin ere *-eN* erabiltzen da:

- (379) a. *Utz nazazu zure bularrean burua pausa dezadan*.
- b. *Utz ezazue nire iloba bakarrik mintza dadin*.
- c. *Utzi bear deustazu neure besoetan estutu zaiduzan* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 64).

Gomendatu aditzarekin aipaturiko euskalki-banaketa gertatzen da ondoko bi testu antzinako hauean, Bilbon idatziak *-eLA* daraman bitartean, zubereraz eginak *-eN* baitu:

- (380) a. *Komendatzen dizut dagizula* salzeco delienzia (1683) (I. Sarasola, *Contribución*, 5-2-9, 130).
- b. *Gomendatzen deriziet (...) ürgatz ditzazien* (*Les prières du prône en basque (dialecte souletine)*, 31).

1.5.4.4. 'Agindua' edo 'debekua' adierazten dutenak: *-eN* / *-eLA*

Iparraldeko euskalkietan *manatu* da norbaiti zerbait egin dezala esateko maizenik erabiltzen den aditza eta, espero zitekeenez, *-eN* da maiz haren osa-

garriak hartu ohi duen menderagailua. Aditz hauekin, ordea, badakite *-eLA* menderagailua ere erabiltzen.

- (381) a. *Manatu zenidan begira nezan / nezala.*
 b. Jainkoak *manatu zuen lant zezan / zezala.*
 c. Jainkoak *manatu zien mundu guztia jendez bete zezaten / zezatela.*
 d. Josuek *manatu zion eguzkiari bara zedin / zedila.*

-eN menderagailua erabiltzen dute *erabaki* eta *gonbidatu* aditzekin:

- (382) a. *Erabakitu du biurtu daien euskarara (...)* kristau ikasbidea (D. Legaz, *Cristauaren Icasbidea*, III).
 b. Berze krianrak ere *ditut gonbidaturen / ohore* eta errespetu *eman diezazuten* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezkoa*, I 40).
 c. *Kumitatzen gitu ioan giten* haren ondoan (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 112).

Eta berdin *debekatu* aditzarekin:

- (383) a. Zeren Jainkoak *debetatü baitzerion* Moiseri *eladin ager* eskiak hutsik haren atziniala (A. Belapeyre, *Catechima laburra*, I 120).
 b. Orduan *debeta zitzan* mehatxurekin nehoi hura *ezlerroten* harzaz (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mc 8, 30).
 c. Aziendarik *sar ez dadin* herri huntako oihan barnetan, *ezkur debekua emana digu* (J. M. Satrustegi, *Euskal Tesu Zaharrak*, 136).

Hegoaldean *agindu* da norbaiti zerbait egin dezala esateko erabiltzen den aditza eta, espero zitekeenez, *-eLA* da perpaus osagarriak hartzen duen menderagailua:

- (384) a. Leenengo mandamentuak *agintzen digu* Jaungoikoa *amatu eta honratu dai-gula* (J. Ochoa de Arin, *Doctrina Christianaren explicacioa*, 4).
 b. *Agindu ere zuan il zitezela* aen artean jaiotzen ziran seme guziak (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ herri-ecarlea*, 21).
 c. *Agindu zien zijoazela* munduko bazter guzietara (Ib., 94).
 d. *Agintzen eta erabakitzen degu*, ezen, orain ta beti gaurtik aurrera inork ere Probinzia onerako biztanle eta ez etxetarrek *ez degiola egotzi* urik saltzeko egiten dan *sagardoari* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 139).

- e. Azkenik agindu eutsan konfesau zedilla (J. A. Uriarte, *Mariaren illa*, 89).
- f. (...) aginduten eutsela ez egiela jan onaren eta txarraren arbolatik (A. Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 28).
- g. Agintzen dio Jangoikoaren Magestadeak Profeta Isaiasi, ezen doaiela predikatzer bere puebloko eta Jakoben etxeko maldaden kontra (...) (*FLV* 1989, 104, Munarriz, XVIII. m.).

Eta are goinafarrerako testu honetan:

- (385) Zeñek aginzen baitu guarda dila emen esaten duen guztia (AN-larr) (*ASJU* 1978-79, 237).

Gorago azaldu dugun bezala, *esan* eta horrelako gobernatzaile orokorrek aginte-perpausak har ditzakete mendean, subjuntibo bilakaturik. Horrelakoek ere *-eLA* menderagailua hartzen dute.

- (386) a. *Esan zion erreza zezala* argatik (E. Goñi, *Lurdes-ko gertaerak*, 78).
- b. Berak *esan eustan niri, lagundu neiola* (Kirikiño, *Abarrak*, I 36).
- c. atostean dagon kantoreari / *datorkidala esaiozu* (J. A. Lakarra et alii, *Euskal Baladak*, 135).
- d. *Erabakitzen da*, [fidatzalleak] *ipini dezala* zaldi, beor, mando edo mando-emea (K. Etxegarai, *RIEV* 1908, 118).

Eta ezen lokailuarekin:

- (387) a. (...) amalaeuan egiña, *esaten ziolarik menazki ezen bere anaia ondraduak idurikatu zitzala* eginpide guzti (...) (J. I. Izrueta, *Guipuzcoaco dantzen condaira*, 464).
- b. (...) Madrillera baño len, *esaten ziolarik ezen ipini zitzala* Gobernuko Sekretari guztiak lengo oñean (...) (Ib., 507).

1.5.4.5. Lokabe itxurako subjuntiboak eta gobernatzailetik nolabait "bereiz" daudenak: *-eLA*

Modu batera edo bestera gobernatzailetik urrunduta eta hartatik nolabait bereiz agertzen diren subjuntiboko osagarriek *-eLA* menderagailua hartzeko joera izaten dute, ohiko *-eN* menderagailuaren ordez. Ikus, konparazio batera,

ondoko adibide pareta, zeinetan bigarrenak daukan osagarria gobermatzailetik "bereiz":

(388) a. Hau ere *egin dadin / desir dut* agian (Mattin, *Ahal dena*, 54).

b. *Bertze desirik ez*tut egiten: / *zeruan gerta dadila!* (Ib., 115).

"Bereiz" izate hori modu askotara gerta daiteke: a) aditz nagusia isilpean izanik, osagarriak lokabe itxura duelako; b) mendeko perpausa aipamen zuzen gisa hartuta-edo ematen delako; c) mendeko perpausa egitura etenean txertatua delako.

a. Hasteko, bada, aditz nagusia agerian ez duten esaldiak ditugu. Horrela, esate baterako, isilpean *desira izan, opa izan* edo horrelako aditzen bat bide dutenak:

(389) a. On degizula!

b. Egun on dizula Jainkoak!

c. Jainkoak begira gaitzala!

Exhortazioa edo debekua adierazten duten esaldietan ere *-eLA* erabiltzen da 2. eta 3. pertsonetan, subjuntiboko formak hautatzen direnean:

(390) a. Ondo bizi zaitezela.

b. Ez zaitezela horrelakoak izan.

c. Onenak irabaz dezala.

d. Ez dezala inork irabaz.

Lehen pertsonako formak dira salbuespen horretan, *-eN* menderagailua hartzen baitute maiz, nahiz eta *-eLA*-rekin ere eman daitezkeen, batez ere ezezka daudenean:

(391) a. Nagoen isilik!

b. Has gaitezen lanean.

c. Ez nadin gehiegiz luza!

d. Ez gaitezen engaina

- e. Ez nadila gehiegi luza!
- f. Ez gaitzela engaina.

b. Urruntze edo “bereizte” bera gertatzen da, bigarren, mendeko perpausa aipamen zuzen gisa-edo ematen denean, ondoko hauetan bezala:

- (392) a. Bertze desirik ez tut egiten: zeruan gerta dadila! (Martin, *Ahal dena*, 115).
- b. Esan daigun bada, ostera bere, santu andijagaz beragaz: *Ez gaizala inok euki estutzat* (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 132).
- c. Ez da esan biar “ala izan dadilla”, ezpada “alan da” (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 161).
- d. Ez nakien konkupiszenzia zer erran nahi zen, legiak ezpalu erran *eztezala desira* iniustoki (J. Tartas, *Oña hilceco bidia*, 28).
- e. Gomendio hau egiñ zaroen bakharrik: *ez zaitzela hasarra* bidean (J. Haraneder, *Philotea*, 232).

Aipamen gisakoak-edo dira ondokoak ere, zeinetan, gorago esan dugun moduan, mendekoaren aditz nagusia isilpean den beharbada (“deitzen digu [esanaz]”):

- (393) a. Andik deitzen digu *goazela* beraren ondoren (S. Mendiburu, *Irakurraldiak I*, 350).
- b. deitzen dio norbaitek etxe batetik *biur didilla* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 202).
- c. Jaungoikoak deitu izan balit / *iyó nerilla* zerura (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 36).

Baina:

- d. Deitu zetsan albuán zan emaztiari *ixotu zeixan* kandelía (T. Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 467).

Mendeko perpausak *otoi*, *arren* edo horrelakoren bat duenean ere horren antzeko zerbait gertatzen da:

- (394) a. Eta gehiago zeren egun baitut galdea, / *arren ezfadukazula* eman gabe gordea (J. Etxeberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa*, II 53).
- b. Deitzea eta gonbidatzea Ispiritu saindua *ethor dadila othoi* gure baithara (G. Lavieuvville, *Catichima*, 235).

c. Azkenik, egitura "etena" dutenetan ere urruntze gisa bat gertatzen da:

(395) Danok deseo bear deguna da bizi dedilla (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 29).

1.6. PERPAUS OSAGARRI IZENLAGUNAK

1.6.1. *Nolakoak diren perpaus osagarri izenlagunak*

Aditz batek edo predikatu-egitura batek gobernatu-eriko perpaus osagarriak aztertu ditugu aurreko kapituluetan. Orain, berriz, izen batek gobernatzen dituenak aipatuko ditugu. Perpaus osagarriak, horrelakoetan, izen gobernatzailearen *izenlagun* dira eta, espero zitekeenez, izenlagunek izan ohi dituzten atzizkietako bat hartzen dute: *-eN* edo *-KO*, azken hau *-eLA* menderagailuari erantsita (*-eLAKO*).

Aditzak gobernatzen dituen osagarriak bezala, hauek ere mota desberdinetan sailka daitezke. Batetik aditza [*- subjuntiboo*] dutenak ditugu. Eta horien artean, dudarik gabe, barnean adierazpena dutenak aipatu behar dira:

(396) a. [*Diruak dena lortzen duelako ustea*] oso zabaldua dago.

b. Badira oraindik [*lurra zapala den ustea*] baztertu ez dutenak.

Zehargalderen kontua, ordea, ez da horren argia. Hiztun batzuek onartzen dituzte *galdera*, *duda*, *zalantza*, *kezka*, *auzia* eta horrelako izenen osagarri diren zehargalderak:

(397) a. [*Kurtsua gaindituko duen zalantzak*] kezkatzen du gure mutila.

b. [*Lagunek onartuko ote nauten kezkak*] urduri nauka.

c. Behin eta berriz egin didate [*non bizi naizen galdera*].

d. [*Nork zer egin behar duen auzia*] berehala konponduko dugu.

Beste batzuek, berriz, nekez onartzen dituzte horrelako perpausak eta horien lekuan beste egitura batzuk erabiltzen dituzte.

Aditza [+ *subjuntiboa*] duten izenlagunak izango genituzke ondoren, *nahi* eta *desira* bezalako izenen osagarri izango liratekeenak, nahiz eta hauen gramatikaltasuna ere zalantzakoa den:

(398) ?[*Orok maita zaitzaten desirak*] galduko zaitu.

Ondoko ataletan, bada, aditza [-*subjuntiboa*] duten adierazpeneko perpaus izenlagunak ikusiko ditugu aurrena (1.6.2): -*eN* menderagailua dutenak lehenbizi (1.6.2.1) eta -*eLAKO* menderagailua dutenak gero (1.6.2.2); eta, atala amaitzeko, egokiak ez diren erabilera batzuk aipatuko ditugu (1.6.2.3). Zehargaldera gisako izenlagunik ba ote den ikusiko dugu ondoko kapituluari (1.6.3). Eta, azkenik, aditza [+ *subjuntiboa*] duten perpaus izenlagunak aipatuko ditugu, gramatikalak ote diren eztabaidatuz (1.6.4).

1.6.2. Perpaus izenlagun adierazpenekoak

1.6.2.1. -eN menderagailua duten perpaus izenlagunak

Uste, susmo, beldur, esperantza eta horrelako izenen mendeko perpaus osagarriek izenlagunetan ohikoa den -*eN* atzizkia izaten dute menderagailu sarritan:

- (399) a. Badira oraindik [*lurra zapala den ustea*] baztertu ez diuenak.
b. [*Euskara Afrikatik datorren hipotesia*] defendatu dute batzuek.
c. Onetarako bazuen [*bere aginduko Tribukoak zerbait laguntza emango zioten ustea*], Salomon'ek egindako bidegabekeria bat gogoan zeukarrelako (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 215s).
d. [Etsiko dun ustea] ba du berak ere (Orixe, *Euskaldunak*, 133).

Erakuslearekin, eta izena isilpean utzita, esapide gisako hauek egiten dira:

- (400) a. *Diru asko irabazten duen horrekin*, harro-harro dabil.
b. *Seme bakarra den horrekin*, nahi duena egiten du.

Gogoan izan behar da, noski, menderagailu bera izan arren perpaus osagarri hauek eta erlatiboek egitura desberdina dutela. Erlatiboetan, izen ardatza-

ren erreferentzia bera duen izena izaten da isilpean: [[zurekin Ø; etorri den] gizona; maisua da] (ikus 2.1.1). Osagarrietan ez dago horrelakorik: izen gobernatzailea perpaus nagusian baizik ez dago. Goiko (399b) adibideko osagarria, esate baterako, *euskara Afrikatik dator(ren)* da eta perpaus horren barnean ez dago lekurik, ezta isilpean ere, *hipotesia* izenarentzat.

Perpaus horiek, bestalde, ondoko atalean aipatuko dugun *-eLAKO* menderagailuarekin ere egin daitezke: *emango ziotelaka ustea, datorrelako hipotesia, seme bakarra delako horrekin...*

1.6.2.2. *-eLAKO* menderagailua dutenak

a. [-eLAKO + izena] egitura agerian dutenak

Perpaus osagarri hauek izen gobernatzailea agerian dutela erabiltzen dira sarri askotan. Izen gobernatzaile horrek balio semantiko desberdinak izan ditzake, hala nola, esate baterako, komunikaziozkoa (*berria, zurrumurrua, hitza, kontua...*), iritzizkoa (*ustea, susmoa, esperantza, aitzakia...*), balizkoa (*hipotesia, iritzia...*), edo arretazkoa (*kezka...*). Perpaus osagarriak, kasu haue-tan, delako berriaren, ustearen, iritziaren edo kezkaren edukia zein den ematen du aditzera. Hona hemen adibide batzuk:

- (401) a. [Printzesa hil delako berria] iritsi zaigu.
 b. [Euskara Afrikatik datorrelako hipotesia] agertu dute batzuek.
 c. [Koldo eta Maite banatu direlako zurrumurrua] zabaldu da.
 d. [Gauzak txukun egingo zenituelako hitza] ez duzu bete.
 e. Zer dakizu [Europa osoan euroa sartu nahi dutelako kontu horretaz]?
 f. Hori [sendatzen ari delako seinalea] da.
 g. Bada galdu zuten [Jesus illak biztu ta gaizki nai zieten guzien eskutik aterako zituelako ustea] (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 283).
 h. [Nahimen hutsez zernahi erdiets dezakegulako ustea] hezur-muinetaraino sartua dugu (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 393).
 i. Neri ere orretzek ematen dit [barkatuko didazulako uste osoa] (*Argi Done Laburra*, 36).

- j. [Jaungoikoak barkatuko didalako uste eta esperanza] nago (G. Arrue, *Mayetececo illa*, 199).
- k. (...) etxeke guztijok zabiltzala [ni osatuko nusalako esperantzeetan] (J. J. Moguel, *Baserritar nequezaleentzako escolia*, 278).
- l. [Gauetz zurekin biltzen naizelako susmoa] aru dute etxean (Y. Etxaide, *Jounak-joan*, 75).
- m. [Ondamena gainera datorkiolako beldur] da bera ere (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 314).

Horrelako perpausen erabidea argia da: “*txarto dabilela*” *dut susmoa* per-pauseko osagarriari -KO atzizkia erantsita *txarto dabilelako* izenlaguna sor-tzen da eta, horrela, izenaren osagarri izan daiteke: *txarto dabilelako sus-moa*.

Bestelako perpaus osagarrietan egin dugun bezala, ondo bereizi behar dira hauetan ere goiko adibideetan ageri diren osagarriak, batetik, eta adjuntuak diren perpaus adberbialak, kasu honetan balio kausala dutenak, bestetik. Ondoko adibide parean ikusten da argi hori: lehena osagarria da, *susmoa* izena gobernatzaile duela, eta bigarrena, herriz, kausala –kausala hauctaz aurrerago arituko gara–:

(402) a. Berandu dabiltzalako susmoa dut.

b. Berandu dabiltzalako egin die errieta.

Ez da nahasi behar, bestalde, orain aztertzen ari garen egitura hau forma bera duen erlatibo subjektibo delakoarekin ere. Osagarria, dakigunez, konple-mentazio-erlazioan dago gobernatzen duen izenarekin eta, horregatik, hau *uste*, *susmo*, *kontu* eta gisa horretakoa izaten da (“zeren” *susmoa*, *ustea*...). Erlatiboak, aldiz, ez du horrelako erlazioa gauzatzen eta, hortaz, bestelako izenak ere izan ditzake ardatz:

(403) Etsairik ez duelako gizona ez da gizon.

Horrelakoetan, erlatiboen kapituluan ikusiko dugun bezala (ik. 2.2.12), *etsairik ez duela dioen gizona* edo horrelako zerbait ulertu behar da.

b. *Izen gobernatzaileria isilpean dutenak*• **-eLAKOA**

Aztertzen ari garen *-eLAKO* perpaus osagarria honi *-a* mugatzailea erantsita sortzen da *-eLAKOA* forma. Beraz, absolutiboaren marka duen izen sintagma genuke hau, *kontua, herria, susmoa...* edo horrelako izenen bat isilarazia edo aurretik emana duena: [(... *-eLAKO*)A].

(404) a. *Orain beste batekin ateratzen hasi delakoa* entzun dut

b. Egia da *Maite eta Koldo banandu egin direlakoa*?

c. *Haserre dagoelakoa* egin du, baina ez egin kasurik, pozik dago.

d. *Norbaitek aideun ekarri zitualakoa* edo esaten ei eben (D. Aguirre, *Gara*, 89).

e. *Arranegi aldean jostunik onena zalakoa* zan entzutea (...) (E. Erkiaga, *Arranegi*, 16).

f. *Zenbaitek egin duen susmoa, alargunaren ondasunek batipat liluratu zuelakoa, ez daiteke ausarkeriarik gabe ahotan har* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 236).

Mugatzailea *-A* ez ezik, erakuslea ere izan daiteke.

g. *Ezin izan duelako hori* ez dio inork sinestu.

h. *Zer da Ameriketara joatekoa zarelako hori*?

Posposizio eta guzti ageri dira horrelakoak, batez ere ahozkoan erabiltzen diren esapide moduko batzuetan:

(405) a. *Diru asko irabazten duelako horrekin, harro-harro dabil.*

b. *Seme bakarra delako horrekin, nahi duena egiten du.*

• **-eLAKOAN**

Aztertzen ari garen *-eLAKO* menderagailuari *-AN* itsatsita sortzen zaigun atzizki konplexua dugu *-eLAKOAN* hau; inesiboaren marka itsatsita sortzen dena, alegia. Pentsatzekoa da, bada, *-eLAKO* izenlagun itxuran agertzen denez eta, hortaz, *-AN* atzizkia izen sintagma bati itsatsita doanez, *-eLAKOAN* ere

inesiboan doan posposizio sintagma bat dela. Dauden daudenean, beraz, adberbialak dira perpaus horiek:

(406) a. *Nahiko diru nuelakoan, denda hartara sartu nintzen.*

b. *Bazkaltzera etorriko zinelakoan, plater bat gehiago jarri genuen.*

Horrelakoetan, ordea, “...-eLAKO ustean” edo “...-eLA uste izanik” parafraziaren bidez gauza bera adieraz daitekeenez, bidezko dirudi, hemen ere, izena isilarazia duen izen sintagma baten aurrean gaudela pentsatzek, izen sintagma horrek inesiboaren marka duelarik: *nahiko diru nuelako ustean, bazkaltzera etorriko zinelako ustean...* Eta, beraz, perpaus adberbialaren barnean -eLAKO izenlaguna dela.

Hona beste adibide batzuk:

(407) a. *Andra Polpolek ereti haretan errime eta jator jokatu ebulakoan nago* (E. Erkiaga, *Txurio txoria*, 88).

b. *bere odol-egarria itzaliko zitziolakoan baitzegoen* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 345).

c. *Trafalgar-en nork bere eginbeharru egingo zuelakoan zegoen* Ingalaterra (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 309).

d. *Eztia nekarrelakoan beztuna ekarri det* (D. Aguirre, *Garoa*, 197).

Ikusten denez, *egon* aditzarekin erabiltzen dira maiz horrelako perpausak:

(408) a. *Koldo ere joango delakoan nago.*

b. *Kanpouan zinelakoan nengoan.*

c. *Errazagoa izango zelakoan geunden.*

Baina ez horrekin bakarrik, bistan denez:

(409) a. *Josuri eman nizkion giltzak, bereak zirelakoan.*

b. *Pellori deitu nion berak jakingo zuelakoan.*

c. *Nire eskaria aintzat hartuko duzulakoan, mila esker eta agur.*

Iparraldeko euskalkietan, berriz, kausa-edo adierazteko erabiltzen da atzizki hau, ondoko adibide honetan ikus daitekeen moduan:

(410) -Haurra, zergatik ez zara bazkaltzera etorri?

-*Bidean izeba atzeman dudalakoan eta gonbidatu bainau.*

c. BAIEZKO eta EZEZKO, perpaus izenlagunen ordain

Gorago esan dugu *-eLA* perpaus osagarrien ordain izan daitezkeela *baiez* edo *ezetz* formak (ik. 1.3.2.8). Horiei *-KO* atzizkia erantsiz *baiezko* eta *ezezko* izenlagunak sortzen dira, *-eLAKO* izenlagunen "ordain":

(411) [*Baiezko* jarrera] erakutsi zuen.

(412) [*Ezezko* ustea] agertu zuen.

1.6.2.3. Erabide okerreko erabilera batzuk

Adierazpeneko perpaus izenlagun hauei buruzko azterketa bukatzeko, gogoan izan behar da baztertzeakoak direla literatur tradizioan oinarririk ez duten zenbait erabilera trakets, oraintsu zabaldu eta behar baino gehiagotn entzuten direnak. Perpaus izenlagunari nolako menderagailua dagokion jakin ez, edo horretan ziurtasunik izan ez, eta zeinahi atzizki erabiltzen dute batzuek gaur egun zeregin horretan. Horrela, esandako *-eLAKO* eta *-eN* atzizki zuzenen lekuan, *-eLAREN*, *-eLAZKO*, *-eNAREN* edo are *-eNEKO* okerrak erabiltzen dituzte batzuek perpaus izenlagunon azken buruan.

a. Okerra da, hasteko, inoiz-edo entzuten den [*-eLAREN + izena*] egitura. Egia da ageri dela inoiz forma hori idazle baten edo besteren testuetan, baina urria da, ezohikoa eta ezgramatikala, *-eLA* atzizkia ez baita deklinatzen (ik. 1.3.2.6).

(413) a. **Datorren urtean ezkonduko zarela*ren berria hedatu da.

b. **Hori haserretu dela*ren seinale da.

b. Gauza bera esan daiteke morfemak neurritz kanpo metatzen dituen *-eLAZKO* atzizkiare:

(414) **Haurra jaio zelazko berria* ekarri zigun.

c. Okerra da, halaber, [-eNAREN + izena] egitura osagarria ere, hedabide-etan-eta gero eta maizago entzuten dena. *Partida irabaziko dutenaren esperantza; etorriko denaren hitza* eta horrelakoak ez dira euskara.

(415) a. *Lekuko denek ezetz esan zuten, edonon hil egingo zituztenaren beldur zirelako.

b. *Gauzak hobetzen ari direnaren seinale da hori.

c. *Kontratua sinatuko dutenaren hitza eman diote elkarri.

Besterik da, noski, horren antzeko egitura duen erlatiboaren kontua, hori onartzekoa baita:

(416) a. *Esan duzunaren erdia* gezurra da.

b. Jende arraroa da hori. *Zure ondoan dagoenaren itxura*, behintzat, ez da batere ona.

Horietan, bistan da, izen bat dago isilpean: *esan duzun (X)ren erdia* eta *Zure ondoan dagoen (pertsona)ren itxura*, hurrenez hurren. Osagarrian, ordea, ez dago horrelako izenik eta -eNAREN menderagailua erabiltzea okerra da. Hortaz, *erraz irabaziko dutenaren ustea ez, baina erraz irabaziko dutelako ustea edo erraz irabaziko duten ustea dira zuzenak; *etorriko direnaren hitza ez, baina etorriko direlako hitza edo etorriko diren hitzo.

d. Horiek bezala, azkenik, -eNEKO atzizkia ere erabili ohi dute batzuek, -eLAKO atzizkiaren baliokide delakoan edo:

(417) a. *Jesus etorri zeneko berria zabaldu zen.

b. *Erraz irabaziko zuteneko ustea zabaldu zen.

Ez dirudi perpaus horiek egoki eratuak daudenik, -eLAKO baita, esan bezala, horrelakoetan erabiltzen den menderagailua, ez -eNEKO. *Etorri zelako berria* da forma zuzena, ez **etorri zeneko berria*. Hurrango kapituluan ikusiko dugun bezala, -eNEKO menderagailua, erabiltzekotan, denbora edo lekua adierazten duten erlatiboetan erabiltzen da: *hura iritsi zeneko eguna; hura bizi zeneko etxea...* (ik. 2.2.7.4).

1.6.3. *Zehargalderak, izenaren osagarri?*

Izenak gobernatzen dituen perpaus osagarriez ari garenez gero, galdera honi ere erantzuten saiatu beharko genuke: zehargalderak, aukera galderak nahiz zatizkoak, izan al daitezke izen baten osagarri?

Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, adierazpen-perpausak izan daitezke izeu baten osagarri; hau da, perpaus izenlagunak izan daitezke:

(418) [*Gurasoek eixea saldu nahi dutelako kontua*] entzun dugu.

Horrelakoak, ordea, zehargalderekin nekez gertatzen dira. Esan nahi da (419a) zilegi den bezala, zehargaldera *galdetu* aditzaren osagarri gisa, gobernatzailea izena duen (419b) perpausa arazotsuagoa gertatzen dela euskaldun askorentzat:

(419) a. [*Autoa zenbat ordaindu genuen*] galdetu digu.

b. [*Autoa zenbat ordaindu genuen galdera*] ez zitzaidan oso egokia iruditu.

(419b) bezalako badaezpadako egitura hauen ordez, nahiago izaten dugu bestelako zenbait itzulingurutara jotzea, zehargalderak aditzaren esparrutik atera gabe. Adibidez:

(420) a. Autoa zenbat ordaindu genuen galdetzea ez zitzaidan oso egokia iruditu.

b. Autoa zenbat ordaindu genuen galdetu zigun eta galdera hori ez zitzaidan oso egokia iruditu.

(420a)n zehargaldera *galdetzea* adizkiaren mende doa. Eta (420b)n, berriz, *galdetu zigun* adizkiaren mende. Horrelakoetan ez dago arazorik.

Nolanahi ere, badira euskaldunak zehargalderak izenaren osagarritzat emateko arazorik ez dutenak. Hauentzat honako hauen tankerakoak guztiz zuzenak eta arruntak izango lirateke:

(421) a. Madrilen zenbat aldiz izan naizen galdera chun bider egin didate.

b. Noiz hilko naizen beldurra askotan sentitu dut.

c. Etorriko den dudak higitu du gizagajoa.

- d. Nola aberastu den surmurra erabat zabaldu da.
- e. Zer esango digun kezka hartu nau.
- f. Nola biziko den ikara sartu zaio gorputzean.
- g. Norik nor hil duen auzia gure artean konponduko dugu.

Nolanahi ere, esamolde hauen tankerakoak ez dira euskaldun gehienon gogobetekoak, han-hemenka entzun eta irakur badaitezke ere. Literaturan ere nekez aurkituko ditugu horrelakoak, oraintsuko autoreetara jotzen ez badugu. Eta ez bakarrik hori, testuetan aurki daitezkeenak oso esamolde jakinetan ageri dira: ez zuzenean izen baten osagarri gisa, baizik izen horrek aditz batekin osatzen duen nolabaiteko predikatu baten osagarri gisa. Hots: *zalantzan jarri, kezka eman, kezka bete, susmoa izan, zalantzan ibili, zalantzaz egon*, eta horrelako predikatu-egituren osagarri gisa (ik. 1.1.2.2). Ikus, bestela, honako adibide hauek:

- (422) a. ... eta errikoak (...) ikusi zutenean, *jarri ziran*. Sanson'ez zer esan etzietela, eta jainkoa gizon antzean, edo gizon utsa ote zan *zalantzan* (F. J. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condairu*, 144).
- b. Era onetako jardunean egon ziran artantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer gertatu ote zan *kezkaz beterik* (D. Aguirre, *Kresala*, 23).
- c. Noiz zuen mingain oiek askatuko ote diran *zalantzaz nago* (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 122).
- d. ... bigarren mailako jantokira aldatzen utziko ote zioten *galdera egin zuenean*, zerbait ordain eta utzi zioten (J. A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 21).

Dena dela, ohartu behar dugu horrelako gehienak *bai / ez* erakoak direla; gehienetan *ote* partikula ageri dela; sarritan halako eten bat gertatzen dela zehargalderaren eta ustezko ardatz den izenaren artean. Gobernatzailea ez baita izena bera bere soilean, predikatu-egitura osoa baizik. Egiazki zehargalderok *zalantza, galdera, kezka* eta antzeko izenen osagarri zuzenak ez direla ikusteko, aski da saiatzea izen horiek zenbait kasu markaz hornitzen eta per-pausean legokieteen osagai gisa lan egiten uztea. Adibidez:

- (422') d. ?? bigarren mailako jantokira aldatzen utziko ote zioten *galderak* zerbaitetarako balio izan zuen.

Horregatik, goiko (421)ko badaezpadako perpaus horien ordez, beste hauek, nolabait "erdibituak", askozaz onargarriagoak egiten zaizkigu:

(421') a. Galdera egin didate Madrilen zenbat aldiz izan naizen.

b. Beldurra sentitu dut noiz hilko naizen.

c. Dudak dirut etorriko ote den.

d. Surrurra zabaldu da nola aberastu (ote) den.

e. Kezka handia dut zer esango digun.

f. Ikara sartu zaio gorputzean nola biziko den.

(421) eta (421') alderatuz gero, berehala ohartuko gara ezin izan dugula (421) bakoitzarentzat ordain egokia bilatu. Bestalde, (421')ko gehienetan ustez gobernatzailea den izena beti absolutiboan ematen saiatu gara. Beste kasu batzuetan emanez gero, zailtasunak sortzen dira. Hori da, hain zuzen, izen horrek eta aditzak predikatu konplexu bat osatzen dutela pentsarazten diguna: *susmoa izan, ikara sartu, kezka izan, surmurra zabaldu*, etab. erraz dira predikatutzat hartzen. Eta horrelakoak, bistan da, gobernatzailea aditza duten osagarrien kapituluari aztertu ditugu (1.4). Delako izen hori absolutiboan ez beste kasuren batean ematen saiatuz gero, arazoak gertatzen zaizkigu.

1.6.4. *Subjuntiboko perpaus izenlagunak*

Perpaus osagarrien eskema orokorrari begiratuta (ikus 1.1.3), azken galdera bat egin beharrea gara, izenaren konplementazioaren kontu hau erabat ikusteko: *ea nahi, galde, eske, beldur* eta horrelako izenek ere subjuntiboko osagarriak izan ote dezaketen, aditzek bezala. Hau da, *ea bazkaria presta dezan eskea, ikus gaitzaten nahia* eta horrelakoak gramatikalki diren. Eta are *bazkaria presta dezalako eskea* bezalakorik erabiltzen ote den.

Galdera horri erantzutzeko gogoan izan behar da hemeu ere perpaus osagarriaren gobernatzailea zenbaitetan predikatu-egitura oso bat izaten dela eta ez hartan ageri den izena bere soilean. *Baimena eman, nahia agertu, esperantzan egon, beldur izan, beldurrak egon* eta horrelakoez ari gara. Horrelakoetan predikatu osoa da gobernatzailea eta ez *baimen, nahi, esperantza* edo *beldur* izenak bere aldetik (ik. 1.1.2.2, 1.3.2.2 eta 1.6.3). Hona adibide batzuk:

- (423) a. *Agindua eman digute* geure autoan eraman zaitzagun.
b. Mantsoago ibil gaitezen *egin digute eskaria*.
c. Gaixoak sendo dituen *esperantzan gaude* (M. Etchamendy, *Etchamendy ber-
tsularia*, 216).
d. Bakandereak txarrik egin dagixun *bildur ete-zara*, ba (Otxolua, *Bertolda eta
Bertoldin*, 32).

Horren antzeko zerbait gertatzen da ondoko perpaus hauetan ere:

- (424) a. Azienda erosterakoan badagoko ongi begiztatzea heia ortzik gabe denetz, ahul
dadien *beldurrez* (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 94).
b. Zai apur bat galdu ez dedin *bildurrez*, ta urun ederra galduaren ardurarik ez
(J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 20).
c. (...) *beldurrez* nihork erakhar zezan populu guztiaren zorigaitza (B. Larreguy,
Testament çaharr. berz. historia I, 190)
d. Jaiki-erori zebilela ekusirik, bidean il zekien *beldurrak*, eman zioten lagun
bat (S. Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 16).
e. (...) barruan erabillen bere [kurutze]a Mañasik, iñok ikusi ezeion *bildur* (D.
Aguirre, *Kresala*, 76).

Beldurrez, beldurrak eta beldur horiek ere predikatuak dira, *beldur izanik, beldur zelarik* edo horrelakoen pare, eta ez dute osagarria izenlagun gisa hartzen.

Zenbaitetan, egia da, zalantza sor daiteke izenak berak zuzenean ote daraman osagarria ala hura predikatu-egitura baten zati den. Ikus, esate baterako, ondoko adibide hau:

- (425) Horrakotz igorri dautzut jin zaiten galdea (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 116).

Perpaus hori bitara uler eta analiza daiteke:

- a. *Galdea igorri dizut* [jin zaiten]
b. *Igorri dizut* [(jin zaiten) *galdea*]

Lehenbizikoan, “galdea igorri” da predikatu konplexua –hots “eskea bidali”– eta “jin zaiten” haren osagarria. Bigartenean, berriz, “igorri” da predikatua eta “galdea” haren objektua, zeinaren izenlaguna izango litzatekeen “jin zaiten” osagarria. Oro har, lehen irakurketa da, beharbada, bidezkoena (ikus 1.1.2.2 eta 1.3.2.2), bigarrenak askatasun handiagoa eskatuko hailuke izenarentzat. Izan ere, horrela balitz, egitura horretatik kanpo ere berarekin eraman beharko luke izenak osagarria. Gramatikalak ote dira, esate baterako, ondoko perpaus hauek:

- (426) a. ?*Jin zaiten galdeak* harritu nau.
 b. ?*Ez diozu kasurik egin behar jin zaiten galdeari.*

Doi bat bitxi egiten zaizkigu horrelakoak, ohikoago baita –*TZEKO* atzizkiaren bidez ematea: *jiteko galdeu* esatea, alegia.

Beste zenbait perpausetan ere zalantza bera sortzen da. Ondoko hauetan, esate baterako:

- (427) a. (‘zerbait egin’...) Jainkoa glorifika dadin *desirekin* (...) (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, *Ins E 4r*).
 b. hark Linboelarik altxa zetzan *ustean* (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioezcoa I*, 128).

Bitara analiza daitezke horiek ere: *desirekin* eta *ustean* predikatu gisa uler daitezke, batetik, *desiraturaz* eta *uste izanik* bezalako enpare, edo izen gisa, bestetik, hau da, barnean *glorifika dadin desira* eta *altxa zetzan ustea* izen sintagmak daudela ulertuz.


Edozein modutan, zalantzak zalantza eta bitasunak bitasun, ez dirudi erabat ezinak eta baztertzekoak direnik izenlagun subjuntiboak, doi bat bitxiak eta ezohikoak diren arren. Ikus, esate baterako, gorago aipatutako perpaus hau, zein ez baita erraz –*TZEKO* atzizkiaren bitartez ematen:

- (428) *Orok maita zaitzaten desirak* galduko zaitu.

Ondoko adibide hauetan, azkenik, izenlagunek eraman ohi duten –*KO* atzizkia eta guzti ematen da subjuntiboko osagarria:

- (429) a. *Haren diszipuluak obitik gorputza ostu, ta eraman zezaelako bildurrez, ifini zituen obia zaitzeko guardak* (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 94).
- b. *Eskritura Santak dio (...) aek utsegiteren bat Jaungoikoaren kontra egin zeza-telako bildurrez, aekgatik Jaungoikoari sakrifizioak ofrezitzen ziozkala* (J. I. Guerrico, *Sayaquera II*, 452).

• *Perpaus osagarria:*



. Gobernatzailerako bakoitzak osagarri mota jakinak izaten ditu: adierazpena, galdera...

- *Menderagailuak:* a) *-eN, -eIA* (eta *BAIT-, BA-*), aditzaren osagarrietan;
- b) *-eN, -eLAKO*, izenaren osagarrietan.

• Hiru elementu horietako aukerak konbinatuz sortzen dira perpaus osagarrien mota desberdinak (ikus 28. orrialdeko koadroa).

2. Perpaus osagarri jokatuaren ezaugarri orokor batzuk

- *Zehar-estiloan* erabiltzen dira, egokitze deiktikoa eginik:

(5) "Ni joango naiz" → *Bera joango dela* esan du Koldok

- *Denbora-komunizadura* betetzen du perpaus osagarriaren aditzak aditz nagusiarekin:

(6) [Etorriko zela] esan zuen.

- *Funtzioa:* konplementazioa gauzatzea.

Perpaus osoaren egitura absolutiboaren guneak betetzen ditu maiz osagarriak: objektuarena (*[etorriko dela] esan du*) edo subjektuarena (*zalantzan da*)

[*nork irabaziko duen*]). Zertaz edo zeren galderei ere erantzun diezaieke: (*ohartu naiz [asko dakizula]; beldur naiz [ez duela ezer egingo]*).

• *Ordena.*

. Aditz nagusiaren ezkerrean zein eskuinean koka daiteke perpaus osagarria:

(7) [Joango dela] esan du --- Esan du [joango dela]

. Zenbait egituratan nahitaezko kokapena du, eskuinean edo ezkerrean:

(8) a. Horixe [joango naizela] --- *[Joango naizela] horixe!

b. [Nor naizela] uste duzu? --- *Uste duzu [nor naizela]?

. Zenbait aditzekin *-uste izan, iruditu...*— mendekoaren galdegaia aditz nagusiaren aurrera igo daiteke:

(9) [Nor] uste duzu [etorriko dela]?

Orokorrago, mintzagaia:

(10) [Horiek] badakit [non bizi diren].

• *Barneko ordena.*

. Perpaus osagarriaren elementu bat edo beste joan daiteke haren aditzaren eskuinean, batez ere aditz nagusia aurretik denean:

(11) Entzun dut [tren hau Orion gelditzen dela *igandeetan*].

. Ezezkoetan ohikoagoa da eskuineratze hori, egitura konplexuetan izan ezik:

(12) a. Entzun dut [tren hau ez dela gelditzen *Orion*].

b. *[Tren hau ez dela gelditzen *Orion*] uste duena oker da.

3. Adierazpen-perpaus osagarriak

3.1. -eLA menderagailua dutenak

• *Gobernatzaile* motak:

a) *Uste izan* edo *esan* bezalakoek ‘proposizioak’ gobernatzen dituzte:

(13) [Berandu dela] esan du.

b) *Erabaki* edo *damurik* bezalakoek gertakaria dute objektu:

(14) Erabaki du [bera joango dela].

• *-eLA menderagailua*.

. –*KO* atzizkia hartzen du, *-eLAKO* izenlagunak eratuz: *ezkondu delako berria*.

. Baina ez da deklinatzen: **ezkondu delak*; **ezkondu delari*; **ezkondu delaren*...

• *Perpaus osagarria*.

. *Baietz* eta *ezetz*, perpaus osagarrien ordain gisa erabil daitezke zenbaitetan.

. *Ezen* lokailua erabiltzen da inoiz osagarriaren aurrean, aditz nagusia aurretik dela:

(15) Esan du [ze berak egingo duela lan hori].

. Aurrekari bat izan dezake perpaus nagusian, absolutiboan edo beste kasuetan:

(16) a. *Zera* esan du, [badatorrela].

b. *Horrek* harritu nau, [ez duela ezer esan].

3.2. -eNA menderagailua dutenak

Batez ere bizkaieraz erabiltzen dira horrelako osagarriak zenbait predikaturekin: *aditu*, *aitortu*, *ezagutu*, *jakin*...; *egia izan*, *ezaguna izan*, *horixe*...; *eskerrak*, *lastima*, *seinale*...

(17) a. Ikusi dut ezbehar bat izan duzuna.

b. Ziur egon horrela gertatu dena.

c. Lastima gaztetxo haizena!

3.3. *-eNIK menderagailua dutenak*

Hegoaldean erabiltzen da menderagailu hau zenbait predikaturen osagarrietan, ezezka edo galdera erretoriko moduan emanak direnean.

. *Uste izan, iritzi, iruditu* eta horrelakoen osagarrietan:

(18) Ez dut uste berandu denik.

. *Esan, entzun, ikusi, jakin* eta horrelakoekin *-eLA* nahiz *-eNIK* gisakoak erabiltzen dira. Aldea ezetzaren esparruan eta presuposizioei uzten zaien lekuan egon daiteke.

(19) Ez du esan egin duela --- Ez du esan egin duenik.

. *Ahaztu, duda egin, egia izan* eta horrelakoek *-eLA* gisako osagarria izaten dute:

(20) Ezin duda egin daiteke horrela dela.

3.4. *-eN menderagailua dutenak*

. Ekialdeko euskalkietan erabiltzen da menderagailu hori *uste izan, beldur izan* eta *badaiteke* bezalako predikatuekin:

(21) Badaiteke **Mikel** ez den zuk diozun bezain gaiztoa.

. 'Lokailu eginiko galde hitza + *-eN*' egitura euskalki guztietan erabiltzen da. Aditza lokailutik urrunera eramateko aukera eta galdegai guneko *BA*-hartzekoa ditu ezaugarri:

(22) a. Ikusiko duzu *nola* Mikel goizeko ordu batean *etortzen den*.

b. Begira *non* badugun autoa erosteko adina diru.

3.5. BAIT- menderagailua dutenak

Iparraldean erabiltzen da menderagailu hau:

. Gertakari edo egoera bat adierazten duten *gertatu* eta *heldu*, bezalako predikatuekin:

(23) Nondik heldu da [hain gutxi baitira salbatu direnak]?

. Gertakari edo egoera baten aurrean jarrera subjektiboa adierazten duten *domaia izan*, *harrigarri izan*, *handia izan*, *bitxi izan* bezalakoekin:

(24) Harrigarria da ez baitu ezer ikusi.

. Damua, poza edo haserrea adierazten duten *damurik* edo *beharrik* bezalako predikatuekin edo harridurazko esapideetan:

(25) a. Beharrik [ez baita oraino joan].

b. Itsuaren itsua, [uste baitu dena badakiela].

. Baina ez proposizioak gobernatzen dituzten *esan* edo *uste izan* gisakoe-kin:

(26) *Esan du Mikel etorriko baita.

4. Zehargalderak

4.1. Ezaugarri orokorrak

• Zehargaldera motak:

a. Elementu ezezagun batez ari dira denak, baina ez modu berean:

. *Galdegin* bezalako predikatuek 'informazioa eskatzea' dute helburu:

(27) Non bizi zaren galdetu dute.

. *Jakin* bezalakoek eta harridura perpausek, berriz, ez:

(28) Badakit non bizi zaren --- Zein ederki bizi zaren!

b. Galdera zuzenak bezala, zehargalderak ere orokorrak –hau da, aukerakoak, *bai / ez* gisakoak barne– eta zatizkoak izan daitezke.

• Gobernatzailerak:

. *Galdegin* bezalako predikatuek zehargalderak gobernatzen dituzte.

. *Esan, jakin, ikusi* bezalakoek bai zehargalderak bai adierezpeneko osagarriak.

. *Uste izan, sinetsi* bezalakoek ez dute zehargalderarik onartzen

Osagarri mota biak onartzen dituzten predikatuek haien juntadura ere onartzen dute:

(29) Esan digu [berandu etorri dela eta norekin ibili den].

• Zehargalderak ez dira deklinatzen, ez mugagabeen ez mugatuen:

(30) a. *Diru asko ote duteni begiratu gabe onartu ditugu.

b. *Nork esan zuenari ez zion kasurik egin.

4.2. *Zehargaldera orokorrak*

• Menderagailua *-eN*, *-eNETZ* da *-bizkaieraz*, zenbait tokitan, *BA-* erabiltzen da-:

(31) a. Ez dakit etorriko den / denetz.

b. Ez dakit etorriko bada.

• *Ea* partikula erabil daiteke zehargalderari sarrera emateko edo hura indartzeko. Aukerakoa da, baina aditza isilpean denean, haren beharra handiagoa da:

(32) a. Galdegiozu (ea) etorriko den.

b. Ea isiltzen zareten!

Predikatuak informazioa eskatu edo nolabait aurrera begiratzen duena izan behar du:

(33) a. Galdegin dit ea dirua behar dugun.

b. *Ahaztu zaic ea etxea itxi duten.

• *Ote* partikula maiz ageri da, batez ere *beldur izan* eta *duda izan* bezalako predikatuekin, baina ez da inoiz beharrezko eta ez du esanahia aldatzen:

(34) Ez dakit etorriko (ote) den.

Ea-rekin batera ere erabil daiteke:

(35) Galdetu dit (ea) etorriko (ote) naizen.

• *Al* ez da ohikoa zehargalderetan. Hiztun batzuek onartzen dute zenbaite-tan:

(36) Ez al garen isilduko ari dira galdetzen.

• Galdegaiguneko *BA*- ipin daiteke zehargalderetan aditz sintetikoeran aurrean, baina ez da beharrezkoa:

(37) Ez dakit (ba)datarren.

• *Ala*-k aukera galderetan du lekua, baina *edo* ere erabiltzen da, Hegoaldean batez ere:

(38) a. Galdegin du etorriko den ala ez.

b. Galdegin du etorriko den edo ez.

Perpaus osoak juntatzen direnean aditz biek daramate *-eN* menderagailua:

(39) Ez dakigu etorriko den ala etxean geratuko den.

4.3. Zehargaldera zatizkoak

- Menderagailua, *-eN* da beti:

(40) Ez dakigu non bizi den / *denetz / *bada.

- *Al* partikulak ez du hemen lekurik:

(41) *Ez dakigu non bizi al den.

- *Ea eta ote* erabil daitezke, baina ez dira beharrezkoak:

(42) Galdetu zioten (ea) noiz etorriko (ote) zen.

- Honako hauek aditz nagusirik gabe egiten dira:

. *Ea* buruan dutenak:

(43) Ea nori sinesten diozun.

. Gauzak zeren arabera diren esaten dutenak:

(44) -Etorriko al zara?

-Zertarako den!

. Harridura perpausak:

(45) Zenbat dakien horrek!

- Azalean itxura berekoak izan arren, desberdinak dira ondoko hauek:

(46) a. Ez daukat non lo egin	▶	ertatiboa
b. Ez dakit non lo egin	▶	zehargaldera

[*Ez daukat zer egin* gisakoak bitara uler daitezke: 'Ez daukat egitekorik' - 'Ez daukat egin beharrik'].

- Galde hitza adierazpeneko perpausetan erabiltzen da batzuetan, perpaus osoa galderazkoa eginik:

- (47) a. [Nor naizela] uste duzue?
b. [Nor] uste duzu [naizela]?

5. Subjuntiboko perpaus osagarriak

5.1. Ezaugarriak

• *Nahia, eskaria, agindua* eta horrelakoak adierazten dituzten predikatuek eskatzen dute subjuntiboko osagarria:

- (48) Ondo bizi gaitezen nahi dute.

Agintera ere subjuntibo bilakatzen da, mendeko egiten denean:

- (49) Poliki ibil gaitezela esan digute.

• Aditz nagusiak eta subjuntibokoak subjektu bana dute:

- (50) a. Ondo bizi zaitezen nahi dut.
b. *Ondo bizi nadin nahi dut.

• *On degizula!* bezalako esaldietan izan ezik, gaur egun aditz perifrastikoa erabiltzen da gehienik subjuntiboko osagarrietan:

- (51) a. Bere alboan egon gaitzela agindu digu.
b. ?Bere alboan gaudela agindu digu.

• Subjuntibo perpausen pareko izaten dira maiz jokatugabeak:

- (52) Sartzeko agindu ziguten = Sar gintezen agindu ziguten.

• Adierazpeneko perpausak bezala:

. Galde hitza aurrera dezakete:

- (53) [Nor] nahi duzue [etor dadin]?

. *Ezen* lokailua izan dezakete lehen buruan:

(54) Nahi dute [*ezen* denak joan gaitezen].

. Perpaus nagusian aurrekari bat izan dezakete:

(55) *Hauxe* eskatzen dizut, [gauzak ondo egin ditzazula].

5.2. *Menderagailua*

. *-eN* da menderagailu nagusi eta orokorki erabiltzen dena.

. *-eLA* erabiltzen da Hegoaldean *eskaera* eta *agindua* adierazten dutenetan; *agindua* adierazten dutenetan baita Iparraldean ere zenbaitetan.

. *-eLA*, halaber, mendeko perpausa perpaus nagusitik 'bereiz' denean edo lokabe itxura duenean:

(56) a. Horixe nahi dugu, ondo senda dadila.

b. Aitak deitu zigun, joan gintezela lehenbailehen.

c. On degizula!

6. Perpaus izenlagunak

6.1. *Adierazpeneko izenlagunak*

a. *-eN menderagailua dutenak*

• Izen gobernatzailea *-uste, susmo, esperantza, seinale...*– agerian daramate:

(57) a. Etsiko duten ustea badugu.

b. Haserretu diren seinale da hori.

b. -eLAKO menderagailua dutenak

• *Susmo, berri, uste, kontu* eta horrelako izenek onartzen dute osagarri mota hau:

(58) [Osaba hil zelako *berria*] iritsi zitzaigun.

[Oharra: bestelakoa da gainerako izenekin ere era daitekeen erlatibo subjektiboa:

(59) Etsairik ez duelako gizona ez da gizon].

• Izena isilpean duelarik *-eLAKOA* forman ageri da *-edo* ondoan erakuslea duela-:

(60) a. [Osaba hil delakoa] ez da egia.

b. [Osaba hil delako *hori*] ez da egia.

• *-eLAKOAN* atzizkia erabiltzen da, *-eLAKO* izen sintagmari posposizioa erantsiz. Posposizio sintagma horrek 'ustetan'-edo adierazten du, Iparraldean kausa balioa ere baduelarik:

(61) Etxeratzea erabaki genuen, berandu zelakoan

c. Erabilera okerrak

. *-eLAREN* + izena:

(62) *Galdu dutelaren seinale da hori.

. *-eLAZKO* + izena:

(63) *Irabazi dutelazko kontu hori gezurra da.

. *-eNAREN* + izena (ez erlatiboa):

(64) *Etorriko zenaren hitza ez zuen bete.

. *-eNEKO* + izena (ez erlatiboa):

(65) *Etorriko zeneko hitza ez zuen bete.

6.2. *Zehargalderak, izenlagun?*

. Hitzun batzuek onartzen dituzte *galdera, kezka, duda* edo *auzi* bezalako izenen osagarri diren zehargalderak, baina gehienek ez:

(66) ?Berehala argituko dugu [etorriko ote den *duda*].

. Aditzen pareko diren predikatu-egiturekin ez da arazorik, baina orduan gobernatzailea ez da izena, egitura osoa baizik. Eta osagarria, noski, ez da izenlaguna:

(67) *Duda egiten du* [etorriko ote den].

6.3. *Subjuntiboko izenlagunak*

. *Nahi, eske, beldur* eta horrelako izenen osagarri subjuntiboak ere zalan-tzakoak dira; baina ez, beharbada, ezinak:

(68) [Orok maite zaitzaten desirak] galduko zaitu.

Errazago onartzen dira horrelakoak, ustezko izen gobernatzailea predikatu-egitura baten zati izan daitekeenean:

(69) Hortakotz igorri dizut [joan zaitezene *galdea*].

. Izan ere, predikatu-egiturekin ez da arazorik hemen ere; baina orduan, jakina, osagarria ez da izenlaguna:

(70) a. Hortakotz *galdea igorri dizut* [joan zaitezene].

b. *Agindua eman digute* [joan gaitezen].

2. PERPAUS ERLATIBOAK

2.1. SARRERA

2.1.1. Zer diren perpaus erlatiboak

Perpaus erlatiboak funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira, izenlagunen moduan agertzen ohi direnak. Haien ezaugarria da barnean badutela izen sintagma bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen izen sintagmaren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena.

Adibidez, har dezagun (1) perpausa:

(1) [[Goiz honetan hitz egin dizun] gizonari] eman diot liburua.

Perpaus horretan izen sintagma datiboan, *goiz honetan hitz egin dizun* perpaus menderatua agertzen da, *gizon* izen ardatzaren lagun, honen ezkerrean:

[[[Goiz honetan hitz egin dizun] *gizon*]ari] eman diot liburua.

Ikus daitekeen bezala, perpaus menderatua, izenlagunen tokian eta haien zeregina duela agertzen da. Modu horretan azaltzea, haatik, ez da aski perpaus erlatiboa izateko, ezen badira izenlagunak diren, baina erlatiboak ez diren, perpausak (perpaus izen osagarriak; ik. 1.6). (1)eko perpausekoa (*Goiz honetan hitz egin dizun*) halakoa da, zeren, agerian ez den arren, baita haren barnean izen sintagma bat, erreferentziakide dena datiboan den izen sintagmarekin (*gizon* izanki honen ardatza). Izan ere, (1) ikusirik edo entzunik, denek ulertzen dugu *liburua eman diodan gizona, goiz honetan hitz egin dizun gizon hura bera* dela, perpaus hura ondoko bi perpaus hauetaz osatua balitz bezala:

A. Goiz honetan gizon batek hitz egin dizu.

B. Gizon hari eman diot liburua.

A eta B perpausetan gizon bera aipatua da, noski; beste hitzetan esanda, haietan diren bi izenek erreferentzia bera dute.

(1)eko perpausera itzultzen bagara, berriz, ikus dezakegu B perpausaren agertzen den *gizon* izenaren mendecko egin dela A perpausa, eta denbora berean hartan isildurik gelditu dela *gizon* izen ardatza zeukan sintagma.

Horregatik (1) perpausaren egitura honela itxura dezakegu:

(2) [[Goiz honetan \emptyset_i hitz egin dizun] gizona]_iri eman diot liburua.

(2)an ematen den egituran, ikusten dugu datiboaren marka duen izen sintagmaren erreferentzia eta perpaus erlatiboan isildua den izen sintagmarena (\emptyset) bera dela, *i* indizeak markatzen duena, hain zuzen.

Kontuan har bedi, perpaus erlatiboan azaltzen ez den izena ezin ager daitekeela, hots, nahitaez isildua izan behar duela. Beha nolako perpaus molde-gaitza ager lekgikeen perpaus erlatiboan isildu behar den izena isilean atxiki ez bageneza:

(3) *Goiz honetan gizonak hitz egin dizun gizonari emanen diot liburua.

2.1.2. Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak

Perpaus erlatibo jokatuak (1)eko perpausaren irudikoak dira gutiz gehiengotan euskaraz, eta horregatik *perpaus erlatibo arruntak* dircla erranen dugu. Badira, bestalde, beste perpaus erlatibo batzuk, besteetarik franko desberdinak direnak, posposatuak baitira beti. Halakoak dira, adibidez, (4)ko perpaus erlatiboak:

(4) a. Egun batzuk iragan ditugu. [zeinetaz luzaz oroituko baikara].

b. Egun batzuk iragan ditugu. [luzaz haietaz oroituko baikara].

(4a) bezalako perpausak, gure lanean *ZEIN*-erlatiboak deituko ditugunck, tradizio luzc-luzca duten arren euskal literaturan, ez dira bainbeste erabiliak

egun euskara mintzatuan, eguneroko errejistroan behintzat. Areago dena, XX. mendearen lehen parteko euskal gramatikari gehienek txartzat jo dituzte *ZEIN*-erlatibo hauek, ondoko erdarek baliatzen duten eredu bati jarraituz zaizkiolakoan. Urrunago ariko gara perpaus horietaz (§2.3), bai eta Iparraldeko autore modernoek bereziki baliatu izan dituzten, eta gure lan honetan *BAIT*-erlatiboak deituko ditugun (4b) bezalakoez ere (§2.4).

Perpaus erlatibo korrelatuez (§2.5) eta aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten beste batzuez (§2.6) ariko gara ondotik, haiek ere tradizio, luzeagoa edo laburragoa, baitute gure literaturan. Hona erlatibo horiei dagokien adibide bana:

(4) c. Nor ere ikusiko baituzu han, hari emaitzu.

d. Ekarriko diot nori ere erranen baituzu.

e. Ez dago nor egin dezan horrelakorik.

Honaino aipatu ditugun perpaus erlatiboak jokatuak ziren. Badira halere, haien ondoan, beste batzuk jokatuak ez direnak, hala nola ondoko hauek:

f. *Zuk egindako lana.*

g. Horrek ere emanen dizu *zer pentsa.*

Liburuki honetan aztertzen diren mendeko perpausak jokatuak izanik, ez ditugu jokadurarik gabe agertzen zaizkigun gaineko hauek hemen ikertuko.

Hona, beraz, kapitulu honetan segituko ditugun azterketa urratsak:

- Perpaus erlatibo arruntak (§2.2)
- *ZEIN*-erlatiboak (§2.3)
- *BAIT*-erlatiboak (§2.4)
- Korrelazio erlatiboak (§2.5)
- Aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten erlatiboak (§2.6)

2.2. PERPAUS ERLATIBO ARRUNTAK

Ikusi dugu lehenago zer diren perpaus erlatibo arruntak. Orain, perpaus horien egiturari dagozkion beste zenbait czaugarri ikertuko ditugu, eta denbora berean baliatuko dugun hiztegia ere finkatuko dugu.

2.2.1. *Izen sintagma erlatibatua: perpaus erlatiboan isildua dena*

Beha diezaiogun berriz (2)ko egiturari. Ikusten dugu hartan, perpaus erlatiboa eraikitzean isildu den elementua ez dela izen soil bat, baizik ere izen sintagma bat osoa, dakarren kasu marka ere (ergatiboarena adibidean) harekin batean ezabatua izan delarik.

Modu berean, ondotik ematen dugun (5)eko adibidean, izen sintagma ergatiboa isildurik dago perpaus erlatiboan, eta (6)ko adibidean, berriz, izen sintagma inesiboa:

(5) [Ø jo nauen] *gizona* ezagutzen duzu.

(6) Egun batez [Ø sortu nintzen] *herrira* itzuliko naiz.

(5)ean izen sintagma erlatibatuari dagokion kasua ergatiboa da, *jo nau* perpauseko sintagma absolutua lehen pertsona denaz gero, ez baita beste aukerarik; ondorioz perpaus erlatiboa *gizonak jo nau* balitz bezala ulertzen dugu. Hala-hala, (6) adibidean, izen sintagma erlatibatua inesiboan da, eta perpaus erlatiboa *herrian sortu nintzen* balitz bezala konprenitzen dugu.

Hemendik aitzina, izen ardatzarekin erreferentziakide den perpaus erlatiboko izen sintagma isilduari *izen sintagma erlatibatua* erranen diogu.

Kontuan har isiltze horrengatik zenbaitetan anbiguitateak ager daitezkeela. Adibidez, *zakur tikia jaten ari den katu handia nirea da* esanez, kontesturik gabe ezin jakin daiteke ea jalea den katua, edo, alderantziz, jana. Egia esan perpaus hori erlatiboa ez balitz ere, anbiguo litzateke, ezen *Zakur tikia katu handia jaten ari da* perpausa ere bi modutan uler daiteke, irakurketa aldaraziz. Halere perpaus erlatiboan agerianago geldi daitezke batzue-

tan gisa horretako anbiguitateak, sintagma bat baino gchiago isildua dencan bereziki:

(7) Zer gertatu zaio [Ø Ø ikusi duen] gizonari?

Perpaus erlatiboaren interpretazioa kontestuak haizik ezin argi dezake (7) bezalako kasu batean. Hartan izen sintagma erlatibatuari badagokio isildurik dagoen sintagma ergatiboa, ulertuko dugu ikuslea dela gizona. Aldiz, sintagma absolutiboa badagokio, ulertuko dugu beste norbaitek ikusi duen gizona dela.

2.2.2. *Perpaus erlatiboetako menderagailua*

Perpaus erlatiboak perpaus menderatuak izanik, menderagailua lotu behar zaio haien barneko aditz jokatuari. Menderagailu hori *-eN* da beti hemen aurkezten ditugun perpaus erlatibo arruntetan. Dakigunaz, atzizki hau beste zenbait perpaus menderatutan ere baliatzen da, zehargalderetan adibidez, eta haietan bezala agertzen dira kasu honetan ere menderagailua lotzerakoan gertatzen diren loturazko egokitzapenak (ik. 1.1.2.4).

Perpaus erlatibo arrunten berezitasuna da haietan menderagailuak nahitaez azken tokian agertu behar duela, eta, beraz, adizkera jokatu beti hondarrean behar dutela. So egin adibide honi:

(8) a. [Inoiz ikustera joaten ez naizen] lagunak.

(8a)n perpaus erlatiboa *lagun* izen ardatzaren aurrean da, eta aditz jokatu da hartan azken tokian agertzen dena, *-eN* menderagailua duela. Ez da hor ezezkako perpausetan usaian kausitzen den ordena, zeren guziz ohiz kanpoko baina horretako ordena modu horretako perpaus beregainetan:

b. ??Inoiz ikustera joaten ez naiz.

Ongi gogoan har, perpaus beregainetan bitxia edo ohiz kanpoko den ordena hori, ez soilik ohikoa eta zilegi (beste zenbait perpaus menderatutan gerta daitekeen bezala), baina kasik ezin bestekoa dela perpaus erlatiboetan, laguntzen duten izen ardatza agerikoa denean behintzat (ik. 2.2.5).

2.2.3. *Perpaus erlatiboaren tokia ardatzari buruz*

2.2.3.1. *Perpaus erlatiboa eta ardatzari dagozkion beste izenlagunak*

Ikusi dugu perpaus erlatibo arruntak izenlagunen moduan agertzen diren perpaus menderatuak dircla. Izenlagunak, dakigunaz, ardatzaren ezkerrean ematen ohi dira euskaraz, eta hala agertzen dira komunzki perpaus erlatibo arruntak ere.

(9) [Inork irakurtzen ez dituen] liburuak.

Aurreko adibidean perpaus erlatiboa izen ardatzaren aitzinean da. Horrek, haatik, ez du erran nahi ardatz horrek ez dezakeela beste inguratzailerik izan, izenlagun bat, adibidez, edo zenbatzaile bat, hala nola ondoko adibidean:

(10) [Aspaldi irakurri ez nituen] euskarazko hiru liburu hartu nituen.

Adibide horretan *liburu* da perpaus erlatiboari dagokion izen ardatza. Ikus daiteke perpaus erlatiboa ez dela justu ardatzaren aurrean; alabaina erlatiboaren eta ardatzaren artean, *euskarazko* izenlaguna eta *hiru* zenbatzailea agertzen dira.

Ardatzak ezkerrean mota desberdineko lagun bat baino gehiago duenean, erlatiboa da komunzki ezkerrean urrunenik izaten dena, (10) adibidean bezala. Batzuetan halere genitibo edutezkoan den izenlaguna perpaus erlatiboaren ezkerrean agertzen da, testu zahar zenbaitetan bereziki:

(11) a. Itzuliren naiz [neure [ilkh]i naizen] etxe]ra (J. Leizarraga, Mt 12-44).

Gaur egun ere gertatzen da batzuetan izenlaguna perpaus erlatiboaren ezkerrean agertzen baita, zenbait esapidetan batez ere:

b. [Harako [aipatu nizon] gizon] hura.

2.2.3.2. *Izenondoen tokian, ardatzaren eskuinean, agertzen diren perpaus erlatiboak*

Perpaus erlatiboak, beste izenlagunak bezala, ezkerrean izaten ditu izen

ardatzak, eta horregatik euskaraz erlatiboak ezkerretik txertatzen direla esaten da, eta ez hurbileko erdaretan bezala eskuinetik.

Hargatik, gauza czaguna da batzuetan izenlagunak ardatzaren eskuinean ere ager daitezkeela, baina determinatzailearen aurretik, izenondoan tokian. Gauza bera gertatzen da erlatiboekin ere, ondoko adibidean bezala:

(12) a. Gizon [aspaldi ikusi ez nituen]ak aurkitu nituen han.

Kontuan har bedi (12a)n perpaus erlatiboa ez dela aposatua, baina izen sintagmaren barneko osagarria, izenondoan moduan agertzen dena. Izen ardatzak (*gizon*) ez du, beraz, hondarkirik, hondarkia (-AK) sintagmaren bukaeran erlatiboaren ondoren agertzen baita.

Ez dirudi eskuinean izateak deus aldatzen duela erlatiboan erran nahian, eta kokamodu hau ez da sekula beharrezko. Baliokidetasun hori agerian ematen dute, Leizarragak, galde berari erantzunik, bi pasartetan ematen dituen erantzun proposamenek; galdera hau da: *Zeren ikustera ilkhi zarete desertura?*

b. - haizeaz erabiltzen den *kanabera baten?* (Mateo, 9-7).

c. - *kanabera* haizeaz erabiltzen den *baten?* (Lukas, 7-24).

Ikusten dugu arras ingurumen berean erabiltzen dituela Leizarragak bi kokamoduak.

Eskuineko perpaus erlatiboak izenondo baten ondoan, eta atzetik beste elementu bat dutela, ager daitezke izen sintagmaren barnean. Ondoko adibidean, konparazione, perpaus erlatiboak *gaizto* izenondoa du ezkerrean eta *bat* eskuinean.

(13) a. *Gizon gaizto*, [herrian orok hastio zuten] *bat* etorri zen.

b. Nahiago bainuken nik izan balitz han, gain hartan, gure arteko apezetarik bat agur egiteko, zor zitzakon bezala, *apez* eskualdun arrotz (gu hainbertze maite gituden] *hari* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 159).

c. Ezen *eskualdun* zahar, [zerbait dakiten]ak alde dituzte (J. Etchepare, *Buruchkak*, 145).

Halere izenondoak, eskuinaldeko erlatiboaren atzean ere izan daitezke, nahiz ez den hori baien usaiako tokia:

- d. Holako *gezur* [xutik doatzen] izigarriek ez lukete hitzik ihardestea merezi (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 107).

Adibide horretan perpaus erlatiboa ardatzaren (*gezur*) eta izenondoaren (*izigarri*) artean kokatua da.

Badirudi, eskuineko erlatiboak euskalki guzietan erabiliak izan direla. Gaur egun, ordean, gutiagotan erabiltzen dira, hereziki erdialdeko eta mendebaldeko euskalkietan.

- (14) a. Eztabil zu legez basatzarik basatza ofetako meiakaz, ta bai zaldi [berak beste urte ditu]banian (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 51).
b. Artu egizu beñ onako trapu [ikusleak ekarri dituz]anak (R. Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 30).
c. zeren ezpaituk sinhetsi ene hitz [bere denboran konplituren dirade]nak (J. Leizarraga, l.k 1-20).

Eskuineko eta ezkerreko tokiak zilegi izanik, ardatz berak perpaus erlatiboak izan ditzake bi aldeetarik, ezkerrean eta eskuinean:

- (15) a. [Aipatu zenidan] haur gaizto, bihurri, [inork jasan ez dezakeen] hark egin omen du.
b. [S. Joaneke Sardonix deitzen dion] arri [zuri gorritara ematen duan] bat (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiak III*, 351).

Izen berezien eskuinean ere erabil daitezke erlatiboak:

- (16) Neskaxa hori aitaso KINH [ongi ezagutzen duzuen]arena baita errazue zer gaizki egin dautzuen (Zerbitzari, *Bahar deitu salbaiak*, 181).

2.2.4. Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste perpaus menderatu batekoa denean

Perpaus erlatiboak menderatuak izanagatik, berek ere barnean perpaus

menderatuak izan ditzakete. Zer gertazen da, beraz, horrelako perpaus batean agertzen bada izen sintagma erlatibatua? Zilegi al da horrelakorik egitea?

Erantzuna argi da: bai, zilegi da, bereziki *-eN* menderagailua hartzen duen aditzaren perpaus osagarri bati badagokio perpaus menderatu hori. Har dezagun gorago ikusi adibide bat:

(17) [Inoiz [Ø ikustera] joaten ez naizen] lagunak.

(17) perpausean ikus daiteke, isildurik dagoen izen sintagma erlatibatua sartua dela adlatiboan den perpaus osagarri jokatu gabe. Horrek erakusten digu perpaus erlatiboetan ere perpaus menderatuak izan daitezkeela, eta hauen barnekoa izan daitekeela izen sintagma erlatibatua.

Aurreko adibidean perpaus osagarri jokatu gabe batean sartua zen izen sintagma erlatibatua, baina perpaus osagarri hori jokatu ere izan daiteke:

(18) a. [[Ø laguntza emanen dizuja] uste duzun] gizona.

b. [[Ø salatuko ote zaituen] beldur zaren] gizona.

c. [[Ø berehala etor dadin] nahi duzun] gizona.

Izen sintagma erlatibatua, *-eLA* menderagailua dakarren adierazpen-perpaus osagarrian da lehen adibidean, *-eN* menderagailua dakarren bai-ala-etzako zehargalderan bigarrenean, eta perpaus osagarri subjuntiboan hirugarrenean. Hiru adibideetan, haatik, *-eN* menderagailua lotzen zaio perpaus osagarria hartzen duen aditzari (*uste duzu, beldur zara, nahi duzu*).

Zenbait euskalkitan baitira aditz batzuk *-eN* menderagailua duten perpaus adierazgarriak hartzen ahal dituztenak, horietan ere erlatiba daitezke izen sintagmak:

d. [[Ø laster jin beharra den] uste duzun] gizona.

Esan gabe doa *-eLA* menderagailua ere berdín erabil daitezkeela horrelako perpaus osagarrietan.

e. [[Ø laster jin beharra dela] uste duzun] gizona.

Badirudi, ordean, zailago dela *-eNIK* atzizkia modu horretan baliatzea, eta aditz gobernatzaile ezezkoan izanik ere orduan *-eLA* erabiltzen ohi da adierazpen perpaus osagarrian:

f. ??[[Ø laster etorriko denik] ez dirudien] gizona.

g. [[Ø laster etorriko dela] ez dirudien] gizona.

Joko hori perpausak horrela metatuz eta barnago joanik errepika daiteke; hots, perpaus osagarriko aditzari dagokion beste perpaus osagarri batekoa ere izan daiteke izen sintagma erlatibatua. Haatik, orduan, gramatikak eskaintzen duen ahal hori ezin baliatuzkoa gertatzen zaie hiztunei, gramatikaren legeak kolpatzen ez diren arren, menderatze segida horretan galtzen baitira:

(19) [[[Ø ikusiko duzula] pentsatzen duzula] erran didazun] gizona.

(19) perpausa ongi moldatua da gramatikaren aldetik, baina aski zaila da horrelako eraikidurak komunikazio egocera arruntetan eta indar berezirik egin gabe ulertzea.

Usaian, beraz, idazleak ez dira lehenbiziko perpaus osagarria baino barrengo joaten:

(20) a. ikhara gaitzezin (...) [[gero egingen dugula] diogun] ontasuna presentean dagigun amoreakgatik (P. Axular, *Guero*, 367).

b. ez othe nuenetz han ikusten, nere aitzinean, zerua deitzen duten tokian [[badi-rela] dioten] saindu edo aingeru hetarik bat? (J. Etchepare, *Buruchkak*, 132).

Ikusiko dugu geroxeago (2.2.7.3) hortelako perpausetan gertatzen diren zenbait komunztadura arazo.

Aurreko adibideetan perpaus osagarri batean sartua zen izen sintagma erlatibatua. Baina berdin erlatibatzen ahal ote dira gobernatzaile baten pean ez dauden mendeko perpaus bateko izen sintagmak (perpaus adjuntuak deitzen ohi dituzte gaur egun horrelako perpausak)? Ez. Ez hain errazki behintzat. Alabaina, izen sintagma erlatibatua horrelako perpaus adjuntu batean sartua denean, denborazko perpaus batean adibidez, edo baldintzazko batean, edo kausazko batean, ondorioak erdipurdikoak edo dira, inguru egokietan ager-

tzen ez badira bereziki, dudazkoak edo traketsak, gutiago edo gehiago, nork esan edo entzuten dituen. Beha diezaiegun adibide hauei:

- (21) a. ???[Nik Ø esan izan banitu, zu harrituko zinatekeen] hitzak esan zinen.
 b. ???[Ø hil berria baitzen, denak arras penatuak ginen] haur gaixo haren ama altxatu zen.
 c. ???Badira [Ø eskolan falta direnean, haurrak pozten diren] irakasleak.

Lehen adibidean, izen sintagma erlatibatua *esan izan banitu* perpausoko objektua da, bigarrenean *hil berria baitzen* perpausoko subjektua, eta hirugarrenean *falta direnean* ere perpausoko subjektua. Hiru adibide horietan, izen sintagma erlatibatua objektua edo subjektua izanik, ez da erlatibatzeko eskalari dagokion oztoporik (ikus 2.2.6). Hargatik, ikus daitekeen bezala, erlatibakuntzak ondorio hala-holakoak ditu gaineko adibideetan, nahiz interpretazio erraza izateko eratuak izan diren. Arrazoiak argi da: baldintzazko perpaus batean, kausazko batean eta denborazko batean sartua da sintagma erlatibatua, hitz batez, perpaus adjuntu batean, eta ez perpaus osagarri batean. Perpaus menderatu osagarrietan erlatibakuntzak errazki bidera badaitezke, nekez ordean, nekezago behintzat, adjuntuetan.

Horrelako kontrasteak agerian ematen dituzte ondoko perpaus bikoteek ere; hauetan perpaus menderatu jokatugetan dira izen sintagma erlatihatuak:

- (21) d. ???[[Telebistan Ø ikusteko] etxean gelditu ginen] filma.
 e. [[Bart Ø ikustera] joan ginen] filma.

Lehen adibidean, izen sintagma erlatibatua helburuzko perpaus jokatugeta adjuntu batean sartua da (erlatibatzerik gabe horrelako zerbait izan daiteke perpausa: *Etxean gelditu ginen, filma ikusteko*). Bigarren adibidean, izen sintagma erlatibatua sartua da *joan ginen* aditzaren osagarri den perpaus jokatugetan (*Bart filma ikustera joan ginen*). Bi adibideetan perpaus menderatuak formaz berdintsu izanagatik, erlaubatzea anitzez naturalago gertatzen da bigarrenean.

2.2.5. Perpaus erlatiboan barneko osagaien tokia

Ardatza agerian duten perpaus erlatiboetan aditz jokatueta bukaeran agertzen

ohi dela ikusi dugu gorago (ik. 2.2.2: (8) adibidea). Horregatik haien barneko izen sintagma guztiak aditzaren ezkerrean ohi dira. Har dezagun ondoko adibidea:

(22) a. Ongi ezagutzen dituzu [goizean kalean ikusi ditudan] haurrak.

Adibide horretan, *kalean* sintagma, perpaus erlatibotik ateratzen badugu, eta ardatzaren eskuinean ematen, moldegaizki eratua dirudi:

b. ?/*Ongi ezagutzen dituzu [goizean ikusi ditugun] haurrak kalean.

Geroago ikusiko dugunaz, izen ardatza isildua daukaten sintagmetan bestela agertzen zaizkigu gauzak. Hemengoetan ((22b) bezalakoetan), aldiz, aski hurbiletik segitzen den kontua da, nahiz agertzen diren batzuetan testuetan kontrako adibideak:

c. Ezar baginetza bata berzearen gainean [heketan egin diren galtzeak *urthe bakar batzuez*], diru galdu denarekin izanen ziren kartirean gisulabe berri bat edo bira, nik erran bezalakoak (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 190).

d. Librutxo au atera zan, ez bakarrik Arimen onerako, baita apaindu, azi, gordereagin, edertu ta zabaltzeko euskerea ta laguntzeko Euskaldun Ikasle barriai; eta beragaitik ezteutsat kendu gura izan [Axularrek berak eskeñi ta zuzendu cuntsan Karta alabagarria *Etxaus Arzobispo Jaunari*], euskera garbi ederrean zirautsela onela (P. A. Añibarro, *Gueroco Guero*, 5).

Bi adibide hauetan ikus dezakegu batean, sintagma instrumentala (*urthe bakar batzuez*), eta bestean sintagma datiboa (*Etxaus Arzobispo Jaunari*), perpaus erlatibotik ateraiak izan direla ardatzaren (eta hondarkiarene) eskuin aldean izanik. Nekez esan dezakegu aipatu bi adibideak agramatikalak direla, eta puntuazioari esker aurkitzen ditu irakurleak perpausen egitura egokiak. Hala ere, ez dirudi jokabide hori maizkoa denik, idatzian bereziki, eta kontu handiz erabiltzeko ez bada, ez dugu gomendatzen.

2.2.6. Zein diren erlatiba daitezkeen izen sintagmak

2.2.6.1. Erlatibatzeko eskala

Gorago erran dugun bezala, izen sintagma erlatibatuari dagokion kasu

marka ere isildurik gelditzen da perpaus erlatibo arruntetan. Horrenbestez, hiztunek ez dute izen sintagma horrek perpaus erlatiboan duen funtzioaz, edo dagokion kasuaz, informaziorik, ez informazio zuzenik behintzat, eta ingurumen sintaktikoaren eta diskurtsiboaren arabera aurkitu behar dute funtzio edo kasu marka hura.

Halatan ez da harritzeko sintagmen eginkizunen araberako erlatibatze eskala bat agertzen baita euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, izen ardatzaren kasua eta izen sintagma erlatibatuarena desberdinak direnean behintzat, berdinak direnean arazorik ez baita gero ikusiko dugunaz (cf. 2.2.7.1).

Kontu horietan gehienetan ziri-edo-zarteko legerik ematerik ez den arren, oro har, esan daiteke, eskala horretan hiru maila bereiz daitezkeela, eta mailakatze horretan, elementu semantikazkoen gain, faktore sintaktikoak eta morfologikoak ere kontuan hartzeko direla:

• Lehen mailan, errazkienik, arazorik gabe, erlatiba daitezkeen izen sintagmak ditugu: subjektuak eta objektu zuzenak, erran nahi baitu kasu ergatiboa eta absolutiboa dakartenak. Sintagma datiboak doi bat zailago dira erlatibatzeke, baina halere sail berean ezar daitezke kasu gehienetan. Beraz arazorik gabe erlatiba daitezkeen sintagmak dira absolutiboan, ergatiboan edo datiboan direnak:

Ergatiboa:

(23) a. [*Gero* idatzi zuen] idazlea Urdazubin jaio zen.

Absolutiboa:

b. [Bihar mintzatuko den] hizlariak jorratuko du gai hori.

c. [Erosi duzun] liburuak izenburu bitxia du.

Datiboa:

(24) a. [Liburu bana eskaini diezun] lagunak pozik daude.

b. [Liburuak gustatzen zaizkion] ikaslea da Petri.

Predikatu osagarri diren izenak ere modu berean erlatiba daitezke:

(25) [Naizen] euskaldun kaxkarrari ez horrelakorik galda!

• Bigarren mailan, aditzaren argumentu edo osagarri dagozkien sintagma adberbialak ditugu, solas ingurumen egokietan bereziki aski errazki erlatibatzen direnak, baina kontesturik gabe hiztun anitzi franko bitxi iduritzen zaizkienak. Gutiz gehienetan, izen sintagma hauen kasu markak morfologikoki bakunak edo arinak dira: instrumentala, eta, bizigabeekin, inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa. Kasu hauek, interpretazioaren eraikitzeo aukera eskaintzen duten perpausetan erabiliz gero, aise erabil daitezke izen sintagma erlatibatuetan:

(26) Aurkitu ote dute [akusatu ninduten] krimenaren egilea?

(27) Artikulu bat idatzi nahi dut [orain bizi naizen] herriaz.

Lehen adibidean *akusatu* aditzari dagokion osagarri instrumentala da izen sintagma erlatibatua. Bigarrenean, *bizi izan* aditzari doakion izen sintagma inesiboa.

Sail berean eman daitezke genitibo edutezkoan diren zenbait lokuzioren (*bila ibili, zain egon, galdez egon, ...*) osagarriak, objektu bati dagozkionak:

(28) [Oihanean bila ibili ginen] haurrak azkenean agertu ziren.

• Hirugarren mailan erlatibagaitzak diren sintagma ditugu, esan nahi baitu aditzaren argumentu edo osagarri hurbil bati ez dagozkion sintagma adberbialak. Posposizio bat hameraturik daukaten kasu marka konplexuak edo pisuak, horrelakoak izaten dira maizenik: sozietiboa (*-EKIN*), bizidunen toki denborazko kasuak (*-(EN)GAN / -GANA / -GANDIK*), eta ia beti destinatiboa (*-ENTZAT*) eta motibatiboa (*-(EN)GATIK*). Salbuespenak salbuespen, izen sintagma hauek, urrunxeago aipatzen ditugun ingurumenetarik kanpo (ik. 2.2.7), arras nekez erlatibatzen dira. Ondoko adibideak kasik ezin konprenituzkoak dira, solas ingurumen berezi batetik kanpo parentesien artean emandako irakurketa ezin egin baitezake irakurleak (erlatiboan izen sintagma erlatibatua zein litzatekeen azpimarratua da):

(29) a. *[Laster joan beharko duzun] lagunek esango dizute.

(cf. Laster *lagunengana* joan beharko duzu).

- b. *[Laster mendira joan beharko duzun] lagunak esango dizute.
(cf. Laster mendira *lagunekin* joan beharko duzu).
- c. *[Egia jakin dudan] adiskideari eskerrak bihurtu dizkiot.
(cf. *Adiskide batenganik* jakin nuen egia).
- d. *[Ezkondtu nintzen] hango ondasunek ez zidaten zorionik ekarri.
(cf. *Hango ondasunengatik* ezkondu nintzen).
- e. *[Bixkotxak utzi nituen] lagun eriek eskerrak bihurtu zizkidaten.
(cf. *Bixkotxak lagun erientzat* utzi nituen).

Halere, aditzaren argumentu edo osagarri hurbil gisa agertzen direnean, erlatibatzeak errazkiago egiten ahal dira horrelako kasu markak dituzten sintagmekin. Adibidez, ondoko adibide pareetan, erlatiboen onargarritasuna ez da maila berekoa, morfologia bertsua duten arten:

- (30) a. [Goiz honetan hain luzaz solas egin duzun] lagunak kontatu bide dizu hori.
b. *[Goiz honetan gosaldtu duzun] lagunak kontatu bide dizu hori.
- (31) a. [Konfiantza duzun] norbaiti galdatu behar zenioke.
b. *[Lehenago ere egia jakin zenuen] norbaiti galdatu behar zenioke.

Solas egin aditzak osagarri hurbil bat badu kasu sozietiboa hartzen duena; ez, ordean *gosaldtu* aditzak. Ondorioz, sintagma sozietiboaren erlatihazioa ez da baldintza beretan egiten bi aditzekin. Halaber *konfiantza izan* lokuzioak badu osagarri bat [+ bizidun] ezaugarria duena eta inesiboa eskatzen duena; ondorioz, honen erlatibazioa ez da hain gogorra nola baita, adibidez, *jakin* aditzarekin ager daitekeen sintagma ablatiboarena (31b).

Sail bercean eman daitezke izenlagunak, kontestu egokietan erlatiba daitezkeenak, bestetan erlatibagaitzak direlarik:

- (32) a. [Izena ahantzi dudan] norbaitek esan dit.
b. *[Etxeraino joan naizen] norbaitek esan dit.

Ikus daiteke lehen adibidean (32a) *izen* ardatzari dagokion izenlaguna aski errazki erlatibatzen dela. Alderantziz, bigarren adibidean (32b) zail da,

oso, *etxe* ardatzari dagokion izenlaguna sintagma erlatibatu gisa interpreta-tzea.

2.2.6.2. *Testuinguruaren garrantzia*

Erlatibatzeko modu horrengatik, berebiziko garrantzia du solas ingurume-nak erlatibazioan. Alabaina, kontestu egokirik gabe gramatikaren aldetik ongi eratuak diren perpaus erlatiboak, batzuetan franko gogorrak eta bortxatuak bezala idurituko zaizkio euskaldunari. *Bazkaldu dugun etxea, natorren eliza, ahalke naizen liburua, ...* bezalako perpausak arraroak kausituko dituzte eus-kaldun anitzek, horrela, besterik gabe ikusirik. Bizkitartean, guziz jatorrak dira behar bezalako solas ingurumenean baliatzen badira. Hona autore zaha-rretarik atera zenbait adibide:

- (33) a. Zertako sartzen naiz ni (...) ezin athera naitekeien oihanean (P. Axular, *Guero*, 5).
- b. Nekhazalerik baizen ezten herria dela herririk hoberena (Ib., 249).
- c. Zer fruitu izan zenduten orduan, orain ahalkez (...) zaudeten bekhatu hetan (Ib., 249).
- d. Zeren bere kontzientzian barrera, ediren baillezakete, eskiribaturik bezala, gal-dez dauden guztiaren errepuesta (Ib., 273).
- e. Ni naiz zuek galdez zaudetena (J. Leizarraga, Ap Eg 10-21).
- f. Hi aizen lekhua lur saildua duk (J. Leizarraga, Ap Eg 9-17).
- g. Eta ezin phoroga zitzakee ni orain akusatzen nauten gauzak (J. Leizarraga, Ap Eg 13-13).
- h. Nolatan bada guk danzuzkigu batbedera iaio izan garen lengoage propioaz mintzatzen (J. Leizarraga, Ap Eg 2-8).

Idazle modernagoetan ere kausitzen dira horrelako adibideak:

- i. Petirik (...) morroi zegoen ugazabari erantzunik erregarrienak botatzen zizkien (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 431).
- j. Arte hortan, jabe ziren urreak zer eman deien, habil hi! (J. Etxepare, *Buruchkak*, 117).
- k. (...) ez baitute erditan deusik, edo bederen zinkurinaz dauden mina ttipieneta-rik baita (Ib., 180).

2.2.7. Erlatibakuntza errazteko bideak

Urrunago ikusiko dugun bezala, erlatibatzeke zailtasunen gainditzeko bide bat baino gehiago du euskarak, erlatibo arrunten eskema apurtuz bereziki. Halere, erlatibo arrunten eskematik atera gabe ere, erlatibatzeke diren zailtasunak arintzen dira zenbaitetan, izen sintagma erlatibatuari dagokion kasua, eta beraz funtzioa, zein den erakusteko bide bat agertzen denean. Hona bide horietarik batzuk.

2.2.7.1. Kasu paralelismoa

Baldin izen sintagma erlatibatuari dagokion kasua, izen ardatzari dagokionarena bada, erlatibatzeke nekezia nabarmenki arintzen da:

(34) a. [Joseba kalean dabilen] neskarekin ezkondu nahi luke Patxik.

(34a) perpausuan ulertzen da Joseba neska batekin dabilela, eta Patxik neska harekin ezkondu nahi lukeela. Perpaus erlatibatuan, izen sintagma erlatibatuari dagokion kasu marka sozietiboa da, eta kasu hau ez da *ibili* aditzak berez dakarren osagarri hurbil horietarik. Perpausa, halere, ez da ulertzeko zaila eta naturala iduritzen zaio euskaldunari, zeren perpaus erlatibatua sarturik dagoen izen sintagmak ere kasu bera baitakar (sozietiboa: *neskarekin*).

Paralelismo horren garrantziari oartzeko konpara dezagun (34a) ondoko adibidearekin:

b. *[Joseba kalean dabilen] neskak ez du senargairik.

Solas ingurumen oso berezi batean agertzen ez bada, euskaldun belarriak gaitzetsiko du (34b) bezalako perpausa, nahiz erlatiboaren egitura (34a)koa den. Oraingoan, ordean, ez da kasu paralelismorik, perpaus erlatiboa sarturik dagoen izen sintagmaren kasua sozietiboa izateko orde, ergatiboa baita.

2.2.7.2. Izenordain erresuntiboak

Konpara ditzagun bi adibide hauek:

(35) a. *Ez da [bizia eman nezakeen] gizonik.

b. Ez da [beragatik bizia eman nezakeen] gizonik.

Bi perpaus erlatiboak konparatzen direnean, ikusten dugu, batean, izen sintagma erlatibatua eta dagokion kasu marka ezabatuak direla, euskararen ohiko jokabideak eskatzen duen bezala, eta bestean, aldiz, *beragatik* agertzen dela, izen sintagma erlatibatuaren tokian.

Lehen adibideko erlatiboa, perpaus erlatibo arrunten arabera da, baina solas ingurumen berezi batean ez bada, ezinezkoa da haren onartzea. Izan ere izen sintagma erlatibatua ez da aditzaren osagarria, eta hari dagokion kasu marka konplexua da (*-(en)gatik*). Kasu paralelismorik ez denaz gero adibidean, neke zaio hiztunari sintagma erlatibatuari bere funtzioaren ematea.

Bigarren adibidean, aldiz, izen sintagma erlatibatuaren lekuan *beragatik* agertzen da. Hiztunak badu oraingoan sintagma erlatibatuaren kasua jakiteko bidea, eta perpausaren interpretazioak ez du dudarik uzten. Ordean, euskararen berezko joera ez da horrelakoa, ezen, gorago esan bezala, sintagma erlatibatuak osoki isiltzen ohi dira euskarazko perpaus erlatibo arruntetan, ageriko ordezkorik utzi gabe.

Perpaus erlatiboetan, *beragatik*-en moduan, erabiltzen diren izenordainez esaten da *erresuntiboak* direla, eta hizkuntza askotan erabiltzen dira izen sintagma erlatibatuaren ordezeko edo. Zenbait euskal gramatikaririk, adibidez Etxaidek edo Altubek mende honen hastapenean, euskararentzat ere egokiak izan zitezkeela pentsatu izan dute, sintagma erlatibatua adverbiala den kasuentzat bederen. Hona Altubek emandako adibideetarik bat (izenordain erresuntiboa seinalatua da):

(36) *Bertatik* urten neban etxea (S. Altube, *Erdarismos*, §125).

Euskararen literatura tradizioak ez die toki handirik eman horrelako izenordain erresuntiboeci. Izan ere, badirudi erdarazko testuak itzuli behar direnean bereziki baliatua dela jokabide hau, ez euskararen beraren berezko joera bati erantzuteko. Alde horretarik ez da gomendatzekoa izenordain erresuntiboaren erabilera hau, nahiz badirudien beste ingurumen batzuetan, erlatiboaren barnean toki sakon batean denean (cf. hemen beheago, (39)), edo erlatibo apositiboetan (ik. 2.2.14.4), errazkiago onesten direla.

Erresuntiboen erabilera izenlagunak erlatibatzeko ere proposatua izan da, bai eta kasu hondarki konplexua duten izen sintagma (motibatiboa edo destinatiboa adibidez) erlatibatzeko ere:

(37) a. Oraintxe ikusi det, *bere* hiru seme ezagutzen ditudan gizon bat (J. I. Arana, *Relativo deitu idazlanean*).

b. *Bere* lan guziak irakurri ditudan autorea da hura (S. Altube, *Erderismos*, §125).

(38) a. *Beragaitik* galdu nintzan laguna (Ib., §125).

b. *Beretzat* lan egiten dedan ugazaba (Ib., §125).

(36-38) adibideetan izen sintagma erlatibatua sartua da perpaus erlatiboko osagai baten barnean, eta badirudi orduan errazkiago baliatzen ahal direla erresuntiboak. Oro har zenbat eta barnago sartuak baitira erresuntiboak perpaus erlatiboaren osagai batean, hanbat errazkiago onartzen ditugu. Konpara adibide hauek:

(39) a. *Hari egia esan behar izan genion gizona.

b. ?Haren aurrean egia esan behar izan genizun gizona.

c. Haren aurrean egia esateko agindu zenigun gizona.

Hiru adibideetan izenordain erresuntiboa agertzen da. Ordean, (39a) ezin onartua bada, (39b)k ez digu hainbeste minik egiten; eta are gutiago (39c)k. Zergatik? (39a) adibidean izenordain erresuntiboa perpaus erlatiboko osagai datiboari dagokio. (39b) adibidean, berriz, izenordain erresuntiboa adizlagun baten barneko izenlagunari dagokio, eta (39c) adibidean adizlaguna bera ere perpaus osagarri batean sartua da. Hitz batean esateko: zenbatenez barnago agertu izenordain erresuntiboa perpaus erlatiboan, eta hanbatenez onarrerrazago gertatzen zaigu.

Kontuan har horrelako kasuetan erlatibatzeko modu arrunta nekez balia daitekeela, eta erresuntiboa baztertuz gero arras bestela adierazi behar direla gauzak. Hain zuzen horrelakoa izan da joera nagusia orain arte literaturan, eta ihes egin diete idazleek gisa horretako egitura astun, korapilotsuei. Adibidez, (37a) adibidea aipatu ondoan, Aranak herak proposatzen zuen ageriko erre-

suntiborik gabe den ondoko perpausa erabil zedin haren orde (izen sintagma erlatibatua datiboan izanik orduan, eta aditz komunztaduran agerturik):

- (40) Oraintxe ikusi det iru seme ezagutzen dizkiodan gizon bat (J. I. Arana, *Relativo* deitu idazlanean).

Dena den, izenlagun bati dagokiolarik ere erresuntiboa ez da beti beharrezko. Adibidez, posposizio-izenen izenlagunak erlatibatzerakoan ohiko biga erabil daiteke, eta Altuberen (41)eko adibidearen ondoan, J. Etchepare medikuaren (42)ko aipua eman daiteke:

- (41) Aitari ekarri diot berau *aren* atzean ibili zan gizona (S. Altube, *Erderismos*, §125).

- (42) ikusi gabe utzi behar dugu halaber komentuko liburutegia, adituak girelakotz berdin ez dela gehiago han *Nabarreko erregeek gainean zin egiten ohi zuten* zilar-estalgiarekitalako liburu handia (J. Etchepare, *Beribilez*, 49).

(41)ean *atze* posposizio-izenaren izenlaguna erlatibatua da, eta *aren* erresuntiboa erabilia da; (42)an ere *gain* posposizio-izenaren izenlaguna da erlatibatua, baina ez da erresuntiborik agertzen haren tokian.

2.2.7.3. *Sintagma erlatibatuak aditz komunztadura dakarrenean*

Izen sintagma ergatiboek, absolutiboek edo datiboek aditz komunztadura ekartzen baitute, erlatibatzen direnean ere, nolabait haien oihartzuna nabaritzen da oraino perpaus erlatiboan.

- (43) Ikusi ditugun haurrak.

Adibide horretan sintagma erlatibatua absolutiboan da. Nahiz isildua den, halere, aditzaren barnean hari dagokion indize plurala agertzen da. Guziz erregularra da jokabide hau, eta oso baliagarria batzuetan erlatibatzeko zailtasunak ager daitezkeenean. Konpara ditzagun guraso berak edo idazle bera izendatzeko balia daitezkeen adibide hauek:

- (44) a. ??[Semeak gerlara joanak diren] gurasoak.

- b. [Semeak gerlara joanak dituzten] gurasoak.

Lehen adibidean, izen sintagma erlatibatua *seme* izenaren izenlagunari dagokio, eta perpausa ulergaitza eta traketsa da. Bigarrenean, itzuli biltzailea erabiliz, izen sintagma erlatibatua izen sintagma ergatiboari dagokio, eta perpaus erlatiboa guziz naturala da.

Ondoko adibideekin gauza bertsua dugu:

(45) a. ?[Hitz egin dizudan] idazleak (izen sintagma erlatibatua instrumentalean izanki).

b. [Aipatu dizkizudan] idazleak.

Adibide hauek ikusirik, ez da dudarik bigarrena anitzez argiago eta naturalago dela: aditz transitiboa erabiliz (*aipatu*) objektu zuzena erlatibatzen da (45b); *hitz egin* aditzarekin, berriz, adizlagun bat erabiltzen da aditzaren hurbileko osagarri ez dena (instrumentala): erlatibakuntza ez da hain erraza, eta bortxatua bezala.

Oso garrantzi handia du puntu honek euskarari, erlatibatzeke eskalak askotan aditzen aukeraketa bidera baitezake.

Zenbait kasutan, gainera, numero komunztadurako marka modu irregularran erabiltzen da izen sintagma erlatibatua aditzean agerrarazteko. Kontsidera ditzagun bi adibide hauek:

(46) a. Auzo herrikoak direla esan duzun haurrek egin omen dute.

b. Auzo herrikoak direla esan dituzun haurrek egin omen dute.

Lehen adibidea erakuntza erregularrari darraikio, bigarrena, berriz, ez. Alabaina, *dituzun* aditzean plural marka sarturik dago, izen sintagma erlatibatuekin komunztadura eginez. Komunztadura hori ez da erregularra, zeren izen sintagma erlatibatua *esan* aditzak dakarren perpaus kompletiboan baita. Erlatibaziorik ez balitz guziz ezinezkoa litzateke komunztadura horren jokaraztea: **Auzo herrikoak direlo esan dituzu*.

Ordean, irregularra izanagatik, (46b) bezalako perpaus erlatiboak entzuten dira.

Aski errazki gertatzen da hori izen sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko perpaus osagarri batean dencan, hau jokatu gabea denean ere bai, hala nola ikus baitaiteke bi adibide hauek konparatuz:

- (47) a. Hartu al dituzu eramateko esan nizun liburuak?
- b. Hartu al dituzu eramateko esan nizkizun liburuak?

Anitz euskaldunentzat naturalago da (47b), (47a) baino. Ordea, erlatibakuntzarik gabe gauzak ez dira horrela agertzen:

- c. Esan nizun liburuak eramateko.
- d. *Esan nizkizun liburuak eramateko.

Zenbaitetan aditzaren errejimenaren aldaketa ekartzen du izen sintagma erlatibatua aditzean sartzeak. Beha ondoko adibide honi:

- (48) a. Bertze haureri biltzen ikusi nituen sosek xoratu, liluratu ninduteyan (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 20).

Adibide horretan izen sintagma erlatibatua *ikusi* aditzaren perpaus osagarriko objektu zuzena da (*biltzen* aditzari dagokiona). Perpaus erlatiboko aditz jokatuan pluraleko komunztadura jokarazirik agertzen da, *ikusi* aditzaren objektu balitz bezala, eta beraz adibide horren ohiko errejimenaren aurka. Nola bestalde *ikusi* aditzak baitu berezko objektua perpausaren, hau datiboan emana da (*haurreri*). Erlatibakuntzatik kanpo ez dirudi Elizanburuk horrelakorik erabiltzen ahalko zuen (gogoan izan beza irakurleak, Iparraldeko euskalkietan datiboarekilako komunztadura ez dela beharrezkoa):

- b. *Haurreri sosak biltzen ikusi nituen (= haurrak sos biltzen ikusi nituen).

Beste batzuetan euskal aditzaren morfologia are gehiago bortxatzen da, ohiz kanpoko komunztadura horren bidez. Har dezagun adibide hau:

- (49) (Puntu hori) tratatua izan bada ere, nik ez ditut gehienbat aurkitu [bila nenbiltzarak] (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VI*, 153).

Perpaus erlatibo horretan (ardatza isildurik dauka: uler hedi *bila nenbiltzan argitasunak*) izen sintagma erlatibatua *bila ibili* aditz lokuzioaren osagarria

da, genitibo edutezkoaren marka hartzen ohi duena. Ordean, perpaus erlatiboa eraikitzean, ezabaketa osorik egiteko orde, aditz jokatuako numero marka baliaturik, haren oihartzuna utzi du idazleak perpausaren. Kontuan har bedi, bi gisatan ohiz kanpoko delat joko hau: lehenbizikorik, iduri luke komuntadura izen sintagma genitibo batekin egiten delat (ezen *bila ibili* lokuzioaren osagarriari dagokion kasu marka genitiboa ohi da); bigarrenekorik, aditzaren morfologia erregularra itsuski kolpatzen da. Alabaina, printzipioz, euskal aditzeko numero komuntadura sintagma absolutiboari dagokio bakarrik. Gure adibidean, haatik, absolutiboari dagokion komuntadura lehen pertsona singularrekoa da (*n-*), eta beraz *iza* plural marka beste zerbaitetarik dator. Badakigu nondik: genitiboan den izen sintagma erlatibatutik, hain zuzen. Erlatibaziorik ez balitz guziz ezinezkoa litzateke adizkera hori agertzea.

(50) a. Gauza batzuen bila nabila / *nabiltza.

Esan gabe doa Mitxelena oharu zela *crabili* zuzen adizkera guztiz usaiatz kanpoko delat, eta berak *ikaragarritzko mustro bat* ikusi zuzen forma horretan, baina nahitara bere hartan utzi zuzen, halere, nonbait hiztun gisa horrela atera baitzitzaion.

Literatura zaharrean ere noiz behinka agertzen dira erlatibagintzak ekarri ohiz kanpoko horrelako numero komuntadurak. Beha adibidez, Leizarragaren adibide honi:

b. Bada [[gizonek zuei egin dietzazuen] nahi dituzuen] gauza guziak egin ietzazue (J. Leizarraga, Mt 7, 12).

Izen sintagma erlatibatua perpaus osagarri subjuntibokoa da, *egin* aditzaren objektuari baitagokio. Erlatibatzean halere *nahi izan* aditz matrizean pluraleko indize gisa gelditu da. Kasu honetan ere ez dirudi Leizarragak erlatibaziorik egin gabe horrelako komuntadura egin zezakeela: **Nahi dituzue gauza horiek guziak egin dietzazuen*.

Kontuan harturik maiztasun txikikoa delat eraikuntza hori, hobe litzateke zuhurki jokatzela puntu horretan, eta, errejistro jasoan behintzat adizkera erregularrak baliatzeu, hiztunaren hizkuntza sena bortizkiegi kolpatzen ez denean oroz gainetik.

2.2.7.4. *Leku-denborazko izen ardatza duten perpaus erlatiboari -KO atzizkia emanez*

Izen sintagma erlatibatua leku-denborazko kasu batean denean, zenbait idazlek *-eKO* atzizkia lotzen diote perpaus erlatiboari, nolabait sintagma erlatibatuaren funtzioa eta eremu semantikoa seinalatuz. Ardatza lekuari edo aldiari dagokion elementu bat izendatzen duenean bereziki gertatzen da jokabide hau:

(51) Zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko luraren jabearen (P. Axular, *Guero*, 143).

Gaur egun, mendebaldeko eta erdialdeko idazleek bereziki baliatzen dute jokabide hau:

(52) Zaldi egingo zaneko egunaren begira egozan danak (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 20).

(53) ni nengoaneko plaza (A. Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 89).

Leku-denborazko posposizioekin ere erabiltzen da *-eKO* atzizkia:

(54) Kilimon iturriak erieten duaneko ondoan dago (A. Zavala, *Mendaro Txirristaka*, hitzaurrea, 14).

Badirudi halere, tradizio zahalduenaren arabera deusetan ez dela beharrezko *-eKO* atzizkiaren erante hau:

(55) Ez naiz gogoratzen semea jaio zen egunaz.

(56) hi haizen lekua lur saindua duk (J. Leizarraga, *Ap Eg* 9,17).

(57) hura dagon edo dohan tokia (...) gutixago jo du lur ikarak (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 16).

2.2.7.5. *Galderazko izenordain adberbiala erresuntibo gisa erabiltzea*

Zenbaitetau, olerkigintzan, galdera izenordain adberbialak baliatuak dira izenordain erresuntibo gisa. Guziz markatua da eraikuntza hau, Altubek begi onez ikusten bazuen ere:

(58) Guztiak betan nekhaske zure oinen azpira / Aingeruz inguratutik *non* zaudezen alkira (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezkoa*, 2, 19).

(58) adibidean *non* izenordaina izen sintagma erlatibatuaren tokian agertzen da, izenordain erresuntibo baten moduan, ez izenordain erlatibo gisa. Jokabide hau, euskal gramatikaren ohiko erregeletarik kanpoko dena, ez ohi da aurkitzen euskal testuetan.

2.2.8. *Izen ardatzaren nolakotasuna*

2.2.8.1. *Erlatiboak agertzen diren sintagmetan ardatz izan daitezkeen izenak*

Edozein izen mota izan daiteke perpaus erlatibo batek lagunduriko ardatza: bai, jada ikusi bezala, izen arruntak, bai eta berdin izen bereziak, edo izenordain mugabeak ere:

(59) Orok miresten dugun Axular handi hark bazioen...

(60) Ezagutzen duzun norbaitek esan dit.

Alderantziz, pertsona izenordainak ez dira perpaus erlatibo baten ardatz izaten ahal.

(61) *[Maite zaitudan] zuri emanen dizut.

Lehen edo bigarren pertsonak erlatibatu nahi badira, zenbait euskalkitan bederen, maila hurbileko erakusleak edota artikulua balia daitezke, komuntadura pertsonala atxikiz:

(62) a. Maite zaitudan horri emanen dizut.

b. Nire begiz ikusi dudanez honetaz esaten dizut.

Jokabide hau, halere, franko zaharkitua da, eta gaur egun, aposizioan erabiltzen dira askotan horrelako esaldiak, hala nola egiten baita pertsona izenordain bati izen sintagma bat aposatzen zaiolarik ondotik (ik. *EGLUI*, 312):

c. Zuk, hainbeste gauza dakizun horrek, egin behar zenuke.

2.2.8.2. Ardatza izenondoa denean

Hegoaldeko euskalkietan, ahozko mintzairan bereziki, ardatz gisa izenondo bat izanik ere erabiltzen dira erlatiboak. Ohiz kanpoko itzuli markatua da, *credu* mailegatu bati jarraikiz, izeuondoaren gorako maila adierazten duena:

(63) a. Etxea den garestiarekin ezin izango dut erosi.

b. Zu zaren argia izanda, ulertu behar zenuke.

Adibide horietan *garesti* eta *argi* izenondoak dira ardatzak, eta predikatu osagarriari dagozkio perpaus erlatiboaren barnean. Gorako maila adierazteko, beste itzuli hat erabiliz honela esan daiteke: *etxea hain garestia izanik; zu hain argia izanda...*

2.2.9. Erlatibagintza gertatzen den perpausak zer motatakaak izan daitezkeen

2.2.9.1. Zer perpaus mota izan daitezkeen perpaus erlatiboak

Perpaus erlatiboak adierazpenekoak dira beti, baiezkoak edo ezezkoak; ezin izan daitezke galde perpausak, ez eta harridura edo aginte perpausak ere. Ondoko adibideak gaizki eratuak dira beraz: (64a,b) adibideetan, perpaus erlatiboak galderak dira, (64c) adibidean, harridura perpausa, eta (64d, e) adibideetan aginte perpausak.

(64) a. *Zenbat balio duen olioia oso ona omen da.

b. *Etorri al den gizonak badaki.

c. *Zer laster egin duen gizonak harritu nau.

d. *Egin bezan gizonak badaki.

e. *Egin ezazun lana erraza da.

Halere, zati galderak eraiki daitezke perpaus erlatibo baten osagarri batean oinarriturik:

- (65) a. Nor bizi den etxean sartu da polizia?
 b. Noiz ikusi duzun filmaz mintzo zara?
 c. Nork eman zizun liburua galdu duzu?

Hiru adibide horietan galdera izenordaina perpaus erlatiboaren barneko osagarri bati dagokio. Hargatik, perpaus erlatiboa bera ez da galderazkoa, zeren perpaus osoa estaltzen baitu galderak. Hots, orokorki izenlagunei dagokien jokabidea kausitzen dugu orduan:

- (66) Zenbat etxetako jendeekin mintzatu zara?

2.2.9.2. *Perpaus erlatibo subjuntiboak*

Gaur egun euskalki gehienetan adizkera trinkoen ondoan *izan* edo **edun* aditz laguntzaileak aurkitzen ditugu perpaus erlatiboetan, bai eta **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileak ere ahalezkoak edo baldintzazko ondoriozkoak direlarik. Halere, mendebaleko euskalkietan (eta bestetan ere lehenago) perpaus erlatiboko adizkera jokatu **edin* edo **ezon* izan daiteke ahalezkoa edo baldintzazkoa izan gabe:

- (67) a. Eztio bat ere [gertha dakion] egitekok kalterik eginen, batere bekhaturik ez duenari (P. Axular, *Guera*, 288).
 b. Urten eustan, [emakume hari pozgarri ekiozan] berbak esaten hasi guran (E. Erkiaga, *Txurio txoria*, 111).
 c. [Entzun dagian]ari dantzan eragiteko txilibitua (R. M. Azkue, *Euskalerriyaren yakintza*, 2-206).

Erlatibo subjuntiboak, halere, aski markatuak agertzen dira gaurko euskaran, mendebaldeko testuetan ere. Dena den, gogoan izan, lehenago erran dugun bezala (cf. 2.2.4), ez dela arazorik horrelako perpaus subjuntiboak perpaus osagarri direnean haien barneko izen sintagma baten erlatibatzeke. Orduan gaineko aditzak dio erlatiboari abiapuntua ematen, eta egitura bestelakoa da:

- d. [[Lehen baino lehen buka dezazun] nahi nukeen] lana.

2.2.9.3. *Perpaus erlatibo arruntan balioa*

Oso ezaguna da ondoko hizkuntzetan perpaus erlatiboetan egiten den bereizkuntza: erlatibo murrizgarriak ditugun alde batetik, eta erlatibo ez-murrizgarriak beste aldetik; bestalde erlatibo murrizgarrietan zenbait mugagarriri dira, eta besteak ez.

Bereizketa hauen oinarrian ideia hau da: zenbaitetan perpaus erlatiboek ardatzaren erreferentzia murrizten dute, besteetan ez; lehen kasuan, batzuetan erreferentzia hori, murriztu ez ezik, mugatu edo bereizi ere egiten dute, eta beste batzuetan, ez: edo sintagmaren erreferentzia ez delako mugatua, edo mugaketa hori berezkoa delako, esan nahi baita ez erlatiboaren bidez lortua.

Kontu horrek ba ote du eraginik edo ondorioz euskarazko perpaus erlatibo arruntetan? Hori da hain zuzen orain ikusiko duguna.

Kontsidera ditzagun lehenik bederazka ondoko lau adibide hauek (68a-d):

(68) a. Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori.

(68a)n perpaus erlatiboak murrizten eta zehazki mugatzen du izen sintagma subjektuaren erreferentzia. *Gizona* ez da edozein *gizon*, baina *goizean zurekin mintzatu den* hura. Erreferentzia mugatua du sintagmak, perpaus erlatiboari esker hain zuzen. Perpaus erlatiboak nahitaez balio murrizgarri eta mugagarria du (68a)n.

b. Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arreba esango dizu hori.

(68b) perpausaren, izen ardatzak berezko erreferentzia du, ezen izen berezia da (*Maddi*), eta gainera aposizioan *nire arreba* ere agertzen da. Perpaus erlatiboak ezin izan dezake balio murrizgarri hori, ez eta balio mugagarri ere, sintagmako izen ardatzaren erreferentziaren bidez berez baita mugatua (izen berezien ezaugarri nagusia dugu hori). Perpaus erlatiboak informazio bat gaineratzen du izen ardatz hartaz, baina ez du informazio horrek haren erreferentzia murrizten, ez mugatzen.

c. Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk.

(68c) perpausean sintagmaren determinatzailea mugabagean da (*batzuk*). Perpaus erlatiboak *lagun batzuk* sintagmaren erreferentzia zerbait itxuratzen du eta, beraz, murrizten (lagun aipatuek aspaldi ezagutzen nituen lagunak izan behar dute). Ordean, lagunak multzoa murriztuz, ez da aski, halere, erreferentzia haren zehazki identifikatzeko eta mugatzeko. Bestela determinatzailea ez litzateke mugabagean. Beraz (68c)ko perpaus erlatiboa, murrizgarria izanik, ez da mugagarria.

d. Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak irakurri behar nituzke.

(68d)n bi eratara uler daiteke perpaus erlatiboa. *Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak* izen sintagma baliu generikoa badu, orduan perpaus erlatiboa ez da murrizgarria (eta ez, beraz, mugagarria). Hiztunak dio irakurtzeko dimela euskal liburu zaharrak, hauek orokorki harturik, eta haietan bereizkuntzarik egin gabe. Esaten du, bestalde, solaslagnak ongi ezagutzen dituela obra horiek, baina xehetasun hori emanez, ez du zehazki mugatzen saül berezi bat euskal liburu zaharren artean.

Aitzitik sintagma mugama bada egiazki (artikuluak baliu generikoa izan gabe, hots), murrizgarria da perpaus erlatiboa, eta mugagarria: hiztunak irakurtzeko dinuen obrak, ez dira euskal liburuak orokorrean, baizik ere solaskideak ongi ezagutzen dituenak, izen sintagmaren erreferentzia zehazki mugama delarik.

Lau adibide horien bidez, ohar gaitezke kontestu batzuetan perpaus erlatibo arruntek nahitaez mugagarri eta murrizgarri izan behar dutela (68a), beste batzuetan murrizgarri baina ez mugagarri (68c), zenbaitetan ezin izan daitezkeela murrizgarri (eta beraz ez mugagarri) (68b), eta beste batzuetan (68d) bi eratara interpreta daitezkeela.

Seinalatzekoa da, ordean, perpaus erlatibo arruntetan agertzen diren baliu eta interpretazio desberdin horiek ez dutela ondorio zuzenik erlatibo arruntetan erabidean. Adibidez, erlatiboak berdin moldatzen dira, ardatza izeu arrunta izanik murrizgarri eta mugagarri direnean, edo ardatz gisa izen berezia dutenean (azken kasu honetan nkeez erlatibo batek baliu murrizgarria eta mugagarria izan dezakeelarik). Bestalde, lehenago ikusi bezala (2.2.3), izenlagunen edo izenondoen ohiko lekuan joanik (izen ardatzaren ezker edo eskuin aldean), baliuak desberdinak, libroki, har ditzakete erlatibo arruntek.

2.2.10. BA- baiezkoa perpaus erlatiboetan

Gauza jakina da perpaus beregainetan adizkera trinko bat perpaus hastapenean izaten denean, BA- aurrizkia lotzen zaiola adizkerari. Ordean, perpaus hastapeneko adizkera perpaus erlatibo bati badagokio ez da horrelakorik gertatzen:

(69) a. ??Dakizkizu mintzaira asko.

b. Dakizkizun mintzairak.

Halaber, *izan* aditza existentziaren predikatua dela seinatzeko BA- aurrizkia kasik beharrezkoa den arren (gaur egun izatea seinatzeko *izan* aditza baliatzen duten Iparraldeko euskalkietan), perpaus erlatiboetan ez ohi da erabiltzen:

c. Ura den tokian ez da idortarik.

Aurreko adibideko perpaus erlatiboa perpaus beregain gisa aurkezturik, BA- aurrizkia erabil lezakete *izan* aditza testuinguru horretan erabiltzen duten hiztun gehienek:

d. Toki horretan ura bada.

Literatura tradizioan ere BA- aurrizkia ez ohi da erabiltzen perpaus erlatiboetako adizkera trinkoetan, bereziki izen ardatza agerian delarik.

(70) a. Aspaldi dakigun mintzaira da euskara.

Gaurko euskarari, halere, bestelako adibideen ondoan aurkitzen dira kontrako joera erakusten duten zenbait adibide, ondoko hau bezalakoa:

b. Parapsikologilarientzat beste nahaspil haundi bat bada, bi gogoen arteko har-emanketa, telepatia, eta [orain badiren], [edo lehenago gertatuak diren oroipen-antzean badiren] gertarien araugaindiko ezagutza, metagnomia, baino askoz nahastuagorik (...) (J. Mirande, *Idazlan hautatuak*, 327).

Oso adibide guti da horrelakorik literaturan, eta komeni da puntu horretan ere euskal tradizioko jokabideari jarraitzea eta zegoen batasuna ahalaz ez haustea. (Ardatza agerian ez duten perpaus erlatiboentzat, ikus urrunago 2.2.15).

2.2.11. Perpaus erlatiboen metatzea

2.2.11.1. Ardatz beraren inguruan metatzen diren erlatiboak

Izen ardatz batek perpaus erlatibo bat baino gehiago har dezake izenlagun gisa.

Hori perpans erlatiboak juntatuz gerta daiteke, noski, beste izenlagunak bezala juntatzen ahal baitira perpaus erlatiboak:

(71) a. [Irakurri duzun] eta [gustatu zaizun] *liburua*.

Beste batzuetan, ordean, juntadnrarik gabe gertatzen dira metatzeak. Adibidez, ikusi dugu jadanik (2.2.3.2) ardatz bakarrak eskuinetik eta ezkerretik izan ditzakeela perpaus erlatiboak. Errepikatzen dugu hemen horrelako adibidea:

b. [S. Joanek Sardonix deitzen dion] *arri* [zuri gorritara ematen duan] bat (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 351).

Alde bakarrean emanez ere meta daitezke perpaus erlatiboak juntadurarik gabe. Horrela, usaiako tokian ezkerrean emanik ere, perpaus erlatibo bat baino gehiago ager daiteke:

(72) a. [Orok maite dugun] [mesede handiak egin dizkigun] *lagun* batek esan du.

Perpaus erlatiboak ardatz beraren inguruan emanez egiten diren metatzeak aski errazki egiten ahal ditu euskarak, hala nola izenlagunak ere metatzen ahal baititu. Halere, aski pisuak gertatzen dira horrelako eraikuntzak, eta gutitan kausitzen dugu, juntadurarik gabe bereziki, bizpahiru perpaus erlatibok baino gehiagok laguntzen duen ardatzik.

b. Beraz izan behar da, bertzalde, [sortzerik ukan ez duen] [ezeztatzerik onets ez dezokegun], bere baitharikako *norbeit*. Sinesten dut badela (J. Etchepare, *Buruchkak*, 41).

c. Liburu honek dauzkan mintzaldi gehienak ezarririk ukanak ditugu [Eskualduna derizan] [orok dakiten] *berrikarian* (Ib., 5).

Erlatiboak ardatzaren eskuinean direnean ere egin daitezke metatzeak:

- d. Hainbertzetaraino non, asko lekutan, erregebide bazterreian landatuak baitituzte izei luze mehar, [osto ala adarrak hain usu dituzten], [frantsesez cyprès deitzen dituzten]ak (Ib., 91).

2.2.11.2. Izen sintagma berean, ardatz desberdinak izanik bata bestea barneratzen duten erlatiboen pilatzea

Perpau erlatiboen barneko izen sintagmek berek ere izan ditzakete erlatiboak beren barnean, modu horretan erlatiboak pilatzen direlarik, hala nola ondoko adibidean:

- (73) Agur bat zor dugu [[Roland zenaren lagun hoberenetarik zoubait ehortziak izan ziren] tokiaren gainean eraikirik dagon] *kaperu komentuari* (J. Etchepare, *Beribilez*, 48).

Adibide horretan (*zena* kontatu gabe) bi erlatibo pilatzen dira: *kaperu komentu* izena ardatza duen perpau erlatiboak bada barnean izen sintagma bat (inesiboan dena), honen barnean baita beste perpau erlatibo bat, ardatz gisa *toki* izena duena.

Gauza bera gertatzen da ondoko adibidean ere: perpau erlatiboko IS erlatiboan beste perpau erlatibo bat bada.

- (74) a. Non othe da, [[gainen jartzen zitzaizkion] *emaztekiak* amageitzen zituen] *harri aipatua?* (Ib., 49).

Pilatze hau, aurrekoa bezala, zilegi da euskaraz, eta gramatikak ez dio mugarik ematen horrela pila daitezkeen erlatiboen kopuruari. Haatik, esan beharra dago hemen ere, gramatikak eskaintzen dituen ahalen eta hiztunek egiazki beren jardunbide arruntean dituztenen artean alde handia badela, eta literaturan gutitan aurkitzen direla molde horretan bi erlatibo baino gehiago pilatzen dituzten sintagmak, non ez den hizkuntza joko gisa hain zuzen. Ordean, horrelako jokoetarik kanpo gertatzen denean oso itzuli markatuetan kausitzen da, hala nola hiru erlatibo pilatzen dituen ondoko adibidean:

- b. O! Jesus inozentia! [[[Pensa daitezken] nekerik andienekin ekarri duzun] Guruzian kruzifikaturik arkizen zaren] gure Jaun Soberanoa! (*Calvarioco Estacioac, ASJU XXIII-3, 1989, 736*).

Idazleek, eta itzultzaileek bereziki, gogoan izan behar dituzte perpaus erlatiboen pilatzean gertatzen diren zailtasun horiek, bestelako erlatibabideak eta egiturak dituzten hizkuntzetan, erlatiboak eskuinetik txertatzen dituztenetan bereziki, modu bercean agertzen ez direnak.

2.2.12. *Perpaus erlatibo subjektiboak*

Ekialdeko zenbait euskalkitan perpaus erlatibo subjektiboak deitu izan diren perpausak ere baliatzen dira. Hona adibide bat (perpaus erlatibo subjektiboa letra etzanetan da):

- (75) a. Ez da egundaino izan, ez eta izanen etsairik gabeko gizonik. Ezen *etsairik ez duelako* hura ez da gizona. Oilo busti bat da hura (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan, 84*).

-eLAKO atzikia izanagatik, perpaus hau egiazko perpaus erlatiboa da, eta ez izen ardatzaren osagarri litzatekeen perpaus izenlaguna. Ordean, egitura horrek erranezko edo adierazpenezko aditz baten elisioa adierazten du; adibidez, aurreko adibidea ohiko moduan emanaz honela geldi liteke:

- b. Etsairik ez duela dioen gizona.

Perpaus erlatibo subjektiboetan sintagma erlatibatua adierazpenezko perpaus osagarri batean sartua da, eta horregatik agertzen da -eLA atzikia perpaus horri dagokion aditzaren hondarrean. Maizenik, horrelakoetan perpaus osagarria ekarri duen aditza adierazten da, eta hari lotzen zaio -eN menderagailua, gorago ikusi bezala (2.2.4 : (18)); ordean, aditz hura isiltzen bada, -KO lotu behar zaio perpaus osagarriari, ardatzaren izenlagun izan ahal dadin.

Hona Hiriart-Urrutiren idatzietan bildu beste zenbait adibide:

- (76) a. Bet betan hor itzuli da gorri-beltzen alde; hainbertzetaraino non *bazterrerat utzia zelako* Brisson hura baitukegu bihar, ba eta ja egungotz ere minixtroen buruzagi (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaraziak, 85*).

- b. Dena den, bereak eta asto beltxarenak aditurik dago, zonbeit egun hautan Caillaux ministroa, gizontasun den gutienekorik luken ministro batek sudurra sarthu behar etzuken saltsa batzuetan zikindu zuela muthurra, *beraren eta bere kideko batzuen aberasteko egin zituelako* nahaskeriez! (Ib., 109).
- c. Ez gare beraz harritu behar, nunbeitikako jaun handi batzu heldu badira ere, noizetik noizera, bere tokietan Eskual Herriaren eta bereziki Eskuararen alpha-mena aditurik, gure herriaren ikhustera bere begiz; eta bere beharrez aditzera *bertze nihon ez delako* mintzaira hura (Ib., 90).

2.2.13. Izen ardatza isildurik daukaten perpauis erlatiboak

Perpauis erlatiboak izen ardatzik gabe agertzen dira batzuetan, hala nola ondoko adibidean:

(77) Patxiren liburuak, eta [zuk idatzi dituzun]ak ez zaizkio gustatzen [umorerik ez duen]ari.

Perpauis horretan bi erlatibo dira ardatzik ez dutenak beren ondotik. Lehenbizikoan, artikulua plurala (absolutiboan) lotzen zaio erlatiboari, bigarrenean datiboaren hondarkia. Batean, izen ardatza *liburu* da, baina izen hori aurretik aipatua baita, ezabaturik gelditu da perpauis erlatiboaren ondoren. Beste erlatiboaren ondoren (*umorerik ez duenari*), berriz, ez dirudi ingurumenak ekarritako izen ezabaketarik izan den.

Ikus dezakegu, beraz, ardatzik eza bi modutan agertzen dela perpauis erlatiboaren ondoren, batzuetan ingurumenak ekartzen baitu (2.2.13.1), beste batzuetan ingurumen berezirik gabe gertatzen baita (2.2.13.2). Bestalde perpauis erlatiboak, beste sintagma adjektibalak bezala, predikatu osagarri gisa eta aposizioan ere erabiltzen baitira, behako bat emanen diegu mota horretako ardatzik gabeko erlatiboari ere.

2.2.13.1. Ingurumenak ekarritako ardatz ezabaketo perpauis erlatiboetan

Esana dugu lehenago perpauis erlatiboak sintagma adjektibalak direla. Sintagma horien ezaugarria da izen baten ez errepikatzeke ardatza ezabatzen denean halere sintagmak osa daitezkeela:

(78) a. Baionako etxeak tikiago dira [Bilbokoak] baino.

b. Haur prestuek nota hobeak dituzte [bihurriek] baino.

Adibide horietan izenlaguna (*Bilbokoak*) eta izenondoa (*bihurriek*) ardatzik gabe agertzen zaizkigu, hondarkia dutela, haatik, eta inguruan den izen batek ardatz hori zein den esaten digularik: *etxe* (78a) eta *haur* (78b) izenek, hain zuzen.

Erlatiboetan ere gauza bera gerta daiteke:

(79) a. Gutxi ikasten duten ikasleek nota txarragoak dituzte [asko egiten dutenek] baino.

(79a) perpaus erlatiboari zuzenean lotzen zaio hondarki ergatiboa (-ek). Ardatza isildua da, baina haren erreferentzia argia da, aurretik agertzen den *haurrek* izen sintagmarena baita. Isildutako izen ardatzari erreferentzia ematen dion izenari *aurrekaria* esanen diogu hemendik goiti.

Esan gabe doa, kontestu zabalagoetan ere gerta daitezkeela horrelako isiltzeak, eta aurrekariak ez duela nahitaez perpaus berean agertu behar. Ikus, adibidez, ondoko adibidea:

b. Ixtorio tristeak kontatzen dituzten liburuak ez zaizkit gustatzen. Zuk zer diozu izitzeko ipuinak kontatzen dituztenez?

Adibide horretan *izitzeko ipuinak kontatzen dituztenez* sintagmako ardatza, ezabaturik dagoen *liburu* izena da, haren aurrekaria aurreko perpausaren dago-klarik.

Horrelako perpausetan erlatiboari lotzen zaion determinatzailea artikulua ez ezik, erakuslea edo *bat* edo *batzuk* bezalako bat izan daiteke, bai eta zenbatzaile bat ere:

(80) a. Nik erosi nituen bi liburu, eta [[zuk ekarri zenituen] beste hiru] hartu zituzten.

b. Patxiren liburua, eta [[zuk ekarri zenidan] hura] ere hartu nituen.

Horrelako perpaus erlatiboek ez dute gramatikaren aldetik arazorik sortzen, ardatza dutenen ezaugarriak baitituzte.

2.2.13.2. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoak

Gorago ikusi perpaus erlatiboetan interpretazioa testu ingurumenak ematen zuen, ardatz ezabatuak baitzuen aurrekari bat lehenagotik aipatua. Baina ardatzik gabe agertzen diren perpaus erlatibo guztiak ez dira horiek bezalakoak. Beha diezaiogun adibide honi:

(81) a. Gose denak jaten du.

Adibide horretan ezin esan dezakegu aurrean dagoen, edo kontestuan aipaturik dagoen, aurrekari batek gorputz eman diezaiokeela perpaus erlatiboaren ardatz isilduari. Hargatik, perpaus hau batere solas edo testu ingurumenik gabe esanik ere, ez dugu arazorik ulertzeko. Interpretatzerakoan, ingurumen lexikalaren eta sintaktikoaren arabera, ohiko balio eta ezaugarriak emaiten zaizkio isildurik dagoen ardatzari, esan nahi baitu balio kanoniko bat. Guk *erlatibo generikoak* esanzen diegu gisa horretako izen sintagma bati gorputz emaiten dioten perpausei.

Perpaus horiek berbiziko garrantzia dute euskaran, maiz eta maiz erabiltzen baititugu.

- b. Dakienak esan beza!
- c. A, dakizkizunak banekizki!

Gutiz gehienetan artikularekin agertzen badira, beste determinatzaile bat ere ohar dezakete erlatibo generikoek: *bat, batzuk, oro, ... Guzti* ere, hau artikularekin batean, erabil daiteke haietan:

- (82) a. Dakien batek esan dezala!
- b. Izena duen orok izana ba omen du.
 - c. Bizirik utzi zuen orduan, baina soinekoetaraino zituen guziak ebatsi (*Zerbitzari, Bahnar deitu sulbaiak*).

Partitiboa ere maiz erabiltzen da erlatibo horietan:

- d. Gertatzen ez denik ez da.
- e. Zerorrek zure begiz ikusi ez duzunik ez aipa.

Superlatibo erlatiboa deitu ohi den *-eN* atzizki mailakatzailerako partitiboan den izen sintagma batekin erabiltzen denean, hau *izan* bezalako izate-aditza duen perpaus erlatibo batek lagun dezake:

f. Gizonik handiena ---> Den gizonik handiena.

g. Ur handiena itsasoa da ---> Inon den urik handiena itsasoa da.

Batzuetan partitiboa zuzenean lotzen zaio perpaus erlatiboko aditzari, esapide berezia osatuz:

h. Denik eta ederrena.

Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoei badute ardatza agerian dutenek ez duten berezitasun formal bat: artikularekin agertzen direnean haien barneko osagaiak aditzaren eta artikularen eskuinean ager daitezke, hauen segidan. Ardatza duten erlatiboekin ikusi dugu usajaz kanpoko jokabidea zela hori, nahiz bakan agertzen den testuetan (ik. 2.2.5). Hona zenbait adibide erlatibo generikoei:

(83) a. [Andaluztarrek ixil-mixil esan dautsona markifarrari] da, alkar ilten ibilli barik, baratoa erdi-bana artzia obeto ez ete deritxon, eta bestiak baietz ba (Kirikiño, *Abarrak I*, 95).

b. [Haurteki dena eziten], ezta bere mantarra xahurik ieikiten (A. Oihenart, *Proverbes*, 20).

c. Zuk esan biar etzenduban ondo azija bazengoz, [esan deustazuna aurkez aurke, edo neure musu garbijetan]; guzurra dinodala, asto andi bat nasala (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 49).

Perpaus erlatibo horietan ordena hori, zilegi da, eta ez da ageri ardatza dutenetan bezalako zailtasunik.

2.2.13.3. Erlatibatzeako eskala erlatibo generikoetan

Ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoetan are gogorrago gertatzen dira erlatibatzeako eskalari dagozkion zailtasunak (ik. 2.2.6.1): esan daiteke haietan osagarri gramatikalak bereziki erlatiba daitezkeela, eta oroz gainetik subjektuak, objektu zuzenak, eta osagarri datiboak.

ERGATIBOA:

(84) Behin ehatsi duenak bitan egin dezake.

ABSOLUTIBOA:

(85) a. Biziko denak ikusiko du.

b. Ikusten dudana mintzo naiz.

DATIBOA:

(86) a. Sagarrak gustatzen ez zaizkionik ez da.

b. Barka biezadate gezurra erran didanek.

Beste kasuetan, ordean, erlatibakuntza ezinezkoa da. Har ditzagun adibidez lekuzko kasuak:

INESIBOA:

(87) a. *Bizi naizena ederra da.

ADLATIBOA:

b. *Joaten naizena urrun da.

Ikus dezakegunaz, gisa horretako aurrekaririk gabeko perpaus adberbial generikorik ez daiteke era.

Horrelako tokizko adizlagunak modu horretan erlatibatzean gertatzen den ezintasunaren gainditzeko, ardatz gisa izen generiko bat ematen da. Toki-kasuetan *leku* hitza erabiltzen da maiz ardatz gisa:

(88) a. Bada kastitatea begiratu nahi duenak ez du dantzatu ere behar, eta ez [soiñuak diren] lekura joan (P. Axular, *Guero*, 268).

b. [Arnoa den] lekuan da haragiaren desira desordenatua (Ib., 266).

c. Ura da [neke eta pena guziak onaren kutsurik gabe arkitzen diren] lekua (Aguirre Asteasukoa, *Erucusaldia I*, 177).

Moduari dagokionean perpaus adberbiala gauza bera gertatzen da. Ardatzik gabe perpausa gaizki eratua da, ardatz gisa berriz, kontzeptua adierazten duen izen bat, *modu* adibidez, baliatzen da:

(89) a. *Hitz egiten duzunak harritzen nau.

b. Hitz egiten duzun moduak harritzen nau.

Denbora adierazten duten perpausak salbuespen dira alde horretarik izen ardatz agerikorik gabe ere beren balioa hartzen baitute:

c. Lagunak etorri zirenean gertatu zen.

(89c) ongi eratua da, eta interpretazio gardena du. Kontraste gogorra da (89a) eta (89b) perpausekin. Hain zuzen denborazko perpausak bereziak baitira alde horretarik, aparte tratatzen ditugu gramatika honetan.

2.2.13.4. *Predikatu osagarri diren ardatzik gabeko erlatiboak*

Perpaus erlatiboak, beste sintagma adjektibalak bezalaxe, predikatu osagarri izan daitezke:

(90) a. Haur horiek [ondoko eskolakoak] dira.

b. Langile hauek [aipatu nizkizunak] dira.

Kontuan har bedi (90b)ko perpaus erlatiboan subjektua (*langile hauek*) nahitaez perpaus erlatiboaren izen sintagma erlatibatuari dagokiola.

Zenhaitetan galdegai baten seinaltatzeko baliatzen da egitura hori:

c. Hango mintzaira da hobekienik dakidana.

d. Maddalen da lan hori egin behar lukeena.

Adibide horien pareko lirateke hauek, erlatibakuntzarik gabeko direnak:

e. Maddalenek egin behar luke lan hori / Maddalenek luke lan hori egin behar.

f. Hango mintzaira dakit hobekienik.

Badirudi horrelako itzulietan markatuago dela erlatibatzeke eskala. Halere, zailago bada haietan izen sintagma erlatibatua kasu adverbial batean izatea, ezin esan predikatu osagarri diren molde horretako erlatiboak alde bat ezin onartuzkoak direla:

- (91) a. Hau da ni bizi naizen etxea.
b. Hango etxea da ni bizi naizena.
- (92) a. Hura omen da datorren urtean joango zaren herria.
b. (?)Herri hura omen da datorren urtean joango zarena.

Bi adibide pare horietan izen sintagma erlatibatua kasu adverbial batean da (inesiboan eta adlatiboan). (91a)n perpaus erlatiboak izen ardatz agerikoa du (*etxe*), eta (91b)n, berriz, ez, nahiz interpretazio arazorik ez den *etxe* izena izen sintagma subjektuan agertzen baita. Gauza bera gertatzen da (92) adibideetan, (92a)ko ardatza *herri* izanik.

Izen sintagma subjektua galdera izenordaina denean, predikatu osagarria den perpaus erlatiboa partitiboan joan daiteke, ondoko adibideetan bezala:

- c. Nor da (...) zordun eta obligatu ez zaizunik, behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik (P. Axular, *Guero*, 2).
d. Nor da, eskolarik gabe, liburu bat egiten duenik? (J. Etchepare, *Buruchkak*, 193).

Predikatu osagarriari dagokion subjektua lehen edo bigarren pertsonakoa denean, zilegi da perpaus erlatiboko aditzean araberako komunztadura agerraraztea:

- (93) a. Ni naiz lan hori egin behar nukeena.
b. Zu zara zere buruba ezin erremediatu zenazekena (J. R. Lakoizketa, *Euskal testuak*, in *FLV* 66, 1994, 356).
c. Baña ni naz gizon baketsuba, eruapen andikua, dongaro enzun arren, ez dakidana dongaric egiten (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 49).

Esan beharra dago komunztadura hau ardatza agerian duten predikatu osagarrietan ere gertatzen abal dela:

- d. Ni naiz zurekin konfesatu naizan emakume ura (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 170).

2.2.14. Perpaus erlatibo arruntak aposizioan

2.2.14.1. Alboko aposizio arruntak

Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatiboak aposizioan ere erabil daitezke. Aposizioan diren sintagmek ez ohi dute ageriko ardatzik, baina aurretik aipatua den izen sintagma bati buruz zuzenduak dira eta alde horretarik aurretik kanpoko ardatza badutela esan daiteke. Horregatik horrela (*kanpoko ardatza*) esanen diogu hemen perpaus apositiboaren ezkerrean agertzen den izen sintagmari.

Garrantzi handia dute gisa horretako aposizioko perpaus erlatiboek, euskaran maiz eta maiz erabiltzen baitituzte idazleek.

Kontsidera adibide hau:

(94) Gizon hura, askotan gure aitarekin mintzatzen zena, oso handia zen.

Adibide horretan, aposizioan den perpaus erlatiboak ez du ardatzik, baina ezkerrean den *gizon hura* sintagma kanpoko ardatzari dagokio.

Aposizioan den perpaus erlatiboa, kanpoko ardatzari hurbiletik darraikio, eta kasu komunztadura jokarazten da orduan bi sintagmen artean, hala nola egiten baita beste sintagma apositiboekin (*EGLU 1*, 312):

(95) Zuhaitz tipiak, [oraino errorik ez tutenak], ezin athera ditzakezu, zer eginen duzu bada errozta, eta handi ditezenean? (P. Axular, *Guero*, 57).

(96) Bake handia du konzientzia onak, [Iainkoaren lege sailduari darraikanak] (Ib., 289).

(97) Zoazte (...) su eternalera, [akhabatuko ez denera] (Ib., 375).

Ikus daiteke (95-97) adibideetan, nola perpaus erlatiboari lotzen zaion hondarkiak sintagma kanpoko ardatzaren kasua duen: absolutihoa (95), ergatiboa (96), adlatiboa (97).

Izenlagunek ere har ditzakete erlatibo apositiboak:

(98) Jende gazte arinen, [zenzuz baino zangoz fidago direnen] ofizioa da dantza (P. Axular, *Guero*, 268).

Zenbaitetan, ahozko euskaran bereziki, perpauk erlatiboan absolutiboaren hondarkia agertzen da, kanpoko ardatza beste kasu batean izanki.

(99) Gure Jainkoak, [beti xuxen dabilana], ongi gidatzen baitu, suertatu zen konde hori (...) kaperat (sic) ailiatzea (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16).

Adibide horretan kanpoko ardatza ergatiboan da perpauk batean (*Gure Jainkoak*) perpauk apositiboa, berriz, absolutiboan da.

Olerkari zenbaitek baliatu dituzte horrelako itzuliak:

(100) Hunek dote eraman Philip ederrari
[Frantziako tronuan behar zena jarri] (J. M. Hiribarren, *Eskaldunac*, 1448).

Jokabide hau, tradizio nagusiaren aurka doana, ez da gomendatzekoa.

2.2.14.2 Aposizioko perpauk erlatibo gibeleratuak

Batzuetan, kanpoko ardatza mugagabeen dencan bereziki, aposizioan den perpauk erlatibo kanpoko ardatzetik bereiz ager daiteke, perpauk matrizearen bukaeran. Horrelakoetan, aditza, adibidez, agertzen ahal da kanpoko ardatzaren eta perpauk bukaeran den perpauk erlatibo apositihoaren artean.

(101) *Gizon batzuk* etorri ziren [aspaldi ikusi ez nituenak].

Adibide horretan, *gizon batzuk* da kanpoko ardatza, baina erlatibo apositi-boa ez da haren ondo-ondoan agertzen, baizik eta perpaukaren bukaeran, kanpoko ardatzaren ondotik aditza kausitzen delarik. Perpauk horiei *Aposizioko perpauk erlatibo gibeleratuak* erranen diegu hemen.

Egitura horretako perpauk perpauk erlatibo apositiboak izanki, artikulua (absolutiboan) hartzen dute hondarkian, edo partitiboa:

- (102) Guthartean bada *asko indiano* Ameriketarik ethorririk, [erran dezaketenak aurkhintza hetan egin duela uria berrogoi eta egunez lerroan] (J. Duvoisin, *Labo-rantzako liburua*, 20).
- (103) Egungo eskoletan *asko eta asko* ikhasten da, [bertze orduz ikhasten ez ginuenik] (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaraziak*, 186).
- (104) *Debru franko* badela [saindu itxura hartzen duenik] (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 11).
- (105) *Hainberitze lan mota* baitauka lurak, [begi ala eskuak hain xuxen jarraikitzea galdatzen dutenak] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 192).

Gaurko euskara mintzatuan, ordean, honakoa entzuten da zenbaitetan:

- (106) *Lagun batzuk etorri ziren [aspaldi ikusi ez nituela].

Hemen bukacrako perpausa ez da perpaus erlatiboa, baina *-eLA* perpausa, horrelako erabilerarik ez duena euskal literaturaren tradizioan, eta horregatik gaitzesten duguna. Halakoen ordean perpaus erlatibo aposatuak erabil daitezke beti, edota, Iparraldean bezala *BAIT-* aurrizkia duten perpausak (ik. §2.4):

- (107) a. Lagun batzuk etorri ziren [aspaldi ikusi ez nituenak].
b. Lagun batzuk etorri ziren [aspaldi ez baintuen ikusi].

Perpaus apositibo gibeleratua ez da ergatiboan, datiboan edo inesiboan izaten ahal, kanpoko ardatzak horrelako kasua duenean ere:

- (108) a. *Gizon batek hitz egin zidan ongi ezagutzen duzunak.
b. *Gizon bati mintzatu nintzaion ongi ezagutzen duzunari.
c. *Etxe batean bizi zen, leihorik ez zuenean.

Aurreko adibideetako perpausak aditzaren ondolik etena eginez (bi puntu balira bezala), eta beraz perpausaren batasuna hautsiz, onar daitezke; bestela ez.

2.2.14.3. Kanpoko ardatzaren eta apositzioko perpaus erlatibo gibeleratuaren arteko kasu komunztadurarik eza

Aurreko lerroaldian adieraziak kontuan hartuz, esan dezakegu kanpoko

ardatz batek perpaus apositibo gibeleratu bat hartzeko, edo absolutiboan, edo partitiboan, izan behar duela. Eta hala izaten da komunzki.

Euskara mintzatuan, halere, gertatzen da batzuetan, kanpoko ardatza adizlaguna denean, absolutiboan den erlatibo libro apositibo batekin agertzen baita. Orduan, kaupoko ardatzaren eta sintagma apositiboaren arteko kasu konkordantzia hautsirik gelditzen da:

- (109) a. [Gizon batekin] hitz egingen dut [kontu horiek ongi ezagutzen dituen].
b. [Herri batera] heldu nintzen [batere ezagutzen ez nuena].
c. [Ixtorio sail] bat ere eta hoberenetarik, badut hartua, [lauetan hogoita bi urteko xahar maite baten ganik], [Saran sortua], [Zugarramurdin zagona orduan] (M. Ariztia, *Amatoren uzta*, Aintzin solasa).

Jokabide hau ez darraio tradizioari, eta ez dugu gomendatzen idazketa jasoetan bereziki.

2.2.14.4. Erlatibatzeko zailtasunak eta erresuntiboen erabilera perpaus erlatibo apositiboetan

Aposizioan diren perpaus erlatiboetan, ardatzik gabeko beste perpaus erlatiboetan gertatzen den bezala, gogortzenago dira erlatibatzeko eskalan diren zailtasunak. Halere kanpoko ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoei konparatuz (2.2.13.3), murrizketa ez da hain urrun joaten eta oraingoetan adizondo diren sintagmak erlatiba daitezke:

- (110) a. Ba ote da bazter bat ez naizena izan? (L. Villasante, *Sintaxis de la oracion compuesta*, 96).
b. Ethorriko da denbora. deabruak laguntzarik egingen ezterakuna (P. Axular, *Guero*, 333).

Adibide horiengatik, aski zail da horrelako erlatibo aposatuaren erabiltzea, zenbait hiztunentzat bereziki. Horregatik menturaz, erresuntiboen (2.2.7.2) baliatzeko joera handiagoa izaten da aposizioan diren erlatiboetan, izen sintagma erlatibatua adizlaguna izanik erlatibatzeko zailtasuna markatuago delarik bereziki:

- (111) a. Sacramento onen bidez barkatu zizun *bekatu jatorrizko, edo originala*, [guziok *arekin* jayotzen gerana] (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 193).

Adibide horretan *arekin* izenordain erresuntibo gisa agertzen da. Kontuan har, kasu sozlatiboan dela, eta beraz erlatibatzekeo zailtasuna dakarren kasu batean. Erresuntiborik gabe ezin ulertuzkoa litzateke perpaus erlatibo aposatua:

- b. *Sakramentu honen bidez barkatu zizun *bekatu jatorrizko, edo originala*, [guziok jaiotzen gerana].

2.2.15. BA- aurrizkia perpaus erlatibo ardatz agerikorik gabekoetan

Ikusi dugu gorago perpaus erlatiboetako aditz trinkoei ez ohi zaiela BA-aurrizkia lotzen (ik. 2.2.10). Haatik, ardatzik gabeko perpaus erlatiboetan doi bat arintzen da joera hura, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (112) a. Baiña horako-hor dathorren gizona duk sakelan diru asko baduena (J. Goyhetché, *Fableac*, 153).
- b. Nahiz ukhan ez dutena, galtzen dute badutena, eta gaur bizitzekoa ausarki bazutenak, aurkitzen dire biharko kolpez errumesak (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 27).

Iparraldeko bi adibide hauctan ikusten dugu nola *izan* /**edun* aditzari dagozkion adizkera trinkoei BA- aurrizkia lotu zaien, ardatzik gabeko erlatiboan. Esan gabe doa, aurrizkirik gabe era zitezkeela perpaus horiek, eta hori da hain zuzen joera nagusia euskalki guztietan.

Beste batzuetan, ordean, BA- aurrizkiak balio berezia izan dezake, edo kontraste bat markatzeko, edo perpausaren esanahia ongi finkatzeko, hala nola ondoko adibidean:

- c. Oro badoatzi. Deus badagonik (J. Etchepare, *Buruchkak*, 41).

Adibide horretan BA- aurrizkia beharrezkoa da perpausari bere balioa emateko eta perpausari behar duen interpretazioa emateko: deusik ez da, aldatu edo mugitu gahe, den bezala edo den tokian egoten denik.

Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatiboetan ere, hobe litzateke *BA*-aurizkia balio berezia duen kasuetan baizik ez erabiltzea.

2.2.16. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo subjektiboak

Perpaus erlatibo subjektiboak (2.2.12) ere ager daitezke ondotik ardatz agerikorik izan gabe: edo ardatz horren erreferentzia kontestuak emanik, edo kanonikoa izanik. Maizenik *izan* loturazkoa da aditza eta izen sintagma subjektua erlatibatua:

(113) a. Hila zelakoari (...) laguna heldu zaio (Zalduby, *Poesiak*, 764).

b. Orzaizen, ez nehon, ez da bat, haren etsai zirelakoetan, gizon agertzeko on denik (J. Hirriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 114).

Egitura horiek horrelako perpaus erlatibo subjektiboak baliatzen dituzten euskalkietan aurkitzen dira, noski.

2.3. ZEIN-erlatiboak

2.3.1. ZEIN-erlatiboen ezaugarriak

Ikusi dugun bezala euskarak berezko jokabidea du perpaus erlatiboen eratzeko. Horrek ez du esan nahi, halere, ohiko erabide horretaz landa beste modurik ez dezakeela halia. Hain zuzen, euskal literaturaren hastapenetik beretik, idazleek, euskalki guztietan eta mende guztietan, salbu beharbada mende honetan berean, perpaus erlatibo arrunten ondoan, beste batzuk ere erabili izan dituzte, hauetan aurrekari batekin uztarturiko izenordain erlatiboak agertzen baitira.

Perpaus erlatibo haien ezaugarri nagusiak perpaus arruntekin erkatzen badira hauek dira:

- galdera-izenordain batzuk (*zein, non*) izenordain erlatibo gisa baliatzen dira, perpaus erlatiboaren hastapenean agertzen direla;

• izenordain erlatiboak aurrekaria badu, perpaus erlatibotik kanpo agertzen dena perpaus erlatiboa posposatua izanik;

• perpaus erlatiboetako menderagailua *BAIT-* ere izan daiteke, eta ez *-eN* bakarrik.

Deituraren errazteko *ZEIN*-erlatiboak deituko ditugu perpaus erlatibo hauek. Ondoko hau da *ZEIN*-erlatiboen egitura:

(114) [[_{IS} AURREKARIA_A] +KASUA] [_P ED. *ZEIN*+KASUA ... ADITZA-*EN* edo *BAIT-* ...]

Har dezagun adibide bat.

(115) *Zugarramurdiko artzainek*, [zeinen nagusiak komentuko fraideak baitziren], franzes arthalde hori, inguruan harturik, erematen zitayan, aitzinean, fraiden komentura (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 73).

Perpaus horretan, ergatiboan den izen sintagmaren ondotik (letra etzanetan emana) perpaus erlatibo bat, kortxeten artean emana dena, agertzen da. Ikus dezakegu hartan:

- *zeinen*, genitiboaren marka dakarren izenordainarekin hasten dela;
- haren barneko adizkera jokatuak *BAIT-* aurrizkia dakarrela;
- izen sintagma aurrekaria (*Zugarramurdiko artzainek*) ergatiboan dela;
- perpaus erlatiboa aurrekariaren eskuinean dela, honetarik kanpo.

Auitzek diote, eta itxurak hala dio, perpaus erlatibo horiek erdal eredu bati jarraiki moldatu dituela euskarak, hizkuntza idatzian eta hizkuntza jasoan baliatzeko bereziki. Hala izanik ere, esan daiteke aspaldi beretu izan dutela euskal idazleek erabide hau, euskalki guztietako testu idatzietan aurkitzen baita.

Hona zenbait adibide idazle desberdinetarik hartuak (izen sintagma aurrekaria azpimarratua da, eta *ZEIN*-erlatiboa kortxeten artean emana izenordain erlatiboa letra etzanetan izanki).

- (116) a. Dantziaren jiraak bere guztiak dira ezkererakuak, [zein dan, pausu egiteko, ta ibiltzeko, alde madarikatuba Eskritura Sagraduban] (Fray Barrolome. *Olqueetas*, 139).
- b. Huna Aita-Sainduaren arrasta bat, [zoinak eskumikoz joiten baititu, ene nahiaren kontre Lur Sainduan baratzen direnak] (F. Laphitzc, *Bi saindu hes-cualdunen bizia*, 63).
- c. Zoaz madarikatuok nire begien aurretik, zoaz Şekulako infernuko sutara, [Zeñ dagoan prestatuik infernuko demoniñoenzat] (B. Olaechea, *Doctrina cristia-nea*, 7. Artik.).
- d. Nola ageri baita Ejiptoko Piramidetan, [zein eragin baitzituen errege Faraonek], iendeak alfer etzeudezin amoreakgatik (P. Axular, *Guero*, 15).
- e. Gaurko ebanjeluan daukagu Jesukristok eginiko lenengo mirarija, [zeinegaz asi zan mundubari agertuten jaungoiko benetakua zana] (P. Astarloa, *Berbaldiak*, I, IX).
- f. Buenos-Ayresetako lur gorian izan bedi gure gizaldearentzat Eskual-etxea bigarren ohandze bat, [zointan amaren menetik urrundu gazteek haren mintzoa baitute entzunen] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 212).
- g. Zer dala uste dezu infernua? Ura da Demonioaren ta bere serbitzarien lize izugarri bat [non betikotasun guzian egon bearrak diran oñazez lertzen] (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 177).
- h. Zein da bada gizonaren azken fina? Azken fina deitzenda gauza deseatu-gura, [zein logratuas geros, eztuen yago deseatzan batek] (J. Lizarraga, *Doctrina christoaren cathechima*, 44).
- i. Neure adeskidia, igaren urthian egin dut, eta ezarri argira librutobat euskaraz, [zoinen izena baita Onsa hilceco bidia, eta konprenitzen baititu onsa hiltzeko moyenak, han ageriden bezala] (J. Tartas, *Occupatione devotaq, Iracurtçaitiari*, 8).
- j. Au berau eukan Jangoikuak Adani iratsi eutsan herbeetiak, [zeñek izan biar ehan berbeeta oso edo perfekzino andikuak] (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 186).

Azken mende honetan, bai Hegoaldean, bai eta Iparraldean ere, franko hotz agertu dira idazle gehienak horrelako erlatiboek buruz, eta guti erabili dituzte. Gramatikari anitzek ere arbuaiatu izan dituzte, baiarik eta euskarak bere berezko erlatiboak dituela, eta ez dela egoki erdal egitura bati horrela atean zabal-tzea.

Edozein modutan ere, ez da dudarik euskal literaturan bere tokia egin duela erabide horrek, eta komeni da gramatika honetan piska bat azter dezagun.

2.3.2. *Menderagailuaren forma*

Perpauis erlatiboak mendeko perpauisak dira, eta euskarari nahitaezkoa da izan dezaten mendeko perpauisetako aditz jokatuak menderagailua. Menderagailua, gorago ikusi dugun bezala, bi eratakoa izan daiteke hemengo erlatiboetan: *-eN* erabiltzen da bakarrik mendebaldeko euskalkietan, *BAIT-* aurrizkia, berriz, ekialdekoetan.

Adibidez, goragoko adibideetan ikus dezakegu *BAIT-* aurrizkia dutela (116b, d, f, i), adibideek, Iparraldeko autoreen lanetarik hartuak, eta *-eN* berriz, (116a, c, e, g, h, j) adibideek, Hegoaldeko testuetatik ateratutak. Zenbait euskalkietan, hala nola, J. Lizarragaren lekukotasunaren arabera, hegoaldeko nafarreran, bi menderagailuak erabiliak izan dira.

Esan gabe doa Hegoaldeko euskalki gehienetan iraganean menderagailua ez dela agerikoa, *-N* iraganeko markarekin bat egiten baitu.

- (117) Sinistetan dot Aita Jangoiko guztiz poderoso, Zeruaen, ta Lurraen Kriadoreagan: eta bere seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan, zeñ sortuzan Espirituaen obraz, ta graziaz (B. Olacoea, *Doctrina cristiana*, *Sinistan dot* oitotza).

2.3.3. *Izenordain erlatiboaren forma*

Izenordain erlatiboak galdera izenordainen bidez eratuak dira. Horretarako, haatik ezin balia daiteke edozein galdera izenordain baina xoil-xoilik *zein* edo *non* forma oinarrian dutenak. *Nor* eta *zer* izenordainak, bereziki, ez dira erabiltzen aurrekaria duten perpauis erlatiboetan (korrelatuetan ordean, bai (ik. 2.5)).

Horrela, ondoko perpauisetan (118) lehenbizikoa gaizki eraturik dago, izenordain erlatibo gisa forma desegokia (*nori*) baitu; bigarrena, aldiz, esan nahi baitu *zeini* forma duena, gramatikala da:

- (118) a. *Orduan agertu zen gizon bai [*nori* beso ezkerrean falta baitzitzaion].
 b. Orduan agertu zen gizon bai [*zeini* beso ezkerrean falta baitzitzaion].

Hemen aipatzen ditugun izenordain erlatiboak anaforikoak dira, horrek esan nahi baitu gaineko perpausean izan behar dutela erreferentzia ematen dien izen sintagma bat, aurretik agertzen dena, eta hain zuzen *aurrekaria* deitzen dena. Horrela (118b) adibidean *zeini* izenordain anaforikoa da eta erreferentzia ematen dion *aurrekaria gizon bat* sintagma da: «Orduan agertu zen gizon bat [*zeini* beso ezkerre falta baitzitzaion]».

2.3.3.1. ZEIN formako izenordain erlatiboak

Zein izenordain erlatibo gisa erabilia denean bi moldetan agertzen da:

- edo hutsik, mugagabeko hondarkiak hartzen ditucla deklinatzerakoan,
- edo artikuluekin, numeroa hondarkian agerrarazten dela.

Adibidez, XIX. mendea arteko testamentu berriaren itzulpenetan, Johanes 6, 42, izenordain erlatiboaren bidez itzulia delarik, ikus dezakegu Leizarraga alde batetik eta Haraneder eta Duvoisin beste aldetik ez direla berdín jokatzen *zein* izenordain erlatiboa erabiltzerakoan:

- (119) a. Leizarraga: Ezta haur Jesus, Josephen semea, *zeinen* aita eta ama ezagutzen baititugu?
- b. Haraneder: Ez da hori Jesus Josephen semea, *zeinaren* aita eta ama ezagutzen baiditugu?
- c. Duvoisin: Hori ez da Jesus, Josepen semea, *zeinaren* ait-amak ezagutzen baititugu?

Leizarragak mugagabeko hondarkia lotzen dio izenordain erlatiboari (*zeinen*). Aldiz, Haranederrek eta Duvoisinek artikulua singularrarekilako hondarkia (*zeinaren*).

Ez du ematen formazko desberdintasun horri ezer darraikiola esanahian edo egituran, hots formazko aldaki hutsak dira bi moldeak, autoreen arabera kanbiatzen direnak gehienetan, non ez dituen autore berak bi moldeak erabiltzen, aldaera gisa, edo, Leizarragak bezala, kontestu morfologikoaren arabera. Ekialdean (Leizarraga, Oihenart, Tartas, Lopez, Lizarraga Elkanokoa, ...) eta mendebaldean (Fray Bartolome, Añibarro, Bartolome Ollaechea, Astarloa, J.A. Mogel, ...) *zein* da literaturan gehienik erabilia izan den forma.

Zeina(k), berriz, XVIII. mendetik aitzina erdialdeko euskalkietan bereziki baliatua izan den forma da. XVII. mendean, Axularrek eta Materrek *zein* erabiltzen bazuten beti, bi formak (*zein* eta *zeina(k)*) aurkitzen dira Etxeberri Ziburukoaren eta S. Pouvreuren lanetan. Ondoko mendean, berriz, Lapurteran alde bat nagusitu da forma artikuluduna Lapurdin (Etxeberri Sarakoa, Larregi, Lapitz, Duvoisin, Elizanburu, ...). Gipuzkeraz ere erabili izan da azken forma hau (Larramendi, Arzak, Andia, Lardizabal, ...). Leku kasuetan *zeinean* agertzen bada batzuetan singularrean, *zeineko*, *zeinetik* edo *zeinera* nekez kausi daitezke literaturan izenordain erlatibo gisa erabiliak. Esan behar da, bestalde, *non* saileko izenordainak ere erabil daitezkeela leku izenordainen adierazteko (ik. (138)ko adibideak).

- (120) a. *eliz au, zeñari eman-zioen gure gurasoak ain beste urre* (M. Larramendi, *El impossible vencido*, 273).
- b. Bestea zan Akinoan, *zeñarekin* pakean eta amorio onean bizi zan (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarr. berr. condaira*, 273).
- c. Franziscok egin zituen millagro asko, aur bati itzuli zion ikustea (...), sendatu zuen beste bat biotzezko miña egiten zizaiona, bular gañean jarriaz larru-orri bat, *zeñean* izkribatu zuen orazio bat (M. A. Antia, *Aita Franzisko Asiskoaren Bizitza*, 161).

Gorago ikusi adibideetan ageri den bezala, *zein* izenordainak nahitaez perpaus erlatiboaren aurreko posizioan agertu behar du. Perpaus erlatiboko aditza (menderagailua dakarrena), berriz, haren ondotik (bigarren tokian) ager daiteke, edo urrunago, perpausaren erdian edo bukaeran. Ez da, beraz, perpaus erlatiboko aditzaren tokiari buruz gramatika lege zorrotzik, eta askotan euskaran gertatzen den bezala estilo hautuen arabera erabakitzen da kontu hau. Halere seinala dezagun oro har halako joera bat badela aditza izenordain erlatiboaren ondotik emateko (120a, c) adibideetan bezala. Baina bestelako bideak inola ere ez ditu itotzen joera horrek, (120b) adibidean ikus daitekeen bezala, edo gorago (116f-h) adibideetan.

2.3.3.2. ZEIN izenordainu eta numero komunztadura

Mugagabeen deklinatua izanik ere, *zein* izenordainak, aurrekariak duen numeroa atxikitzen du, eta araberan egiten da aditzarekilako komunztadura perpaus erlatiboan. Beha ondoko bi adibide hauei:

- (121) a. ... emaiten baiteraku (Jaingoikoak) behar dugun nabusia eta erakuslea, zein baita konzientzia (P. Axular, *Guero*, 273).
- b. Arimak bere penak bezala, arimaren potentziek eta botherek ere, *zein* baitira adimendua, borondatea, eta memoria izanen dituzte bere pena moldeak ere (Ib., 377).

Lehen adibidean (121a), *zein* izenordainaren aurrekariak *nabusia* eta *erakuslea* izen sintagmak dira. Bi sintagmak singularrak dira eta erreferentzia bera dute. Izenordainak singularrari dagokion tasuna badu, beraz, aurrekarietarik harturik. Aditzak, ondorioz, singularreko komunztadura du (*baita*) *zein* izenordain erlatiboarekin, nahiz honek berak mugabagean egonik numero markarik ez dakarren.

Bigarren adibidean (121b), *zein* izenordainaren aurrekariak *arimaren potentziek* eta *botherek* dira, erreferentzia berekoak direnak, baina pluralekoak. *Zein* izenordaina mugagabeen gelditzen da, baina pluralaren ezaugarria beretzen du, halere, aurrekariak emanik. Ondorioz, aditzak pluraleko komunztadura du harekin (*baitira*).

Izenordain erlatiboarekilako numero komunztadura hau obligatuzkoa da, izenordaina izan dadin mugagabeen ala ez.

Hegoaldeko euskalkietan *zeintzuk* forma erabiltzen dute batzuetan aurrekariak edo aurrekariak pluraltasuna badakarte. Hona adibide batzuk Fray Bartolomearen lanetarik ateraiak:

- (122) a. Ta ekarten ditu exenpluzat San Carlos Milangua, San Ignacio Loijolakua, ta Santa Isabel Ungaijaco Erregina; *zeintzuk* nozbait jokuan, edo beste gauza inozenteetan dibertituten zirian, Jaungoikuaren adiskide, ta Santu izatia atzeratu bagarik (Fray Bartolome. *Olgueetac*, 18).
- b. Eureen Bigireetako musika, ta kanta indezente, ta odolberozailiak gaiti, *zeintzuk* dirian luxurijaren azogia, ta aragijaren sugarria (Ib., 118).
- c. Eleisiaren neurgarri, edo Canon, ta Congregazinoe sagradukuaren ordena asko bere izenteetan ditu Aita Santubak berak; *zeintzubetan* eragozten jakuen Eleisa-gizonai, ez bakarrik alako lekubetan dantzian egitia, ez bada baita bes-teen naasteko dantzia berarjaz ikustia bere, pekatu mortalaren beeko agindutza (Ib., 172).

2.3.3.3. *ZEINA(K) formako izenordainak*

Esan gabe doa, *zeina(k)* erabiliz gero, numero komunztadura agerikoa dela izenordainan berean, eta ezinbestekoa dela aditzarekilako numero komunztadura. Ondoko adibidean pluraleko hondarkia du izenordainak:

- (123) Nik, gibelaxago gelditua nindagon lekhitik, ikhusten ditut orduan sasitik atheratzen, lehenik, bi zizpakanioen muthurrak!... *zeinek*, aihortzen dut, ez baininduten guti izitu... eta, gero, bi gizon bizardun, *zeinek* gutiago izitu baininduten, batcan ezagutu nuclakotz nere anaya (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 52).

(123)ko adibideak ergatiboan izanki, ez da ageri ea egiazki *zein* artikularekin erabilia denetz haietan (pluralean izanik, noski), ala mugagabeen. Haatik, badakigu, Elizanbururen kontakizunean izenordain erlatiboa beti artikularekin erabilia dela, eta pentsatzekoa da, beraz, adibide horietan ere horrela dela.

Izenordain erlatiboa artikularekin erabilia denean, anbiguitateak sor daitezke formaren aldetik, ondoko adibideetan bezala:

- (124) a. Hartu zituen bere leheneko armak, *zeinak* baitziren makilla bat eta habaillak (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, I, 278).
- b. Eguerdiko inguruan, ikhususik Mattin aldeko landan, hura ere, ni bezala, behi zain zagola, eman nioyan bere liburua eta, denbora berean, emaztekiaren bi soseko madarikatua, *zeinak* erretzen baitzarotan sakela (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 24).

(124a)n *zeinak* izenordainak numero plurala eta kasu absolutiboa du; (21b)an aldiz, numero singularra eta kasu ergatiboa. Dakigun bezala, anbiguitate hau artikulua duten izen sintagma guziekin gertatzen da.

Zeina(k) izenordaina erlatiboen eratzeko erabiltzen denean, ongi bereizten dira formalki *zein* izenordainari dagozkion erabilera desberdinak. Galderazkoa denean, edo gradu markatzaile denean harridurazko perpausetan, mugagabeen da *zein*; erlatiboa denean, aldiz, artikularekin agertzen da. Ondoko adibidean bi erabilera kausitzen ditugu perpaus berean:

- (125) badiat beldurra ez dakikan, behar bada, *zein* abilki yokatu zen behin Sarako yaun hauzaphez bat, *zeinak* izena baitzuen Erremundegibehere (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 71).

Hitz batean, *zeina(k)* forma izenordain erlatiboari baizik ez dagokio.

2.3.3.4. ZEIN(A) izenordaina eta pertsona komunztadura

Zein(a) izenordain erlatiboak aurrekaria behar du. Ez da, beraz, aurrekari-rik gabeko *ZEIN*-erlatiborik.

Zein(a) izenordainak numeroari dagozkion tasunak hartzen baditu, gutitan agertzen da pertsonari dagozkionak bereiturik. Halere ez du iduri ezintasunik baden horretan. Adibidez, Etxeberri Sarakoak bere gramatikan, *ni, zeina bainaz* bezalako formak eskaintzen ditu, orduan *zeina* izenordainak lehen pertsona baitu aurrekari gisa, araberako komunztadura sortuz ondorioz perpaus erlatiboko aditzarekin (*naz*). Bere testuetan ere eskaintzen ditu horrelako adibideak, hala nola ondoko honetan:

(126) Zer erranen dut bada nik, [zeinak hartu baitut eskualdunei dagozten materiari-
k loriosen]? (J. Etxeberri Sarakoa, *Eskuararen hutsapenak*, 123).

(126) adibidean, aurrekaria lehen pertsona singularrekoa da (*nik*), eta perpaus erlatiboan aditza (*hartu baitut*) lehen pertsonan komunztatzen da izenordain erlatiboarekin (ergatiboan izanik hau: *zeinak*).

2.3.4. Izenordain erlatiboari dagozkion kasu markak

Erlatibo arruntetan izen sintagma erlatibatua ezabatua izanik, eta harekin batean haren kasu marka, deusek ez du agerian erakusten zer funtzio duen sintagma erlatibatu hark perpaus erlatiboan. Izenordain erlatiboa erabilirik ordenan, kasu marka agertzen ahalko da haren ondotik, eta beraz, pentsa daiteke ez dugula aurkituko horrelako erlatiboetan erlatibatuzko zailtasun berezirik, ez behintzat sintagma erlatibatuaren funtzioari dagokionik.

Hain zuzen, horrela gertatzen da: izenordain erlatiboa edozein kasutan ager daiteke *ZEIN*-erlatiboetan (salbu partitiboan). Gainera kasu gramatikal batean ez direnean izenordainak junta daitezke, ondoko adibideak erakusten duen bezala:

(127) Bada Iainko Aitari, *zeinaganik* eta *zeinez* eta *zeinenak* baitirade gauza guziak, eta Jesus Christ haren Seme gure Iaun eta redentoreari, eta Spiritu sainduari dela ohore eta gloria sekula sekulakotz. Amen. (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*. 39).

Hona aurrekoen landa beste zenbait adibide, izenordain erlatiboak duen kasuen arabera aurkeztuak (izenordainaren forma kontuan hartu gabe):

ABSOLUTIBOA eta ERGATIBOA

- (128) a. Cristok bauko Aitarik, edo Amarik? Jangoiko dan partez dauko Aita, Zeñ dan Aita Eternoa, eta eztauko Amarik, Gizona dan partez eztauko aitarik, ezpada Ama, eta da Maria Santisimea, Zeñek erabili eban bere Sabel Virginalean bedaratziz illabeteen, eta egin eban Gabon gabeen Belenen (B. Olaechea, *Doctrina cristiane*).
- b. Ikhas ezak salbatzeko artea, zeina baita gaiñerako zuhurtziaren Andrea (J. Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa*, 1, 8).
- c. Mira zazu zein urrun zaren oraino egiazko karitatetik eta humiltasunetik, zeinak ezpaitaki nihori haserretzen ez gogortzen bere buruaren kontra baizen (S. Pouvreau, *Imitationea*, 86).

DATIBOA

- (129) a. Nos Konzebidu, edo Sortuzan Jesu-Cristo? Martiaen ogeta bost garrenean, Zeñi esaten deusagun Andra Maria Mariko, edo Ama (B. Olaechea, *Doctrina cristiane*, *Eguneango cristinauaren exercicio*).
- b. Hiratzea estaltzen da berriz abere azpikoaz, zeinari ematen baitzayo, lehen erran den bezala, menaslora-uretik; eta hola-hola, hiratzea eta ongaria aldizkatuz, egiten da samatsa (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 161).

INSTRUMENTALA

- (130) a. Gauza hauk guziak deklaratu, erakutsi, eskribatu eta siñatu izan zaizkigu Testamentu hunetan, zeinez Jesus Christek bere Iainko Aitarean resumako heredero egiten baikaitu (J. Leizarraga, *Advertimendua*, 9).
- b. Eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, zeinetzaz mintzo baikara presenten (P. Axular, *Guero*, 128).
- c. Hala nola baita gure eskuara, zeinaz halaber iduritzen baitzait ausartki erran ditekeela (...) (J. Etcheberri Sarakoa, *Obra osoa*, 190).

GENITIBO EDUTEZKOA

- (131) a. Neure adeskidea, igaren urthian egindut, eta ezarri argira librubat cuskaraz, zoiñen izena baita Onsa hilceco bidia, eta konprenitzen baititu onsa hiltzeko moyanak, han ageriden bezala (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, Aitzin solasa).
- b. Ezen presentatu izan da ene aitzinean gau hunetan jaincoaren Aingeruá, zeinena bainaiz ni, eta zein zerbitzatzen baitut (J. Leizarraga, Ap ak. 27, 23).
- c. Gogo onez hartzen dut grazia, zeinaren bidez egiten bainaiz humillago (S. Pouvreau, *Imitationea*. 101).

GENITIBO LEKUZKOA

- (132) Orain alegeratzen naiz zuengatik sufritzen ditudan gauzéz, eta Christen affliktionén gainerakoak komplitzen ditut neure haragian, haren gorputzagatik, zein baita Elizá, Zeinetako ministre egin izan bainaiz (J. Leizarraga, Kol 24, 25).

SOZIATIBOA

- (133) a. Zer da pekatu Originala? Da pekatuá, Zeñegaz jaioten garean guztiok, eta jatorkun geure lelengo Gurasoetarik (B. Olaechea, *Doctrina cristianea*).
- b. Eta ezta kreaturarik batre haren aitzinean ageri eztenik: aitzitik gauza guziak dirade billuziak eta irekiak haren begietan zeinekin baitugu gure egitekoa (J. Leizarraga, Heb 4, 13).
- c. Nahi du izan dezagun bakea Jainkoarekin, zeinarekin izan baikare errekontziliatuak (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 159).

MOTIBATIBOA

- (134) a. Eta zu zarcla icnde hetarik, zeinengatik erraiten baitu Sofonias Profetak ... (P. Axular, *Guero*, 361).
- b. othoitz egiten drauagu barkatu nahi drauzkiguán gure falták, zeinakgatik hire iugemendura zordun baikara: eta barkamendu hunezaz nahi gaituan herio eternalera obligatuak garen obliganzatik deliuratu eta idoki (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, 6).

INESIBOA

- (135) a. Nahiz denbora hartan ez ziren bide hortan astean lau arima ibiltzen, ortzirarez salbu, zeinetan baita Doni Yoaneko merkhatua, fortunak nahi izan zuen, egun eta oren berean. kausi zadin gizon bat (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 2).

- b. Bestenaz banagoka zure hizkuntzari, len ere baño obekiago dakust alde oie-tako Euskaldunen itsumendea, *zeñean* darasaten, ezala gure Euskera, gauza andi, mee, goi diranak adirazteko (M. Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 278).

ABLATIBOA

- (136) Zeren nolako baita lurra, *zeinetarik* iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere (P. Axular, *Guero*, 143).

ADLATIBOA

- (137) Biharamunean itsasoaren berze aldetik gelditurik zegoen gendetzeak ikusi duenean ezen berze untzitxorik etzela han bat baizen, *zeinetara* haren diszipuluak sarthu izan baitziraden, eta etzela sarthu bere diszipuluekin Iesus untzitxora, baina haren diszipuluak berak ioan izan ziradela (J. Leizarraga, Jn 6, 22).

Leku-denborazko kasuetan *zeinean* edo *zeinetan* bezalako formak erabili orde, *non* forma ere enplegatzen ahal da izenordain erlatibo gisa:

- (138) a. Zoaze esatera nire anac Apostoluai ... doazala Galileara, *non* ikusiko naben (P. A. Añibarro, *Curutze santearen eracusaldia*, 33).
- b. ez-da urterik, *non* hor edo hemen zenbait buru galtzen ez-baita, eta aldi batzuez hainitz (J. Devoisin, *Laborantzako liburua*, 214).
- c. zure aita Jauna joan zen Donapalaiaora, *non* baitzen orduan Nafarroako parlamenta (P. Axular, *Guero*, 3).
- d. bere ama Maria geldituzela doncella oso eder mellarik gabe, nola kristalebat, *nondik* pasatzen den iruzkiaren argia (J. Lizarraga, *Doctrina christioaren catechima*, 35).

(138b) adibideak erakustera ematen duen bezala, *non* izenordain erlatiboak denborazko balioa ere izan dezake, aurrekariak denbora adierazten badu.

2.3.5. *ZEIN-erlatibo konplexuak*

ZEIN-erlatiboak elkarren artean juntagailuen bidez lot daitezke, ondoko adibideak erakusten duen bezala:

(139) a. Cosuma, eta karitate ederbat praktikatzen zian bere denboran mode Pernon azken hilaren aitak, [zoin hirur Erregeren denboran izan baita, agian Frantzian zen iaunik handiena], eta [zoiñek, Duc de Candale, Duc de la Valette, eta Cardinal de la Valette bere hirur semen, eta bere personan, ukhen baitu ohoré hori non laur cordon blu, kolpubatez beré familian ikusi baititu], eta [zoin Infanteria Frantzesaren Colonel general, eta Guyenako gobernadore hil izan baita] (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, 107).

(139a) adibidean, *mode Pernon azken hilaren aitak* aurrekariaren ondoren hiru *ZEIN*-erlatibo agertzen dira *eta* juntagailuaren bidez juntatuak. Horrelako egitura (139b)an ere:

b. Ezen presentatu izan da ene aitzincan gau huncan Iainkoaren Aingeruá, *zeinena* bainaiz ni, eta *zein* zerbitzatzen baitut (J. Leizarraga, Ap ak 27, 23).

Zenbaitetan juntaketa *BAIT*-erlatibo batekin egiten da:

c. Neure adeskidia, igaren urthian egindut, eta ezarri argira librutobat euskaraz, [zoiñen izena baita Onsa hilecco bidia], eta [konprenitzen *baititu* onsa hiltzeko moyenak], han ageri den bezala (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, *Iraccurtçailiari*, 8).

(139c) perpausean bigarren perpaus erlatibatuak, (139a eta b)koek ez bezala, ez du izenordain agerikorik (kontuan har, balu, kasu ergatiboa lukcela izenordainak, ez genitiboa): *BAIT*-erlatiboa da (ik. 2.4).

Zenbaitetan *ZEIN*-erlatiboa bera konplexua da, esan nahi dugu horrekin, izenordaina agertzen den perpausa, perpaus erlatiboaren barneko beste mendeko perpaus batekoa dela. Horrelakoetan erlatibakuntzari dagokion menderagailua (*BAIT*- edo *-eN*) goragoko perpauseko aditzari lotzen zaio; izenordain erlatiboa agertzen den mendeko perpauseko aditzak berriz bere menderakuntzako ezaugarriak atxikitzen ditucla. Beha ondoko adibide honi:

(140) Etorriko dira haur batzuk, zeinek esperantza baitut ixtorio guztia kontatuko digutela.

(140)an izenordain erlatiboa, *esperantza dut* aditzak gobernatzen duen perpaus osagarriko subjektua da. Ikus daitekeenaz, perpaus osagarriak atxikitzen dn *-eLA* atzizkia, eta gaineko aditzari (*esperantza dut*) lotzen zaio *BAIT*-

aurizkia. Bestalde, ohar gaitezke horrelako kasuetan *zein* izenordaina bere perpauetik (-eLA perpauetik) kanpo ager daitekeela (adibidean *esperantza baitut* perpausaren aitzinean emana izanki).

Izen sintagma erlatibatua dagoen perpaua, perpau adjuntua denean (denborazkoa, moduzkoa, adibidez), berriz, *zein* izenordaina ez daiteke hartarik atera, eta perpau guzia agertu behar da, *BAIT-* menderagailua hartzen duen perpausaren aurrean.

Egitura hau da, beraz, orduan:

(141) [P. URI. [P. ADJ. *ZEIN-* ... P. ADJ.] ... *BAIT-* ... P. FRI.]

Kontsidera ditzagun ondoko adibideak:

(142) a. Ezen gaitz guzién erroa auaritiá duk, *zein* *desiratzen dutelarik* batzu erauzi izan *bainrade* fedetik, eta bere buruak anhitz doloretan nahaspilatu ukan baitituzte (J. Leizarraga, 1. Tm 6, 10).

b. Gaitz guzien erroa da ezen ontasunen gutzia, *zeinaz* *posedituak izanik* zenbeit errebelatu izan baidire fedetik eta nahaspillatu hainitz doloretan (J. Haraneder, 1. Tm 6, 10).

(142a, b) adibideetan (pasarte beraren itzulpenari dagozkionak) izenordain erlatiboak perpau erlatiboaren barrinean den beste mendeko perpau adjuntuan batean sarturik daude: (142a)n jokatu da mendeko perpau hori eta adizkera jokatuak -eLARIK atzizkia dakar; (142b)n, aldiz, ez da jokatu mendeko perpaua (aditz partizipioak partitiboaren marka dakar). Perpau erlatiboko aditz nagusiak hartzen du *BAIT-* menderagailua.

Ondoko adibideek eredu bera erakusten dute:

(143) a. Baiña kalte guztien gaineko kaltea, alferkeriatik heldu den handiena, *zeini* *narraikola* erran *bainut* nik, orainokoa erran dudana guztia, da luzamendua, gerotik gerora ibiltzea. Zeren nagai-alforrak eztu behin ere erraiten, egun. Bethi bihar, bethi gero, bethi luzamendu (P. Axular, *Guero*, 28).

b. Jainkoak zer agertu zion, baita ere beste gauza asko Isaakek arteraño etziakizkienak esan ziozkan [Rebekak Isaaki], *zeintzuek gizon santu ark aditu zitue-*

nean Jaunari eskerrak eman, eta gero Jakob bere ordeko nagusiztat ezagutu zuen (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarr. berr. condaira*, 63).

- c. Ohe zeruari so, gorthea zabilan gogoan eta gorthean utzi zuen andrea, zoinari *agradatzeko* hainbertze pairatzen baitzuen (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 18).

2.3.6. ZEIN-erlatiboen tokia aurrekariaren eretzer

ZEIN-erlatiboak posposatuak izanki, aurrekariaren ondoren agertzen dira, aposizioan. Gisa horretan, anitzetan aurrekariaren ondo-ondoan izaten badira, ez da nahitaez beti horrela gertatzen, eta zenbaitetan ZEIN-erlatiboa perpau-saren bukaeran agerturik, aurrekaritik bereiz ager daiteke, hala nola gertatzen baita aposizioan diren erlatibo arrunten kasuan ere (ik. 2.2.14.2).

2.3.6.1. ZEIN-erlatiboak hurbileko aposizioan

(116)ko adibideei behatuz, ikus daiteke nola ZEIN-erlatiboak perpaus aposatuen moduan agertzen diren, aurrekariari hurbiletik darraizkiola. Zuzenean segitzen dute aurrekaria, edo hartarik bereiziak badira, ezin bestean gertatzen da horrela: aurrekaria izenlaguna delako, haren ondotik posposizioa bat bade-lako edo beste izen sintagma batean sarturik dagoelako. Hona horrelako zen-bait adibide:

- (144) Nahiz denbora hartan ez ziren bide hortan astean lau arima ibiltzen, ortziralez salbu, *zeinetan* baita Doni Yoaneko merkhatua, fortunak nahi izan zuen, egun eta oren berean, kausi zadin gizon bat (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 2).

Adibide horretan *salbu* posposizio gisa erabilia aurrekariaren ondoren agertu behar da, eta beraz, honen eta perpaus erlatiboaren artean kausitzen da. Gauza bera dugu ondoko adibidean, *baizen* eta *legez* izanik oraingo aldian aurrekariari darraizkionak:

- (145) a. Biharamuncan itsasoaren berze aldetik gelditurik zegoen jendetzeak ikusi duenean ezen berze untzitxorik etzela han bat baizen, *zeinetara* haren diszi-puluak sarthu izan baitziraden, eta etzela sarthu bere diszipuluekin Jesus untzitxora, baina haren diszipuluak berak ioan izan ziradela (J. Leizarraga, *Jn 6*, 22).

- b. Gorputz au da arbola bat legez, *zeñek* daukazan tronkua, ta adarrak (J.A. Moguel, *Peru Abarca*, 84).

Halaber ondoko adibideetan aurrekaria izenlaguna da, eta beraz izenordain erlatiboa ez da haren ondoan berehala agertzen ahal:

- (146) a. Eta Jacob-ek engendra zezan Ioseph Mariaren senharra, *zeinaganik* iayo izan baita Jesus, zein erraiten baita Christ (J. Leizarraga, Mt 1, 16).
- b. Eta Jacobek jenderatu zuen Joseph, Mariaren esposa, *zeinaganik* sorthu baida Jesus, Christo deitzen dena (J. Haraneder, Mt 1, 16).

Maria da aurrekaria adibide horietan, baina izenlaguna izanki, izen ardatza gibelctik jarraiki behar zaio. Ondorioz, honen atzetik agertu behar du perpau erlatiboak.

Gorago esan bezala, *ZEIN*-erlatiboak perpau erlatibo aposatuak dira. Horregatik, maiz eta maiz, beste sintagma aposatu balzuk agertzen dira perpau erlatiboaren eta aurrekariaren artean. Kontsidera ondoko adibideak, zeinetan aurrekariaren ondotik (azpimarratua), kortxeten artean, ezarri baititugu beste sintagma aposatuak, perpau erlatiboaren aurretik doazenak (esan gabe doa, sintagma apositibo horien artean ardatzik gabeko erlatiboak ere izan dai-tezkeela):

- (147) a. Badira bi xitxuri mota. Bata [nik erran dudana], *zeinetan* lur axalean erretzen baita zizkirra, hiratze poxi batekin (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 35).
- b. Testamentu zaharreko liburuék irakasten gaituzte ezen Adamek, Noek, Abrahamek, Isaac-ek, Iacob-ek, David-ek eta berze gure Aiték adoratu ukan duten Iaincoa, dela egiazko lainkobat [bera], [bothere guzitako eta eternal]: [bere ontasun handiagatik zerva eta lurra eta hetan diraden gauza guziak bere Hitzaz kreatu dituen], *zeinaganik* gauza guziak heldu baitirade, eta hura gabe deusek izaterik eztu (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, Sarrera, 34).
- c. Baiña kalte guztien gaineko kaltea, [alferkeriatik heldu den handiena], *zeini narraikola* erran baitut nik, orainokoan erran dudana guztia, da luzarnendua, gerotik gerora ibiltzea (P. Axular, *Guero*, 28).

Hiru adibideetan *ZEIN*-erlatiboa, ardatz agerrikorik gabeko perpau aposatu baten ondotik erabilia da.

2.3.6.2. ZEIN-erlatiboak erlatibo gibeleratuak direnean

Lehenago ikusi izan dugunaz (ik. 2.2.14.2), perpaus erlatibo arruntak aposatuak direnean, maiz perpausaren bukaeran aurkitzen dira, orduan aurrekarietik bereiz ager daitezkeelarik gaineko perpausako aditza bera izanik berdin bien artean. Gauza bera gertatzen da ZEIN-erlatiboekin ere. Alde horretarik egitura paraleloa dute ondoko bi adibidcek, batean perpaus erlatibo arrunta izan baita aposizioan emana eta gibeleratua, eta bestean, berriz, izenordain erlatiboa duen perpausa:

- (148) a. Goizean *liburu bat* irakurri dut [biziki gustatu zaidana].
b. Goizean *liburu bat* irakurri dut {zein biziki gustatu baitzait}.

Hona testuetarik hartu zenbait adibide, aurrekariaren eta perpaus erlatibo gibeleratuaren artean aditza dutenak (sintagma aurrekaria azpimarratua da):

- (149) a. Eleisiaren neurgarri, edo Canon, ta Congregacinoe sagradukuaren ordena asko bere izenteetan ditu Aita Santubak berak; *zeintzubetan* eragozten jakuen Eleisa-gizonai, ez bakarrik alako lekubetan dantzan egitia, ez bada baita besteen naasteko dantzia berarjaz ikustia bere, pekatu mortalaren beeko agindutzat (Fray Bartolome, *Olguetac*, 172).
b. beste gauza asko [Isaakek arteraño etziekizkienak] esan ziozkan, *zeimzuek* gizon santu ark aditu zituenean Jaunari eskerrak eman, eta gero Jakob bere ordeko nagusitzat ezagutu zuen (El. Lardizabal, *Testamenu zarr. herr. condaira*, 63).

(149a)n aurrekariaren ondotik aditza (*izenteetan ditu*) eta subjektu ergati-boa (*Aita Santubak berak*) agertzen dira, eta atzetik bakarrik perpaus erlatibo aposatua. (149b)n ere aditza (*esan ziozkan*) agertzen da artean, bai eta haren aurretik beste perpaus aposatu bat, ardatzik gabeko erlatibo arrunt batez osatua eta gibeleratua izan ez dena (*Isaakek arteraño etziekizkienak*).

2.3.6.3. ZEIN-erlatiboak predikatu osagarri direnean

ZEIN-erlatiboak, ageriko ardatzik gabeko perpaus erlatiboak bezala predikatu osagarri izan daitezke. Orduan izen sintagma subjektuari dagokio izenordain erlatiboa:

- (150) Ezen *haur* da [zeinez eskribatua baita ...] (J. Leizarraga, Mt 11,10).

2.3.7. *ZEIN-erlatiboen balioa*

Gorago ikusi dugu perpaus erlatibo arruntek bi balio izan ditzaketela: murrizgarria alde batetik, eta ez-murrizgarria bestetik. Halaber erran dugu orduan interpretazio murrizgarria dutenak batzuetan mugagarri ere gerta daitezkeela, eta beste batzuetan ez (ik. 2.2.9.3). Han erranaren arabera, perpaus erlatiboaren interpretazio murrizgarria agertzen da aurrekariaren erreferentzia perpaus erlatiboaren bidez murrizten denean, eta interpretazio mugagarria murrizte horren ondorioz izen sintagmaren erreferentzia zehazki mugaturik edo bereizirik gelditzen denean.

Nola agertzen dira *ZEIN*-erlatiboak puntu horretan? Lehenik erran beharra dugu hemengo erlatiboetan argi direla egitura kontuak: *ZEIN*-erlatiboak beti agertzen dira aurrekaria gorpuzten duen sintagmatik kanpo¹, perpaus posposatu moduan beraz (maiz, ikusi dugun bezala, posposaturiko perpaus erlatibo arruntekin juntatuak, izan daitezten hauek alboko aposizioan edo gibelean emanak). Alde formal horretarik kontraste garbia dute *ZEIN*-erlatiboek posposatu gabeko perpaus erlatibo arruntekin.

Beste hizkuntzetan, egiturei lotzen zaie batzuetan erlatiboen balioen kontua. Ikusi baitugu lehenago euskarazko erlatibo arruntek interpretazio guzirik zilegiztatzen dituztela, gauza bera erran ote daiteke *ZEIN*-erlatiboek? Ala pentsatu behar ote dugu erlatibo hauek bestelako egitura izanik interpretazio batzuk ezin izan ditzaketela?

Gai horretaz mintzatu dira euskal gramatikariak eta zenbaitek esan izan dute *ZEIN*-erlatiboek dagokien interpretazioa ez-murrizgarria dela, eta, ondorioz, ezin ager daitezkeela bestelako interpretazioak eskatzen dituzten ingurumenetan. Beste batzuek, berriz, kontrako iritzia agertu dute, esanez *ZEIN*-erlatiboek ere izan dezaketela interpretazio mugagarria ere (eta, beraz, murrizgarria ere).

¹ Badira kontrako adibide guti batzuk, Etxeberri Sarakoaren lanetan. Oso leku urria dute gure tradizioan horrelako erlatiboek. Haietan izen aurrekaria ezkerrean agertzen da hondarik gabe:

Haran zeina deitzen baita Laburdi (= Lapurdi deitzen den harana) (Obra osua, 160. or.)

Ez da argi erlatiboaren balio murrizgarriak ekarri ote duen usaiatz kanpoko jokabide hau. Etxeberri zortzi bat aldiz segidan erabiltzen duena orrialde beretan.

Puntu batean, behintzat, ados daude batzuek eta besteak: *ZEIN*-erlatiboek errazki hartzen dute balio ez-murrizgarria. Eta aise da puntu hori egiaztatzea, horrelako interpretazioa eskatzen duten adibideak harturik (adibidez, aurrekaria izen berezia delarik, edo berezko erreferentzia nabarmena duenean):

- (151) a. Samuelek ikhusi zuenean *Eliab*, haurridetarik zaharrena, *zeina* baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat, erran zioen Jainkoari (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia 1*, 274).
- b. baña balitz *garizuman zeinetan* ezin egon leitekian lexibia egin baga, orduban agindu leijo ... (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 241).

(151)ko goiko bi adibideetan *ZEIN*-erlatiboak ezin izan dezake balio murrizgarria aurrekariak hartarik kanpo baitu bere berezko erreferentzia (*Eliab*, *garizuma*).

Puntu hori argi utzi ondoan, har ditzagun eztabaida ekarri duten beste interpretazioak.

Hemengo aurkezpenean bereizi baititugu balio murrizgarria eta balio mugagarria, beha diezaiogun lehenik balio murrizgarria baina ez mugagarria eskatzen duen interpretazioari. Aurkitzen dea horrelako interpretazioa onartzen duen *ZEIN*-erlatiborik? Badirudi baietz, hala nola ikus baitaiteke ondoko adibide hauctan:

- (152) a. Neure adeskidia, igaren urthian egin dut, eta ezarri argira librutobat cuskaraz, *zoiñen* izena baita Onsa hilceco bidia, eta konprenitzen baititu onsa hiltzeko moyenak, han ageri den bezala (J. Tartas, *Occupatione devotaq. Iraccurtçailiari*, 8).
- b. ez-da urtherik, *non* hor edo hemen zenbait buru galtzen ez-baita, eta aldi batzuek hainitz (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 214).
- c. Nik, gibelaxago gelditua nindagon lekhutik, ikhusten ditut orduan sasitik atheratzen. (...), bi gizon bizardun, *zeinek* gutiago izitu baininduten, batean ezagutu nuelakotz nere anaya (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 52).

Hiru adibide horietan aurrekaria mugagabea da, eta erlatiboak ez du interpretazio mugagarria, nahiz, aurrekeriaren erreferentziaren murriz dezakeenez pondutik, erran daitekeen interpretazio murrizgarria eman dakiokela.

Orain azken kasua har dezagun. Interpretazio mugagarria eman ote dakieke *ZEIN*-erlatiboetara? Kotsidera ditzagun bi adibide hauek:

- (153) a. ?*(Ez edozein liburu, baina) eleberria, zein Etxaidek iaz argitaratu baitzuen, eskaini zidaten lagunek (= Etxaidek iaz argitaratu zuen eleberria).
 b. (Ez edozein liburu, baina) eleberri bat, zein Etxaidek iaz argitaratu baitzuen, eskaini zidaten lagunek (= Etxaidek iaz argitaratu zuen liburu bat).

Lehenbiziko adibideari (153a) kontestuaren araberrako interpretazio mugagarria ematen bazaio (parentesien artean ematen den parafrasian bezalako) ez dirudi perpausa ongi eratua dela. Bigarren adibidea (153b), aldiz, ongi moldatua da, nahiz interpretazio murrizgarria eman dakioken. Bi adibideen arteko aldea ardatzak duen mugadurari dagokio, eta horretaz ondorio gisa erran daiteke *ZEIN*-erlatiboek, (153a) bezalakoek hehinzat, nekez balio mugagarria izan dezaketela.

Esan gabe doa, aurrekariari balio generikoa duen mugatzailea lotzen bazaio *ZEIN*-erlatiboak erabiltzen ahalko direla, ez baitute orduan balio mugagarria:

- (154) a. Gizonek, zein baitira oro elkarren bete, elkar errespetatu behar lukete.
 b. ?*Gizonek, zein baitira gure aurrean mintzatu, elkar errespetatu behar lukete (=gure aurrean mintzatu diren gizonek).

Lehenbiziko adibidean, aurrekariak balio generikoa du, eta *ZEIN*-erlatiboak ongi eratua da, ingurumen egokian, hots. Bigarren adibidean, berriz, balio generikoa ez dakioke eman aurrekariaren mugatzaileari (eta, bestalde, kontestn egokirik asmatu gabe nekez pentsa dezakegu aurrekariak berezko erreferentzia zehatza duela); ondorioz, *ZEIN*-erlatiboak modu desegokian erabilia da.

Ondoko adibideetan, adibidez, aurrekariak edo determinatzaile mugagabea du, edo berezko erreferentzia du, eta beraz *ZEIN*-erlatiboak ez da mugagarria:

Mugagabeko determinatzailea (*bat*):

- (155) a. badiat beldurra ez dakikan, behar bada, zein abilki yokatu zen behin Sarako yaun hauz'aphez bat, *zeinak* izena baitzuen Erremundegibehere (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 71).
- b. Badu bertze manera ispiritutsu bat, (...) *zeina* baita berboari jencroaren eraxekez (J. Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 91).

Berezko erreferentzia (*Jainkoa*):

- c. Zeren bekhatua baita *Jainkoaren* kontra, *zein* baita infinitu. Beraz gaztigua ere eman behar zaika infinitua eta akhabatuko eztena (P. Axular, *Guero*, 391).

Artikulu generikoa:

- d. Purgatorio handi eta sendagarri bat du *gizon pazientziatsuak*, *zeinak* bidegabekatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere atsekabez baino (S. Pouvreau, *Imitationea*, 68).

Kontuan har bedi (155d) adibidean ez dela gizon pazientziatsu berezi bat aipatzen, eta artikuluak balio generikoa duela, hala nola esaten denean *Gizonak mintzoa badu*, ez baita gizon berezi bat aipatzen. Horregatik *ZEIN*-erlatiboak (155d) adibidean ere ez du interpretazio mugagarria. Gauza bera erran daiteke ondoko adibideko sugeak aurrekariak, argi eta garbi balio generikoa duena perpaus horretan:

- e. Eta *sugeak* bezala egiten du, *zeinak* non ere burua sartzen baitu, handik gorputz guzia errazki ateratzen baitu (S. Pouvreau, *Philotea*, 233).

Beste zenbait kasutan kontuak ez dira hain argi: aurrekaria erakusle batekin agertzen denean adibidez, zaila da jakitea nola interpretatu behar den erakuslea, eta erlatiboaren balioa. Eman dezagun, ondoko kasuan ez dirudi aipatzen den *grazia* murrizten eta mugatzen duela erlatiboak (bai ordean azaltzen eta deskribitzen).

- f. Ene Jainko Jauna, (...), indazu *grazia hura*, *zeina* erakutsi baituzu hain handia eta premiazkoa dela ene salbamenduko (S. Pouvreau, *Imitationea*, 224).

Ondoko adibidean, berriz, non *hainak* erakusleatarik eratorri izenordaina aurrekari gisa agertzen baita, erlatiboak ematen dio gorputza *hainak*-i. Ez da argi, ordean, *haina* den bezalako izenordaina izanik, erran ote daitekeen gisa

horretako adibideetan perpaus erlatiboa mugagarria dela; alabaina badirudi erlatibo generiko bati dagokiola:

- g. Urusak estimatzen ditugu gure anaietarik *hainak*, *zeinck* izanbeitute zori ona bere jainkoarentzat hiltzeko (A. Jaureche, *Meditazioneac*, 190).

Horiek oro ikusiz, esan ote dezakegu, beraz, *ZEIN*-erlatiboak ezin ager daitezkeela interpretazio mugagarria eskatzen duten testuinguruetan?

Ez da batere segur. Alabaina badirudi izenordain erlatiboa kasu marka adberbial batekin edo posposizio batekin erabilia denean interpretazio mugagarria ere izan dezaketela *ZEIN*-erlatiboek:

- (156) a. ... ethorria zela *orena zeinetan* gizonaren semeak utziko baitzuen bere hurua bere etsaien eskularat Jainkoari (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia*, II, 257).
- b. Zeren nolako baita *lurra zeinetarik* iragaiten baita ura, halako gerhatzen da ura ere (P. Axular, *Guero*, 143).
- c. Zeren hauk dira *leihoak eta portaleak*, *zeinetarik* bekhatu guztiak (...) arimen barrena sartzen baitira (Ib., 256).
- d. (ezen ez da dudarik bertze hitzkuntzek ere lehenbiziko hatsapenean eta abia-duran nekhe eta arantze berak iragan zituztela ...). Hau da *atheka zeinetarik* iragan behar baita (J. Etcheberri Sarakoa, *Lan osoa*, 195).

Lau adibide horietan aurrekaria agertzen da artikulua mugatzailearekin, eta ez du ez berezko erreferentziarik, ez balio generikorik. Argi da testuinguru horretan interpretazio murrizgarria dutela *ZEIN*-erlatiboek. Kontuan har bedi, haatik, *ZEIN* izenordainak kasu adberbiala duela orduan (*zeinetan*, *zeinetarik*).

Nola bi interpretazioak, mugagarria eta ez-mugagarria, zilegi baitira, horrelako adibide zenbaitetan bi interpretazioak izan ditzake perpausak. Beha ondoko adibideari:

- e. Zeren tristura handia errezibituko dute, noiz eta ere *bere lagunak*, [*zeiñekin* bekatu egin baitzuten, eta *zeiñengatik* galdu baitziren], ikhusten baituzte bere begien aitzinean (P. Axular, *Guero*, 377).

Honetan ere *zein* izenordainaren aurrekariak artikulua mugatzailea du (*bere lagunak*), baina aurrekoan ez bezala, zaila da esatea balio generikoa duenez mugatzaileak. *Bere lagunak* sintagmari balio generikoa ematen bazaio, lagun-en multzoa bere osoan harturik, interpretazio ez-mugagarria izanen du perpaus erlatiboak; aitzitik, balio espezifikoak ematen bazaio mugatzaileari, ulerturik Axularrek aipu dituen jende kondentatuek ikusiko dituztela, *ez nahitaez beren lagun guziak* (orokorki harturik), baina *haiekin bekatu egin zuten lagunak* bakarrik, orduan interpretazio mugagarria du perpaus erlatiboak. Badirudi bi interpretazioak izan ditzakeela kasu honetan *ZEIN*-erlatiboak.

Hitz batean esateko, *ZEIN*-erlatiboak aurrekaritik kanpo eratuak izanik, aise har dezakete interpretazio ez-murrizgarria eta ez-mugagarria, eta horrela agertzen dira maiz eta maiz. Halere aurrekariak determinatzaile mugagabea duenean, interpretazio murrizgarria ere izan dezakete *ZEIN*-erlatiboek, arazorik gabe. Ordean, aurrekariak determinatzaile mugatzaile izanik berezko erreferentziarik ez duenean (agertzen den testuinguruan bederen), eta beraz testuinguruak interpretazio mugagarria eskatzen duenean erlatiboarentzat, nekez ager daitezke *ZEIN*-erlatiboak, non ez dagokion izenordain erlatiboari funtzio adberbial zerbait, azken kasu honetan halio mugagarria ere errazki har baitzake perpaus erlatiboak.

2.4. BAIT-ERLATIBOAK

2.4.1. BAIT-erlatiboen ezaugarriak

Lehenago seinatu dugun bezala, aski gaizki epaitu izan dituzte mende honetako gramatikari askok *ZEIN*-erlatiboak. Esan izan dute bereziki, horrelako izenordainik erabili gabe ere molda daitezkeela itxura bereko perpausak, Iparraldeko euskalkietan behintzat.

Konpara ditzagun, adibidez, ondoko adibideak:

- (157) bakotzak badauka eskuan liburu tripi bat, [hartan kondu guziak baitire] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 172).

(158) Etzuen aspaldi bazabilala eskualde hotan, Harpeko uraz izkiriatu zuelarik orok ezagutua den liburu tipi pollita, [*zointan* ez bakarrik delako ithurria, baina oraino hemengo azinda... beltzak berak hain amultsuki goersten baititu] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 156).

Ikus dezakegu bi adibide horietan egitura berak ditugula. Badira ordean formazko diferentzia batzuk. Bi hauek bereziki:

- Lehenbizikorik, (158)an erlatiboan *BAIT*- menderagailua izanik ere, badakigu haren orde *-eN* ere balia daitekeela (ik. 2.3.2). Aitzitik, (157) perpausan *BAIT*- menderagailua baizik ez daiteke erabil.

- Bigarrenekorik, (157)an ez da izenordain erlatiborik, eta (158)an aldiz, bai (*zointan*).

Noski, erran daiteke (157) adibidean ere *hartan* izenordainak *zointan* izenordain erlatiboaren eginkizuna duela, eta gisa batez hala da, *hartan* erresuntibo gisa agertzen baita, aurrekariaren erreferentzia izanik, izen sintagma erlatibatuaren funtzioa seinatuz. Hain zuzen ere, Lafon eta Lafitte gramatikariek horixe zioten: *BAIT*- menderagailuak erabilera zabala duen Iparraldeko euskalkietan, euskarak ez zuela izenordain erlatiboen beharrik, berdin-berdin erakusleak, edo haiztarik eratorri lekuzko adberbio deiktikoak (*han*, *handik*,...), erresuntibo gisa erabil baitaitezke horrelako perpausetan, euskararen joskeraren jatorrasuna hobeki errespetatuz. Bestalde, orain ikusiko dugun bezala, erakuslerik gabe ere egin daitezke horrelako erlatiboak, izenordain erresuntibo agerikorik erabili gabe.

XX. mendeko Iparraldeko idazleek bereziki baliatu dute idatzietan, bestela ere autore zaharretan eta bereziki gaurko ahozko euskararen erabilia den jokabide hau. Perpaus erlatibo posposatu hauek *BAIT*-erlatiboak deituko ditugu hemen, zeren hauetan menderagailua *BAIT*- aurrizkia baizik ez baitaiteke izan.

2.4.2. *Erresuntiboaren forma*

Aurreko lerroetan, (157) adibidean, ikusi dugu *BAIT*-erlatiboetan, erakusleak izenordain erresuntibo gisa ager dakizkigukeela. Horrela gertatzen da maiz. Beste batzuetan, ordean erresuntiboak beste forma bat ere izan dezake.

Beha orain ondoko adibideei:

(159) elduko da eguna, *zeinetan* esango jatan, abiatu, ta presta nadilla ondo ilteko (P. A. Añibarro, *Escu-librua*, 23).

(160) Aspaldian errana zuen Amoz profetak: «jinen dira *egunak*, [herriari gosea igorriko baitiot, ez ogi-gosea, ez ur-egarria, baina Jainko-hitzaren entzuteko gosc ta egarria]» (J. Hiriart-Urruty, *Jauna dut argi II*, 20).

(157-158)an bezala, hemen ere paraleloki cratuak ditugu bi adibideak. Lehenean (159) *zeinetan* izenordain erlatiboa agertzen da; bigarrenean (160), berriz, ez da ez izenordain erlatiborik, ez eta erakuslerik. Halere, pentsa dezakegu (160) adibidean ere erresuntiboari dagokion sintagma bat badela (157)an bezala, aldi honetan agerikoa ez bada ere. Hitz batez, *BAIT*-erlatiboetan izen sintagma erlatibatua osoki isildua izan daiteke. Hona mota horretako zenbait adibide:

(161) a. Eta izan ditiat *hilabetheak*, [nehor ez baitzian gehiago harat deliberatzen] (Amerikeratat joatera) (P. Larzabal, *Iru ziren*, 142) .

b. *Bizpahiru egun* bereziki hor iragan dire, [beldurtzeko baitzen, [etzadin gehiago trein bat higi nehorat, ez aitzinerat, ez gibelerat]] (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 26).

Erresuntiborik gabeko jokabidea errazkiago erabiltzen da, noski, kasu gramatikal batean denean, eta aditzeko komunztadurak seinalatzen duelarik:

(162) a. ezagutzen ditut *apezak*, [buruhauste ederrik baitute, hamabi urteko haur batzuek egin galderei xuxen ihardetsi beharrez] (J. Hiriart-Urruty, *Jauna dut argi*, I, 208).

b. Nahi baduzie jin, badira '*Ranchero*' *nausi eder batzu*, [oroz gaineratik, eskualdun alabak nahi baitituzte emaztetzat...] (P. Larzabal, *Iru ziren*, 16).

c. Hartakotz duzu hainbertze *basa ofiziale* Pariseren beraren erdian, [burutziazik ez baitezakete egin lanarekin] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 195).

Halere, kasu gramatikala duenean ere agerikoa izaten ahalko da erresuntiboa:

- (163) a. Ni deitzen naiz Roland, Charlemagne-en gizona / [*Harek* balio baititu, Otsoa bezalako dotzena] (P. Larzabal, *Orreaga*, 149).
- b. Hanitz aldiz aditua nakon erraiten amari, [*hau* ere harriturik baitzagon:] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 59).

Erresuntiboa erakusleaz beste izenordain bat ere izan daiteke. Ondoko adibidean adibidez, *denak* dugu erresuntiboa.

- (164) Nik ikusten ditut hemendik neskatxa frango... [*Denak* kasik erdaraz ari baitira solasean] ... Nago, zoin ote den horietan ergela ez denik! (P. Larzabal, *Orreaga*, 183).

Bestalde, leku kasuetan erakuslearen forma deklinatuaren orde (*hartan* (157)an), izenordain deiktikoaren forma berezia ere (*han*) erabil daiteke erresuntibo gisa, ondoko adibideetan bezala:

- (165) a. Ostaru handi batzu idckirik badauzkote, [su, ohe on, jateko garbi, soinekorik beharrenak han ediren baititzazke merkeenik] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 210).
- b. Ipar aldetik maldatzen dute dena bazka-leku diren munho batzuek, [handik errebidez itzainek jausten baitakote ardien ilea] (Ib., 198).

2.4.3. *BAIT-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuaren kasu marka*

BAIT-erlatiboetako izen sintagma erlatibatua edozein kasu marka harturik ager daiteke, bai kasu gramatikal batean, bai kasu adverbial batean, bai eta genitiboan ere. Esan gabe doa izenordain erresuntiboa agerikoa delarik, guziz gardena dela interpretazioa. Hona J. Etchepareren lan batetik atera zenbait adibide:

Izen sintagma erlatibatua ABSOLUTIBOAN:

- (166) a. Hor harat airatzen direnek orok ez balin badute hatzemaiten zorion ez diru, bakar zenbeiti bederen gertatzen zeie goritzea, ordutik ez *baitagozke* itzuli gabe beren sor-herrirat, hemen abaide eta adixkideen artean beren azken egunen gozoki iragaiteko (J. Etchepare, *Buruchkak*, 206).
- b. bazter ikusi nahia: horra zerk utzarazten dakon herria Eskualdunari, ardurenik itsasoaz haindirat *baitoa* onaren ala berriaren keta (Ib., 204).

Izen sintagma erlatibatua ERGATIBOAN:

- c. Irakaspen garbia emaitokotan haatik, bakuna, edozoinak erreki buruan sar eta koka lezaken bat; guziz izkiriatzaz bezenbatean, huntan berriki danik hartua duen itxura baldin ez balakio begira eskuarari, pollit bezain garbia *baitauka* eta ezin gehiago garbia, laster bazterrerat utzia bailitake eta galdua (Ib., 180).
- d. Zorionez zuten alde beren gaztelasunaren iguzkiko sua: *hunek*, agertu arau, hedoiak barreatzen baitzeizten! (Ib., 208).

Izen sintagma erlatibatua LEKU KASU BATEAN:

- e. Ostatu handi batzu idekirik badauzkote, su, ohe on, jateko garbi, soinekorik beharrenak *han* ediren *baititzazke* merkeenik (Ib., 210).
- f. Ipar aldetik maldatzen dute dena bazka-leku diren munho batzuek, *handik* erregibidez itzainek jausten *baitakote* ardien ilea (Ib., 198).
- g. Urte batzu badira hola, deubru fitsik ez *bairuzu* biltzen ahal (J. Etchepare, *Mendekoste gereziak eta beste*, 106).

Izen sintagma erlatibatua GENITIBOAN:

- h. Bainan zer egin? jendea alde dute, guziz jende xehea, *hunen* oldarrari bihurtzeko ez *baititeke* poliza aski azkarrik (J. Etchepare, *Buruchkak*, 196).

2.4.4. BAIT-erlatibo konplexuak

BAIT-erlatiboetan, *ZEIN*-erlatiboetan bezala, izen sintagma erlatibatua mendeko perpaus batekoa izan daiteke (ik. 2.3.5).

Adibidez, aurreko adibidean (166h) erresuntiboa (*hunen*) duen sintagma mendeko perpaus jokatu gabeko osagaia da (*hunen oldarrari bihurtzeko*).

Ondoko adibideetan berriz erresuntiboak zehargaldera batean dira (167a, b), edo zeharkako harridurazko perpaus batean (167c), perpaus matrizeko aditzak duelarik *BAIT*- menderagailua.

- (167) a. Barne huntan bada *holako mutil eta neskatxa frango* ... [Ez baitakit [ene predikua duten onaruko]] (P. Larzabal, *Orreaga*, 176).

- b. Azken urte hotan Canadako zelhai hotzetarat lehia badute *bakar batzuek*, [ez baitakigu [zer gibelondo eginen duten]] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 205).
- c. Hanitzetan laborari iduriz gaizoenetik eta jakintsunik bipilenera ez da *arte izpi bat* baizik, [harrigarri baita [zoin ttipia]] (Ib., 167).

2.4.5. *Aposizio motak*

BAIT-erlatiboak, *ZEIN*-erlatiboak bezala, erlatibo aposatuak dira. Erlatibo aposatuak izanik, beste sintagma aposatuekin ager daitezke:

- (168) a. Sarthu ia berehala, hunaindiko xokoan, ikusiko zinduen errota bat gaitza, haxaz bi ernai xuten gainean, *errota bat* [gogorki zabal], [bere bi mazelatako zirien artean huts bat baitzaukan] (Ib., 60).

Halaber, beste erlatibo aposatuak bezala, aurrekariaren ondoan izan daitezke, edo gibeleratnak. Alderdi horretarik ere ez dira bereizten *ZEIN*-erlatiboetarik (ik. 2.3.6). Beha ondoko bi adibideci:

- b. *Mattin ene adiskideari*, ez baita hura ere norma, gertatu zaizkio horrelakoak.
- c. *Gizon bati* gertatu zaio, hura ere ez baita guti harritu orduan.

(168b) adibidean *BAIT*-erlatiboa hurbileko aposizioan da, aurrekariaren (*Mattin ene adiskideari*) ondoan. (168c) adibidean, aldiz, *BAIT*-erlatiboa gibeleratua da, eta horrelakoetan maiz gertatzen den bezala, aurrekaritik (*gizon bati*) bereiz. Hona gisa horretako beste adibide batzuk:

Hurbileko aposizioan, beste sintagma apositibo batekin batean:

- d. *Zera zen bat*, [eskualduna baitzuen ere andrea], Irisarriko; (...) Lagoardette jaun gazte bat, errepublikano eztiak zirelakoan denboran suprefet ere izana (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 75).

Aposizio gibelatuan:

- e. Bada *hainitz* hemen gaindi, [ez baitezakete bertze hainbertze erran, beren buruentzat] (P. Larzabal, *Ihauteriak*, 68).
- f. *Zenbat deputatu* ezta [dirudunen eta langilen arteko gerla berek sustatu dutelakotz baitire jaun handi]? (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 28).

2.4.6. *BAIT-perpausen anbiguitatea*

Badakigu *BAIT*-aurrizkia ez dela bakarrik perpaus erlatiboetan erabiltzen, eta beste erabilera batzuk ere izan ditzakeela: kausa adieraz dezake, adibidez. Gisa horretan zail da batzuetan jakitea *BAIT*-perpaua erlatiboa edo adjuntua den. Har dezagun ondoko adibidea:

(169) a. Etzen bazter ikusi nahia: merkaturat zenbeit aldiz, elizarat maiz, eta gero etxean, [*han baitzuen osoki bere bihotza*] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 66).

(169a) adibidean, *BAIT*-perpaua bi modutan azter daiteke: edo erlatibo gisa, *han* izenordain erresuntiboa izanik, edo kausazko perpaus gisa.

Funtsean, anbiguitatea ez da hain bitxia gogoan hartzen badugu *BAIT*-erlatiboak beti erlatibo aposatuak direla, eta erlatibo aposatuek balio esplikatiboa izan dezaketela. Formaren aldetik *BAIT*-erlatiboak eta *BAIT*-ekilako perpaus adjuntua ez baitira elkarretarik bereizten, anbiguitate hau berezkoa dugu euskaran.

Horrelako adibidea dugu ondoko hau ere, *BAIT*-perpaua erlatibo gisa edo kausazko perpaus gisa har daitekeelarik:

b. *haurrek*, [itipi dirklarik ohakoan ahanzten baitituzte eta behar gabe zer nahitaz asetzen], zango makilak kakoi derabiltzate, zorroa ja biribil, buru zabal gaitza lepo meheak nekez bezala jasaiten deielarik (ib., 164).

2.4.7. *BAIT-perpauetako izenordain batek aurrekari gisa perpaus bat duenean*

BAIT-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuari dagokion aurrekaria ez da beti izen sintagma bat. Perpaus baten edukia ere izan daiteke aurrekaria, ondoko adibidean bezala:

(170) Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, [ez baita goizegi izanen] (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 30).

Adibide horretan *BAIT*-perpauetako subjektua izenordain isildua da. Haren erreferentzia ez da aurretik agertzen den izen sintagma bat, baina aurretik agertzen den perpauetako edukia (aipatu bi zubien zahaltzea, hots).

Horrelakoak dira ondoko adibideak ere:

- (171) a. Federiko (...) enperadoreak etzuen bere mendean amorik edan, [anitz baitzen aleman batentzat] (P. Axular, *Guero*, 265).
- b. jenden hiruetarik bat bataiatuak dira, [Afrikako beste erresumetan ez baita usu ikusten holakorik] (J. Hiriart-Urruty, *Jauna dut argi II*, 42).

Noski duda izan dezake batek ea perpaus hauek egiazko perpaus erlatiboak diren, ala beste zerbait. Ez gara hemen eztabaida horretan sartuko. Desagun, soil-soilik, ondoko erdaretan ere kausitzen direla horrelako perpaus aposatuak, erlatiboen ereduari darraizkionak. Euskaraz *BAIT*-perpausak errazki baliatzen ahal badira modu horretan, badirudi *ZEIN*-erlatiboak ere gisa berean erabili daitezkeela:

- (172) a. Zeren lainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia (Axular, *Guero*, 168).

Erlatibo arrunt apositiboekin ere molda daitezke horrelako perpausak, nahiz haien onargarritasuna doi bat dndazkoa baita zenbait hiztunentzat.

- b. Federiko (...) enperadoreak etzuen bere mendean amorik edan, [anitz zena aleman batentzat].
- c. Zeren lainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita, [bekhatu handia eta itsusia zena].

2.5. KORRELAZIOZ MOLDATURIKO PERPAUS ERLATIBOAK

2.5.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena

Perpaus erlatiboen artean sailkatzen ohi dira ondoko adibideko ereduari darraizkion perpausak ere:

- (173) *Nor* ere bizi baita etxe hartan, *hark* pagatu beharko du haren konponketa.

(173) adibidean erreferentzia bereko bi izenordain ditugu, perpaus banatan agertzen direnak: lehenbizikoa galde izenordaina da eta lehen perpausean

agertzen da, perpaus hartako aditz jokatuak *BAIT*- aurritzia duelarik (*baita*): bigarren izenordaina (*hark*), berriz, erakuslea da, eta ondoko perpauscan agertzen da, perpaus hartako aditzak menderagailurik ez dakarrelarik (*pagatu beharko du*). Erakuslea (*hark*) anaforikoa da, erran nahi baitu aurrekari batek ematen diola erreferentzia; ohar bedi, haatik, aurrekari horrek ez dezakeela erreferentzia zehazki mugaturik eman, zeren galderetan erabiltzen den izenordaina baita: *nor*, aurreko perpauscan dagoena.

(173) bezalako egitura duten perpaussez esaten da *perpaus korrelatiboak* edo *korrelaziozko perpausak* direla, eta mendekoari, *nor ... BAIT*- erakoari, esaten zaio *perpaus erlatibo korrelatiboa*. Perpaus hauek ditugu hemen ikergai.

Ekialdeko tradizioan agertzen dira gehienik perpaus hauek literaturan. Halere, mendebaldean ere kausi daitezke batzuetan, bereziki testu zaharretan, *BAI(S)T*- menderagailuarekin eraikiak, eta moduzo konparazioak osatuz.

(174) a. *Zelangoa baista amea, alangoa oi da alabea (Refranes y Sentencias, 35).*

b. *Zelan bainabil janzirik, atan otza daukat nik (Ib., 478).*

Forma jokatugabe eta eliptikoetan ere kausitzen dira korrelaziozko perpausak hala nola ondoko adibidean:

(175) a. *Zer ikusi, hura ikasi.*

b. *Eguzkiya nora zapiyak hara.*

2.5.2. Korrelaziozko perpausen egitura

Esan bezala, (173) bezalako perpausetako egituran bi perpaus ditugu: alde batetik galdera izenordain bat izenordain aurrekari gisa daukan mendeko perpaus bat, *BAIT*- aurritziu dakarrena, eta bestetik, bestearen eskuinean, izenordain anaforikoa daukan perpaus bat, menderatua izan beharrik ez duena, eta beraz aditza menderagailurik gabe izan dezakeena. (176a)n erakusten dugu korrelaziozko perpausen egitura:

(176) a. [ZER/NOR_i-kasua (ere) ... BAIT_i- ADITZA], [HURA_i-kasua ... ADITZA]

- b. *Nor* ere baitago nitan eta ni hartan, eta *harek* ausarki ekartzen du fruitu (L. Léon, Jn 15, 5).
- c. Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, *nori* ere, eta *nork* ere behatzen baitzioen, *hari* (...) gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk pizten eta emaiten (...) zerautzan (P. Axular, *Guero*, 35).

Perpaus hauei dagokien terminologia ongi zehazteko erranen dugu perpaus menderatuko izenordain erlatiboa (*ZER* edo *NOR*) *izenordain (korrelatu) aurrekaria* dela, eta beste izenordaina, berriz, *HURA* gure adibideetan, *izenordain (korrelatu) anaforikoa* dela. (176b, c) adibideetan bezala, gehienetan *ere* lokailua lotzen zaio izenordain aurrekariari.

Aurrekoei konparatuz berezitasunak badituzte korrelaziozko perpaus erlatiboak:

- lehenbizikorik, *ZEIN*-erlatiboak edo *BAIT*-erlatiboak bezala, ez dira izenlagun gisa agertzen, horretan argi eta garbi perpaus erlatibo arruntetarik bereizten direlarik;

- bigarrenekorik, *ZEIN*-erlatiboak edo *BAIT*-erlatiboak ez bezala, ez dira posposatuak: izan ere, erlatibo korrelatiboak erreferentzia ematen dioten anaforikoaren ezker aldean agertzen dira beti;

- hirugarrenekorik, perpaus erlatiboak erreferentzia zehazten dion izen sintagma erakuslea izaten da: *hura*, honi dagokion leku-adberbio bat (*han*, *handik*, *hara*, ...) edo, batzuetan, *haina*.

Altubek (*Erderismos*, §125) seinalatu zuen bezala, euskaraz beste modu batean ere ager daiteke korrelaziozko egitura hau, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

(177) a. Berak *zer* esaten eban? Nik *arexeri* erantzun baiño ez (S. Altube, *Erderismos*, 139).

b. *Zein* lagunena atzean ibili zan? Ba *uraxe* aurkitu Azkaratek (Ib., 140).

Paralelismoa nabarmena da hor korrelazioz moldaturiko erlatiboekin, baina formazko diferentzia handi batekin: (177)ko adibideetan *zer* eta *zein* izenordainak galdera batean dira eta zinezko galde izenordainak dira. Aitzitik,

(173)ko perpausean ez da horrela: galdera izenordaina daukan perpausa ez da galderazkoa, eta menderagailua dakar haren aditzak.

Galderazko egituratik abiatutik ere forma jokatu gabeak izan baitaitezke, are handiago gertatzen da orduan erlatibo korrelatuekin perpaus horiek duten antza:

- c. Berak zer esan ta nik *arexeri* erantzun, besterik ez. (S. Altube, *Erderismos*, 139).

Euskara mintzatuan oroz gaineratik baliatua da (177)ko itzulia.

Bestalde, badirudi ahozko errejistro horretan bereziki, itxura bereko beste korrelaziozko perpausak ere molda daitezkeela hegoaldeko euskalkietan. Haietan, *-eN* menderagailua lotzen zaio galdera izenordaina duen perpausoko aditz jokatuari, zehargaldera batean bezala. Horrela gertatzen da ondoko adibidean:

- d. Zu nora joaten zaren, nire anaia ere beti hara joaten da.

Esan behar da, halere, (177d) bezalako perpausak, ohiko korrelaziozko perpausen egitura dutenak (Hegoaldean gertatzen ohi denaz, *-eN* izanik menderagailua, eta ez *BAIT-*) ez direla biziki agertzen testu idatzietan.

2.5.3. Korrelaziozko perpausen balioa

Ikusi dugu korrelaziozko perpausetan izenordain anaforikoak duen aurrekaria galderetako izenordaina dela. Ez du, beraz, erreferentzia zehatzik, eta, ondorioz, balio kanonikoa hartzen ohi du, eta ematen ere izenordain anaforikoari. Batzuetan, haatik, balio kontzetsiboa ere izan dezake.

Aurrekariak balio kanonikoa duenean korrelaziozko perpaus horiek ardatzik gabeko erlatibo generikoen pareko dira. Adibidez, ondotik errepikatzen dugun (176b)ko adibidea, ardatzik gabeko erlatibo generiko baten bidez adierazia da beste zenbait itzulpenetan.

(178) a. *Nor* ere baitago nitan eta ni hartan, eta *harek* ausarki ekartzen du fruitu (L. Léon, Jn 15, 5).

b. Ni Argan bezala nitan *dagonak* uzta ugari ematen du (Orixe).

c. *Niregan dagoenak* eta Ni harengan, fruitu asko ematen du (*Itun berria*).

Kontestu egokietan balio kontzesiboa ere izan baitezake izenordainak, arabera balioa hartzen dute batzuetan korrelaziozko perpausek. Beha ondoko adibideari:

(179) *Non* ere gordetzen baita, ez zaigu *handik* eskapatuko.

Horrelako adibide bati, interpretazioan kutsu kontzesiboa errazki eman dakioke, hala nola esaten balitz: *edonon, den tokirik aurkizailenean ere, izkurturik egon arren, ez zaigu handik eskapatuko*. Parekotasun horrek esplikatzeko ditu, adibidez, Kol, 3, 23 pasarteko itzulpen desberdinak:

(180) a. Zer ere baitagizue, gogotik egizue (J. Leizarraga).

b. Edozein gauza egin dezazuen, bihotzetik egizue (J. Duvoisin).

2.5.4. *Izenordain korrelatu aurrekariaren forma*

Izenordain korrelatu aurrekaria galdera *nor* edo *zer* sailekoa, (177a, c) adibideetan bezala, edo leku-denborazko kasuetan *non* edo *noiz* erakoa, izaten da komunzki.

Zein sailekoa ere izaten ahal da halere batzuetan. Adibidez, gorago aipatu perpauisa *zein* izenordaina baliatuz itzultzen du Duvoisinek:

(181) *Zein* ere baitago nitan eta ni hartan, bainak ekharriren du fruitu hainitz (J. Duvoisin, Jn 15, 5).

ZEIN-erlatiboetan, *zein* izenordain erlatiboa artikularekin ere erabil daitekeela ikusi dugu (2.3.3.3). Aukera hori aurkitzen da *zein* izenordain gisa korrelaziozko perpauisetan erabilia denean ere, nahiz *ZEIN*-erlatiboetan baino anitzez gutiagotan baliatua den jokabide hau. Ikus ondoko adibidea:

- (182) *Zeinak* profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, *hainak* profeta saria izanen du, eta *nork-ere* prestu bat prestu delakoz hartzen baitu, *harek* prestu saria izanen du (J. Duvoisin, Mt 10, 41).

Zein izenordain aurrekaria artikularekin agertzen da aurreko adibidean. Adibide bereko ondoko perpaus erlatibo korrelatua, berriz, *nor* izenordainarekin eratua baita, ikus dezakegu ez dagoela bi izenordainen artean oposaketarik balioaren aldetik.

Ez da ohikoa *zeina(k)* izenordainaren erabilera hau korrelaziozko erlatibotetan.

Noski, *zein* izenlagun moduan ere ager daiteke batzuetan korrelaziozko perpausetan. Jokabide hau erregularra da, adibide ugari aurkitzen ez bada ere literaturan. Hona batzuk:

- (183) a. Eta *ZEIN-ere* *hiritan* edo burgutan sarthuren baitzarete, informa zaitzete nor den *hartan* dignerik, eta zaudete han parti zaitzeten (J. Leizarraga, Mt 10, 11).
b. Gero baderamatzate *zoin tokitarat* iduritzen ere baitzeie, eta *harat* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 172).

(183a, b) adibideetan, *zein* izenlagun gisa agertzen zaigu. Esan gabe doa *zer* ere erabil daitekeela batzuetan modu berean:

- (184) Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, *zer ere huts edo falta* edireiten baitute, *hura* berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute (P. Axular, *Guero*, 16).

2.5.5. Izenordain korrelatu anaforikoaren forma

Izenordain korrelatu anaforikoa gehienetan erakuslea da, goragoko adibideetan ikus daitekeen bezala, edo hartarik eratorritako forma adberbiala toki denborazko kasuetan denean (*han*, *handik*, etab...). Ikus (183b)ko adibidea hemen errepikatna:

- (185) Gero baderamatzate *zoin tokitarat* iduritzen ere baitzeie, eta *harat* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 172).

Aurrekaria *nor* edo *zer* gisako izenordaina izanik, mugagabea da eta singularreko aditz komunztadura dakar. Ondorioz, anaforikoa ere, gehienetan behintzat, singularrean izaten da. Halere ez dirudi ezinezkoa dela erakusle anaforikoa pluralean agertzea testuinguru egokietan. Ondoko adibidean Axularrek izenordain anaforiko singularra eta plurala, biak, erabiltzen ditu:

- (186) Zaleuko Greziako parte batzuetako erregeak (...), ordenatu zuen eta ezarri legea, *nor ere* eroriko baitzen adulterioan, eta *nork ere* behar etzen emaztearekin huts eginen baitzuen, *halakoari eta halakoei, hainari eta hainei*, hala gizonari nola emazteari, iustiziak begiak atherako eta iraziko zerauztela (P. Axular, *Guero*, 230).

Aurreko adibidean ikus daitekeenaz, izenordain korrelatu anaforikoa *haina* da, eta singularrean eta pluralean erabilia da.

Haina izenordaina korrelaziozko perpausetan bereziki agertzen da literaturan tradizioan, aurrekaria gizakia izanik, ondoko adibideetan bezala:

- (187) a. *Nork ere* maiz hartzen baitu bazka saildu eta erremedio salbagarri hori debizionerekin, *hainak* hartarainokoa borhitzten du bere arimako osasuna eta bizia (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 113).
- b. *Nork ere* maiteago baidu aita edo ama ni baiño, *haiña* ezta enetzat on: eta *nork ere* maiteago baidu semea edo alaba ni baiño, *haiña* ezta enetzat gai (J. Haraneder, Mt 10, 37).
- c. *Nork* erraiten bairu hura baihan dagoela, behar du, nola hura ebili baita, hala *hainak*-ere ebili (J. Leizarraga, 1. In ep 2, 6).

Haina izenordain anaforikoa, lapurtera klasikoko tradizioan kausitzen dugu. Nahiz XVI. mendean Leizarragaren idazlanetan ere aurkitzen den, XVIII eta XIX. mendeetako testuetan bereziki agertzen da.

Izenordain anaforikoa isildua ere izan daiteke. Horrela da, adibidez, Axularren obratikako aipu honetan:

- (188) Bada *nork ere* bere arimaz kontu ona eman nahi baitu, eta bere bekhatu iraganez barkhamendu erdietsirik, aitzinerat gehiago egin gabe egoiteko indar hartu, maiz kofesa bedi (P. Axular, *Guero*, 351).

(188) adibidean, izenordain anaforikoa *kofesa bedi* aditzaren subjektuari dagokio baina isildua da.

Ondoko adibideetan, izenordain anaforikoa datiboan (189a) eta ergatiboan (189b) da, baina ez da ageriko izenordain gisa gauzatua aditzaren komunztadura marketan ez bada:

(189) a. *Nork ere* baituke orai orhoitzapen horren ohoretan besta egiteko gutizia, on dakiola! (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaraziak*, 62).

b. *Nork ere* maite baitu bere aita, edo bere ama ni baino geyago, enau ni merxei (B. Echenique, Mt 10, 37).

2.5.6. Lokailuak korrelaziozko perpaus erlatiboetan

Korrelaziozko perpausetan askotan *ere* eta *eta* hitzak agertzen zaizkigu.

Goragoko adibideetan ikus daitekeenaz, anitzetan idazleek *ere* agerrarazten dute perpaus erlatiboan izenordain aurrekariaren ondotik. Halakoak dira ondoko adibideak:

(190) a. Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, *hura* guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoifiaz orai ere zuri presentatu behar zaitzula (P. Axular, *Guero*, 5).

b. zer ere ikhusten baitugu bertzeer egiten, *hari* jartzen gare (J. Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaraziak*, 45).

c. *nork-ere* prestu bat prestu delakoz hartzen baitu, *harek* prestu saria izanen du (J. Duvoisin, Mt 10, 41).

d. Gizonak zer ere ereiten baitu, *hura* biltzen ere du (P. Axular, *Guero*, 144).

Eta ere agertzen da askotan korrelaziozko perpausetan. Maizenik anaforikoa dakarren perpausaren hastapenean aurkitzen da, ondoko adibideetan bezala:

(191) *Nork ere* begiraturen baidu bere bizia, eta *hark* galduko du (J. Haraneder, Mt 10, 30).

Batzuetan, halere, *eta* lokailua perpaus erlatiboaren barnean ere aurkitzen da, mendeko perpausoko azken hitzari erantsia, ondoko adibidean bezala:

(192) Lehenago, *nork* ere pagatzen baitzuen barrika arno gehienik-eta, *hura* zukan pasatzen bozetan... (P. Larzabal, *Orreaga*, 182).

Beste batzuetan *eta* izenordain aurrekariari lotzen zaio mendeko perpausan, zenbaitetan *ere* darraiolarik:

(193) a. *non eta* baitire (mirakuluak), Jainkoa *han* da (E. Lapeyre, *Credoa*, 22).

b. *nor eta ere* ez baita berriz sortzen urean (...), ez daiteke sar Jainkoaren erresuman (Ib., 63).

2.5.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai

Gorago esan bezala (2.5.2), korrelaziozko perpaus erlatiboa mendekoa izanik, izenordain korrelatu anaforikoa perpaus beregain batean egon daiteke. Gehienetan horrela gertatzen bada ere, ez da ezer ezinbestekorik horretan, eta erlatiboari bidea irekitzen dion perpausa bera ere (izenordain anaforikoa duena, hots) mendekoa izan daiteke. Horrela gertatzen da, adibidez, Axularren ondoko hiru adibideetan, bi kasutan *-eLA* konpletiboa delarik mendeko perpausa (194a, b), eta beste kasuan *BA*- perpaus supositiboa (194c):

(194) a. segurutzen zaituztet, ezen *nork ere* utziko baitu enegatik, eta ene Ebanjelioagatik etxerik, anaiarik, arrebarik, aitarik edo amarik, *errezibituko duela* orai presenteko denbora hunetan, utziko duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan bizitze eternala (P. Axular, *Guero*, 326).

b. Orduan zeure ondokoei, eta han presentean edireiten direnei, *zer ere* nahi baitute, eta *nola* behar dela ikhusiko baitute, *hala dagitela* utzien derauezu (Ib., 159).

c. Zeren baldin Elizako doktor batzuek dioten bezala, Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, *nori ere*, eta *nork ere* behatzen baitzioen, *hari*, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak irauingirik, heken lekhuak gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk *pitzen eta emaiten bazerautzan*: zenbatenez orai han goititik, loriatik, hanbat kredit eta esku duen lekhitik, bere debotei egiazki gomendatzen zaizkonei erdietsiko deraue, eta erdietsirik emanen deraue, haragiaren tendamenduen haizatzeko eta benzutzeko indar, bothere, eta garazia? (Ib., 241).

2.5.8. *Perpaus erlatibo korrelatuaren tokia*

Gorago ikusi bezala korrelaziozko perpaus erlatiboak izenordain anaforikoa dakarren perpausaren hastapenean kokatzen ohi dira, honela, beraz:

(195) [... NOR / ZER ... BAIT-aditza ...], HURAaditza]

Zenbaitetan, halere, perpaus erlatiboa ez da perpaus osoaren hastapenean agertzen, baina haren erdian, beti ere izenordain anaforikoa eskuinean duela (hau ageriko denean noski). Horrelakoa da ondoko adibidea:

(196) [Gero baderamatzate [zoin tokitarat iduritzen ere baitzeic], eta *harat*] (J. Etchepare, *Buruchkak*, 172).

Adibide horretan, *harat* izenordain anaforikoa dagoen perpausoko aditza (*baderamatzate*) aurrean da, eta perpaus erlatiboa haren eskuinean (izenordain anaforikoaren aurretik, haatik, ez baitaileke bestela izan).

Batzuetan egitura hori aurkitzen da izenordain anaforikoa isildua izanik ere, hala nola Axularren adibide honetan:

(197) Beraz humelatan, (...) behar dugu egun beretik, geroko begira egon gabe, geure konzientziatik, *zer ere notha, falta, eta narrio baitugu*, khentzera enseiatu: eta halatan bakean eta soseguan egon, iarri eta pausatu (P. Axular, *Guero*, 286).

(197) adibidean *zer ere ... bait* perpausa gaineko aditzaren (*khentzera*) ezkerrean da, baina halere perpaus horretako osagaien erdian, zeren ezkerrean duen sintagma (*geure konzientziatik*) *khentzera* aditzaren adizlaguna da. Erlatibo korrelatibo gisa azterkatzen bada (197)ko [*zer ere ... BAIT-*] perpausa, suposatuko da (196) adibidean bezala, haren ondotik izenordain anaforikoa badela, baina kasu horretan isildua dela (*haren* edo *genuke* gauzatua balitz). Alabaina, ikusi dugu gorago (2.5.4) Ø formako izenordain anaforiko horren aukera agertzen dela korrelaziozko erlatiboetan (ik. (188-189) adibi-deak).

2.6. AURREKARIRIK GABEKO GALDE-IZENORDAINA DUTEN ERLATIBOAK

2.6.1. [Galde izenordaina + BAIT perpausa] gisako perpausak

Testu zaharretan honelako adibideak agertzen zaizkigu:

(198) a. emanen zer aukala zer ere eska bailedi (J. Leizarraga, Mt 14, 7).

b. emanen daraiela zer baitute merezi (B. Dechepare, 1, 247).

Nola aztertu behar ditugu adibide horiek? Anaforikoa isildua daukaten, eta anaforikoa dakarren perpausaren erdian diren erlatibo korrelatiboak ote dira (ik. 2.5.8: (196)), anaforikoa isildua izanik, ordea, (197)n bezala? Ala beste egitura bat ote dugu hor, non galdera izenordaina perpaus menderatuaren haslapenean agerturik, ez baita perpaus menderatuaren parte, eta gaineko aditzaren araberako kasu marka hartzen baitu zuzenean?

Ondoko bi egiturek itxuratzen dituzte bi aukerak:

(199) a. ... ADITZA [ZER+KASUA ... BAIT+ADITZA ...] Ø...

b. ... ADITZA ZER+KASUA [Ø ... BAIT+ADITZA ...]

Zer izenordainari dagokion kasu marka bera denean mendeko eta gaineko perpausetan zail da jakiten bi egituren artean zein den baliatua adibideetan. Hurbilagoetik aztertzean, halere, gauzak argi daitezke. Adibidez, korrelazio egituretan (199a) izenordain anaforikoa isil badaiteke (197) adibidean bezala, ez da beharrezkoa. Aldiz, (199b) bezalako egituretan isildurikako izenordainari ezin eman dakioke gorputzik.

c. *emanen daraiela zer: [hura: baitute merezi](konpara (198b)rekin).

Bestalde, galdera izenordainaren eta isildurikako izenordain anaforikoaren kasuak desberdinak direnean, ikus dezakegu zein perpausi dagokio galdera izenordaina: BAIT-perpausari ala aditz gobernatzaila daukan perpausari.

Kontsidera Etxepare zaharraren adibide hau:

(200) kondu hertsi behar dugu harzaz [gure arimaz] eman segurki *nori* baitu bere odolaz karioki erosi (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae* 1, 109-110).

Adibide horretan *nori* izenordainak duen kasu marka (datiboa) *eman* aditzaren osagarriari dagokio nahitaez, zeren *BAIT*-perpauseko osagaia balitz izenordaina *erosi* aditzaren osagarria bailitzateke eta ergatiboan ager bailiteke. Argi eta garbi (199b)ko egitura dugu adibide horretan. Ardatzik gabeko erlatibo generiko arruntak erabiliz, honela ere adieraz daiteke Etxepareren perpausa haren irakurketa errazturik: *kondu hertsi eman behar diogu gure arimaz [bere odolaz karioki erosi duenari]*.

Noski horrelako perpausetan galdera izenordaina mugagabeko izenordain gisa aztertu behar da. Esan bezala haren ondotik den perpausa *BAIT*-perpausuan izenordaina anaforikoak isildua izan behar du.

Guti baliatua izan da egitura hau euskaraz, eta oso markatua da, bereziki (200)ean bezala, kasu desberdinak dagozkiorik izenordainari bi perpausetan.

2.6.2. [Galde izenordaina + aditz subjuntiboa] gisako perpaus erlatibo generikoak

Literatura zaharrea kausitzen da aurrekaririk gabeko galdera izenordaina darabilen beste erlatibo mota bat ere, korrelaziorik gabekoa hau ere. Gaur zaharkituzat jo dezakegu perpaus mota hau, zeren perpaus jokatu gabe gisa bakarrik erabiltzen baitira horrelako egiturak *Baduzu norekin hitz egin* moduko perpausetan (mendeko perpaus jokatu gabeak aztertzean ariko gara haueztaz; ikus, halaber, 1.4.3.3).

Jokatuak direlarik, aditza subjuntiboko forman dute horrelako perpausok. Hona adibide bat:

(201) Ezen eztut non bil ditzadan neure fraktuak (J. Leizarraga, Lk 12,17).

Itzuli horretan, aurrekoan bezala (200), galdera izenordaina (*non*) erabilia

da surrekaririk gabe. Ordean, han ez bezala, mendeko perpausoko osagai bati dagokio eta arabera hartzen du kasu marka edo bere itxura, ez gaineko aditzaren arabera. Bestalde, mendeko perpausoko aditz jokatuak ez dakar *BAIT*-menderagailua eta subjuntiboaren forma du, esan nahi baitu **edin* eta **ezan* (bizkaieraz *egin*) aditz laguntzaileetako *-ke* gabeko adizkera dela, *-eN* menderagailua lotzen zaiolarik:

(202) a. Ez dik [non bere burua reposa dezan] (J. Leizarraga, Mt 8, 20).

b. Eskriturak nonbait diona da, aurtxoak ogi eske zeuden ta etzan norik puska ziezaten (M. Larramendi, *Carta a Mendiburu*, 278).

c. Ez dago nok egin dagijan penitenzijarik (J. A. Moguel, *Confesiño Ona*, 29).

Horretako perpausen erabiltzeko, gaineko aditzak izatea-edo adierazten duen aditza izan behar du eta **edun*, *eduki* edo *izan*, *egon* bezalakoak izaten dira maizenik, askotan ezezkoan erabiliak, nahiz ez dirudien horretan deus baitezpadakorik baden. Gisa horretako aditzek zehargalderak ekartzen edo gobernatzen ez dituztenaz geroz, hemengo perpausak ez daitezke zehargaldera gisa azter. Osagai absolutiboari (objektuari, edo izate aditzaren subjektuari) dagozkion izen sintagmaren tokia hartzen dute, eta balio generikoa duten perpaus erlatibotzat jo daitezke.

Gorago esan bezala, gaur egun itzuli horiek aditza jokatu gabe ematen dira, aditzoia erabiliz iparraldean eta partizipio burutua hegoaldean (batzuetan aditz nagusia ezezkakoa denean partitiboa partizipioari lotuz orduan). Adibidez, (202a) adibidea, (203a)n bezala adierazten du L. Léonek, eta (203b) bezala Orixek:

(203) a. Ez du bere burua nun pausa (L. Léon, Mt 8, 20).

b. Ez du burua nun ezarririk (Orixe, Mt 8, 20).

• Hori da euskaraz erlatiboa eratzeko biderik arruntena, *-eN* menderagailuaren bitartez egina, alegia, izen ardatza agerian (4) edo isilean (5) duelarik:

(4) [Zuk erosi dituzun] *liburuak* garestiak dira.

(5) [Nik erosi ditudan]ak ez dira horren garestiak.

Baina badira beste modu batzuk ere: *zein / non* + menderagailua (6), *BAIT-* (7), korrelazioak (8), aurrekaririk gabeko izenordaina dutenak (9)...

(6) Egun batzuk igaro ditugu, *zeinetaz* luzaz oroituko *baikara*.

(7) Egun batzuk igaro ditugu, luzaz haietaz oroituko *baikara*.

(8) *Nor* ere ikusiko *baituzu* han, *hari* emaitzuz.

(9) Emango diot *nori* ere erranen *baituzu*.

2. Erlatibo arruntak

2.1. Izen ardatza agerian dutenak

• *Ordena eta kokapena*

• *-eN* menderagailua daraman adizkia erlatiboaren azkenean doa (10) eta nekez atera daitezke haren eskuinera erlatiboaren gainerako osagaiak (11):

(10) Ongi ezagutzen dituzu [goizean kalean ikusi ditudan] *haurrak*.

(11) ?? / *Ongi ezagutzen dituzu [goizean ikusi ditudan] *haurrak* [kalean].

• Erlatiboa izen ardatzaren ezkerrean agertzen da komunzki. Beste izenlagunik bada, erlatiboa guztien ezkerrean agertzen da maizenik (12), nahiz ez beti (13):

(12) [Aspaldi irakurri ez nituen] *euskarazko hiru liburu* hartu nituen.

(13) *Harako* [aipatu nizun] *gizon hura*.

• Ardatzaren eskuinean ere ager daiteke, izen sintagmaren barnean, hau da, izenaren eta mugatzailearen artean, izenondoen tokian, esanahian alderik ez delarik:

(14) *Gizon* [aspaldi ikusi ez nituen]ak aurkitu nituen han.

• Izen sintagma erlatibatua erlatiboaren perpaus mendeko baten osagai ere izan daiteke, errazago mendeko hori osagarria bada (15) eta nekezago adjuntua denean (16):

(15) [(Bari Ø ikustera) joan ginen] *filma*...

(16) ??/?? [(Telebistan Ø ikusteko) etxean gelditu ginen] *filma*...

• Erlatibatzeko eskala

Isilpean geratzen den izen sintagma erlatibatuarekin batera isildu egiten da kasu marka ere (eta posposizioa). Hori dela eta, zailtasunak izaten dira maiz izen sintagmak erlatibatzeko, neke izan baitaiteke zenbaitetan isildu dena 'ulertzea'. Eskala bat dago erlatibatzeko erraz diren sintagmetatik nekezeneraino: a) kasu gramatikala duten osagarriak > b) kasu gramatikala ez dutenak > c) adjuntuak.

a. Lehen mailan, bada, absolutiboan eta ergatiboan –eta datiboan– daudenak ditugu:

(17) ['Gero' idatzi zuen] *idazlea* Urdazubian jaio zen.

b. Bigarren mailan, aditzaren osagarriei dagozkien sintagma adberbialak ditugu, kontesturik gabe beharbada bitxi izan daitezkeenak:

(18) Aurkitu ote dute [akusatu ninduten] *krimenaren* egilea?

c. Hirugarren mailan adjuntuak ditugu: nekez erlatiba daitezke, batez ere posposizioa dutenak:

(19) *[Laster joan beharko duzun] *lagunek* esango dizute.

(20) ??Ezagutu nahi nuke [zure alaba bizi den] *gizona*.

Zailtasuna arintzen da izen sintagma isildua eta izen ardatza kasu berean direnean:

(21) Mintzatu nahi nuke [zure alaba bizi den] gizonarekin.

Izenordain erresuntiboetara jotzea ez da ohikoa (22), baina bide hori zabalik dago, batez ere izen sintagma erlatibatua erlatiboko osagai baten barnean denean (23):

(22) **Hariatik* atera nintzen etxea...

(23) [[*Hariatik* atera nintzela] uste zenuen] etxea...

Izen sintagma erlatibatua leku-denborazkoa denean, *-eNEKO* atzizkia erabiltzen dute batzuek erlatiboan, beharrezko ez bada ere:

(24) Ni nengoeneko plaza... (= ni nengoen plaza)

• *Balioari* dagokionez, perpaus erlatiboak izan daitezke: a) murrizgarri eta mugagarriak; b) murrizgarri eta ez-mugagarriak; c) ez-murrizgarri eta ez-mugagarriak. Balio horiek gorabehera, ordea, erabidea beti bat da:

(25) a. Goizean etxe aurtean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori.

b. Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk.

c. Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arreba esango dizu hori.

• Ez da ohikoa galdegaiguneko *BA-* erlatiboetan erabiltzea:

(26) Ura *den* tokian ez da idortarik (vs. Toki honetan ura *bada*).

• Erlatiboak ardatzaren ezkerrean (a), eskuinean (b), edo ezkerrean eta eskuinean (c) meta daitezke:

(27) a. [Orok maite dugun] [mesede handiak egin dizkigun] *lagun* batek...

b. landatuak baituzte *izei* luze mehar, [osto ala adarrak hain usu dituzten], [frantsesez cyprès deitzen dituzten]ak.

c. [Aipatu zenidan] *haur* gaizto, bihurri, [inork jasan ez dezakeen] horrek egin omen du.

Bat bestearen barnean txerlatua dela ere ager daitezke:

d. Non ote da [[gainean jartzen zitzaizkion] *emaztekiak* emagaitzen zintzen] *harria*?

• *-eLAKO* menderagailua hartzen dute erlatibo subjektibo direlakoek:

(28) [*Etsairik ez duelako*] *gizona* ez da gizon (= etsairik ez duela dioen gizona...).

2.2. *Izen ardatza isildurik dutenak*

• Zenbaitetan izen ardatzik gabe ageri da erlatiboa, ingurunean ageri delako:

(29) Gutxi ikasten duten ikasleek nota txarragoak dituzte [asko egiten duten]ek baino.

Ardatz agerikorik gabeak izaten dira, halaber, erlatibo generikoak:

(30) Dirurik ez duenak ahal gutxi.

• Ardatzik gabeko erlatibo hauetan determinatzailearen eskuinean ager daitezke haren osagai batzuk (31a) –ardatza agerian dutenetan baino errazago (31b)–:

(31) a. Galde iezaiezu dakitenei behar bezala mintzatzen.

b. *Galde iezaiezu dakiten jendeei behar bezala mintzatzen.

• Ardatzik gabeko erlatibo generiko hauetan gogorragoa da erlatibatzeko zailtasunen eskala. Osagarri gramatikalak erlatiba daitezke (32a-b); gainerakoak nekezago (32c):

(32) a. Behin ebatsi duenak bitan egin dezake (erg.).

b. Ikusten dudana mintzo naiz (abs.).

c. *Bizi naizena ederra da (ines.).

Denborazkoak, hala ere, erraz onartzen eta ulertzen dira:

d. Lagunak etorri zirenean gertatu zen.

2.3. Erlatibo apositiboak

- Hauek ere ez dute ageriko ardatzik. ‘Kanpoko ardatza’ dute:

(33) *Gizon hura, askotan gure aitarekin mintzatzen zena, oso handia zen.*

Kasu komunztaduran izaten dira kanpoko ardatza eta perpaus erlatiboa:

(34) *Zoazte (...) su etemalera, akabatuko ez denera.*

Ez da gomendatzekoa ahozko euskaran inoiz gertatzen den komunztaduraren haustura, erlatibo apositiboa absolutiboan ematen delarik:

(35) *Gure Jainkoak, beti zuzen dabilena, ongi gidatzen gaitu.*

- ‘Aposizioko perpaus erlatibo gibeleratuak’ deituetan erlatiboa ez dago kanpoko ardatzaren ondo-ondoan. Horrelakoak absolutiboan baizik ez dira erabiltzen:

(36) a. *Gizon bat etorri zen, ongi ezagutzen duzuna.*

b. **Gizon batek hitz egin zidan, ongi ezagutzen duzunak.*

Euskara mintzatuan inoiz entzun arren, ez dira gomendatzekoak komunztadura hori hausten dutenak:

c. *Herri batera heldu nintzen, batere ezagutzen ez nuena.*

3. ZEIN-erlatiboak

- Gaur egun gutxiago erabiltzen diren arren, euskal literaturan maiz erabili izan dira erabide honetako erlatiboak:

(37) a. [_S[AURREKARIA_k] + kasua] _{P, ER}[ZEIN_t + kasua ... -eN / BAIT-]

b. *Orduan agertu zen gizon bat [zeini beso bat falta baitzitzaion].*

• *Zein* aurrekaria mugagabeen erabiltzen dute batzuek eta mugatuan beste batzuek:

- (38) a. Ez da hau Jesus, *zeinen* aita ezagutzen baitugu?
 b. Ez da hau Jesus, *zeinaren* aita ezagutzen baitugu?

Modu batean *zein* bestean ageri, aditzak komunztadura betetzen du –Hegoaldean, pluralean *zeintzuk* erabiltzen da–:

- (39) a. Gorde gerrako armak, *zein* kaltegarriak *baitira* beti.
 b. Gorde gerrako armak, *zeinak* kaltegarriak *baitira* beti.
 c. Gorde gerrako armak, *zeintzuk* kaltegarriak *baitira* beti.

• Erlatibo arruntetan ez bezala, *zein*-erlatiboa kasu guztietan ager daiteke:

- (40) a. Liburu bat eman didate, *zeinen* izena ‘Gero’ baita (gen.).
 b. Eta zu zara jende haietarik, *zeinengatik* esaten baita ... (moüb.)

Leku-denborazko kasuetan, *zeinean* eta *zeinetan* bezalako en ordez, *non* sailekoak ere erabil daitezke:

- (41) ... doazela Galileara, *non* ikusiko nauten.

• *Zein*-erlatiboa ere konplexua izan daiteke, bai horrelako bat baino gehiago juntatzen direlako, bai izenordaina erlatiboaren mendeko perpaus baten osagai delako. Osagarria bada, izenordaina atera daiteke bere perpausetik (a); adjuntua bada, ez (b):

- (42) a. Etorriko dira haur batzuk, *zeinek* esperantza baitut *dena* kontatuko digutela.
 b. Han utzi zuen andrea, *zeinari* *agradatzeko* hainbeste pairatzen baitzuen.
 b'. *Han utzi zuen andrea, *zeinari* hainbeste pairatzen baitzuen *agradatzeko*.

• *Zein*-erlatiboa ere ager daiteke: a) hurbileko aposizioan; b) gibeleratuan; c) predikatu osagarri gisa:

- (43) a. *Ikas* ezak salbatzeko *arte*a, [zeina baita gainerako zuhurtziaren Andrea].
 b. Goizean *liburu* bat irakurri dut, [zein biziki gustatu baitzait].
 c. *Hau* da [zeinez eskribitu baita...].

• *Zein*-erlatiboa maiz erabiltzen da balio ez-murrizgarriarekin (a); murrizgarri eta ez mugagarriarekin ere erabil daiteke, aurrekariak determinatzaile mugagabea duenean (b); murrizgarria eta mugagarria ere izan daiteke, ize-nordainak funtzio adberbiala betetzen duenean (c), baina ez bestela (d):

(44) a. *Gizonek*, *zein* baitira oro elkarren bete, elkar errespetatu behar lukete (generikoa).

b. Erosi dut *liburu bat*, *zein* Etxaidek iaz argitaratu baitzuen.

c. Hau da *ateka* *zeinetarik* igaro behar baita.

d. *Erosi dut *liburua* *zein* Etxaidek iaz argitaratu baitzuen.

4. BAIT-erlatiboak

• *BAIT*-erlatibo hauek erresuntiboa dute, agerian (45a) edo isilean (45b):

(45) a. ...bakotzak badauka eskuan *liburu ttipi bat*, [*hartan* kontu guztiak baitira].

b. Jinen dira *egunak* [herriari gosea igorriko baitiot].

• *BAIT*-erlatiboan izen sintagma erlatibatua kasu gramatikaletan ez ezik, beste guztietan ere ager daiteke:

(46) *Ostatu handiak* badira [(*han*) zernahi aurki baitaiteke] (ines.).

• *BAIT*-erlatiboa konplexua izan daiteke, erresuntiboa –agerikoa edo isilekoa– mendeko baten barnean duena:

(47) Badira *mutil batzuk* [ez baitakit [ene aholkua onartuko duten]].

• Zenbaitetan ambigua da *BAIT*-perpaua, kausala nahiz erlatiboa izan baitaiteke:

(48) *Etxean* geratzen zen maizenik [*han* baitzuen osoki bere bihotza].

• Izen sintagma ez ezik, perpaua ere izan daiteke aurrekari:

(49) Enperadoreak ez zuen bere mendean amorik edan [anitz baitzen harentzat].

- Egitura berezia da beste hau: *aditza ZER + kasua [Ø BAIT + aditza...]*:

(55) Kontu emango dio *nori* [eskatuko baitu] (balio generikoa: *eskatuko duenari*).

6. [Galde izena + aditz subjuntiboa] gisako perpaus erlatibo generikoa

‘Izatea’ adierazten duten aditzekin [galde izena + aditz subjuntiboa] gisako erlatiboa ageri da inoiz literatura zaharrea (56a). Gaur egun adizki jokatugabearekin egiten dira horrelakoak (56b):

(56) a. Ez du burua non pausa dezan.

b. Ez du burua non pausa.

KONPARAZIO PERPAUSAK

Kapitulu honetan konparazio perpausez arituko gara. Lehenbizi, (3.1) atalean, aurkezpen orokor bat egingo da. Ondoren eredu ohikoaren edo arruntaren arabera eratutako perpausez ariko gara. Bigarren atalean (3.2) berdintasunezko esamoldeak aurkeztuko ditugu eta hirugarrenean (3.3) desberdintasunezkoak, hauetako bakoitzean *maila*, *zenbatasuna* eta *modua* bereiziz. Ondoren, eredu erromanikoaren arabera taxututako perpaus konparatiboak aurkeztuko dira. Eta hauen artean korrelazio gisa egituratzen diren perpausak jasoko ditugu. Eredu erromanikozko hauei (3.4) atala eskaini diegu.

3.1. KONPARAZIO PERPAUSAK OROKORREAN

3.1.1. Konparazioaren adierazpidea hizkuntzan

Nola edo hala neurtuak, mailakatuak, izan daitezkeen nozioak sarritan agertzen zaizkigu hitz egiterakoan. Nozio edo kontzeptu horiek elkarren parean jari beharra ere sarritan gertatzen da.

Adibidez, eguraldia modu askotakoa izan daiteke hiztunarentzat: *txarra*, *ona*, *goibela*, *euritsua*, *epela*, ... Kualitate horiek denak mailaka daitezke: eguraldia *ASKI tristea* izan daiteke, edo *BIZIKI tristea*, *OSO tristea* edo *tristeEGIa*, *tristeAGOa*, etab.

Bestalde, egun bateko eguraldia eta beste batekoa desberdinak izan daitezke, edo antzekoak, edo berdintzat jo ditzake hiztunak. Konpara daitezke, alegia, eta esan daiteke gaurko eguraldia *atzokoa baino epelagoa* dela, edo atzoko eguraldia *herenegungoa bezain haizetsua* izan zela, etab.

3.1.2. Konparazio perpausen zeregina

3.1.2.1. Adjektibo sintagmaren, adberbio sintagmaren nahiz izen sintagmaren osagai

Adjektiboei eta zenbait aditzondori dagozkien maila-aditzondoek (*hain, oso, aski, ...*) nahiz izen sintagmei dagozkien zenbatzaileek (*asko, zenbait, bost, ...*) betetzen duten zeregina berbera betetzen dute konparazio perpausok. Beraz, pareko egiturak izango dira. Hots, ondoko adibideetan azpimarratutako osagaiek, funtsean, zeregin bera betetzen dute:

- (1) a. *Oso* etxe handia dute gure lagunek.
- b. *Gurea bezain* etxe handia dute gure lagunek.
- c. *Zurea baino* etxe handiagoa dute gure lagunek.
- d. *Bost* kamioi pasatu dira gaur.
- e. *Gaur ikusi dudan adina* kamioi ez dut sekula ikusi.
- f. *Atzo ikusi genituen baino* kamioi gutxiago pasatu dira gaur.
- g. *Aski* urruti bizi zen gizona.
- h. *Nahi bezain* urruti botatzen du harria.
- i. *Zuk baino* urrutiago bota dut harria.
- j. *Biziki* interesgarria iruditu zait nobela hori.
- k. *Hura bezain* interesgarria iruditu zait nobela hori.
- l. *Inork uste baino* interesgarriagoa iruditu zitzaidan nobela hura.

Beraz, izen sintagmaren, adjektibo sintagmaren nahiz adberbio sintagmaren osagai ditugu perpaus konparatiboak. Hots: aipatutako sintagma hauen barnean txertaturik agertuko zaizkigu. Perpaus nagusiko osagai baten osagai direla esan dezakegu, perpaus erlatiboak perpaus nagusiko izen sintagma baten osagai izan ohi diren bezalatsu.

3.1.2.2. Konparazio perpausa, adberbio sintagma

Baina, perpaus nagusiaren osagai ere izan daitezke, zuzen-zuzeneko osagai, alegia. Hori gertatzen da, esate baterako, *bezala*-z osatutako perpausetan. *Adina*-z osatutako zenbait perpausetan gertatzen dena ere horixe da:

(2) a. Gure ordezkariak *XVIII. mendean bezala* hitzegiten du.

b. Zure lehengusuak ez daki *zuk dakizun adina*.

Bi adibide hauetan, *XVIII. mendean bezala* eta *zuk dakizun adina*, dagozkien perpaus nagusien atal dira. Ez daude izen sintagma batean edo adjektibo sintagma batean txertaturik. Perpaus nagusiaren zuzeneko atalak dira, *bezala* eta *adina* morfemei esker. Ondoko adibide hauekin alderatzen baditugu, berehala ikusiko dugu kontrastea:

(3) a. Gure ordezkariak *XVIII. mendean ohikoak ziren bezalako ideiak* ditu.

b. Zure lehengusuak ez du *zuk (duzun) adina adiskide*.

c. Gure aitak *edozein sukaldarik bezain pastel goxoak* egiten ditu.

Kasu hauetan, *bezalako*, *adina* eta *bezain* morfemen bidez perpaus nagusiko osagai batean txertatzen da konparazio perpausa. Perpaus horiek ez daude zuzenean perpausaren txertaturik, *ideiak*, *adiskide* eta *pastel goxoak* sintagmetan baizik. Eta sintagma hauek dira perpaus nagusiaren osagai. Beraz, (2)koak perpausaren zuzeneko osagai diren bitartean, (3)koak perpausaren osagai baten osagai izango dira.

3.1.3. Konparazio perpaus motak

Konparazio perpausak konparazioa bideratzen dute. Konparatzean, berdintasunari edo desberdintasunari errepara diezaiokegu. Horrela, konparazio perpausak ere berdintasunezkoak edo desberdintasunezkoak izan daitezke. Eta, bestalde, berdintasunezko nahiz desberdintasunezko konparazio hau mailari, zenbatasunari edo moduari buruzkoa izan daiteke.

3.1.3.1. *Berdintasuna eta desberdintasuna*

Konparazioa ezartzerakoan, berdintasuna eta desberdintasuna har daitezke kontuan. Konparatzen direnen arteko berdintasuna markatzeko *adina*, *bezain*, *bezala* eta horrelakoez baliatzen da euskara. Desberdintasuna markatzeko, berriz, *baino ... -AGO* morfemez baliatzen gara. Hau da funtseko bereizketa.

Desberdintasuna gehiagokoa den ala gutxiagokoa den ere kontuan har liteke. Horretarako *gehiago* eta *gutxiago* bezalako zenbatzaileez baliatzen gara. Bigarren bereizketa hau zenbatusunari dagokionean egin daiteke soil-soilik, ez mailari buruz ari garenean. Maila konparazioan, euskara arruntean behintzat, gutxiagotasunezko konparazio hau ez da gertatzen. Alegia, *etxe bat beste bat bezain garestia dela* esan daiteke (hots: berdintasunezko konparazioaren aurrean geundeke) edo *etxe bat bestea baino garestiagoa dela* (gehiagotasuna adieraziz oraingoan, baina funtsean desberdintasuna markatuz), ez, ordea, **etxe bat bestea baino gutxiago garestia*.

Arazoa, hortaz, aditzondo baten edo izenondo baten mailaz ari garenean sortzen da. Hemen desberdintasuna gehiagotasunezkoa dela besterik ezin esan daiteke. Horrela, **etxe bat bestea baino gutxiago garestia dela* esatea debekatua badago, gutxiagotasunezko konparazio hori aditzera emateko, bi bide ditugu: berdintasuna ukatu edo, ahal denean, kontrako adierako beste adjektibo edo adberbio bat bilatu.

Berdintasuna ukatuz, adibidez:

(4) *Etxe hau ez da bestea bezain garestia.*

Adjektiboaren edo dena delakoaren antonimoa bilatuz, esaterako, *garesti* adjektiboaren ordez, *merke*:

(5) *Etxe hau bestea baino merkeagoa da.*

Hain zuzen, *gutxiago* eta *gehiago*-rekin jokutzen dugunean hau besterik ez dugu egiten: bietan *baino ...-AGO* darabilgu, baina *gehi-* eta *gutxi* biak antonimotzat har daitezke.

Inoiz aipatu izan da horrelako esamoldeen premia, zientziazko gaietan

bereziki. Zehaztasunaren izenean, ezin da sarritan antonimoa erabili. Eman dezagun bi pertsona guztiz pobreak ditugula begien aurrean. Orduan, “hain pobrea ez dena” ez da, beharbada, eta zehatz hitz eginez, “aberatsagoa”.

Dena dela, literaturan, eta bereziki itzulpenezkoan, aurki daitezke gutxia-gotasunezko konparatiboen adibide bakan batzuk:

- (6) a. Noiz ere gertatu bainaiz gizonekin, *gutiago gizon* bihurtu naiz (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 55).
- b. Espiritua izanen duzu idekiago, *gutiago nahasia* eta freskoago (S. Pouvreau, *Philotea*, 92).
- c. Beste hertz batzū *gütiago xuriak* (J. B. Archu, *Gramatika*, 144).

Konparatiboetan barik superlatiboan ere agertzen dira, noizean behin, horrelakoak:

- (7) a. *Gutien on dena* behi hautatzea (S. Pouvreau, *Philotea*, 319).
- b. Jainkoak batzutan hautatzen dituela, munduaren arabera *gutien zuhur* direnak (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historiao I*, 205).
- c. demokrazia ez da sistema kasik ideal bat, ez eta hoberena ere bere txarrean (edo txarretan *gutxien txarra* (...)) (J. Azurmendi, *Demokratak eta biolentoak*, 56).
- d. Populu eta jende guziek, salbaienek eta *gutienik argiruek*, egia hori sinhetsi izan dute (E. Lapeyre, *Credoa*, 56).

Eta <*gutxienik* + adjektiboa + *-EN*> esamoldea ere erabil daiteke, zenbaitetan:

- (8) Itenbide *gutxienik txarrena* izan daiteke hori (I. Sarasola, *Euskara Batuaren Ajeak*, 42).

Dena dela, arazo honen aurrean gomendioren bat eman behar balitz, hau izango litzateke: modu guztiz mugatuan erabiltzea horrelako esamoldeak, zehaztasuna beste bideren batetik ezin salba badaiteke.

3.1.3.2. Konparazioaren gaiaren araberako sailkapena: maila, zenbatasuna eta modua

Perpaus batean mailakatzea onartzen duen osagai bat dugunean (adjektibo sintagma bat, adberbio sintagma bat) edo zenbatekoa ezarri nahi diogun izen

sintagma bat dugunean, hiztunak aukeran du mailakatze hori edo zenbatasun hori beste perpaus bat erreferentzia puntutzat hartuta adieraztea. Horrelakoetan, perpaus nagusiko osagai horren inguruan eratuko da konparazioa. Osagai honi maila ezarriko diogu, edo kantitatea, eta maila hori zehazteko beste perpaus batera joko dugu. Hortaz, ondoko adibideetan konparazioaren gaia, edertasunaren, garestitasunaren, hurbiltasunaren, eta abarren *maila* izango da:

- (9) a. Gorbea Erlo baino ederragoa da.
- b. Frantzia Alemanian bezain garestia da bizimodua.
- c. Nire lantokia zurea bezain hurbil dago hemendik.

Izen sintagmekin ari garelarik, konparazio gaia *kantitatea* izango da:

- (10) a. Nik nire gurasoek baino diru gutxiago dut.
- b. Ekainak apirilak adina egun ditu.

(10a)n diru kantitatea da konparatzen duguna. (10b)n, berriz, hil bakoitzak zenbat egun dituen konparatzen ari gara.

Modua ere izan daiteke konparazioaren gaia, (11) perpausean bezala:

- (11) Zu atzo etorri zinen bezala agertuko dira denak bihar.

Zu atzo *NOLA* etorri zinen eta bihar denak *NOLA* agertuko diren esaten digu perpaus honek.

Konparazioaren gaia *maila*, *kantitatea* edo *modua* izango da.

Horrenbestez, zer zerekin alderatzen den kontuan hartuta, berdintasunaz edo desberdintasunaz gainera, hiru mota nagusi hauek gertatzen dira:

a. Maila konparazioa

- (12) a. Auto hau zurea bezain zaharra da.
- b. Senarra *emaztea* baino *beranduago* joaten zen ohera.

Perpaus hauetan bi autoreen zahartasun maila konparatzen dugu: hots, bi autoak *zenbateraino* diren zaharrak. Gauza bera bigarrenen ere: senarra eta emaztea *zenbateraino* berandu joaten diren ohera. (12a)n maila berdintasuna ematen da aditzera. (12b)n, berriz, maila desberdintasuna.

b. Zenbatasunezko konparazioa

- (13) a. Bizikletak ez du *motorrak adina* balio.
 b. *Diru baino amets gehiago* zuen agureak.
 c. Anderrek *nik bezainbat diru* du.

Hemen zenbatasuna konparatzen dela esan dezakegu: motorrak eta bizikletak zenbat balio duten, edo agureak zenbat amets eta zenbat diru duen jartzen dugu bata bestearen alboan eta konparatzen, adibidez. (13a)n eta (13c)n kantitate berdintasuna adierazten da. (13b)n, ostera, desberdintasuna, kuantitate desberdintasuna.

c. Modu konparazioa

- (14) *Euskal Herrian bezala* ez omen da inon arraina erretzen.

Hemen *bezala* morfemaren bidez ezartzen da konparazioa, baina konparazio hau moduari dagokio. *Adina*-k edo *adinbat*-ek, adibidez, konparazioa bideratzeaz gainera, konparazio hori zenbatasunezkoa dela esaten diguten moduan, *bezala*-k ere berekin du konparazioa alde batetik eta modua bestetik. Bada, hala ere, diferentzia txiki bat: izan ere, *adina*, *adinbat*, *bezainbat* eta horiek izen sintagma baten osagai gisa ager daitezke (ik. 15a eta c) nahiz aditzondo gisako zerbait osa dezakete (ik. 15b eta d).

- (15) a. Jonek *nik adina liburu* erosi ditu (zenbat liburu?).
 b. Jonek *nik adina daki* (zenbat?).
 c. Liburu horrek hiztegi honek *bezainbat orrialde* ditu (zenbat orrialde?).
 d. Liburu horrek hiztegi honek *bezainbat balio* du (zenbat balio du?).

Bezala-rekin, berriz, aditzondoak osatuko ditugu beti (ik. 16b). *Bezala*-rekin ez dago biderik (15a eta c)ren pareko zerbait osatzeko. Horretarako

maila konparazioko morfemaz baliatuko gara (*bezain*), dagokion izenondoari edo aditzondoari erantsita, (16a)n bezala:

(16) a. Jonek nik *bezain gaizki kantatzen* du (zenbateraino gaizki?).

b. Jonek nik *bezala kantatzen* du (nola?).

Bestalde, bai maila konparazioan, bai zenbatasunezkoan, berdintasuna eta desberdintasuna adieraz ditzakegu: horretarako ditugu *bezain*, *adina*, etab. alde batetik, eta *baino ...-AGO* bestetik. *Bezala*-k beti berdintasuna adierazten du. Jakina, beti da zilegi berdintasuna ukatzea. Aditza gehienetan ezabatua joan ohi bada ere, *ez* partikula hor gelditzen da ezeztapenaren seinale. Eta horrelakoetan *ez + bezala* esamoldea sortzen zaigu. Hau litzateke desberdintasuna adierazteko bidea:

(17) a. Peruk *zuk ez bezala* jokatu zuen.

b. Itziarri *zuri ez bezalako* gozokiak oparitu dizkiote.


c. Zuri *ez bezala*, niri goxokiak oparitu dizkidate.

Mota bakoitzak, ikusiko dugun bezala, morfema bereziak erabiliko ditu. Adibidez, *adina*, *adinbat*, *beste* edo *bezainbat* bezalako batek berdintasunezko kantitate konparazioa bideratuko du. (13c) perpausean, adibidez, Anderrek zenbat diru duen esaten zaigu, bide batez konparazioa ezarriz, nik dudari dirutzarekin konparatuz, alegia.

Bezain, esaterako, berdintasunezko maila konparazioa bideratzeko erabiltzen dugu (ikus (12a), esate baterako).

Bestalde, *baino ...-AGO* izango da desberdintasunezko konparazio morfema, bai mailarako, bai zenbatasunerako.

Horrenbestez, eta laburbilduz, honako banaketa egin liteke konparazio perpausetan:




3.1.4. Konparazio egituraren osagaiak

Orain arte esandakoaren arabera, konparazio egituretan parte hartzen duten osagaiak honako hauek dira: bi atal eta kuantifikatzailea.

3.1.4.1. Bi atal

Konparazioan beti bi mutur ditugu, bi perpaus, *A* eta *B*. Bigarrenetan kuantifikazioa edo maila ezartzen da eta lehenbizikoan erreferentzia puntua edo araua. Bi atal hauek egitura paraleloa izan ohi dute.

Konparazio egitura:



(18) izango litzateke atal bat. *B* atala, hain zuzen:

(18) Andoni atzo *erneago* ibili zen musean.

Atal honetan ezartzen da kuantifikazioa: *erne* adjektiboari *-AGO* maila-hizkia ezarri diogu eta *erneago* forma gertatu zaigu.

Bestalde, *B* deitu dugun atal honekin lotua, eta normalean honen ezker aldean, *A* atala eraikiko dugu, erreferentzia puntua ezarriko duena. (18) perpau sarentzat, adibidez, aukera ugari ditugu, beti ere kontuan izanik bi perpausek egitura paraleloa izan ohi dutela. Adibidez:

- (19) a. Joseba baino
b. Herenegun baino
c. Autoa gidatzen baino
d. Joseba lanean baino
e. Herenegun autoa gidatzen baino
etab.

Bi muturrak lotuaz, honelako egitura konparatiboak izango ditugu:

(20)

A atala (erreferentzia puntua)

B atala (perpau nagusia)

a. Joseba baino	erneago ibili zen Andoni .
b. Herenegun baino	erneago ibili zen atzo Andoni.
c. Autoa gidatzen baino	erneago ibili zen musean Andoni.
d. Joseba lanean baino	erneago ibili zen musean Andoni.
e. Herenegun autoa gidatzen baino	erneago ibili zen atzo musean Andoni.

Bi perpausek egitura paraleloa izan behar dutela esan dugu. Gehienetan hala da. Egitura horietatik konparazioa egiterakoan garrantzizkotzat jotzen diren osagaiak, nolabait konparazioa bideratzeko funtsezkoak direnak, nahitaez gorde behar dira.

Jakina, konparazioaren araua edo erreferentzia puntua adierazi gabe ere utz daiteke, zehaztu gabe. Adibidez:

- (21) a. Automobil hura *berriagoa* zen.
b. Automobil hura ez zen *hain berria*.

Ez dugu esaten automobila zein baino berriago zen. Hori testuingurutik edo atera beharko da. Erreferentzia puntua ezarri nahi bada, perpaus konparatiboa eratu behar dugu.

Perpaus konparatiboak, mendekoak, *-eN* menderagailua izango du aditzari itsatsia. Jakina, perpaus horretako aditza agerian badago, atzizki hori ere agerian izango da. Eta aditz hori isilarazia bada –maiz gertatzen dena, bestalde–, atzizki hori ere aditzarekin batera isilarazia izango da:

(22) a. *Alberditarrek erosi dituzteN* baino etxe gehiago erosi ditu udalak berak.

b. *Alberditarrek Ø* baino etxe gehiago erosi ditu udalak berak.

Gaur egun zenbaitek *-eN* atzizkia ez ezik *-eNA* eransteu diote perpaus horri. Horrelakoak zenbait autorerengan aurki badaitezke ere, badirudi aski bazterrekoa dela jokabide hori eta, gainera, nekez justifikatzen dela gramatikaren ikuspegitik. Hortaz, *-eN* atzizkia izango da gomendatuko duguna era honetako perpausetan, salbu zenbait esamoldetan (ik. 3.1.6.4).

3.1.4.2. *Maila-hizkia eta konparazio morfema*

(20) bezalako desberdintasunezko konparazio hauetan, argi dago adjektibori zein kuantifikatzaile edo maila-hizki ezarri diogun: *-AGO* atzizkia erantsi diogu. Honek adjektibo soila adjektibo konparaibo bihurtu du. Ezkerretara ageri den *baino*-k, berriz, erreferentziatzat hartzen dugun perpausari nolabaiteko zedarria edo jartzen dio. “Zubi lana” egiten duela esan genezake. Horrela, bi elementu horiek agertuko zaizkigu, baina ez bat eginik: *baino ...-AGO* segida “hautsia”. Gainerako konparatiboetan, ordea, bi morfema horiek “urtuta”, “bat eginda” agertzen dira: *bezain*, *bezala*, *adina*, etab. Pentsa liteke, *baino* + *...-AGO* dugun bezala, orain *bezain*, *bezainbat* eta *bezala*-ren kasuan behintzat, *bez* + *hain*, *bez* + *hala*, *bez* + *hainbat*, dugula. Hemen kuantifikatzailea eta zubi lana egiten duen konparazio morfema bat eginik ditugula: hitz bakar batean ditugu oraingoan lehen berezirik genituen morfemak. Beraz, *bezain*, *adina* eta horrelakoetan, *baino ...-AGO*-ren kasuan ez bezala, zenbaitzailea eta perpaus txertatuari bide ematen dion elementua hitz bakar batean bildurik agertzen direla pentsa dezakegu.

Egitura hauek konpara litezke:

Kantitatea aia maila konparatzen dugun ere kontuan izan behar da. Adibidez, *bezain* maila konparatzeko erabiltzen dugu. *Adina*, *bezainbat*, *beste*, berriz, zenbatasuna konparatzeko.

Horiek dira, hortaz, perpaus konparatiboetan aurkituko ditugun elementu nagusiak.

3.1.5. Konparazioa bideratzeko egiturazko baldintzak

Gorago esan dugun bezala, konparazioak bi mutur eskatzen ditu. Bi mutur horiek elkarren parekoak eta aski paraleloak izan ohi dira gehienetan.

Eman dezagun (27) perpausa, non “X” osagaiak kantitate bat adierazten duen:

(27) Nik bankuan *X diru* gorde dut.

“X” hori modu askotara zehaztu daiteke:

(28) a. Nik bankuan *diru ASKO* gorde dut.

b. Nik bankuan *NAHIKO diru* gorde dut.

etab.

Baina kantitate hori zein den erabakitzeko orduan beste erreferentzia puntu bat har dezaket, egitura konparatibo batera joaz. *ASKO* edo *NAHIKOA* dela esan beharrean, (28)an bezala, kopuru hori zuk gorde duzun diru kopurua erreferentziazat hartuta zehaztu dezaket:

(29) *Zuk ADINA* diru gorde dut nik bankuan.

Konparazioaren gaia beti maila edo kantitatea izan ohi da, edo modua. (29)an zenbatasunezko konparazioaren aurrean gaude. Konparatzen dena da zuk eta nik bankuan gorde dugun diru-kopurua.

Egituraren aldetik, konparaziozko perpausa *-zuk (gorde duzun) adina-* izen sintagmaren osagaia da:

(30) $_{1S}$ [$_{p}$ [zuk gorde duzun adina][diru]]

Osagai honek *ZENBAT* galderari erantzuten dio. Hots: (29) perpausak ondoko galdera honi erantzungo lioke:

(31) *ZENBAT* diru gorde dut nik bankuan?

Baina esan dugu gorago bi perpausok egitura paraleloa izan behar dutela konparazioa bideratuko bada. Gure kasuan, (29) perpausuan alegia, paralelotasun hori aski begien bistakoa da:

Perpaus txertatua:	Zuk	X diru	gorde duzu	bankuan
	A	B	aditza	C
Perpaus nagusia:	Nik	X diru	gorde dut	bankuan
	A'	B	aditza	C

Horrela, perpaus elkartuak (32)ren antzeko egituraren bat izango du. Perpaus nagusiko osagaiak bere horretan gordeko dira, eta perpaus txertatuko hainbat ezabatu egingo dira, batzuk nahitaez (hori da \emptyset bidez irudikatzen duguna eta 'X diru' esatea bezala litzatekeena), beste batzuk aukeran (aditza, adibidez):

(32) *Nik* $\underbrace{[\text{rik } \emptyset \text{ (gorde duzu + nik bankuan) }]}_{\text{p. txertatua}} \text{ diru gorde dut bankuan}$
 $\underbrace{\hspace{10em}}_{\text{zenbatz. sintagma}}$
 $\underbrace{\hspace{15em}}_{\text{izen sintagma}}$

Perpausak egitura paraleloa dutenak izanik, kontrastean dauden osagaiak agertu beharko dute (*nik / zuk*, gure kasuan).

Gauza bera gertatzen da maila konparazioan. Honako bi egitura paralelo hauek:

Perpaus txertatua: **Luma** **X arina** **da**

Perpaus nagusia: **Zure ibilera** **X arina** **da**

Honako perpaus elkartua lortuko dugu:

(33) Zure ibilera [Luma Ø (den) bezain] arina da.

Behin bi perpausen paralelotasuna ziurtatua egonik, kasu bakoitzean zer den konparatu nahi dena, halako egiturak sortuko zaizkigu. Kontrastean jar-tzea da konparatzea. Beraz, bi perpaus paralelo horietan, maiz, errepikatzen diren osagaiak izango dira. Kasu horretan perpaus txertatukoak isilpean utzi-ko dira.

Osagaiak errepikatzen ez badira, kontrastean jarri behar dira, eta, horren-beste, perpaus txertatukoak ere agerian egongo dira. Adibidez, goiko (32) eta (33)ren orde, askoz egitura konplexuagoak izan ditzakegu. Perpaus txertatua (34)ren antzeko bat bada, esaterako:

(34) *Zuk atzo etxean X diru gorde zenuen*
 A B C D E

Orduan, perpaus nagusia nolakoa den, halakoa izango da egitura osoa. Adibidez:

- (35) a. *Zuk atzo etxean gorde zenuen adina diru dut nik gaur bankuan.*
 b. *Zuk atzo (gorde zenuen) adina diru gorde nuen nik herenegun bankuan.*
 c. *Zuk (gorde zenuen) adina diru gorde nuen nik atzo bankuan.*

Gauza bera gertatzen da adjektiboekin ere:

- (36) a. *Telefonoa posta elektronikoa bezain garestia da.*
 b. *Telefonoa erabilgarri bezain garestia da.*

Bi perpaus hauek zeharo esanahi desberdina dute, nahiz eta perpaus nagusia hietan bera izan, (37). alegia:

(37) *Telefonoa X garestia da.*

Horrek esan nahi du, telefonoaren garestitasun maila hartzen dugula konparazioaren gaitzat. Alegia, telefonoa zenbateraino den garesti nahi dugu adierazi. Diferentzia, erreferentzia puntutzat hartzen dugun perpausan datza: (36a)n, honako hau da ulertzen duguna:

(38) [Posta elektronikoa X garestia da].

Beraz, telefonoaren garestitasuna posta elektronikoenarekin konparatu dugu. (36b)n, ostera, perpaus txertatuan dukeguna beste hau da:

(39) [Telefonoa X erabilgarri(a) da].

Hortaz, lehen ez bezala, telefonoaren erabilgarritasun mailarekin alderatzen dugu telefonoaren prezioa. Garestitasun *maila* erabilgarritasun *mailarekin* konparatzen dugu, hortaz.

Esanahiari dagokionez, (38) eta (39) desberdinak dira, jakina, baina egituraz, erabat paraleloak dira. Hain zuzen, biek perpaus nagusiaren –hots: (37)ren– egitura bera dute.

Konparazioa zertaz egiten den. (*diru kantitateaz, garestitasun mailaz, etab.*) sintagmaren buruak adieraziko digu. Burn hori adjektibo bat, aditzondo bat edo izen bat izango da. Bi perpausetan adjektibo, aditzondo edo izen beraren mailaz edo kantitateaz ari bagara, perpaus txertatuan ez da delako elementu hori agertuko. Ezin da agertu. Ez litzateke zuzena izango, adibidez, honako hau:

(40) a. *Nik bankuan *zuk etxean horrenbeste diru (duzun) adina diru dut.*

Ez eta honako hau ere:

b. *Nik bankuan *zuk etxean diru (duzun) adina diru dut.*

Zuzena (41) izango da:

(41) Nik bankuan *zuk etxean [Ø] (duzun) adina diru dut.*

Perpaus erlatiboetan gertatzen den fenomeno bera dugu, hortaz. Alegia, *horrenbeste diru* osagaia isilpean geratu beharrekoa da, sintagmaren buruan

adina diru agertzen donez gero. Bictan diru kantitateaz ari garenez, *horrenbeste diru* bezalako sintagmarik ezingo dugu agerian ezarri perpaus txertatuan. Baina batean diru kantitateaz ari bagara eta bestean premia kopuruaz, adibidez, zenbatzailea isilpean geratuko da, baina *premia* izena ez:

(42) *Zuk etxean premia (duzun) adina diru dot nik bankuan.*

Perpaus txerratuko gainerako osagaiak, normalean, kontrastean jarri nahi ditugunak badira utziko ditugu agerian, aditza bera barne. Hala ere, aditza kontrasteduna izan ez arren eman daiteke aditzera.

Zehatz dezagun apur bat gehiago, hala ere, paralelotasun kontu hau. Maila konparazioa, batez ere predikatuzko perpausetan agertzen zaigu, <A B da > modukoetan, alegia –ik, (36)ko adibideak–. Perpaus txertatuek ere egitura hau izan ohi dute. Froga, goiko (36)-(39) perpausak ditugu. Aditzondoan kasuan aditzondo hori aditzaren inguruan ibiliko da. Adibidez, *A B etorri da* modura (*Peru pozik etorri da*, esaterako). Hautetan ere, erreferentziatzat hartzen den perpausak egitura horixe izan ohi du.

(43) *Peru [ni Ø (etorri naizen) bezain] pozik etorri da.*

Mendeko perpausaren egitura honako hau da:

(43') [Ni X pozik etorri naiz].

Eta perpaus nagusiarena, berriz, honako hau:

(43'') *Peru X pozik etorri da.*

Egitura paraleloak, hortaz.

Baina adjektiboa izen sintagmaren barnean ere ageri da maiz:

(44) *Etxe ZABALA da hura.*

Hemen ere konparazioa ezar daiteke:

(45) *Herriko plaza bezain etxe zabala da hura.*

Honen azpian honako egitura hau dugu:

(45') [Herriko plaza X zabala da -eN bezain] etxe zabala da hura.

Hemen ahotan darabilgun paralelotasun kontu hori aski ongi gordetzen da.

Saia gaitezen orain sintagma hori absolutiboan barik beste kasu batean ematen. Inesiboan, adibidez:

(46) *Herriko plaza bezain* etxe zabalean bizi da Peru.

Honek ere azpian (45')k duen perpaus konparatibo bera izango luke:

(46') [Herriko plaza X zabala da].

Hortaz, (46)ren egitura, funtsean, (46'') izango da:

(46'') [Herriko plaza X zabala da -eN bezain] etxe zabalean bizi da Peru.

Bi perpausak, gutxi gorabehera, honelatsu dira: batetik, *herriko plaza X zabala da* eta bestetik, *Peru X etxe zabalean bizi da*. Onartzen badugu bigarren perpaus honetan ere [etxea X zabala (izan)] dugula, aldarrikatzen dugun paralelotasun hori salhatua dago.

(46)ren ordezt (47) ere eman daiteke:

(47) *Herriko plaza bezain zabala den* etxe batean bizi da Peru.

Hau ere erabat zuzena eta onargarria da. Honek, gainera, (46)k baino paralelotasun erabatekoagoa du: perpaus erlatiboa hartzen badugu kontuan, honen egitura, funtsean, goiko (45') besterik ez da. Hona hemen berriro emana:

(45') Etxea [herriko plaza X zabala den bezain] zabala da.

Paralelotasuna gordeta ere, zenbaitetan egitura anbiguoak gertatzen dira. Goiko (46)ren ordezt beste honako hau ematen badugu:

(48) *Joxepa bezain* etxe zabalean bizi da Peru.

perpaus honen interpretazio arruutena, dirudienez, (48')koa dugu:

(48') [Joxepa X zabala da -eN bezain] etxe zabalean bizi da Peru.

(Hots: Joxepa bezain zabala don etxe batean bizi da Peru.)

Baina (48'')ko interpretazioa ere bidezkoa da:

(48'') [Joxepa X etxe zabalean bizi da -eN bezain] etxe zabalean bizi da Peru.

(Biak etxe zabalean bizi dira, alegia).

Honek esan nahi du honelako egiturak, berez, anbiguoak izan daitezkeela.

Bide beretik, (49) perpausaren interpretazio zuzena zein da?

(49) *Zu bezain lagun alaiakin ibiltzen da neska hori.*

Interpretazio ohikoena badirudi honako hau dela:

(49') [Zu X alaiak zara -eN bezain] lagun alaiakin ibiltzen da neska hori.

(= Zu bezain alaiak diren lagunekin ibiltzen da neska hori.)

Baina beste hau ere zilegi litzateke:

(49'') [Zu X lagun alaiakin ibiltzen zara -eN bezain] lagun alaiakin ibiltzen da neska hori.

(Hots: Zu ibiltzen zaren bezain lagun alaiakin ibiltzen da neska hori).

Desberdintasuneko konparazioan ere gauza bera dugu. Har dezagun Txirritaren adibidea:

(50) *Zu baino gizon umilagoak ez ditut asko ikusi.*

Honen interpretazio bakarra honako hau da:

(50') [Zu X umila zara -eN baino] gizon umilagoak ez ditut asko ikusi.

Eta zer gertatzen da konparatiboa txertatua doan sintagma hori absolutibotan ez beste kasu batean bada?

(51) *Zu baino gizon umilagoekin lan egin nahi nuke.*

Hau ere zuzena da. Beste honen baliokide izango genuke:

(51') Zu baino umilagoak diren gizonekin lan egin nahi nuke.

Honako adibide hau ere taxu horretakoa da:

(52) *Oraín artekoak baino* ikerlan sakonagoci ekingo bagenie... (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 49).

(50-52)ko perpausetan anbiguitaterako lekurik ez da perpaus konparatiboko subjektua (*zu, orain artekoak*) eta perpaus nagusikoa (*nik, guk*) kasu desberdinean doazelako. Biak absolutiboan joanez gero, orduan gerta liteke anbiguitatea:

(53) Zu baino gizon umilagoekin bizi nintzen (ni).

a. Zu baino umilagoak ziren gizonekin bizi nintzen.

b. Zu bizi zinen baino gizon umilagoekin bizi nintzen.

(54) Oraingoak baino lan sakonagoci emana zebilen.

a. Oraingoak baino sakonagoak ziren lanei emana zebilen.

b. Oraingoak (emanak) dabiltzan baino lan sakonagoei emana zebilen.

Nolanahi ere, anbiguitatea zein baldintzatan gertatzen den argi dago. Gehienetan, hala ere, dugun mundu-ezaguerak markatuko digu, zalantzarik gabe, anbiguitatea hausteko bidea. Gainera, anbiguitate hauei bidea erabat ixten ahal zaie mendeko perpausoko aditza gordez gero. Adibidez, (48) eta (49) anbiguoak izanik ere, honako hauek ez dira batere anbiguo:

(55) a. Joxepa bizi den bezain etxe zabalean bizi da Peru.

b. Zu ibiltzen zaren bezain lagun alaiekin ibiltzen da Peru.

3.1.6. Konparazioaren egitura orokorra

3.1.6.1. Konparazio perpausaren taxu orokorra

Laburbilduz, konparazio egitura hauen taxu orokorra honako hau dela esan daiteke:

1. BERDINTASUNA

A. Maila

AdjS/AbS[...(aditza + -eN) + BEZAIN + ADJEKTIBOA/ ADBERBIOA]

(56) a. AdjS|zu Ø (zaren) + bezain + berritsuak] da Miren.

b. AbS|zu Ø (bizi zaren) + bezain + ongi] bizi da Miren.

Jakina, konparazio egitura hau izen sintagma baten barnean txertatua egon daiteke, konparagaia hemen ere izen sintagma horretako adjektiboaren maila dela :

IS[...(aditza + -eN) + BEZAIN + IZENA + ADJEKTIBOA (...)]
--

(57) a. Zu Ø (zaren) bezain neska berritsuak ez dira asko.

b. Zuk Ø (erosten dituzun) bezain jantzi garestiak jende gutxi erosten ditu.

B. Kantitatea

IS[...(aditza+ -eN) +	ADINA		
	ADINBAT		
	BESTE	+	IZENA]
	BEZAINBAT		
	...		

Adibidez:

(58) a. IS|zuk Ø (duzun) + adina + urte] ditu Mirenek.

b. IS|atzo Ø (ekarri nuen) + beste + esne] ekarri dut gaur.

etab.

Izen sintagma bat barik, kantitatezko adberbio sintagma edo osatuz ere aurki dezakegu konparazioa:

(59) *Abarka zar batek aña ez diat balio* (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 43).

[*Abarka zahar batek adina*] osagaia zenbatzaile sintagma bat litzateke edo, agian, adberbio sintagma bat. Horrenbestez, kasu honetan honako egitura proposatu beharko da, goikoaren antzekoa baina izenik gabea:

Adbs[...(aditza + -eN)	+	ADINA ADINBAT BESTE BEZAINBAT ...	
------------------------	---	---	--

Gogoan izan, nolana ere, *bezain gutxi* ere esan daitekeela. Hor, hala ere, gutxitasun maila konparatuko litzateke, *hain gutxi*, *oso gutxi*, etab. esaten duguncan bezala. *Gutxi*-k maila onartzen duen heinean bide hori zabalik du. *Aska*-rekin, berriz, ez dirudi horrelakoak zilegi direnik: **oso asko*, **hain asko*, eta antzekoak txarrak dira.

Bestalde, *adinako*, *adinbateko*, *besteko*, *bezainbateko* gisakoak ere hor ditugu. Hauek *zenbateko* galderari erantzuten diote eta izenlagunak edo adjektibo sintagma osatzen dituztela esan dezakegu.

AdjS[...(aditza + -eN)	+	ADINAKO ADINBATEKO BESTEKO BEZAINBATEKO ...	(IZENA) ...]
------------------------	---	---	--------------

- (60) a. AdjS[ukabila Ø (den) + adinako] puskak irensten zituen.
 b. AdjS[Jainkoa Ø (den) + bezainbateko]-ak izango zarete.

C. Modua

Moduzko konparazioa beti berdintasunezkoa da eta *bezala* aditzondoaren bidez eraikitzen da. Desberdintasuna adierazi nahi bada, maila konparaziora jo behar da, dagokion aditzondoa erabiliz (*astiro*, *pozik*, ...), edo, bestela, ezetzapenez baliatuz: *aitak ez bezala*.

Hona hemen eskema orokorra:

$\text{AdbS}[\dots(\text{aditza} + -eN)]$	+	BEZALA
---	---	---------------

- (61) a. $\text{AdbS}[\text{Gainerako guztiek } \emptyset \text{ (egiten duten)} + \text{bezala} \mid \text{egin behar duzu zuk.}]$
 b. $\text{AdbS}[\text{Nik } \emptyset \text{ nahi (nuen)} + \text{bezala}] \text{ gertatu dira gauzak.}]$

Eta *bezala*-k “nola” (modua) galderari erantzuten dion moduan, *bezalako*-k “nolako” galderari erantzuten dio. Horrenbestez, izenlagunaren zeregina beteko lukeen osagaia izango litzateke. Osagai horren ardatza *bezalako* dela onartuz eta hau adjektibotzat hartuz (-KO atzizki adjektibatzailetzat har liteke), adjektibo sintagma baten aurrean gaudela esan genezake, goian aipatu diren *adinako* eta antzekoak bezala, hain zuzen:

$\text{AdjS}[\dots(\text{aditza} + -eN)$	BEZALAKO	(IZENA) ...
--	-----------------	-------------

- (62) a. $\text{AdbS}[\text{Mirenek } \emptyset \text{ erosi dituen bezalako}] \text{ zapata batzuk nahi ditut.}]$
 b. $\text{AdbS}[\text{Zure txakurra } \emptyset \text{ (den) bezalako}] \text{-a da niri oparitu didatena.}]$

2. DESBERDINTASUNA

A. Maila

Adjektiboen edo adberbioen mailaz ari garenean, desberdintasuna adierazteko, dagokion adjektiboaren edo adberbioaren konparatiboa erabiliko dugu: *handiago*, *txikiago*, *ederrago*, *merkeago*, *urrunago*, *zorionekoago*, etab. Honen ezkerretara joango da, berriz, erreferentziatzat hartzen den perpausa, *baino* buruan duela.

Adjektibo soilekin egiten da sarritan konparazioa, izen predikatuaren egon-gunean aurkitzen den adjektiboarekin.

$\text{AdjS/Adbs} \left[\dots(\text{aditza} + -eN) + \text{BAINO} + \text{ADJEKTIBOA} + \text{AGO(A)} \right]$ $\text{ADBERBIOA} + \text{AGO}$

- (63) a. AdjS[atzo (ikusitza) + baino + politago] ikusten zaitut gaur.
 b. AdjS[Gasteiz (den) + baino + handiago(a)] da Bilbo.
 c. AdjS[zu (etorri zinen) + baino + beranduago] etorri zen Mikel.

Baina adjektiboa izen sintagma baten barnean ere ager daitekeenez, era honetako konparatiboak izen sintagmen osagai gisa ere aurkituko ditugu zenbaitetan:

$\text{IS}[\dots(\text{aditza} + -eN) + \text{BAINO} + \text{IZENA} + \text{ADJEKTIBOA} + \text{AGOA}]$

Adibidez:

- (64) a. IS[zu (zaren) + baino + neska langileagoa] da Miren.
 b. IS[zu (zaren) + baino + gizon umilagoak] ez ditut asko ikusi.
 c. IS[inork (erosten dituen) + baino + zapata nabarmenagoak] erosten ditu gure auzoko batek.

B. Kantitatea

Desberdintasunezko konparazioan ez dago zenbatasunaren eta mailaren arteko funtsezko bereizketarik. Kantitateaz ari garenean, *gutxi* eta *gehi*-zenbatzaileen konparatiboak erabiltzen ditugu. Hots: *gutxiago* eta *gehiago*. Hauek ere ezkerretara *baino*-dun perpaus mendekoa izango dute:

$\text{IS}[\dots(\text{aditza} + -eN) + \text{BAINO} + \text{IZENA} + \{ \text{GEHI- / GUTXI-} \} \text{AGO}]$
--

$\text{Adbs}[\dots(\text{aditza} + -eN) + \text{BAINO} + \{ \text{GEHI- / GUTXI-} \} \text{AGO}]$

- (65) a. $_{\text{IS}}$ [zuk harrapatu duzun + baino + arrain gehiago] jango genuke.
b. $_{\text{IS}}$ [Andonik espero zuen + baino + jende gutxiago] etorri da jaialdira.
- (66) a. $_{\text{Adbs}}$ [zuk nahi zenuen + baino + gehiago] jan zuen txakurrak.
b. $_{\text{Adbs}}$ [zuk uste duzun + baino + gutxiago] balio du automobil honek.

3.1.6.2. Konparazio morfemen gramatika kategoria

Aipatu ditugun konparazio morfema hauen gramatika kategoriari dagokionez, kantitatezko konparazioan agertzen direnak *zenbatzaileak* direla esan dezakegu. Hots: *zenbait* edo *hamabi* bezalaxe, *adibidez*, *adina*, *bezainbat* etab. *zenbatzaile* genituzke. *Zenbatzaile* hauek, ordea, ezkerretara, osagarri gisa, perpaus bat eskatzen dute.

Maila konparatiboak, berriz, *hain*, *aski* eta antzekoen kategoriakoak direnez, hauek bezala, *maila-hitzak* direla esango dugu. Beraz, *bezain* maila-hitz dugu eta *baino ...-AGO* ere bai. Batcan hitz bakarrean emana, bestean morfema "hautsi" gisa. *Maila-hitz* hauek ere, ezkerretara, perpaus bat eramango dute.

Modu konparazioan ageri den *bezala*, berriz, modu aditzondo bat da. *Honela*, *horrela*, etab. bezalakoxea, *hain zuzen*. Baina hemen ere *bezala-k* perpaus bat gobernatzen du eta *honela*, *horrela* eta antzekoek ez.

Hortaz, bai *zenbatzaileen* artean bai *maila-hitzetan*, bai modu aditzondotan bi multzo ditugu. Multzo batekoen eta bestekoen arteko diferentzia bakarra da konparazio morfemek osagarri bat gobernatzen dutela eta gainerako *zenbatzaileek* eta *maila-adberbioek*, berriz, inolako osagarririk ez dutela behar. Edo beste hitz batzuetan esateko, *adina*, *bezain* edo *bezala* moduko konparazio morfemak *pospositiboak* dira: zerbaiten ondoren joatea eskatzen dute. *Zenbait*, *hainbat*, *oso*, *hala*, etab., ostera, burujabeak dira:

	POSPOSITIBOAK (perpaus bat daramate ezkerretara)	BURUJABEAK (ez dute perpausik gobernetzen)
Zenbatzaileak	ADINA ADINBAT BEZAINBAT BEZAINBESTE BESTE ...	ASKO HAINBESTE ZENBAIT BOST ...
maila hitzak	BEZAIN BAINO ... -AGO	HAIN ASKI OSO ...
modu aditzondoak	BEZALA LEGEZ	HONELA HORRELA HALA ONGI

(67) a. Eskatzen didazun ADINA liburu ezin dizut eman.

b. *ADINA liburu ezin dizut eman (cf. ZENBAIT liburu ezin dizut eman).

(68) a. Lan hori ez da zuk uste duzun BEZAIN atsegina.

b. *Lan hori ez da BEZAIN atsegina (cf. Lan hori ez da OSO atsegina).

Bezala, berriz, aditzondoa izango da, *honela*, *horrela*, *hala*, eta abarren antzera. Hemen ere, goiko bereizketa bera dugu: *hala*-k ez du perpausik onarzen ezkerretara. *Bezala*-k, berriz, nahitaezko du¹:

(69) a. Honek Artetak pintatzen zuen BEZALA pintatzen du.

b. *Honek, BEZALA pintatzen du (cf. Honek, HALA pintatzen du).

¹ Beste batzuek, berriz, bietara joka dezakete: *hainbat*-ek adibidez. Ez badugu, behintzat, *hainbat* zenbatzaile soilizat eta *a(d)inbat* konparazio-zenbatzailezat hartzen, lan honetan (ik. 3.2.2.1.b) egiten den bezala:

a. HAINBAT olio behar zuenik ez nuen uste.

b. Zuk behar duzun ADINBAT olio ez du beste inork behar.

Konparazio perpausaren ardatza, konparazio morfema bera dugu. Baina desberdintasunezko konparazioan izan ezik, konparazio morfema horrek bere baitan darama maila-hitza nahiz zenbatzailea, nahiz modu-adberbioa (ik. 3.1.4.2). Hortaz, konparazio egitura osoa bera ere batzuetan zenbatzaile kategoriakoa dela esan daiteke. besteetan maila adberbio kategoriakoa eta besteetan (*bezala*-dunetan adibidez), modu adberbio kategoriakoa. Izan ere, burutzat konparazio morfema kontsideratzen badugu, egitura osoa ere morfema horren kategoria berekoa izango da.

- (70) a. Ez zaigu [*uste nuen* [ADINA]] arazo sortu.
zenbatzailea
- b. [*Nahi BEZAIN*] arin ez da iritsi gure mutila.
maila adberbioa
- c. Gaurko gazteak ez dira [*lehengoak ibiltzen ziren BEZALA*] ibiltzen.
modu adberbioa
- d. [Han [BEZAINBAT]] basurde ez dut inon ikusi.
zenbatzailea

3.1.6.3. *Perpaus konparatiboa eta mugatzailea*

a. Zenbatasunezko konparatiboa txertatua aurkitzen den izen sintagmak mugagabea izan behar du, honako adibide hauek argiro erakusten duten bezala:

- (71) a. Ez diñue gitxiago San Agustin, San Basilio ta kontau ezin aña Maesu ta Teologo andik (J. J. Moguel, *Baserritaur nequezaleentzaco Escolia*, 134).
- b. *Nik aña atzamar* dozuez eskuetan (Kirikiño, *Abarrak* II, 170).
- c. *Zazpi zaldi hiltzeko aña anizete* edan du (G. Aresti, *Ipuinak*, 81).
- d. *Uste baino entzule gehiago* hurbildu dira hitzaldira.

Beraz, *zehaztugabeko zenbatzaileen* multzokoak izango ditugu konparaziozko egitura hauek bere osoan.

b. Maila konparatiboek adjektiboen jokabide orokorra jarraitzen dute mugatzaileari dagokionez.

- (72) a. *Hori zu bezain aberatsa* da (cf. *hori aberatsa* da).
- b. *Ahaztea bezain zail(a)* da barkatzea (cf. *zail(a)* da barkatzea).

Hala ere, *-AGO*-dun konparatiboek, izen predikatu gisa doazenean, badute halako joera bat mugagaberako:

- (73) a. Gizon hori zu baino indartsuago da.
 b. Gizon hori zu baino indartsuagoa da.

3.1.6.4. <-eN + konparazio morfema > ala <-eNA + konparazio morfema>?

Konparazio morfemaren ezkerretara ageri den perpausoko aditzak, agerian badago, *-eN* atzizkia eskatzen du eta honek ez du *-A* mugatzailearik behar. Hots: ...*-eN baino*...; ...*-eN adina*...; ...*-eN bezala*; ...*-eN bezain*... dira esapide jatorrak eta ez, *-eNA baino*...; *-eNA adina*...; ...*-eNA bezala* etab. Nahiz eta horrelakoak ageri diren han-hemenka testuetan, eta hizkera arruntean ere inoiz entzuten diren. Hain zuzen, bizkaiera zaharreko testuetan, *-eNA legez* guztiz arrunta da:

- (74) a. Guk geure zordunai *parketan deusaguna legez* (J.P. Betolaza, *Doctrina Christiana*, 4).
 b. Ene errian *esan daroena legez* (R. Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 12v).

Honako hau ere tankera honetakoa da:

- (75) *Geiago dio dakiana baño* (*Refranes y Sentencias*, 340).

Idazle berriagoetan ere horrelakoak ageri dira:

- (76) *baia jakin ezin leikeana legez* ondo ala deungaro konfesau ete danez, beste alde-tik barriz orduko konfesiño geienak *arrastaka eginak izan oi direana legez*, onexek beronek estutuko dau geixo tristea (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 216).

Perpaus hauek idazle gehienek *-A* gabe emango lituzkete: *jakin ezin litekeen legez*; *irudimen azkarrenak asma lezukeen baino* ...

Jakina, *-eNA* forma erabat zuzena da erlatibodun izen sintagma absolutiboa badugu konparatiboaren barnean:

(77) *Nik erosi dudana baino hobea da zure konputagailua.*

Honen azpian, nolabait, honako hau genuke:

(77') *Nik erosi dudan (konputagailu)a (den) baino hobea da zure konputagailua.*

Horregatik, (78a) eta (78b) ere erabat esanahi desberdinekoak ditugu:

(78) a. *Auto hau ez da nahi nuen bezain merkea baina hartuko dut.*

b. *Auto hau ez da nahi nuena bezain merkea baina hartuko dut.*

Lehenbizikoan, *autoa merkeagoa izatea* nahi zenuen, baina, hala ere, *auto horixe* hartuko duzu. Bigarrenean, berriz, *beste auto bat* nahi zenuen, merkeagoa zena, baina, azkenean, *auto hau* hartuko duzu. Lehenbizikoan, auto beraz ari gara. Bigarrencan, bi auto dabilta tartean.

Kontua da (78a)n esan nahi dena esateko horixe dela bidea eta ez (78b). Honek beste zerbait esan nahi du.

Horregatik, testuetan zehar agertzen diren zenbait esapide, *-ena + baino* gisa eman beharra dago nahitaez, erlatibo argia baitute:

(79) *Eta harroketarik baxamarrean atheratzen dena hobea da itsasoak artikitzen duena baino* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 179).

(80) *Nor, beraz, horri gogor egitera ausartzen dena baino ausartagorik?* (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 150).

Hauetan ez da dudarik.

Gauzak ilunago gertatzen dira *gehiago* ageri denean:

(81) *Auspoa Liburutegia aurrera eta aurrera dabil bere asmo ederrean, euskal irakurleci hasieran agindu ziena baino gehiago emanaz* (Ib., 81).

(82) *Ukan duguna baino gehiago zer ginezake eskatu?* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 198).

Hemen sar liteke (83)ko adibidea ere:

(83) an urte askotan eruan eban bixitza bat, *irudimen azkarrenak asmau leikiana baño* itzalagoa ta bildurgarrijagua (Kirikiño, *Abarrak*, 78).

Perpaus hauek –eta beste hainbat eman genezakeen– erlatibo gisa interpretatzeko inongo oztoporik ez dute: “*agindu zien hura baino gehiago*”, “*ukan dugun hura baino gehiago*”, “*irudimen azkarrenak asma lezakeen hura baino itzalagoa*” eta abar gisa interpreta daitezke eta interpretatu behar direla uste dugu (81) - (83) perpausak. Baina *-eN + baino* gisa ere eman zitezkeen:

(81) Auspoa Liburutegia aurrera eta aurrera dabil bere asmo ederrean, euskal irakurleei hasieran *agindu zien baino gehiago* emanaz.

(82) *Ukan dugun baino gehiago* zer genezake eska?

(83) an urte askotan eroan zuen bizitza bat, *irudimen azkarrenak asma lezakeen baino* itzalagoa ta bildurgarriagoa.

Hizpidea eman diguten esapideetan, hain zuzen, bi egituren arteko nahastea edo gertatu dela pentsa liteke². Nahaste hori zilegi gertatzen da <*baino ... gehiago / gutxiago*> modukoetan. Izan ere, (84a)k eta (84b)k, egitura desberdina izan arren, gauza bera esan nahi izan dezakete praktikan.

(84) a. *Irabazten duena baino gehiago* behar izaten du horrek.

b. *Irabazten duen baino gehiago* behar izaten du horrek.

(84b) perpausaren egitura ohikoa da, hots, gorago azaldu denaren antzekoa:

² Agian, ohartzekoa da gaur egun kurrutzen duten zenbait esamolde ere jatorri berezik datozela:

a. ... eskertuko nioke (...) orain arte erakutsitakoa baino errespetu gehiago izatea (*Jakin* 109, 27. or.)

b. Aurreikusitakoa baino beranduago gertatu da hori (Euskadi Irratia).

Araua baldin bada *baino*-k aditz jokatzeko perpausa gobernatzen duela, perpaus hauek, onartzekotan, barnean erlatibo jokatu gabea dutela ulertu behar dira:

a' eskertuko nioke orain arte erakutsitako errespetua baino handiagoa izatea.

b' aurreikusitako hura baino geroago gertatu da hori.

Horrela ulertzeko arazo handirik ez dago a perpausaren kasuan, a'-k erakusten duen bezala. Zailago da hori b perpausaren. Nolanahi ere, horrelako esamoldeak ez dira oso jatorrak, gaur egun aski hedatuak badaude ere. Esamolde jatorri, eta testuetan zehar aurkituko duguna, honako hau da:

a". eskertuko nioke (...) orain arte erakutsi duen baino errespetu gehiago izatea.

b". Aurreikusi zen baino geroago gertatu da hori.

(84b') [X irabazten du]en baino gehiago behar izaten du horrek.

(84a) perpausarena, berriz, barnean perpaus erlatibo bat daraman egitura izango litzateke:

(84a') [Irabazten duena X da]en baino gehiago behar izaten du horrek.

Bi egitura desberdin, hortaz.

Esanahiaren aldetik, gainera, kasu honetan, funtsean berdinak ditugu bi esamoldeak. Beraz, biak dira zilegi zenbatasunaz ari garenean; hots: *gehiago* dabilenean tartean. Bestelako adjektibo batzuekin ere, erlatibo gisa interpreta daitezkeen neurrian, zilegitzat emango dira, baina aditzondoekin okerrago gelditzen dira gauzak:

(85) enzun egiozue Jesusi amore ta humiltasunaz; egizue beragaz, *egingo zendukena baño obeto mediku bategaz...* (P. A. Añibarro, *Lora sortu espirituala*, 75).

(86) Eta, zelan alan dituzan bitartean azi, anditu ta gogortuten dirian aek umeak; eta, bes-teti, atera bear edo il: andik azkenean, arri baten kontra estuturik, len egingo *zana baño nekezago* ta *penazago* erdituten ditu (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 64).

Hauetan ezina gertatzen da erlatibo gisa ulertzea. Horregatik, bide arrunta gomendagarriagoa gertatzen da horrelakoetan. Esan dezagun, bidenabar, (86) adibidearen “azpian” dagoen Axularren testuan garbi ageri dela kontua: “lehen eginen zen baino nekezago” dio Axularrek (ik. *Guero*, 53).

3.1.6.5. Konparazio perpausa eta zenbatzailea

Bestalde, adjektiboak bere egongune ohikoetako bat izen sintagmaren barnean du. Adjektibodun izen sintagma zenbatzailez horniturik agertzeko inolako oztoporik ez dute:

(87) a. Txakur txiki bat ikusi dut.

b. Bi bertso hunkigarri bota zituen.

etab.

Adjektibo hauek maila-hitzekin ere ager daitezke:

(88) a. Nolatan erosi duzu *hain txakur txikia*?

b. *Txakur txikiagoa* erosi behar zenuen.

Baina maila-hitzak gaizki ezkontzen dira sintagma berean doan zenbatzai-learekin.

(89) a. **Hain bi bertso hunkigarri* botako zituenik ez nuen uste.

b. **Oso bertso hunkigarri bat* bota zuen.

Sintagma hauek birmolda daitezke bitan zatituz, aposizio gisan:

(89') a. *Bi bertso hain hunkigarri* botako zituenik ez nuen uste.

b. *Bertso bat oso hunkigarria* bota zuen.

b'. *Bertso bat bota zuen oso hunkigarria*.

Zenbatzailea eta maila-hitza elkarren lehian bezala dabiltzala dirudi: biak agertuko badira bi sintagma osatu behar dira eta biak aposizioan eman. (89'b)n bezala.

Arazo hau are nabarmenago gertatzen da maila-hitz soila barik konparazio perpaus osoa dugunean:

(90) a. *Elvis bezain txakur txikia* harrapatu du autoak.

b. *Elvis baino txakur txikiagoa* erosiko du Mirenek.

Baina

(91) a. **Elvis bezain txakur txiki bat* erosiko dut.

b. **Elvis baino bi txakur txikiago* ikusi ditut.

Hauei beste taxu bat eman dakieke, ordena aldatuz:

(91') a. Txakur bat erosiko dut *Elvis bezain txikia*.

b. Bi txakur erosiko ditut *Elvis baino txikiagoak*.

Edo perpaus konparatiboa erlatibo balen barnean ezarriz:

(91") a. *Elvis bezain txikia den txakur bat* erosiko dut.

b. *Elvis baino txikiagoak diren bi txakur* ikusi ditut.

Eta zenbait adibidek erakutsiko diguten bezala, perpaus konparatiboa izenaren ezkerretatik eskuinera eramanaz ere badirudi hobeki gertatzen direla horrelakoak:

(92) *Arnega zazu* hetaz damu eta dolu zure bihotzak *jasan dezakeien bezain handi* batez (S. Pouvreau, *Philotea*, 24).

(93) *Halakotz othoitzten zaitut, pazientzia behar bezain iraunkor* bat erreparti diazadazun (J. de Haramburu, *Devocino escuarra*, 247).

Horrelakoak izen sintagma barneko adjektibo bati dagozkionean, berez, sintagma pisuegia gertatzen denez, nahiago izaten dugu sintagmari beste taxu bat eman, beti ere gorago aipatu den perpausen arteko paralelotasuna gordeaz.

(94) a. *Peru bezain pertsona saiatuek* eraikiko dute geroa.

b. *Peru bezain saiatuak diren pertsonak* eraikiko dute geroa.

Eta sintagman zenbatzaileak ditugunean ere beste modu batera antolatzen dugu sintagma hori:

(95) a. ?*Peru bezain hamar pertsona saiatuk* eraiki zuten jauregi hura.

b. *Peru bezain saiatuak ziren hamar pertsonak* eraiki zuten jauregi hura.

3.1.7. Zer osagai ager daitezke konparazio morfemaren ezkerretara?

Konparatiboa perpaus txertatua dela esan dugu. Hori erraz frogatu daitezkeen zerbait da, gainera. Baina sarritan perpaus horren arrasto batzuk baino ez dira azaleratzen. Gehienetan perpaus hori erabat laburtua agertzen da. Esan dugu, bi perpaus egitura paraleloa dutenez, kontrastean jarri behar diren osagaiak bakarrik gordetzen direla perpaus txertatuan. Hortaz, konparazio morfemaren ezkerretara agertzen den atal horretan perpaus txertatuaren osagai bat edo gehiago aurki ditzakegu. Aditz eta guztiko perpausa ere aurki daiteke. Gehienetan, hala ere, osagai bat edo osagai gutxi batzuk besterik ez dugu aurkituko, bakoitza perpausaren dagokion kasu marka edo posposizioa aldean duela.

3.1.7.1. Aditz eta guztiko perpausa

- (96) a. *Behar (den) adinbat* jende biltzen ez bada, ez dago bilerarik.
- b. *Merezi (duen) adina* pena ez du.
- c. Ekusten dezu zure auzo, aude edo adiskidea *on dan adiña* edo geiago kargatua eta asitzen zatzaizka berriro edateko bidea ematen (Aguirre Asteasukoa, *Eracu-saldia II*, 121).
- d. *Itsasoan ur tanta dirun adiña* urte igaro ta ere emen egon bear det? (A. Cardaberaz, *Egercicioak III*, 125).
- e. Ezagutzen du bere burua, *ezagutu ditekean adiña* (J. A. Ubillos, *Cristau doctrin berri-ecarlea*, 126).
- f. *Nahi zuten bezainbat* sagar hartu zuten.
- g. Edertasunez *bera dan bezin / ederrik* inhor ez alegiya (E. Arrese, *Oleri berrizte*, 111).

Maiz, *uste izan, nahi izan* eta antzekoekin bereziki, aditzaren bigarren osagai hori (*izan, alegia*), ezabatua gertatzen da:

- h. *Nik uste baino diru gehiago* zuen kontuan.
- i. Barrenat sartzeintu eta han *ahal bezainbat* edukitzeintu (P. Axular, *Guero*, 53).

Eta zenbaitetan, adizki perifrastikoaren laguntzailea ere ezabatua gerta daiteke. Ondoko perpaus honetan, adibidez, mendeko perpausoko aditz laguntzailea ezabatua ematen zaigu:

- j. *Ateratzen bezainbat* sortzen baita (Ib., 233).

Eta aditz nagusia partizipio eran emana ere izan dezakegu:

- k. Zenbaitek *guxitu adina* beste zenbaitek gehitu ohi du (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VI*, 51).
- l. *Nik erran bezala* egiten baduzu... (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 202).

Esaldi hau *bezala*-rekin oso arrunta da. Baita *baino lehen-ekin* edo, *bezain laster-ekin* ere:

m. *Zu etorri baino lehen* alde egin zuen Mirenek.

n. *Zu etorri bezain laster* alde egin zuen Mirenek.

Axularren *j.* adibidea ere modu bertsuan eman liteke:

j'. Atera bezainbat sortzen baita.

3.1.7.2. *Perpaus murriztua*

Konparazio morfemaren osagarria perpausa dela onartuta ere, gehienetan perpaus hori erabat murriztua ageri ohi da. Aditza gehienetan ezabatua egongo da eta gainerako osagaiak ere, perpaus nagusiko osagaien kide diren heinean, ez dira agerian emango. Murrizketa hauen guztien ondorioz, *adina*, *bezain* eta horrelakoen ezkerretara oso elementu gutxi agertuko dira normalean. Gehienetan azpian dagokeen perpausaren osagai bakarra agertuko da:

(97) a. Ordiakin ezlago / *LEN* aña demanda (*Jan-Edanaren bertsoak* 1, 20).

b. Onck (euskerak) lurtean *MUNDUAK* aña irauñ daian (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 113).

c. Donostian ez omen da inor *MEDELEK* adina diru duenik (R. M. Azkuc, *Ardi galdua*, 32).

d. *ZU* *beziñ* aberatsa aurkitzen naiz (T. Etxebarria, *Lexicón de Eibar*, 162).

Perpaus murriztua dugula baieztatzeko arrazoia begien bistakoa da. Batetik, perpausak ez du gramatikaltasunik galtzen aditza ezartzen badugu:

(97') a. Ordiarekin ez dago / *lehen izaten zen adina* demanda.

b. Euskarak lurtean *munduak* irauñgo duen *adina* irauñ dezan.

c. Donostian ez omen da inor *Medelek* duen *adina* diru duenik.

d. *Zu zaren bezain* aberatsa aurkitzen naiz.

Hori litzateke arrazoi bat. Eta bestea, berriz, ustezko perpaus murriztu horretatik agerian gelditzen zaizkigun osagai gutxi horien morfologia izango litzateke, zeren "azpiko" perpausaren legokiekeen kasu marka gordetzen baitute osagai horiek:

(98) a. *Medelek* adina diru (non *Medelek* ergatiboan segitzen duen).

b. *Mendian* adina elur (*mendian* inesiboan dago).

Osagai bat baino gehiago ere ager daiteke, bakoitza bere kasu markarekin. Honako adibide honetan, esaterako, *nork* eta *zer*, biak, ageri zaizkigu *adina*-ren osagarrian. Seinale, hortaz, perpaus murriztu baten aurrean gaudela:

(99) *lñork* (...) eztu bein-ere osasuna maite izan (...) *guk gere erdibear ori aña*
(Lizardi, *Itz lauz.* 28).

Honako honetan ere gauza bera:

(100) *Nik biotzean atsegin ainbat / ur ez dago* itsasoan (Xalbador, *Ezin bertzean*, 62).

Hala ere, azken perpaus honek badu zerbait goian emandako arau bat urratzen duena. Izan ere, esana dugu mendeko perpausoko aditza beti ager daitekeela, baina gehienetan ezkutaturik egongo dela. Hain zuzen, badirudi bi perpausotako aditzak desberdinak badira, neke dela mendeko aditza isilaraztea. Baina horixe da (100)ean gertatu dena. Aditza isilarazi gabe, honela geldituko litzateke:

(100') *Nik bihotzean atsegin dudan adinbat ur ez dago* itsasoan.

Hortaz,

- * Aipatu ditugun morfema hauek ezkerretara perpausa eskatzen dute.
- * Perpaus nagusiak eta mendekoak normalean egitura paraleloa izan ohi dute.
- * Perpaus honetan hutsune bat nahitaezkoa izango da, zenbatzaileari edo maila-hitzari eta berau kokatua dagoen sintagmari dagokiona.
- * Gainerako osagaiak agertzea aukerakoa da gehienetan. Hala ere, oso osagai gutxi agertuko zaizkigu perpaus honetan. Kontrastean daudenak bakarrik.
- * Aditza ageri bada, *-eN* morfemaz hornitua agertuko da.

3.1.8. Osagaien ordenaz

Konparazio-morfema hauek pospositiboak direla esan dugu. Horrezaz gainera, perpaus konparatiboa bera ere dagokion sintagmaren ezkerretara kokatu ohi da. Horrela, perpaus konparatiboa, konparazio morfema eskuinetara duela, dagokion adjektibo, aditzondo nahiz izenaren ezkerretara joango da beti.

- (101) a. Mesede *adina kalte* egin didazu.
b. Donostia *baino handiagoa* da Bilbo.
c. Lumaz *bezain ongi* idatz daiteke makinaz.

Baino-rekin, ordea, hurrenkera hau hauts daiteke:

- (102) Ariketa hori errazagoa da zuk uste duzun baino.
(= Ariketa hori zuk uste duzun baino errazagoa da)

Gainera, *baino*-rekin, konparazio morfemaren eta dagokion sintagmaren artean bestelako osagaien bat tarteka daiteke:

- (103) *Pertsona baino giroa eta ingurunea gogokoago* izan ditzake norbaitek (K. Mitxelena, "Campionen ...", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 965).

Hau beste modu hauctara ere eman liteke:

- (103') a. *Pertsona baino gogokoago* izan ditzake norbaitek giroa eta ingurunea.
b. Giroa eta ingurunea *persona baino gogokoago* izan ditzake norbaitek.
c. Giroa eta ingurunea *gogokoago* izan ditzake norbaitek *persona baino*.

Hots, *giroa eta ingurunea* mintzagaia perpaus osoaren aurretik nahiz gibeletik botaz, alde batetik, (103'a eta b)n bezala, eta, baita, *persona baino* perpaus konparatibo murriztua lekuz aldatuz (konpara 103 eta 103'c).

Honako honetan ere, *adina*-rekin, ordena ohikoa hautsia ageri da:

- (104) Xalbador, kalte egin didazu / oindaño mesede aiña (Agirre in Xalbador, *Ezin bertzean*, 127).

Hurrenkera normala honako hau izango litzateke:

(105) Mesede adina kalte egin didazu.

Bezain-ekin, ordea, ez dirudi halako askatasunik dagoenik, orokorrean:

(106) a. Gure arazoak ez dira zureak bezain garrantzitsuak zuretzat.

b. *Gure arazoak ez dira garrantzitsuak zuretzat zureak bezain.

Bestalde, perpaus konparatiboa izen sintagmaren barneko adjektibo bati dagokionean, adjektiboak “beregana” dezake perpaus konparatiboa, egitura osoa izenaren eta determinatzailearen artean ezarriz:

(107) Tenplu ezin erran bezain eder hura (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia I*, 329).

(108) Golardo edo sari ezin erran bezain handia eta gozoa (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 96).

Nolanahi ere, berriro esan, perpaus konparatibo hauek batez ere adberbio sintagmetan eta izen predikatuetan erabiltzen ditugu.

Zenbatzaileak ageri direnean gertatzen dena ere bide honetatik doa (ik. 3.1.6.5).

3.1.9. Konparazioaren beste alderdi bat: superlatiboa

3.1.9.1. Zer da superlatiboa?

Atal honetan guztian konparatiboaz mintzatu gara. Berdintasunezko eta desberdintasunezko konparazioa egin daitekeela esan dugu. Perpaus konparatiboak, mota batekoak nahiz bestekoak, maila-hitzaren edo zenbatzailearen lekua bete dezake. Berdintasuna adierazteko *hain* erabiltzen dugu erreferentzia puntua adierazi nahi ez dugunean:

(109) Hori ez da HAIN handia.

eta *bezain* erabiltzen dugu erreferentzia puntua zehaztu nahi badugu:

(110) Hori ez da Loiolako eliza BEZAIN handia.

Desberdintasunerako, berriz, *-AGO* atzizkiaz baliatzen gara:

(111) Loiolako eliza handiAGOA da.

Eta konparazioa ezartzeko zein erreferentzia puntu hartzen dugun adierazi nahi badugu, *baino*-dun perpaus bat erantsiko diogu *-AGO*-dun adjektibo edo adberbio konparatiboari:

(112) Loiolako eliza Eunatekoa BAINO handiagoa da.

Baina *-AGO*-ren parean *-EN* atzizkia ere hor dugu (eta *-EGI* ere bai), *-AGO* atzizkia erants dakiekeen hitz guztiek onartzen dutena:

(113) a. Zapata hori duzu handiENA.

b. Zeu bizi zara ondoEN(a / ik).

c. Hori da diru gehiEN(a / ik) balio duena.

-EN atzizkiaz horniturik ageri diren adjektibo eta aditzondo hauek *superlatiboan* daudela esaten dugu. Maila adierazten hasita, goi-mailan ezartzen ditugu adjektibo edo adberbio horiek superlatiboaren bidez.

3.1.9.2. Superlatibo erlatiboa

Baina bi superlatibo mota bereizi ohi dira gramatiketan: a) superlatibo absolutua (*oso handia, polit-polita, ikaragarri garestia*, etab.) eta b) superlatibo erlatiboa (*handiena, politena, garestiena*, etab.). Superlatibo absolutuan zerbaiten 'tasuna' maila gorenekoa dela esaten da bestelako erreferentziarik hartu gabe. Adibidez, *oso handia* diodanean, handitasuna bere horretan hartzen dut, beste ezerekin erlazioan jarri gabe. Ostera, superlatibo erlatiboan, beste zerbaitekin jartzen dut erlazioan handitasun hori. Horregatik, "erlatibo". Esparru bat finkatzen dugu eta esparru horretan zerbait *handiena, politena, merkeena*, etab. dela esaten dugu. Horregatik dute egitura hauek konparatiboe kin zerikusia. Adibidez:

(114) a. *Taldeko handiena* Miren da.

b. *Mutil guztiak baino handiagoa* da Miren.

(114a)n Mirenen handitasuna taldeko kideei erreferentzia eginez adierazten dut. Nolabait, taldeko kideekin konparazio eginez iristen naiz ondorio horretara: *taldeko handiena*.

(114b)n ere konparazio berdintsua ezarri da, baina oraingoan zehatz-mehatz mutil guztiekin egiten dut alderaketa eta oraingoan ere ondorio batera iritsi naiz: *mutil guztiak baino handiagoa*. Egia esan, beste guztiak baino handiagoa dena denetan handiena izango da.

Bien artean, hala ere, diferentzia formal nabarmena dago: (114a)n adjektibo maila superlatiboan ezarri dut eta (114b)n maila konparatiboan. Hau, adjektiboari dagokionez. Baina sintaxi egiturak beste diferentzia nabarmenak erakusten ditu. Konparazioan zein erreferentzia puntu hartzen den ez bada kontuan hartzen, perpaus bakuna izango dugu:

(115) Etxe *hau handiagoa* da.

Era honetakoak maila guztietan egin litezke: *-AGO*-rekin, *-EGI*-rekin eta *-EN*-ekin:

(116) a. Etxe hori *handiegia* da.

b. Etxe hori *handiena* da.

Baina konparatiboan maila hori zehazteko, erreferentziatzat beste perpaus bat har nezake, aurreko ataletan ikusi ditugun bezalako egitura konparatiboak osatuz:

(117) a. Etxe *hau handiagoa* da **BESTE HORI BAINO**.

b. **ESAN ZIDATEN BAINO handiagoa** da etxe *hau*.

Argi dago kasu bakoitzean zer hartu dugun erreferentziatzat.

-EGI atzizkia duen adjektibo baten maila ez dugu beste ezerekin harremanetan jartzen, helburuzko perpaus batekin edo destinatiboan doan sintagma batekin ez bada:

- (118) a. Etxe hori *handiegia* da gu biontzat.
b. Etxe hori *handiegia* da *egunero garbitzeko*.

Superlatiboan ere zehaztu daiteke nolabait gorentasun hori zein esparrutan gertatzen den esanaz:

- (119) a. Etxe hori *Bilboko* handiena da.
b. Etxe hori *nik inoiz ikusi dudan* handiena da.
c. Etxe hori *aurten eraiki duten* handiena da.

(119a)n erreferentziazat *Bilbo* hartzen da, (119b)n *nik inoiz ikusi ditudan etxeak* izango lirateke nola-halako konparazio hori ezartzeko kontuau hartu dudan mundua. (119c)n ere gauza bera: *aurten eraiki dituzten etxeak* hartzen ditut kontuan horien artean handiena zein den adierazteko.

Superlatibo erlatiboak, hortaz, zerbaitekin du “erlazio”. Hori izango da konparazioaren esparrua. Esparru hori *-KO* atzizkidun siutagma baten bidez adierazten da—(119a)n bezala—edo, baita, perpaus erlatibo baten bidez—(119b eta c)n bezala—. Gainera, superlatiboan doau adjektibo horrek izen sintagma partitibo bat ere eraman dezake ezkerretara:

- (120) a. Hori da *Bilboko* etxerik handiena.
b. Hori da *nik inoiz ikusi dudan* etxerik handiena.

Superlatiboaren ezkerretara doan perpaus hori egiazki erlatiboa da eta ez, egitura konparatiboetan ageri dena bezala, konparazio morfema bati loturik datorren perpaus txertatu berezi bat:

- (121) a. Peru inon den mutilik jatorrena da.
b. Nik inoiz ikusi ditudan ingururik ederrenak Patagonian daude.

Inon den eta *ikusi ditudan* perpaus erlatibo ohikoak ditugu. Horregatik, ezin dugu, adibidez, aditza isilarazi perpaus konparatiboetan bezala:

- (121) a. *Peru inon mutilik jatorrena da.
b. *Nik inoiz ingururik ederrenak Patagonian daude.

Konpara perpaus horiek beste hauekin:

- (122) a. Peru zu (zaren) baino mutil jatorragoa da.
 b. Patagonian (diren) baino inguru ederragorik ez dut inon ikusi.

Hortaz, laburbilduz, *-AGO*, *-EN* eta *-EGI* atzizkiak dituguncan egitura desberdinak ditugu:

- (123) a. Sardina merkeagoa da (*beste arrain asko baino*).
 perpaus konparatiboa
 b. Sardina ez da (*merkatuan den*) arrainik merkeena.
 perpaus erlatiboa
 c. Sardina merkeegia da (*zenbait menutan sartzeko*).
 helburuzko perpausa

3.1.9.3. Erreferentzia esparrua "ahala" ere izan daiteke, nolabait

Superlatibo erlatiboetan esparru bati egin behar zaio erreferentzia, baina erreferentzia esparrua "ahala" ere izan daiteke, nolabait. Hori da, adibidez, *ahalik (eta) ...*, *ahal den ...*, *hainbat ...*, *albeit ...* bezalako esapideetan getzatzen dena:

- (124) a. Erregututen deusut (...) artu dagizula, inos baiño ardura geijago, *ainbat gogorik onenagaz*, ta usterik zintzuenagaz entzuteko (Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, 271).
 b. Errosarioa esaten badozu, esaikezu *albeit deboziñorik andienagaz* (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 56).
 c. Emoitzu gaineko ontasunari *ahalik esker handienak* (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea III* 49,1).
 d. Eta *albeit gitsijen* atera biar dira larrara (A. Iturriaga, *Diálogos*, 60).
 e. *Ahalik eta fitetzenu* pagatu behar duzu zeure zorra (P. Axular, *Guero*, 243).
 f. Baina euskara dabil artean eta zentzuz jokatzea zor dugu, *ahalik eta zentzuzkienik* (K. Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 119).

3.1.9.4. Superlatiboa eta mugatzailea

Bi kasu bereiziko ditugu: izen sintagma eta adjektibo sintagma batetik eta aditzondoak bestetik.

a) Superlatiboa izen sintagma bat denean edo izen predikatu bat, orduan, sintagma horrek mugatzaile eta guzti joan behar du.

(125) a. Libururik garestiena aukeratu dut.

b. Zulorik handienean sartu behar duzu ziria.

c. Auto hori da dendan dagoen merkeena.

b) Arazoa superlatiboa izen sintagma baten barruko adjektiboa barik aditzondo bat denean sortzen da. Orduan joera desberdinak dira nabari: mugatzailea ezartzekoa (-ENA), mugatzailerik gabekoa (-EN) eta baita partitiboa ere (-ENIK). Lehenbiziko biak garbi ikusten dira goiko (124d) eta (124e) adibideetan. Honako hauetan ere gauza bera dugu:

(126) a. Urten egizu *ainbat lasterren* onelango etxeti, nun Jaungoikuaren usainik ezta-guan (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 72).

b. Oba dogu, badaezpadan, *albeit ariñen* geure etxera atzera juatia (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 127).

c. Baserria ain gauza ederra da noizik beñetan juanda, / ni ere emen Oiartzundikan ifioiz juaten nitzan-da; / atzera alde *al dan azkarren* kontseju batzuk emanda, / bañan etxian bizi darentzat beti lanerako txanda (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 121).

d. Goizeko jaieran esaten diran gauzak ain dira bearrak, ta balio andikoak, non ezin utzi nitzakean banaka, ta *al dedan ongiena, ta argiroena adirazi gabe* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 308).

e. Horrek berak erakharri behar nau egiten dudan ongia, othoitzak, kofesioak, komunioneak, eta gainerakoak *ahalik eta hobekienik* egiterat (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 204).

f. Bai, bai, ikhasi behar dire erdarak, eta ikhasi *ahalik eta hobekienik*, eta guziz gure erresuma maite huntako mintzaia, frantsesa (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 20).

g. Drainak ere badira, *ahalik merkeenik* eginak, Baionan, Maulen eta bertze zeinbait tokitan (J. Duvoisin, *Laburantzako liburua*, 117).

Gauza bera gertatzen da *ahal* gabe ere, aditzondo bat dugunean maila superlatiboan:

(127) a. Etxe hura dago hurbilen / hurbilena / hurbilenik.

b. Peru bizi da hobekien / hobekienik / hobekiena.

Adibide hauek ongi erakusten dute superlatiboa aditzondo bati dagokionean, *-EN*, *-ENA* eta *-ENIK* hirurak ageri direla. Hala ere, badirudi *ahalik* eta *ahal den* ageri denean, mugatzailearekin (*-ENA*) edo partitiboan (*-ENIK*) agertzeko joera izan dela ohikoena orain arte, nahiz eta gaur *-EN* nagusitzen ari dela dirudien. *Albait* eta *ainbat*-ekin normalena, berriz, *-EN* dugu.

3.1.9.5. Superlatiboa eta konparatiboa ez dira nahastu behar

Superlatiboak direla eta, zilegi izan bekigu azken ohar bat egitea. Gure inguruko erdaretan formalki askoz hurbilago daude konparatiboa eta superlatiboa euskaraz baino. Euskaraz ongi bereiz daiteke *handiagoa* eta *handiena*, bai formaz, hai esanahiz. Hala ere, erdararen eraginez edo, bada zenbait esamolde jendeari buruhausteak dakartzkiona: perpaus erlatiboa tartean duena, hain zuzen. Alegia, ondoko bi perpaus hauek zeharo esanahi desberdinekoak ditugu:

(128) a. Har ezazu urutiago dagoena.

b. Har ezazu urutien(a) dagoena.

eta, beraz, ez da zilegi bata bestearen ordeztu ematea. Hori zer esaten ari garen ez jakitea adina litzateke. Baina, zoritxarrez, entzun eta irakur daitezke batzuetan horrelako aldrereskeriak.

(128a)n konparatiboa daukagu. Hor jakintzat eman behar da badela zerbait beste zerbait baino urutiago dagoena. Horrexegatik, hain zuzen, jakintzat emate hori batzuetan nekeza gertatzen delako edo, normalean konparazioaren bi parteak adieraztea eskatzen da:

(129) a. Har ezazu bizikleta gorria baino urutiago dagoena, edozein.

b. Har ezazu beste guztiak baino urutiago dagoena.

(128b)n, berriz, superlatiboa dugu, nahiz eta superlatibo erlatiboa den. Hor beti suposatu behar da denetan urrutien dagoenaz ari garela.

Arrazoi beragatik, konparatiboa ondo joaten da *bat* zenbatzailearekin, superlatiboa artikulatu soilarekin ongi joaten den bezala:

- (130) a. Har ezazu urrutiago dagoen bat.
b. Har ezazu urrutien(a) dagoena.

3.2. BERDINTASUNEZKO KONPARAZIOA

3.2.1. MAILA

Maila konparazioa adjektiboen (*eder, garesti, on, ilun, etxeko, zure, ...*) eta zenbait adberbioren (*urrun, berandu, astiro, ...*) gainean egiten da. Mailakatea onartzen duten momentutik, maila hori beste erreferentzia puntu bat hartuta zehaztu daiteke:

- (131) a. Andoni *Miren bezAIN berandu* etorri da.
b. Mikel *besteak bezAIN etxekoa* da.
c. Etxe hau *gurea bezAIN iluna* da.
d. Andre *alai bezAIN dotore* batekin ezkondu zen.
e. Irudi hori *bestea bezAIN goian* dago.

Kasu bakoitzean erreferentzia puntu desberdina hartu dugu. (131d)n, adibidez, mendeko perpauseko adjektiboaren maila hartzen da arautzat: *zenbateraino alai, hainbateraino dotore* esango bagenu bezala. Eta horrela, denetan.

3.2.1.1. *Berdintasunezko maila konparazioko morfema: BEZAIN*

Maila konparazioa egiterakoan, berdintasuna adierazi nahi deneko euskarak duen morfema nagusia *bezain* da, bere aldaerekin (*bezin, bezen, bikain, etab.*). Bizkaierazko testuetan *baizen* ere (*baxen* forman) agertzen da, *bezain*-en ordezkotako gisa batzuetan eta *baino*-ren ordezkotako besteetan.

Ordena eta egitura arruntena honako hau da:

(132)

[... konparazio burua... (aditza + -eN)] + *bezain* + (Izena) + Adjektiboa (edo Adberbioa) ...

... GUREA	(DEN)	BEZAIN	(AUTO)	ILUNA
... BESTEA	(DAGOEN)	BEZAIN		POZIK

Honek esan nahi du *bezain*-ek ezkerretara perpaus bat izango duela, osorik edo, gehienetan gertatzen den bezala, konparazioa bideratzeko beharrezko diren osagaiak gordetzen dituena. Kontrastean jarri behar diren osagaiak dira gordetzen direnak.

Bestalde, badirudi konparazioa adjektiboaren mailaz egiten denean, aski erraz jartzen dugula delako adjektibo hori mugatzailerik gabe. Mailakatua ez dagoenean baino askoz errazago, nolana ere:

(133) Gizon hori gaiztoa da (*ez*: gaizto da).

Baina

- (134) a. Gizon hori aberats bezain gaizto da.
b. Gizon hori aberatsa bezain gaiztoa da.

3.2.1.2. Zenbait adibide

a. Aditz "modalak" + BEZAIN ...

- (135) a. Arima haren parte eta fakultate guziak ziren *ahal zirateken bezain* ungi dispausatuak eta reglatuak (J. Leizarraga, *ABC I*, 3r.).
b. Iguzkia *nahi bezain* / goizik ezta agertu (Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 111).
c. Bertzeren zenbat bekhatuz eztu hobendun khausituko juje zuzenak *behar bezain* ereglatu ki bizi ezten giristino bat? (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 143).
d. *Nahi bezain* prestuki biziagatik ere, bardin hil beharko naiz (Ib., 167).

Hauetan aditz "modala" ageri da soilik (*nahi, ahal, ...*), baina "aditz modal" horien osagarriak jakintzat eman behar dira, sarritan agertu ez arren. Horrela, (a)ren kasuan, *dispausatu ahal ziratekeen bezain ongi* ematen dugu jakintzat.

(b)n *agertzea nahi genu(ke)en bezain goizik*. Garbi dago zein aditz den jakintzat ematen den hori: perpaus nagusian ageri den bera.

Gauza bera gertatzen da ondoko honetan ere:

e. *Ahal bezain maiz meza entzunen dudala* (A. Baratziari, *Guiristinoqui bicitze-co eta hiltceco moldea*, 245).

Alegia, "entzun ahal dudan bezain maiz" ulertu behar da.

Ezin-ekin ere joka daiteke:

f. *Eziñ siñhetsi bezain handia da motibo edo intenzione hunen bertutea* (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 72).

b. USTE IZAN + BEZAIN ...

(136) a. *Baña, gaztetxo, oien erantzuna ez da zuk uste bezain erreza* (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 49).

b. *Orrelakuak ez dira beti-beti uste bezain urrikarri izaten* (C. Beovide, *Asis'coloria*, 154).

c. *Erri-berlso goxoak sarri ditut naasi; ez baita gure erria uste bezain sasi* (Orixe, *Euskaldunak*, 16).

Uste izan aditza osorik emana ere aurkituko dugu:

d. *Baña orduan ikasi zuten etzala Sultanen laguntasuna, eurek uste izan zuten bezain ona* (Oskillaso, *Kurloiak*, 162).

e. *Etzera nik uste nuben bezin kirtena* (T. Alzaga, *Burruntziya*, 97).

f. *Ez naiz ni zuek uste dozuen bezin ezigabia* (T. Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 455).

Zein da laguntatzailedunen eta laguntzaile gabeen arteko diferentzia? Laguntzailedunetan -(d-f)koetan ikusten den bezala- denbora, aspektu eta pertsona xehetasunak agerian dira. Laguntzailerik ezean, honelako xehetasunik ezin eman. Hala ere, denborari dagokionez behintzat, perpaus nagusiko adizkiaren denbora bera ulertu behar dela dirudi. (a) perpausian, adibidez, (a') gisa ulertuko dugu (a'') gisa baino errazago:

(a'). Horien erantzuna ez da zuk uste {duzun, izan dezakezun} bezain erraza.

(a''). Horien erantzuna ez da zuk uste zenuen bezain erraza.

c. {-TZEKO, -RENTZAKO, -RENDAKO, ...} + BEZAIN ...

(137) a. Jangabia guretako bezain behar da aberentako eri denian (E. Inchauspe, *Diálogos*, 76).

b. Au ezin-ulerri zala ez siñesteko bezain zozo ez nintzan (Orixe, *Aitorkizunak*, 131).

c. Begiz ekusteko bezain itsu arkitzen ziran (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 220).

d. Mahats hori jateko bezain ona da ardoa egiteko.

d. Izen sintagma ergatiboa + BEZAIN ...

(138) a. Zuek bezain odol garbia duena (M. Larramendi, *Corografía*, 152).

b. Baldin badu biyotza / nik bezein leuna, / lastertxo izango det / etxian laguna (J. V. Echagaray, *Festara*, 76).

Perpaus hauetan, azpian honako hau dugu:

a'. [[zuek x odol garbia duzue] -eN bezain] odol garbia duena.

b'. [[bihotza nik x leuna dut] -eN bezain leuna du bihotza.

Eta:

c. Baldin denpora doatsu artako Euskaldunak bezin maite oraingoak balute beren itzkuniz gozoa (J. I. Izrueta, *Guipuzcoaren condairu*, 105).

d. Uste du ezen bertze guztiak ere hura bezala direla, hark bezain igurikitza eta pairu guti dutela (P. Axular, *Guero*, 386).

(d) perpaus honetan formalki maila konparazioaren aurrean gaude, baina *guxi*-ren maila denez konparatzen dena, kantitatea ere nolabait tartean dago. "... bezain guxi", praktikan, izan daiteke "... adina"-ren baliokide, baina esamolde batean adierazten dena eta bestean adierazten dena ez da gauza bera.

e. Izen sintagma absolutiboa + BEZAIN ...

Sarritan mendeko perpausa –eta perpaus nagusia ere bai, jakina– perpaus kopulatiboa izan ohi denez, normalena *bezain*-en ezkerretara izen sintagma absolutiboa agertzea izango da. Sintagma hori, hain zuzen, mendeko perpaus txertatuko subjektua da:

- (139) a. Ehon ere eztakusat *nihaur bezain* erhorik (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 163).
- b. Eta eginen da ene arima *elhurra bezain* xuri (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 182).
- c. Egin bedi *elhurra bezain* hotz debozinoan eta *sua bezain* bero malizian (P. Axular, *Guero*, 585).
- d. Zertako erraten da *urdea bezain* zikhina? (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 281).
- e. *Jaun Piroa bezain* lodiko zigarretak egiten zituen (J. Barbier, *Supazter chokoran*, 63).

(e) perpausean perpaus konparatiboz horniturik ageri den adjektiboa izen bati dagokio. Horrelakoetan, hurrenkera ohikoa honako hau litzateke:

e'. *Jaun Piroa bezain* zigarreta lodiak egiten zituen.

Baina, gorago esan den bezala (ikus 3.1.7), zenbaitetan, hurrenkera hori hautsi egiten da eta perpaus konparatiboak eta adjektiboak osatzen duten egitura hori oso-osorik kokatzen da izenaren ezkerretara eta orduan, *-KO* atzizkia hartzen du adjektiboak, lotura egiteko. Hau aski arrunta da. Azken batean, *bi metro luzeko gizona* edo *izarra baino ederragoko andrea* esatean bide bereetik eramaten dugu esamoldea (ik. 3.3.1.1).

Beste bidea, gorago esanaren arabera, konparatiboa erlatibo baten barnean txertatzea litzateke:

e". *Jaun Piroa bezain* lodi(ak) ziren zigarretak egiten zituen.

Ondoko adibide honetan, berriz, absolutibozko izen sintagmaz gainera, aditza ere ageri da, jokabide hori normalena ez izan arren:

- f. *Gu guren bezain* kreatura erromes eta ezdeusentzat duen amodio sobraniatzkoa (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 75).

f. *Perpaus osagarria + BEZAIN ...*

Konparazio burua perpauseko edozein osagai izan daiteke. Aurreko atalean izen sintagma absolutiboaren zenbait adibide jaso ditugu. Modu berean, *-eLA*-dun perpaus konpletibo bat ere izan daiteke konparazio burua, perpaus osagarriak ere perpaus osagai izan baitaitezke. Beraz, konparazio morfemaren ezkerretara konpletiboak ere ager daitezke.

- (140) a. *Bihar eguzkiak egungo ordutsuan beste agerraldiren bat egingo digula bezain segur* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 396).

Alegia, eguzkiak beste agerraldiren bat egingo digula ziur den maila berean da ziur bestea ere. Ondoko perpaus hau ere tankera horretakoa dugu³.

- b. *Bernardotxok erantzun zion ordu artan parroko jaunak itz egiten ziola bezin seguru zegola...* (F. Gofñi, *Lurdes-ko gertaerak*, 46).

-eLA atzizkidun osagarria agertuko zaigu zenbait predikatu sartzen direnean konparazioan (*seguru izan*, *dudazko izan* eta antzekoak). Bestelako predikatuekin beste modu bateko osagarriak agertuko dira: *-TZEA* formakoak, adibidez.

- c. *Eskatzea bezain* erraza balitz ematea, beste kontu bat litzateke.
d. *Harri hainitz behar* laiteke hortarakotzat, eta diozu *jorratzea bezain* on dela harri ematea (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 345).

g. *Izen sintagma datiboa + BEZAIN ...*

- (141) a. *Graziaren bizian sendotu diranak besteren onari bezain* ongi edo obeki begiratzan diote berenari (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 297).

³ Horregatik, ondorengo (a) perpausa hobeto legoke (a') gisa:

(a) *Zazpi* ta iru hamar diran bezain tinki egon nai nuan (Orixe, *Aitorkizunak*, 131)

Zeren hemen kontua ez da *zazpi eta hiru hamar tinki izatea*, baizik eta *zazpi eta hiru hamar direla tinki egotea*. Eta, hain zuzen, horrezaz bezain tinki egon nahi nuen -dio (a)-k-. Beraz, zuzenago (a'):

(a') *Zazpi eta hiru hamar direla bezain tinki egon nahi nuen.*

- b. *Ostutako kare ta arriekin egindako etxearen jabeari bezin berea zitzaion toki ura* (A. Anabitarte, *Poli*, 15).

h. Adizlaguna + BEZAIN ...

- (142) a. *Zeruan bezain oso dago / guretako ogian* (K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 3.1.20).
b. *Bethi dituk hire penak / Hastean bezain fresko* (P. Argaignarats, *Devoten Breviarioa*, 8).
c. *Gelditzen oi dirade / len bezin astoak* (A. Iturriaga, *Fábulas*, 124).
d. *Ekhaitzak arrunt moztu ez duen udaberriko lilia / iguzkiaren deiarri dago, sekula bezain garbia* (Oxobi, *Lanak*, 72).

(c)n *asto*, berez izena bada ere, nolabaiteko adjektibo gisa erabilia dago. Honako hau esango bagenu bezala:

- e. Zenbait, unibertsitatetik pasa arren, gelditzen dira *lehen bezain* asto.

i. Osagai bat baino gehiago + BEZAIN ...

Konparazioan kontrastean jarri nahi ditugun osagaiak bat baino gehiago izan daitezke. Orduan, perpaus txertatua osagai horiek denak agertuko dira:

- (143) a. *Eguzkiak udan goizeko ihintza bezain erraz uxatu dituzu zuk gaur nire bihotzeko penak*.
b. *Gogoa azkar bezain bixta xorrotx zuen oraino lauetan hogoï urtetan* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 160).
c. *Bada zuk, nik nere soldadu bakoitza bezain eskuan daduzkatzu munduko eritasunak eta osasuna* (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 186).

j. Baldintza perpausa + BEZAIN ...

Baldintza perpausa ere perpaus elkartu bateko osagai den aldetik, konparazio morfemaren ezkerretara ager daiteke beste edozein osagai bezala:

- (144) a. *Zola bera zilarrezkoa da, harri pikatuz balitz bezain zangoarentzat gogor* (J. Etchepare, *Beribitez*, 62).

- b. Migel alkatea, (...) *etxeo gerrena iretsi balu bezain* xut, karrikari beheiti, herriko etxeari buruz joan zen agudo (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 39).
- c. erabiliko du *ondasun-bage balitz bezain* lasai (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak*, 64).

k. Adjektiboa + BEZAIN + adjektiboa / adberbioa

- (145) a. Eta lehen *gaixto bezain* egiten dira gero on eta prestu (P. Axular, *Guero*, 165).

Ordena arruntagoan honela izango litzateke:

- a'. Eta lehen *gaixto bezain* on eta prestu egiten dira gero.
- b. Esku eta zango biak, / *Xuri bezain* guriak (A. Oihenart, *Poesiak*, 27).

Horrelakoetan adjektiboen maila finkatzeko erreferentzia puntutzat beste adjektibo baten maila hartzen dugu. Beraz, oraingoan ez ditugu bi izen sintagma eta adjektibo bakarra *-A B bezain zabala da-*, izen sintagma bakarra eta bi adjektibo baizik *-A luze bezain zabala da-*. Bi adjektibo desberdinen artean ezartzen da, hortaz, konparazioa. *Zuri bezain guri* diogunean zuritasun maila eta guritasun maila konparatzen ditugu. Konparazio burua, erreferentzia puntua "X zuri" izango litzateke eta honen arabera lortzen dugu guritasunaren maila zehaztea: *zuri bezain guri*.

Goiko bi adibide horiek ohikoena den bidea erakusten digute, hots: adjektiboa mugagabea + *bezain* + adjektiboa (mugatu nahiz mugagabea). Baina bi adjektiboak mugatuak izan daitezke. Gaurko joera, gainera, mendebaldean behintzat, horixe dela ematen du:

- c. Bere pentsabidearen ardatza *argia bezain* laburra da (P. Garmendia, *Euskaldunon Egunkaria*, 97.7.12, 2. or.).

l. IZAN aditza + -eN + BEZAIN + adjektiboa / adberbioa

- (146) a. S. Franzisko Asis, *zan bezen* Santu andia izan arren, etzan atrebitu Apaizen malla artzera (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 556).
- b. Sultan, zakur ausarta ta jale andia, / *zan bezin* luze, zetzan lurrean jarria (A. Iturriaga, *Fábulas*, 254).

c. *Zan bezain sutsu* jokatu zan (T. Agirre, *Uztaro*, 186).

d. *Diren bezain bihotz hunkigarri* izana gatik aita, ama edo emaztearen alderako hitzak (E. Larre in Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 13).

Konparazioaren erreferentzia puntua, beti bezala, ezkerreko perpausak ematen digu. Kasu honetan, aditzaz aparteko elementurik ez da ageri. Horrenbestez, izen predikatuzko egitura bat dagoela pentsatu behar da. (b) perpausa hartuta, adibidez, *Sultan X luzea zen* izango litzateke perpaus txertatua. Perpaus nagusiko adjektiboaren maila mendeko perpausoko “X luze” horren arabera finkatzen dugu. Dena den, (a)-(d) adibideetako esamoldeak superlatibo moduko zerbait direla esan genezake. *Zen bezain sutsu* diogunean, *oso sutsu*, *erabat sutsu* edo *albait sutsuen* esango bagenu bezala da.

m. ... + BEZAIN + LASTER

Aditzondoen maila konpara daitekeela esana dugu. Aditzondo hori denborazkoa bada, cgiatan denbora konparatzen ari gara. Horrela esan daiteke:

(147) a. Peru *Miren bezain* berandu iritsi da.

b. Peru *Miren bezain* garaiz agertzen da.

c. *Frantsesa bezain* laster ikasiko du ingelesa.

etab.

Bi gertaeraren denbora edo noizkoa ere konpara daiteke. Hots: <zu noizbait ikusi zintudan> alde batetik eta <noizbait ezagutu zintudan> bestetik. Konparazio honetatik honako egituraren antzeko bat gertatuko litzateke:

(148) a. [zu Ø ikusi zintudan bezain] laster ezagutu zintudan.

Hots:

a'. Zu ikusi bezain laster ezagutu zintudan.

a". Zu ikusi zintudan bezain laster ezagutu zintudan.

Konparazio honen fruitu da [... *aditza (laguntzailea) + bezain + laster*] esapidea. Era honetako perpausen esanahia argi dago. Bi gertaeraren aldibereketasuna markatzen da:

- b. Sumina izan da erreakzio nagusia gertueraren berri izan bezain laster (*E. Egunkaria*, 97. 7. 12, 7. or.).
- c. Aitaren naikuntza ikasi bezain laster, artu zuen ark arako bidea (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragarabeak I*, 94).
- d. Merkataritza erori bezin laster, nekazaritza asi izan zan altxatzen (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 180).

Laster-en ordezt, fite, sarri, agudo, prest, etab. ere erabil daitezke:

- e. Errepostu eman zion / entzun bezain fite (Bordel, *Bordel bertularia*, 125).
- f. Mundutik ilki bezain sarri / Sar gaiten baltsa handian (S. Monho, *Poèmes basques*, 134).
- g. *Borroka bukatu bezain sarri* (...) deseginak ageri ziren behaztopabide zitezkeenak (K. Mitxelena, "Campionen ...", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca* II, 965).
- h. *Armeniatik etorri bezin prest* mendi ondoetan txabolarxoak egiñik, jarri izan ziran beretan gure asaba maitagarriak (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 3).

Goiko adibide horietan *bezain-en* aurrean partizipio soila dugu, baina aditza osorik ere eman daiteke:

- i. Kofesa bedi beraz bat bedera *bekhatuu egin duen bezain fite* (P. Axular, *Guero*, 542).
- j. *Bizkaian pakea egingo dan bezain laister*, bildu ditezela batzarreak Gernikan (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 34).
- k. Eta horrela bethi elgarretara ditezela, lurraren bazter guzietan, *hotan andana kokatu izanen den bezain sarri* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 213).
- l. *Gizona adimendura heltzen den bezain sarri*, puntu berean, obligatu dela bihotzaren Jainkoagana ailtzatzera (P. Axular, *Guero*, 171).

Normalena partizipioa agertzea da, nolana ere.

Adibide hauetan guztietan, azken batean, denborazko perpaus txerriatuak ditugu. Konparatibo itxuran emanak dira, baina egiazki gauza gutxi konparatzen da hemen. (d) perpausa hartuz gero, esaterako, nekazaritza altxatzen noiz hasi zen esaten zaigu. Konparaziora jo gabe ere esan zitezkeen hori:

d'. Merkataritza erori zenean, nekazaritza hasi zen altxatzen.

d''. Merkataritza erori (zen) eta berehala hasi zen nekazaritza altxatzen.

n. ... EZ BEZAIN ...

(149) a. *Inoiz ez bezin zorigaiztoko izango nintzala, nork esan zezakean?* (Txillardegia, *Leturia*, 42).

b. *Inoiz ez bezin zoragarriro* (J. Mokoroa, *Erraondoko azken danbolintero*, 22).

c. *Oiloak txitak ez bezin maiteki amak eusko-aurloa zaintzen du emendik, biguin...* (S. Mitxelena, *Aranzazu*, 197).

(a) parafraseatuz, honelako zerbait izango litzateke: "Inoiz izan ez naizen bezain zorigaiztoko izango nintzela...". Honek esan nahi du esamolde horretan ageri den *ez* hori mendeko perpausari dagokiola. Perpaus horretako aditza ezaba daiteke baina ezeztapena markatzen digun elementuak agerian segitu behar du. Bestela, perpausa baiezketa emana dela ulertuko genuke.

Nolanahi ere hauen esanahia beste era batera ere eman liteke, *baino ...-AGO-z* baliatuz:

a'. Inoiz baino zorigaiztokoago izango nintzela.

b'. Inoiz baino zoragarriroago.

c'. Oiloak txitak baino maitekiago zaintzen du hemendik amak eusko-aurloa.

3.2.2. ZENBATASUNA

3.2.2.1. Berdintasunezko kantitate-konparazioa adierazteko morfemak

Berdintasunezko kantitate-konparazioa gauzatzeko erabiltzen diren morfema nagusiak *adina*, *adinbat*, *bezainbat* eta *beste* ditugu. *Hainbeste* ere erabili izan da zenbaitetan baina, ikusiko den bezala, ez dirudi hau denik elementu honen berezko erabilera. Hitz hauek ez dute denek hedadura bera euskalkietan barrena. Ahozko hizkeran ere forma desberdina erakuts dezakete.

a. ADINA

Aina, adiña, aña gisa ere ageri da testuetan. Morfema beraren aldaerak direla dirudi. Batasunaren izenean, *adina* forma hobetsiko dugu. Hiztegi Baturako ere *adina* izan da Euskaltzaindiak hobetsi duen forma:

(150) Ostoen otsak *adiña* ez neri axola ire kantak (Orixe, *Mireio*, 38).

b. ADINBAT

Adinbat, eta honen baliokidea den *ainbat*, hegoaldeko euskal literaturan oso erabiliak izan dira, batez ere gipuzkoarren artean. Hemen ere morfema beraren bi aldaera ditugula esan daiteke.

Bada beste *hainbat* bat ere, zenbatzailea dena. *H*-rik ez den euskalkietan *ainbat* forman aurkituko dugu hau ere. Ez dugu, hortaz, bereizketarik aurkituko *ainbat* zenbatzaile soilaren eta *ainbat* konparatiboaren artean. Ekialdeko testuetan *hanbat* ageri da, baina hau zenbatzaile soil da eta ez konparaziozko morfema.

Hortaz, konparazioetan ageri den *ainbat* honek azpian *adinbat* duela ematen du. Zenbatzaile soilak, berriz, ekialdeko *hanbat*-en pareko litzateke. Horrenbestez, *hainbat* (zenbatzailea) eta *adinbat* (konparazio morfema) bereiztea zilegi litzateke eta hala egingo dugu hemen:

(151) a. Ameriketako *hainbat* diru irabazi duela diote (*hainbat*, zenbatzaile).

b. Zuk *adinbat* buruhaute izan ditut joan den urtean (*adinbat*, konparazio morfema).

Hainbat zenbatzailea erakusleetatik eratorria da: *honenbat*, *horrenbat* eta *honenbeste*, *horrenbeste*, *hainbeste*, bezala.

c. BEZAINBAT

Forma bat baino gehiago ageri dira testuetan: *bezanbat*, *bezainbat*, *bezenbat*, *bezinbat*. *Bezanbat* da gehien ageri den forma. Hala ere, eta *bezain*-ekiko lotura gordetzearren, *bezainbat* forma onartzen da euskara baturako. Kantitatezko konparazioa bideratzeko zenbatzailea dugu hau ere.

(152) bada gizon *bezainbat* sinheste (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 114).

OEH-ren arabera, *bezanbat* orokorra da Iparraldeko literaturan XVIII. mende azkena arte.

d. BEZAINBAT-en bidez osatutako bi esapide

Bezainbat aipatu dugunez, honetatik eratorritako bi esapidez zerbait esatea on da:

• ...-eN BEZAINBATEAN

Hauek perpaus adberbialak ditugu, nolabait ZENBAT galderari edo erantzungo lioketenak:

(153) a. Bortxatzen gairuzten bezanbatean (J. Haraneder, *Philotea*, 352).

b. Jesu Kristo imitatzen dugun bezenbatean (M. Duhalde, *Meditacioneak*, 253).

• ... DENAZ BEZAINBATEAN

(154) a. Borondateaz denaz bezanbatean (P. Axular, *Guero*, 325).

b. Geure aldetik denaz bezanbatean (Ib., 257).

c. Hetaz denaz bezanbatean (J. Haraneder, *Philotea*, 328).

Esamolde honek badu mendebaldeko euskaran ordaina: '*boronduteari dagokionez*', '*guri dagokigunez*', '*hoiei dagokienez*', etab. Zein pertsonari edo gauzari dagokion, zeinen arabera doan kontua, edo dena delakoa, *denaz bezanbatean*-en ezkerretara kokatzen da eta gehienetan *instrumentalean* joango da edo *ablatiboan*: -AZ edo -TIK, hortaz, goiko (154)ko adibideetan argi ikusten den bezala.

e. BESTE

Beste hitza, izen sintagmaren esparruan duen zereginaz gainera (cf. *beste katu bat*, *beste etxerik*, *beste host gizon*, etab. bezalakoak) konparazio morfema gisa ere erabiltzen da:

(155) Emon ezin dabən *beste* dote eskatutia (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 358).

Bizkai aldeko euskaraz erabiltzen da batez ere. *Adina*, *bezainbat* eta *adinbat*-en kidekoa dugu morfema hau. Denek ere kantitatezko berdintasuna adierazten dute. Hots, honako perpaus hauek denak baliokideak ditugu:

- (156) a. Guk *beste* liburu ez du inork irakurri.
- b. Guk *adina* liburu ez du inork irakurri.
- c. Guk *bezainbat* liburu ez du inork irakurri.
- d. Guk *adinbat* liburu ez du inork irakurri.

f. BEZAINBESTE

Konparazioa bideratzen duen zenbatzaile honek honako forma hauek hartzen ditu euskalkietan barrena: *bezainbertze*, *bezanbeste* eta *bezenbertze*.

Hitz-egiturari dagokionez, berriz, argi dagoela dirudi zein osagairen gainean eraikia dugun: <*bez* + *hainbeste*> edo <*bezain* + *beste*>. Idatzi ere, askotan bereiz idatzirik ikusiko dugu.

Sail honetan jaso diren gainerako kantitatezko konparazio morfemen balio-kidea da, nahiz eta erabilera urriagokoa den.

(157) Nahiz ez naizen parapsikologiaz lehen *bezainbeste* arduratzen (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 303).

g. HAINBESTE zenbatzailea da

Bada beste morfema bat zerrenda honetan sartu behar ote litzatekeen eztabaida daitekeena: *hainbeste*. Berez, zenbatzailea da eta hauxe da, gainera, erabilera nagusia. "Kantitate ugaria" adierazteko erabiltzen den *hainbat* zenbatzaile soilaren baliokide litzateke. Zentzu honetan erabiltzen da, gainera, batez ere, *honenbeste* eta *horrenbeste*-ren ondoan:

(158) a. Jakin zuanean au soldaduak, gaztigatu zion Jesusi, etrezala *ainbeste neke* artu (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 473)

- b. Orregaiti Santo Tomasek esaten dau, *ainbeste lekutan*, ta beti ... (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 158).
- c. *Hainbeste lan sobera* da gizon baten (M. Etchamendy, *Etchamendy bertsularia*, 276).
- d. *Ainbeste jente gaisto armaturen* bildurrik gabe nai izan zuen bere Maisu Jainkozkoa kemen andiaz ta ganibetaz ere gorde ta eskudatu (J. I. Arana, *San Ignacioren bicitza*, 6).

Baina morfema hori, *ainbeste* gisa idatzia, konparazio perpausetan ere aurkitzen ahal dugu zenbaitetan. Bertsolarien lanetan ageri da batez ere:

- e. *Aiek ogei urtean erreko ezuten ainbeste egur* utzi genien (Uztapide, *Lengo egunak gogoan I*, 297).

H-rik ezean, forma bera erabiltzen dela pentsa liteke bi eginkizunetarako: zenbatzaile gisa erabilia da (a)-(d) perpausetan, eta konparazio morfema gisa (e)n. Zenbatzaile gisa, euskara batuan *hainbeste* forma hobesten da. Hortaz, gainerako morfemekiko paralelotasuna gordeaz, agian, konparaziorako *adinbeste* forma proposa liteke, euskara batuan taxu honetako formarik proposatu behar hada, noski. Beste irtenbidea litzateke forma bakarra, *hainbeste*, bi eginkizunetarako erabiltzea zilegi uztea. Eta beste bat, berriz, *hainbeste* zenbatzaile soil dela esatea, konparazio perpausetarako gomendatu gabe. Hain zuzen, konparazio morfema gisa duen erabilera urria eta tradizio mugatua kontuan hartuz, gure ustez, euskara batuak ez luke morfema honen beharrik konparazioa gauzatzeko: baditugu eginkizun horretarako zenbait forma, ongi errotuak tradizioan, eta ez dirudi egoki denik ordezeko berriak bilatzen hastea. Hortaz, *hainbeste* zenbatzaile soil izango da eta ez konparatzaile.

h. LAINBESTE

Lainbeste ere ageri da testu batzuetan. *Lain* eta *beste* nahasiz sortua dirudi honek:

- (159) a. Bera errege zala baegoan Jerusalem-en, kalcetan arriak *lainbeste*, urte ta urtegorri (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 220).
- b. Oneck denpora gitxian besteak askoan *lainbeste* lan egin eben (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 128).

Nolanahi ere, batasunaren izenean, ez dirudi egoki forma honen erabilera bultzatzea, ez eta honen baliokidea dirudien *lainbat*-ena ere:

c. arabost Fraile Mezako eta bost Lego bizituzeko *lainbat* ondasun (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 506).

i. *DINA*

OEH-ren arabera, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko testuetan ageri da morfema hau, Gainerakoen baliokidea da.

(160) Ezagutu nuen nik ere egia zela jaun ark esaten zidana, baña ez nintzan horduan ararako behar zen *diña* hastirekin arkitzen (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragarriak* I, 52).

j. *LAIN* eta *DOI* ere konparazio morfema?

Lain eta *doi* ere, zenbaitetan, hemen konparazio morfematzat eman ditugun bauen ordain izan daitezkeela dirudi. *Lain* (*lagin* forma ere erakusten du), mendebaldeko euskalkietako hitza dugu, *doi*, ekialdekoa.

Lain, orain arte jaso diren konparazio elementuen kidekoa badirudi ere, esan liteke ez dela egiazki konparazio morfema. Egia da zenbaitetan *adina*, *bezuinbat* eta horien baliokide dirudiela, baina, gauzak ongi aztertuz gero, berehala ohartuko gara, *lain* ager daitekeen testuinguruak egiazko konparazio morfemak ager daitezkeen testuinguruak baino askoz mugatuagoak direla.

Batez ere, *-TZEKO* *lain* esapidea da erabiltzen dena. Hemen, noski, *adina*, *bezainbat*, *beste* eta abarren ordezkoa izan liteke. Adibidez:

(161) a. *Jendeari adarra jotzeko lain* asti badu.

b. *Jendeari adarra jotzeko adina* asti badu.

c. *Jendeari adarra jotzeko beste* asti badu.

...

d. *Au mantentzeko ainbeste* diru / ez dedala irabaziko (Txirrita, *Bizitza ta bai bateko bertsoak*, 88).

Baina hemendik kanpo, bidea itxia aurkitzen du *lain*-ek. Konparatiboen ezaugarri nagusia osagarritzat perpaus bat –osoa nahiz murriztua– hartzea bada, garbi dago *lain*-ek ez duela ezaugarri hori:

- e. *Gizon horrek kurritu dituen {adina, bezainbat, beste} lurralde inor gutxik kurritu ditu.*

Baina

- f. **Gizon horrek kurritu dituen lain lurralde inor gutxik kurritu ditu.*

Beraz, *lain* ez da egiazko konparazio morfema, ez baitu perpaus konparatiboa gobernatzen (alegia, ez du osagarri gisa, perpausik eskatzen). Eskatzen duena, dirudienez, sintagma destinatiboa da, *-TZEKO* perpausa bereziki, edo *-RENTZAKO*, *-RENDAKO*:

- (162) a. Bei bat ere eraman genduan, Arrio izena zuena, *etxerako lain esne izatearren* (S. Salaverria, *Neronek tirako nitzin*, 19).
b. *Aurtengo lain* badago (I. Sarasola, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, 700).
c. *Sabela betetzeko lain* biltzen du (Ib., 700).
d. Euren alogeraz *etxeko bearrizan arrontai arpegi emoteko lagin* irabazi dagien... (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 140).

Lain-en ordez, ekialdeko euskalkietan *doia* erabiltzen da:

- (163) a. Arima debotak, eta penitentak imitatu behar du arranoa, txori ororen erregia, hark bere butina hartu dianian, eta hanti *bere doia* ian, zer ere restatzen baita, hura oro haren ondoan jiten diren txorier emaiten du (J. Tartas, *Occupatione devotaq*, 95).
b. galdetu zion nungoa zen, nor zuen aita, eta etxean gau hartan ba othe zuten *haren doia* atherbe (Zerbitzari, *Ichtorio Saindua*, 21).
c. Hori zauku, hori, bi gogoetaren *egiteko doia* buru dutenentzat biziki handi (J. Hiriart-Urruty, *Minzaira. Aurpegia. Gizon*, 130).

Aski eta *nahiko*-ren baliokidetzat jo daitezkeela dirudi erabilera honetan.

Bestalde, ezkerretara daramaten osagaia genitiboan doa (*-EN* edo *-KO* atzizkiak hornitua). Horrek *doi* eta *lain* posposiziotzat hartzea zilegi egingo liguke, beharbada:

- (164) Emaizkiok eskerrak eta leiatu adi ire *emaztearen lain* izaten (Y. Etxaide, *Jouanak-joan*, 98).

Esanguratsua da alde honetatik *lain*-ek destinatiboa eskatzen badu ere, destinatibo horrek *-ENTZAKO* forma hartzen duela eta ez *-ENTZAT*:

- (165) a. Neuretzako lain ekarri dut.
b. ?Neuretzat lain ekarri dut.

Goian aipatu den *dina* ere erabilera honetan ageri zaigu benetako konparazio morfema gisa baino areago:

- (166) a. Arka edo kutxa andi zabal bat, egazti ta abere mota guzietatik ar-emeak beregan idukitzeko *diña* izan zitekeana (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 13).
b. Bertzeek gaizki egin lezaketela *ezagutzeko eta erraiteko dina* buru badut, eta nere gaitzaren *ikusteko dina* ez dut (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 59).
c. Eskal-herriak ez du behinere biltzen *bere dina* bihi (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 29).

3.2.2.2. Zenbait adibide

Orain artekoak kontuan izanik, ondoren jasotzen diren adibideak konparazio morfemaren ezkerretara ageri diren osagaien arabera sailkatuak ematen dira.

a. Aditza agerian + konparazio morfema

- (167) a. *Parkatu deustazun beste bidar*, librau nozula edo atera nozula inpernuti (Fray Bartolome, *Icasiquizunac I*, 68).

Hots: $[[x \text{ bider}]_i \text{ barkotu deustazun}] \text{ beste bider}_i \dots$

- b. Leizarragarengandik Duvoisinengana *argi-urratzetik eguerdira dagoen adina tarte* badago.
c. Fruta artatik jan zazu, / *Aita Eternuak dakien ainbat* / orduan jakingo dezu (Txirrita, *Bertsoak I*, 203).

- d. Erran obi da egia handirekin *hartzen dian bezan bat* emaiten diala [Iturrak] (E. Inchauspe, *Dialogues basques*, 61).
- e. *Estatzen duen bezenbat* du apaintzen belhar xehe batek (J. Etchepare, *Beribilez*, 84).
- f. Biotzetik aterea ez balitz, ez luke besteren biotzik, *nere biotza berotu duen ainbat* berotuko (Etxegarai in D. Aguirre, *Auñemendiko Lorea*, 7).

Dena dela, hemen egin daitekeen galdera da ea (b), (c) eta (f)n ezin ote litekeen perpaus txertatuko adizkia ezabatu. (b)n eta (c)n zilegi da ezabaketa hori, baina (f)ren kasuan ez:

- f'. Bihotzetik aterea ez balitz, ez luke besteren bihotzik *nire bihotza adinbat* berotuko.

Aditz hera dugun arren (*berotu*), (f)ko adibidea perpaus txertatuko aditza ere aspektuaren eta denboraren aldetik perpaus nagusikoa bera duela interpretatzera behartuak egongo ginateke. Baina (f)n adizkiak desberdinak dira egiazki: *berotu du / berotuko du*. Horregatik, ezin ezaba daiteke interpretazioa aldatu gabe. Edo, gutxienez, interpretazioa ambigua gertatzen da (f)n.

b. Aditz modalak + konparazio morfema

Aditz modalizat hartzen ditugu *behar*, *nahi* / *gura*, *ahal* eta *ezin*. Bakoitzari sail bana eskainiko diogu.

• *BEHAR ... + konparazio morfema*

- (168) a. Uste nuen *behar adiña* lagunduko niela (S. Mendiburu, *Idazlan argitaraga-beak I*, 53).
- b. Ez *behar lizakean adiña*, baizik dezakedana (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia I*, 558).
- c. Ez ditut *behar adina* ezagutzen (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 216).
- d. Esan-al guztiaz ere andizkatu ezin leizke *behar ainbat*, Euskarazko izen miraritsu maitagarriak (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 6).
- e. Jaungoikoa maitatzeko *behar ainbat ezaguera eta argitasun izan baño* len (G. Arrue, *Mayetececo illa*, 200).

- f. Itxasoak bere barrutian, geiago badira ere, badu guziak artzeko *beur-diña ur, beur-diña bide* (M. Larramendi, *San Agustin*, 10).
- g. Bihotz-hausgarri da ikhustea asko laborari ardirik gabe txarki bizitzen, izan letzaketelarik, berak nor balira, ongi bizitzeko *behar bezenbat* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 268).

Aditza osorik emana ere gertatzen da, jakina:

- h. Arkitu zuan lurpian dirua, *biar zan ainbat* etxe-santua egiteko (C. Beovide, *Asis'co loria*, 127).
- i. *Biar dan beste denbora* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 23).
- j. Tori diruba eta ar zazu *biar dan diña* (M. Soroa, *Au Ostatuba!*, 100).
- k. Fraide debot batek *behar lukian bezañ beste* argireki eta huntarzuneki (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 58).

• **NAHI ... + konparazio morfema**

- (169) a. *Nai adiña denboraz*, lagundu zien guziei animako gauzak zuzentzen (S. Mendiburu, *Idazlan argitarugabeak I*, 344).
- b. Honako beste izkribu honek (...) sortu ditu eztabaida samiñak, *nahi udina* eta gehiago (K. Mitxelena, "Eratorbidea eta deklinabidea", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 675).
- c. aditu behar dugu ezen ezgaituztela biandék hatzen ez entretenitzen, hetarik *nahi bezenbat* dugula ere (J. Leizarraga, *Othoitza*, E 6r).
- d. Gaur eskolatik libre geran ezkeror, *nai ainbat* jostatu nai det (G. Arruc, *Mayeiceco illa*, 34).
- e. Auntz bat (...) erosi nuan *nai ainbat* esne izango zualakoan (*Noeren ontzia*, 54).
- f. Egizozu *nai beste* gaitz (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 247).

Hemen ere aditza osorik eman ezinik ez da:

- g. Egiten badezu *nik nai dedan adiña* zorioneko (...) izango zera (A. Cardaberaz, *Egercicioak III*, 363).
- h. Pasa zazu eizian *nai dezun ainbat denbora* (Agirre in Xalbador, *Ezin bertzean*, 125).

- i. Halaber arrainetarik ere *nahi zuten bezenbat* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Jn 6, 11).
- j. *Nai dozubeen beste* (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 94).
- k. Següro dena da Jinkoak *nahi dian bezaiñbeste* besarkatü gaiza dütiäla eginen (J. Eguiateguy, *Lehen liburria*, 251).

• **AHAL ... + konporazio morfema**

- (170) a. *Al aiña gora ezazu* (Orixe, *Meza-Bezperak*, 513).
- b. Ekin idazute *aal-beste* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 55).
- c. Sarek hartu zuten *jasan ahal bezunbat arrain* (B. Larreguy, *Testamen çuharr. berr. historia II*, 140).
- d. Gura bai, *al dodan aña bengetea* (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 454).
- e. Gozatuko zare bakezko abundanziarik handienaz, bederen mundu huntako desterruan *ahal daiteken bezanbat* (M. de Chourio, *Imitacionea III*, 25).

• **EZIN + aditz partizipioa + konparazio morfema**

- (171) a. Egin dituen gauz andiak *ezin kont-al adiña* dira (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak II*, 303).
- b. Nik egingo zaitut, *ezin kontatu al adiña* jenderen Guraso ta Aitona (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 17)⁴.
- c. Ez diñuee gitxiago San Agustin, San Basilio ta *kontau ezin aiña Maesu ta Teologu andik* (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 134).
- d. *Ezin kont-al-diña* erri murratu ta gartzelu (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 196).
- e. Maitiago zaitut...! txit maite zaitut, *ezin esan aña maite zaitut!* (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 158).
- f. Gisa onetako azaña andi Gipuzkoatarrak egindakoak, badira *ezin kontatu ainbat* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 253).

⁴ *Ezin konta ahal(a)* esapidea bere horretan, soil soilik, *adina*-ren lagunzarik gabe, alegia, erabil daiteke, horregatik esanahiak ez er galdu gabe:

• Egin dituen gauza handiak *ezin konta ahalak* dira.

- g. arkitu zituzten *ezin esan ainbat* ondasun (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarr. berr. condaira*, 193).
- h. Aitzitik ekharri zioten Dabiti *ezin erran bezenbat* amudio (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia I*, 280).
- i. Ehun mila heretiko baino gehiago konbertituak, *ezin sinhets bezenbat* bekhatoros (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 123).
- j. *Ezin kontadu beste* kostumbre (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 10).

• **EZIN + aditz jokatua + -eN + konparazio morfema**

(172) *Emon ezin daben beste* dote eskatutia (Fray Bartolome, *Icasiquizunac III*, 358).

• **Ahalerazko adizkia + -eN + konparazio morfema**

Eta ahalezko balioa nolabait adierazten dutenez, hemen sartu beharko genituzke honako adibide hauek ere. Jakina, konparazio morfemaren ezkerretara perpaus osoa dutenez, gorago ere sar zitezkeen:

- (173) a. Ezagutzen du bere burua, *ezagutu ditekean adiña* (J. A. Ubillos, *Cristau doctrin berri-ecarlea*, 126).
- b. Eta ahal guzia eginen du *daiteken bezenbat ponpa* zeremoniei emaliteko (*Jesusen Bihotza*, 423).
- c. *Zenbatu ezin leitekezan beste* (A. Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 75).

c. **USTE IZAN, MEREZI, ON IZAN, ASKI IZAN, ... + konparazio morfema**

- (174) a. *Merexi adiña pena* cztút (J. Lizarraga, *Itzgiaic*, 177).
- b. Eznau, *berorrek uste daben aña* aberats izateak arrotuten (D. Aguirre, *Kresala*, 162).
- c. *Zuk uste adina* erosle ez da izan plazan.
- d. Nok lorru, baña, *uste dan beste?* (K. Enbeita, *Bertsoak*, 61).
- e. Dinozunian ezin ondo urten zinajjala tratuban naste bago, eta ondo neurtu, eta pisadubagaz, esan nai dozu ezin irabazi zinajjala gura zeunkian, *edo uste zenduban beste?* (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 167).

Testuen arabera, badirudi *uste adina* eta *uste beste* esamoldeekin baino erosoago sentitzen garela aditza osorik emanda: *uste den beste*, *uste zenuen beste*, *uste duzun adina*, etab.

On den adina esapidea ere bada. Hemen aditza albora uzterik ez dago. Hots: *uste nuen adina* nahiz *uste adina* esan daitekeen bezala, *on den adina* bai, baina **on adina* ezin esan daitekeela dirudi.

- f. Ekusten dezu zure auzo, aide edo adiskidea *on dan adiña* edo gehiago kargatua eta asitzen zatzaizka berriro edateko bidea ematen (Aguirre Astecasukoa, *Eracusaldia II*, 121).

Asko izan, *aski izan*, *premia izan*, *plazer izan* eta antzekoak ere izan daitezke perpaus txertatuko predikatuak:

- g. Ediren duzu ezta, jan ezazu bada neurritz, *asko duzun bezain bertze*, eta ez gehiago (P. Axular, *Guero*, 90).
- h. Jan ezazu hartarik *aski den bezanbat* (S. Pouvreau, *Philotea*, 483).
- i. Badirudi (...) ez dela oraindik *aski den adina* esan Campionez beraz (K. Mitxelena, "Campionen Gramática eta beste", *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 965).
- j. Bestek *asko den adina* eta gehiago barceiatu dituelakoan edo (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 394).

Hemen argi dago *zenbat* galdeari erantzuten diola perpausak. Erreferentziatzat *aski dena* hartzen da. (i) adibidean esan nahi da Campionez ez dela aski hitz egin. Hemen ere, goian bezala, *aski den adina* = *aski*. Beraz, gauza bera esateko bi modu, bata bestea baino enfatikoagoa, agian.

- k. *Premia duten beste artu* bear dute (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 19).

Hots: *hartzeko premia duten beste hartu behar dute* edo, besterik gabe, $[[(\text{x-ren}) \text{ premia dute} + \text{-en}] \text{ beste hartu behar dute}]^5$.

⁵ Honako honetan, berriz, *nahi beste* barik *nahiko beste* daukagu:

• *Artu*, *artu*, *naiko beste* (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 59)

Azken hau *hartu nahi beste*, nahiz *hartu nahi duzun beste* modura ere agertuko da. Ohikoenak, gainera, hauek dira. Baina *nahiko beste* honen azpian *nahiko zenukeen beste* edo horrelako zerhait dago. Alegia, *nahi luke* eta *nahiko luke* pareko diren neurrian, *nahi beste*-ren pareko litzateke *nahiko beste*. Astarloak horrelako adibide batzuk baditu.

- l. Bekhatore guztiei emaiten derauc, mundu hunetan direiño, salbatzeko, eta bekhatuetarik ilkitzeko, *asko duzun bezain bertze* (P. Axular, *Guero*, 101).
- m. Emazü plazer düzüna, *plazer düzün bezanbat*, eta plazer düzünian (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia III* 15, 2).
- n. Jainkoa maithatzea, damnatuek *higuin duten bezenbat* (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 276).

d. {-TZEKO, -RENTZAKO} + konparazio morfema

Hauetan perpaus txerratuko adizkia normalean isilpean geratzen da. "Azaleratu" nahi bagenu, -TZEKO behar den edo horren antzeko zerbait jarri beharko genuke. (Goiko 3.2.2.2.b-ko adibideak ere halakoak dira). Adibiderik gehienak behintzat era horretara ulertzen ditugu.

- (175) a. Bazebillen oraiñdik eskean kaleetan barruna itxasoz joateko *bizkotxoarentzako aña* bildu arte behintzat (J. I. Arana, *San Ignacioren bicitza*, 32).
- b. *Tamal guztijak kentzeko aña* (K. Enbeita, *Bertsoak*, 191).
- c. *Zazpi zaldi hiltzeko aña anizete* edan du (G. Aresti, *Ipuinak*, 81).
- d. Illabete bage, biak ezkondu ziraden ... / *dantza-soka ateratzeko aña aur* izan zuten (Orixe, *Euskaldunak*, 54).
- e. Ezin eben *umientzako beste* irabazi (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 211).
- f. *Zorra zuritzeko beste* bada (Orixe, *Tornes-ko itsu mutilla*, 98).
- g. Komunzki *ioaiteko bezanbat* denbora, behar ohi da, bihurtzeko ere (P. Axular, *Guero*, 55).
- h. Berak biltzen dute *berentzako ainbat* (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 348).
- i. Jaunak emango digu / *bizitzeko diña* (P. M. Urruzuno, *Euskal Erritik zerura*, 113).
- j. Eta arek gibelaldetik egin zion *erasoari eusteko beste* ez izan da, sasiarteaz txinbulika erori zan Zito (T. Agirre, *Uztaro*, 103).

Beti bezala, adibide hauetan, batzuetan perpaus konparatiboa izen sintagma baten osagai da, beste batzuetan adizlaguna osatzen dute. Beste batzuk, berriz, predikatu dira: (f) eta (j), adibidez.

Bestalde, esamolde honen ordaintzat eman litezke, euskalkien arabera, *-TZEKO lain* eta *-TZEKO doia* (ik. 3.2.2.1.j):

f'. Zorra zuritzeko lain bada.

i'. Jaunak emango digu bizitzeko doia.

Esana dugu, bestalde, zenbatasunezko perpaus konparatiboa ageri den izen sintagmak mugagabea behar duela izan (ik. 3.1.6.3). Hori erakutsi digute orain arte aurkeztu ditugun adibideek. Perpausa ezezka emana denean delako sintagma horrek mugagabea jarraitzen du. Normalean ez da partitiboa erabiltzen, horren beharrik ez baita. Hala ere, batzuetan partitiboa ere aurkituko dugu horrelakoetan:

k. Eztakartso errotea ibiltzeko adiña urik (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 153).

Honen ordeztu, ohikoagoa da partitiborik gabea:

k'. Ez dakarkio errota ibiltzeko adina ur.

Eta honen arrazoia argia da: **zenbat urik* ez dugu esaten, *zenbat ur* baizik. Arrazoi honexegatik da badaezpada (k) perpausa.

e. Izen sintagma ergatiboa + konparazio morfema

- (176) a. Eta beste guziak *persona bakar ark adina* rezebitzen debe, ez gutxiago eta ez geiago (J. Ochoa de Arin, *Doctrina Christianaren explicacioa*, 48)
- b. *Nik aña* atzamar dozuez eskuetan (Kirikiño, *Abarrak II*, 170).
- c. *Semiak adiña* kulpa / hadu gurasuak (*Azpeitiko bertsoak*, 84).
- d. *Abarku zar batek aña* ez diat balio (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 43).
- e. Ezta *ark adinbat* grazia errezebitu duenik (J. I. Guerrico, *Sayaquera I*, 461).
- f. Mutil jator askoa, *zezenak ainbat indar* zuana (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 103).
- g. Ez da *ogi onek diña* indar dakarren janaririk (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 271).
- h. *Demoniñuak ainbeste* arte / henbra gaiztuak ditu (Txirrita, *Bertsoak I*, 208).

- i. Zuk *bezanbat* dignitate mundu orok eztuke (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 107).
- j. Mundu orok eztu egin zuk *bezanbat* hargatik (Ib., 107).
- k. Ezta izurrik eta ez pozoinik *magitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte* egi-ten duenik (P. Axular, *Guero*, 41).
- l. Kantatuko bazendu *Birigarro batek beste* (V. Moguel, *Ipui onac*, 16).
- m. Zure begijak argi egingo dabee *izar eder bik beste* (J. A. Uriarte, *Marijuren illa*, 61).
- n. Ezta berthüderik *ausartziak bezainbeste* gizonari ohore egiten dereioanik (J. Eguiateguy, *Lehen liburria*, 255).
- o. *Nik bezain-beste* eztu horrek (R. M. Azkue, *Morfología Vasca*, 330).

f. Izen sintagma absolutiboa + konparazio morfema⁶

Kokagune desberdinetan agertuko zaizkigu esamolde hauek:

• Adizlagun gisa

Egitura osoa zenbatzaile sintagma bat da. Zenbatzaile sintagma hau, gainera, adizlaguna izan daiteke, honako honetan bezala:

(177) a. aren gaba, *egun bat adiña*, argituko da (M. Larramendi, *San Agustin*, 8).

Alegia, zenbat argituko da gaua? Egun bat argitzen den adiña, egun bat adiña.

Ondoko hauetan ere gauza bera:

- b. -Gustatzen al zaizkizu ango neskatxak? -Ez zeu *ainbat* (T. Alzaga, *Bernaiño-ren larriyak*, 66).

(= zu gustatzen zatzaizkidan adinbat).

⁶ [Partitiboa + *adiña*] gisakoak ere ageri dira, erabat bazterrekoak izan arren:

(a) Gure itxaserrietan gizonik *aña umant dirala* (D. Agirre, *Kresala*, 32)

(b) Goi urdiñean izarrik *aña / Daude zeruan aingeru, / Zabaletako baserri txoan / Bat edo bat bear dugu* (D. Aguirre, *Garoa*, 76).

(c) Orrek ere esatea dan bezela, irinik *adiña lauso izango du* (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 24).

c. Ez direla gu *bezenbat* gozatzen (J. Etchepare, *Buruchkak*, 94).

Gu bezainbat adberbio sintagma dugu, *ZENBAT* gozatu galderari erantzuten diona.

Ondorengo adibideak ere iruzkinen bat merezi luke. Egitura osoa adberbio sintagma dugu, ardatza *bezenbat* bera dugularik. Heriora zenbat ari zaren hurbiltzen zehazteko hartzen den erreferentzia, egiten dituzun urratsak dira: zenbat urrats egin, hainbat (urrats) hurbiltzen ari zara heriora. Perpaus honetan, behin eta berriro aipatu dugun perpausen arteko paralelotasunak huts egiten digu:

d. Bidean zoazenean, jakin zazu, *egiten duzun hurrats bezenbat*, Heriora hurbiltzen hari zarela (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 140).

• *Izen sintagmaren osagai gisa: izen sintagma + ADINA + izen sintagma*

Baina delako zenbatzaile sintagma hori izen sintagma baten osagai ere izan daiteke:

(178) a. Egin ditu *konfesio ta komunio gaizto adiña sakrilegio* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 116).

Zenbat sakrilegio egin ditu? *Konfesio eta komunio gaizto odina sakrilegio.*

Izen sintagma hori perpausaren *subjektua* (b-d adibideak) nahiz *objektua* izan daiteke (e-i):

b. *Zahar bezenbat gazte* / *Badua mundutik* (Bordel, *Bordel bertsularia*, 108).

c. *Gizon bezenbertze emazteki bazen* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 262).

d. *Bada gizon bezainbat sinheste* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 114).

e. *Idca ortatik izango dezu / alde aña kontrariyo* (Txirrita, *Bertsoak I*, 265).

f. *Erria izanik ain banatua eta daukana etxagunzaak ainbat montaña* (M. O de Capanaga, *Doctrina christiana*, hitzaurrea).

g. *Lurrak ona izateko bear du buztin ainbat ondar* (A. Iturriaga, *Diálogos*, 61).

h. *Hitz bezenbat huts* eginen badute ere (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia*, *Gizon*, 203).

i. Hortarik ukan dio *on bezenbat kalte* (Astolasterrak, 74).

Perpaus hauek ordena aski zurruna eskatzen dute, ordena finkoa: [izen sintagma absolutiboa + konparazio morfema + izen sintagma absolutiboa]. Horregatik, honako perpaus hau bitxi samarra gertatzen da:

j. *Izpiritu bezenbat* badu *modestia* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 139).

Normalago litzateke beste era honetara:

j'. Badu *izpiritu bezenbat* *modestia*.

Honako hau, berriz, itxura batean besteen antzekoa bada ere, problematikoa da:

k. Franzisko, *mostaza ale bat aña fede* bazendu, ... (C. Beovide, *Asis'eo loria*, 187).

Honek esan nahi duena da "fede piska bat", *mostaza alea* txikia baita. "Mostaza ale bat adinako fede" hobeki esana legoke.

Izen sintagma hori goragoko sintagma baten osagai ere izan daiteke:

l. Aitaren berdin eta *parc*, *Aita bezenbat loria eta ohoreekin* (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 62).

Alegia, *aita honenbeste loriarekin dago*, adibidez, eta semea ere, *aita bezenbat loriarekin dago*.

• *Izen predikatu gisa*

Perpaus konparatiboa izen predikatu lanetan ere jar dezakegu:

(179) a. *I ainbeste* bagaituk (T. Agirre, *Uztaro*, 48).

Azken honetan *I ainbeste* IZAN aditzaren lagun ageri da. Honako honetan bezala:

b. Bataren balioa *bestearena bezenbat* izan oi da (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 56).

c. Galdetu zioen bere umeai *Idia beste* ote zan (V. Moguel, *Ipui onac*, 39).

- d. Enaizelako kantuz zu zeraden beste (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 410).
- e. Gizona dan aldetik, beste edozein aiña bada; euskalduna dan aldetik, edozein euskaldun beste (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 94).
- f. Amar emakume be ez zireala gizon bat beste (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 165).

• *Perpaus osagarria + konparazio morfema*

Gainerako konparazio morfemekin bezala, perpaus osagarriak (-eLA eta -TZEA formakoak, adibidez) ere ager daitezke, perpaus hauek mendeko perpausaren osagai izan daitezkeen neurrian:

(180) a. Errugabe nintzela adina bider esan nien beste abokatu bat nahi nucla.

Horrelakoentzat testuinguru egokia izatea ez da erraz. -TZEA formako osagarriak errazago gertatuko dira:

b. Kantatzea adina gustatzen zaio dantza egitea.

• *BESTE genitibo eta guzti ere ageri da*

Atal honetan aipatu ditugun adibideetan ageri den absolutiboaren ordezkari genitiboa ere aurkitzen da zenbaitetan, nahiz eta ez den hau oso ohiko bidea.

(181) Apainduri apur bategaz, banintzake edozein zaldiren beste (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 20).

g. *Izen sintagma datiboa + konparazio morfema*

(182) a. Eta ero baten esanari aiña kaso egin zioten (C. Beovide, *Asis'co Loria*, 214).

b. Nik oni zuri ainbat eman nahi diot (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarr. berr. condaira*, 423).

c. Etxe onean daukagun guztiak emongo jatzu aukeran, baiña euskaldunari egiten jakonaren ondamuz etzaitte egon, zerren zure anaia dan da zeure buruari beste opa bear deutzazun (D. Aguirre, *Auñemendiko Lorea*, 147).

h. Adizlaguna + konparazio morfema

- (183) a. Eztago labernetan / *len aña kantari* (Jan-Edanaren bertsoak I, 24).
- b. Ez da inon (...) *Beljikan adiña jayera edo debozio* sentitzen (F. Gofii, *Lurdes'ko gertaerak*, 118).
- c. Jeneral Fochek artu zituben / *danak guziyak aurrian, / gaur iru urte ainbat aleman / ez da Frantziako lurrian* (Txirrita, *Bertsoak I*, 105).
- d. Ez zan, *orain adinbat gorroto ta marmar* (Orixe, *Euskaldunak*, 274).
- e. Baldin euskaraz ez baldin baditugu *erdaraz bezenbat liburu eta jakinduria, ez da euskararen errua* (P. F. Irigaray, *Nafarroako Euskal idazlariak*, 155).
- f. Ez ote du apez batek *fedeaz bezenbat arta izan behar, haren zerbitzatzeko kargua duen herriaren hizkuntzaz?* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 239).
- g. Ez dugu behinere irakurtu ez eta nihori aditu Azkainen sekulan izan dela *orai bezenbat arima* (Zerbitzari, *Azkaine*, 29).
- h. Non *etxean beste babes?* (D. Aguirre, *Garaa*, 374).
- i. Jakin izan baneu *gaur beste!* (J. San Martin, *Zirikadak*, 25).
- j. *Baionan bezenbertze* baginen (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 262).
- k. Nahiz ez naizen parapsikologiaz *lehen bezainbeste* arduratzen (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 303).
- l. ta Eliz-jaun ta predikari egiten diranean arkitzen dira *aurtasunean diña euskar ere ez dakitela* (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak II*, 53).

Honako hau berezia da. Konparatzen dena da *zenbateraino urez blai* eta *zenbateraino alkoholez blai*.

- m. Aisa ohartuko ziren *urez bezainbat* alkoholez blai eginik (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 106).

Azken batean, goragoko ((178h) adibidea) *hitz bezainbat huts egin-en* modukoa da.

• -KO + BESTE

Beste-ri gagozkiola, herri hizkeran aski hedatua dago bere ezkerretara darimana denbora edo kantitate aditzondoa denean adberbioari *-ko* morfema erans-tea: *lehengo beste, atzoko beste, etab. lehen beste, atzo beste* aski bada ere.

(184) a. Amak *lengo-beste* ardura artuten ezeutsalako (J. M. Echeita, *Josecho*, 241).

Era berean, ondoko perpausean *betekada on bateraino beste*, edo, agian hobeto, *betekada on baterako beste* aski zen:

b. Trabeneriegandik lortuko eban *betekada on bateraño*ko beste (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 93).

Betekada on baterako beste balitz, [-TZEKO + *beste*]-ren kasua izango litzateke (ik. gorago, 3.2.2.2.d).

i. Osagai bat baino gehiago + konparazio morfema

Maiztasunari begira, konparazio morfemaren ezkerretara doan perpausak, gehienetan, osagai bakarra erakusten du, aditza ere lagun duela, beharbada. Horrek esan nahi du perpaus horretako gaincrako osagaiak, isilpean utzi ditugunak alegia, perpaus nagusiko osagai berberak direla. Horri esker interpreta ditzakegu perpausok. Baina perpaus txertatuaren eta nagusiaren arteko kide-tasuna hainbestekoa ez bada, perpaus txertatuak osagai bat baino gehiago izan ditzake agerian. Osagai horiek kontrastean bezala egon ohi dira. Askotan horrelakock nolabaileko korrelazioa edo erakusten dute. Hona hemen zenbait adibide:

(185) a. *Urteak egun adiña zugatz-inda* (zugatz-kale) izaki (Orixe, *Mireio*, 4).

b. Ardotan *ire idiak uretan aña* edaten dek-eta (A. Labayen, *Euskal eguna*, 101).

c. Leizarragarengandik Duvoisinengana *argi-urratzetik eguerdira adina tarte* badago (Orixe, in *Euskal Etnalea 1927*, 194).

Horrelakoetan argi ikusten da konparazio morfemak ezkerretara daramana egiazki perpausa dela, aditza ezabatua duen perpausa, alegia, zeren *argi-urratzetik eguerdira* bezalako hitz segida ez baita, berez, osagai bat, bi baizik. Esan liteke hemen ere (c) perpausa beste honen laburduratik sortua dela:

c'. Leizarragarengandik Duvoisinengana [argi-urratzetik eguerdira [Ø] dagoen] adina tarte badago.

Honako hauetan ere gauza bera dugu:

- d. Iñork, eri denik, eztu bein-ere osasuna maite izan *guk gere miña, gere zauria, gere legena: guk gere erdibear ori aña* (Lizardi, *Itz lau.*, 28).
- e. *Zuk amodio bezanbat / Dolor* dut nik sentitu (B. Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 80).
- f. Begi-gorri ba dator Aiton Olentzaro; / *urteak egun ainbat begi* ta bat geigo (Orixe, *Euskaldunak*, 139).

Hemen esaten dena da: *urteak* hainbeste egun ditu, beraz, Olentzarok ere beste horrenbeste eta bat gehiago ditu, gainera. Azken honetan ohartu behar dugu perpaus konparatiboan bi osagai ageri direla: *urteak* eta *egun*. Hau beharrezkoa da eman nahi den informazioa galdu nahi ez bada.

- g. Berzek beren marraketzaz, *herrekek botxietan bezaiñbeste* azalia die egiten (J. Eguiateguy, *Lehen liburua*, 232).
- h. *Itsasoan ur xorta, udan haritzetan hosto eta lurrean hare izpi bezanbat* milla million mendez (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia II*, 191).

Hots: *itsasoan zenbat ur xorta, udan haritzetan zenbat hosto eta lurrean zenbat hare izpi, hainbat mila milioi mendez*.

Honako hauei, berriz, beste iruzkinen bat zor zaie:

- i. *Itsasoan ur den bezanbat* nigar egiten banu ere (M. de Chourio, *Imitacionea III*, 52).
- j. *Nik biotzean atsegin ainbat / ur ez dago* itsasoan (Xalbador, *Ezin bertzean*, 62).

Ez batean ez bestean ez dago gehienetan aurkitu ohi dugun paralelotasuna. Hori nahikoa ez dela, (j)ko adibidean bi aditz, desberdinak, izango genituzke: *dut*, mendeko perpauscan eta *dago* perpaus nagusian. Hala ere, paralelotasunik eza gorabehera, mendeko perpausko aditza isilpean dago. Horra perpaus horren bitxitasunaren arrazoiak. Kontua da honelako korrelazio bat dugula: *nik bihotzean zenbat atsegin (dudan), hainbat ur ez dago itsasoan*. (i)n horren antzeko zerbait geuke: *itsasoan zenbat ur dagoen, hainbat nigar egin*. Baina hemen aditza agerian dago.

j. Baldintza perpausa + konparazio morfema

Baldintzazko perpausa ere izan daiteke perpaus konparatiboaren osagai, gainerako sintagmak bezala. Edozein adizlagun aurki dezakegun bezala, baldintza perpausa ere, perpaus elkartu bateko osagai den aldetik, ager daiteke konparazio morfemaren ezkerretara:

- (186) a. ez niruen irur-cun [dukat] baizik behar eta irur-eunak ere *irur edo amabost mila eman bazenizkit adina* estimatzen ditut (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak II*, 271).

Alegia, ... *hamabost mila eman bazenizkit estimatuko nituzkeen adina estimatzen ditut* esango bagenu bezala,

- b. Aldez edo moldez bethiere zerbait baliatuko zaizkitzu. Ez ordea, *kofesaturik egiten baitzinitu bezanbat* (P. Axular, Guero, 544).
- c. Ezen dakigularik gauza guzietan dela [Jainkoa], badarik ez akordaturaz ikusten gaituela, *ezpageneaki bezanbat* da (S. Pouvreau, *Philotea*, 97).
- d. Eta horien guzien buruan, *batere pairatu ezpalute bezanbat*, horien guzien buruan leze beltz hetan sartzen balire bezanbat ukhanen dute pairatzeko (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 166).
- e. Lotsa lotsa egin ziran galdera au egitean *pekatu aundi batean atxeman baliuzte bezanbat* (Y. Etxaide, *Joanak-joun*, 217).
- f. *Garaiz etorri balitz beste* eskubide duela uste du.

k. Zenbatzailea + konparazio morfema

- (187) -Joan dituk amar bat gutxienez. -Jesus Jaungoiko andia! *Amar aña?* (D. Aguirre, *Garoa*, 157).

Hamar adina sintagma horrek, argi dago, **ZENBAT** galderari erantzuten diola, *hamar* zenbatzailearekin konparazioa eginez. Jakina, *hamar adina*, *hamar* da, ez gehiago ez gutxiago. Enfasia emateko bide bat dela ematen du.

l. Zenbatasunezko morfemak maila konparazioetan

Zenbatasunezko konparazio morfemak erabiltzen ditugu zenbatasun kon-

parazioa bideratzeko. Baina adjektiboekin ari garenean zenbatasuna baino areago maila izan ohi da konparatzen duguna. Zenbait kasutan, hala ere, adjektiboekin ere aurkituko ditugu *adina*, *adinbat*, eta antzeko zenbatasunetako konparazio morfemak.

• *Izen predikatuazko egituretan*

Adina eta honen kidekoak eskuinean izenik gabe erabiltzen ditugu izen predikatu gisa. Aditz nagusia *izan*, *egin* edo horrelakoren bat delarik gertatzen da hori.

(188) Indietan det osaba. Joan zitzatan anziña, ta andik ona egiña nago *Jauntxo guziak adiña* (M. Larramendi, *Corografía*, 152).

Bistan da hemen ez dela kantitatea aditzera ematen. Goiko esaldi horrek ez dio erantzuten “Zenbat nago egiña?” galderari, beste honen antzeko bati baizik: “Zer nago egiña?” edo “Nolakoa nago egiña?”.

Gauza bera dugu beste honako hauetan ere:

- b. Euskarazko hitzak ongi ezpadirudi edo oitua ezpada, hura utzi, haren ordean aru diteke, *ark esan nai duana adierazteko adiña* dan beste bat (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 3).
- c. Benjamin *amaordekoaren besoa ibiltzeko adiña* egin zanean, Mamberra joan zen (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 47).
- d. Azpian dijoana / mandua da, baña, / gañekua ere bada / *azpikua aña* (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 169).
- e. Ikasleak aski du *bere maisua ainbat* izatea, ta morroiak bere nausia ainbat izatea (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 199).
- f. Mundu guziya bildurtzen zuten / Kantabriako mutillak, / *oraingo Mauser ainbat* baziran / orduko lizar-makillak (Txirrita, *Bertsoak II*, 54).
- g. Etxaldeko naiz maiztar, / *ainbat* bagaituk (Orixe, *Euskaldunak*, 38).
- h. Zergatik, othoi, ezkurra / *Nere erhi xingarra* / *Bezanbat* ez dena / Harako han dago dilindan emana? (L. Goyhetche, *Fableac*, 13).
- i. Nahi nikan ikusi, *hire aita bezanbat* bahintzanez (J. Barbier, *Supazter chokoran*, 180).

Izen predikatuzko esamolde hauek zuzenak dira. Gainera, *bezain* edo *hain* ezin erabil daitezke testuinguru honetan:

i'. *Nahi nian ikusi hire aita *bezain* bahintzanez.

i''. *Nahi nian ikusi *hain* bahintzanez.

Baina *adinakoa* edo *bestekoa* ere, adibidez, beti dugu eskura horrelakoen ordain gisa:

i'''. Nahi nian ikusi hire aita *adinakoa* bahintzanez.⁷

• *Neurri adjektiboekin*

Perpaus konparatiboa adjektibo sintagma baten osagai denean ere zilegi dira horrelakoak, zenbait neurri-adjektiborekin bereziki (*luze, zabal, sakon...*):

(189) a. *Maia beste luze* diran aulki bi alboetan (D. Aguirre, *Kresala*, 19).

b. Geratzen da *atea dan ainbat zabal* (G. Arrue, *Mayetececo illa*, 77).

c. *Haren probidentziak nahi izanen duen bezanbat* denbora *luzean* (J. Harneder, *Gudu izpirituala*, 41).

d. Bularrean zeraman (...) *luze ainbat zabal* zan kana laurdeneko baldi eder urrez josia (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 84).

e. Oiana, *dan aña zabal* / gainberoak erdi zapal (Orixe, *Olerkiak*, 553).

f. -Kale luzea da? -Luzea ere ... ez ... edo bai; ara Jauna, *luze adiña labur* (P. M. Urruzuno, *Euskal Erritik zerura*, 64).

⁷ Nolakotasunaren eta zenbatasunaren muga sarritan ez da erraz jakiten non den. Hona hemen *OEH*-a biltzen diren bi adibide hauek lehen begiratuan behintzat bitxiak diruditenak.

(a) Zere denboran kostako zaizu ni aña gizon izaten (Txirrita, *Bertsokak* 1, 259).

Perpaus hau zenbait adjektibok duten zenbatzaileak onartzeko aukerarekin erlazionatu beharko litzateke. *Zenbat luze* esaten da, *zenbat sakon* eta abar. Modu berean, *zenbat gizon* izango genuke, gizon-tasuna neurgarritzat hartuz, *zenbateraino zara gizon* esango bagenu bezala.

Añiburroren ondoko erabilera askoz zalantzagarriagoa da. *Adina* konparazio perpausik gabe erabiltzen du, zenbatzaile soil gisa, *hainbat* edo *hainbeste*-ren ordeztu:

(b) zelan da, idororik gure arimea guztiz gaisoturik, adiña denporan Komuniño Santura ez eldutea? (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 74)

Hainbeste denboran, alegia.

(f) perpaus honek aski bitxia dirudi, egitasunari so eginez gero behintzat. *Luzea baino gehiago laburra da* perpausaren pareko litzateke. Badirudi hemen proposizioak konparatzen direla. Baina berez anbigua da: a) alde batetik, *luze bezain labur* dela esan nahiko luke. Eta b) bi baieztapenen egia konparatzen da, honako hau esango bagenu bezala: *luze* dela esaten badut egia da eta *labur* dela esaten badut ere bai. Bien egitasuna parekoa dela alegia. Nolanahi ere, esaldi bitxia.

• *Gainerako adjektiboekin*

Neurri adjektiboa ez, adjektibo arrunt bat dugunean, zenbaitetan ikus dezakegu zenbatasunezko konparazio morfema, nahiz eta aski badaezpadakoak gertatzen diren horrelakoak:

- (190) a. Imini neban argitxu au ta ... *len beste ilun* (Kirikiño, *Abarrak I*, 71).
- b. Ezin leike asmatu, [...] jakitun hitzen ordezeko berba berririk *bihar litzaken beste ariñ* (Oskillaso, *Kurloiak*, 119).
- c. Behin bazen aphez bat, *ona bezanbat bitxia* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 133).
- d. *Logikazale bezainbat musikazalea* baitzen (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 168).
- e. San Franzes ezin erran *bezanbat pobre zen* (S. Pouvreau, *Philotea*, 147).
- f. *Nahi den bezanbat flako* izan zaitezzen, *nahi den bezain ikharagarriak* iduri dakizkitzun zure etsaiak (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 101).
- g. Nere gizak erron zautan artoltze bat, / *Artoltze bat handi bertze laur bezanbat* (L. Goyhetché, *Fableac*, 149).
- h. Jinkoak zereioan eritarzün harrigarria igorri non hantik haiñ itsusi lehen *eder zen bezainbeste* beitzen gerthü (J. Eguiateguy, *Lehen liburria*, 172).

(h) adibidean, hitz ordena bihurriaz aparte, bada harrigarri den beste zer-bait ere, *hain* mailakatzailaren agerpena, *hain* zuzen: *Hain itsusi lehen eder zen bezainbeste*. Kantitateaz baino gehiago hemen kualitateaz ari gara: bi adjektiboren maila konparatzen da. Modu egokiagoz esanik, *lehen eder zen bezain itsusi* izango litzateke, behar bada. Badirudi *hain ... bezainbeste* esamolde hori erdal ereduaren araberakoa dela; *hain zuzen* (3.4) atalean jasotzen den *hain ... nola ... BAIT-* esamoldearen parekoa litzateke.

Luze eta *zabal* adjektiboekin horrelakoak normalak badira ere, (a) eta (b) bitarteko adibideen antzekoetan ez dirudi horretarako biderik dagoenik. Horietako batzuk ongi daude, hala ere, adjektiboaren maila barik, kantitate aditzondo gisa interpretatzen badira. Goiko adibideetan argiena (g)koa izan liteke. Hemen handitasunaren neurria ematen zaigu nolabait.

Euskara batuaren aldetik ez da, hala ere, gomendagarria, adjektibo gehienekin, maila konparazioan *beste*, *adina* eta antzekoak erabiltzea. Horretarako dugu *bezain*.

m. EZ + konparazio morfema

Ondoren jasotzen diren adibideak ez dira oso arruntak. Nolabait, kantitate berdintasuna ukatuz egiten direla esango genuke. Hots: desberdintasuna adierazteko zeharbide bat besterik ez lirateke izango horrelakoak:

- (191) a. Maite ditut gailurrak / argiak ez beste (Lizardi, *Biotz-begietan*, 16).
b. Ta al-bezat. Jaun, otoi, besarka negarrez, / beste inon ez ainbat negarra dan emez! (Ib., 82).
c. Ill da gero're maite zaitugu / munduan inor ez aña (Txirrita, *Bertsok II*, 98).
d. Jangoikoak emanik izandu zuen errege Salomonek *bestek ez diña* jakinuz-ondasun ta atseginz (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 62).

Bezala-rekin egiten dira, batez ere, horrelakoak (ik. 3.2.3.4.1):

- a'. Maite ditut gailurrak, argiak ez bezala.

Alegia, argiak maite dituen baino gehiago maite ditut gailurrak.

- c'. Hil eta gero ere maite zaitugu munduan inor ez bezala.

n. Partitiboa + konparazio morfema (ik. 3. oharra)

- (192) a. Zuk dezu aterik ainbat maratilla (P. M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 53).
b. Ateratzean, *Abe-Mariarik ainbat* ardit ematen zioten (P. M. Urruzuno, *Euskal Erritik zerura*, 97).

- c. Orain aitona alegre dabill / ederki ardoz asea, / zazpi illabeteko iristen zaio / egunik ainbat pezeta (Txirrita, *Bertsok I*, 219).

3.2.2.3. ADINAKO, ADINBATEKO, BESTEKO, BEZAINBATEKO eta antzekoak

Orain arte ahotan erabili ditugun adberbio eta zenbatzaile hauek *-KO* atzizkia har dezakete. Horrela, *adina*, *adinbat*, *beste*, *bezainbat* eta horrelakoen parean, *adinako*, *adinbateko*, *besteko* eta *bezainbateko* ere baditugu. Hauek izenaren ezkerretara ager dakizkiguke, edo izen predikatu gisa ere bai, *izan* aditz loturazkoa bitarteko dela. Sintagma hauei legokiekeen galdera *nolako* edo *zenbateko* izango litzateke. Sarritan, hala ere, kantitateaz baino areago mailaz mintzo garela esan daiteke. Adibidez, ez da gauza bera [... *adina bide*] eta [... *adinako bidea*]. Batean *zenbat bide* da galdera. Kantitateaz ari gara, hortaz. Bestean, berriz, *nolako bidea* izango litzateke galdera.

Sarritan, izen predikatu denean batez ere, *-A* mugatzaile eta guzti agertuko da:

- (193) a. Aita bezain andia ta ederra da [semea] ta aita adiñakoa (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ herri-ecarlea*, 127).
- b. Mundua arritzeko adiñako lanak arteraño egin izan zituen (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zorr. Berr. condaira*, 215).
- c. Egin nai lukeenak gustora pausua. / zapata bearko du oña aiñakua (F. Arrese Bcitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 407).
- d. Egunero izen gozo ori nere etxean, txala adinako izki andietan, irakurtzean, au poza! (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 6).
- e. Baldintzak (...) bi eratakoak dira: beharrezkoak eta nahikoak edo, giputz zaharrek zioenez, aski diren adinakoak (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 218).
- f. Bakotzak ardi bana ematearekin ifinten diote bertatik len zehan ainbateko artalde (J. I. Izueta, *Guipuzcoaren condaira*, 226).
- g. Hizkuntzaren arazo larria (...) ez da oraino behar hainbateko egokitasunez azaldu ere egin (K. Mitxelena, "Euskararen bide luze bezain malkarrak", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 1023).
- h. Paparra zabalik, galtza motzak alondeiko atia ainbateko mantalarekiñ eta oñutsik geienian (P. M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 22).

- i. Olaxe egin zuten ta arrainketa aundia bildu zuten, *sareak urratzeko ainhatekoa* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 87).
- j. Orhoitzen da haren ganik ukhan dituen *ezin erran bezenbateko* ongiez (M. Duhalde, *Meditacioneac*, 136).
- k. *Aita bezenbateko* Jainko zana, egin zan aragi (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecurlea*, 61).
- l. *Jainkoa bezainbatekoak* izango zeratela (R. Olabide, *Itun zar eta berria*, Gen 3, 5).
- m. *Amar pekatu mortal besteko* pekatu eskerga bat (*Catecismo de Elgoibar*, 158).
- n. Igarotzen dituzte urte asko *ezin esan besteko* pensamentu aragizkoai leku ematen diela (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 163).
- o. Dirua kendu ezkeru *ura besteko* neskatxak badira (D. Aguirre, *Garoa*, 45).
- p. bai-dirala an *Euzkadi guztija besteko* zabalak bedar gozatsuz estaldubak (Kirikiño, *Abarrak I*, 52).

Azken adibide honetan, *zabalak* izena da, *zelaiak* edo *lautadak* esango bagenu bezala. Hortaz, konparatiboak *NOLAKO zabalak* (= nolako lautadak) galderari erantzungo lioke⁸.

• *Genitiboarekin*

Zenbatzailearen ezkerretara doan sintagma absolutiboan ez ezik genitiboan ere ager daiteke:

(194) a. Ama errukitsu maitea: *zure naigabearen añako* biotz damua nai nuke (*Argi Done Laburra*, 98).

⁸ *Besteko*-ren ondoren izcnak joan behar du edo, izen predikatu dencan, mugatzailea agertuko da:

(1) a. Aitonak gordetzen zuen besteko dirutza ez nuen sekula ikusi.

b. Hori zu bestekoa bada bertsotan.

Baina ondoko adibide hauetan *besteko*-k *bezain*-en lekua hartzen du:

(2) Naiz da ez izan neuk nai besteko andia (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 278).

(3) Ez eban biar zan besteko gogor joten mailuakaz.

Hauetan maila konparazioa dago eta, horrenbestez, hobe *bezain* konparazio morfemaz baliatzea eta ez, *besteko-z*. Nolanahi ere, hauek zenbaiten hizkera zaindu gabean entzun daitezkeen *holako polita*, *nolako aberatsa* eta antzekoen parekoak dira. Esan beharrik ez da esamolde hauen ordain zuzenagoak direla *hain polita*, *zeinen polita*, etab.

Hona irratian entzundako beste hau ere:

(4) *Horrelako* pozik jarriko da zure hautxoa XX-ra doancan (iragarki bateko testua).

- b. *Osterantzeko gixonen bestekua zara zu zeu be* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 15).

Beste honako hauetan, berriz, genitiboa ageri da baina genitibo hori ezin da izan absolutiboaren ordaina. Izatekotan ere, ergatiboaren ordaina izango litzaiteke:

- c. *Saguzaharren besteko indarra* (Oskillaso, *Kurloiak*, 65).
(= Saguzaharrek besteko indarra)
- d. *Magdalenaren besteko damua* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 144).
(= Magdaleniak besteko damua)

Edo beste honako taxu hau ere eman lekieke perpaus horiei, agian zuzenago:

- a'. *Saguzaharrena besteko indarra.*
- b'. *Magdaleniarrena besteko damua.*

3.2.3. MODUA

3.2.3.1. Modu konparazioa zer den

Konparazioa zenbatusunari buruz, mailari buruz eta moduari buruz egin daitekeela esana dugu. Modu aditzondoei, beste aditzondo askori bezalaxe maila ezar dakieke:

(195) Mikel BEZAIN *pozik* joaten da Jon eskolara

diodanean, *pozik* aditzondoaren maila da konparatzen duguna. Gauza bera izan dezakegu hainbat aditzondorekin: *urruti*, *nazkaturik*, *berandu*, etab.

Baina horrelako aditzondo zehatzak erabili beharrean, *deiktikoak* erabil ditzakegu: *honela*, *horrela*, *hala*. Deiktikoak, dakigun bezala, *anaforiko* gisa ere erabil daitezke. Ondoko perpaus honetan, adibidez, *hala* aditzondoak modu balioa du, baina modu horren xehetasunak jakin nahi baditugu, *aurrekari* bat behar dugu, *hala* horren edukia zein den finkatuko digun aurrekari bat. Horregatik diogu *hala* hori anaforikoa dela kasu honetan:

(196) Miren *oinutsik* ibiltzen da etxean. Zu ere *hala* ibil zaitezke.

Hala (anaforikoa) eta *oinutsik* (aurrekaria) nolabait kide dira. *Hala* hori *oinutsik*-en arabera interpretatzen dugu. *Oinutsik* izan beharrean, *buruz behe-
ra* bagenu, orduan *hala*-k buruz beheara esan nahiko luke.

(196)ko adibideko lehen perpausean, ongi zehaztutako adiera duen aditzondo bat erabili dugu: *oinutsik*. Bigarren perpausean, ostera, modua adierazten duen aditzondo anaforiko bat dugu, *hala*, baina horren adiera ezin zehatz daiteke testuingurura jo gabe, aurreko perpausera, hain zuzen.

Bada, ordea, beste modu-aditzondo bat *-bezala-* bi perpaus erlazioan jarzkeko erabiltzen duguna, baina modu horren zehaztasunak ematera behartzen ez gaituena:

(197) Miren etxean ibiltzen den BEZALA (ibil zaitezke zu ere.

Hemen (196)ko perpaus parean erreferentzia egiten zaion errealitate bera-ri egin dakioko erreferentzia. Baina (196)an modu-aditzondoa *oinutsik* den bitartean, (197)an Miren zehazki nola ibiltzen den ez zaigu esaten ez eta ere, ondorioz, zu nola ibil zaitezkeen. Baina argi dago bi ibiltzeko moduak konparatzen direla hor.

Hortaz, *bezala*-ren eta honen ordain den *legez*-en bidez modua konparatzen dugula esango dugu, nahiz eta modu hori ez dagoen zehaztua. Bi moduak berdinak direla esaten da *modu* hori zehaztu gabe.

3.2.3.2. *Modu konparaziorako morfemak*

a. *BEZALA eta LEGEZ*

Ezarri dugun konparazioa berdintasunezkoa bada, hots gizonaren eta gure bizimodua berdinak direla adierazi nahi bada, erabiliko dugun aditzondoa *bezala* izango da. Honen baliokidea dugu, batez ere mendebaldean, *legez* aditzondoa, *lez* gisa ahoskatzen dena.

Moduan sintagma ere, funtsean, baliokidea dugu. Baina hau konparazio morfematzat hartu beharrik ez da.

(198) Gu gizon hori (bizi den) BEZALA / LEGEZ / MODUAN bizi gara.

(198)ko adibidea kontuan harturik, hiru elementu hauek baliokide direla pentsa liteke, baina, egiazki, ez dira, sintaxiaren aldetik, erabat pareko.

Bezala-k perpaus bat eskatzen du ezkerretara, osoa edo erabat murriztua. Baina perpaus horretatik agerian segitu behar duen elementuak –konparazioaren erreferentzia puntutzat hartu dugunak, alegia– bere osotasunean segitu behar du, dagokion kasu marka eta guzti:

- (199) a. *Txakurra bezala sartu da sukaldera* (ABS).
b. *Txakurrari bezala ematen zien jaten morroiei* (DAT).
c. *Txakurrekin bezala izutzen da katuarekin* (KOMIT).
etab.

Legez-ekin ere, usadio zaharrearantz behintzat, gauza bera gertatzen da:

- (200) a. *Txakurra legez sartu da sukaldera* (ABS).
b. *Txakurrari legez ematen zien jaten morroiei* (DAT).
c. *Txakurrekin legez izutzen da katuarekin* (KOMIT).
d. *Jan dogu errege lez, berak jan badau guk lez* (ERG).
e. *Ganadu aldriak legez, uneten dabee pekatarijeen umiak soinubagaz* (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 76) (ERG).

Horrelakoak *moduan*-ekin ere egiten ditu zenbait euskaldunek. Mendebaldekoek, bereziki:

- (201) a. *Txakurrari moduan ematen zien jaten*.
b. *Txakurrak bagina moduan tratatu gintuen*.
etab.

Baina *moduan*-en erabilera honek ez du literatur tradizioirik. *Moduan*, berez *modu* izenaren gainean eraikia baita, ezkerreko osagaia genitiboan duela agertzen da:

- c. *Garbia dala au oituretan / bertako erreken moduan* (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 423).

- d. Bere egin nai guziya da, lukainka moduko oiek argitara ateratzia, ia pasalzen diran *peseta faltsuen moduan* eta kontatzia (V. Iraola, *Oroitzak*, 110).

Genitibo honek azpian absolutiboa edo ergatiboa izan dezake ez besterik. Denborazko aditzondo bat baldin badugu, berriz, *-KO* atzizkiak homiturik agertuko zaigu:

- e. Nik lanian jardun det *betiko moduan* (Txirrita, *Bertsok I*, 159).

Zenbait euskaldunek, beharbada analogiaz, *legez-i* ere aplikatzen diote arau hori: *nire legez*, *ni legez-en* ondoan, *atzoko legez*, *atzo legez-en* ondoan, etab. Baina jokabide honek berria ematen du, horrelakorik ez baita literaturan ageri, dirudienez.

Beraz, *bezala* eta *legez* parekotzat eman ditzakegu, baina *moduan* ez dugu egiazki konparazio morfematzat hartu beharrik. *Modu* izenaren gainean erai-*kitako* adizlaguna litzateke. Zenbaitetan behintzat *modu* izen horrek adjektibo bat eraman dezake:

- e'. Lanean jardun dut *betiko modu* aspergarrian.

Horregatik, *moduan* sintagmak ezkerretara eraman dezakeen perpausa erlatibo arrunt bat besterik ez litzateke:

- f. oneck ezpageunkazke *diñodan moduan* ez litzate guretzako gauza onik munduan (J. C. de la Fuente, *Durangoko plateroak*, 117).
- g. Begira, erdira *esaten dan moduan* ipiñi ote dituzun beiak? (Aguirre Asteasu-koa, *Eracusaldia II*, 191).

Azken hauek *bezala*-rekin edo *legez*-ekin ere eman daitezke. Horrek ez du esan nahi, hala ere, kategoria bereko elementuen aurrean gaudenik. Ondoko adibide honek ere ez digu baimenik ematen *moduan* konparazio morfematzat hartzeko:

- h. amasei bertso nere graziya jakin dezaten munduan / eskola gabe jarriyak dira *entenditzeko moduan* (Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*, 366).

Hitz gutxitan esateko, aipatu ditugun hiru elementuak zenbaitetan testuin-guru berean erabil daitezke, baina ez beti. Argi dago *moduan* hurbilago dago-

ela izen arrunt batetik *legez* edo *bezala* baino. Horregatik, ezin ditugu zaku berean sartu⁹.

b. *BEZALAXE* eta *LEGETXE*

Funtsezko konparazio morfemak *bezala* eta *legez* badira ere *-bezela*, *bekala*, *lez* eta gainerako aldagaiekin, bestalde-, hauek badituzte forma indartuak ere. *-(T)XE* atzikiaren bidez indartu daiteke aditzondoa. Horrela indarturik, aditzondoak esan nahi duena da, nolabait, "horrela hain zuzen, eta ez bestela":

- (202) a. Beste erritar guztiak, *erriko jaietan bezelaxe* apain, Tolosaldera begira zeuden (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 62).
- b. Etorri naiz joan nintzan *bezalaxe* (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 110).
- c. Prailleok zeuk *legetxe* maitatuten dogu (B. Gandiaga, *Elorri*, 77).
- d. Kukubak alde gustijetarik, *alkarren leian letxerik* (= *legetxerik*) (Kirikiño, *Abarrak I*, 66).

Era honetara indarturiko aditzondoak eta erakusleak galdegaiaren lekuan agertu ohi dira bereziki. Hala ere, galdegai ez ezik mintzagai ere izan daitezke horrelakoak:

- (203) a. *ezer igaro ez balitz bezelaxe*, berriro asten da (*Argi Done Laburra*, 32).
- b. *Zure borondatea aingeruetan egitten dan bezalaxe*, egin bedi lurtean nigan ere (D. Inza, *Kristau ikashidearen azalpena*, 141).
- c. Euskeraz, *edozein erderaz bezelaxe*, iraindu ditukela Jainkoa (Lizardi, *Itz lauz*, 51).
- d. Zelan guraso onak daukazan / beti umeak goguan / arek zerutik zainduten ditu / *udan legetxe* neguan (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 466).

⁹ Bestalde, bizkaiera zaharrean bazen beste modu konparazio morfema bat, *laso*:

- a. Olaso, gitxi batzuk i laso (*Refranes y Sentencias*, 88).
Gaurko zenbait idazlek ere badarabil.
- b. Estaldurik *dagon* txingarra laso: ganeko autsari bero iraun-azo (*Otxolua, Bertolda eta Bertoldin*, 68).
Hala ere, gaur ez da erabiltzen, honen eratorria den *lasoko*, dirudienez, Mungia aldean ezaguna bada ere (ik. R.M. Azkue, *Morfologia vasca*, 180).

c. *BEZAL-BEZALA eta BEZALATSU*

Hauek, bistan da, *bezala*-ren aldaerak ditugu. *Bezal-bezala* intentsiboa, indartua dela esan daiteke, *handi-handia*, *polit-polita*, *ondo-ondoan*, etab. esaten duguncan bezala. *Bezalatsu*, berriz, kontrakoa izango genuke: *bezal-bezala* konparatzen diren moduen antzekotasuna erabatekoa dela adierazteko erabiltzen dugun bitartean, *bezalatsu*, antzekotasun hori gutxi gorabeherakoa dela adierazteko erabiltzen dugu.

(204) a. Eta hortakotz iduritzen zait frantsesik eztautenak *bezalatsu* mintzo naizela (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 5).

b. Behatzen diote tupinari eta ikusten dute, hek utzi *bezal-bezala* dela tupina (J. Barbier, *Légendes*, 132).

3.2.3.3. *Egitura*

Egiturari dagokionez, gainerako perpaus konparatiboena bera izango dugu, funtsean. *Bezala* izango da sintagmaren ardatza. Ezkerretara eramango du perpaus txertatua, osorik edo murriztua. *Baino*-k edo *bezain*-ek gradu-sintagma osatzen duten bezala, *bezala*-k adverbio sintagma bat osatuko du. Beraz, ondoko perpaus hauetan guztietan azpimarratutako atalak zeregin bera betetzen du: denetan moduzko adverbio sintagmak ditugu:

(205) a. Andereño horrek *oso txukun* hitzegiten du beti.

b. *Batere lotsarik gabe* agertzen da hori leku guztietan.

c. *Horrela* bizi bagina beti, ongi ginateke.

d. Andereño horrek *hizlari handi batek bezala / legez* hitz egiten du beti.

e. *Atariko txakurra agertu ohi den bezala / legez* agertzen da hori beti.

f. *Jainkoak agintzen duen bezala / legez* bizi bagina, ongi ginateke.

Perpaus horietan guztietan NOLA galderari erantzuten dion osagaia dugu. Osagai hori adverbio sintagma bat da, *modua* adierazten duena. Baina (d, e eta f)ko adibideetan, (a, b eta c)koetan ez bezala, konparazio hat egiten dugu. (e)ko perpausetan, *bezala*-ren ezkerretara perpaus txertatu bat dugu. Perpaus erlatiboen antzeko egitura baten aurrean gaudela esan daiteke: perpaus txerta-

tu horretan, hutsune bat izango dugu nahitaez, nolabait sintagmaren ardatz den *bezala*-rekin erlazionatua:

(206) $_{\text{AdbS}} \left[\text{p[atariko txakurra } [\emptyset]_i \text{ agertu ohi da -eN]} \begin{array}{l} \text{BEZALA}_i \\ \text{LEGEZ}_i \end{array} \right] \text{ agertzen da hori}$

Esan nahi baita: *atariko txakurra agertu ohi den bezala* atala NOLA galderari erantzuten dion adberbio sintagma izango da.

(207) a. -NOLA agertzen da hori leku guztietan?
-Atariko txakurra agertu ohi den bezala.

Osagai horretan perpaus bat dugu:

b. Atariko txakurra agertu ohi da.

Baina perpaus honetan zerbait falta dela nabaritzen dugu: *nola* agertu ohi den, alegia. Esan nahi baita, berez, (a) diogunean, egiakzi ez dugu (b) esaten, (b') baizik:

b'. Atariko txakurra modu jakin batean agertu ohi da.

Baina [*modu jakin batean*] osagaiaren ordez isilune bat dugu, hutsune bat. Hutsune hori *bezala*-rekin erlazionatua dagoenez –hori adierazten dugu (206)an *i* azpiindize horrekin–, perpausa modu egokian interpretatzen dugu. Alegia, atariko txakurra nola agertu ohi den baldin badakigu, badakigu halaber nola agertu ohi den pertsona hori leku guztietan: txakurra agertu ohi den bezala, alegia.

Bestela esan: *bezala*-k aurrekari bat eskatzen du mendeko perpausean. Nahitaez isilpean joan behar duen aurrekari bat.

3.2.3.4. Zenbait adibide

Bezala / legez-en ezkerretara perpaus bat joan ohi dela esan dugu. Baina perpaus hori gehienetan oso murriztua agertuko da, konparazio perpaus guztietan gertatzen den moduan. Gehienetan perpaus horretako osagai bakarra

agertuko zaigu. Hain zuzen, ondoko adibide hauek konparazio morfemaren ezkerretara perpaus txertatuko zein osagai ageri den kontuan hartuz eskaintzeu dira.

a. *Perpaus osoa + {BEZALA / LEGEZ}*

- (208) a. Nik baitzitut ofensatu *bide ez tudan bezala*, dolu dicit (...) zure kontra eginaz (B. Dechepare, *Lingua Vasconum Primitiae*, 41).
- b. Orañ egizu, *ejemplo jakin onek erakusten duen bezela* (A. Cardaberaz, *Eusqueraren berri onac*, 320).
- c. *Bestetan ura edaten dezuten bezela*, biyar edan zazute ardua (J. Mokotoa, *Damuba garaiç*, 7).
- d. *Mihi bat eta bihotz bat ditudan bezala*, milaka banitu... (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 130).
- e. Ez diezadazula egin *nik merezi dudan bezala*, bainan bai zure ontasun mugarrigabearen arabera (Ib., 149).
- f. Urrea geituten danean geitu oi da gizonen arrokeria, itxasoa gora datorrenean *ibaiko ura gehituten dan legez* (D. Aguirre, *Kresala*, 156).
- g. guztia jazoten jat *neuk gura dodan legez* (A. Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 23).
- h. Garean, *garean legez* (K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 3.3.1, 169).

Batzuetan, (208a)ko adibidean bezala, mendeko perpausaren beharrezko den aurrekari isil hori (ik. 3.1.5) oso sakonean txertatua agertzen da. Perpaus horretan, adibidez, honen antzeko zerbaite ulertu behar da:

- a'. Nik ez dut zu HAI.A ofentsatzeko (esku)biderik.

Hau sarritan gertatzen da konparazio perpausaren perpaus osagarriak eskatzen dituzten aditzak ditugunean: *uste izan*, *nahi izan*, *esan*, etab.

Bestalde, zenbaitetan, *bezala*-dun perpausaren edukia nolabait jasoz edo, perpaus nagusian *hala* aditzondoa ere agertuko da:

- i. *Tximistak, zeru-ulde batetik atera ta heste alderaño diz-diz egiten duen bezela*, *olaxe* izango da giza-semea bere egunean (P. Iruizoz, *Yesukristoren bizia*, 339).

b. Partizipioa + (BEZALA / LEGEZ)

Badakigu *bezala*-k ezkerretara perpaus bat eskatzen duela. Badakigu, halaber, perpaus hori oso murriztua agertu ohi dela, gainerako perpaus konparatiboetan bezala. Aditza bera ere maiz ez da ageri. Laguntzailea ere desager daitenke, partizipioa bakarrik utzirik:

- (209) a. *Ordenatu bezala* konplitu zen (P. Axular, *Guero*, 231).
 b. *Nik erran bezala* egiten baduzu, berant-orduak etzaitu atzemanen (J. Duvoisin. *Laborantzako liburua*, 202).
 c. *Inularrean oeratu bezelaxe*, jeikitzen zan urrengo goizean (T. Agirre, *Uztaro*, 253).
 d. Legegin begiragarriak *ikasi bezelaxe* antzoztu ditudala-ta (Lizardi. *Itz lauz*, 26).
 e. *Aingeruak erran legez / zu* sortu zifenean (Etcheberri Ziburukoa, *Noeluc*, 165).

Laguntzailearen ezabatzearen ondorioz, adizkia normalean partizipioan emango dugu. Partizipio honek, gehienetan, aspektu burutuaren balioa izango du (a, b, d eta e-n bezala). Baina burutugabea eta etorkizunekoak ere "estal" ditzake partizipio horiek. (c)ko adibidean, esaterako, *oheratu bezalaxe*, *oheratzen zen bezalaxe*-rekin erlazionatua dago. Beraz, testuinguruak agiuduko du zein interpretazio eman.

Modu berean, honako honetan

- f. Etorri bezala joango dira

partizipioak etorkizuneko adizkia nahiz burutugabea izan dezake azpian:

- f'. Etorriko diren bezala joango dira.
 f''. Etorri diren bezala joango dira.

Baina laguntzailearen ezabaketaren ondorioz partizipioa agertzea bada ohi-koena, bestelako aspektu marka duten adizkiak ere zilegi dira, ekialdeko cus-kalduncn artean behintzat:

- g. Jinen bezala joanen dira.
 h. ... edireiten da (...) bere onak bahitzen bezala, saltzen ere diruenik (P. Axular, *Guero*, 54).

i. aditzera emateko, bizitzen bezala hiltzen ere dela (Ib., 144).

Argi dago, hala ere, partizipioaz baliatzea dela ohikoena, “azpian” dagokeen aditzaren aspektua edozein izanik ere:

$$\left\{ \begin{array}{l} -TZEN \\ -TU \\ -TUKO \end{array} \right\} + -eN \text{ bezala} \rightarrow -TU \text{ bezala}$$

Baina, era askoz mugatuagoan izan arren, beste honako formula hauek ere aurki daitezke:

$$-TZEN + -eN \text{ bezala} \rightarrow -TZEN \text{ bezala}$$

$$-KO / -EN + -eN \text{ bezala} \rightarrow -KO / -EN \text{ bezala}$$

Dena dela, gaurko euskaraz badirudi horrelako esamolde hauek, mugatuak izateaz gainera, esanahiaren aldetik ere markatuak direla. Hots: ez diote egiazki moduari erreferentzia egiten, esaldiaren egitasunari baizik. Axularren (i)ko adibidean *bezala*-dun perpausak NOLA galderari erantzuten dio. Perpaus honek esan nahi du *nola bizi hala hil*. Baina (h)koak bi baieztapenen egia markatzen du: alegia, bahitu eta saldu, biak egiten dituela. Bigarreu erabilera hau gailentzen da gaur egungo Iparraldeko erabileran, dirudienez. (g)ko adibidea gaur horrela interpretatzen da.

c. Aditz modalak+ {BEZALA / LEGEZ}

- (210) a. Min nuke, min handiena, ez bazindu egiten *nik nahi bezala* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 19).
- b. Aldi horretan kontu larriak garbitzen niharduen, eta garbitu ondoan *etxeko ez ziren arrotzentzat behar bezala* antolatzen (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 368).
- c. Semeak, *ahal bezala*, geldi-arazi du zaldia (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 74).
- d. Urte huntan *ahal bezala* ginabiltzan Canadian (J. Etchepare, *Buruchkak*, 121).
- e. Zorioneko bixi giñian / geure gauzakaz geuk agintzeko / *geuk nai lez* eta nai gendunian (K. Enbeita, *Bertsokak*, 46).

- f. Urdalletik bete ezik *biar lez* estia, / Motel ibilliko da zar nai gaztia (Ib., 164).
- g. Eta zer esan, *gura legez* urtian bizi, ta pazkuaz baño konfesetan ez dirianen ganian? (J.ªA. Moguel, *Confesiño ona*, 79).
- h. Zer esan nai deustazun zipladokaz niri, / *Gura legez* igarri ezin deutsut zuri (F. Arrese Beitia, *Arna euskeriaren liburu kantaria*, 253).
- i. Barriz kristinau dongak ez ditu ezek bildurtuten *biar legez* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 64).

Jakina, aditz hauek osorik ere eman daitezke:

- j. Ebangelioa dute bere liburua; baina aditzen dute *nahi duten bezala* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 77).
- k. Eska zakikioz argitu daizula burua, berotu biotza, ta *zolitu* gomutea, *behar dan legez* igaroteko, irakurtera zoazan gogartea (P. A. Añibarro, *Escu-liburua* 2, 18).
- l. *Ahal dugun bezala* mintzo gira frantsesez (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia*. Gizon, 205).
- m. Oñazez eta miñez, / *al ixan eban lez* / eldu zan atzera / katamixarren landara (Otxolua, *Bertoldu eta Bertoldin*, 60).

Dena dela, badirudi, lehenbiziko moldea (hots: {*ahal / behar / nahi ...*} + *bezala*) erabat arrunta eta ohikoa dela *bezala*-rekin baina ez hainbeste *legez*-ekin. Azken honekin, normalean aditza osorik ematen da: *ahal den legez*. Arraro xamarrak gertatzen dira *ahal legez* edo *gura legez* modukoak. Testuetan horrelakoen oso lekukotasun gutxi aurkitzen da eta gainera, oso autore jakinen luman: Mogel, Arrese Beitia, Enbeita eta beste bakarren batenean. Hizkera bizian, *behar legez* baino usuago erabiltzen dira *behar den legez* edo *behar den moduan bezalakoak*.

d. USTE IZAN + {BEZALA / LEGEZ}

- (211) a. Bizia gozoki iragaitekotzat, ez da, *askok uste duketen bezala*, aberats izan behar (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 3).
- b. Ez zitzaizkion gauzak, *berak uste bezala* egokitu (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 162).
- c. ori ezta *zuk uste dozun lez* (J. M. Echeita, *Josecho*, 259).

Hemen ere badirudi *legez*-ek aditza osorik nahiago duela: *nik uste bezala* guztiz arrunta den bitartean, *nik uste legez* bitxiago gertatzen da. Honen ordean, ohikoago dira *nik uste dudan legez* modukoak.

e. *-TZEKO, -RENTZAKO, -RENDAKO, ... + {BEZALA / LEGEZ}*

- (212) a. Bustia da abereentzat *guretzat bezala* etsairik handiena (J. Duvoisin, *Diálogos*, 59).
b. Amak bethi *fotografia atheratzeko bezala* ibili-arazten zuan (Oskillaso, *Kurloiak*, 59).
c. Gorria, zure xakur ernea, aintzinerat ethorria nuen, niri begira, *ardiak bildu behar zituenez galdatzeko bezala* (J. Barbier, *Ipuinak*, 148).
d. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor *errukinteko lez* (Kirikiño, *Abarrak I*, 120).
e. Bustija da abereentzat *guretzat legez* arerijorik andijena (J. A. Uriarte, *Diálogos*, 59).

f. *Izen sintagma ergatiboa + {BEZALA / LEGEZ}*

- (213) a. Jarraitu daigun beti *lenauko / euskaldun onak bezala* (B. Enbeita, *Nere apurra*, 58).
b. Egin dezagun bethi *ongi atheratzen direnek bezala*; bertzenaz erhoak gaitzke (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 42).
c. Begiak ditu, *amak bezala*, Zeru-zola bezain urdin (J. B. Elissamburu, *Poesiak*, 197).
d. *Mintzai guziek bezala*, badiu eskuarak ere zenbeit itzal (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 210).
e. Ez cutsan erregutu librau egijala adierazo jakazan kastigubetati, ta bai negar asko egin alde egin ebalako *ardi batek legez* bere Jaun ta arzain amorosuaganik (J.A. Moguel, *Confesiño ona*, 61).

g. *Izen sintagma absolutiboa + {BEZALA / LEGEZ}*

- (214) a. *Lotsa gabe bat bezala* agertzen dela esan dut (J. Mirande, *Mirandereren idazlan hautatuak*, 174).

- b. Mundu guzia oartu zan arren arpegia geratu zala *gerezi gorri bat bezela* (A. M. Zabala, *Gabon gau bat*, 56).
- c. Arrenka nago auspaz da larri erru-astunak makurturik eta bildurrak *auts ariña lez* neure biotza urundurik (E.M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 31).
- d. Ezagun da bai argizari jaleok *ni lez* estranjerian ibilli ez tirana (D. Aguirre, *Kresala*, 122).

h. Izen sintagma datiboa + {BEZALA / LEGEZ}

- (215) a. Era onetako ongille guzici *bere ardi onei bezala* esanen die egun batez Jesusek: atozte zerura nere aitak bedeinkatu zaituzten ardi ta fededun onak (S. Mendiburu, *Irakurraldiak*, 313).
- b. Mintza zakizkote sinpleki zueri tokatzen zaizkitzuen gauza guziez, *adixkiderik hoberenari eta aitarik samurrenari bezala* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo jaunaren eguna*, 176).
- c. Dirua premiñazko yat, *edonori lez*, jatzeko, eskuarte izateko (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 130).
- d. uste dot (...) *ari legez* lagunduko deustazula eriotzako ordu larrian (P. A. Añibarro *Escu-liburua I*, 115).

i. Adizlaguna + {BEZALA / LEGEZ}

- (216) a. Proposito egiazkoak eskatzen du borondate zoli ta sendo bat (...) aldegitoko bekatutik *sugearen arpegitik bezela* (J. A. Mogel, *Confesiño ona*, 144).
- b. Gurean, *beste nonnahi bezala*, ez dira asko izan egiazko lirikoak (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak*, 175).
- c. Arek zerutik zainduten ditu / *ulan legetxe* neguan (F. Arrese Beitia, *Amu euskeriaren liburu kantaria*, 466).
- d. Agura biak iagi zirean *beti lez* eta ioan zan Aita Kontzen gelara artez (E. M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 143).
- e. Au dala-ta oin zelan abestu txindorrek *len lez* pozpozik? (K. Enbeita, *Bertsuak*, 203).

j. Osagai bat baino gehiago + {BEZALA / LEGEZ}

(217) a. *Loriak udan intza bezela / maite det dama gazte bat* (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 104).

b. *lapak atxari lez euren entxufeai inkata, langileen lepotik polito biziten ikasi dabe* (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 86).

c. Jaungoikoaren legeak, eta Justiziak *onari saria bezela*, gaiztoari, (...) agintzen eta ematen dio dagokion pena (J. I. Guerrico, *Sayaquera*, 431).

(a)n NORK, NOR eta NOIZ ageri dira. Beste batzuetan beste sintagma batzuk, beti ere kontrastea egiteko baliagarri ikusten direnak.

d. *Eguzkia ispilluan bezela* sentitzen eta ikusten zaitut nere animan; *izarra urtan bezela* nere pentsamentuan. eta *niniya begiyan bezela* zauzkat nere biotzaren erdian (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 157).

e. *Aihea bere erroetan bezala*, itzultzen da nagia ere bere ohean (P. Axular, *Guero*, 45).

f. *Eguna travaillatzeko bezala*, gaua ere repausatzeko gizonari ordenatu ukhan draukoanaz geroz (J. Leizarraga, *ABC*, 4r).

g. Aphez xaharra predika-alkitik jautsi zen gorri-gorria, *Moises menditik bezala* (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 59).

h. *Eta guk berzeri legez* hutsen barkhamendua [iguzu] (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioinezcoa I*, 36).

i. bere garria ereztun batek artuko leuke *orratz batek lez ari* (E.M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 121).

k. ... BA- ... + {BEZALA / LEGEZ}

• Baldintza perpausa gainerako perpaus-osagaiak bezalakoa da eta, horregatik, *bezala*-ren ezkerrean erraz ager daiteke, beste edozein osagai bezala, hain zuzen.

(218) a. *Geure bizitzearen (...) jaun, jabe eta nabusi baikina bezala*, ordenatzen dugu bizitzearen parte bat (P. Axular, *Guero*, 66).

b. Jainkoak irudirik batre egin gabe, *haei manifestatu nahi ezpalitzaue bezala* (J. Leizarraga, *Advertimendua*, * 8 v).

- c. *zahartuko baikiña bezala* geure gauza guztiak egin (P. Axular, *Guero*, 42).
- d. Onetarako dago Altara orretan, gure lagun eginik, eta *au guzti au gitxi bailitzan legetxe*, ain da andia gure arimeari deutsan amudioa, ze gura dau zeuk zeure barruan euki dagizun (J. M. Zabala, *Sermoiak I*, 20).
- e. *Jaio ezpalira legez ixilik* gelditu zirean (Ib., 30).
- f. Eriotzera sentenziatua nago *gaitzkille bat banintz bezela* (G. Arrue, *Santa Genoveva*, 29).
- g. Noixik-bein urreratzen jakon, eta berialaxe gelditzen zan bide-ertzian, egin gura ebana egiten *azartuko erpa' litz lez* (Kirikiño, *Abarrak*, 73).
- h. Eskatuten deutescet guztiari: au irakurri, *noberuri ez bajuako legez* (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 10-11).
- i. Guzurrak egiazen itxurea eukan, da *egia bulitz legez* ebillen aotik ahora (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 79).
- j. Ardura andi bategaz arteztuko dodaz gaurko nire esa-egite guztiak *atzeneko eguna baneu legetxe* (P. A. Añibarro, *Escu-liburua 2*, 30).
- k. *Urriñetik baletor lez* (T. Etxebarria, *Ibilarixanak*, 464).

Baldintzazko perpausa perpaus nagusiago baten osagai da. Horrenbestez, hemengo perpaus hauek gainerako guztiak bezalakoxeak dira. Diferentzia bakarra da, besteetan izen sintagma bat edo adizlagun bat gordetzen den bezala, oraingoan baldintzazko perpausa gordetzen dela. Baina denak ere perpaus baten hondakinak edo dira. *Zahartuko bagina* atala, esaterako, (ik. *c* adibidea), nagusiago litzatekeen perpaus baten osagai litzateke. Osagai hau baldintzazko esapidectan agertu ohi den lehen partea besterik ez da: *protasia* alegia. *Protasi* honi legokiokeen *apodosia* "berreskuratzeko" inolako oztoporik ez genuke izan behar. Beraz, horren azpian, nolabait, honako hau izango genuke:

c'. *Zahartuko bagina* egingo genituzkeen bezala geure gauza guztiak egin.

Hots: zahartuko bagina, modu jakin batean egingo genituzke gauzak. Bada, hala egingo ditugu geure gauza guztiak.

Hortaz, kasu hau gainerako kasu guztien tankerakoa dugu. Eta ezkutuan legokeen adizkiaren berreskuratzea ere gainerako kasuetan gertatzen den modukoa izango da. Hemen adizki horrek alegiazkoa izan behar duela argi dago, *protasia* halakoa delako. Beste kontu bat da jakitea zergatik BA-...

bezala gisako esapide hauetan ez den posible –testuetan behintzat ez da horrelakorik aurkitzen– alegiazkoa ez den adizkirik. Semantikazko debekuren batean bilatu beharko da horren arrazoia.

• *BAILITZAN, BAILUEN tankerako esapideak*

Goian jaso ditugun adibide batzuetan, Axularrenetan bereziki, *BA-* baldintzako aurrizkiaren ordezt *BAIT-* agertzen zaigu: *baikiña bezala*. (218d)ko adibidean, berriz, *bailitzan legez* ematen zaigu. Añibarroren honako bi adibide hauek ere modu bertsuan eratuak ikusteu ditugu:

- (219) a. zeretik jaitsiriko Angeruak *bailitzen legez* (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 38).
b. etzara orduan gogaitu, sumindu, ta aserraturten, esker gaisto andiak *beilitzen legez?* (Ib., 112).

Etxeitaren hau ere taxu berekoa da:

- c. Txomin-txikik eta emazteak artu eben Ondartzan euren etxean, seme bat *bailitzan legez* (J. M. Etcheita, *Josecho*, 132).

Gaur, ordea, zenbait idazleren luman behintzat, *BA-* ... *bezala* esamoldearen ordezt *BAI-* ... *-eN* ikusten da, *bezala-rik* gabe:

- (220) a. egasti *biurtu gura bailirean* jaso ebazan aize orrek etxien buruak baño askozaz gorago (D. Aguirre, *Kresala*, 12).
b. Betiko igortzi bigunaren indarrez ondartu ta ezerezera *erakarri bailirean* ibiltent jakoe, ziliboka ta bairatsu (Ib., 139).
c. Bi atzizkiok (...) deklinabideko *bailiran* hartu ohi ditu jendeak (K. Mitxelena, "Eratorbidea eta deklinabidea", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 676).
d. Gizonak inolako espanturik gabe begiratu zidan, une hartan huraxe egingo nuela *espero izan bailuen*.
e. Jo ta ebain-ebain egin zun emaztea espartzu pusketa *bailitzan* (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 127).

Bitxia dirudi adizkiak *BAIT-* aurrizkia (hasierako *BAI-* hori *BAIT-* bada) eta *-eN* atzizkia, biak batera cramatea. Bi menderagailu batera joatea ez da oso

ohikoa. Horrenbestez, Añibarroren adibideak eta, are gehiago Agirrerrenak eta ondorengoak, ez dira ohiko lege. Guk *EGLU II* liburukian (427. or.) genioena, hortaz, gehiegizkoa dela ematen du. Egia da *balitz bezala* eta *bailitzan* baliokidetzat hartu dituztela idazleek, baina *bailitzan* gisakoak ez dira arkaiakoak, aski berriak baizik, eta, gainera, itxura guztien arabera, gramatika legeen kontra eratuak. Horrenbestez, bazter utzi beharrekoak ez badira, bultzatze-koak ere ez dira¹⁰.

Gainera, horrelako adibideak gehienetan hirugarren pertsonakoak dira, /-z hasten diren adizkiak alegia: *bailuen*, *bailitzan*, *bailiran*, etab. Jakina, teoriarik, gainerako adizkiekin ere zilegi izan behar luke: *baikenuen*, *bainintzen*, *baitzinen*, etab., baina hauek, testu batean aurkituz gero, beste zerbait direla ere pentsa genezake, kausazkoak adibidez. Horregatik, arrakasta izan duten formak *bailitzan* eta *bailuen* dira, eta aditz nagusi direnean bereziki, ez laguntzaile.

Nolanahi ere, forma arazotsuak dira eta, gainera, tradizio urrikoak. Autore berrietan agertzen dira, ez zaharretan.

• BA- ... *BEZALA* esamoldearen erabilera oker bat

Gaur euskaldunen artean, komunikabideetan bereziki, hedatzen ari den esamolde desegoki bat ere aipatu behar da.

(221) a. *Realak partidua galdu zuen, eta, *hori gutxi balitz*, bi txartel gorri atera zizkioten.

Hori gutxi balitz baldintza perpausa da eta, horrenbestez, ondorioa eskatzen du. Adibidez, honela:

b. Hori gutxi balitz, txartel gehiago aterako nituzke.

Gainera, badirudi baldintzaren eta ondorioaren artean dagoen lotura bereziari esker, bi adizkien artean badela halako adostasun premia bat. Ezin dugu, adibidez, honako honen antzekorik esan:

c. *Hori gutxi balitz, txartel gehiago atera zituen epaileak.

¹⁰ Ik. A. Irigoien, "*Bailitzan*, *bailirean* typoko erak zuzenak ote dira euskaraz tradizio zaharreko systeman", eskuizkribua, 1989).

Bezala-ren ezkerretara, ordea, horrelakoek ongi ematen dute, zuzenak dira, haldintzaren ondorioa isilpean baitago:

d. Hori *gutxi balitz bezala*, epaileak bi txartel gorri atera zizkion Realari.

Edo beste modu honetara ere esan daiteke:

e. Realak partidua galdu zuen, eta, *hori nahikoa ez zela*, bi txartel gorri atera zizkion epaileak.

Nolanahi ere, hona hemen, adibide bat, txukun askoa:

f. emoten deutso (...) guzurrezko mosua; eta *ori ezer ezpaltz legez* esaten deutso Jesu Kristok bapere aserratu bagarik ... (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 209).

l. EZ + {BEZALA / LEGEZ}

Esamolde hau, jakina, desberdintasuna adierazteko modu bat besterik ez da. Berdintasuna ukatuz lortzen da desberdintasuna aditzera ematea.

(222) a. *Egundano ez bezala* ioaten baita aitzia (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioezcoa I*, 74).

b. Mintzatu ere beharko *etxean ez bezala* (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 19).

c. Gauzak *len ez bezela* begietaritzen zitzaizkion (G. Arrue, *Mayetececo illa*, 66).

d. *Duela bi urte ez bezala*, esperantzaz beteriko egoeran aurkitzen gara (*Euskaldunon Egunkaria*, 97.7.12, 15. or.).

e. Jaiak edonun dira jai, baina *inun ez legez* arrantzalien artean (D. Aguirre, *Kresala*, 44).

f. Bestela, *oraingoek ez bezala* pentsatuko dutela segur da, ez hain segur zerenolako izango den bestelakotasun hori (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 214).

Hemen galde daiteke ea *ez + bezala* esamoldea banako burujabetzat hartu behar den ala *ez* elementua perpaus konparatiboko elementua den. Perpausoko elementua dela dirudi. (a-f)ko adibideen arabera, bestela pentsatzeko eskubidea izango genukeen arren, argi dago mendeko perpausa aditz eta guzti ematen denean, *ez* aditzarekin batera doala eta *ez bezala*-rekin:

- g. Maitatu gaitu gizonok bertze niork maitatu ez gaituen bezala (P. Iraizoz, Predikua, 29.6.45).

Perpaus hau aditzik gabe ematekotan, ez bezala segida gertatuko litzateke:

- g'. Maitatu gaitu gizonok bertze niork ez bezala.

Hala ere, bezalako-rekin, adjektiboa delako edo, ez bezalako hitz segida zerbait lexikaldutzat edo hartzea errazago da. Iraizotzek berak honako adibide hau dakar:

- h. Gure sinestea (...) sailduena bezalako balitz, orai garen ez bezalakoak izanen ginake (P. Iraizoz, Zer eman daku Jesusek sakramendu sailduan? predikua, Donamaria 1941).

3.2.3.5. BEZALA-ren beste erabilera batzuk

Modu konparazio garbia bideratzeaz aparte, bezala-k bestelako zenbait esamolde ere bideratzen ditu:

a. "X bezala Y ere" tankerako esamoldeak

Hauetan ez dago hain argi zer zerekin alderatzen den. Beharbada, hemen ere bi egia parean jartzen eta konparatzen direla pentsa dezakegu. Nolanahi ere, bi osagai ditugu, korrelazioan bezala:

- (223) a. *Garia bezala, artoa ere itaiez ebakitzen da Uitzin* (Orixe, *Euskaldunak*, 45).
b. *Marta ere, bere ahizpa bezala*, pozik egongo zan geldi geldia Jesusen itzak entzuten (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 268).
c. Uste eban ta iruditen jakon ez ebala bere koroia seguru izango, baldin txikientzat legez andientzat bere justizia egiten ezpaehan (P. A. Añibarro, *Guero Guero*, 251).

Garia bezala artoa ere; Marta ere, bere ahizpa bezala; txikientzat legez handientzat ere, juntaduratik oso gertu daude. Horregatik, juntadura arruntaren bidez ere eman daitezke aditzera:

- a'. *Garia eta artoa (ere) itaiez ebakitzen d(ir)a Uitzin*.

- b'. *Mara eta bere ahizpa pozik egongo ziren Jesusen hitzak entzuten.*
- c'. *justizia txikientzat eta handientzat (ere) egiten ez bazuen.*

Honako honetan ere gauza bera dugu, nahiz eta genitiboan dauden sintagmen gainean eraikia den egitura:

- d. *oihalaren bezala, geure bizitzearen ere iaun. iabe eta nabusi baikina bezala...*
(P. Axular, *Guero*, 43).

b. {BEZALA / LEGEZ}, posposizio

[*Izen sintagma + bezala / legez*] predikatu osagarri gisako zerbait izan daiteke, subjektuari, objektu zuzenari nahiz zehar objektuari dagokiona. Askotan *gisa, modura* edo antzekoen bidez ordezkatu daiteke. *-TZAT* atzizkiarekin duen lehia ere kontuan izan behar da, bestalde:

- (224) *Ibentzen zaiku geure begion aitzinean exenplotzat eta mirail bezala* (P. Axular, *Guero*, 139).

Gehienetan *bezala / legez*-en ezkerretara doan sintagma hori mugagabeen joan ohi da.

- (225) a. *Pilaték bada inozent deklaritzen dik, eta eztik gaizkigile bezala kondenatzen* (J. Leizarraga, *Othoitzza*, C 4r.).
- b. *Zu izan zara Etxaus, mendi Pirinioetan, (...) bethiere zentinelá, eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen jauregi eta gatzelu handi, eder, noble hartako seme* (P. Axular, *Guero*, 3).
- c. *hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula* (ib., 5).
- d. *Neure Guraso legez, kontu eskatuko deust* (P. A. Añibarro, *Escu-liburua I*, 42).
- e. *Kristiñau legez il zan* (E.M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 195).
- f. *Ziertua da Santa Ageda modu orretan ill zala (...) neronek oso sinistutzen det fedeko gauza bezela, gure Jesusek aren moduban indarrez jantzi gaitzala* (Udarregi, *Udarregi bertsolaria*, 118).
- g. *nai zuan oen bitartez Jaun zerukuagandik, Pranziara juateko gerra-gizon bezela, birtutezko gizon sendotu* (C. Beovide, *Asis'co loria*, 167).
- h. *Nik, Uztapide ezautu neban / bertso kantari beñola, / bertsolari lez onena dala / erri guztiak diñola* (B. Enbeita, *Nere apurra*, 153).

Hauetan perpaus baten aurrean gaudela suposatu beharrik ez dela ematen du. Oraingoan, aurrekoetan ez bezala, badirudi ezina dela aditza agerraraztea. Hortaz, aditzik izan ezean, perpausik ere ez genuke izango. Alde honetatik *bezala*, *legez*, *gisa(ra)* eta *moduan* baliokide dira:

- (226) a. Gizon gisa (legez, moduan, bezala) joka ezazu.
 b. Begiraile bezala (gisa, moduan, legez) iratzaririk dago.
 c. Gerra gizon bezala (legez, gisa, moduan) Frantziara joan.

Bezala / legez-en ezkerreko elementua mugagabeen joateak hitz elkarketa-
ren antzeko prozesu baten aurrean edo gaudela adieraziko luke. Eta hitzak
berezkoa badu azken -A bokala, orduan anbiguotasuna gerta daiteke:

d. *Aita bezala / legez* mintzo natzaizu.

Batetik perpaus konparatibo garbia izango genuke:

d'. Aita {mintzo den / zen ...} bezala/legez mintzo natzaizu.

Baina beste era bateko interpretazioa ere onartzen du (d)k:

d''. Aita {gisan, moduan,...} mintzo natzaizu.

(hots: *aita izateari dagokion moduan*, *aita naizelako*, *aita naizen aldetik*).

Horrelakoetan *bezala*-ren ezkerretara perpaus osorik agerrarazi ezin dugu-
nez -aditzik ezin baitugu ezarri-, posposiziotzat hartu beharko lirateke kasu
hauetan *bezala*, *legez* eta antzekoak.

c. {BEZALA / LEGEZ}, *hurbiltze balioarekin*

Bezala-k eta *legez*-ek ezkerrean daramaten sintagmari edo predikatuari
hurbiltze balioa eransten diote, gutxi gorabeheraka ariko bagina bezala:

- (227) a. Jainkoak alako zigillu (*sello*) bat bezela jarri dio Jesusi (P. Iraizoz, *Yesukris-
toren bizia*, 217).
 b. gari sail ederrak, aizetxoarekin *jolusean bezela* zabuncan zebiltzan (D.
Agirre, *Garaa*, 51).

- c. Antxe geratu zen *gogortuta lez* (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 54).
- d. Lenengo kristauak *biotz batekoak bezela* ziran, beti pakean (J. A. Mogel, *Confesiño ona*, 220).
- e. *Gogo-gabe bezela zatoz!* (J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, 65).
- f. Eixetik, *irureun metrora bezela zegoan* erreka (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 12).
- g. biak zirean *bardinak*: *bardinak iantziak*, eta *gorputz biak molde baten lez* *cginak* (E. M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 151).

Hauetan halako hurbiltze kutsu bat eman nahi zaie sintagmei. Adibidez, (e) perpausan esaten dena ez da *gogo gabe zatoz*, horren antzeko zerbait baizik.

Horrelakoek, sarritan, *balitz bezala*-ko parafrasia onartzen dute, alegiazko zerbait adierazten duten seinale:

- e'. Gogo-gabe etorriko bazina (edo bazeunde) bezala zatoz.

Hurbiltze edo gutxi gorabeheraka jardute hau, batez ere modua adierazten duten adberbio sintagmekin, izen predikatuekin eta oro har erabat zehatzak ez izatea zilegi denetan gertatzen da *-zenbatzaileak* tartean ditugunean oso arrunta da, esaterako (ik. (f))–.

d. {BEZALA / LEGEZ}-dun perpausa, mintzagai

Bezala-z edo *legez*-ez osatutako perpausak sarritan esaldiaren hasieran edo esaldiaren barnean, koma artean, kokaturik agertu ohi dira. Mintzagai direla pentsa daiteke. Perpaus hauek gehienetan *-eNEZ* edo *-eNAZ*-en bidez ordezkatu litezke.

- (228) a. *Jesusek agindu zien bezela*, mirari arrigarri oiek agitu izan dira askotan Elizan (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 542).
(*Jesusek agindu zenez*, mirari arrigarri oiek agitu izan dira askotan Elizan).
- b. Eta hala, *arrazoin den bezala*, eta *manatzen duzun bezala*, zerorri utzten deratzut (P. Axular, *Guero*, 221).
(Eta hala, *arrazoin denez*, eta *manatzen duzunez*, zerorri utzten deratzut).

- c. Eztakizu, *erran komuna den bezala*, eztela heriotzea bezain gauza segurik? (Ib., 36).
(Eztakizu, *erran komuna denez*, eztela heriotzea bezain gauza segurik?).
- d. oek ta beste birtute guziak azi ta geitzeko da gauzarik onena Komunioa, *erakutsiko degun bezala* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 216).
(hauek eta beste birtute guziak hazi eta gehitzeko gauzarik onena Komunioa da, *erakutsiko dugunez*).
- e. eta nun botatzen duben ankaiz gora, *esan bezela* (M. Soroa, *Au ostatuba!*, 74).
(eta nun botatzen duten hankaz gora, *esan denez*).

Honelako perpausetan sarritan neke da *bezala*-rentzat isilpeko aurrekari bat bilatzea ezkerreko perpausetan. Modua adierazten duen osagai bat behintzat ez da sentitzen perpaus horretan, ez bada ulertzen *hala esan zuen, hala irakurri nuen* edo horren antzekoren bat. Arrazoiak edo emateko erabiltzen dira honelako esapideak.

Horregatik, normalki *esan, aipatu, irakurri*, eta oro har, *-eIA* konpletiboa onartzen duten aditzak izan ohi ditugu tankera honetako esamoldeetan.

Ordena dela eta, era honetako perpaus gehienak mintzagai edo direla esan dugu. Benetan modu konparazioa adierazten dutenekin aldera litezke eta alde honetatik duten diferentziaz ohartuko gara:

- f. *Irakasleak esan zuen bezala* aurkeztuko ditut gauzak.
- f'. *Irakasleak esan zuen bezala*, gauzak kontu handiz aurkeztu behar dira.

Bezala-dun sintagmari kasu batcan eta bestean egitura berdina egotzi lekiok. Diferentzia batekin, hala ere: (f)n *bezala*-ren aurrekari isila inoduzko garbia da (*NOLABAIT aurkezteko, edo NOLABAIT aurkeztuko nituela, esan zuen irakasleak*); (f')n, berriz, aurrekari hori *ESAN*-en objektua izango litzateke: *irakasleak gauzak kontu handiz aurkeztu behar zirela esan zuen*. Kasu honetan, mintzagai denez, *bezala*-dun perpausa eskuineko perpaus osoari dagokio.

e. *BEZALA, -eN NEURRIAN-en baliokide ere izan daiteke*

Baina mintzagai / galdegai joko honetan, perpaus osagarria onartzen duen aditz baten ordez bestelakoren bat agertzen bada, zailago egiten zaigu aurre-

kari egokia bilatzea. Nolanahi ere, bi esamoldeen arteko kontrastea guztiz argia da:

(229) a. *Erdarak aurrera doazen bezala*, euskara atzeraka doa.

b. *Erdarak aurrera douzen bezala* doa euskara atzeraka.

(229b)n aurrekaria modu adberbio bat litzateke; (a)n, berriz, ez dago modu adberbiorik. Hortaz, ez gara ari esaten erdarak modu jakin batean doazela aurrera eta modu berean euskara atzera. Ez. Esaten ari garena da erdarak aurrera doazela eta euskara, atzera. Alderaketa bat dago bi perpausen artean, egia, baina *bezala*-ren aurrekaria, izatekotan, ezkerretara daraman perpausa bera izaugo litzateke eta ez, perpaus barnean legokeen aditzondo isila. Bi baieztapenen egia konparatzen ari garela esan genezake hemen ere. Hortaz, (229a) eta (229b)ren arteko desberdintasun bakarra aurrekariari dagokion hau izango litzateke.

Horrelako perpausetan, *bezala*-ren ordezturrian ezar daitezke:

a'. Erdarak aurrera doazen neurrian, euskara atzeraka doa.

Garbi ikusten da hori honako bi adibide hauetan:

c. Matazuran izpia artuaz, egiten da *mataza askatzen dijoun bezala* (A. Iturriaga, *Diálogos*, 5).

d. Esaten zigun, *urteetan aurrera goazen bezala*, asi bear genduala zerbait soldata irabazten (S. Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 29).

Bestalde, hauek *ahala*-ren bidetz ere osa daitezke:

e. Erdarak aurrera *joan ahala*, euskara atzeraka doa.

f. Urteetan aurrera *joan ahala* hasi behar genuke zerbait soldata irabazten.

Beraz, hurrengo atalekoarekin ere izan dezake zerikusia.

Ohart gaitezten, dena den, adibide guztietan perpaus txertatuan agertzen den aditza *joan* dela.

f. *Denbora balioa duelarik*

Bezala denbora balioarekin ere erabil daiteke:

- (230) a. *Ikusi zituen bezela*, esan zien: Zoazte, ager zaitezte apaizengana (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 338).
 b. *Itz oiek aditu zituen bezela*, gizonak negar miñari eman, eta (...) (G. Arrue, *Mayetceco illa*, 127).
 c. *Eta [emakumea] ikusi zuen bezala* esan zuan Adanek... (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 96).

Bezain laster nahiz -eNEAN-en bidez ere eman daitezke horrelako perpausak:

- (231) a. *Ikusi zituen bezain laster*, esan zien: Zoazte, ager zaitezte apaizengana.
 b. *Ikusi zituenean*, esan zien: Zoazte, ager zaitezte apaizengana.
 c. *Hitz horiek aditu zituen bezain laster*, gizonak negar minari eman, eta (...)
 d. *Hitz horiek aditu zituenean*, gizonak negar minari eman, eta (...)
 e. *Eta emakumea ikusi zuen bezain laster* esan zuen Adanek (...)
 f. *Eta emakumea ikusi zuenean* esan zuen Adanek (...)

g. *Esaten dena egia dela azpimurratzeko*

Ondoko hauetan, perpaus txertatuko aditza *izan* bada ere, perpaus nagusikoa bestelakoa da.

- (232) a. *Antton Barandiaran naizen bezela* diot (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 38).
 b. *Bai, Mayi, egia, ni ementzen naizen bezala* (Y. Etxaide, *Joanak-joun*, 58).

Horrelakoak, baieztatzen denaren egitasuna azpimurratzeko edo indartzeko erabiltzen dira.

h. *Aposiziozkoak*

- (233) a. *San Agustinek, frogatuak bezala*, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko puntu hunen gainean (P. Axular, *Guero*, 34).

- b. Handik, Salomonek, *ziakienak bezala*, zenbat kalte zekharkeien juramentu egiteko usantzak, erran zuen (Ib., 176).
- c. aren Majestadeak, *gure Aita ona, eta guztiz poderosoa danak bezela*, emango dizkigu, azigarri, edo añadigarri bezela emen bear ditugun alimentu (...) guziak (J. I. Guerrico, *Sayaquera*, 416).
- d. Jaungoikoari, *gure jabe soberanoari bezela* zor diogun errespetoa (...) ekarri ordean (...) obra gaiztoak egin ditugu (Ib., 431).
- e. beasaindarrak suplikan gaude *nai gendukenak bezela* (Txirrita, *Bertsoak*, 44).

Perpaus hauen guztien taxua argia da: izen sintagma bat lehenbizi, dago-kion kasu markaz hornitua, eta, gero, koma artean, aurreko izen sintagma horren kasu berean beste izen sintagma bat gehi *bezala*. Nolabaiteko konparazioa badagoen arren, neke da hauetan aurrekariak bilatzen hastea.

i. Nolabaiteko kausa edo adierazteko baliatzen ahal dugu esamolde hau

- (234) a. Bainan, nere jauna, nere aita gozoa, *ona zaren bezala*, urrikal zaitte (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 113).
- b. Gomendatzen zaitut (...) jaingo guziz botheretsuari, eta *haren kreatura zaren bezala*, ematen zaitut haren eskuetan... (A. Baratzart, *Meditazione tipiak*, 264).
- c. *Ingrat guzietarik handiena naizen bezala*, zure miseriak handienetarat hel egiten dut, hark urrikiaren partetik eskaz dudana, eta izan nahi nuken guzia beheteko du (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 116).

Azken adibide hauetan badirudi *modu* ideiatik *kausala* idejara pasatu garelako. Egia esan, ez da batere zaila pausu hori ematea. Baina horrelakoetan konparazio gutxi dugu. Hona hemen beste adibide hauek ere:

- (235) a. *ain latza ta kirtena zan lez* ifioz ezin eban beretik atera ezetarabe (Kirikiño, *Aburruk*, 72).
- b. Oeratu zan, ta *dana mankauta eguan legez*, bertatik luak artu eban (J.A. Uriarte, *Marijaren illa*, 46).
- c. lur-alde bana emongo eutsien, eta auzotegi bakotzak lur-alde ori, banandu barik, *auzoko guztien artean erabilliko eudien lez*, orti etorriko zan auzotegi edo kofradi-baso ixena (L. Akesolo, *Ipiña ta ipiñatarren barri*, 26).

- d. Baya *jakin ezin leikeana legez* ondo ala deungaro confesau ete danez, beste alde-
tik barriz orduko konfesiño geienak arrastaka egiñak *izan oi direana legez*, one-
kek beronek estutuko dau *gexo tristea* (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 216).

(235d)ko adibidean, *-eN* atzizkiaren ordez, *-eNA* atzizkia ageri da mende-
ko perpausuan. Dena den, azpian benetako erlatiboa balego, *dirianak* beharko
zukeen. Ez dago horrelakorik, beraz *-eNA* hori *-eN*-en aldagai soilak dela onar-
tu behar (ikus gorago, 3.1.6.4).

Legez-en erabilera berezi hau oso hedatua dago bizkaieraz. Honen balioki-
dea litzatekeen *bezala*-duna baino askoz hedatuago. Hain zuzen, (235)eko
perpausen ordez, *-eNEZ* edo *nola ... -eN* tankerako esamoldeak erabiltzen dira
bizkaieraren eremutik kanpo behintzat:

- c'. Lurralde bana emango zieten, eta *nola* auzotegi bakoitzak lurralde hori,
banatu barik, *auzoko guztien artean erabiliko zuten*, hortik etorriko zen auzo-
tegi edo kofradi-baso izena.

3.2.3.6. BEZALAKO

a. BEZALAKO / LEGEZKO, izenlagun sortzaile

-eN + {*bezala* / *legez*} morfemaz osaturiko egitura adberbio edo posposi-
zio sintagma bat da. Adberbio sintagmek eta adberbioek oso berea dute *-KO*
atzizki hori hartzea. *-eN bezalako* egiturak izen sintagmaren barnean kokatuak
agertuko dira, izenlagun gisa, edo izen predikatuan. Beti ere nolabaiteko
adjektibo sintagmak izango dira, *bezalako* / *legezko* ardatz dutela:

- (236) a. *Gizon horrek (erosi duen) bezalako* autoa erosiko dut.
adjektibo sintagma

izen sintagma

- b. *Zurea (den) bezalako* da nire soinekoa.
adjektibo sintagma

izen predikatua

Perpausak honako egitura hau izango du, funtsean:

(237) $_{\text{JS}}$ $_{\text{p}}$ [Gizon horrek $[\emptyset]$ (erosi duen)] [*bezalako autoa*]] erosiko dut.

Hemen badakigu gizon horrek *nolabaiteko autoa* erosi duela eta nik ere *halako autoa* erosiko dudala.

Gainerakoan, *bezala* / *legez* duten perpaus guztici erants dakieke *-KO* atzizkia, edo, nahiago bada, *bezalako* / *legezko*-ren ezkerretara *bezala*-ren ezkerretara ager daitezkeen elementuak ager daitezke: printzipioz, perpaus bat, baina gehienetan perpaus hori erabat inurritzua egongo da.

- (238) a. Artuten ez dirialako *biar legezko* bidiak (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 80).
b. Etzegen *ura bezalako* gizonik lurbera guztian (D. Aguirre, *Garoa*, 106).
c. Gizon bat ona, *altzeirua bezalakoa* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 47).
d. Nahi baduzu *nik bezalako* arthaldea izan (J. Barbier, *Légendes*, 134).
e. *Gezurria bezalako* gezur-iresle guti da (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 9).
f. *Aurreko liburuxka hieri bezalako* abegia azaltzen badiezute, Jaungoikoa lagun, azkenengoak ez dira izango (Basarri, *Kantari nator*, 20).
g. *Inoiz ez legezko* jardun bizi arduratsuan (D. Aguirre, *Kresala*, 206).

(d) adibidea begien aurrean dugularik, beharbada ez da lan alferra euskara eta erdara alderatzea. Perpaus horiek erakusten dute *bezalako*-ren ezkerretara perpausko edozein osagai ager daitekeela, dagokion kasu markaz hornitua. Alegia, erdara irits daiteke (h-i)koen ordain zuzenak ematera, baina, ezin du (d)ren ordaina zuzenean eman, anbiguitate larrian erori nahi ez bada behintzat.

h. Nahi baduzu *nik dudan bezalako* arthaldea izan.

i. Nahi baduzu *nirea bezalako* arthaldea izan.

Euskarak duen kasu-markatze aberatsak zilegi egiten du (h-i)koak ez ezik (d)koen modukoak ematea, anbiguitaterik gabe. Nolanahi ere, ikus paralelotasunaz gorago esana (ik. 3.1.5).

Bezalako-dun sintagma hauek azken batean adjektibo sintagma ere badirenez, adjektiboei dagozkien zenbait maila-atzizkiz horniturik ere ager daitezke, *-EGI* atzizkiarekin, adibidez:

- (239) Ondikotz! gizon bat *besteak bezalakoegi* zenuten hor, uhaitz ertzean (J. Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 141).

b. BEZALA ala BEZALAKO, izen predikatuetan?

Bada hemen arazo bat, agian erdararen eraginez sortua, eta hainbat euskalduni buruhaustek sortzen dizkiona. Har ditzagun honako adibide hauek:

- (240) a. Bakotxa *den bezala* da (E. Zubiri, *Nafarroako Euskal idazlariak*, 105).
 b. Lehengo jendeak, *orainoak bezala* ziren (J. M. Hiribarren, *Escaraz eguia*, 145).
 c. *Gu bezelaxe* dira animaliak (A. Iturriaga, *Diálogos*, 54).

Hemen *bezala*-dun perpausak izen predikatu dira, *izan* aditza loturazko elementu dela. Horrelakoetan, NOLAKO galderari erantzun nahi diogula dirudi: NOLAKOAK dira animaliak?, NOLAKOAK ziren lehengo jendeak?, NOLAKOA da bakoitza? Horregatik, (a-c)ren parean honako hauek guztiz egokiak direla esan behar:

- a'. Bakoitza *den bezalako* da.
 b'. Lehengo jendeak *orainoak bezalako*ak ziren.
 c'. *Gu bezalako*xeak dira animaliak.

Alde honetatik, adierazgarri gertatzen da Iturriagaren goiko (c) adibidearen ordez Uriartek *geu lakuak* dioela. Duvoisinek, hala ere, *gu bezala* darabil. Intxauspek ere *bezelaxe* darabil eta *ez bezalako*xe:

- d. *Gu bezalaxe* dira kabaliak (E. Inchauspe, *Dialogues Basques*, 54).

Beraz, izen predikatu gisa, zenbaitetan *bezala* eta *bezalako* elkarrekin trukatagarriak direla dirudi. Horrenbestez:

- e. Semea aita *bezalako* da = semea aita *bezala* da.

Hala ere, NOLAKO eta NOLA bereiz daitezke zenbaitetan. Adibidez, *bezala* eskatzen du eta ez **bezalakoa*, perpaus hori mintzagai gisa darabilgunean, eskuineko perpausari halako marko bat ezarriz *bezala* erabiltzen dugunean:

- (241) a. Aita bezala, semea (ere) {argia, medikua, ...} da.
b. Semea {argia, medikua, ...} da, aita (den) bezala.

Hemen, (a)ren ordean ez dirudi honako hau esan daitekeenik:

- a'. **Aita bezalakoa*, semea ere {argia, medikua, ...} da.

Eta b' esan badaiteke ere, ez du (b)ren esanahi bera:

- b'. Semea {argia, medikua, ...} da, aita bezalakoa.

Hemen *aita bezalakoa*, *argia* sintagmaren aposizio antzeko bat da. (b)n, berriz, *aita bezala* hori perpaus osoari dagokio. Perpaus honek esan nahi du semea {argia, medikua, ...} dela, aita {argia, medikua, ...} den modu berean. Kasu honetan, hortaz, NOLA eta NOLAKOA bereiz daitezkeela ematen du.

Baina har dezagun orain honako adibide hau:

- c. Bertso-paperak biltzea ehizera ateratzea *bezalakoa* da (*Administrazioa euskaraz*, 17. zenb., 10).

Perpaus honetan zer galderari erantzun nahi zaio: *NOLAKOA da bertso-paperak biltzea* ala *ZER da bertso-paperak biltzea*? Ez dirudi kasu honetan NOLAKO galderari erantzuten diogunik. Perpaus horretan bertso-paperak biltzea zer den esan nahi da eta horretarako, gainera, *bezala*-k ematen duen hurbiltze kutsuaz baliatuz (ikus 3.2.3.5.c), bertso-biltze hori gutxi gorabehera ZER den esaten zaigu: esan beharrean bertso paperak biltzea ehizera ateratzea dela, hori erabat egia ez denez, *bezala* baliatzen dugu gauza biak elkarren *antzekoak* direla esateko. Horrenbestez, goiko perpaus horrek hobeto ematen du euskal belarrira beste era honetara:

- c. Bertso-paperak biltzea ehizera ateratzea *bezala* da.

Azken batean, pentsa liteke *-TZEA* gisako perpausari buruz ezin dela, berez, kualitatetik predikatu. Perpaus izateak hor badu eragina. Izan ere, *ixakurraren zaunka* nolakoa den galdetzea bidezko izan daitekeen bezala, ez du zentzu handirik *ixakurrak zaunka egitea* nolakoa den esateak. Modu berean, honako kontraste honetaz ohartu behar genuke:

d. *Nolakoa da nobela bat idaztea?

e. Nolakoa da nobela hori?

f. Zer da nobela bat idaztea?

g. Zer da nobela hori?

Bezala / bezalako auzia ere bide honetatik doala dirudi. *-TZEA* gisako perpausari buruzko predikatua ez dirudi *bezalakoa* izan daitekeenik. Izatekotan, *bezala* gisakoa izango da.

Honako honek ez du arazo handirik. Hemen ez da *bezalakaa*-rentzat lekurik.

(242) a. Ay, kondesa naizen bezela baserritar neskatxatxo bat banitz! (G. Arrue, *Santa Genoveva*, 19).

Moduaz ari gara. Horregatik, beste era honetan ere eman daiteke perpaus hori:

a'. Kondesa naizen moduan baserritar neskatxatxo bat banitz!

c. BEZALAKO, BEZAIN-en ordain

Herri hizkeran, *bezain*-en ordez erabiltzen da *bezalaka* zenbaitetan:

(243) a. Uzkudun bezalako ona (*Euskal Jokoak Bertsotan II*, 146).

Esan beharrik ez da horrelakoak ez direla gomendagarriak, *bezalako*-k bere eskuinera izen sintagma eramaten baitu eta ez, adjektibo bat, (243a)n bezala. Baina delako izen sintagma horrek izan dezake adjektiboa bere barnean, baina ordnan *bezalako* eta *bezain*, biak erabil badaitezke ere, ez dute esanahi bera:

b. Uzkudun bezalako boxeolari kementsuak gutxi izan dira Euskal Herrian.

Hau ongi eratua dago, baina kontu egin ezin dela izan beste honen baliokide:

c. *Uzkudun bezain* boxeolari *kementsuak* gutxi izan dira Euskal Herrian.

Nolabait esateko, (b)n *boxeolari kementsuak* hartzen da kontuan eta (c)n *kementsuak* bakarrik.

Ondoko adibide honetaz gauzak argiago utz ditzake, agian:

(244) a. Nirea bezalako gorbata gorria.

b. Nirea bezain gorbata gorria.

Horietan bi gorbata konparatzen ditugu. (a)n bi gorbata gorri horiek nolakoak diren esaten zaigu. Biak antzekoak direla esaten da, gorritasun maila konparatu gabe. (b)n, berriz, bi gorbaten gorritasun maila da konparatzen duguna: agian ez dira berdinak gorbatak, baina gorritasunari dagokionez, bata bestea bezain gorria dela esaten ari gara.

Beraz, *bezalako*, izenlaguna denez, izen bati dagokio, izen horrek adjektibo bat eraman badezake ere. *Bezain*-ekin, berriz, adjektibo haten gradua adierazten dugu. Horrenbestez, adjektiboekin (edo adberbioekin) bakarrik joan daiteke. Eta bataren ordezkotzat beste erabiltzea ez da zuzena.

Hortaz, honako adibide honetan ere arazo bera dugu:

c. *Adonis lango ederra* ta guztiz isila, alboerri guztietan lenengo mutila (E. M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 129).

Hizkera jasoan, hobe honela:

c'. *Adonis bezain ederra*.

Azken batean, esapide hauetan *bezalako bezain*-en ordezkotzat ematen da, beste batzuetan *halako hain*-en ordezkotzat ematen den bezala (ikus 8. oharra).

d. *BEZALAKO(T)XE / BEZALAXEKO*

Erakusleetan ageri den *-(T)XE* horixe berori dugu hemen *bezalako*-ren indargarri gisa edo.

- (245) a. *Eguzkiaren irriñoa bezalakoxe* begiratu zolia bialdu zion (T. Agirre, *Uztaro*, 32).
 b. *Bi uren artean iheri dagoen arraia bezalakoxea* zara zu (G. Aresti, *Tobera*, 275).
 c. *Zu bezalaxeko gaztetxo asko* aitortu ditu (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 92).

e. LAKO / LANGO = BEZALAKO

Bizkaieraz, *bezalako* barik *lako* edo *lango* erabiltzen da. *Lako* gehiago ageri da testuetan *lango* baino. Bestalde, Bizkaian, Mungialdean, *lasoko* ere erabiltzen da, Azkuek dienez:

- (246) a. *Koñatuak*, lagun-aurrrian, *ori lako* jazokunetan asarriaren beruak crazoten dauzan itzekaz *Motrollo zematu eban* (Kirikiño, *Abarrak*, 72).
 b. *Zu lako* bat beeratu dabee nos bait (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 81).
 c. Ez det inoiz ikusi *au lako* ibairik (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 409).
 d. San Luis Beltran ebillela misinuak egiten, eldu jakon bein konfesetara gizon bat ikaraz, ta izerdi otza erijola gorputzeti, egualako *bera lango* pekatari atsi-tuba santu andi baten oñetan (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 180).
 e. *Geu lasoko* bat (R. M. Azkue, *Morfología Vasca*, 180).

Lako-ren aurrean absolutiboa erakusten duten adibideak dira ugariak. Baina bestelakoak ere badira, hain erabiliak ez badira ere:

- (247) a. *Nik lako* suerte txarrik etxaukok inork munduan (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 251).
 b. *Baña artietan adoretan da mundubaren idolo zorua betikua balitz lako* pozagaz (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 266).
 c. *biar dan lako* modu ta itzalagaz Eleixetan ez egotetik (J. A. Uriarte, *Marijaren illa*, 85).
 d. *Maskararikan ez daula biar zuk lango* arpeia daukonak (B. Enbeita, *Nere apurra*, 33).

f. EZ BEZALAKO

Ez bezala esamoldearen parean *ez bezalako* ere aurkituko dugu. *Bezalako*-k konparazioa egin ondoren antzekotasuna dela markatzen digun legez, *ez bezalako*-k desberdintasuna dugula adierazten digu:

(248) a. Miren zu ez bezalakoa da.

Sarritan *inoiz*, *inor* eta tankera horretako elementuekin batera ikusiko dugu:

- b. *Inoiz ez bezalako* bertsoak entzun ditugu gaur.
- c. Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, *ni ez bezalakorik* (P. Axular, *Guero*, 16).
- d. Mundu guziak behatzen zion *bertzeak ez bezalako* gizon bati bezala (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia II*, 127).
- e. *Bestek ez bezalako* doai on andiak / Dazka Gipuzkoako baztar maitiak (J. I. Izueta, *Guipuzcoaren condairu*, 508).
- e. Urten dakizun bai, zuri bere / Orria eta ezkurra, /
Gazte gazterik / Jarri zaitean / Gure Arhola kutuna, /
Mundu guztitik egin daizuen / *Iñok ez lako* agurra...
(F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 34).

Gorago esan dugunaren arabera (ikus 3.2.3.4.1) berez, *ez* partikula mendeko perpauseko elementua da. Horrenbestez, aditza agerian egonez gero aditzarekin bat eginda joan beharko luke. Hala ere, *ez* + *bezalako* osagai bakarizat har litekeela dirudi, honako adibide hauetan bezala:

- (249) a. Gelditu ziran guziz biotz-aldatuak, *len ziren ez bezalakoak*, ta bestelakoak (J. A. Ubillos, *Cristau doctrin berri-ecarlea*, 97).
- b. Su gaitza ginuen beti hirian *egiten diren ez bezalakoetarik* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 38).

Hauei gorago aipatu dugun P. Iraizotzen adibidea gehi lekieke:

- c. Sainduena bezalakoa balitz, *orai garen ez bezalakoak* izanen ginake (P. Iraizoz, *Hitz lauuko lanak I*, 434).

Adibide hauek azken batean erakusten digutena da *ez* + *bezalako* nolabait lexikaldutako banakotzat hartua dela. Alde honetatik *bestelako*-ren pareko litzateke: *ni ez bezalakoa* = *nitaz bestelakoa*. Perpausa aditz eta guzti eman nahi denean, jokabide arrunta *ez* elementua aditzaren aurrean kokatzea izango litzateke. Adibidez, (249a eta b)ren ordean, honela izango litzateke:

(250) a. Gelditu ziren guziz bihotz-aldatuak, *lehen ez ziren bezalakoak*.

b. Su gaitza genuen beti hirian *egiten ez diren bezalakoetarik*.

Nolanahi ere, jokabide arrunta aditzik gabe ematekoa da, (248)koa, alegia.

3.3. DESBERDINTASUNEZKO KONPARAZIOA

3.3.1. MAILA

3.3.1.1. BAINO ... -AGO

Funtsean berdintasunezko maila-konparazioa aurkeztu dencan esandakoak berdin-berdin balio du desberdintasunerako ere. Jokoa sartzen diren elementuak berdinak dira. Bi gauza aldatzen dira: alde batetik konparazioa bideratzeko erabiltzen dugun morfema. Izan ere, oraingoan, *bezain* barik *baino* izango da baliatuko duguna. Baina horrekin haterra, nolakotasuna adierazten duen izenondoak nahiz aditzondoak -AGO atzikia eramango du, edo, bestela esan, adjektibo / adberbio konparatzaile bat agertuko zaigu (*handiago, politago, merkeago, hobe, hobeto, ...*). Beraz, oraingoan *bezain*-en parekotzat *baino ...-AGO* hartuko dugu.

Gorago esanak berriro gogora ekarriz, *baino*-k bideratzen du konparazioa. Elementu hau da, berez, mendeko perpaus konparatzailearen ardatza. Ezkerretara daramana perpausa da: aditza ager daiteke, -eN atzizkiaz hornitua, eta aditza agertzen ez denean -gehienetan hala gertatzen da— konparaziorako erreferentziatzat hartzen dena besterik ez zaigu agertuko perpaus horretatik. Sarritan, hala ere, erreferentzia emateko orduan perpauseko osagai bat baino gehiago ager daiteke.

Perpaus konparatiboak adjektibo baten edo aditzondo baten ezkerretara joan ohi dira. Horregatik, egitura arruntenak izen predikatuzkoak izan ohi dira: *A B baino X-ago(a) da* tankerakoak, edo adizlagunezkoak: *A B baino X-ago etorri da, A-k B-k baino X-ago kantatzen du*, etab.

(251) a. Nobela hau lehengoa baino sakonagoa da.

b. Gaur atzo baino hobeto aurkitzen naiz.

Gerta daiteke, hala ere, adjektibo hori izen sintagma baten barruan aurkitzea. Orduan, normalean, perpaus konparatiboa izenaren edo izen sintagma-
ren ezkerretara kokatuko da. Ondoko adibideek hori erakusten digute:

- (252) a. *Zu baño gizon umillagoak / ez ditut asko ikusi* (Txirrita, *Bertsoak* 2, 59).
b. Gure alkateak *beste edozeinek baino arropa garestiagoak* erosten ditu.

Honen azpian honako egitura hauek ditugu:

- a'. [Zu [Ø] zaren baino] gizon umilagoak ez ditut asko ikusi.
b'. Gure alkateak [beste edozeinek [Ø] (crosten dituen) baino] arropa garestia-
goak erosten ditu.

Nolanahi ere, esan behar da izen sintagma baten barruan kokatua agertzen zaigun konparatibo honek zenbaitetan zama handiegia eragiten diola sintagma-
mari eta nahiago izaten dugula adjektiboa –bere konparatibo eta guzti– zuzenean izenari atxiki beharrean erlatibo baten bidez eranstea (ik. 3.1.7). Adibidez, ondoko perpaus hauek baliokideak dira baina bigarrena errazago moldatzen dela dirudi:

- (253) a. *Izarra baino andre ederragoa* ihesi joan zait.
b. *Izarra baino ederragoa zen andrea* ihesi joan zait.

Eta azken honen ordean, berriz, honako hau eman zigun Txirritak:

- c. *Izarra baño ederragoko / andria* juan zait igasi (Txirrita, *Bertsoak* 2, 139).

Hona hemen beste bat:

- d. *Trunioa baino larriagoko orroa* bota zuen.

Hemen *-KO* atzizkiak izen bati inguratzaile bat eransteko balio du.

3.3.1.2. *BAINO* eta *BAIZEN*

Desberdintasunzko maila-konparazioa bideratzen duen aditzondoa *baino* dela onartu dugu orain arte. Hori da forma nagusia. Baditu, hala ere, literatur tradizioan eta, hatez ere, ahozkoan, zenbait aldaera: *bano*, *beno*, *bainon*,

beino, maño, miño, etab. Bistan da batasunaren izenean hauetatik guztietatik bat aukeratzekotan zein hobetsi behar den: *baino*.

Hala ere, gogoan izan aditzondo honen tankera bera duen beste *baino* bat badela, aurkaritzako juntagailuen artean, *baizik*-en balio berarekin, sailkatu duguna (ik. *EGLU IV*).

Baino-k badu, hala ere, bizkaierazko tradizioan, beste ordain bat: *baizen* bere aldaerekin.

- (254) a. *Atorren baxen* urrago narrua (*Refranes y Sentencias*, 281).
(= Atorra baino hurbilago iarrua)

Adibide honetan konparazio burua den osagaia, *atorren*, genitiboan ageri zaigu. Ohikoa, nolana ere, absolutiboan erabiltzea da.

- b. Jaungoikoak berak ezin emon eta asmatu leikean *Meza Santea baxen* gauza andia gorik (P. A. Añibarro, *Escu-liburua I*, 84).
- c. *Semea baizen* aita Eternoa nagusiago da? (*Catecismo de Anzuola*, 3).
- d. Baiña zu *baizen* obeto / maite dot neure mendia (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 32).
- e. Ia, ba, laster etorten aizen / aberatsago *Rotxil bat baizen!* (K. Enbeita, *Bertsoak*, 191).
- f. Guztiz da garratza eriotzearen gomutea (...) Baya bildurgarria bada bere, ezta-go *bera baxen* gauza obagorik bakotxari pekatu rik iñesi eragiteko (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 215).

3.3.1.3. Zenbait adibide

Gainerako konparatiboekin egin den bezala, hemen ere adibide zerronda bat eskaintzen da. Perpaus txertatua aski murriztua agertu ohi da hemen ere. Perpaus murriztu horretatik gelditzen diren “arrastoak” zein diren kontuan hartuz egingo da sailkapena orain ere.

a. Aditz eta guztiko perpausa + BAINO + ... -AGO

- (255) a. Jakizu beraz *uste duzun baino* pollitago zirela (P. Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 81).

- b. Zure arimak eztu etsai gaixtoagorik, zure *haragia den baino* (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 140).
- e. Inon ere ezin arki liteke / *emen dan bañon ohea* (F. V. Echagaray, *Festara*, 68).
- f. Eta nahi dena bethi gan gorago / *ardura da goidituko / aitzinean zagon beño* beherago (L. Goyhetché, *Fableac*, 228).

b. Aditz modalak + BAINO + ...-AGO

- (256) a. Bekatu gureak barkatze berean egiten du Jaungoikoak *guk adiraz al baño* on ta ontart agitz andiagoa (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 317).

Hemen ageri den *agitz* honek konparatiboa mailakatzeko balio du (ik. 3.3.1.4). Aditzondo honen kokaguneari dagokionez, berriz, izenaren ezkerretara joatea da ohikoena:

- a'. ... *guk adierazi ahal baino* *hagitz* on eta ontarte handiagoa.

Hona hemen beste adibide batzuk:

- b. Zeinbat dendera ta tratulari gitxika lapurreta zitalak egin daruezanak. (...) gauza txatar ta erdi galdubak ontzat saldubaz edo *biar baño* goraguan? (J. A. Moguel, *Confesio ona*, 71).
- c. *Behar baino* gizenago zen sabelondotik (J. Mirande, *Miranderen idazlan hau-tatuak*, 46).
- d. Lekhuak etzituzten *nahi baino* lastertago hustu... (Zerbitzari, *Ichtorio Sain-dua*, 63).
- e. Ez da ez beti uros hirirat doana: Han ere aurkitzen da segun asko pena: *Nahi baino* maizago hastio den lana (M. Etchamendy, *Etchamendy bertularia*, 180).
- f. Urrats bat *behar baino* aitzinago edo gibelerat egiten duena, galdua da! (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 22).

c. USTE IZAN + BAINO + ...-AGO

- (257) a. Eriaren ikhusterat badohatzi. *Uste baino* hobeki khausitzen dute, burua oso, izpiritua xuxen eta erne (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 250).
- b. *ae*k *uste baino* gauza bikañagoak egiten dirala Gipuzkoako arkaiztarteetan (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 155).

- c. *Hik uste baino andre hobeara eman zaukan beharrik Jainkoak* (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 43).

d. *Izen sintagma ergatiboa + BAINO + ...-AGO*

- (258) a. *Zenbat eta zenbat egongo diran nik baño milla bider egokiago eta sakonago erantzungo liotekenak galdera oni!* (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 29).
- b. *Ori Praide Prantziskotarrak nik baño obeto esango lizukete* (M. Lekuona, *Santa Clara*, 117).
- c. *Askozaz ere hobeki zekien cuskaraz Xenpelarrek nik baino* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 115).

e. *Izen sintagma absolutiboa + BAINO + ...-AGO*

- (259) a. *Argi ikusten nuan alare, ustel ez ditekena baño ditekena kaxkarrago dala; ukieziña ukibera baño onbea, ...* (Orixe, *Aitorkizunak*, 153).
- b. *Larrea Burgos baño hobea*, Toledoren idea (*Refranes de Garibay*, A50).

f. *Izen sintagma datiboa + BAINO + ...-AGO*

- (260) a. *Beharago behar diogu Jainkoari etsaiei baino* (P. Axular, *Guero*, 305).
- b. *Peruri baino politago atera zait niri irudia*.

g. *Adizlaguna + BAINO + ...-AGO*

- (261) a. *Emen baño otz andiagoak diran lekuetan* (Aguirre Asteasukoa, *Erucusaldia* II, 81).
- b. *Atzo baino eguraldi hobea dugu gaur*.

h. *NAHIAGO, GURAGO, MAITEAGO, BEHARRAGO, HOBE, HOBE-TSI..., predikatu konparatiboekin*

• Adjektibo edo aditz hauek ere konparatiboak dira. Horrenbestez, *baino-*dun egitura eskatuko dute, konparazioaren erreferentzia gauzatuko bada.

- (262) a. *handik harat, nahiago baititu estali baño, agertu, kanpatu eta famatu* (P. Axular, *Guero*, 89).

- b. Nik, *ari jarraitu baiño*, aitonen esanak entzutea gurago dot (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 25).
- c. Etxeko arropa zikina nahiago dut (...) etxean garbitu, *etxetik kanpokoan aurrean baino* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 217).

Hemen konparatzen direnak bi nahi izate maila direla esan dezakegu. (a)k, adibidez, *estali* ematen du alde batetik (hau da konparazioaren burua, erreferentzia puntua) eta, bestetik, honekin konparatzen diren beste osagarriak: *agertu*, *kanpatu* eta *famatu*. Alegia, estali nahi ditu, baina nahi izate honen maila txikiagoa da agertu, kanpatu eta famatu nahi izatearen maila baino: estali nahi ditu, baina nahiago du beste zer bait.

Ondoko perpaus honetan ere gauza bera gertatzen da, baina oraingoan *nahiago nuke*-ren osagarriak bata izen sintagma arrunta (*munduko izate guztiak*) eta bestea baldintza tankerakoa (*horixe egingo bazenu*) ditugu:

- d. Ai seme, naiago nuke *munduko izate guztiyak baiñon*, orixen egiñgo bazendu (V. Mocoroa, *Damuba garaiz*, 10).

Honako honetan, berriz, *hobetsi* predikatuan bertan dago konparatiboa (*hobe*). Konparazioaren bi muturrak ezarri nahiz, *baino*-ren bidez osatu du perpausa:

- e. Bertzen koeitak, *neureak bano / hobetsiz*, heier jarraikiten, / hark zauztan neureak egiten (A. Oihenart, *Poesiak*, 50).

Gehienetan, hala ere, erreferentzia puntua ez dugu aipatzen. Hots: perpaus mendekorik gabe ematen dugu *hobetsi*. Aditz hori hitz elkartua denez, ezin zaio bere osagaietako bati (*hobe*-ri, esaterako) ezer erantsi.

• **NAHIAGO / HOBE** eta *hauen tankerako osagarriaz ohar bat*

Nahiago / gurago bezalako predikatu baten osagarria, predikatu horren subjektua eta perpaus osagarriarena erreferentziakide direnean, normalean partizipioan joan ohi da. Horrela, normalena *nahiago / gurago dut ...-tu baino ...-tu* da (ik. (262a) adibidea). Hala ere, beste honako hauek ere zilegi dira:

... -tu baino ... {nahiago / hobe ...} ...-tzea (ik. (262b)ko adibidea)

... -tzea baino ... {nahiago / hobe ...} ...-tzea

(263) a. Nahiago dut saltzea alokatzea baino.

Hobe-ren kasuan, berriz, normalena predikatu honen subjektuak *-TZEA* forma hartzea da:

b. Hobe da isilik egotea.

Baina konparazioaren bi muturrak agerian daudenean partizipioa ere agertzen ahal da:

c. Adiskide txarra baino hobe da bizi bakarrik

dio koplak, baina beste era honetara ere esan zitekeen:

c'. Adiskide txarra baino hobe da bakarrik bizitzea.

Nolanahi ere, arazo honetaz aditz jokatu gabez osatutako perpaus txertatuei buruz hitz egiterakoan arituko gara.

i. Osagui bat baino gehiago + BAINO + ...-AGO

(264) Exenplu ona manurik gabe ere hobeago da, *manu guziak exenplurik gabe heino* (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 34).

Hemen konparazioaren bi muturrak honako hauek dira: *exenplu ona manurik gabe* alde batetik, eta *manu guztiak exenplurik gabe*, bestetik. Lehenbizikoa hartzen da erreferentzia puntutzat eta horren arabera ezartzen konparazioaren bigarren muturrari buruzko predikazioa.

j. ... BA- ... + BAINO + ...-AGO

Gainerako konparatiboetan bezala, oraingoan ere konparazio buru gisa baldintzaren protasia ager daiteke. Horrek esan nahi du, apodosia ezabatua izan dela. Dena den, apodosi hori zein izan daitekeen erraz asma daiteke testuiguruaren arabera:

(265) a. *Bizi balitz baino hobeki* (J. Ithurry, *Grammaire basque*, 424).

b. Ezin die kalterik egin bizitzekotz baitezpadako diren organuei, eta biziak *bestela balitz baino askoz luzaroago* iraun dezake (J. Mirande, *Miranderen Idazlan hautatuak*, 80).

c. gazta-erdi bat ere atera zuten, *kare-mazaz egiña balitz baino* gogortagoa (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 124).

k. *IZAN aditza + -eN + BAINO + ...-AGO*

(266) a. *Den baino handiagoa*, nekez egingo zaizu landare hori.

Horrelakoetan, perpaus txertatutik gordetzen den elementu bakarra aditza da. Perpaus horrek azpian dukeena honako hau izango litzateke: (*landare hori*) *x handia da*.

b. *Den baino ere hamar aldiz* laburtago iduritu zitzaitan bide hori (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 34).

c. Legea lege; beharko dugula jasan legea den bezala eta *den baino* dorpeago (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 151).

l. *Adjektiboa + BAINO + adjektiboa + -AGO*

Horrelakoetan konparazioaren bi muturrak adjektiboak dira. Perpaus nagusiko adjektiboaren maila finkatzeko hartzen den erreferentzia puntua izen sintagma berari aplikatzen zaion beste adjektibo bat da, bi adjektiboen mailak konparatzen ditugula:

(267) a. *Eder heno handiago da* (L. Gèze, *Elements de Grammaire Basque*, 246).

b. *Zahar baino* zuhurtagoa da (J. Ithurry, *Grammaire basque*, 424).

Izenlagunak ere hemen sar genitzake:

c. eginen duzu gehiago, / zeren bainaiz, bizi nizano, / *nihaturen bano* zureago (A. Oihenart, *Poesiak*, 45).

Dena den, (a) eta (b) bezalako adibide hauetatik ondorio handiegirik atera ezin badaiteke ere, badirudi horrelako esapideek bi esanahi eta bi egitura

ezkututzen dituztela. Anbiguoak direla. (b) perpausa, adibidez, honelatsu interpreta liteke: halakoa zaharra da baina, zahartasun maila hori erreferentziatzat hartuta, haren zuhurtasun maila handiagoa da. Hau izango litzateke interpretazio arruntena eta ohikoena. Baina beste interpretazio bat ere zilegi da. Oraingoan ez dugu bi adjektiboren mailen arteko konparazioa egiten, bi baieztapenen artekoa baizik. Har dezagun kontuan honako beste adibide hau:

d. *Lotsa baño bildurrago* ñok, ikaratu najok (P. I. Barrutia, *Acto para la Nochebuena*, 227).

Heren esaten dena ez da hainbeste "lotsa naiz baina nire lotsaren gradua bildurrarena baino apalagoa da". Esaten dena da: "ez naiz lotsa, bildur naiz". Edo nahiago bada: "*lotsa naiz eta bildur naiz* bi baieztapenen artean, bigarrena da egiago, edo lehenbizikoa ez da egia eta bigarrena bai". Hori, *baino areago* esapidearen bidez ere eman daiteke aditzera:

d'. Bildur nauk, lotsa baino areago.

m. BAINO + LEHEN(AGO)

Perpaus konparatibo baten bidez maila ezartzen ahal diogu adjektibo zein adberbio bati. *Lehen* eta *lehenago* denbora adberbioak ditugu:

(268) a. Indurain baino *lehen* iritsi zen gora.

b. Zuek uste duzuen baino *lehenago* amaituko dut lana.

Berez, *lehenago* da konparatiboa baina -AGO atzizkirik gabe ere balio hori izan dezake.

Gainerako konparatiboetan bezala, *baino lehen(ago)*-ren ezkerretara perpausoko edozein osagai koka daiteke. Honako honetan, adibidez, *nork sintagma* bat dugu:

c. Orai zuk soilican darabiltzazun arropa horiek, *zuk baino lehen* erabili zituen ardiak (P. Axular, *Guero*, 416).

Ondoko honetan, NOR sintagma:

d. Illak arkitzen dirà *gu baño len* bizitu zirànak (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 59).

Aditz eta guzti ere eman daitezke perpaus hauek. (b) horrefakoa da. (c) ere, adibidez, aditzez hornitua eman daiteke:

c'. Arropa horiek, *zuk erabili dituzun baino lehen* erabili zituen ardiak.

Perpaus hauek ez dute misterio berezirik, gainerako konparatiboak bezalakoak dira. (c) perpausaren egitura, hain zuzen, ezaguna dugu:

C''. [zuk Ø (erabili dituzun) baino] lehen erabili zituen ardiak.

Baina bada beste egitura bat ere, zerbait berezia dena:

(269) a. Larunbata baino lehen ezin naiteke etor.

Hemen konparaburutzat, edo aditzondo konparatiboaren erreferentzia puntuzat ez da hartzen, goian bezala, “zuk arropak NOIZ erabili dituzun” moduko ezer, denbora erreferentzia jakina duen sintagma bat baizik: *larunbata*. Larunbata zer den jakinik, erraz da jakitea noiz ezin etor naitekeen: “larunbata baino lehen”, hain zuzen. Hau esateko beste modu batzuk badira, zenbait posposizioz baliatuz (*arte, orduko, aurretik*, eta abar).

a'. Larunbata {orduko, aurretik, arte, ...} ezin naiteke etor.

Hauetan zail da perpausa dugula pentsatzea, zail den bezala aditza aurkitzea.

Larunbata bezalako sintagma batek denbora erreferentzia berekin du.

Baina aipatu beharreko beste itzuli bat ere bada, *baino lehen(ago)* tartean duena, eta, egituraren aldetik behintzat (a)ren parekoa dena.

b. *Denbora asko igaro bañon len* ikusi ziran predikatzen onen frutu ugariak (C. Beovide, *Asis'co loria*, 59).

c. *Abraham jaiò baino lehen* (Haraneder, *Testament berria*, Jn, 8, 58).

d. *Abraham sortu baino lehenagokoa* naiz ni (*Elizen arteko Biblia*, Jo, 8, 58).

Hauetan, argi dago, mendeko adizkia laguntzailerik gabe ematen dugu. Subjuntiboan ere joan daiteke adizkia:

e. *Bestek gure ordez sor dezan* baino lehen (I. Sarasola, *Euskal Hiztegia*, 94).

Perpaus nagusiko aditza geroari buruzkoa denean gertatzen da subjuntiboa:

f. Egizu lan hori ni etorri baino lehen.

(= Egizu lan hori ni etor nadin baino lehen).

g. Diru guztiak ahitu baino lehen itzuliko naiz etxera.

(= Diru guztiak ahi ditzadan baino lehen itzuliko naiz etxera).

Zer dute perpaus hauek berezia? Goiko (a)ren parekoak dira, baina denbora erreferentzia zehatza duen sintagma bat (*larunbata, hamaikak, bihar, ...*) hartu beharrean erreferentzia puntutzat, gertaera baten noizkoa hartzen dugu. Adibidez, *larunbata* barik, Abraham jaio zenekoa. Horrela, Abraham noiz jaio zen kontuan harturik, jaiotza hori baino lehen. Egituraren aldetik ez dirudi alde handia denik "larunbata baino lehen" eta "Abrahamen jaiotza baino lehen" esatearen artean.

Zer konparatu nahi den, halako egitura hautatuko da. Har ditzagun honako adibideak:

h. [Abraham ---] baino lehen(ago) jaio zen Abel.

i. [Abraham jaio] baino lehen(ago) gertatu zen hori.

Diferentzia ezaguna dugu: batean *Abraham eta Abel NOIZ jaio ziren* diogu. Aditz bera dugunez bi perpausetan (*jaio*), behin bakarrik adieraztea aski dugu. Hori da (h)ko kasua.

(i)ko adibidean ere jaiotza unea hartu dugu erreferentziazat.

Horrelako perpausak laguntzailerik gabe ematen ditugu. Kontu hau denbora-aditzondockin gertatzen da: gorago aipatu da *bezain + laster*-ekin zer gertatzen den (3.2.1.2.m). Hemen ere gauza bera.

Gainera, *aurretik, orduko* eta antzeko posposizioez baliatuz ordezekoak eman daitezke:

j. Abraham jaio {aurretik, orduko} gertatu zen hori.

Abraham jaio aurretik diogunean, *aurretik* posposiziotzat hartuko dugu eta honek aditz jokatugabeko perpausa gobermatzen duela esango dugu. *Baino lehen*-ekin ere gauza bera. Horrenbestez, aditz jokatugabeko perpausen azterketa egiten dugunean, berriro itzuli beharko dugu esapide hauetara.

Nolanahi ere, *baino lehen(ago)* formako esapide hauek NOIZ galderari erantzuten diotenez, gramatiketan denborazkoen artean kokatu ohi dituzte. Baina, nolabait, konparatiboak ere badira.

k. Eldu jakon bein-edo-bein ludi au izteko orduba, berak *gura baño lenago* (Kirikiño, *Abarrak*, 78).

l. Goguan dakat *juan baño lenago* itza eman zirala, denbora gutxi barrun etorriko zala (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 139).

m. Alkargana *batu baño lenago* altxatu enien zan plazako jende guzia deadarrez (G. Mujika, *Pernando Amezketarra*, 25).

n. Aizea *asi baño len* bidean oñez zihoan gizon batez gogoratu nintzan, erritik ain urrutit (A. Anabitarte, *Aprika'ko busamortuan*, 96).

o. Ain bizitza atsegingarria Adani eta bereai betiko *eman baño len* Jaungoiko Jaunak gizonaren zintzotasuna ikusi nai izan zuan aingeruena bezelaxe (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 46).

p. Burua eta eskuak erabiliak zituen gazte-gaztetandik herriari dihoazkion arazoetan, gerra *amaitu baino lehenagotik*, hain zuzen (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 78).

Jakina, goiko adibiderik gehienetan NOIZ galderari erantzuten bazitzaion, azken honetan NOIZTIK edo NOIZDANIK galderari erantzuten zaio. NOIZKO, NOIZ ARTE, ... galderari erantzuteko moduan ere antola daitezke perpausak.

• GEROAGO / BERANDUAGO

Goian eman ditugun adibideetan *lehen(ago)* aditzondoarekin jokatu dugu. Honen arabera, funtsean, bi itzuli hauek gerta daitezke gure jardunean: (270)ekoa, konparatibo arrunta dena, eta (271)ekoa, zerbait berezia, goian esan bezala:

(270) a. Larunbatean baino lehen(ago) etorriko naiz.

b. Miren baino lehen(ago) etorriko naiz.

(271) a. Larunbata baino lehen(ago) etorriko naiz.

b. Eseri baino lehen(ago), garbitu eskuak.

c. Mirenek alde egin baino lehen(ago) iritsi nintzen.

Hots: (270)eko perpausetan, larunbatean noiz etorri nintzen kontuan harturik, orduan baino lehenago etorriko naizela diot, eta Miren noiz etorri zen kontuan izanik, hura baino lehenago etorriko naizela. (271a)n, asteko egun bati egiten zaio erreferentzia. (271b eta c) berriz, elkarren parekoak dira: bi gertaeraren artean ezartzen da konparazioa: eskuak garbitzea mahaian esertzea baino lehenago gertatzen dela edo Mirenen alde egitea eta ni iristea ez zirela une berean gertatu. Nolanahi ere, (271)ekoak mota berekotzat jo litezke.

Ikus dezagun orain zer gertatzen den beste denbora-aditzondo batzuekin. Denok ikusten dugu *lehen(ago)*-ren parean *gero(ago)* daukagula. Baina *berandu* eta *beranduago* ere hor ditugu. Hauen kontrakoak liratekeenak, ordea, berez ez dira *lehen* eta *lehenago*, *goiz* eta *goizago* baizik. Horrenbestez, pentsa liteke, konparazioa aditzondoan mailari buruz ezar daitekeenez (*beranduago*, *pozago*, ... *bezain motel*, ... *bezain alferrik*, eta abar), *baino lehen(ago)* bezalaxe, *baino geroago*, *baino beranduago*, *baino goizago* ere esan daitekeela. Eta hala da. Gertatzen dena da goiko zerrenda horrek iradokitzen duen simetria hori ez dela erabat zehatza. Gauzak ez dira hain kuadrikulatuak, nonbait.

Batetik, egia da zenbait testuingurutan behintzat ongi bereiz daitekeela *geroago* eta *beranduago*. Adibidez, konparabururik gabe ari garela, honako bi hauek esan genitzake:

(272) a. Peru eta Miren zortzietan elkartu ziren. Ordu erdi geroago agertu zen Pello.

b. Peru eta Miren zortzietan elkartu ziren. Ordu erdi beranduago agertu zen Pello.

Eman dezagun gertaera historikoez ari garela. Adibidez, Espainiako azken gerra eta II. Mundu Gerra. Egoera honetan, zein da ondoko bietan esaldi zuzena?

(273) a. Espainiako gerra 1939an amaitu zen. II. Mundu Gerra geroago hasi zen.

b. Espainiako gerra 1939an amaitu zen. II. Mundu Gerra beranduago hasi zen.

(a)k zuzenago dirudi. Zenbait hiztunentzat behintzat hala da.

Eman dezagun orain norbaitek, bere historia-jakituria erakutsi nahiz, honen antzeko zerbait esaten duela:

c. Espainiako gerra 1789an amaitu zen.

Honi erantzun nahi dionak honako hau esan beharko luke:

d. Bai zera! Espainiako gerra askoz geroago izan zen.

Geroago eta *beranduago*-ren artean badateke, hortaz, diferentzia. Desberdintasun horren berri hiztegiak eman beharko liguke.

Konparaburua adierazia dagoenean, ordea, gauzak nahasixeagoak gertatzen dira. (270-271)ko adibideen parean, kontrakoa esan nahi bagenu, hots: *lehenago* barik *geroago* edo *beranduago*, adibidez, logikak eskatuko lukeena gorabehera, honako gramatikaltasun edo onargarritasun epai bauekin aurkituko ginatke:

(274) a. Larunbatean baino geroago etorriko naiz.

b. Miren baino geroago etorriko naiz.

c. Larunbatean baino beranduago etorriko naiz.

d. Miren baino beranduago etorriko naiz.

e. Larunbata baino geroago etorriko naiz.

f. *Exeri baino geroago, garbitu eskuak.

g. *Mirenek alde egin baino geroago iritsi nintzen.

h. Larunbata baino beranduago etorriko naiz.

i. *Mahaian eseri baino beranduago, zerbitu ardoa.

j. *Mirenek alde egin baino beranduago iritsi nintzen.

Bada, hortaz, desoreka apur bat, zeren datuak ez datoz gure nola-halako "logikarekin" bat. *OEH*-an, esaterako, *geroago*-ri buruz honako hau esaten da: "(Con término de comparación explícito, o con cuantificador) ... Muy poco usado al Norte". Baina ez hori bakarrik. Izan ere, konparaburu eta guztiko adibide banaka batzuk besterik ez baitzaigu eskaintzen hiztegi horretan:

- (275) a. Nai eguerdia baño lehenago edo geroago (M. O. de Capanaga, *Doctrina christiana*, 58).
 b. Geiena loratu zan kazkabarra baño geruago (M. Soroa, *Baratzan*, 29).
 (gure (274c)-ren parekoak izan daitezke bi perpaus hauek).
 c. (Lan) au baño geroago asiak (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 10).
 (hau, berri, konparatibo arrunta dugu, (274 a eta b)ren parekoa).

Beranduago-rekin ere gauza bera:

- (276) a. Behar zen hil hura baino hogcita-hamalau urte berantago, 1596 urtean (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 57).
 b. Afalondoa luzatzen dute / oi dan baño berantago (Orixe, *Euskaldunak*, 94).

(276)ko hauek konparatibo arruntak ditugu.

Kontua da oso adibide gutxi daudela *baino*-z osatuak. Hortaz, *baino* + {*geroago* / *beranduago*} gisako itzuliak hain mugatuak badira eta hain lekukotasun gutxi badira, nolako itzuliak erabiltzen dira? Hona hemen zenbait:

- (277) a. Gelditzen zelaik birjen erdi baino lehen, erditzcan eta *erdias geroz* (*Catecismo de Aezcoa*, 10).
 b. Geretan zala Birjiña jaio baño lenago, da jaiazean, da *jaiozkero* (J. P. Betolaça, *Doctrina Christiana*, 9).

Eta goiko (274 f-g eta i-j)ko adibideen ordeez ere, bestelako itzulietara joko genuke:

- (278) a. Mahaian eseri {ondoren, eta gero, ...}, zerbitu ardoa.
 b. Mirenek alde egin {ondoren, eta gero, ostean, ...} iritsi nintzen.

Horrenbestez, <A B baino X-AGO {etorri, joan, hil, ...}> moduko esa-

moldeetan, *geroago* eta *beranduago* biak zilegi direla ematen du. Hori da goiko (274 a-d)ko adibideek iradokitzen dutena.

(Dena dela, *larunbatean baino beranduago iritsi zara gaur* dioenak ez dio, nahi eta ez, atzo eta gaur berandu etorri zarela. Gerta daiteke garaiz iristea bai larunbatean eta bai gaur, nahiz eta gaur larunbatean baino beranduago iritsi).

Garbi dago, azkenik, <partizipioa + baino lehenago> itzuliaren parekorik ez dugula *geroago* eta *beranduago*-rekin. Hauetan bestelako itzulietara jotzen dugu, posposizioak erabiliz. <Larunbata + baino {geroago; beranduago}> modukoak, berriz, ez dira oso crabiliak eta zenbait hiztunentzat behintzat aski arrotz gertatzen dira.

Dena dela, goian esan bezala, *geroago / beranduago* hautua hiztegi arazoa da. Berriro itzuli beharko dugu honetara denborazko perpausak aztertzerakotan. Gainera, zenbaitetan aditza jokatu gabea denez, hauen azterketa xehea *geroago* (ez *beranduago*) egingo da.

3.3.1.4. *Desberdintasunari maila ezar dakioko*

Adjektibo edo adverbio baten maila adieraz daitekeen bezala –*OSO handi, NAHIKO pozik*, etab.– konparazioa ezartzen dugunean eta zerbait beste zerbait baino *X-AGO* dela esaten dugunean, desberdintasun hau ere mailaka daiteke. Alegia, *zenbat X-AGO* den aditzera eman daiteke. Hots: desberdintasuna zenbaterainokoa den esan dezakegu: *bost metro luzeago, bi urte zaharrago, askoz gazteago*, etab. Honako adibide hauetan ere horixe ageri da:

- (279) a. Orduan *hagitzez dohatsuago* bide gintezke orai garen baiño (M. de Chourio, *Imitacionea I*, 25, 9).
- b. Beste urteak baiño *egun batez andiago* dana (M. Larramendi, *San Agustin*, 16).
- c. Zeruko argizagi guziak elkarrekin baiño, *are ederragoa* eta distiantagoa dela (J. Haraneder, *Gudu izpirituata*, 138).
- d. Mendielako hizi leku oek dira etxeak baiño *askoz ta askoz lenagokoak* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 224).

Ikusten denez, konparazioaren mailakatzeko hori bideratzeko *askoz, are,*

hagitzez eta horrelakoak erabiltzen dira. Bestelako adberbioak edo zenbatusun sintagmaak ere ager daitezke, adierazi nahi denaren arabera:

- c. Zenbat eta zenbat egongo diran nik baño *milla bider egokiago eta sakonago* erantzungo lioketenak galdera oni (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*. 29).

Eta denborazko aditzondoekin edo neurri adjektiboekin ari garela ere zenbatusuna ezar dakioke *-AGO*-ri:

- f. Kontu horiek *bost urte geroago* gertatu ziren.
g. Leihatila, trena iritsi baino *bost minutu lehenago* irekitzen dute.
h. Txanpon hau beste hori baino *bi gramo astunagoa* da.

3.3.1.5. BAINO + ERE

Konparazioari indar handiagoa emateko edo, *ERE* lokailua tarteka daiteke perpaus konparatiboaren eta adjektiboaren (edo adberbioaren) artean:

- (280) a. *Begiz ikusia baño ere* egizkoagotzat dauzkagu (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azulpenak*, 25).
b. *Leen zan baiño ere* cuskaldunago itzuli [zen] (J. Mokoroa, *Erraondo-ko atzen dambolinteroa*. 19).

3.3.1.6. BAINO-dun perpausaren kokagunea

Konparatiboek erakusten duten ordena nagusia goian azaldu duguna dela esan daiteke. Hots: [*perpaus konparatiboa + konp. morfema + dagokion osagaia*]. Hala ere, perpaus konparatiboa bera –hots: *baino* ardatz duena–, mugi daiteke dagokion adjektiboaren edo adberbioaren ezkerretik eskuinera, adibidez (ik. 3.1.8). Beraz, perpaus horrek askatasun handia du perpausaren dagokion kokagunea hartzeko orduan.

- (281) a. Mendi hori *beste hau BAINO* politagoa da.
b. Mendi hori politagoa da *beste hau BAINO*.

Hona hemen beste hauek ere:

(282) a. Ez den / dantza politagorik / gure dantza oiek baiñon / agertu iñundik (M. Atxaga, *Guztetxo*, 62).

b. zeure ordenan da konbentu gehiago, berze ordena sakratu guztietan den baino (Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 173).

Azken batean, bestelako zenbait gradu adberbiorekin ere horixe gertatzen da:

(283) a. Zaldi hori *OSO* ona da.

b. Zaldi hori ona da *OSO*.

Perpau konparatiboak adjektiboaren edo adberbioaren ezker aldeko kokagunca gorde arren, gerta daiteke *baino*-ren eta adjektiboaren artean perpau nagusiko beste elementuren bat sartzea, konparatzen diren bi elementuak *baino*-ren bi aldeetan, ezker-eskuin, kokatzen direla:

(284) a. Lautan eta geiagotan be iraindu dozu nire emaztia, ta *aldi bakotxian baiño URRENGUAN* samiñago iraindu be (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 89).

b. *Lana baiño ALPERKERIA* maiteago dogu ta lan gogorra baiño erreztxua edonok naiago (J. Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 116).

c. *Illetak baiño ARREN ETA ESKARI BERO GARTSUAK ILLEI* geiago lagundu daitse Jaungoikoaren aurrean (J. L. Zutagape, "Matxin Mungiarra", *Euskaltzale* 1899, III, 138).

Honako honetan, berriz, perpau nagusiko aditza tartekatatu da perpau konparatiboaren eta dagokion adberbioaren artean:

d. *Gari-pilleko txoria baiño / BADA* pozago dagonik (Orixe, *Euskaldunak*, 348).

Argi dago, hortaz, [... *baino*] osagaia berez dagokion *-AGO* konparatiboaren ondo-ondoan ez ezik perpauaren eskuin muturrean eta ezker muturrean ere joan daitekeela.

Dena den, ordena aske xamar hau lehengo denboretan hedatuagoa zela dirudi. Gaur, ordena aski finkoa dela ematen du: [... *baino* + (Izena) Adj / Adb + *-AGO*].

3.3.1.7. BAINO-z osaturiko zenbait esapide

Konparazioak askotan larregikeria hutsak izaten dira. *Handi baino handiago* esaten dugunean, adibidez, ezin izan daitekeen zerbait esaten ari gara. Esan egiten dugu, hala ere. Esateko moduak dira, hortaz. Horrelakoetan egitasuna baino areago esan nahi denari hanpadura nola eman izaten dugu gogoau. Hona hemen horrelako zenbait esapide.

a. *Galde hitzekin: ZEIN BAINO ZEIN ...-AGO, NOR BAINO NOR ...-AGO, NOIZ BAINO NOIZ ...-AGO, etab.*

(285) a. *Nok baiño nok obeto derautse kantetan* (F. Arrese Beitia. *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 393).

b. *Zein baiño zein txairoago, bata baiño bestea dotoreago, nor baiño nor txanbeliñago* (E. Erkiaga, *Arranegi*, 41).

Perpaus hauek erakusten duten bezala, konparazioa bi *nor*, *zein* edo dena delakoren artean ezartzen da. (a) perpausean, adibidez, nola kantatzen den esaten da kantari guztiak elkarrekin konparatuz. Horregatik, badirudi *-AGO*-dun adjektiboa edo aditzondoa beharrezkoa dela. Horrek esan nahi du gaur maizegi erabiltzen diren *nor baino nor arituko dira* edo *bihar Athletic eta Errealta nor baino nor...* moduko esapideei zerbait falta zaiela, adjektibo edo aditzondo konparatiboa, hain zuzen:

c. Bi pelotariak nork baino nork hobeto jokatu dute.

Badirudi modu superlatiboa adierazteko bide bat dela: (a)n adierazten da denek ere guztiz ongi kantatzen dutela eta (b)n denak *guztiz txairo*, *guztiz txanbelin*, ...

Hona hemen honelako zenbait adibide:

d. *Mutilak, eta neskaak dira, illuna baino beste testigurik ez daukeela, zein baino zein nasaijago, ta lotsa galdukuago*, bigiria egiten dabeenak (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 112).

e. *Arana Goiri eta Azkue ez ziren talde berekoak euskarari buruz, baina bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago*, Larramendiren kontra (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak V*, 99).

b. *X + BAINO + X-AGO*

(286) a. Egia baino egiagoa.

b. Ongi baino hobeki.

c. Ordurako bazetorren zakurra, bazetorren, atzeraka ta alboraka, *makur baño makurrago...* (D. Aguirre, *Garoa*, 154).

d. Osalari arduratsuak asko alegindu arren, mutilla bai joian eriyotzaruntz *arin baño arinago* (Kiriikiño, *Abarrak II*, 49).

Eredu honen arabera litzateke *lehen baino lehen* (= lehenbailehen) esamoldea ere:

e. Berehala, *lehen baino lehen* erremedio bilhatzen duzu (P. Axular, *Guero*, 350).

f. eta gure baithan ahal dukeien fidantzia ere galdurik utz gaitzangatik, behar da *lehen baino lehen*, behar da maiz kofesatu (Ib., 346).

Goreneko maila adierazteko modu bat litzateke esamolde hau ere: *arin baino arinago*, adibidez, *oso arin* esateko modu bat besterik ez da.

c. *BAINOAGO*

Baino bera bihur daiteke konparatibo, berez behar lukeen adjektibo konparatiboari lekua hartuz. Horrek edozein adjektiboren lekua hartzen du, beraz edozein adjektiboren adiera beregana dezake, nahiz eta adjektibo hori zein litzatekeen ez den aditzera ematen. Solaskideen (aurre)suposizioen arabera izango litzateke. Azken batean *Judas baino areago* esaten dugunean gertatzen dena bera gertatzen da. Nolanahi ere, hizkera jasokoak dira honelakoak:

(287) a. Batak estimatzen du egun *bata berze bainoago*, eta berzeak estimatzen du bardin zein egun nahi den (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Rom 14, 5).

b. Biktorioso *bainoago* gara (Ib., 8, 36).

c. Morroia ezta bere nausia baño aundiago, ezta ere, Bidalia Bidaltzalea *bañoago* (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 440).

d. huná. *Salomon bainoagoa* hemen (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mt 12, 42).

e. *Ezpataz zauritu banindute bainoago* izutu ninduten gizon haren hitz bortitzek.

3.3.1.8. BAINO, -AGO-rik gabe?

Zenbait idazle zaharrek, *baino* bai, *baina* -AGO markarik gabeko perpaus konparatiboak osatzen zituzten noizbehinka.

- (288) a. Pensa, othoi, nola gauden bi bideren erdian / *salba bano damnutzeko perileko punduan* (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 37).
 b. Bana bertze / ez ikhertze / gaurgoitik ukheiteko; / *oradrano / duzun bano / ongi niri egiteko* (A. Oihenart, *Poesiak*, 6).
 c. Ondo lizate datorrela ene etsera *neuk baño agindu* daiana (R. Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 13 v).

Hauetan denetan *gehiago*, *areago* edo horrelako zerbait egongo balitz bezala da. Gaur bertan ere entzun eta irakur daitezke horien tankerakoak.

- d. Telebistak *urdailera* zuzendu behar du *burura baino*.
 e. *Sentimentuei baino emozioei* jaramon egin behar zaie.
 f. *Euskal zinegile baino zinegile soil*a naiz.

Dena dela, esamolde hauek osorik ematea askoz egokiago eta gomendagarriago dela esan behar.

- d'. Telebistak *urdailera* zuzendu behar du *burura baino areago / gehiago*.
 e'. *Sentimentuei baino areago emozioei* egin behar zaie jaramon.
 f'. *Euskal zinegile baino areago zinegile soil*a naiz.

Hemen bi baieztapenen egitasuna jartzen da erlazioan: bata bestea baino egiago dela, nolabait. Perpaus hauek guztiz egokiak gertatuko lirateke *bainoren* ordez *barik* ezarrita ere, Bizkaiko moldea erabiliz.

- d''. Telebistak *urdailera* zuzendu behar du *burura BARIK*.
 e''. *Sentimentuei BARIK emozioei* jaramon egin behar zaie.
 f''. *Euskal zinegile BARIK zinegile soil*a naiz.

Baina hauetan ez dira bi baieztapenak onartzen eta bata bestea baino egiago dela esaten: *A barik B* diogunean, *A ez, B baizik* esaten dugu eta ez, *A baino areago B*.

3.3.1.9. -AGO ... EZEN (EZ)

Hona hemen, aintzinako idazleek zenbait konparazio bideratzeko erabilitako esamoldea. Dirudienez, eredu erromanikoaren arabera eratuak ditugu esaldi hauek:

(289) a. *Gaizkiago zauri nizi ezi dardo zorrotzak* (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 191).

b. *Nahiago dizit zure ikhustia ezi neuretako herri guzia* (Ib., 206).

Perpauk hauek orain arte azaldu dugun ereduaren arabera honela izango lirarteke:

a'. *Gaizkiago zauritu nauzu dardo zorrotzak baino*.

b'. *Nahiago dut zure ikustea neuretako herri guzia baino*.

Ez partikula eta guztiko esamoldea ohikoagoa da, nolana ere:

c. *Hobe da berant ezi ez jagoiti* (A. Oihenart, *Proverbes basques*, 624).

d. *Hobe da alfer egoitea ezenez gaizki egitea* (Ib., 623).

1596-ko *Refranes y sentencias*-en ere horrelakoak badira:

e. *Naiago dot to bat ze amabi emon deiat* (40) (= 'nahiago dut to bat, hamabi emango diat baino').

f. *Obe da gorde ze ez eske* (320) (= 'hobe da gordetzea eskatzea baino').

Horrelakoak *nahiago* eta *hobe*-rekin ez ezik, *lehen(ago)*-rekin ere ageri dira:

g. *cztitezcn behá elhe zarretara eta genealogia fin gabetara, zeinék lehen, keshioneak engendratzen baitituzte ezen ez Jainkoaren edifikatione fedez dena* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 1 Tm. 1, 4).

h. ... *egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna lehen faltaturen dira ezi hura gugana* (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 57-58).

Esamolde hau ekialdekoa da eta ez da *baino ... -AGO* bezain hedatua.

Ohar gaitezen, bestalde, *baino ... -AGO nahiz ...-AGO ... baino* hurrenkera aurki badezakegu ere (ikus 3.3.1.6), *ezen ez* beti *-AGO*-ren ondoren kokatua agertuko dela. Hori erakusten dute (a-h)ko adibideek. Beraz, (d') bezalako bat, adibidez, okerra litzateke:

d'. **Ezen ez* gaizki egitea, hobe da alfer egoitea.

3.3.1.10. ZEIN-ETA, BAINO-ren orde

Zenbait testutan *baino* konparazio morfemaren orde *zein eta* ageri da.

(290) Zer zorakeria garbiagorik izan leiteke *zein-da* (...) arrak jango dabeen gorputzaren ardurearen ardureagaz amurruturik ibiltzea? (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 223).

Zein-eta hau berdintasunetzko konparazioan ere agertuko da (ikus 3.4.1).

3.3.1.11. Instrumentalaren bidezko konparazioa

Gehiagotasunezko zenbait konparatibo instrumentalaren bidez ere osatzen ahal dira.

(291) a. *Gure jiteaz gorago* (= 'gure jitea baino gorago') (P. Lafitte, *Grammaire basque*, §317).

b. Halatan izanen dirade gure arimák haren substantia beraz haziak eta bibifika-tuak, *gauza terrestre hauzaz gorago*, zerurano altxatuak diraden orduan... (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, B 4v 31).

c. Athorra horren fola hain zen ongi lisatua non xut-xuta baitzagokon lephoan eta igaten baitzizaion *beharriez gorago* (J. B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 6).

d. Jinkoaren zerbitzarien kondizioea errege eta lurreko *soberano guzien kondizioenez goragoa* [da] (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 28).

Ablatiboaz ere osatua egon daiteke konparazioa:

e. *Nitarik goragoko* norbait (P. Lafitte, *Grammaire basque*).

f. Hartu zuen bat eskuineko eskuaz eta egorri *sudurretik behearago* (J. B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 33).

Deklinabide kasuez eraikitzen diren esapide hauek zenbait izenondo edo aditzondorekin bakarrik balio dute, nolabait espazioarekin zer ikusia dutenekin hain zuzen: *gora, behera, zabal*, etab.

Zenbatasunezko konparatiboetan erabiltzen den *-TIK GORA* ere taxu berekoa dugu. (ik. 3.3.2.5.k).

3.3.2. ZENBATUSUNA

Izen sintagmek sarritan eraman ohi dute zenbatasunezko determinazioa. Alegia, izen sintagmetan zenbatzaileak ager daitezke: *bost, asko, nahikoa*, etab. Gorago esan bezala, kantitate zehaztapen hori konparazio perpausen bidez ere gauza daiteke:

- (292) a. BOST liburu erosi ditut.
- b. ZUK ADINA liburu erosi ditut.
- c. ZUK BAINO liburu GEHIAGO erosi ditut.

Perpau hauctan denetan ematen da aditzera zenbatusuna, baina (a)n ez dugu konparaziorik ezartzen. (b eta c)n, berriz, bai: (b)n berdintasunezko konparazioa dugu, (3.2.2) atalcan tratatua; (c)n, desberdintasunezkoa. Azken honetaz ariko gara hemen.

3.3.2.1. Desberdintasunezko konparazioa bideratzeko morfemak

Desberdintasunezko konparazioa bideratzeko *baino* morfemaz baliatzen gara, bai maila konparatzen denean, bai zenbatusunaz ari garenean. Baina zenbatzaileak ere agertu behar du: zenbatusunaz ari garenez, *gehiago* edo *gutxiago* zenbatzaile konparatiboak agertuko zaizkigu. Edo *haboro*, zubereraz.

- (293) a. Boteila honetan beste horretan baino ardo gehiago dago.
- b. *Eun, ta ogei bider baxen geiago jo eben ukabillada gogorrakaz (Catecismo de Anzuola, 211).*

(a)ko esanahi bertsua izango luke *adinbat / adina / ... eta gehiago* esamoldeak ere:

c. Boteila honetan *beste horretan adinbat ardo eta gehiago* dago.

Hau ere desberdintasuna adierazteko modu bat izango litzateke.

Ere lokailuaz indartua ere ager daiteke *baino* hau:

(294) Beste guztiek *baino ere* gehiago erretzen du gizon horrek.

3.3.2.2. Egitura

Beraz, desberdintasunezko kantitate-konparazioan *baino ... gehiago* eta *baino ... gutxiago* morfema-sailez baliatzen gara. Konparazio guztietan bezala, *baino*-k perpaus bat gobernatzen du, nahiz eta perpaus hori gehienetan murriztua agertuko zaigun. Eta murriztua agertzen ez denean ere, hutsune bat izango da perpaus honetan, sintagma osoaren buruaren erreferentzikide izango dena.

Bestalde, hurrenkerarik normalena da perpaus konparatiboa, *baino* buru duela, izen sintagmaren ezkerretara kokatzea eta *gutxiago / gehiago* zenbaitzaileak izen sintagmaren eskuin muturrean:

(295) a. *Bilbok (dituen) baino bizilagun gehiago* ditu Parisek.

Hala ere, perpaus txertatua –*Bilbok (dituen) baino*, gure kasuan–, lekuz alda daiteke: izenaren ezkerretara jarri beharrean, perpaus nagusiaren eskuin muturreraino eramán daiteke:

b. Bizilagun gehiago ditu Parisek *Bilbok (dituen) baino*.

c. Parisek bizilagun gehiago ditu *Bilbok (dituen) baino*.

3.3.2.3. Konparazioa bera ere mailaka daiteke

Desberdintasunezko konparazioa bera mailaka daitekeela esan da gorago. Hortaz, *gehiago* edo *gutxiago* esateaz gainera, *zenbat gehiago* eta *zenbat gutxiago* ere esan daiteke. Eta, horrenbestez, [{*askoz, bi aldiz, mila bider, etab.*} {*gehiago / gutxiago*}] esan liteke. “Mailakatzailer” hauek, normalki, izenaren ezkerretara joango dira, izenaren aurre-aurtean, perpaus nagusiko adjektibo

edo adberbio konparatiboaren osagai baitira, ez perpaus txertatukoak. Hots: *zenbat X-AGO* adierazten dute.

- (296) a. Parisek {*arrunt / askoz / hamar aldiz / mila bider / ...*} *bizilagun gehiago* ditu Bilbok baino.
b. Parisek Bilbok baino {*askoz / hamar aldiz / mila bider / ...*} *bizilagun gehiago* ditu.
c. Peruk Mirenek baino {*askoz, bi aldiz, bost, ...*} *katu gehiago* ditu.
d. Peruk {*askoz, bi aldiz, bost, ...*} *katu gehiago* ditu Mirenek baino.

Perpaus hauetan Parisek Bilbok baino *zenbat bizilagun gehiago* edo Peruk Mirenek baino *zenbat katu gehiago* dituen adierazten dugu.

Honako honetan ere gauza bera. *Zenbat diru gehiago* esaten zaigu:

- e. Oraingoan lehen baino *hiru edo lautan diru gehiago* erabili dute.

Hurrengo honetan ere, agian egitura zerbait desberdina izanagatik, *zenbat gehiago* galdarari erantzuten segitzen dugula pentsa liteke:

- f. *Urrats bat gehiago* egin zuen.

3.3.2.4. Konparazioaren erreferentzia puntua adierazi gabe utz daiteke

Perpaus konparatiboa bera ere adierazi gabe utz liteke. Horrela zerekin konparatzen ari garen esan gabe uzten dugu zehaztasun hori eman beharrik ez dela sentitzen dugunean:

- (297) a. Parisek askoz bizilagun gehiago ditu.

Parisek zerk baino bizilagun gehiago dituen esan gabe gelditzen gara, testuinguruak jadanik horren berri ematen badu, adibidez. Solaskideak, hala ere, (297a)ren aurrean, zehaztasun gehiago eska dezake:

- b. -Zein hirik baino?
-Bordelek baino askoz bizilagun gehiago ditu Parisek.
c. -Noiz baino?
-Joan den mendean baino askoz bizilagun gehiago.

3.3.2.5. Zenbait adibide

Gainerako konparatiboetan bezala, hemen ere zenbait adibide eskainiko ditugu, perpaus txertatua zein osagai agertzen den kontuan hartuz. Dena dela, berdintasunezko konparazioan ikusi diren osagai berberak agertzen ahal dira desberdintasunezko konparazio honetan. Hona hemen horietako zenbait.

a. *Aditz eta guztiko perpausa + BAINO ...-AGO*

- (298) a. *Maite zaitudan baño oraindik geiago maite nai zinduzket* (Argi Done Laburra, 36).
 b. *Badakit zerura zu igan zarenean, ez duzula hemen zinduen baino amodio gutiago guretzat begiratu* (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 146).
 c. *Zeure ordenan da konbentu geiago, berze ordena sakratu guztietan den baino* (Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 173).

b. *Aditz modalekin*

- (299) a. *Nahi baino jende {gehiago / gutxiago} etorri zaigu bazkaltzera.*
 b. *Eta neurri gabe, eta behar baino gehiago zerbitzari hek gazuga nitzakeiela* (P. Axular, *Guero*, 289).
 c. *Bena zure lege saintiak ezitzi unhesten behar beno haboro (...) plazer egiten dienen txerxhatzia* (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 218).

c. *USTE IZAN, MEREZI, ... + BAINO ...-AGO*

- (300) a. *Uste baino bazkide gutxiagok eman dute izena bilkuran parte hartzeko.*
 b. *Merezi (dituzun) baino opari gehiago jaso dituzu.*
 c. *Gauza gehiago zeru-lurretan / filosofiak uste duen baino* (J. Mirande, *Miranderen iduzlan hautatuak*, 341).
 d. *Uste baino gehiago zor diogu Lizardiri* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 175).

d. *{-TZEKO, -RENTZAKO} + BAINO ...-AGO*

- (301) a. *Naigabez beterik gelditu ziran jan baño negar egiteko gogo geiagorekin* (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 54).

Hau beste modu honetara ere esan zitezkeen, agian egokiago:

a'. Nahigabez beterik gelditu ziren *jateko baino* negar egiteko gogo gehiagorekin.

e. Izen sintagma ergatiboa + BAINO ...-AGO

- (302) a. Onelako neskaitilla askok (...) arima geijago, biarbada, daruee Infermura, emakume galdubak eurak baño (J. J. Moguel, *Baserrituar nequezaleentzaco escolia*, 122).
- b. Ez dugu *hek baino* arrazoin gutiago bozkario bera izatekotzat (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia II*, 290).
- c. Badagozi hogoi-ta bortz ohoin preso, *gure jaun deputatu, zenator eta ministroek baino* ohointza gutiago eginik (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 150).

f. Izen sintagma absolutiboa + BAINO ...-AGO

- (303) a. Salto-kontuan, *artza eta azeria baiño* gehiago izango ez zan ba? Artza baiño bai, ziur (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 187).
- b. Ez gera gutxiago (...) *aiak baiño*. (A. Iturriaga, *Fábulas*, 59).
- c. Itxurak eta izen ederrek *gu baino* gutxiago lotsatzen dituzte (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 303).

Ondoko honetan bi izen sintagma alderatzen dira: zenbat ostu, arantza gehiago.

d. Uda lehen arrosa / neguan arraro, / *ostu bano arantze / aise* gehiago (Bordel, *Bordel bertularia*, 106).

Berdintasuneko konparazioan ere badira horrelakoak, gorago esan den bezala (ik. 3.2.2.2.f).

g. Izen sintagma datiboa + BAINO ...-AGO

- (304) a. *Beste inori baino* mesede gehiago egin dizkizut zuri eta hori da ordaina.
- b. *Andoniri baino* diru gutxiago ematen diote Josebari.
- c. Gogo-gaitzozko lanak ez dio inori onik egingo, eta euskarari *inori baino* gutxiago (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 208).

h. Adizlaguna + BAINO ...-AGO

- (305) a. *Len baño ere arreta gehiagorekin* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 291).
 b. *Inoiz baino gehiagoren eske* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak IX*, 24).
 c. *Itzoi baizen indar gehiagogaz*, euskaldunai arpegi emotera (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 14).
 d. *Laurdenegungo bazkalaratean inoiz baino gutxiago mintzatu ziztaigun* (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 83).

i. Osagai bat baino gehiago perpaus txertatua

- (306) a. *Nik bi urtetan edan baiño*, mutil orrek ardo geiago gastetan dik urte baten (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 31).

Esaldi hau, beharbada, argiago izango litzateke, mendeko perpausoko adizkia osorik emango balitz, laguntzaile eta guzti. Perpausa osorik emanaz alegia:

- a'. *Nik bi urtetan edaten dudan baino ardo geiago* gastetzen dik mutil horrek urte batean.

Honako hauek ere hurrenkera ez-ohiko samarra dute:

- b. *Ez degu argia adimentuan baño*, bear gutxiago sua biotzean (M. Larramendi, *San Agustin*, 16).
 c. *Konpainiak zure baino gehiago zuk Konpainiaren beharra baduzula* (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 335).

j. Baldintza perpausa + BAINO ...-AGO

- (307) a. *Munduko aberatsena balitz baino* amets gehiago egiten du.
 b. *Lenengoz automobil bat igaro jakonian ondo-ondotik adarroska, autsa ta atsa darijola, txakur bat igaro ba'litz baño* jaramon geyago ezeutson egin (Kirikiño, *Abarrak*, 79).
 c. *Eta jokabide onekin kalte geiago ari du lurralde ontan, izurria bertan sartuko balitz baiño* (P. Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 139).

k. Zenbatzailea + BAINO ... -AGO

• Ohiko bidea

Ohiko bidea honako hau dugu:

<zenbatzailea + (izena) + baino + {gehiago / gutxiago}>

Eskema honen arabera dira honako adibideak:

- (308) a. *Bost liburu baino gehiago* ezin dira irakurrialdi berean.
- b. *Hamar ikasle baino gutxiago* izanez gero, ezin da talderik osatu.
- c. *Hamabi lejone baino gehiago* Aingeru (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mt 26, 53).
- d. Zerbait galdatu dit batek baino gehiagok (K. Mitxelena, "Eratorbidea eta deklinabidea", in *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, 676).

Hauetan bi kantitate konparatzen dira. Baina beste honako hau hartzen badugu, adibidez:

(309) *Andonik baino* liburu gehiago irakurri ditut

erraz ohartzen gara (309)ren eta (308a)ren artean diferentzia nabarmena dela. Zenbatasuna konparatzen ari garelarik, desberdintasuna adierazterakoan, zenbaitetan, erabiltzen dugun erreferentzia puntua ez da, (309)an bezala, *Andonik irakurri duen liburu kopurua* adibidez, *kopuru jakin bat* baizik. Hori da, esaterako, (308a)ean gertatzen dena. Hemen erreferentzia puntua zenbaki bat da, *bost*, alegia. Hots: Andonik eta nik irakurritako liburu kopurua konparatu beharrean, liburu kopuru hori zifra jakin batekin konparatzen da, *bost* zifrarekin, hain zuzen. Hortaz, konparazio hau bi modutara ezar daiteke: (309)an bezala edo, (308) adibideetan bezala, zifra jakin bati erreferentzia eginez. Bigarren kasu honetan *baino*-ren ezkerretara perpaus bat dugula ontzat emanez gero, honen antzeko zerbait izango genuke:

(308a') [Bost liburu [Ø] diren baino] gehiago ezin dira irakurri.

Nolanahi ere, honelako aditzik gabe joan behar dute.

• -TIK GORA

Bestalde, hizpidea eman diguten esamolde hauek beste modu batara ere eman daitezke. Zeharo bestelako egitura baten aurrean gaude, baina, hariari tiraka, zilegi iruditu zaigu hemen aipatzea egiturek.

Adibidez, (310) esan beharrean (311) esan daiteke edo (312):

(310) Liburu honek *berrehun orrialde* baino gehiago ditu.
(ez: ?Liburu honek berrehun baino orrialde gehiago ditu).

(311) Liburu honek *berrehun orrialde eta* gehiago ditu.

(312) Liburu honek *berrehun orrialdetik gora* ditu.

Honako adibide hau ere molde berekoa dugu:

(313) *Lautan eta geiagotan* be iraindu dozu nire emaztia (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 89).

Nolanahi ere, aski aztergaitzak dira (310) eta (312) bezalako esamoldeak. Dena dela, konparazioa bideratzeko modu bat erakusten dutenez, hemen jaso ditugu.

Bestalde, perpaus hauek nahiko zurrinak gertatzen dira deklinatzeko orduan. Goiko (308a)ren esanahi berekoa den (314a) zuzena bada ere, arazoak hasten dira absolutiboa ez beste kasuak ezarri nahi direnean:

- (314) a. *Bost liburutik gora* ezin dira irakurrialdi berean.
b. *Bost liburutik gora(k) buruko mina ematen dute.
c. *Bost liburutik gorari kendu diet hautsa.

Hori esateko ohiko bidea erabili behar dugu:

- (315) a. Bost liburu baino gehiago ezin dira irakurrialdi berean.
b. Bost liburuk baino gehiagok buruko mina ematen dute.
c. Bost libururi baino gehiagori kendu diet hautsa.

Edo, bestela, sintagmako osagaiak beste hurrenkera batean ezar daitezke, izena azkena emanez:

(316) *Milatik goru hautetsik parte hartuko dute biltzarrean* (E. Egunkaria, 99.2.6, 7. or.).

(315b eta c)ko adibideak kontuan harturik, argi dagoela ematen du esamolde honen beste ezaugarri bat: *baino*-ren bi aldeetan aurkitzen diren osagaiak hartzen dute dagokien kasu marka. Horixe da goiko (308d) adibide guztiz arruntak erakusten diguna. Eta horixe da honako hauena ere:

(317) a. *andiki etxetako alaba bateri baño geiagori itz egindakoa zan gure mutil zarra* (D. Aguirre, *Kresala*, 119).

b. *Itxuraldatuak diot, berria haru behar izan baitzuten etorkizkoaren truk puntu batean baino gehiagotan* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VII*, 178).

c. *Gobernua alde batetik baino gehiagotatik ez dut begi onez ikusten* (Ib. IX, 83).

d. *Baten baiño geiagotan iruditu jakon gure Praiskuri bere zaldia ikusten egoala* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 222).

e. *Gainak eman dizkie, alde batetik baino gehiagotarik* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak V*, 32).

f. *Lege hunek iraun zuen Espainian bortz ehun urthez baino gehiagoz* (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 401).

Hau da jokabide ohikoa eta, dudarik gabe, hedatuena. Hala ere, bestelako jokabidea erakusten duten adibideak ere badira:

(318) a. *Ezen haur hirur-ehun dinero baino gehiagotan saldu ahal zaten, eta eman paubrei* (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, 90).

b. *Ikusi ditut, aldi bat baino gehiagotan, basa dentistak lothu hortzak irauten* (J. Etcheparc, *Buruchkak*, 195).

c. *Zure liburu honetako artikulua bat baino gehiagotan belaunaldien bortokaz mintzatzen zara* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak IX*, 57).

d. *Bat baino gehiagoz ari da, beraz: bitaz gutxienez* (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 206).

Nolanahi ere, argi dago joera nagusia lehenbizikoa dela, hots: *baino*-ren bi aldeetan doazen sintagmak kasu berean ezartzekoa.

• *GEHIAGO-ren kokagunea*

Bestalde, (308c) adibidean *gehiago* izenaren ezkerretara ageri da. Hona hemen beste adibide hau ere:

(319) Eskual-herrian bai eta Frantziako bertze zenbeit tokitan *behar baino gehiago* apez badire (J. Hirian-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 29).

Hau gaurko euskaraz eta mendebaldekoan bereziki ez da arrunta (cf. Lafitte, *Grammaire basque*, 260). Beraz, ez da gomendatzekoa.

l. Bi esaldiren egiatasuna ere konpara daiteke

(320) a. *Amodioz baino gehiago* larderiaz nahi zinituzke arimak Jainkoari buruz ibilkatu (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 107).

Horrelakoetan (ikus 3.3.1.8), bi perpausetan baieztatzen dena konparatzen da eta bietan zein den egiago adierazten. Horrelakoetan, gainera, galdegaiak garrantzi berezia hartzen du, bi galdegaiak jartzen baitira kontrastean. Gure kasuan: *amodioz baino gehiago larderiaz*.

Galdegaiak beste batzuk balira, esaldiak ere bestelako itxura hartuko luke, nahiz eta guri dagokigunez, konparazioaren egiturak lehengoan dirauen. Adibidez:

b. *Gizakiari buruz baino gehiago* Jainkoari buruz nahi zenituzke arimak ibilkatu.

Gehiago-ren ordez, areago ere balia dezakegu:

(321) Sukalde-artista dela esango dugu *sukaldari baino areago*.

3.4. EREDU ERROMANIKOZ ERATUTAKO PERPAUS KONPARATIBOAK

3.4.1. *Eredu erromanikozko konparatiboak*

Perpaus erlatiboekin gertatzen den bezala, konparatiboak ere osa daitezke eredu erromanikoari jarraituz. Hots: jatorriz galde hitzak diren elementuez

baliatuz, *nola* galde hitzaz baliatuz bereziki. Egitura hauek autore zaharretan aurkituko ditugu batez ere. Berdintasunezko konparazioa adierazten dutenak izan ohi dira perpaus hauek eta zenbatasuna, maila nahiz modua konparatze-ko balia daitezke.

Egiturari dagokionez, perpaus nagusian ezartzen da kuantifikatzailea (*hainbat / hain / halako...*) eta mendeko perpausuan, berriz, ezartzen da konparazioaren eredia edo patroia, erreferentzia puntua, alegia.

- (322) Aberatsa *hain biluzgorri* sortu zen, *nola* probea (P. Axular, *Guero*, 149).
(= Aberatsa pobrea bezain biluzgorri sortu zen)

(322)ko adibidean pobrea zeinen biluzgorri sortu zen ezartzen da lehenbizi eta biluzgorritasun maila honekin konparatzen da lehen perpausoko adjektiboaren maila, hots: aberatsaren biluzgorritasun maila. Hau da: *hain biluzgorri* diogunean, *hain* hori zenbat den jakiteko aurrekari bat –edo atzekari bat, ordenaren arabera– behar dugu eta aurrekari edo atzekari hori perpaus txertatuak ematen digu, *nola* osagaiaz hasten den perpausak alegia. Eskema hau taxu honetako perpaus guztietan gertatzen da. Azken batean, gorago aurkeztu ditugun perpaus konparatibo “arruntek” ematen diguten informazio bera ematen digute eredu erromanikoa duten hauek. Perpausareu taxua da aldatzen zaiguna. Gorago <A (erreferentzia puntua) - B (perpaus nagusia)> ordena eman dugu arruntzat. Oraingoan alderantziz dira gauzak: <B - A>. Hots, erreferentziatzat hartzen dugun perpausa perpaus nagusiaren ondoren ematen da:

- (323) a. Aberatsa *hain*₁ biluzgorri sortu zen, [*nola*₂ pobrea].

- b. Aberatsa [pobrea {Ø}]₁ | bezain₂ biluzgorri sortu zen.

(323a) adibidean perpaus txertatua erabat murriztua dugu. Baina sarritan, gainerako konparatiboetan bezala, aditza eta beste zenbait osagai ere ager daitezke. Perpaus txertatu honetan aditza ageri bada, marka egokiz homitua joan behar du, *BAIT-* aurrizkiak edo *-eN* atzizkiak. Bi menderagilu hauen banaketa argia da: lehenbizikoa ekialdekoa da, bigarrena mendebaldekoa. Bereizketa hau perpaus konparatiboetatik kanpo ere ezaguna da. Hortaz,

BAIT- aurizki horren ordez, mendebaldeko euskalkietan *-eN* atzizkia eramango du adizkiak:

- (324) a. ezta oentzat soñu añ gozorik nola dan lagun urkoaren utsegiteak esatea, ta aditzea (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiak* I, 229).
 (= ez da lagun urkoaren hutsegiteak esatea eta aditzea bezain soinu gozorik hauentzat).
- b. Ez litzateke euskara *hain labur, eskas eta ez hertsi nola* munduak uste bairu (...) dela (cf. P. Axular, *Guero*, 10).
 (= Ez litzateke euskara munduak uste duen bezain labur, eskas eta hertsi).

Hortaz, perpaus txertatuko adizkiak *BAIT-* aurizkia nahiz *-eN* atzizkia eraman dezake.

3.4.1.1. Zenbatasunezko konparazioa

a. HAINBAT ... [NOLA ... BAIT- / -eN]

- (325) a. Baldin egin balitz euskaraz *hanbat* liburu, *nola* egin *baita* latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz, ... (P. Axular, *Guero*, 10).
 (= Baldin euskaraz egin balitz latinez, frantsesez edo beste erdaraz {adina, adinbat, beste, bezainbat...} liburu, ...).
- a'. Baldin egin balitz euskaraz *hainbat* liburu, *nola* egin *den* latinez, ...
- b. Erran ahal dezaket ezen (...) nik ukhan nukela *hanbat atsegin nola* ukhan *baitut* atsekabe (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, * 6 r).
- c. Indazu zure erranen konplitzeko *hanbat indar*, *nola* *baitut* fermutasun heien sinhesteko (*Andredena Mariaren ilhabetea*, 49).
- d. Atara bear da odola gatx askotan, baiña, nere ustez, *ez ainbestetan zelan* ateraten *dan* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 21).
- e. Alexandre, Cesar eta bertze (...) izan diren kapitain handiak etziren *hainbertze* ohoran, maitatu bere denboran *nola* zu izanen *baitzira* glorios eta trionfant bai zelian bai lurrian (J. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 2).
- f. Arratsaldean traillaillen hasi zirenei eman zerauen *hanbat jornal eta alokairu*, *nola* goizetik traillaillatu zirenei (P. Axular, *Guero*, 169).

Azken perpaus honetan aditzik ez dugu perpaus txertatuan. Beraz, *BAIT-* ere ez da agertuko. Nolanahi ere, arratsaldean hasi zirenei emandako alokai-

rua goizetik ari zirenei emandakoarekin konparatzen da. Aditz horrek agertu ezinik ez zuen, noski:

g. Arratsaldean trabailatzen hasi zirenei eman zien *hainbat jornal eta alokairu*, *nola* eman *hairzien* goizetik trabailatu zirenei.

Eredu arruntean, berriz, honela litzateke azken perpaus hau:

g'. Arratsaldean trabailatzen hasi zirenei eman zien goizetik trabailatu zirenei (eman zien) adina jornal eta alokairu.

b. EZ HAINBESTE ... NOLA ...

Hainbeste eta *nola*, biak agertu arren, goikoak ez bezalako konparazioa ere bidera daiteke. Konparazio hau desberdintasunezkoa izan ohi da: *buino areago*-ren bidez osatzen denaren tankerakoa hain zuzen.

(326) a. Ez *hainbeste* ene dohain berria neurtzeko *nola* jostaketa egiteko, beste gauzetan ere pentsatu nuen (B. Atxaga, *Bi anai*, 10).

Perpaus hau nekez eman daiteke *adina* konparazio morfemaren bidez. Hemen bi perpausen egiatasuna da konparatzen dena. Hanen egitura berezia da:

b. [ez hainbeste X nola Y] = [X baino areago Y]

Horrenbestez, (a)k (a') izan lezake ordain:

a'. Ene dohain berria neurtzeko *baino areago* jostaketa egiteko.

3.4.1.2. Maila konparazioa

a. HAIN ... [NOLA ... BAIT- /-eN]

Hots: maila adierazten duen elementua, *hain*, ezartzen da perpaus nagusian, dagokion adjektiboaren edo adberbioaren ezkerretara, eta ondoren, *nola* buruan duen perpaus txertatua emango da:

- (327) a. Apezak konsekratzioneko hitzak erran ondoan Jesu-Kristoren Odol preziatua [dago] *hain egiazki, eta errealki nola baitago Zeruan* (*Catecismo de Luzaide*, 36).
- b. Espainiako errege ez zen *hain dohatsu* izan behin ere, *nola bairzen*, arrats hartan, Migel Pocodineru (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 38).
- c. Incarnazionek izan balitu besoak eta eskuak *hain azkar nola* baitzuen mihia abil! (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 59).

Ondoko adibide hauetan, berriz, gorago ikusi dugun bezala, perpaus txertatuko adizkia isilpean geratu da:

- (328) a. *Hain ongi* dagoka gaiztoari ifemua *nola* onari parabisua (P. Axular, *Guero*, 721).
(= Onari parabisua bezain ongi dagokio gaiztoari infernua).
- b. Munduian ezta gauzarik *hain eder ez plazentik / nola* emaztia gizonaren petik buluzkorririk (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 127).
(= Munduan ez da emaztea bezain gauza eder eta plazentik).
- c. Ezen ezta deus *hain desiratzezorik, nola* haren irudira konforme izatea (J. Leizarraga, *Othoizta*, D 5 v.).
(= haren irudira konforme izatea bezain desiratzezorik ez da deus).
- d. *Hain ziren fida* esku ezkerrez, *nola* eskuinaz (B. Larreguy, *Testament çaharr. berr. historia* I, 240).
- e. Ezta potrorik *ain domatu eztaikenik, nola* emazteki (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 122).
- f. Soldado batentzat ez da *hain heriotze ederrik nola* harma eskuan etsaiari buruz hiltzea (J. Etchepare, *Buruchkak*, 20).
- g. Deus ez doako *hain guti, edo hain gaizki, nola* eskolaren emaitza (Ib., 61).
- h. Baldin Bizkaiko baserri-etxe guztiak balebiz *ain zuzen zelan* zuria (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 67).

Perpaus txertatuko adizkia isilpean badago, orduan, adizkiarekin batera joan ohi den *BAIT-* aurrizkia edo *-eN* atzizkia ere isilpean geratuko da.

b. HALAKO ... NOLA ...

Perpaus nagusiko maila-kuantifikatzailea *hain* izango da normalean, baina *halako* ere izan daiteke:

- (329) a. Bere bizian aren biotzak etzuala *alako gozotasunik izan, nola* airian zizuan denboran, ta ain goitik jeistian lurrera (C. Beovide, *Asis'co loria*, 169).

Taxu erromanikoaren ordez *bezalako*-ren bidez ematea hauta daiteke:

- a'. Aircan zihoan denboran *bezalako* gozotasunik ez zuela izan haren bihotzak bere bizian.

c. BERDIN ... NOLA

Hautan denetan berdintasunezko konparazioaren aurrean gaudenez, <*hain* + *adjektiboa*> osagaiaren ordez, *berdin* adjektiboa bera ere erabil daiteke. Hona hemen adibidea:

- (330) Berdin irri egin dezake, *berdin maita nola* jakintsunik argituenak (J. Etchepare, *Buruchkak*, 157).

d. NOLA-ren ordez ZEIN (ETA)

Nola-ren ordez, *zein (eta)* ere ager daiteke, honako adibide hauetan bezala:

- (331) a. Zerren da dustiz *aen gogorra / zein* diamantezko arria (R. Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 11).
(= zeren diamantezko harria bezain gogorra da guztiz).
- b. Penitenzija gogor orreek ez dirudijee *añ egokijak* pekatari asko bide onera zaletuteko, *zein da* billdurtu, ta atzeratuteko (J. J. Moguel, *Baserritarr neque-zaleentzaco escolia*, 244).
- c. Eztezazula deusentako ere *hañ beste lotsa* ikhen, deusere *hañ güti* unhets, deuseri ere *hañ beste* ihesi egin, *zuña* zure bekhatier (M. Maister, *Jesu-Kristen imitacionia III*, 147).
- d. Ertau ezek bere *ainbeste* lurrera egiten gure arrokeria (...) *zein-da* gogora ekarteak il ezkeru zelan geratuko garean (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 219).

3.4.1.3. Modu konparazioa

a. ... HALA ... [NOLA ... BAIT- / -eN...]

- (332) a. Othoitz egiten dugunean, Jainkoak *hala* barkha dietzagun gure bekhatuak, *nola* guk ofensatu gaituztenei barkhatzen baitrauegu (J. Leizarraga, *Othoitzza*, E 6 v.).

- b. *Hala* gertha dakidala *nola* othoitz egiten baitut (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 86).
- c. [Ezta] harrik haragia *hala* galtzen eta gastatzen duenik, *nola* konzientzia gaixtoak egiten baitu bere burua (P. Axular, *Guero*, 423).
- d. Nik uste dut ezen munduko ararteko guztiak eztezaketela zure etsaia *hala* balaka, eta ez sosega, *nola* zerorrek (Ib., 294).
- e. Deusek ez du *hala* gizonaren berthutea ahitzen *nola* jendien konpania husuegiak (A. Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 20).
- f. Zuek eta nik, zumea sekular ez dugu *hala* erabili, *nola* Sansonek bere arbola ondoa! (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 146).

b. Ø ... NOLA

Nola besterik gabe ere ager daiteke:

- (333) Hek guztiak joan zaizkigu *nola* airean lanhoa (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa I*, 113).
- (Hots: haiek guztiak joan zaizkigu airean lainoa bezala).

c. HALA ... NOLA, banakaritzaren adierazle

Goikoen tankera berekoak ematen dute beste honako hauek ere, esacretan maiz crabiltzen ditugunak:

- (334) a. Eman diezagula behar dugun mantenua, *hala* arimakoa *nola* gorputzekoa (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 81).
- b. Atratzeko aldagien probetxu guzia beretako eta bere proximo lagunendako *ala* biziendako *nola* purgatorioan dauden arimendako (J. Beriayn, *Tratado de oyr missa*, 28 r s.).

Hauek nolabaiteko korrelazioak edo dira, baina ez da gauza handirik konparatzen. Esaten diguten bakarra da “*bai A bai B*” edo “*A eto B*”. Juntaduraren bidez cratutakoen antzeko esamoldeak direla esan daiteke, hortaz. Egitura ere halakoa dute: *hala X nola Y*.

(334b)n, hain zuzen, biak ematen zaizkigu, juntadura (*beretako eta bere proximo lagunendako*) eta *hala ... nola* bidezkoa. Ondoko hauek ere tankera honetakoak ditugu:

- (335) a. Hala bata *nola* bertzea galtzeintu amurus itsuak (P. Axular, *Guero*, 344).
b. Nolatan izanen ahal gara zu ene, eta ni zure, billusia ezpazare zure borondateaz *hala* barrenean *nola* kanpoan? (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 185).
c. Noc ta bere etxeokak ez beste guziak ito ziran, *ala zarrak nola gazteak*, ala gizonak, *nola emakumeak* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 42).

Nola-ren ordeaz, *jakina*, *zelan* erabiliko da Bizkai aldean:

- d. Ez da gauza, sarrijago dakuskunik, *zelan* dirian konfesio jeneralak, *alan Misioneko egunetan; zelan beste denpora batzuketan* (J. A. Mogue, *Confesio ona*, 273).

Zein (eta) ere erabil daiteke banakari hauetan:

- (336) a. Itandu begio bakotzak bere biotzari [...] *alan Mandamentu onetan zein besteetan* (M. O. de Capanaga, *Doctrina christiana*, 91).
b. Merezi ginaike artutia Jaungoikuagandik mesede ugarijak, *alan arimakuak, zein da gorputzkuak* (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 211).

3.4.2. Korrelazioak

(335-336)ko perpausak erakusten duten ordena alderantziz ere eman daiteke. Hots: *hala ... nola* eman beharrean, *nola ... hala*:

- (337) a. Egin bedi zure borondatea *nola* Zeruan *ala* lurtean (J. I. Guerrico, *Sayaqueru I*, 416).
b. Egin bedi zure borondatia *zelan* zeruban *ala* lurrian (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 249).
c. Beti pakean, beti naikeran / Donostiako jendia, / *nola* egunean *ala* gabean / atsegin da ekustia (J. V. Echagaray, *Festara*, 113).

Hauak ere banakaritza adierazten dutela pentsa daiteke eta ez dutela, berez, gauza handirik konparatzen. Baina oraingoan, perpausen hurrenkera alderantziz ematen da: lehenbizi *nola*-dun perpausa eta gero, *hala*-duna. *Nola*, berez, galde hitza da. *Hala*, berriz, galde-hitz horren korrelatiboa litzateke. Horrelako korrelazioak beste elementu batzuen bidez ere osa daitezke: *nola - hala* beza-

la, *nolako* - *halako*; *zenbat* - *hainbat*; *non* - *han*, *nor* - *hura* etab. Gisa hone-tako esamoldeak deitzen ditugu korrelazio: lehenbizi galde-hitz baten bidez ematen zaio sarrera perpausari eta honekin korrelazioan jartzen da bigartena, galde-hitzari dagokion anaforikoaren bidez. Korrelazio hauetan, *nola*-k, gorago aztertu ditugun perpaus konparatiboetan ez bezala, galde hitz izaten segitzen du, *zenbat*-ek edo *non*-ek bezalaxe, hain zuzen.

Hauetan nolabait lehenbiziko perpausean zehargaldera tankerako perpaus bat ematen da eta ondoren, anafora batekin hasten da perpausa.

(338) a. Nola soiñu, ala danza (*Refranes de Isasti*, 62).

b. Nola bizi, hala hil (P. Axular, *Guero*, 214).

c. Bañan denpora nola joan, gauzak alan aztu oi-diran bezala, ... (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 4).

d. Bertzek nola niri, hala egiten daiet nik (L. Goyhetché, *Fableac*, 117).

Korrelazioen baliabide hau orokorra da hizkuntzan. Mota askotako erlatiboak eratzeko erabiltzen dugu: *Zer ikusi, hura ikasi*; *non gozo, han zozo*, etab. Konparazioei dagokienez, era honetako korrelazioak moduzkoak edo zenbata-sunezkoak izan ohi dira. Moduzkoetan, *nola* galde hitzaz baliatzen gara. Zenbata-sunezkoetan *zenbat* galde hitza ibiliko da tartean. Maila konparazioa adierazteko, -nahiz ez den oso erabilia-, *zenbatenaz* edo *zenbat* aurkituko dugu. Hala ere, era honetako konparazioak normalean berdintasunezkoak izan ohi direnez, berdintasunezko maila konparazioaren antzeko zerbait lortzen da *nolako(a)*-*halako(a)* korrelazioan.

Gorago esana dugu konparazioa bera ere mailaka daitekeela (ik. 3.3.2.3). Hain zuzen, mailakatze hau ere korrelazioan jar daiteke. Gainera, korrelazio hau askoz erabiliagoa eta arruntagoa da maila soilarena baino: *Zenbat eta gehiago izan, hainbat gehiago behar* tankerakoak, alegia. Hortaz, lau mota hauetaz mintzatuko gara atal honetan: a) modu konparazioa bideratzen duten korrelazioak; b) zenbata-sunezkoa bideratzen dutenak; c) maila konparazioa bideratzen dutenak eta d) mailaren zenbatekoa jartzen duteak korrelazioan.

3.4.2.1. Modu konparazioa bideratzen duten korrelazioak

a. [NOLA ... BAIT- ...] HALA ...

- (339) a. *Nola* egiten *bairuzu* zuk zeure etsaiarekin, *hala* egiten diozu Jainkoari othoitz, dagiela zurekin (P. Axular, *Guero*, 224).
- b. *Nola* amuak atzemaiten *bairitu* arrainak (...) *hala* gizonak ere atzemaiteintu bere heriotzeak (Ib., 39).
- c. Nor *nola* gobernatzen baita gaztean, *hala* komunzki egiten ohi da zahartzean ere (Ib., 136).
- d. *Nola* belhar bustiak *hantzen* *bairitu*, *hala* etzauntza bustiak ditu eritzen (J. Duvoisin. *Dialogues basques*, 60).

b. ... BEZALA ... HALA

Aurrekoen baliokide dira [... *bezala* ... *hala*] gisako esamoldeak ere (ikus 3.2.3.5.a). Adibidez, goiko (339 a eta b)ren ordainak honako hauek izango lirateke:

- (340) a. Zuk zeure etsaiarekin egiten duzun *bezala*, (*hala*) egiten diozu Jainkoari othoitz egin dezala zurekin.
- b. Amuak arrainak atzematzen dituen *bezala* (*hala*) atzematzen ditu gizonak (ere) heriotzak.

Honako hauek ere horrela eratuak ditugu:

- (341) a. Jesus Jauna erran eta prometatut duzun *bezala*, egin ere bedi *hala* (S. Pouvreau, *Jesusen Imitacionea III*, 56, 4).
- b. Eskuak, oñak ta sabelak alkari lagundu behar dioen *bezala*, *ala* gizon batzuek besteai (V. Moguel, *Ipui onac*, 61).
- c. Orrez guztiaz ikusten da, etiku dagozanak, jan arren jatekorik oneenak, ezer bere aurreraruten eztaben *legez*, osasunean, *alan* onelakoak gitxi edo bapere irabazten eztabela Jangoikozko ogiau jateaz (P. A. Añibarro, *Lora sorta espi-rituala*, 47).
- d. Arboliaren orriak jausten diran *legez* negu antzian, *alan* gizonak banaka, biñaka, guztijok guaz sentitzaka lurrera (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezale-entzaco escolia*, 264).

- e. Hebreo, Griego, ta beste onelako izkondeak ikastera, astean bat bi edo iru aldiz *bezala*, *ala* euskaldunak beren izkuntzan trebatzeko, alkar billatu ta irakastea (J. I. Arana, *San Ignacioren bicitza*, 209).

Nolabaiteko aposizioa dugula pentsa liteke, erlatiboetan, denborazkoetan eta abarretan gertatzen denaren antzekoa. *Bezala*-z amaitzen den perpausa eta *hala* izango lirateke aposizioan leudckeen bi sintagmak. Goiko perpaus horiek beste honako hauen taxu berbera dutela esango genuke:

- (342) a. Txirrina entzuten duzunean, orduan ireki atea.
b. Horrelakoak permititzen dituenak, hark merezi du zigorrik handiena.
etab.

Alderantzizko hurrenkera dutela ere aurki dezakegu, nahiz eta ez den hain ohikoa:

- (343) Gloria duela Aitak eta Semeak eta Spiritu Sainduak; *hala* dutela egun eta bethi mendeen mendeetan, hastean eta eternitatean izatu duten *bezala* (B. Gasteluçar, *Egia Catholicac*, 57).

3.4.2.2. Zenbatasunezko konparazioa bideratzen duten karrelazioak

• [ZENBAT ... HAINBAT ...]

Ezer baino lehen ohar bat egin behar da. Aurreko orrialdeetan (ik. 3.2.2.1), konparaziorako *adinbat* hitza proposatu da. *Hainbat*, berriz, zenbatzaile soil-tzat hartu dugu. Hemen sor daitekeen zalantza da ea zein den korrelazio haue-tan bietatik egokiena. Korrelazioez ari garenez, eta gorago *nola* - *hala* ezarri dugun bezala, oraingoan ere zilegi dirudi korrelazio horretan zenbatzaileak sartzen direla pentsatzea. Beraz, *zenbat* - *hainbat*. Horrenbestez, euskara batu-rako *hainbat* forma hobetsiko dugu.

Korrelazio honetan bi kantitate konparatzen dira:

- (344) a. *Zenbat* bekatu cragiten dituen edo *zenbaterako bidea* ematen duen, *anbat* bekatuzko puñalka ematen diozka bere anima gaisoari (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 144).

Gauza bera esan genezake ondoko honetan ere:

- b. *Zenbat aldiz etsai infernukuak egin zion gerra gogorra, anbat aldiz garaitu zuan etsaia* (C. Beovide, *Asis'co loria*, 184).

Esaera asko ere tankera honetakoak izaten dira, aditza isilpean dutela:

- c. *Zomat asto, kainbat uzker* (Sal) (R. M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza III*, 229).
d. *Zenbat buru, hainbat aburu*.

3.4.2.3. *Maila konparazioa bideratzen duten korrelazioak*

- {ZENBATE(NA)Z ... BAIT- ...} HAINBATE(NA)Z ...

Maila hitza dugu *hain*, baina honi legokiokeen galde-hitza ZEINEN izango litzatekeen arren, ez da erabiltzen egiatan galde-hitz gisa. Ez dugu galde-tzen *hori zeinen zaharra da?* edo *Mahai hori zeinen luzea da?* etab. Horien ordez, *zenbat galde-hitzaz baliatzen gara: hori zenbatetaraino da zaharra?*, *adibidez*, edo *Mahai hori zenbat luze da?*

Horrenbestez, bi adjektiboren edo aditzondoren mailak jarri nahi badira korrelazioan, *zenbatzaileaz baliatzen gara*. Esapide arruntena honako hau da: *zenbate(na)z ... bait- ... hainbate(na)z*.

- (345) a. *Ezen zenbatenez baitu luze pazientzia / Hanbatenez eman ohi dik gaztigu larria* (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioinezcoa I*, 91).
b. *Bainan zozbatenez baikare erdaran usu mintzatuko, hanbatenez hartuko dugu harrekilako irebetasuna eta amodioa* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 28).
c. *Hipokrisia da gaixki bat hanbatenez higungarria zenbatenez hartzen baidu berthutea bera bere malziaren estalkitzat* (B. Larreguy, *Testament zaharr. berr. historia II*, 259).

Aditzik gabe ere bai.

- d. *Zenbatez triste bizia / Hanbatez eder saria!* (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 157).

Egia esan, perpaus haucn eta hurrengo atalean aurkezten direnen artean ez dago alde handirik esanahiaren aldetik, baina, berez, bi gauza desberdin dira. Hemen mailak jartzen dira korrelazioan soil-soilik. Hurrengoetan, berriz, -AGO-ren zenbatekoak dira korrelazioan jarriko direnak.

3.4.2.4. Mailaren kuantifikazioa bideratzen duten korrelazioak: ZENBAT ETA ...-AGO ... HAINBAT ... gisako esamoldeak

Hemen aurkezten ditugun korrelazio hauek konparazioa ezartzen dute, konparazio horri nolabaiteko kuantifikazioa gaineratuz. Alegia, ez da soilik *A B baino X-AGO* dela esaten, baizik eta bi -AGO ditugularik (*X-AGO* eta *Y-AGO*), bataren maila aldatu ahala, bestearena ere aldatzen dela ematen dugu aditzera: *zenbat X-AGO, hainbat Y-AGO*. Nolabait, desberdintasuna zenbatekoa den esaten da eta bi zenbatekoak korrelazioan jartzen. Konparatiboak kuantifikatzea onartzen baitu (ik. 3.2.2.3). Hortaz, korrelazio hauek egiten dutena da *zenbat -AGO* adierazten duten bi perpaus parekatu, bien zenbateko horiek korrelazioan ezarriz.

Zenbatasunaz ari garenez, esamolde guztietan *zenbat* galde-hitza agertuko zaigu. Gaur gehien erabiltzen den esamoldea honako hau dugu:

ZENBAT ETA ... -AGO ...	$\left\{ \begin{array}{l} -eN \\ BAIT- \end{array} \right\}$	$\left\{ \begin{array}{l} HAINBAT \\ ORDUAN \end{array} \right\}$	-AGO
-------------------------	--	---	------

Hots: bi prozesu edo egoera konparatzen dira, nolabait. Adibidez:

- (346) a. *Zenbat eta gehiago tratatzen dudan, orduan eta gehiago estimatzen dut.*
 b. *Zenbat eta diru gehiago bildu, hainbat hobe denontrat.*
 c. *Zenbat eta mesede gehiago, okerrago.*
 d. *Zeinbat eta mundu onetan gehiago dagozan, ainbat eta pekatu gehiago egingo dituez (J. M. Zabala, Sermoiak, 211).*
 e. *Zenbat-ere bat bere buruaren apainzan sartuago, Jangoikoaren amorean anbar galduagoa (S. Mendiburu, Idazlan argitaragabeak I. 74).*

Korrelazio hauetako lehenbiziko atalean aditza osorik eman daiteke, (a)n

bezala, edo laguntzailerik gabe, (b)n bezala, eta baita inongo aditzik gabe ere, (c)n bezala. Nolanahi ere, badirudi horrelako perpausetan debeku larri xamarak daudela aditz aspektua hautatzeko orduan: badirudi adizki jokatua sartzen dugunean, forma ez-perfektuak behar direla horrelakoetan. Eta aditz laguntzailerik gabe ematen ditugunean, partizipioa hautatu behar dela nahitaez. Hala ere, partizipio honek ez du inolako perfektu baliorik aspektuaren aldetik.

Adizkia laguntzaile eta guzti emana denean, gainera, *-eN* edo *BAIT-* menderagailua nahitaezkoa da. Horrek, bestelako korrelazioetan gertatzen den bezala, zehargalderen tankerako egituren aurrean gaudela ematen digu aditzerra. Adibidez, (346a)ko adibidearen taxua oso argia da: [*zenbat ... -eN, orduan ... -AGO*].

a. ZENBAT (ETA) ...-AGO ... HAINBAT ...-AGO

Hegoaldeko esamoldea da, batez ere.

- (347) a. *Zenbat eta zuri Gurutzean begiratuago, anbat amorio andiago* (A. Carbabe-raz, *Egercicioak II*, 45).
- b. *Zenbat eta tentazio geiagoz inguraturik arkitzen dan kristau Jangoikoaren serbitzaria, anbat sarriago eldu bear du komunio santura* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 236).
- c. *Zenbat eta aurrerago zoazen bekatuan anbat andiagou izango da zauri au* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 399).
- d. *Zenbat geiago esan, ainbat aren indarra goragotzen da* (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 6).
- e. *Zenbat eta beartsuago izan etorrena, ainbat eta biguntasun geiagogaz artu oi eroan* (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 143).

b. ZENBAT ERE ... BAIT-... HAINBATENAZ ...-AGO

- (348) *Zonbat ere handi beita gure iniklatan nonbria hanbatenaz handiago düzü Jauna zure jüstiziaren pietatia* (A. Mercy, *Andere Dona Maria*, 4).

Adibide honetan korrelazioaren lehenengo atalean ez dugu *-AGO*-rik. Ez da hau jokamolde arruntena.

c. ZENBATE(NA)Z ...-AGO ... HAINBATE(NA)Z ...-AGO

Hau, berriz, Ekialdeko esamoldea dugu.

- (349) a. *Zenbatenaz gosea handiago, hanbatenaz janharria gozoago* (P. Axular, *Guero*, 318).
 (= zenbat eta gosea handiago, hainbat gozoago janaria).
- b. *Zenbatenaz on beharrago, eta ezdeusago gure buruak ezagutzen baititugu, hanbatenaz zinezago dugun rekursa hire ontasun subiranora eta handira* (J. Leizarraga, *Othoizta*, A 5 r.).
- c. *Zeren usoak zenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, gozoago eta zaporetsuago* (P. Axular, *Guero*, 171).
- d. *Zenbatenaz upalago / Bai datza ezarria, / Hanbatenaz hortitzago / Da zimentu berria* (S. Monho, *Poèmes basques*, 106).

Bestalde, bi perpausen artean *eta* juntagailua ere erabil daiteke:

- (350) Askotan gerthatzen baita gauza bat *zenbatenaz xehatzenago*, eta *hanbatenaz dela*, argitu behar bidean, *goibeltzenago* (L. Goyherche, *Fableac*, 5).

Hala ere, korrelazio hauek gehienetan juntagailurik gabe ematen dira, albo-rakuntza bidez, alegia. Salbu, jakina beste era honetako esapidcetan:

- (351) a. Gero eta zaharrago.
 b. Zaharrago eta txarrago (= zenbat eta zaharrago, (eta) txarrago).
 c. Beranduago eta okerrago (= zenbat eta beranduago, (eta) okerrago).

d. HAINBATENAZ ...-AGO ... ZENBATENAZ ...-AGO

Alderantzizko hitz-hurrenkera ere zilegi da. Kontuan izan behar da, ordea, (350)-(351) perpausetan ez bezala, oraingoan ez dela *eta* juntagailuarentzako lekurik:

- (352) a. *Hanbatenaz gizona hurbiltzenago zaio Jainkoari, zenbatenaz gehiagorik eta gaitzagorik pairatuko ahal baitu haren amorioa gatik* (S. Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 108).
- b. *humilla hanbatenaz bihotzdunago da, zenbatenaz ezagutzenago baitu indarririk eztuela* (S. Pouvreau, *Philotea*, 210).

c. *hanbatenaz gorago* altxatzen da Jainkoa ganat, *zenbatenaz beherago* jausten *baita* bere ezteustasunerat, eta bere begietan agertzen mezprezagariago (M. Chourio, *Imitacionea*, 272).

Maila zenbatzen ari garenez, jokabide arruntena korrelazioaren bi zatietan -AGO konparatiboaren marka agertzea da. Hori erakusten digute goiko adibideek. Baina, -AGO hori gabe ere eraikitzen dira esamolde hauek. Adibidez, ondoko perpaus honetan -AGO behin bakarrik ageri da:

(353) ... exhortatzen dugularik elkhar: eta haur *hanbatenaz gehiago zenbatenaz baita-kusazue* hurbiltzen dela egun hura (J. Leciarraga, *Testamentu berria*, 395).

e. ZENBAT gabeko korrelazioa: ...-AGO (eta) ...-AGO

Zenbat galde hitza gabe ere era daitezke horrelako perpausak, korrelazioaren bi zatien artean *eta* juntagailua ezarriaz:

- (354) a. *Gazteago eta departamenduaren aldeago* dira.
b. *Zaharrago eta txarrago* izan ohi dira batzuk.
c. *Zaharrago, zoroago* (A. Oihenart, *Proverbes basques*, 37).
d. *Zaarrago ikaskurago* (*Refranes y Sentencias*, 22).
e. Tximinoa, zuhaitzean gorago, uzkia ageriago.

Hona hemen adibide bat non konparatiboan dagoena adizkia den:

(355) *ñori* ez esateko agindu zion. Bafia arek *debekatzenago*, ta aiek *zabaltzenago* zuten berri ori (P. Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 231).

Hau, jakina, hemen azaldu den ohiko moduan ere eman daiteke:

(355') *ñori* ez esateko agindu zion. Baina hark *zenbat* eta *gehiago* debekatzen zien, *hainbat* eta *gehiago* zabaltzen zuten haiek berri hori.

f. GERO(AGO) (ETA) ...-AGO

Orain arteko perpaus hauetan guztietan nabari da halako progresio kutsu bat, nolabaiteko bilakaera baten fase desberdinak kontuan hartuko bagenitu

bezala. Hori are nabarmenago gertatzen da ondoko esamolde hauetan. Oraingoan adierazten duguna da denbora aurrera doan heinean, zerbait *X-AGO* dela. *Gero eta ...-AGO* esamolde honek funtsean aurrekoen balio bera du, baina hemen korrelazioan jartzen dugun lehenbiziko kontua denbora da, eta, gero, adierazi nahi duguna. Hots: orain artekoetan honen antzekoak genituen:

(356) Zenbat eta hurbilago, hainbat hobeto ikusiko dituzu zenbakiak.

Bi prozesu jartzen dira parean: hurbiltzea, bata, eta zenbakiak ongi ikustea, bestea. Bata gehiagora doan heinean, bestea ere gehiagora, edo hobera joango da.

Oraingoan, gauza bera funtsean, baina lehenbiziko prozesua ez da, (356)an bezala, hurbiltzea, denbora igarotzea bera baizik:

(357) Gero eta hobeto ikusiko dituzu zenbakiak.

Honako hau esango bagenu bezala, esan ahal baledi:

(357') Zenbat eta geroago, hainbat hobeto ikusiko dituzu zenbakiak.

Esamolde hau guztiz arrunta eta maiz erabili beharrekoa da.

(358) a. *Geroago ta estuago zerabilen* (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 182).

b. *Geroago eta gehiago* Jainkoa maitatzera (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 32).

c. Entzulea *gero eta eder goseago* da (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 57).

d. Biziko da ene arima / *geroago sailduago* (B. Gasteluçar, *Egia Catholicac*, 105).

e. Zaharrak *gero eta idazteari emanago* (M. Atxaga, *Deia* 97.11.14, 16. or.).

[*Gero eta ... -AGO*] tankerako esamolde hau, azken batean (354-355)ekoak bezalakoa dugu. Hain zuzen, [*geroago eta ... -AGO*] gisa ere erabil daiteke:

(359) *Geroago eta ederrago* dago gure herria.

Esamolde hauek *-gero* aditzondoak salatzen duen bezala— denborarekin jokatzen dute. Alegia, denboraren arabera bideratzen dute konparazioa.

Horregatik, ez dira zuzenak denbora-joko hau ez duten *gero*-dun perpaus hauek, sarrigi entzun badaitezke ere:

(360) a. ??Gero eta barrurago eta ilunago aurkituko duzu basoa.

b. ??Gero eta aberatsagoa, eta errukarriagoa da agure hori.

Perpaus hauek zerbait esan nahi badute, horrela ezin daitezke eman. Hauek izango lirateke esamolde zuzenak:

(360') a. (Zenbat eta) barrurago, {hainbat / orduan eta} ilunago aurkituko duzu basoa.

b. (Zenbat eta) aberatsagoa, {hainbat / orduan eta} errukarriagoa da agure hori.

c. Zenbatenaz barrurago, hainbatenaz ilunago aurkituko duzu basoa.

d. Zenbatenaz aberatsagoa hainbatenaz errukarriago da agure hori.

LABURPENA

Konparazio perpausak orokorrean

1.1. Konparazio perpausen zeregina

• Konparazio perpausak adizlagun baten, adjektibo baten nahiz izen sintagma baten osagai izan ohi dira.

(1) a. Atzo bezain pozik ez zaitut inoiz ikusi.

Adizlaguna

b. Erroma Paris baino ederragoa da.

Adjektibo sintagma

c. Liburu honek zureak (dituen) adina marrazki ditu.

Izen sintagma

• Sintagma horietan maila hitz batek edo zenbatzaile batek bete ohi duen zeregin berbera betetzen du konparazio perpausak.

(2) a. **OSO** polita da nire soinekoa / **Zurea BEZAIN** polita da nire soinekoa.

b. Zaldi **ASKO** ikusi nituen / **Zuk ADINA** zaldi ikusi nituen.

Oso-k eta *asko*-k betetzen duten zeregin berbera betetzen du perpaus konparatiboak:

[OSO]	polita
{ZUREA (den) BEZAIN}	polita

Bi kuantifikatze moduen arteko diferentzia argia da: *oso* edo *asko* esatean zenbatekoa bere horretan adierazten dugu “kanpora” joau gabe.

(3) Jende **ASKO** ikusi genuen plazan

badiot, zenbat jende ikusi genuen aditzera ematen dut. *Asko* zenbat den jaki-

tea erraza ez bada ere, zenbatasun hori bere horretan gelditzen da, ez noa zenbateko hori finkatuko didan beste kanpoko ezeren bila.

Perpaus konparatiboan, ostera, *adina*-k edo *bezain*-ek ez du zenbateko hori bere kasa adierazten, perpaus baten beharra du eta perpaus horretan ematen zaigu zenbatasunaren edo mailaren erreferentzia: (2b)ko adibidean perpaus nagusiko zaldi kopurua zehazteko beste perpaus batera jo beharra dago, konparazio perpausera, haiu zuzen. Perpaus honek ematen digu konparaziorako behar dugun eredu edo erreferentzia. Alegia, zuk zenbat zaldi ikusi zenituen baldin badakit, eta orduan hakarrik, dakit zenbat zaldi ikusi nituen nik: *Zuk adina zaldi ikusi nituen nik*.

1.2. Konparazio perpaus motak

Bi eredu bereiziko ditugu: *eredu arrunta* dei genezakeena eta *eredu erromanikoa*.

Eredu arruntean honela egituratzen da perpausa:

(4) Aberatsa [pobrea [Ø]_i] bezain_i biluzgorri sortu zen
|_____|

(5) Euskaraz [latinez [Ø]_i] adina_i liburu egin balitz...
|_____|


Eredu erromanikoan, ostera, honako taxua izango dugu:

(6) [Aberatsa hain_i biluzgorri sortu zen] | nola_i pobrea |
|_____|

(7) [hainbat_i liburu egin balitz] | nola_i latinez], ...
|_____|

2. Eredu arrunta

– Konparazio perpausetan berdintasuna eta desberdintasuna izan ohi dugu kontuan, alde batetik. Eta maila, zenbatasuna eta modua, bestetik:



– Egitura, funtsean, honako hau da:

[perpausa + konparazio morfema] + {adjektiboa / izen sintagma / adizlaguna}

[Miren -- (den)	BEZAIN]	langilea	da Koldo
[Mirenek -- (erosi duen)	ADINA]	olio	erosi du Koldok
[Miren -- (joan den)	BAINO]	urrunago	joan da Koldo

Baina perpaus erlatiboetan bezala, mendeko perpausean nahitazko ixilune bat izan behar dugu, maila hitzari edo zenbatzaileari dagokiona, edo hauek osagai dituen sintagma osoari dagokiona:

[Mirenek X olio erosi du en adina] olio → Mirenek [Ø] erosi duen adina olio

– Konparazio perpausa perpaus murriztua da

• Konparazio perpausean kontrasteen jarri nahi diren osagaiak bakarrik ezarri ohi dira.

Gehienetan, osagai bakarra izan ohi da.

Mendeko perpausoko maila hitza edo zenbatzailea, eta honekin batera doan sintagma (perpaus nagusiko berbera bada) ixilpean utzi behar da.

Aditza, bi perpausetan bera denean, ixilpean uzten da baina, agerian ere eman daiteke.

Aditza agerian dagoenean, -en atzizkiak hornitua joan behar du.

• Gauzak horrela, konparazio morfemaren ezkerretara, aditz eta guztiko perpausa ager daiteke (aditzak *-eN* atzizkia duela):

(8) **On den adina** eta gehiago cdaten dute batzuek.

(9) Gauzak **diren baino** ilunago jartzen dituzte horiek.

(10) **Esan didazun bezala** egin dut lana.

• Edo osagai bakarra ager daiteke, perpausuan dagokion zereginaren araberako kasu marka duelarik (absolutiboa, ergatiboa, datiboa, etab.):

(11) **Zuek bezain** odol garbia du / **Zuek baino** odol garbiagoa du.

(12) **Elurra bezain** txuri bilakatuko da arropa / **Elurra baino** txuriago bilakatuko da arropa.

(13) **Besteren onari bezain** ongi begiratzen diote berenari / **Besteren onari baino** hobeki begiratzen diote berenari.

(14) **Basoan bezain** lasai ez naiz inon aurkitzen / **Basoan baino** lasaiago ez naiz inon aurkitzen.

(15) **Luze bezain** zabala zen kale hura / **Luze baino** zabalagoa zen kale hura.

(16) **Etsai adina** adiskide nituen herri hartan / **Etsai baino** adiskide gehiago nituen herri hartan.

• Baldintzazko perpaus bat ere ager daiteke:

(17) Etxeko **gerrena irentsi balu bezain** xut joan zen.

(18) Lotsatu egin ziren, **bekatu handi batean atxeman balituzte bezainbat**.

(19) **Sekula ontzi bat hautsi ez balu bezala** agertu zen gelan.

• Eta, oro har, perpausaren edozein osagai.

• Osagai bat baino gehiago ere ager daiteke konparazio morfemaren ezkerretara:

- (20) **Hire idiak uretan adina** edaten duk hik ardotan.
- (21) **Itsasoan ur xorta, udan haritzetan hosto eta lurrean harea izpi bezainbat** mende baino lehenagokoa da.
- (22) **Loreak udan ihintza bezala** maite dut dama gazte bat.

3. Eredu erromanikoa

– Eredu arruntaz baliatu beharrean inguruko hizkuntza erromanikoetako tankeran ere osa daitezke konparazio perpausak euskaraz.

Era honetako perpausetan berdintasunezko konparazioa ematen da aditzera.

[Perpausa { *bezain / adina...* }] taxuaren ordean beste honako hau baliatzen da:

[Perpaus nagusia ... *HAIN / HAINBAT ...*] [Perpaus menlekkoa ... *NOLA ... -eN / BAIT-*]

Adibidez:

- Zenbatasunezko konparazioan: *HAINBAT... NOLA... BAIT- / -eN*

(23) Arratsaldean hasi zirenei eman zien *hainbat* jornal *nola* goizetik hasi zirenei.

- Maila konparazioan: *HAIN ... NOLA ... BAIT- / -eN*
HALAKO ... NOLA ... BAIT- / -eN

(24) Espainiako errege ez zen *hain* dohatsu izan *nola* baitzen Migel Pocodinerok.

(25) Ez zuen bere bizian izan *halako* bizitasunik *nola* izan baitzuen goiz hartan.

- Modu konparazioan: *HALA ... NOLA ... BAIT- / -EN*

(26) Deusek ez du *hala* gizona ahultzen *nola* jendearen konpainia gehiegizkoak.

– Korrelazioak

Lehenbiziko perpausan galde hitz bat ageri da eta bigarrean, galde hitz honekin loturiko anaforiko bat:

(27) NOLA egiten baituzu zuk, HALA egiten dute besteek ere.

(28) ZENBAT aldiz eskatu genion, HAINBAT aldiz ukatu zigun.

(29) ZENBATEZ sakona lana, HAINBATEZ zaila irakurtzea.

Progresioa adierazten duten zenbait esamolde ere taxu honetakoak dira.

Hauen eskema nagusia honako hau da:

Zenbat eta ... -AGO {-eN / BAIT-} {hainbat / orduan} ...-AGO

(30) ZENBAT eta behartsuago izan, HAINBAT eta biguntasun handiagoz hartzen zuten.

(31) ZENBATENAZ gazteago, HAINBATENAZ lirainago.

4. ONDORIO PERPAUSAK

4.1. ONDORIO PERPAUSAK ZER DIREN

Testu mailan, esaldi bateko baieztapen baten ondorio logiko gisa edo, beste esaldi bat aurkez daiteke. Honetarako egokiak ditugu, adibidez, ondoriozko lokailuak: *beraz*, *hortaz*, *horrenbestez*, eta abar:

(1) a. Ordu biak dira. *Beraz*, goazen bazkaltzera.

b. Bilbo Donostia baino handiagoa da. *Horrenbestez*, Bergara baino handiagoa ere bada.

(1)en, bigarren perpausak ondorio logiko bat adierazten du. Lehenbizikoaren konklusio gisa aurkezten du hitzunak.

Baina izan ditzakegu bi gertakizun non bata bestearen ondorio gisa aurkezteaz gainera, ondorio hori maila-hitz batekin erlazionatua dagoen:


(2) *Hainbeste* diru irabazi zuen gizonak, *non* burua galdu baitzuen.

|—————|

Hemen gizonak burua galtzea irabazitako diru kopuruaren ondorio gisa aurkezten zaigu. Oraingoan ez gaude konklusio baten aurrean, kausa bati zor zaion benetako ondorio baten aurrean baizik. Bi gertakizun ditugu dirua irabaztea eta burua galtzea. Azken hau irabazitako diru kopuruaren ondorioa da eta hala aurkezten da. Kopuru hori adierazten du *hainbeste* zenbatzaileak. Era honetako perpausari deitzen zaie perpaus kontsekutibo. Kuantifikazio baten edo mailakatze baten ondorio direnak dira perpaus kontsekutiboak.

Egiazko munduan, gauzen eta gertaeren munduan, gertakizun batzuk beste batzuen ondorio izan ohi direla kontsideratzen dugu: batzuk ondorio izan ohi dira, beste batzuk kausa. Eta gertaera horiei erreferentzia egiterakoan, kausa-

ondorio erlazio horretan, begiak kausan nahiz ondorioan jartzera eraman gaitzake hizkuntzak: kausari so egiten diogunean, perpaus kausalak osatzen ditugu. Ondorioa baldin bada kontuan hartzen duguna, ondoriozko perpausak osatzen ditugu. Eskema baten bidez:



Adibide batkin aski erraz ikus daiteke dioguna. Eman dezagun habe baten gainean pisu handiegia ezarri dutela eta horregatik erori egin dela egiten ari ziren etxea. Hor badugu kausa bat eta baita kausa horren ondorioa ere. Baina hizkuntzaren ikuspegitik modu desberdinean irudika daiteke hori:

(3) a. Etxea erori egin da, habeari zama handiegia ezarri baitiote.
kausazko perpausa

b. Habeari zama handiegia ezarri diotelako erori da etxea.
kausazko perpausa

Kausazko perpaus hauetan egiazko kausaz ari garen ala kausa logikoaz ari garen eztabaidatu izan da gramatiketan. Diferentzia hori, edo horren antzeko bat, ikus daiteke ondoriozko perpausetan. (1)eko adibideetan, esaterako, bigarren perpausoko baieztapena hiztunak ondorioztatzen duen zerbait da, lehenbizko perpausetik "ateratzen" duen ondorio bat da, konklusio bat. Habearen eta etxearen adibidera itzuliz, egiazki, ezin dugu kausa-ondorio erlazio egiazkoa adierazi *beraz* eta honen kideko lokailuekin:

(4) a. Etxea erori egin da; beraz, habeari zama handiegia ezarri diote.
ondoriozko perpausa

b. Habeari zama handiegia ezarri diote; beraz, etxea erori egingo da.
ondoriozko perpausa

(4)ko adibideetan argi ikus daiteke ondoriozko perpausa kasu batean bat dela eta bestean bestea. Hori gertatzen da ondoriozko perpaus hori ez delako nahitaez ondorio fisikoa, hiztunak bere kabuz, bere buruan, ateratzen duen ondorio bat baizik.

4.2. ONDORIO PERPAUSEN TAXUA

Hortaz, inon behar bada bereizi esanahia eta sintaxia, edukia eta forma, hemen egin behar da. *Esanahiaren* aldetik ondorio direnak, *sintaxi egiturari* begira, *perpaus kontsekutibo mendeko* gisa eman daitezke.

(7) a. *Hain merke zegoen sagarra NON bost kilo erosi BAI*nituen.

b. *Hain merke zegoen sagarra EZEN bost kilo erosi nitu*EN.


Baina erlazio hori berori *alborakuntza* bidez ere eman liteke:

(8) *Hain merkeak dira, bost erosiko ditut.*

(8)ko perpausa beste ordena duela ere eman daiteke:

(8') Bost erosiko ditut, *hain merkeak dira.*

(8)n, ordena aldatuak, bigarren perpausa enfatizatzen da, kausazko perpausetan egiten den bezalatsu. Alborakuntza bidezko esamolde hauek zilegi dira eta batez ere ahozko hizkeran erabiltzen dira, ez hainbeste hizkuntza idatzian. Izan ere, horrelako perpaus alboratuak intonazio berezia izan ohi dute eta zail gertatzen da intonazio hori behar bezala aditzera ematea idatzizkoetan.



4.2.1. Mendeko ondorio perpausak

4.2.1.1. Egitura orokorra

Mendeko perpaus kontsekutiboen egitura orokorra, funtsean, honelakoa da:

(9)

Perpaus nagusia	Perpaus kontsekutiboa
... HAIN ...	{ NON ... }
... HAINBESTE ...	{ EZEN ... }
... HAINBAT ...	{ ZEIN ETA ... }
... HALA ...	
... HALAKO MANERAN ...	∅
... HALAKO MOLDEZ ...	{ BAIT-... }
	{ ... -eN }
	BAIT-

Esan daiteke, hortaz, perpaus kontsekutiboan perpaus nagusiko adjektibo edo aditzondo baten mailaren nahiz izen sintagma baten zenbatekoaren ondorioa adierazten dela:

(10) *Hain goxo nengoen ohean, non eskolara joan gabe gelditu bainintzen.*

Bi perpaus ditugu, hortaz, eta perpaus pare hau korrelazioan aurkezten da: perpaus nagusian kuantifikatzailea edo maila-hitza (*hain, hainbat, hala,...*) dugu, konparatiboetan bezala, eta honen parean, eta erlazioan, perpaus txertatua.

4.2.1.2. Perpaus txertatuaren taxua

Perpaus txertatuko adizkiak *BAIT-* edo *-eN* markak ditu normalean. Seinale perpaus txertatu edo mendeko baten aurrean gaudela. *BAIT-* da nagusi ekialdeko testuetan eta *-eN*, berriz, mendebaldekoetan.

Hala ere, sarritan perpaus kontsekutiboak ez du inolako markarik eramateen. Menderagailua eramatea bada perpaus bat mendekoa den ala ez erabaki-

tzeko darabilgun irizpidea, ezingo genuke esan mendeko perpausa denik kasu honetan. Dena den, kontu hau ez da berria, kausazko perpausetan ere gauza bera gertatzen baita: batzuetan *zeren ... BAIT-* / *-eN* aurkituko dugu, baina beste batzuetan *zeren* soilik. Bada, perpaus kontsekutiboetan ere horixe gertatzen dela dirudi: batzuetan *non / ezen ... BAIT-* / *-eN* aurkituko dugu, baina baita, zenbaitetan, *non / ezen* bera bakarrik ere. Lehenbizikoak benetako perpaus menderatuak izango ditugu. Besteak, berriz, perpaus alboratuak.

4.2.1.3. *-eLA* atzizkiak ez du lekurik perpaus kontsekutiboetan

Aipatu ditugun *-eN* edo *BAIT-* morfemez gainera, ahozko hizkeran bereziki, aski zabalduak daude tankera honetako esamoldeak:

- (11) a. *Hainbeste diru galdu zuen, ez zekiela emazteari zer esan.
- b. *Hain begiluzea zen, herriko berri guztiak jakiten zituela.

Esamolde hauek, hegoaldean eguneroko hizkeran oso hedatuak badaude ere, ez dute tradizioirik eta ez dira gomendagarriak. *-eLA* atzizkiak ez du euskal tradizioan inoiz balio hori izan. Hori adierazteko bide jatorragoak baditu euskarak. Menderakuntzaz balia gaitzke, adibidez:

- (11') a. Hainbeste diru galdu du, non ez baitaki emazteari zer esan.
 - b. Hainbeste diru galdu zuen, ezen ez zekien emazteari zer esan.
 - c. Hainbeste diru galdu du, non ez dakien emazteari zer esan.
 - d. Hainbeste diru galdu zuen, ezen ez baitzekien emazteari zer esan.
 - e. Hain begiluzea zen, non herriko berri guztiak jakiten baitzituen.
 - f. Hain begiluzea da, ezen herriko berri guztiak jakiten dituen.
 - g. Hain begiluzea da, non herriko berri guztiak jakiten dituen.
 - h. Hain begiluzea zen, ezen herriko berri guztiak jakiten baitzituen.
- etab.

Eta alborakuntzaz ere balia gaitzke, ondoko paragrafoan erakusten den moduan.

4.2.2. Mendeko perpausen ordez alborakuntzaz balia gaitzke

(10)-(11)ko adibideetan bigarren perpausuan menderakuntza dugun bezala *-BAIT-* aurritzia edo *-eN* atzizkia darama aditzak– alborakuntza soilaz ere balia gaitzke. Horrelakoetan, ondorio gisa interpretatzen den perpausoko adizkiak ez du inongo menderakuntza markarik izango. Gainera, perpaus kontsekutiboaren buruan agertu ohi den *non*, *ezen* eta horrelakorik ere ez dugu nahitaz aurkituko:

- (12) a. *Hainbeste* diru irabazi zuen, burua galdu zuen.
 b. *Hainbeste* kexatzen da, beti berearekin ateratzen da.
 c. *Hain* hauskorra da, beldurra ematen du begiratzeak berak ere.
 d. *Hain* begiluzea zen, herriko berri guztiak jakiten zituen.
 e. *Hain* goxo nengoen ohean, eskolara joan gabe gelditu nintzen.

nahiz

- a'. Burua galdu zuen, *hainbeste* diru irabazi zuen.
 b'. Beti berearekin ateratzen da, *hainbeste* kexatzen da.
 c'. Beldurra ematen du begiratzeak berak ere, *hain* hauskorra da.
 d'. Herriko berri guztiak jakiten zituen, *hain* begiluzea zen.
 e'. Eskolara joan gabe gelditu nintzen, *hain* goxo nengoen ohean.

- (13) a. Ixasoak osin bat irudian, *ain* egoan bare ta baketsu (J. M. Echeita, *Josecho*, 249.)
 b. Poxpolo-kajan pare liteke / *ain* dago parragarriya! (Txirrita, *Bertsoak II*, 35).
 c. *Hain* da ezitia / Jaunaren legea, / Barne guzia / uzten du betea / Esperantza onez / Konsolazionez (S. Monho, *Poèmes basques*, 84).

Sarritan, batez ere maila-hitza daraman perpausa ondorioa adierazten duenaren ondoren ematen denean (hots: 12a'-e' bezalakoetan) *partizipioa* + *ere* eransten zaio:

- (14) Eskolara joan gabe gelditu nintzen, *hain* goxo nengoen ohean, egon ere.

Horago esan den bezala, alborakuntza bidez osatzen diren esamolde hauek

ahozko hizkeran gertatzen dira batez ere. Idatzian usuago dira menderankuntza bidez eratuak. Perpausen luze-laburrak ere baduke zerikusia.

4.2.3. Osagaien hurrenkera

Goiko adibideei erreparatzen badiegu, ordena aski aldakorra dela ohartzen gara berehala. Normalean, maila-hitza edo kuantifikazioa daraman perpausa jartzen dugu lehenbizi eta ondorioa gero:

- (15) Gertaera ori *ain* izan zan izugarria *non-eta* jenderik geiena lotsaturik eta atzipe-
turik erretiratu zan (S. Altube, *Laztintxu eta Betargi*, 45).

Baina, alborakuntzaz osatueta alderantziz gertatzen da, batez ere.

- (16) Jenderik gehiena lotsaturik erretiratu zen, *hain* izan zen izugarria gertaera hori.

Bestalde, maila-hitza (*hain*, *honen*, *horren*) hestelako perpansetan, eta bereziki perpaus lokabeetan, adjektiboaren edo aditzondoaren aurre-aurrean kokatzen bada ere, hemen aurkezten ari garen perpaus hauetan adizkiaren aurre-aurrean kokatzen da maiz. Hau litzateke, *hain* zuzen, perpaus alboratu hauen ezaugarrietako bat. (13)ko perpausak ditugu lekuko. Hona hemen beste hauek ere:

- (17) a. *Hain nengoen* goxo ohean, non ez bainintzen eskolara joan.
b. Denak maitemintzen dira, *hain dira* politikak zure begiak.
c. [begiek] izarrak dirudite / *ain ditu* argiyak (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 59).

Maila-hitza aditzaren aurrera eramate hau adjektiboekin eta aditzondoekin gertatzen da, ez izen sintagma barneko zenbatzaileekin (*hainbeste*, *hainbat* eta horrelakoekin, alegia). Horrenbestez, (12c-e)ko perpausak beste era honetara eman litezke. Adierazteko modu hau, gainera, hedatuagoa dela pentsa liteke:

- (18) a. Beldurra ematen du begiratzeak berak ere, *hain* da hauskorra.
b. Herriko berri guztiak jakiten zituen, *hain* zen begiluzea.
c. Eskolara joan gabe gelditu nintzen, *hain* nengoen goxo ohean.
a'. *Hain* da hauskorra, beldurra ematen du begiratzeak berak ere.

- b'. *Hain* zen begiluzea, herriko berri guztiak jakiten zituen.
 c'. *Hain* nengoen goxo ohean, eskolara joan gabe gelditu nintzen.

Perpaus kontsekutiboaren hasierako morfema nolabait perpaus nagusiari itsatsia edo klitikotua ere gerta liteke. Hona hemen horrelako esamolde bat, oso ohikoa ahozko euskaran, mendebaldekoan bereziki:

(19) Eskolara joan gabe gelditu nintzen, *hain* goxo nengoen-ze.

4.3. MENDEKO ONDORIO PERPAUSEN ZENBAIT EREDU

Hona hemen, nolana ere, euskal testuetatik jasotako zenbait adibide. Gogoan izan bedi *-eN* atzizkia mendebaldeko euskaldunek erabiltzen dutela eta *BAIT-* aurrizkia, berriz, ekialdekoek.

4.3.1. Lokailua dutenak

Non eta *ezen* dira lokailu nagusiak.

a. *HAIN ... NON (ETA) ... [BAIT- / -EN]*

Tankera honetakoak dira ondorio perpaus gehienak: alde batetik maila hitza ageri den perpausa, perpaus nagusia, eta bestetik perpaus mendekoa. Perpaus txertatu honen buruan *non* elementua ager daiteke, zenbaitetan *eta* juntagailua ondoan duela, nolabaiteko indarra emateko edo. *Eta* hori beste zenbait lokailuren lagun ere ezaguna da: *nahiz eta*, *baizik eta*, *zenbat eta*, *etab*.

Maila-hitza dagokion adjektiboaren aurre-aurrean joan daiteke, honako adibide hauetan bezala:

- (20) *Ain ona* da gure Jauna, *non* beraren izenean igarotzen dan gurutz. ta naigaberik txikiena ere, Zeruaren irabazitzat artzen *duan* (J. B. Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I. 283).
 (21) Beste batzuek dira *ain emanak* beren irabazi naietara *non da* igarotzen dituzten eguneko orduak arazo andietan (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 190).

- (22) Emendi dator, ez daukanak propositu *ain sendua*, *nun* da galduko ez *litukian* leenago onria, bizitzia, ta edozein ondasun Jaungoikuaren grazija baño, ez daukala egijazko propositurik, ta daguala pekatu mortalian (J. A. Moguel, *Confesiño ona*, 88).
- (23) Izandu zan Españan leorte bat *ain ikaragarria*, *non* ogei ta bederatzi urteren epean euri pitin bat ere ixuri izan eztzan (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 4).
- (24) gure gogoak *ain seguranza andiak* ematen dizkigu, *non* zartu utsezko punturaño ezgerala illko iruditzen *zagun* (F. A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 288).
- (25) Eta sortu zan gose *ain ikaragarria*, *non* Amak heren semeak jatera behartu *ziran* (J. A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 111).

Baina ondorio perpausetan oso arrunta da, batz ez Iparraldeko tradizioan, (26-28)ko perpausok erakusten duten osagai-hurrenkera, non perpaus nagusiko maila-hitzak adizkia bereganatzen baitu:

- (26) Jainkoaren ontasuna eta liberaltasuna *hain* da handi, *non* orai zuk ditutzun on horiek (...) zuk horietarik probeari emaiten diozunean, zeuretarik emaiten baitzino bezanbat estimatzen *baitu* Jainkoak (P. Axular, *Guero*, 150).
- (27) Zeren *hain* da gauza galdua eta galgarria alferkeria, *non* naturalezaren beraren ere kontra *baita* (Ib., 20).
- (28) *Hain* zen harritu otsua *nun* jauzi *baitzen* xenda-pialat (R. M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza*, 75).

Ondoko honetan, berriaz, ez dago aditzaren mugidarako lekurik aditzik ere ez baita:

- (29) Horra egiaren bigarren itxura, *hain* hitsa *non* barnea iluntzen *baitauku* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 156).

(15)eko perpausa ere gogoratu beharko genuke hemen.

b. [HAINBESTE / HAINBAT] ... NON ... [BAIT- / -eN]

- (30) *Hainbat* atsegin izan nuen ikustez *non* uste *bainuen* behin ere ez nintzala geldituko eskua trinkatzetik (J. Mirande, *Gauaz parke batean*, 44).

- (31) *Hanbat* egin zuen, *non* bere herria eta inguruneak ere, helan sartzera zihoan eritasunetik begiratu *baitezuen* (P. Axular, *Guero*, 3).
- (32) *Hanbat xehetasunekin* mintzatu izan dire Salbatzaile aginduaz, *non* haren bizia eta heriotzea aintzinetik erranak bezala *baiteziren* (E. Lapeyre, *Credoa*, 150).
- (33) Erran den belhar meta (...) berotuko da *hainbertze*, *non* eskuak meta barnean ezin iharduki *baitezake* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 126).
- (34) *hainbertze nigar* egiten zuen, *non* begiak eritu *baitezizaizkon* (F. Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 192).
- (35) Goseteari izurritea lagun etorri zitzaion: biak egunoro zeramazkitenak *ainbeste* ziran, *non*, etxeak eta karridak gorputz-illez beteak *zeuden* (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarr. berr. condaira*, 543).
- (36) *Ainbeste*, ta *añ andiak* dira Jaunagandik artu ditugun mesedak, *non* gai, edo gauza ez geran oen diñako eskerrak emateko (J. B. Aguirre Asteasukoa, *Eracsaldia II*, 213).

(31) eta (32)ko *hanbat* hau, batez ere ekialdeko idazleen artean, zenbaitetan, kantitatea barik maila adierazteko erabilia aurkitzen dugu. Ez da oso hedatua:

- (37) Testimoniaje hauk iunktatzen eta bardinzen dirade guziak *hanbat ungi eta xuxenki*, *non* hain konformitate handitik ageri *baita* klaroki (...) (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, 24)

c. HAINBATENAZ ... -AGO ... NON ... BAIT-

- (38) *Hanbatena*z lazarriago *non* Enperadorea gerla berri bati lotzera *baitoa* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 138).

Hemen perpaus kontsekutiboa *hanbatena*z maila-hitzarekin dago erlazionama. Hau nolabaiteko kuantifikatzaile bat dugu, konparazioa mailakatzeko erabiltzen duguna. Maila-hitz honek bidea irekitzen dio ondoren datorren perpaus kontsekutiboari.

d. { HAINBATE(TA)RAINO ... NON ... BAIT- } { HAINBESTE(TA)RAINO ... EZEN ... -eN }

- (39) Arranberritu eta konfirmatu izan da promes hura bera, bai *hanbatetara*no, *non* konfidanza eta seguranza handiagorri, klaroki aintzinetik deklaratu izan *baitez*en (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, 20).

- (40) Jainkoak nere salbamendua *hanbatetaraño* agiantzatzen du, *non* bera gizon egin *baia* (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 56).
- (41) Gu, orduko lotiok, lagun bizkor aien deadarrak esnarazi ginduzen. Ni, nerez ari naiz, (...) loti aien artean bainengoan. *Ainbestetaraño eze, ezpainintzan* etorri ere egin Arrasate'ko euskel-egunera (Lizardi, *Itz-lauz*, 130).
- (42) Bada *ainbestetaraño* itxutu ziran, eta *ainbestetaraño* gogortu ziran, *nun* Jesu-Kristo (...) gurutze batean illik ikusi artean aspertu *etziran* (J. I. Guerrico, *Sayaquera II*, 70).
- (43) Izpiritu Sainduak (...) emendatu zuen *hainbertzetaraño* batasun hura dizipuluen artean, *non ez baitzuten* bihotz bat eta arima bat baizen (M. Duhalde, *Meditaciones*, 197).

e. HAIN ... EZEN ... BAIT-

- (44) Usantzak *hain* du indar handia, *ezen* hark errekeriturik, Ejiptoko tipula baratzurietara, bihurtu nahi *baitzuten* (P. Axular, *Guero*, 60).
- (45) A zein handia den Jainkoak giristino beldur zaizkonentzat gorderik eta estalirik dadukan eztitasunaren multzutasuna. *Hain* da handia *ezen* frogatu duenak baizen ezin iakin *baitezake* nolakoa den (Ib., 328).
- (46) Eta berri hunekin (...) *hain* izitu, eta ikharatu ziren, *ezen* presenteko guztiak (...) ethorri *baitzeitzan* galdegitera (Ib., 572).

f. HAIN ... ZEIN ETA ... -eN

- (47) Baiña *ain* doillorrak izan dira *zein ta ez deusten* atara trago bat (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 16).
- (48) *ain* zoroac eta itsuac izango zare emetic aurrera, *cein-da* ardura gueiago euquico *dozuen* gorputzagaz, arimegaz baño? (J. M. Zabala, *Sermotak*, 223).

Jakina, *hain* maila-hitza bezalaxe, sail berekoak ere ager daitezke: *honen*, *horren*, adibidez:

- (49) *Orren* arima galdukoak egiten gaituzu *zein ta* sangriak emongo *ditugun* diru gchiago irabaztearren (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 21).

- (50) Galduba naz; daukat pekatu bat *uin ezain* ta lotsagarrija, *zein da* ezin konfesau izan *dodan* urte osuetan (J. A. Moguel, *Confesio ona*, 151).

g. HALAKO {MANERAN / MOLDEZ / SUERTEZ / GISAZ ...} {NON / EZEN} ... {BAIT- /-EN}

Halako, berez, ez da maila hitza, baina hauen zeregin bera betetzen duela pentsa dezakegu. Nolanahi ere, ondorio perpausa *halako* horri atxikia ageri da nolobait, ondorio perpausetan ohikoa den moduan.

- (51) *Halako maneran non* bere biziondar guzia ohean pasatu beharko *baitu* (J. F. Cerquand, *Iparaldeko Legendeak I*, 97).
- (52) Ifernuko eritasunean, hango penetan, *halako moldez* daude esperantzaren atheak her-tsiak, eta portuak hartuak, *non* hala dauden doforezkoek eta han daudenek, *ezpaiture* nehondikan ere konsolamenduren sartzeko argirik ikhusten (P. Axular, *Guero*, 384).
- (53) ... orduan berean alhatzen zaika *bere* konzientzia: *halako suertez*, *ezen ezpaita* posible bekhatutan dagoenak (...) atsegindasun osorik ahal dukeien (Ib., 281).
- (54) ... gure egunak igaro ditzagun *alako eran*. *non ezgerun* beñi ere aztutzen lurraren gafean gauden artean destierroan gaudela (F. A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 360).

h. HAINBATENAZ (ERE) ... NON ... BAIT-

- (55) *Hanbatenez* egia diozu, Etxeko-Jauna, *non* mezan aurkhitzen direnak oro parta-lier *baitire* Apezharekin aldareko Sakrifizio hortan (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 103).
- (56) Iguzkiak erre nahi du, *hanbatenez non ez baita* zubatz handirik ezagun, bide-baz-terretakoez bertizalde (J. Etchepare, *Beribitez*, 36).

4.3.2. Lokailurik gabe

Non-en pareko elementurik gabe ere osa daiteke perpaus kontsekutiboa. Hala ere, ez da hau itzuli arruntena.

- (57) *Hain* hun eta sinesle zen, *beti ihurk* ere *ezpeitzian* erranen Mette hezgaitz hura zela (J. Mirande, *Gauaz parke batean*, 32).

- (58) *Ainbestetaraño* dala guri-gozoa gure maitetasuna, beldur *baigenduke* maitearen pakea urre-tintin zaharrez hautsia! (Lizardi, *Itz-lauz*, 94).
- (59) Giza-semeak (...) *ain* eder ziran, aiengana Maitagarriak maiteberotu *baitziren* (Orixe, *Mireio*, 71).

4.3.3. Ezeztapena eta galdera ondoriozko perpausetan: subjuntiboaren agerpena

Autore zaharretan, egiturazko zenbait baldintza gertatzen direnean –bere-ziki, perpaus nagusia ezezka doanean edo galderazkoa denean–, *-eN* atzizkidun adizkia izango dugu perpaus kontsekutiboan, baina *ezan / edin* sailckoa, hots, 'subjuntiboa'. Axularrek, adibidez, baditu horrelakoak:

- (60) ... bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek, *eztute* kargu hartan *halako moldez kexatu eta irakitu behar, non* gainez *egin dezaten*, eta amorioa desamorio, eta gaitzerizkoa bihur *dakien* (P. Axular, *Guero*, 186).
- (61) *Ezta* Jainkoa *halako moldez miseriordios, non* iustiziarri bide gabetik *egin diazon* (Ib. 94).
- (62) Segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzién artean *ez garetla hain basa, non* gure lengoajez *ezin ezagut eta lauda dezagun* gure Jainko Jauna (J. Leizartaga, *Testamentu Berria*, 12).

Adibidez, (61)eko Axularren esaldia ezezka barik baiezka eman beharko bagenu, honelatsu izango zen:

- (63) Jainkoa *halako moldez* da miseriordios, *non* iustiziarri bide gabe *egiten baitio*.

Alegia, goragoko (52)ren tankerakoa.

Perpaus nagusia ezezka emana da eta horrek badu zeriknsia subjuntiboaren agerpenean. Honako hau ere tankera bertzukoa dugu:

- (64) Egundano *ezta izan ez* izanen jagoitik
bekhatore *hain andirik* ezetare satsurik,
bere bidian jaugin bada zuri gomendaturik,
ukhen eztuien barkhamendu zure amorekatik
(B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 102).

Goragoko (22) adibidea ere kontuan hartzekoa da.

Galderazkoetan ere gerta daiteke subjuntiboa:

- (65) Signo bisible batek *hanbat bothere* ahal duke, *non* salbamenduko gauzán gure konzientziák *zertifika eta segura ahal ditzan?* (J. Leizarraga, *Othoitzu*, 81).

Perpaus honetan, subjuntiboa ez ezik, *ahal* modala ere hor dugu. Perpaus osoa, berriz, galderazkoa dugu.

Perpaus nagusia aginterazkoa denean ere, mendekoa subjuntiboan izango dugu:

- (66) Egizu *hanbat* zeure othoitz onez eta arartekotasunez, *non* hekin batean *ardiets dezadan* orain Jainkoaren garazia (E. Materre, *Doctrina Christiana*, 291).

Horrelakoak, *adina(ko)*, *hainbestera(ino)(ko)*, *beste(ko)* edo *lain* elementuez ere eman litezke:

- (67) Salbamenduko gauzan gure konzientziak zertifikatu eta seguratu ahal izateko {*adinako, hainbestera(n)ko, beste, lain*} *bothere* ahal duke signo bisible batek?

Honako honetan, berriz, subjuntiboan emana dugu perpausa, baina oraingoan, subjuntiboaren agerpenaren arazoia ez da perpaus nagusia ezezka emana dela, baizik perpaus kontsekutiboa, ondoriozkoa ez ezik xedezkoa ere badela. Nolanahi ere, era honetako perpaus guztiek dute xede balio hori, nolabait.

- (68) behar genduke (...) *halako moldez, thuilluz, eta suertez aitzinerat gobernatu, non* azken finean, lainkoaren miseriakordiarckin batean *erdiets dezagun* guretzat ordeturik eta prestaturik dagoen bozkarioa (P. Axular *Guero*, 100).

4.3.4. *Erlatiboak eta kontsekutiboak*

Azken adibide hauetatik hizpide hartuz, bidezko dirudi beste perpaus hauei ere erreparatzea:

- (69) Amoretan othe date leial denik batere, / hitz ederrez ezpa joiáz *mutha eztaudin* hura ere? (B. Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae* II, 11).

Esamolde hauek arkaikotzat hartu behar dira, zaharkituztat. Nolanahi ere, hauetan aski garbi ikusten da badela halako ondorio-balio bat. Hori (69)-an baino hobeto ikusten da (64)ko adibidean. Horrelakoak erlatibo bidez oso modu errazean eman daitezke eta hala ematen ditugu gaur egun:

(70) Amoreetan ba ote da leial denik bat ere, hitz ederrez edo joi az mutaturik ez denik?

(71) Egundaino ez da izan ez izango hain bekatari handirik ez satsurik, barkamendu izango ez duenik zure amoreagatik.

[*Ez ... hain ... -eNIK*] tankerako perpaus hauek, egiazki aposizioan dauden bi sintagmaz eratuak ditugun. Bigarren sintagman erlatibo bat dugu txertaturik. Perpausa ezezka emana denez, gainera, partitiboa agertzea guztiz arrunta gertatzen da.

(72) Ezta eltze ain itsusirik, bere estalkia ez tuenik.

(73) Ezta nehor ere hain gaixtorik, zenbait aldiz, bere gaixtakerien utzteko gogoia ethortzen etzaikanik, eta zenbait desirkunde on ere izaiten ez tuenik (P. Axular, *Guero*, 32).

Honako Axularren honetan ere gauza bera. Gainera, latinezko subjuntibozko erlatiboaren ordain gisa ematen zaigu *-eNIK* forma:

(74) *Nulla res est tam difficilis quae non fiat facilis spes futurae vitae (...)* Ezta hain gauza gaiztik, ethorkizuneko bizitzaren esperantzarekin *erraxten ez tenik* (Ib., 318).

4.4. ONDORIO PERPAUSEAN MENDERAGAILURIK EZ DUTENAK

Ondorio perpausean menderagailurik (*-eN* edo *BAIT-*) ageri ez bada, perpaus alboratuz hitz egin beharko dugu. Hemen ere bi mota ditugu: lokailua dutenak eta horrelakorik ez dutenak.

4.4.1. Lokailua daramatenak

a. HAIN ... EZEN ... Ø

Perpauk kontsekutiboaren hasieran *ezen* elementua ager daiteke *non-en* parean. *Ezen* horren aldaerak direla pentsa liteke *ze*, *zer*, *eze* eta *ezi*. Batasunaren izenean, *ezen* forma dirudi dela hobestekoa. Baina orain arteko adibideetan perpauk txertatuko aditzak *BAIT-* edo *-eN* morfema bazeraman, morfema hori gabekoak ere baditugu. Horrenbestez, alborakuntzaren aurrean gaudela pentsa dezakegu. Hala ere, perpauka iraganean doanean, ezin jakin *-eN* atzizki hori baden ala iraganaren marka besterik ez den.

- (75) *Ain* dagoz onetara egiñak *eze*, batzuk, euren benetako izena zelan dan be *ez dakie* (D. Aguirre, *Kresala*, 44).
- (76) *Ain* bizitza on ta usain gozozkoa erabiliko dau *eze*, *maitetuko dabe* prankotarrak (D. Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 142).
- (77) azkanean *onenbestean* galdu deutse lotsea seigarreneko orreri *eze ez tirudi* ezpabere ori dala beuren yana... (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 208).
- (78) *Ain* izango da ceatza, *ain* estua kontu au *ze*, *ezta* geratuko argitara urtengo eztaben pekaturik (J. M. Zabala, *Sermoiak*, 225).
- (79) Beste batzuk, *ain* dira kondizinoe latzekuak, estubak, iraaizjak, eta sikubak, *eze uste dabe* olgeta guztiak diriala txarrak (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 16).
- (80) Euren gomutiagaz egiten deust gerra *ain* bizia, *ze beti nauka* bildurrez ikara (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 139).
- (81) Estu eben *ain* irme metarrira, *ze*, istanda *egin eutsan* eskuturreti odolak (P. A. Añibarro, *Escu-liburua*, 212).
- (82) *Aiñ* zan albiste ori jakingurearen esnagarria *eze* (...) bera *izan zan* gau atako jardungei bakarra (D. Aguirre, *Kresala*, 35).
- (83) Pekatu mortalaren itxustasuna *aiñ* da andia, *eze ozta sinis lezake* egilca dala eginu baño len *zan* persona (F. A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 291).

- (84) Berze bazuk berze aldetik dire *ain* biotz erxiak, *ezi daude* beti afanaturik ez utzi naiez kea ere etxetik... (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 110).

b. HAIN ... NON ... Ø

- (85) Lau seme zituen, / lauak *ain* langilleak, / *ain* mutill azkarrak, / *non* beste alakoak / *oi dira* bakarrak (A. Iturriaga, *Fábulas*, 105).

- (86) *Ain* da garestia *non* erregeak eta beste gaini gaineko personak bakarrik izan *deza-teke* (A. Iturriaga, *Didlogos*, 22).

- (87) *ain* da abilla arotz, zurgin edo artista au, *non* bein ekustearekin beste gabe ikasi du ezkillak egiten (A. M. Zabala, *Gabon gau bat*, 106).

c. HALAKO {ERAN / MODUZ / MODUTAN...} ... NON ... Ø

- (88) Eta zenbat denboran iraungo du zure iduri orrek? Zu ispillu orren aurrean zauden guztia; *alako moduz*, *non* bazeunde mundua asi zanetik eta bera akabatu arte guztian, antxe *egongo litzake* zure iduria (F. A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 348).

d. HAIN MODUTAN ... ZE ... Ø

XIX. mendeko Bizkaiko idazleek erabiltzen dute esamolde hau. Argi dago esamolde hau aurrekoaren guztiz parekoa dela, *hain modutan halako modutan* baita:

- (89) Lekurik geijeenetan predikeetan da lujuriya; *ain modutan ze*, gaurko egunian zeregin andi bat etxian daukanak, aurrez *atera daitez* kontubak (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 105).

- (90) *Ain modutan* dago zabaldurik birauak ezartia, *ze ezteutse* inok sinistuten (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 65).

- (91) Ta ikusirik zor andijak utsazala Jaungoikuari, *ain modutan* ondu zan eze, len pekatu guztiz andijak ezeretzat eukazanak, *begiratuten eban* ardura andijagaz gauzarik txikijenetan (J. A. Uriarte, *Marijaren IIIa*, 79).

Taxu berttua dute honako hauek ere:

- (92) ... eta alako modutan argaldu ta indar bage uzten ditu oroipen onek, eze bertatik iges egiten due, aĩn neke andia eman dien gurutzeta ez ikusteagatik (F. A. Olaegui, *Eskuizkribuak*, 328).

4.4.2. Lokailurik gabekoak

Perpaus hauek arrunki erabiltzen dira. Bi perpausen artean ez da izango inolako lotura formalik, bata bestearen alboan ezarriak egotea baizik. Horregatik deitzen diogu alborakuntza perpausak lotzeko modu honi. (13)an jaso dira lehen zenbait adibide. Hona hemen haictako bi errepikaturik eta beste zenbait:

- (13) a. Itxasoak osin bat irudian, *ain* egoan bare ta baketsu (J. M. Etxeita, *Josecho*, 249).
 b. Poxpolo-kajan pare liteke / *ain* dago parragarriya! (Txirrila, *Bertsok II*, 35).
- (93) urrutirako betaurtekorik gabe norknahi ikus zezakeena baizik ez nuen esan, *hain* zen nabari (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 226).
- (94) Ezin dute bihotza barrenen gorde: *hain* dute handia (Ib., 310).
- (95) zangurru gaxuak ia ezekian non egoanik be: *ain* andia zan bere buruko-miña! (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 242).
- (96) Eguerdia izan arren, illunaurtea dala dirudi; *ain* dago illun; *ain* dago goibel (T. Agirre, *Uztaro*, 131).
- (97) Ara joan ta denbor andian ezin ekusiz Klotilde enoiatu zen Aureliano; *ain* gordea zedukan beraren osabak (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak I*, 183).

Adibide hauek erakusten dutenez, alborakuntza bidezko esamolde hauetan bada halako joera bat maila-hitza duen perpausa azkenean ematekoa. Horiek dira esamolderik ugarienak. Baina bestelako hurrenkera ere zilegi da. Altubek (1929: 227), erdal ereduko kontsekutiboetatik ihes egitekotan honako adibide hauek ematen ditu, alborakuntzazkoak:

- (98) a. Auzoko umeak ere beragandik iges egiten zuten, *ain* zan geiztoa.
 b. Belarrondoko *ain* sendo ta zoliya eman eutsan, ikareaz jausi zan beera.

Orain arte jaso ditugunak (98a) eredukoak dira. Horiek dira ugarietak, esan bezala. Baina hona hemen (98b) ereduko adibide pare bat:

(99) *ain* da gizona broma-zalia eta *ain* gizon alaia, bere onduan pasa nai gendun guk ere juan dan jaia (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 270).

Gorago jaso den (13c) ere taxu honetakoa da:

(13) c. *Hain* da ezitia / Jaunaren legea, / Barne guzia / uzten du betea / Esperanza onez / Konsolazioncz (S. Monho, *Poèmes basques*, 84).

Nolanahi ere, molde honetako esapideak askoz urriagoak dira gure testuetan.

Honako honetan, berriz, ezin jakin perpaus hori ezkerrekoarekin lotua dagoen ala eskuinekoarekin:

(100) Zenbaiten buruak dirudi (...) daudela huekoan, *ain* arinak dire, aski da aize guti itzulzeko alde batera ta berzera (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 120).

LABURPENA


• Ondorio perpausek edo perpaus kontsekutiboek kausa baten *ondorioa* ematen dute aditzera, baina ondorio hori kuantifikatzaile batekin erlazionatua ematen da:

(1) Hainbeste diru irabazi zuen gizonak, non burua galdu baitzuen.

Ondorio perpaus motak

Ondorioa eta kausa beti erlazionatuak daude. Erlazio horren berri modu desberdinez eman daiteke aditzera. Batzuetan perpaus menderatu baten bidez ematen dugu (aditzak *BAIT-* edo *-eN* markak daramatzala) baina beste batzuetan alborakuntza soilaz baliatzen gara. Bata nahiz bestea lokailu batekin ager daitezke (*non, ezen*) baina baita inolako elementu berezirik gabe ere.

Hortaz:



• **Zenbait eredu**

• *Menderatuak (lokailudunak)*

(2) *Hain* leorte handia izan zen {ezen, non} uzta osoa galdu baitzen.

(3) *Hainbeste* negar egiten zuen {non, ezen} begiak eritu baitzitzaizkion.

(4) *Hain* handiak dira mesedeak {non, ezen} ez garen gai haiengatik eskerrak emateko.

• *Menderatuak (lokailugabeak)*

(5) Gizasemeak *hain* eder ziren, haiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren.

• *Alboratuak (lokailudunak)*

(6) *Hain* daude honetara eginak ezen beren benetako izena nola den ere ez dakite.

(7) *Hain* da trebea non behin ikustearrekin beste gabe ikasi du ezkilak egiten.

• *Alboratuak (lokailurik gabe)*

(8) Itsasoak osin bat zirudien, *hain* zegoen bare eta baketsu.

(9) *Hain* da gizona bromazalea eta alaia, bere ondoan pasa nahi genuen guk ere eguna.

BIBLIOGRAFIA

Zenbait literatura lanen izenburuen luzetasuna dela eta, adibideen erreferentziak era laburtuan eman ditugu gramatika honetan; luzeago eta astunago egingo litzaioke irakurleari gure lana, adibide bakoitzean izenburua bere osotasunean eman izan bagenu. Horrenbestez, bi eratara dakarkigu hona bibliografia: lehenbiziko partean (A atalean) gramatika honetan aipaturiko lanen izenburu osoak eta argitaratze datuak aurkezten dira; B atalean, berriz, liburu horien berorien izenburu laburtuak (ez guztieuk, hala ere), gure gramatikan, adibide bakoitzaren erreferentzia ematerakoan, erabili ditugun bezala.

A.- BIBLIOGRAFIA

A.1.- Literatura lanak

- Adéma, G., "Zalduby", "Oeuvres de Chanoine Adéma", in *RIEV*, 1908.
- Agirre, J. M., "Lizardi", *Biotz-begietan*, Bilbo, 1932.
- , *Itz lauz*, Donostia, 1934.
- Agirre, T., *Uztaro*, Bilbo, 1937 (2. arg. Bilbo, 1950).
- Aguirre Asteasukoa, J. B., *Eracusaldiac I, II, III*, Tolosa, 1850 (faksimila: Donostia, 1978).
- Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*, Bilbo, 1898.
- , *Kresala*, Durango, 1906.
- , *Garoa*, Durango, 1912.
- Aire, F., "Xalbador", *Ezin bertzean*, Tolosa, 1969.
- , *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976.
- Akesolo, L., *Ipiña ta ipiñatarren barri*, Bilbo, 1958.

- Alcain, J. J., "Udarregi", *Udarregi bertsolaria*, Tolosa, 1966.
- Altube, S., *Laztantzxu eta Betargi*, Baiona, 1957 (2. arg. Donostia, 1979).
- Altuna, J., *Ipuñak*, Bilbo, 1957.
- Alvarez Enparantza, J.L. "Txillardegi", *Leturiaren egunkari ezkutua*, Bilbo, 1957.
- Alzola, N., *Atalak*, Zarautz, 1967.
- Alzaga, T., *Bernaiño'ren larriyak*, Donostia, 1923 (2. arg. Tolosa, 1963).
- , *Burruntziya*, Donostia, 1931 (2. arg. Tolosa, 1963).
- , *Poli. Mutil umezurtz baten ibillaldiak*, Zarautz, 1958.
- , *Ramuntxo*, Donostia, 1961.
- Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*, Zarautz, 1961.
- Andredena Mariaren ilhabetea*, Baiona, 1838.
- Antia, M. A., *Aita San Frantzisko Asiskoaren Bizitza*, A. Beolaren ed., Donostia, 1995.
- Añibarro, P. A., *Curutze santearen. Aita Gure ta Ave Mariaren ganeco eracualdiak*, Durango, 1897.
- , *Escu-liburua I, II*, Tolosa, 1802 (faksimila: Donostia, 1978).
- , *Gueroco Guero*, RIEV, 1923, 1925.
- , *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza berri bat eguiteco*, Tolosa, 1803.
- Apaolaza, A., *Patziko Txerren*, Zarautz, 1962, J.San Martinen ed. (1. arg. Bergara, 1890).
- Arana, J. I., *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euscaraz eta gastelaniaz*, Bilbo, 1872.
- , *Relativo*, argitaragabea.
- Arbelbide, J. P., *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, 1895.
- Aresti, G., *Ipuinak*, Donostia, 1979.
- , "Mugaldeko herrian eginikako Tohera", in *Egan*, 1961, 262-289.
- Argaignarats, P., *Devoten Breviarioa*, Baiona, 1665 (faksimila: Donostia, 1978).
- Argi Done Laburra*, Donostia, 1923.
- Arradoy - ikus Narbaitz, P.
- Arrese, E., *Olerki berrizte*, Zarautz, 1952.
- Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo, 1900.
- Arrue, G., *Mayetceco ill, edo Birgina chit santari consagratutaco Mayetceco illa*, Tolosa, 1888.

- , *Santa Genovevaren vicitza antziñaco denboretaco condairan ede-
rrenetaco bat*, Tolosa, 1968.
- Astarloa, P., *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac II*, Bilbo,
1818.
- Astolasterrak*, P. Urkizuren ed., Donostia, 1984.
- Atxaga, B., *Bi anai*, Donostia, 1985.
- Atxaga, M., *Gaztetxo. Bizitzako udaberrian*, Donostia, 1963.
- Axular, P., *Guero*, Bordele, 1643.
- Azcue, E. M., *Parnasorako bidea*, Bilbo, 1896 (faksimila: Donostia, 1979).
- Azkue, R. M., *Ardi Galdua*, Bilbo, 1968.
- , *Batxi Guzur*, Donostia, 1986, I. Pagolaren ed. (1. arg. Bilbo, 1897).
- , *Euskalerrriaren Yakintza I, II, III, IV*, Madril, 1945.
- Azpeitiko Premioaren bertsoak*, Tolosa, 1963, A. Zavalaren ed.
- Azurmendi, J., *Demokratik eta biolentoak*, Elkar, 1997.
- Baratciart A., *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltceco moldea*, Baiona, 1784.
- Barbier, J., *Légendes du Pays Basque*, Paris, 1931 (faksimila: Donostia, 1983).
- , *Supazter chokoan*, Baiona, 1924.
- Barrutia, P. I., *Acto para la Nochebuena*, in J.A. Lakarra, *Gabonetako
Ikuskizuna*, Gasteiz, 1983.
- Basarri - ikus Eizmendi, I.
- Basterrechea, J. de, "Oskillaso", *Kurloiak. Kaletarren haur-zarou*, Zarautz, 1962.
- Belapeyre, A., *Catechima laburra eta Jesus Christ goure Ginco Jaunaren
eçagutcia, salvatu içateco*, Pabe, 1696.
- Beovide, C., *Asis-co Loria*, Tolosa, 1966, L. Villasanteren ed. (1. ed. Tolosa,
1885).
- Beriayn, J., *Doctrina Cristiana en Castellano y Bascuence*, Iruñea, 1626.
- , *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 1621 (faksimila:
Donostia, 1980).
- Berrondo, P., *Don Kijote Mantxako*, Zarautz, 1977.
- Betolaza, J. P., *Doctrina Christiana en Romance y Basquenze*, Bilbo, 1596
(faksimila: Euskera, 1986).
- Bilbao, F., *Ipuin barreka*, Bilbo, 1959.
- Bilintx - ikus Bizcarrondo, I.
- Bizcarrondo, I., "Bilintx", *Bertso ta lan guztiak*, Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed.
- Bordel - ikus Echamendi, J.
- Bustintza, E., "Kirikiño", *Abarrak*, Abando, 1918.

- Calvarioco estacioac*, in Ondarra, F., "Nafarroako Bertitzaranean aurkitutako euskal testuak", *ASJU* XXIII-3, 1989.
- Capanaga, M. Ochoa de, *Exposición breve de la doctrina christiana*, Bilbo, 1656.
- Cardaberaz, A., *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioak*, Iruñea, 1760 eta 1761.
- , *Doctrina Cristiana edo Cristiñau Doctrinea*, Iruñea, 1762?
- , *Eusqueraren Berri Onac*, Iruñea, 1761.
- Catecismo de Aezcoa, Le Petit Catéchisme Espagnol du P. Astete. Traduit en trois dialectes basques: I. Aezcoan, par Pedro José Minondo, Instituteur à Garralda, avec la cooperation de Don Martín Elizondo d'Arise [...]*, Londres, 1869, Bonaparte Printzearen ed.
- Catecismo de Anzuola*, (J. B. Amilleta, 1678), A. Aregitaren ed., in *Euskeraren Iker atalak III*, Bilbo, 1985.
- Catecismo de Elgoibar, Cristinaubaren Erucuspena edo Doctrina christiana*, L. Villasanteren ed., Bilbo, 1987.
- Catecismo de Luzaide, Guiristino-doctrina Aita Gaspar Astete jesuitac erdaraz esribitua. Escuararat itzulia D. Francisco Echeverri Valcarlosco Bicaricoac (1883)*, I. Seguiolaren ed., *ASJU*, 1985 (132-176).
- Cerquand, J. F., *Ipar Euskal Herriko Legendea eta Ipuinak I*, A. Aranaren ed., Donostia, 1985.
- Chourio, M. de, *Jesu-Christoren Imitacionea*, Bordele, 1720.
- Constantin, J. B., "Aipamen llabur bat Haritchabalet jaun apezaren gainen". *Egan* 1985 (3-4), 13-43.
- Cristinau Doctrinea bere esplicacino laburragaz Busturico Vicariaco Abade jaunaren encarguz*, Bilbo, 1849.
- Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo, 1980, P. Altunaren ed. (1. arg. Bordele, 1545).
- Duhalde, M., *Meditacioneac gei premietsuenen gainean*, Baiona, 1809 (faksimila: Donostia, 1978).
- Duvoisin, J., *Dialogues basques*, Londres, 1857.
- , *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean*, Baiona, 1858 (faksimila: Donostia, 1978).
- , *Liburu Ederra aita Cardaberaz Jesuistak egina, Lapurdico escarara itzulia*, Baiona, 1856 (faksimila: Donostia, 1978).
- Echagaray, J. V., *Festara*, Tolosa, 1964, A. Zavalaren ed.

- Echamendi, J., "Bordel", *Bordel bertsularia*, Tolosa, 1965, J. M. Satrustegiren ed.
- Echcita, J. M., *Josecho*, Durango, 1909.
- Eguiateguy, J., *Lehen liburria edo filosofo Huscaldunaren Ekheia*, Bilbo, 1983, Tx. Peillenen ed. (1785).
- Eguzkitza, J., *Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*, Zornotza, 1935.
- Eizmendi, I., "Basarri", *Kantari nator*, Zarautz, 1960.
- Elicegui, P., "Pello Errota", *Pello Errotak jarritako bertsoak*, Tolosa, 1963.
- Elissalde, J., "Zerbitzari", *Azkaine gure sorterria*, Donostia, 1985, P. Xarritonen ed.
- , *Bahnar deitu salbaiak*, Baiona, 1936.
- , *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza*, Lille, 1943.
- Elissamburu, J. B., *Piarres Adame*, Baiona, 1946 (1. arg. Pabc, 1888).
- Elizen arteko Biblia*, Elizen Arteko Biblia Elkartearen itzulpena, Donostia, 1994.
- Enbeita, B., *Nere apurra*, Tolosa, 1974.
- Enbeita, K., *Gure urretxindorra. Enbeita'tar Kepa'ren bertso lanak osorik. Aita Onaindia'k: bilduma eta itzaurrea*, Buenos Aires, 1971.
- Erkiaga, E., *Arranegi*, Zarautz, 1958.
- , *Batetik bestera*, Zarautz, 1962.
- , *Iribarrea galtzen denean*, Bilbo, 1987.
- , *Txurio txoria*, Bilbo, 1986.
- Etchahun - ikus Topet, P.
- Etchamendy, M., *Manex Etchamendy bertsularia*, Donostia, 1972.
- Etcheberri Sarakoa, J., *Eskuararen hatsapenak*, in *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri, con una introducción y notas por Julio Urquijo*, Paris, 1907.
- Etcheberri Ziburukoa, J., *Manual devotioezcoa*, Bordele 1627 (faksimila, Donostia, 1978).
- , *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Donostia, 1970, L. Akesoloren ed. (1. arg. 1630).
- Etchepare, J., *Beribilez*, Baiona, 1931.
- , *Buruchkak*, Lekorne-Aldude, 1910.
- , *Mendekoste gereziak*, Donostia, 1991.

- Etxaide, Y., *Amaiur*, Donostia, 1983.
———, *Begia begi truk*, Donostia, 1984.
———, *Joanak-joan. Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblariari buruz egin eleberria*, Zarautz, 1955.
- Etxaniz, N., *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, Zarautz, 1958.
———, *Lur herri bila*, Donostia, 1967.
- Etxebarria, T., *Ihiltarixanak*, Zarautz, 1967.
———, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar (Euskera, 1965-66)*.
Euskal Jokoak Bertsotan I eta II, Tolosa, 1984, A. Zavalaren ed.
- Fray Bartolome de Santa Teresa, *Icasiquizunac*, Iruñea, 1819.
———, *Euscal-Errijetaco Olgueeta ta Dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816 (faksimila: Donostia, 1978).
- Fuente, J. C. de la, *Durangoko plateroak*, Durango, 1984, A. M. Aldekoa-Otaloraren ed.
- Gandiaga, B., *Elorri*, Oñati, 1962.
- Garagarza, Aita, 1869ko kartak, argitaragabeak.
- Garitaonandia, B., *Usandizaga. Bere bizitza ta eres egikuntza*, Donostia, 1920.
- Garate, G., *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*, Bilbo, 1988.
- Garro, B., "Otxolua", *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri harregarriak*, Bilbo, 1932.
- Gasteluçar, B., *Egia Catholicac*, Bilbo, 1983, L. Akesoloren ed. (1. arg. Pabe, 1686).
- Gaztelu - ikus Goikoetxea, J.A.
- Goikoetxea, J. A., "Gaztelu", *Musika ixilla*, Donostia, 1983.
- Goñi, F., *Ama Birgiñaren Agerziak eta gañerako Lurdes-ko gertaera gogogarriac*, Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed. (1. arg. Durango, 1908).
- Goyhetché, L., *Fableac edo aleguiac Lafontainenetari berechiz hartuac*, Baiona, 1852 (faksimila: Donostia, 1978).
- Guerrico, J. I., *Cristau doctriña guztiaren explicacioaren sayaquera*, Tolosa, 1858.
- Haramburu, J. de, *Devocino escuarra, miraila eta oracinateguia*, Bordele, 1635.
- Haraneder, J., *Gudu izpirituala*, Toulouse, 1750.
———, *Iesu Christo gure iaunaren Testament berria*, Baiona, 1855.

- , *Philotea edo devocioneraco bide eracusçaillea S. Franses Salescoac eguina*, Toulouse, 1749.
- Harizmendi, C., *Ama Virginaren Officiou C. Harizmendi, Aphez, Saraco vicarioac eta predicariac escarara bihurtua*, Bordele, 1658.
- Hiriart-Urruty, J., *Gontzetarik jalgiaraziak*, I. Caminoren ed., Donostia, 1995.
- , *Mintzaira. Aurpegia*, Gizon, Donostia, 1971, P. Lafitteren ed.
- , *Zezenak Errepublikan*, Donostia, 1972.
- Hiribarren, J. M., *Escaraz eguia*, Baiona, 1858.
- , *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicon*, Baiona, 1853 (faksimila: Donostia, 1979).
- Inchausepe, E., *Dialogues basques*, L. L. Bonaparteren ed., Londres, 1857.
- Inza, D., *Kristau ikasbidearen azalpena*, Iruñea, 1924.
- Iraizoz, P., *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itz atera ta*, Iruñea, 1934.
- , *Hitz lauuko lanak I*, Iruñea, 1999, F. Ondarraren ed.
- , *Predikuak*, argitaragabea.
- Iraola, V., *Oroitzak ta beste ipui asko*, Tolosa, 1962.
- Irazusta, J. A., *Bizia garratza da*, Buenos Aires, 1950.
- Irigaray, P. F., *XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlariak*, Iruñea, 1958.
- Itun Berria*, Elizbarruti arteko Liturgi euskaratzaile Taldearen itzulpena, Donostia, 1980.
- Iturriaga, A., *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, Donostia, 1842 (faksimila: Donostia, 1978).
- , *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*, Donostia, 1842.
- Iturzaeta, A., *Aita Gaspar Astete-eren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*, Durango, 1899.
- Iztueta, J. I., *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoequin*, Donostia, 1824.
- , *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Donostia, 1847.
- Jun-Edanaren bertsoak*, (I), Tolosa, 1982. (II) Tolosa, 1985.
- Jauffret, F. A., *Catichima edo fedea laburzki François-Antoine Jauffret Baionaco Jaun Aphezpicuac publicatua*, Baiona, 1902.
- Jaureche, A., *Meditazioneac urtheco ebangelioen gainean, egun guzietaco, eta Jesu-Cristo gure Jaunaren, Birjina sainduaren eta Sainduen bestetaco*, Baiona, 1840.

- Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako deboçioaren Exerçiço izpiritualac, arrimatuac Bayonaco dioçesan altchatua den Konfardioaren usaiako*, Baiona, 1831.
- Joannateguy, B., *Sainduen Bizitcea. Lehen zatia*, Baiona, 1890.
- Kirikiño - ikus Bustintza, E.
- Labayen, A., *Euskal eguna*, Tolosa, 1931.
- Lafitte, P., *Idek eta zabal. Gogo-bihotzak*, Baiona, 1974.
- , *Euskal literaturaz*, Donostia, 1990, P. Urkizuren ed.
- , *Murtuts eta bertze... Artho churitzetaco zombait ichtorio chahar*, Baiona, 1945.
- Lakarra, J. A. et alii, *Euskal Baladak*, Donostia, 1983.
- Lakoizketa, J. R., "J. R. Lakoizketa Bertizen euskal testuak", in F. Ondanra, *FLV*, 1994.
- Lapeyre, E., *Credo edo sinhesten dut esplikatua*, Baiona, 1891.
- Laphitz, F., *Bi saindu hescualdunen bizia. San Inazio Loiolacoarena eta San Franzizco Zavierecoarena*, Baiona, 1867 (faksimila: Donostia, 1987).
- Lardizabal, F. I., *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, Tolosa, 1855.
- Larramendi, M., "Carta a Gándara", in *BAP* 1966, 157-171.
- , "Carta a Mendiburu", S. Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Devocioa*-ren hitzaurrea, Donostia, 1969, J. I. Tellechecaren ed.
- , *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, 1969, J. I. Tellechecaren ed. (Barcelona, 1882).
- , *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca, 1729 (faksimila: Donostia, 1979).
- , *Euskal testuak*, P. Altuna eta J. A. Lakarraren ed., Bilbo, 1992.
- , *Panegírico del gran doctor de la Iglesia S. Agustín*, Azpeitia, 1885.
- Larreguy, B., *Testament çaharreco eta berrico historia*, Baiona, 1775 (I), 1777 (II) (faksimila: Donostia, 1978).
- Larzabal, P., *Ihauteriak*, in *Piarres Larzabalen idazlanak III*, Donostia-Baiona, 1992, P. Xarrittonen ed.
- , *Iru ziren*, in *Piarres Larzabalen idazlanak III*, Donostia-Baiona, 1992, P. Xarrittonen ed.
- , *Orreaga*, in *Piarres Larzabalen idazlanak III*, Donostia-Baiona, 1992, P. Xarrittonen ed.
- , *Senperen gertatua*, Tolosa, 1964.

- Lauaxeta - ikus Urquiaga, E.
- Lavieuxville, G., *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima. P. Guillaume de Lavieuxville Bayonaco Jaun Apezpicuaren manuz imprimatua*, Baiona, 1733.
- Legaz, D., *Cristauaren Icasbidea Aita Gaspar Astetec egina*, Iruñea, 1880.
- Leiçarraga, J., *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria*, La Rochelle, 1571 (faksimila: Donostia, 1979).
- Lekuona, M., "Santa Clara'ren kantu zahar bat", in *Bi antzerki ta itzaldi bat*, Zarautz, 1963-1965.
- Les prières du prône en basque (dialecte souletin)*, Baiona, 1874.
- Lizardi - ikus Agirre, J.M.
- Lizarraga, J., *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic*, Bilbo, 1984, F. Ondarraren ed. (1807).
- , "Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el s. XVIII", in *FLV* 1975, 96-127, J. Apcccchearen ed.
- Lujambio, J. M. "Txirrita", *Bizitza ta bat bateko bertsoak*, Tolosa, 1962.
- , *Txirritaren Bertsoak I, II, III*, Tolosa, 1971, 1971, 1976.
- Maister, M., *Jesu-Kristen initacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apeç bateç [...] utçulia*, Pabe, 1757.
- Materre, E. *Doctrina Christiana*, Bordele, 1617.
- Mattin - ikus Treku, M.
- Mendiburu, S., *Igande ta festegunetarako irakurraldiak*, in *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Bilbo, 1982, P. Altunaren ed.
- , *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, Donostia, 1747.
- , *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Bilbo, 1982, P. Altunaren ed.
- Mendigacha, M., "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección M^a de Azkue", in A. Irigoien, *Euskera*, 1957.
- Mercy, A., *Andere Dona Maria, Scapulariocoaren confrariaco, bulla, decreta, statuac eta maniac edo chediac*, Pabe, 1780.
- Micoleta, R., *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, Barcelona, 1880, F. Fitaren ed. (1653).
- Mihura, A., *Andredena Mariaren Imitacionea Jesus Christoren Imitacionearen gainean moldatua*, Baiona, 1778.
- Mirande, J., *Haur besoetakoa. Ipuin herri bat*, Donostia, 1970, G. Arestiren ed.
- , *Miranderen idazlan hautatuak*, Bilbo, 1976.

- Mitxelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak I-IX*, Donostia, 1988.
- , *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Bilbo, 1972, P. Altunaren ed.
- , *Sobre Historia de la Lengua Vasca I, II*, Donostia, 1988.
- , *Textos Arcaicos Vascos*, Madril, 1964.
- Mitxelena, S., *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*, Oñati, 1949.
- Mocoroa, V., *Damuba garaiz, edo Bertuteric gabeco aberastasuna inoiz ez da eguizco zorientasuna*, Tolosa, 1897.
- Moguel, J. A., *El doctor Peru Abarca*, Durango, 1881.
- , *Confesiño ona*, Gasteiz, 1803.
- , *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruñea, 1800.
- Moguel, J. J., *Baserritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidia, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exenplu ta eracutsijetan*, Bilbo, 1816.
- Moguel, V., *Ipui onac*, Donostia, 1804.
- Mokoroa, J., *Erraondoko azken danbolinteroa. Arturo Campionen ipuia*, Bilbo, 1958.
- Monho, S., *Poèmes basques*, Baiona, 1972.
- Moulier, J., "Oxobi", *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Baiona, 1966.
- Mujica, G., *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak*, Donostia, 1925.
- Munibe, F., *Gavon Sariac edo aurtengo gavonetan Azcoytico Eleyza nagusian cantatuco diran Gavon Cantaac edo Otsaldia*, Azkoitia, 1762.
- Munita, I., *Gure mendi ta oianak. Zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zain-tzeko zuzenbide batzuek*, Tolosa, 1952.
- Narbaiz, P., "Arradoy", *San Frantses Jatsukoa*, Donostia, 1966.
- Noeren ontzia*, Tolosa, 1979. A. Zavalaren ed.
- Ochoa de Arin, J., *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan*, Donostia, 1710.
- Oihenart, A., *Les Proverbes basques, recueillis par le S. D'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur*, Paris, 1657.
- , "Oihenarten gazarroa neurthitzetan", in *Les Proverbes basques*, Paris, 1657 (ASJU, 1955).
- Olabide, R., *Itun zar eta berria*, 1958, F. Etxeberriaren ed.
- Olaechea, B., *Dotrina christiana*, Gasteiz, 1763.

- Olaizola, M., "Uztapide", *Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa*, Zarautz, 1960.
 ———, *Lengo egunok gogoan*, (I) Tolosa, 1975 (2. Ed.), (II) Tolosa, 1974.
 ———, *Noizbait*, Tolosa, 1964.
 ———, *Sasoia joan da gero*, Tolosa, 1976.
- Orixe - ikus Ormaechea, N.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Agustin Gurenaren aitorkizunak*, Zarautz, 1956.
 ———, *Euskaldunak*, Zarautz, 1950.
 ———, *Mireio*, Bilbo, 1930.
 ———, *Orixeren "Euskaldunak" eta Olerki guztiak*, Donostia, 1972.
 ———, *Quito-n orrebarekin*, Donostia, 1987, I. Seguirolaren ed.
 ———, *Santa Cruz apaiza*, Donostia, 1929.
 ———, *Tormes-ko itsu-mutilla*, Bilbo, 1929.
 ———, *Urte guziko Meza-Bezperak*, Tours, 1949.
- Oskillaso - ikus Basterrechea, J. de
- Otaegui, F. A., *Felipe Agustin Otaegui Beizamako Erretorearen Eskuizkribuak*, Beizama-Donostia, 1993, Beatriz Otaegiren ed.
- Otxolua - ikus Garro, B.
- Oxobi - ikus Moulier, J.
- Pello Errota - ikus Elicegui, P.
- Petriarena, J. F., "Xenpelar", *Xenpelar bertsolaria*, Tolosa, 1969.
- Pouvreau, S., *Iesusen Imitacionea*, Donostia, 1979.
 ———, *San Frances de Sales Genevoko ipizpicuaren Philoteu*, Paris, 1664.
- Refranes de Garibay (1591-1592)*, ASJU, 1976 (47-144), J. R. Zubiaur eta J. Arzamendiren ed.
- Refranes de Isasti*, in K. Mitxelena, *Textos Arcaicos Vascos*, 3.3.3.
- Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance (1596)*, J. de Urkixoren ed., RIEV, 1911-1933.
- Salaverria, S., *Neronek tirako nizkin*, Tolosa, 1964.
- San Martin, J., *Zirikadak. Ipuin barregarridun liburua*, Zarautz, 1960.
- Satrustegi, J. M., *Euskal Testu Zaharrak (I)*, Iruñea, 1987.
- Soroa, M., *Au ostatuba! Jostirudia euskerara moldatuba*, Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed. (Donostia, 1884).
 ———, "Baratzan", in *EE*, 1886 (Tolosa, 1962, A. Zavalaren ed.).
- Tartas, J., *Arima penitentaren occupatione devotaq*, Orthez, 1672.
 ———, *Onsa hilceco bidia*, Paris, 1911, M. J. B. Darricarrereren ed. Bilbo, 1987, P. Altunaren ed. (1. arg., Orthez, 1666).

- Topet, P., "Etchahun", *Berisoak*, in J. Haritschelhar, "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaun, *Euskera*, 1969-70.
- Treku, M., "Mattin", *Ahal dena*, Tolosa, 1971.
- Txillardegí - ikus Alvarez Enparantza, J. L.
- Txirrita - ikus Lujambio, J. M.
- Ubillos, J. A., *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa, 1785 (faksimila: Donostia, 1978).
- Udarregi - ikus Alcain, J. J.
- Uriarte, J. A., *Dialogues basques (versión vizcaína)*, Londres, 1857, Bonaparte Printzearen ed.
- , *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*, Bilbo, 1850.
- Urquiaga, E., "Lauaxeta", *Bide Barrijak*, Bilbo, 1931.
- Urruzno, P. M., *Euskal Erritik zerura*, Tolosa, 1961.
- , *Ur-zale baten ipuiak*, Tolosa, 1965, A. Zavalaren ed.
- Uskara Libru berria*, Oloron, 1837.
- Uztapide - ikus Olaizola, M.
- Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa*, Oñati, 1962.
- Voltaire, *L'interprète ou traduction du François Espagnol & Basque de Voltaire*, Lyon, 1620.
- Xalbador - ik. Aire, F.
- Xenpelar - ikus Petriarena, J. F.
- Zabala, A. M., *Gabon gau bat eta beste ipui asko*, Tolosa, 1962.
- Zabala, J. M., *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak*, L. Villasanteren ed., Bilbo, 1996.
- Zaitegi, J., *Sopokel'en antzerkiak*, México, 1946.
- Zalduby - ik. Adéma, G.
- Zavala, A., *Mendaro Txirristaka bertsolaria*, Tolosa, 1974.
- Zavala, J. M., "Fábulas en dialecto vizcaíno", in *RIEV*, 1907.
- Zerbitzari - ikus Elissalde, J.
- Zubikarai, A., *Itxastarrak*, Gernika, 1985.
- , *Peru eta Mari*, Gernika, 1985.
- Zubiri, E., *XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri*, Iruñea, 1958, A. Irigarayren ed.

A.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak ...

Administrazioa euskaraz aldizkaria, IVAP-HAEE, Gasteiz.

ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Donostia.

BAP = *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Donostia.

Deia, Bilbo.

EE = *Euskal Erria. Revista Vascongada*, Donostia.

Egan, Donostia.

Euskal Esnalea, Revista de la sección de Lingüística y Literatura Vascas de "Euskalerrriaren Alde", Donostia.

Euskadi Irratia, Donostia.

Euskaldunon Egunkaria, Andoain.

Euskalzale aldizkaria, Bilbo

FLV = *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea.

Jakin, Donostia.

RIEV = *Revista Internacional de Estudios Vascos*, Paris, Donostia

* * *

Agirre, J. M., *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbo, 1991.

Alberdi, J. - Garcia, J., "Zein (...) bait/-n egitura", in *Testu-loturarako balia-bideak: euskara teknikoa*, I. Zabala (koord.), Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

Alberdi, J. - Garcia, J. - Ugarteburu, I., "Izenen mendeko perpausak: XX. mendeko erabilera", in *ASJU*, 1997-1, 149-210 orr.

Altube, S., *Erderismos*, Bermeo, 2. arg. 1975.

Azkarate, Miren, "Zehargalderak: ba- eta denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait", *EUSKERA XXVII*, 639 orr.

Azkue, R. M., *Morfología vasca (gramática básica dialectal del euskera) I-III*, Bilbo, 1923-25.

Bresnan, J., "Syntax of the Comparative Clause Construction in English", in *Linguistic Inquiry*, 1973, 275-343 orr.

de Rijk, R. P. G., *Estudies in Basque Syntax: Relative Clauses*, argitaragabeko lana, M.I.T., 1972.

- Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU) I, II, III eta IV*, 1984, 1987, 1990 eta 1994.
- , *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH), 1987.
- Goenaga, P., *Gramatika bideetan*, Donostia, 1980.
- , *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*, argitaragabeko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1984.
- Gutierrez Ordoñez, S., *Estructuras comparativas*, Madril, 1994a.
- , *Estructuras pseudacomparativas*, Madril, 1994b.
- Irigoién, A., “*Bailitzan. bailirean* typoko erak zuzenak ote dira euskaraz tradizio zaharreko systeman”, 1989, eskuizkribua.
- Ithurry, J., *Grammaire basque, dialecte labourdin*, Baiona, 1895 (faksimila: Donostia, 1979).
- Lafitte, P., *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*, Donostia, 1979.
- Lafon, R., “L’expression de la comparaison en basque”, *BSLP*, LIII, 1957-58, 234-256 orr. (argitalpen berria: Lafon, R., *Vasconiana*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999).
- , “La particule *bait-* en basque: ses emplois morphologiques et syntactiques”, *BSLP*, LXI, 1966, 217-248 orr. (argitalpen berria: Lafon, R., *Vasconiana*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999).
- Laka, I., “Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections”, in *ASJU*, XXV-1, 1991, 65-136 orr.
- Noonan, M., “Complementation”, in *Shopen*, 1985, 42-140 orr.
- Ortiz de Urbina, J., *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht-Holland, 1989.
- Oyharçabal, B., *Les relatives en basque*, Collection ERA 642 (UA 041028) D.R.L. Paris, 1985.
- , *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktore tesi argitaragabea, CNRS, Paris, 1987.
- Sarasola, I., “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, in *ASJU* 1983, 69-212.
- , *Euskal Hiztegia*, Donostia, 1996.
- , *Euskara Batua en Ajeak*, Irun, 1997.
- , *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, Donostia, 1984hh.
- Villasante, L., *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati, 1979 (2. arg.).

B.- BIBLIOGRAFIA ERA LABURTUAN

B.1.- Literatura lanak

- Agirre, T., *Uztaro*
 Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*
 ———, *Kresala*
 ———, *Garoa*
 Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia I, II, III*
 Akesolo, L., *Ipiña ta ipiñatarren barri*
 Altube, S., *Laztintxu eta Betargi*
 Altuna, J., *Ipuñak*
 Alzola, N., *Atalak*
 Alzaga, T., *Bernaiño'ren larriyak*
 ———, *Burruntziya*
 ———, *Poli*
 ———, *Ramuntxo*
 Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*
 Andredena Mariaren ilhabetea
 Antia, M. A., *San Frantziskoren Bizitza*
 Añibarro, P. A., *Curutze santearen eracusaldia*
 ———, *Escu-liburua (1 eta 2)*
 ———, *Gueroco Guero*
 ———, *Lora sorta espirituala*
 Apaolaza, A., *Patxiko Txerren*
 Arana, J. I., *San Ignacioren bicitza*
 ———, *Relativo*
 Arbelbide, J. P., *Igandea edo Jaunaren eguna*
 Aresti, G., *Ipuinak*
 ———, *Tobera*
 Argaignarats, P., *Devoten Breviarioa*
 Argi Done Laburra
 Arradoy, *San Franses Jatsukoa*
 Arrese, E., *Olerki berrizte*
 Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*

- Amue, G., *Mayetceco illa*
———, *Santa Genoveva*
Astarloa, P., *Berbaldiak*
Astolasterrak
Atxaga, B., *Bi anai*
Atxaga, M., *Gaztetxo*
Axular, P., *Guero*
Azcue, E. M., *Parnasorako bidea*
Azkue, R. M., *Ardi Galdua*
———, *Batxi Guzur*
———, *Euskalerrriaren Yakintza I, II, III, IV*
Azpeitiko Bertsoak
Azurmendi, J., *Demokratak eta biolentoak*
Baratciart A., *Guiristinoqui bicitzeco eta hiltceco moldea*
Barbier, J., *Légendes*
———, *Supazter chokoan*
Basarri, *Kantari nator*
Belapeyre, A., *Catechima laburra*
Beovide, C., *Asis-co Loria*
Berriayn, J., *Doctrina Cristiano*
———, *Tratado de oyr missa*
Berrondo, P., *Don Kijote Mantxako*
Betolaza, J. P., *Doctrina Christiana*
Bilbao, F., *Ipuin barreka*
Bilintx, *Bertso ta lan guztiak*
Bordel, *Bordel bertsularia*
Busturico Doctrinea
Calvarioco estacioac
Capanaga, M. O. de, *Doctrina christiana*
Cardaberaz, A., *Egercicioak*
———, *Eusqueraren Berri Onac*
———, *Dotrina Cristiana*
Catecismo de Aezcoa
Catecismo de Anzuola
Catecismo de Elgoibar
Catecismo de Luzaide

- Cerquand, J. F., *Iparraldeko Legendak*
 Chourio, M. de, *Imitacionea*
 Constantin, J. B., *Aipamen bat Haritchabalet gainen*
 Dechepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*
 Duhalde, M., *Meditacioneac*
 Duvoisin, J., *Dialogues basques*
 ———, *Laborantzako liburua*
 ———, *Liburu Ederra*
 Echagaray, J. V., *Festara*
 Echeita, J. M., *Josecho*
 Eguiateguy, J., *Lehen liburua*
 Eguzkitza, J., *Gizarte-Auzia*
 Elissamburu, J. B., *Piarres Adame*
Elizen arteko Biblia
 Enbeita, B., *Nere apurra*
 Enbeita, K., *Bertsoak*
 Erkiaga, E., *Arranegi*
 ———, *Batetik bestera*
 ———, *Iribarrea galtzen denean*
 ———, *Txurio txoria*
 Etchahun, *Bertsoak*
 Etchamendy, M., *Etchamendy bertsularia*
 Etcheberri, J. (Sarakoa), *Eskuararen hatsapenak*
 Etcheberri, J. (Ziburukoa), *Manual devotioñezcoa*
 ———, *Noelac*
 Etchepare, J., *Beribitez*
 ———, *Buruchkak*
 Etxaide, Y., *Amaiur*
 ———, *Begia begi truk*
 ———, *Joanak-joan*
 Etxaniz, N., *Euskal antzerkiak*
 ———, *Lur berri bila*
 Etxebarria, T., *Ibilarixanak*
 ———, *Lexicón de Eibar*
Euskal Jokoak Bertsotan I, II
 Fray Bartolome, *Icasiquizunac*

- , *Olgueetac*
Fuente, J. C. de la, *Durangoko plateroak*
Gandiaga, B., *Elorri*
Garagarza, Aita, *Kartak*
Garate, G., *Erdarakadak*
Garitaonandia, B., *Usandizaga*
Gasteluçar, B., *Eguia Catholicac*
Gaztelu, *Musika ixilla*
Goñi, F., *Lurdes-ko gertaerak*
Goyhetche, L., *Fableac*
Guerrico, J. I., *Sayaquera*
Haramburu, J. de, *Devocino escuarra*
Haraneder, J., *Gudu izpirituala*
———, *Testament herria*
———, *Philotea*
Harizmendi, C., *Ama Virginaren Officioa*
Hiriart-Urruty, J., *Gontzetarik jalgiaraziak*
———, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*
———, *Zezenak Errepublikan*
Hiribarren, J. M., *Escaraz eguia*
———, *Eskaldunac*
Inchauspe, E., *Dialogues basques*
Inza, D., *Kristau ikasbidearen azalpena*
Iraizoz, P., *Yesukristaren bizia*
———, *Predikuak*
Iraola, V., *Oroitzak*
Irazusta, J. A., *Bizia garratza da*
Irigaray, P. F., *Nafarroako Euskal idazlariak*
Itun Berria
Iturriaga, A., *Diálogos*
———, *Fábulas*
Iturzaeta, A., *Azalduera laburrac*
Iztueta, J. I., *Guipuzcoaco dantzen condaira*
———, *Guipuzcoaren condaira*
Jan-Edanaren bertsoak
Jauffret, F. A., *Catichima*

- Jaureche, A., *Meditazioneac*
Jesusen Bihotza
- Joannateguy, B., *Sainduen Bizitcea*
- Kirikiño, *Abarrak*
- Labayen, A., *Euskal eguna*
- Lafitte, P., *Idek eta zabal*
 ———, *Euskal literaturaz*
 ———, *Murtuts eta bertze*
- Lakarra, J. A. et alii, *Euskal Baladak*
- Lakoizketa, J. R., *Euskal testuak*
- Lapeyre, E., *Credoa*
- Laphitz, F., *Bi saindu hescualdunen bizia*
- Lardizabal, F. I., *Testamentu Zarr. Berr. condaira*
- Larramendi, M., *Carta a Gándara*
 ———, *Carta a Mendiburu*
 ———, *Corografia*
 ———, *El imposible vencido*
 ———, *Euskal testuak*
 ———, *San Agustin*
- Larreguy, B., *Testament çaharr. berr. historiao*
- Larzabal, P., *Ihauteriak*
 ———, *Iru ziren*
 ———, *Orreaga*
 ———, *Senperen gertatua*
- Lauaxeta, *Bide Barrijak*
- Lavieuxville, G., *Cutichima*
- Legaz, D., *Cristauaren Icasbidea*
- Leizarraga, J., *Testamentu berria*
- Lekuona, M., *Santa Clara*
- Les prières du prâne en basque*
- Lizardi, *Biotz-begietan*
 ———, *Itz lauz*
- Lizarraga, J., *Itzgaia*
 ———, *Programa de vida cristiana*
- Maister, M., *Jesu-Kristen imitacionia*
- Materre, E., *Doctrina Christiana*

- Martin, Ahal dena
Mendiburu, S., *Irakurraldiak*
———, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*
———, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*
Mendigacha, M., *Cartas a Azkue*
Mercy, A., *Andere Dona Maria*
Micoleta, R., *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*
Mihura, A., *Andredena Mariaren Imitacionea*
Mirande, J., *Haur besoetakoa*
———, *Miranderen idazlan hautatuak*
Mitxelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak I-IX*
———, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*
———, *Sobre Historia de la Lengua Vasca I, II*
———, *Textos Arcaicos Vascos*
Mitxelena, S., *Arantzozu*
Mocoroa, V., *Danuuba garaiz*
Moguel, J. A., *Peru Aharca*
———, *Confesiño ona*
———, *Eracasteac*
Moguel, J. J., *Baserritar nequezaleentzaco escolia*
Moguel, V., *Ipui anac*
Mokoroa, J., *Erraondo-ko azken danbolinteroa*
Monho, S., *Poèmes basques*
Mujica, G., *Pernando Amezketarra*
Munibe, F., *Gavon Sariae*
Munita, I., *Gure mendi ta aianak*
Noeren ontzia
Ochoa de Arin, J., *Doctrina Christianaren explicacioa*
Oihenart, A., *Les Proverbes basques*
———, *Paesiak = Oihenarten gaztarou neurthitzetan*
Olabide, R., *Itun zar eta berria*
Olaechea, B., *Dotrina christiane*
Orixe, *Aitorkizunak*
———, *Euskaldunak*
———, *Meza-Bezperak*
———, *Mireio*

- , *Olerkiak*
 ———, *Quito-n arrebarekin*
 ———, *Santa Cruz apaiza*
 ———, *Tormes-ko itsu-mutilla*
 Oskillaso, *Kurloiak*
 Otaegui, F. A., *Eskuizkribuak*
 Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*
 Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zombait*
 Pello Errota, *Pello Errotak jarritako bertsoak*
 Pouvreau, S., *Iesusen Imitacionea*
 ———, *Philotea*
Refranes de Garibay
Refranes de Isasti
Refranes y Sentencias
 Salaverria, S., *Neronek tirako nizkin*
 San Martin, J., *Zirikadak*
 Satrustegi, J. M., *Euskal Testu Zaharrak*
 Soroa, M., *Au ostatuba!*
 ———, *Baratzan*
 Tartas, J., *Occupatione devotaq*
 ———, *Onsa hilceco bidia*
 Txillardegi, *Leturia*
 Txirrita, *Bizitza ta bat bateko bertsoak*
 ———, *Txirritaren Bertsoak I, II, III*
 Ubillos, J. A., *Cristau doctriñ berri-ecarlea*
 Udarregi, *Udarregi bertsolaria*
 Uriarte, J. A., *Diálogos vascos*
 ———, *Marijaren illa*
 Urruzuno, P. M., *Euskal Erritik zerura*
 ———, *Ur-zale baten ipuiak*
Uskara Libru berria
 Uztapide, *Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa*
 ———, *Lengo egunak gogoun*
 ———, *Noizbait*
 ———, *Sasoia joan da gero*
 Villasante, L., *Kristau fedearen sustraiak*

- Voltaire, *L'interprète*
Xalbador, *Ezin bertzean*
———, *Odolaren mintzoa*
Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*
Zabala, A. M., *Gabon gau bat*
Zabala, J. M., *Sermoiak*
Zaitegi, J., *Sopokel'en antzerkiak*
Zalduby, *Obrak*
Zavala, A., *Mendaro Txirristaka*
Zavala, J. M., *Fábulas*
Zerbitzari, *Azkaine*
———, *Bahnar deitu salbaiak*
———, *Ichtorio Saindua*
Zubikarai, A., *Itxastarrak*
———, *Peru eta Mari*
Zubiri, E., *Nafarroako Euskal idazlariak*

B.2.- Aldizkariak, gramatikak, hiztegiak ...

- Administrazioa euskaraz*
ASJU
BAP
Deia
Egan
EE
Euskadi Irratia
Euskal Esnalea
Euskaldunon Egunkaria
Euskalzale
FLV
Jakin
RIEV

* * *

- Agirre, J. M., *Euskal gramatika deskriptiboa*
Alberdi, J. - Garcia, J., "Zein (...) bait-/n egitura"

- Alberdi, J. - García, J. - Ugarteburu, I., "Izenen mendeko perpausak"
- Altube, S., *Erderismos*
- Azkarate, M., "Zehargalderak"
- Azkue, R. M., *Morfología vasca*
- Bresnan, J., "Syntax of the Comparative Clause"
- de Rijk, R. P. G., *Estudies in Basque Syntax*
- Goenaga, P., *Gramatika bideetan*
 ———, *Komplementazioa eta nominalizazioa*
- Gutierrez Ordoñez, S., *Estructuras comparativas*
 ———, *Estructuras pseudocomparativas*
- Euskaltzaindia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I,II,III eta IV (EGLU)*
 ———, *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*
- Irigoién, A., "Bailitzan, bailirean typoko erak"
- Ithurry, J., *Grammaire basque*
- Lafitte, P., *Grammaire basque*
- Lafon, R., "L'expression de la comparaison en basque"
 ———, "La particule *bait-* en basque"
- Laka, I., "Negation in Syntax"
- Noonan, M., "Complementation"
- Ortiz de Urbina, J., *Parameters in the Grammar of Basque*
- Oyharzábal, B., *Les relatives en basque*
 ———, *Etude descriptive de constructions complexes*
- Sarasola, I., *Contribución*
 ———, *Euskal Hiztegia*
 ———, *Euskara Batuaren Ajeak*
 ———, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*
- Villasante, L., *Sintaxis de la oración compuesta*

GAI AURKIBIDEA

- Adierazpen-perpaus osagarriak** 28, 45-83
—, gobernatzaileak 46-56, 67-68, 70-72, 76, 79-80
—, ordainak 60
- Adina** 274, 277, 279, 292-293, 296, 297, 327, 333-353
—, maila konparazioan 348-352
- Adinako** 293, 350, 353-355
- Adinbat** 293, 297, 327
- Adinbateko** 293, 353-355
- Aditz komunztadura eta erlatibakuntza 192-195
- Aditz modalak**
— + *adina / beste* 334
— + *baino ...-AGO* 392, 415
— + *bezain* 317
— + *bezala / legez* 364
- Adizki jokatzeko perpausak 11, 21
- Adizkiak, menderagailua hartzean 25-27
- Adizkiaren flexioa eta menderakuntza 8
- Adizlaguna**
— + *adina / beste* 345
— + *baino ...-AGO* 393, 417
— + *bezala / legez* 367
- Adjektiboa + *baino* + adj. + *-AGO* 396
- Adjektiboa + *bezain* + adj. / adb 323
- 'Agindua' eta subjuntiboko osagarriak 140
- AGO** 274, 278, 295, 296-298, 389, 391-404, 408, 409, 415-421, 433-438, 455
- Ahal ... adina / beste** 336
- Ahalerazko adizkia ... *adina / beste* 336
- Al**, zehargalderetan 109
- Ala**, zehargalderetan 112
- Alborakuntza ondorio perpausetan 451, 460-464
- Alegia**, osagarrien gobernatzaile 56
- Alokutibeak eta menderakuntza 7
- Aurrekariak eta perpaus osagarriak 65
- Aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten perpausak 257-259
- BA-** 8, 24, 27
—... + *baino ...-AGO* 395
—... *bezala*-ren erabilera oker bat 371
—... + *bezala / legez* 368
— eta adizkien forma 27
— zehargalderetan 100
- BA- galdegaigunekoa**
— erlatiboetan 202, 217
— zehargalderetan 109
- Bai**, osagarrien gobernatzaile 54

- Baietz**, perpaus osagarriaren ordain 61
- Baiezko**, perpaus izenlagunen ordain 151
- Bailitzan** eta **bailuen** tankerakoak 370
- Baino**
- ...-AGO 274, 278, 295, 297, 389-404
 - , -AGO-rik gabe 409
 - dun perpausaren kokagunea 405
 - + *ere* 405
 - *gehiago* 274, 278, 295, 412
 - *gutxiago* 274, 278, 299, 412
 - *lehen(ago)* 397
 - z osaturiko esapideak 407
- Bainoago** 408
- BAIT-** 8, 24, 27,
- adierazpen-perpaus osagarriak 79-81
 - erlatibo konplexuak 244
 - erlatiboak 240-247
 - erlatiboen aposizio motak 245
 - erlatiboen aurrekaria, perpausa 246
 - erlatiboen ezaugarriak 240
 - eta adizkien forma 25-27
 - perpausa, aurretik galde-ize-nordaina duela 257
 - perpausen anbiguitatea 246
 - , *zein*-erlatiboetan 221
- Baizen** 390
- Baizik** eta, osagarrien gobernatzaile 55
- Baldintza** perpausa
- + *adina* / *beste* 348
 - + *baino* ...-AGO 417
 - + *bezain* 322
- Behar...** *adina* / *beste* 334
- Berdin...** *nola* 426
- Berdintasunezko konparazioa** 274, 292-294, 316-389
- , maila-konparazioa 316-326
 - , modu-konparazioa 355-389
 - , zenbatasunezko konparazioa 326-355
- Beste**, konparazioan 278, 293, 296-298, 328, 333-353
- Besteko** 350, 353-355
- Bezain** 274, 278, 292, 296-298, 316-326
- Bezain laster** 324
- Bezainbat** 277, 293, 296-298, 327
- Bezainbateko** 293, 353-355
- Bezainbeste** 296-298, 329
- Bezala** 274, 278, 294, 296, 356
- , aposiziozkoa 379
 - , denbora balioa duelarik 379
 - dun perpausa, mintzagai 376
 - , egia azpimarratzeko 379
 - ... *ere* tankerako esamoldeak 373
 - ...*hala* 430
 - , hurbiltze balioarekin 375
 - , kausa adierazteko 380
 - , *neurrian*-en baliokide 377
 - , posposizio 374
- Bezalako** 294, 381-389
- , *bezain*-en ordain 385
- Bezalako(t)xe** 386
- Bezalatsu** 360
- Bezalaxe** 359

- Bezal-bezala** 360
- Damurik** eta perpaus osagarriak 56
- Denbora balioa erlatibo generikoetan 211
- Denbora komunztadura perpaus osagarrietan 32-35
- Desberdintasunezko konparazioa** 274, 294-296, 389-421
- , desberdintasunaren maila 404, 413
- , maila konparazioa 389-412
- , zenbatasunezko konparazioa 412-421
- Dina** 331
- Doi** 331
- Ea** 101
- buruan duten zehargalderak 118
- , zehargaldera zatizkoetan 115
- Edo**, zehargalderetan 112
- EGI** 19, 310-313
- eLA** 8, 22, 24
- adierazpen-perpaus osagarriak 46-67
- **ETA** 59
- eta adizkien forma 25-27
- eta beste menderagailuak 81-83
- eta ondorio perpausak 450
- osagarria eta **-eLA** adberbiala 57
- subjuntiboko osagarrietan 136-145
- eLAKA** 59
- eLAKO** 24
- , erlatibo subjektiboetan 205, 218
- , perpaus izenlagunetan 147-152
- eLAKOA** 58, 149
- eLAKOAN** 58, 149
- eLAREN**, erabilera okerra 151
- eLAZKO**, erabilera okerra 151
- eN** 8, 22, 24
- adierazpen-perpaus osagarriak 76-79, 128
- eta adizkien forma 25-27
- eta **-eNETZ**, zehargalderetan 98
- + konparazio morfema 299
- perpaus erlatiboan menderagailua 177
- perpaus osagarri izenlagunak 146
- , subjuntiboko osagarrietan 136-145
- , zehargalderetan 28, 84, 98
- , *zein*-erlatiboetan 221
- EN** superlatiboak 309-316
- eNA** 24
- + konparazio morfema 299
- , perpaus osagarrietan 67-69
- eNAREN**, erabilera okerra 152
- eNEAN**, denbora balioko erlatiboak 211
- eNEKO**
- , perpaus erlatiboetan 196
- , erabilera okerra 152
- eNETZ** 99
- eNIK** 8, 24
- , perpaus osagarrietan 69-76
- Eredu erromanikozko konparatiboak** 421-438
- , maila-konparazio 424-426
- , modu-konparazioa 426-428
- , zenbatasunezko konparazioa 423-424

- Erlatiba daitezkeen izen sintagmak 184-188
- Erlatibakuntza errazteko bideak 189-197
- Erlatibatzeko eskala** 184-188
- , erlatibo generikoetan 209
- Erlatiboak** 173-259
- Erresuntiboak** 189-192
- , perpaus erlatibo apositiboetan 216
- , forma *BAIT*-erlatiboan 241
- ‘Esan’**
- adierazpen-perpaus osagarrien gobernatzaile 46, 47
- , subjuntiboko perpausen gobernatzaile 132, 135, 142
- , zehargalderen gobernatzaile 87
- ‘Eskaera’ eta subjuntiboko osagarriak 135, 138
- Eskerrak**, perpaus osagarrien gobernatzaile 56, 68, 76
- Ez adina / beste** 352
- Ez bezain** 326
- Ez bezala / legez** 278, 372
- Ez bezalako** 387
- Ez hainbeste ... nola** 424
- Ezen**
- (ez), konparazio perpausetan 410
- lokailua ondorio perpausetan 419, 453-457
- , perpaus osagarrietan 62
- Ezetz**, perpaus osagarrien ordain 61
- Ezezko**, perpaus izenlagunen ordain 151
- Ezetzapena, ondorio perpausetan 458
- Ezin ... adina / beste** 336
- ‘Galdea’ eta subjuntiboko osagarriak 138
- Galdegaiaren lekua perpaus osagarrietan 41
- Galde-izenordaina + *BAIT*-perpausak 257
- Galde-izenordaina + subjuntiboko erlatiboak 258
- Galde-perpaus osagarriak (ik. Zehargalderak)
- Galdera, ondorio perpausetan 458
- Gehiago** 274, 277, 279, 295, 412-421
- Gero(ago) (eta)...-AGO** 436
- Geroago** eta **beranduago** 397
- Gobernatzaileak eta adierazpen-perpausak 46-56, 67-68, 70-72, 76, 79-80
- Gobernatzaileak eta perpaus izenlagun osagarriak 146, 147, 149
- Gobernatzaileak eta subjuntiboko perpausak 134-136
- Gobernatzaileak eta zehargalderak 90-92
- Guraga** 393
- Gutriago** 274, 279, 295, 412-421
- Gutxien** 275
- Haboro** 412
- Hain**
- ... ezen 461
- ... nola 424
- ... non 462
- ... non / ezen / zein eta 449, 453-456
- *modutan ... ze* 462

Haina, izenordain korrelatu anaforikoa 251-254

Hainbat

- ... *nola* 423
- ... *non / ezen / zein eta* 449, 454
- zenbatzailea 327

Hainbate(na)z

- ...-AGO, *non* 455
- ...-AGO, *zenbate(na)z ...-AGO* 433-436
- (*ere*) ... *non* 457

Hainbate(ta)raino ... *non / ezen* 455

Hainbeste

- ... *non / ezen / zein eta* 449, 454
- zenbatzailea 329

Hainbeste(ta)raino ... *non / ezen* 455

Hala

- ... *nola* 426
- ... *nola / zelan*, banakaritzan 427
- ... *non / ezen / zein eta* 449
- perpaus osagarrien ordain 60

Halako

- *eron / moduz / modutan ... non* 462
- *maneran ... non / ezen / zein eta* 449, 457
- *moldez ... non / ezen / zein eta* 449
- ... *nola* 425

Han, izenordain korrelatu anaforikoa 252

Harridura perpausak, zehargaldera itxuran 120

Hau, perpaus osagarrien aurrekari 65

Hitzcn ordena perpaus osagarrietan 37, 95

Hobe 393

Honela, perpaus osagarrien aurrekari 65

Hori, perpaus osagarrien ordain 60

Horixe, perpaus osagarrien gobernatzaile 54

Horra non ... gisako esapideak 77

Horra, perpaus osagarrien gobernatzaile 55

Hura, izenordain korrelatu anaforikoa 252

Instrumentalaren bidezko konparazioa 411

'Iritzi', adierazpen-perpaus osagarrien gobernatzaile 47

'Iritzia" eta subjuntiboko osagarriak 136

IS absolutiboa

- + *adina / beste* 341
- + *baino ...-AGO* 393, 416
- + *bezain* 320
- + *bezala / legez* 366

IS datiboa

- + *adina / beste* 344
- + *baino ...-AGO* 393, 416
- + *bezain* 321
- + *bezala / legez* 367

IS ergatiboa

- + *odina / beste* 340
- + *baino ...-AGO* 393, 416
- + *bezain* 319
- + *bezala / legez* 366

IS erlatibatua

- , isildua dena 176
- , mendeko baten barnean 180
- ren kasu marka *BAIT*-erlatibotan 243

Izan aditza

— + *-eN* + *baino ...-AGO* 396

— + *-eN* + *bezain* + *adj* / *adb* 272

Izen ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoak 208

Izen ardatza isildua duten perpaus erlatiboak 206-213

Izen ardatzik gabeko perpaus erlatiboak, predikatu osagarri 211

Izenondoa, perpaus erlatiboaren ardatz 198

Izenordain erresuntiboak 189-192

Izenordain korrelatu anaforikoen forma 252

'Jakin'

— + galde hitza, zehargalderak 123

—, adierazpen-perpaus osagarrien gobernatzaile 48

—, zehargalderen gobernatzaile 87

Juntadura eta menderakuntza 5

Kasu paralelismoa eta erlatibakuntza 189

Konparazio morfema

—, gramatika kategoria 296

—, haren ezkerreko osagaiak 304

Konparazio perpausak 271-438

—, adverbio sintagma 273

—, berdintasuna eta desberdintasuna 274

—, egiturazko baldintzak 284-291

— eta mugatzailea 298

— eta zenbatzailea 302

—, konparazio egituraren osagaiak 279

—, konparazioa, erreferentzia gabe 414

—, maila, zenbatasuna eta modua 275

—, osagaien ordena 308

—, sintagma desberdinen osagai 272

—, taxu orokorra 291

—, zeregina 272

Konplementazioa 13-17

— osagaiak 17-19

Korrelazioak

— konparazioan 428

—, maila konparazioa 432

—, modu-konparazioa 430

—, zenbatusnezko konparazioa 431

Korrelaziozko perpaus erlatiboak

247-256

—, balioa 250

—, egitura 248

—, mendeko baten osagai 255

—, tokia 256

Lain 331

Lainbeste 330

Lako 387

Lango 387

Legetxe 359

Legez 297, 356

—dun perpausa, mintzagai 376

—, hurbiltze balioarekin 375

—, posposizio 373

Legezko 381

Lokabe itxurako subjuntiboak 142

Lokailua duten ondorio perpausak 453, 461

Lokailuak korrelaziozko perpaus erlatiboetan 254

Lokailurik gabeko ondorio perpaus alboratuak 463

Maila hizkia eta konparazio morfema 281

Maila konparazioa 276, 292, 294, 316-326, 389-412, 424-426, 432-438

Menderagailuak 24

Menderakuntza 5

Mintzagaiaren lekua perpaus osagarrietan 41

Modu konparazioa 277, 293, 355-389, 426-428, 430-431

Moduan 356

Nahi

— *adina / beste* 335

— *ago* 393

'Nahia' eta subjuntiboko osagarriak 137

Noiz baino noiz 407

Nola

—, *ø... nola* 427

—, adierazpen-perpausetan 77, 96

— ... *hala* 430

Non

— erresuntiboa 196

— lokailua ondorio perpausetan 449, 453

—, *zein*-erlatiboetan 229

Nor

—, aurrekaririk gabeko perpausetan 258

— *baino nor* 407

—, korrelaziozko perpaus erlatiboetan 247

Nora korrelaziozko perpaus erlatiboetan 250

Ondorio perpausak 445-464

— eta perpaus erlatiboak 459

—, *taxua* 448-453

—, *zer diren* 445

Osagai bat baino gehiago

— + *adina / beste* 346

— + *baino ...-AGO* 395, 417

— + *bezain* 322

— + *bezala / legez* 368

Osagaien ordena eta menderakuntza 8

Osagarriak, perpausak 13-158

Osagarriak, *zer diren* 13

Ote

— zehargalderetan 106

— zehargaldera zatizkoetan 115

Partitiboa + *adina / beste* 352

Partizipioa + *bezala / legez* 363

Perpaus erlatiboak 173-259

—, aposatu gibeleratuak 214, 234, 245

—, aposatuak 213, 232, 245

—, ardatza isildua dutenak 206

—, ardatzaren eskuinean 178

—, arruutak 176-218

—, arruntak aposizioan 213

—, arrunten balioa 200

—, barneko osagaien tokia 183

— eta ondorio perpausak 459

—, generikoak 208

—, izen ardatzak, nolakoak 197

—, menderagailua 177


—, metatzea 203

—, metatzea, ardatz desberdinekin 204

- , mota: adierazpena 198
- , motak 174
- , mugagarriak 200, 235
- , murrizgarriak 200, 235
- , subjektiboak 205, 218
- , subjuntiboak 199
- , tokia ardatzari buruz 178
- , zer diren 177
- Perpaus izenlagun adierazpenekoak** 146
- Perpaus jokatuak eta ezjokatuak** 21
- Perpaus osagarriak** 13-158
 - + *adina / beste* 344
 - + *bezain* 321
 - , ezaugarri orokorrak 30-45
 - , funtzio sintaktikoa 35, 92
 - , gobernatzaileak 19
 - , izenlagunak 145-158
 - , motak 21
 - , sailkapena 28
- Perpausa**
 - , osoa + *adina / beste* 333
 - , osoa + *baino ...-AGO* 391, 415
 - , osoa + *bezala / legez* 362
 - , konparazio morfemaren aurrean 305
 - , murriztua, konparazio morfemaren aurrean 306
- Predikatu konplexuak, osagarricn gobernatzaile** 51
- Proposizioak eta gertakariak, osagarri** 46-51, 79-81
- RENDAKO**
 - + *bezain* 319
 - + *bezala / legez* 366
- RENTZAKO**
 - + *adina / beste* 339
 - + *baino ...-AGO* 415
 - + *bezain* 319
 - + *bezala / legez* 366
- 'Segun' adierazten duten zehargalderak** 118
- Subjuntiboko ondorio perpausak** 458
- Subjuntiboko perpaus erlatiboak** 258
- Subjuntiboko perpaus osagarriak** 22, 28, 131-145, 155-158
 - , ezaugarriak 133
 - , izenlagunak 155
 - , menderagailua 136-145
- Superlatiboa** 309-316
 - , erlatiboa 310
 - eta konparatiboa 315
 - eta mugatzailea 314
- Testuingurua eta erlatibakuntza** 188
- TIK gora** 419
- TZEKO**
 - + *adina / beste* 339
 - + *baino ...-AGO* 392, 415
 - + *bezain* 318
 - + *bezala / legez* 365
- 'Ukan' + galde hitza**
 - , bitariko esanahia 124
 - , erlatiboa 120-124, 258-259
- Uste izan**
 - + *adina / beste* 337
 - + *baino ...-AGO* 392, 415
 - + *bezain* 318
 - + *bezala / legez* 365
 - + *-eN* perpaus osagarriak 76
- X baino X-ago** 408
- Zehar-estiloa** 30
- Zehargalderak** 28, 83-131
 - , elementuen ordena 95

- eta perpaus erlatiboak 120
- , funtzio sintaktikoa 92
- , gobernatzaileak 90
- , harridura perpaus 120
- , izenaren osagarri? 153
- , motak 88
- , nolakoak diren 83
- , orokorrak 98-115
- , 'segun' adieraziz 118
- , zatizkoak 115-131
- Zein baino zein** 407
- Zein-erlatiboak** 218-240
 - , balioa 235
 - , ezaugarriak 218
 - , gibeleratuak 234
 - , hurbileko aposizioan 23
 - , izenordainaren forma 221
 - , konplexuak 229
 - , menderagailuak 221
 - , predikatu osagarri 234
 - , tokia 232
 - , *zeina* 225
 - , *zein-en* forma 221
 - , *zein-en* kasu markak 226
- Zein-eta**, konparazio perpausetan 411, 426
- Zein (eta)**, banakaritzan 428
- Zein** korrelaziozko perpaus erlatiboetan 248
- Zeintzuk**, *zein-erlatiboetan* 224
- Zelan**
 - , adierazpen-perpaus osagarrietan 77
 - , korrelaziozko perpaus erlatiboetan 248
- Zenbat ... hainbat** 431
- Zenbat ere ... hainbat** ...-AGO 433
- Zenbat eta ...-AGO, ... hainbat ...-AGO** 433
- Zenbatasunezko konparazioa 277, 292, 295, 326-355, 412-421, 423, 431
- Zenbate(na)z**
 - ...-AGO, *hainbate(na)z* ...-AGO 433
 - ... *hainbate(na)z* 432
- Zenbatzailea + adina / beste** 348
- Zenbatzailea + baino ...-AGO** 418
- Zer**
 - , aurrekaririk gabeko perpausetan 257
 - , korrelaziozko perpaus erlatiboetan 248
- Zera**, perpaus osagarrien aurrekari 65





**“Gramatikak” bilduman
argitaratuko zerrenda:**

1. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak-I.*
2. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak-II.*
3. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak-III.
(Lokailuak).*
4. *Euskal Gramatika Laburra:
Perpau Bakuna.*
5. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak-IV.
(Juntagailuak).*
6. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak-V.
(Mendeko Perpauak-1)*



EUSKALTZAINDIA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea